MARURI-JATABE
BIZIMODUA ETA OHITURAK

FREDI PAIA

MARURI-JATABE
BIZIMODUA ETA OHITURAK

LABAYRU IKASTEGIA
MARURI-JATABEKO UDALA
BILBAO BIZKAIA KUTXA

BILBAO
2009

Azaleko irudia: Akaitze Kamiruaga

© *Argitaraldi honena:* Labayru Ikastegia - Maruri-Jatabeko Udala - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1ngoa
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S. L. L.

Lege Gordailua: BI-2538-09
ISBN: 978-84-92599-08-0

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Sarrera 15
Berbaurrea 17

I. HERRIA 23
Herriaren izena 23
Auzoak 25
Ergoien 28
Erbera 28
Billelabaso 29
Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga 30
Herria 32
Mendiak 32
Jata 32
Garaitiko mendiak 36
Ibai-errekak 36
Iturri eta iturburuak 36
Kobazulo edo leizeak 37
Zidor, estrata edo gurdibide, galtzada, kamino eta zubiak 37
Jarduera ekonomiko tradizionala 39
Populaketa sistemak 41
Eraikuntza eta azpiegitura nagusiak 42
Eskola 42
San Lorentzo eliza 43
Santa Kurtze ermita 44
Zoragetxoko San Martin ermita 45
Ortusantu edo kanposantua 46
Pilotalekuak, bolatokia eta probalekua 46
Tabernak, jantokiak, ostatua, hotela eta estankoa 47

II. ETXEA 51
Etxearen izena 53
Etxearen barruko banaketa 55

Ateak eta leihoak 58
Teilatua eta etxea egiteko materialak 59
Etxe berriak egiten direneko erituak 62
Etxearen kanpoko apaingarriak 63
Sukaldea edo suetea 64
Beheko sua edo ezkaratza 64
Sueteko garaitiko erremintak 66
Suetearekin lotutako sinesmenak 67
Altzariak eta erremintak 67
Sugarriak 70
Argia eta ura 71
Berrikuntzak: irratia 74
Etxe alboko eraikinak 74
Elizako jarlekua edo sepultura 76
Etxea babesteko animaliak eta piztia kaltegarriak ez hurreratzeko neurriak 77
Etxea babesteko erituak 78
Etxearen garbi-ikuzia 79
Etxearen jabetza 80

III. ETXEKOAK ETA ETXEKO OHITURAK 83
Etxea eta familia 83
Familia eta senidetasuna 83
Senideak elkartzeko egunak 85
Familiaren hierarkia, senitartekoak izendatzeko moduak eta hizkuntza erregistroak 87
Familiako kideen rolak 89
Belaunaldien jarraipena 91
Tronkalitatea 94
Trantsizioak 96
Testamentuak 98
Morroiak eta neskameak 99
Adopzioak: urikoak 101
Etxekoen atsedenaldia 102
Gorputzaren garbiketa 104

IV. ELIKADURA 107
Jatorduak eta euren antolaketa 107
Mahaia bedeinkatzea 110
Jatekoak 110
Arrautzak 110
Ogia 111
Fota 112
Opila 112
Pistola 113
Tremesa 113

Erritxea 114
Aurrogia edo hilogia 114
Zaperoa 114
Taloa eta drungulua edo morokila 114
Taloa 115
Drungulua edo morokila 116
Esnekiak 117
Gazta 117
Gaztanbera 120
Jaiegunetako jatekoak 120
Barau egunetako jatekoak 123
Txerrikiak 125
Edariak 128
Txakolina 129
Pepinoa 131
Infusioak 131
Tabakoa 132
Garaitiko jatekoen prestaketa eta kontserba 132
Antzinako jateko era eta bakoitzaren lekua mahaian 133

V. JANTZIAK 135
Andrezkoen arropa beharrerako 136
Buruko painelua 137
Andreen arropa jaiegunetarako 139
Gizonen arropa beharrerako 141
Txapela 142
Gizonen arropa jaiegunetarako 143
Umeen arropa 144
Oinetakoak 145
Etxean egindako arropak 147
Bogada, arropen garbi-ikuzia 151
Arropak gorde eta jagotea 153

VI. ASTIALDIA 155
Domeka eta jolasa edo dantzaldia 155
Herri-kirolak 158
Idi-probak 159
Ahari-topekak eta oilar-borrokak 160
Zaldi- eta asto-lasterketak 161
Sokatira, harri-jasotzea eta garaitiko gizonezkoen herri-kirolak . . . 162
Esku-pilota eta pelotoia 164
Ehiza eta arrantza 165
Dantza taldea, aurreskua eta jota txapelketak 166
Musika 168
Umeen olgetak 171

Olgeta eta giza-garapena 172
Umeen olgeten ezaugarri gehiago 172
Hasierako seintzarorako olgetak 173
Natura olgeta esparru legez 173
Ostentzeko olgetak 174
Salto egiteko olgetak 175
Jaurtiketa olgetak 175
Lasterketa olgetak 176
Trebetasun olgetak 177
Olgeta erritmikoak 178
Imitazio, antzezpen eta mimika olgetak 178
Hizkuntza olgetak 179
Asmatzeko olgetak 179
Etxean egineko jostailuak 179
Jostailu erosiak 180
Herriko jaietako olgetak 181
Olgeta tradizionalen krisia 181

VII. AUZUNEA 183
Sarrera: Auzunea eta auzokoa 183
Auzokoen arteko hartu-emanak 184
Beharrean elkarri laguntzea 186
Auzolana 188
Ermita eta auzoa 192
Auzo-elkarteak 193
Laguntasuna emateko modu tradizionalak 197
Herri-lurrak 198
Esparru biren arteko mugak 200
Salerosketa kontratuak. Lekua berme modura 202
Neurriak 202
Lurren luze-zabalera neurria 203
Lurrarentzako luzera neurria 203
Pisuari lotutako luzera neurriak 203
Pisuarentzako neurriak 203
Laboreentzako pisu neurriak 204
Edukiera neurriak 205
Ermandade eta sindikatuak 206
Etxerre edo suaren aurkako ermandadeak 206
Abeltzainen ermandadeak 207
Nekazari kooperatiba edo sindikatua 208
Baso pribatuen ustiakuntza 209
Komunikazio sistema: kanpaiak 211
Piztia kaltegarrien batidak 212

VIII. HERRI-MEDIKUNTZA 215
Sarrera 215

Herri-medikuntza gaur egun 216
Sintoma eta erremedio orokorrak 217
Kalentura eta asun fregazioak 217
Izurrite bidezko sukar hilgarria: *tifusa* 219
Herri-osagile edo *kuranderuk* 219
Buruko mina 221
Haginetako mina 221
Begietako gaitzak 221
Belarriko mina 222
Azaleko gaitzak 223
Arantzak eta iltzeak ateratzea 223
Azala erretzea 223
Itzebakiak 224
Azaleko infekzioa 224
Azaleko orbanak 225
Haginkada eta ziztadak 226
Odoleko gaitzak 226
Arnas aparatuko gaitz eta osabideak 227
Damistiku eta kostipedu 227
Tuberkulosia, pulmonia eta bronkioak itxita edukitzea 227
Tripako gaitzak 230
Hezurretako mina 230
Bihurkadak eta zanetena 231
Umeen gaitzak 233
Sinesmen eta herri-erlijioan oinarritutako gaitz eta osabideak 233
Begizkoena, *begizkone* 233
Osasuna eta herri-erlijioa 236
Deustuko San Felicísimo 237
Begoñako Andra Mari 237
Urkiolako San Antonio 238
Gaztelugatxeko San Juan 239

IX. JAIOTZATIK HERIOTZERA BITARTEKO OHIKUNEAK 241
Jaiotza 241
Bataioa eta elizara sartzea egitea 244
Umezaroa 247
Eskola 251
Jaunartzea eta sendotza 256
Gaztaroa 258
Ezkongaiak, ezkonsaria eta arreoa 262
Ezkontza eta ezteguak 263
Heriotza ohikuneak 271
Heriotzaren zantzuak 271
Agonia eta azken sakramentuak 272
Heriotza, gorpua etxean edukitzea eta etxekoen dolua 273

Gaubeila, *gaubela* 274
Gorpua ortusantura eroatea, anderolak eta andabideak 275
Korteju edo segizioa 276
Hileta eta gorpuari lurra ematea 278
Jarlekua, sepultura edo elizako hilobia 279
Hileta osteko bazkaria eta lutoa 281

X. HERRI EGUTEGIA 285
Sarrera 285
Domu Santu 285
San Martin 286
Neguko solstizioa: Gabon, Gabon Zahar eta Urteberri zikloa 287
San Tomas 287
Gabon-gaua eta Natibitate 288
Gabon Zahar eta Urteberri 289
Erregenak 291
Udaberriko ekinozioa 292
Kandelario 292
San Blas 293
Santa Ageda 293
San Jose 298
Basaratoste, Aratoste eta Karnabal Martitzena 298
Garizuma 300
Erramu eguna 302
Aste Santua 303
Santa Kurtze maiatzekoa 305
Errogatibak 307
Harraren eguna eta uzten bedeinkazioa 307
San Isidro 308
Asentsio eta Gorpuzti egunak 308
San Antonio 309
Udako solstizioa: San Juan 310
San Juan bezpera 310
San Juan eguna 313
San Lorentzo 315
Iraileko Andre Mari 317
Santa Kurtze irailekoa 319

XI. IKAZKINAK, ERREMENTARIAK ETA ERROTARIAK 323
Ikazkinak 323
Errementariak 326
Gurdia egitea 327
Erremintak konpontzea 331
Sutegia eta auntegia 332
Ferrak ipintzea 333

Errotariak 339
Errotaria eta errota 340
Errotarriak 341
Errotarriak pikatzea 343
Uraren bidea 345
Errotaren atalak 349
Bezeroak 350
Sikateak eta *zaharbarriunea* 351

XII. NEKAZARITZA 353
Lantzarra soro egiteko prozesua 353
Ortua eta soroa: erein eta batzen diren jeneroak 357
Lur motak 361
Zuhaitzekin egiten diren beharrak 362
Ongarriak 363
Haziak eta ziminterak 365
Txori-jagoleak 367
Belarra gordetzeko erak 368
Garia eta artoa 369
Garia 369
Artoa 372
Beharrerako abereak 374
Aldea-etxeko jeneroen salmenta 374
Mamarroak, botikak, belar eta landareen gaixoak 377
Soroko beharrei lotutako esaera eta sinesteak 378

XIII. ABELTZAINTZA ETA ARTZAINTZA 381
Abeltzaintza 381
Hazten diren espezieak 382
Espezieak sexu, adin eta egoeraren arabera 385
Gorta 385
Abereen jatekoak 388
Astoa eta aparejuak 390
Uztarria 391
Abereen gaixotasunak eta osabideak 393
Ganaduen erditzea 394
Feriak, tratanteak eta ganadu salerosketa 394
Esnearen salmenta 396
Abereak hiltzea 397
Artzaintza 399
Ardi-txabola 399
Ardien izenak, akatsak eta arrazak 399
Solaiak, arranak eta dunbak 400
Arkara sasoia eta artxoen salmenta 401
Ardi-ama hiltzea eta arkume gaitziritzia 402

Ardi-txakurra eta artzainaren erremintak 404
Ardi-lana moztu eta saltzea 405
Ardien esne batzaldia eta salmenta 406
Artzainaren egutegia eta martxa 406
Trashumantzia handia 407
Trashumantzia txikia 407
Ardiak goiko larreetara igotzea 408
Ardien gaixoak eta osabideak 409
Borda edo artegia eta eskorta 411
San juan, ardien patroia; belar berria etortzeko sua egitea eta artzainen batzarrak 412

XIV. HERRI LITERATURA 415
Bertsolariak eta testulariak 415
Bertso berriak Frantzisko Orbegozokori jarriak 416
Maitasun eta ezkontzaren gaineko esan eta kantak 420
Gerra kantak 422
Kopla zaharrak 422
Errezitatuak 424
Artolaren kanta 425

XV. MITOLOGIA 427
Sinesmenak 427
Animalien gainekoak 427
Eguraldi iragarpenari buruzkoak 431
Leku berezien gainekoak 433
Megalitoak eta altxorrak 434
Elizetako eta ermitetako eraikuntza materialak lekuz aldatzea 436
Fraidearen txakurrak edo abade kazerua 436
Pertsonaia mitologikoak 437
Iratxoak 437
Laminak 438
Jentilak 439
Sorginak 440
Anbotoko Señora eta Ama Birjinaren agerpenak 441
Aingeruak eta arimen agerpenak 442
Beste batzuk 443
Txotoporro eta deabrua 443
Papau 443
Sacamantecas 443

BIBLIOGRAFIA 445

SARRERA

Duela zenbait urte, Maruri-Jatabeko Udalak herriko euskara eta jakituria jasotzen zuen liburua argitaratu zuen Iñaki Gamideren eskutik. Pozgarria izan zen orduan horren moduko liburua argitaratu ahal izatea eta orain ere, pozgarria da herriko bizimodua, ohiturak, geure sustraiak azken finean, jasotzen dituen liburua aurkeztea.

Argitalpen honetan, orduko bizimodua gertutik ezagutzeko aukera izateaz gain, baserri lana eta bizitza, abestiak, jaiak, ohiturak eta erretratu zaharrak batu dira, baita ea ahaztuta genituen baserriko behar batzuk ere (artoarena edota errementariarena kasurako).

Teknologia berriei esker, informanteen ahotsaz aparte, euren irudiak ere DVDan grabatu ahal izan ditugu, guztion memorian eta bihotzetan betiko gordetzeko.

Bizi-bizi dagoen liburua da, gure herriko emakumeengana eta gizonengana hurbiltzen gaituena. Gure sustraiek, ohiturek, aintzineko bizimoduak, euskal hizkuntzak eta kulturak bat egiten dute argitalpen honetan, egungo garapenari zentzua emanez.

Maruri-Jatabeko Udalaren eta herriaren izenean, gustura hartu ditugu liburua eta DVDa batetik eta Labayruren beharra bestetik. Bi urtez ibili dira jo ta ke informanteengana joaten, aztarnak ikertzen eta interesgarria izan zitekeen informazio guztia batzen. Hemendik liburua ateratzeko dirulaguntza eman diguten guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu.

Askotan esan da gaurkoa ulertzeko eta horrela zergatik izan den jakiteko, atzera begiratu behar dela, zer izan garen eta nola bizi izan garen ezagutu ahal izateko.

Izan dadila beraz, liburu hau atzo eta gaurko jatabetarren arteko zubia, herriaren hizkuntza eta euskal kultura aberatsa, izaera eta nortasuna ezagutu, maitatu eta mantendu ahal izateko.

Joseba Koldo Alzaga Muruaga
Maruri-Jatabeko Alkatea

BERBAURREA

AHOZKO ONDAREAREN BILKETA ETNOGRAFIKOA

Eskutan daukazun lantxo hau 2007. urtetik 2009ra bitartean eginiko audio eta bideo bilketan oinarritua dago. Behinola On Jose Miguel Barandiaranek atondu eta argitaratu zuen galdetegia, herri-kultura eta jakintza batzea helburutzat zuena, oinarritzat hartu da horretarako, behar ziren egokitze eta moldakuntzak eginda. Jatabeko 23 berriemaile hautatu genituen lehenengo, guzti-guztiak herrian bertan jaioak. Aldi eta era berean, Labayru Ikastegiak Jatabe inguruko herrietan aurretiaz garatutako etnografi ikerketetako datuak ere erabili ditugu, Jataberi buruzkoak izan direnean. Kasuren baten, Jatabeko izeko-osaba batzuk herritik kanpora bizitzen joandako euren lobei kontaturiko zehaztasunak ere ekarri ditugu lanera. Horretara, ahalik eta bilketa sakonena egiten saiatu gara.

Metodologia aldetik, berariaz argitu beharrekoa da, Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoa, Añeka etxeetatik itsasorantz doana, batasun modura kontsideratu dugula. Aldi baten Lemoiz, Jatabe, Mungia eta Plentziaren artean banaturik zegoen auzoa. Gerora administrazio aldaketak gertatu dira, eta, gizaldietan Mungiari loturik egon den alderdia Jatabe izatera igaro da. Hor bizi diren berriemaileek auzo bakarra balitz legez berba egin digute, eta guk, geure lekukoekin leial jokatuz, halaxe islatu dugu liburuan.

Beste aukera bat ere bazegokeen: gure ikerketa egungo muga administratiboen arabera egitea. Baina hala egin izan bagenu, lekukoetariko batek esan zigun jasean, etxeak erdibitu beharrean aurkituko ginen, eta gure lekukoen bizitzari buruzko azken hamarkada biak baino ezin izango genituen batu. Hala bada, geure iritziz zuzen jokatuta, batasun modura hartu dugu Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoa.

Etnografi bilketa egin dugula diogunean, arrazoi argi bategatik diogu hori. Ahozko ondarea, edozein giza adierazpide legetxe, bere kultura ingurunean kokatu eta txertatzeko asmoaz batu dugu. Modu horrexetan bakarrik egingo zaigu ulergarri, eta etorkizunean erabilgarri, gure adinekoei jasotako guztia. Lekukoek euren bizimodua

eta ohiturak deskribatu dizkigute ahoz. Eta deskribatze ahalegin horren bidez eman digute erakustera, euren hizkuntzaren aberatsa, adierazkorra, eta Jatabeko aldea-etxeetan oraindino bizirik dagoen herri kultura oparoa.

Maritxu-talletako deritzan mamarroak bere xarma guztia edo gehiena galduko luke, seinen esne-haginekin egiten zen erituaren berri izango ez bagenu. Eta sekula ez genuke jakingo, edaterakoan irteten den *bigarren arime* zer zen, Andre Maria Irailekoaren ospakizunen gainean luze berbetan entzun izan ez bagenitu. Hara zertan datzan ingurunearen, kontestuaren garrantzia, hizkuntzaren aberastasuna ezagutzeko. Izan ere, hizkuntza ez da besterik, geure inguruneari forma logikoa emateko erabiltzen dugun bitartekoa baino.

Bihotzez eskertu gura genituzke, euren etxeetan besoak zabalik harrera gozoa egiten diguten jatabear zintzo guztiak. Gurekin izan duten eroapena eta bata bestearen ondoko itaun guztiei erantzuteko erakutsi duten patxada eta egonarria ere eskertzekoak dira zinez. Eskerrak, ez eurei bakarrik; euren seme-alabek ere kasu batzuetan izan duten prestutasuna ere txalotu gura genuke. Era horretara, euren senitartekoek gogo-bihotzetan gorderik duten altxor ederra ageriratzeko, azaleratzeko lan berdingabea egin dute.

Era berean esker ona adierazi gura diet lan honetan lagundu didaten Adolfo Arejita, Igone Etxebarria eta Akaitze Kamiruagari. Eurek eginiko oharrak, orrazketak eta zuzenketak balio handikoak izan dira.

Akabukoz, Maruri-Jatabeko Herriko Etxeari eskerrak eman gura dizkiogu, gugan ipini duen uste osoagatik. Labayru Ikastegiarentzat pozgarria izan da halako elkarlana bideratu eta burutu izana. Alde horretatik, esan daiteke ere, honako lan bat etorkizunean eman beharreko pauso berrien zutarri ere izango dela. Egia da alde batetik, liburu honek jasorik dakarrela batu dugun informazioaren zatirik handiena gerraren gainekoa izan ezik, baina bestetik ez da gezurra, ikus-entzunezko informazio asko gelditu dela DVD-tik kanpo. Ikus-entzunezko euskarriak dituen muga teknologikoek hautatze-lan zehatza egitera behartu gaituzte ezinbestean. Horrexegatik, hain zuzen, etorkizunari begira lotu dira ikusi eta entzuteko moduko hainbat altxor.

Hemen batutakoak, batzuei, heldu eta adinekooi, ezagutu duzuen lehenagoko bizimodua, eta gaztetako oroitzapenak ekarriko dizkizue gogora. Gazteoi, ostera, ia guztiz ezezaguna duzuen mundu aberatsa erakutsiko dizue. Baduzue bada, zer ikasi, eta geroan zer irakatsi ere.

Fredi Paia Ruiz
Labayru Ikastegiko Etnografia Saila

INFORMANTEAK

Zuoi, beharronen benetako egile eta protagonista zareten guztioi, herri ondarea eta hizkuntza horren polito gordetzen jakin duzuelako, eta gure galderei sosegu handiz eta umore onez erantzun diezuelako, eskerrik asko bihotzez.

1. Milagros Agirre (1920)
2. Bonifazio Alzaga (1930)
3. Pantxike Alzaga (1925) (†)
4. Jose Amezaga (1928)
5. Ana Andraka (1921)
6. Patxito Arrieta (1926)
7. Pilar Askazibar (1929)
8. Abentino Barandiaran (1938)
9. Agustin Barandiaran (1938)
10. Juanita Barandiaran (1942)
11. Fernando Egia (1930)
12. Ines Egia (1935)
13. Jose Luis Elordui (1949)
14. Floren Etxebarria (1931)
15. Kontxi Iturriaga (1937)
16. Vicente Landa (1931)
17. Felisa Larrazabal (1920)
18. Milagros Larrazabal (1939)
19. Jesus Lopategi (1933)
20. Juan Oleaga (1928)
21. Anastasia Renteria (1931)
22. Tomas Sarria (1920)
23. Maria Ugarte (1924)
24. Felix Urresti (1927)

Era berean eskerrak eman gura dizkiegu argazki zaharrak utzi dizkiguten:

Salus Arkotxa eta Mari Angeles Larrazabal, Kontxi Iturriaga eta Agustin Barandiaran, Felisa Larrazabal, Juan Oleaga, Dolores Muruaga, Ana Elorriaga eta Josu Agirre, Gema Larrazabal, Milagros Larrazabal, Daniel eta Alazne Agirre, Iris Patxo, Maribi Egia, Leire Laraudogoitia eta Iker Plazari.

Amaitzeko argazkietan agertzen direnak identifikatzen lagundu diguzuen guztioi gure esker ona agertu gura dizuegu; batez ere María Fernández, Maribi Egia, eta udaleko langile guztioi. Eskerrik asko bihotzez.

MARURI - JATABE

LABAYRU IKASTEGIA
Etnografiko Saila

I
HERRIA

HERRIAREN IZENA

Maruri-Jatabe da ikergai izan dugun herriaren izen ofiziala. Horren aurrean, Jatabe izena da bertako biztanleek ahoz, euskaraz, egunean-egunean erabiltzen dutena. Jatabe deitzen dio herri euskaldunak bere buruari, eta lekukoek argitasun handiz lotzen dute izena herriaren kokaleku geografikoarekin. Hau da, Jata mendiaren azpian egoteak ekarri duela Jatabe izena. Jatabe izena euskarazkoa da eta Maruri

Elizondoko ikuspegia Garaitik, 1960.

erdarazkoa, hara lekuko gehienen artean ematen den ohiko erantzuna. Kostaldean (Plentzia, Gorliz eta Lemoiz) Jatabe izena erabiliagoa dela ere badiote, eta Mungian, ostera, Maruri esaten diotela euren herriari. Oro har, jatabearrek Maruri izenari kategoria maila handiagoa ematen diote, erdarazkoa berau dela eta. Maruri jotzen dute, beraz, izen ofizialtzat, eta baita izenik zaharrentzat ere; Jatabe izena agiri-artxiboetan ez ei da ageri. Erdaraz dabiltzanean, edo eremu ofizialeko zereginetan, Maruri izena darabiltzatela onartzen dute gehienek; gutunazaletan, kasurako, izen hori agertu izan da beti.

Maruri izena bertan eraikitako lehenengo etxeak eman ei zion herriari. *Maruri-nagosi* edo Marurizarra esaten zioten eta eliza baino beheratxoago zegoen. Etxe handia eta baxua zen hura; gero bota egin zuten eta gaur txaletak daude lehengoa zegoen leku berean. Etxearen ondoan, gainean gurutzea ipinita zeukan harritzar bat zegoen geroago azalduko dugun moduan, funtzio erlijioso garrantzitsua bete izan duena aurreko mendera arte. Marurizarraren ondoan Maruritxikerra izeneko etxea zegoen, eta gaur egun ere badago, berriturik egon ere. Etxe biok auzune egin dute paraje hori, lekukoek Maruri auzoa esaten diote-eta eliz azpiko arlo horri.

> «Euskeras Yatabe. Gu(k) peti esan du euskera Yatabe, baia esta iñon topaten seguru. Yatabe es i da topetan... Es ke Yatabe etor ber dau, Yatan bean dauleko, se Yata or dau, Yata pe..., Yatan bean. Ori errasoi gure deude, baia esin topa i da. *Ezin topau dokumentuetan?* Se Maruri..., aitxik

Ezkerretik: Mª Angeles Larrazabal, Mª Pilar Agirre, Juanita Etxebarria, Feliciana Agirre, Benita Larrazabal (atzean), Madalena Agirre, Amelia, Francisca Agirre, Agustin Etxebarria eta Francisco Agirre. Makurtuta: Santiago Belaustegigoitia eta Alejandro Elortegi. Maruritxikin, 1953ko abuztuaren 23an.

on dire emen etzek Maruri, te barrio bere egon da Maruri. (...) Ai(k) tire Maruri etzek (...), ta a etze ixen i da Yataben sarrena, Marurisarra esaten dakona, ta beste Maruritxiki. Ta aik ixen i dire sarrenak. Ta gero nik estai pa... Kostan esaten dotze Jatabe beti, baia Mungiñ iños beres. *Mungian zelan esaten deutsie?* Mungin Maruri. Eta berau Maruri ixen ber dau ixetes, baia oiñ imintxen da Maruri-Jatabe. *Eta zuen gurasoak zelan esaten izan deutsie?* Yatabe beti, euskeras pentza beres Maruri esan ber dala. Baia erderas iñ eskero Maruri, *soy de Maruri.*»

* * *

«Guk euskera Yatabe beti, ta erdera Maruri. Kartak-eta one(k) be beti Maruriñ isenen etor dire. *Maruri etxe baten izena bere bada, ezta?* Bai, Marurisarra or o(n) san estanko esate'akona, Maruri a san. A ixau san Yataben fundasiño antzeko etze. Es tximiñerik es balkoi, eser esaun euki ak. Etze andi bet, baju-baju san. A bota i'eden orre(k) txaletak itteko. (...) Nik pentzat'ot etze sarrenatariko a ixau sala Yataben. Ta Maruri isena euken berak, ta gero albokok Maruritxikerra euken imintte, baia a barriau san.»

Maruri izenaren jatorriaren inguruan zenbait uste batu ditugu. Berriemaile batzuen arabera, antzinako gerlariren baten izenetik datorkioke izena etxeari. Lehenagoko sasoietan lekuei izena gerlariek ematen zieten ustea zabalduta dago. Billelabaso auzoan ere, geroago ikusiko dugun bezala, uste bera jaso dugu. Mahastien ugaritasunetik eratorriko izena izan litekeela esaten dute beste batzuek. Mahats-ereitea herriaren izena baino askoz berriagoa izan litekeen arren, lekuko batzuen iritziz. Azkenik, eta izenaren nondik-norako sarritan lausoegiekin amaitzeko, Lemoizen urte luzez abade egoniko Jose Antonio Oar-Artetaren *Zaar-Barri* liburua aipatu gura dugu. Bertan irakur liteke zelan 1948an, Gernikako Lizeo antzokian, Juan Gorostiaga euskaltzainak Marurik *Moro-uri* esan nahi duela adierazi zuen[1]. Horren ondoren Jatabeko herritarren ohituren analisi kritikoa egiten du abade ajangiztarrak, ez omen zirelako elizak agindutakoari egokitzen. Hipotesi horren haritik doala uste dugu, Koldo Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vasca*n hitz horri buruz egin zuen azterlana ere. Izan ere, bertan ageri da, 'mairu'[2] esateko, Bizkaian antzina erabiltzen zen berba 'mauru' zela, latineko 'maurus' berbatik eratorria[3]. Beude, oraingoz, hipotesiok.

AUZOAK

Elkarrizketatutako emakume eta gizonik gehienen arabera, Jatabe herriak alderdi nagusi bi izan ditu betirik: Ergoien eta Erbera. Alderdi bi horien arteko muga natu-

---

[1] OAR-ARTETA, Jose Antonio. *Zaar-barri*. Bilbao, 1991, 139. or.

[2] Mairu berba jentil berbaren sinonimoa da.

[3] MITXELENA, Koldo. *Fonética Histórica Vasca*. Donostia, 1976, 91. or.

Ergoien, 2008.

rala da, errekak egiten duena, Zubiaurre edo *Fernandone* etxe ondotik igarotzen den Añeka errekak, hain zuzen ere. Zubiaurretik Mungia eta Markaidetarantz Ergoien alderdia litzateke, beste guztia Erbera. Lur-zati bion arteko banaketa udaletxetik elizara doan errepidea erabiliz egin izan zen garai baten. Hori ez da banaketa zuzena lekuko zaharrenen iritziz; baina aitortzen dute elizako bidetik Markaidetarantz Ergoien eta beste guztiari Erbera deitzeko joera zabaldu zela sasoi baten, gaztetxoen artean batez ere. Hala, eliza bera ere Erberakoa zela aldarrikatzen zuten azkeneko alderdi honetakoek. Bada, era berean, bien arteko beste banaketa bat ere, Astintzako bidegurutzetik alde batera eta bestera egiten duena. Baina errekaren bidezko banaketa ei da artezena. Batekoa zein bestekoa izan, alderdi bion arteko banaketak eragin itzela izan du jatabearren eguneroko bizimoduan, eguneroko jardunean.

Behin Jatabe Ergoien eta Erbera alderdietan banaturik dagoela jakinda, goazen Erbera bera zehero aztertzen, biotarik alderdirik bereziena da eta.

Erberari izaera handi-handiko auzo bi dagozkio: Billelabaso eta Goieta. Hainbat berriemailek bitan barik, lau zatitan banatu izan dute herria. Billelabaso eta Goietari Ergoien zein Erberari adinako pisua eman dio. Billelabasoko biztanle askok Erberakotzat dituzte euren buruak; Goietan, berriz, aurrerago azalduko ditugun gorabehera historiko eta administratiboen ondorioz ziurrenik, Erberakoak izatearen kontzientzia makalagoa da. Azkenean, berriemailerik gehienek Billelabaso eta Goieta

Erbera barruan sartzen dituztela eta, lan honetan ere horixe berori adieraztea erabaki dugu guk. Egin dezagun, halere, hurrengo zehetasun hau. Erberako auzune ezberdinen artean, Billelabaso-Goieta eta ibarreko Erberako zatia bereizi behar ditugu, orografiatik hasita diferentzia nabarmenak daudelako. Akabuan Ergoien ez den gainerako guztiari izen berarekin deitzeko modua dute Erbera. Billelabaso eta Goieta herrigunetik kanpora daude, nortasun handiko auzoak dira. Bigarrenak, esate baterako, izen bat baino gehiago hartu izan ditu historian zehar; ezberdin esaten izan diote deitzailearen jatorriaren zein egokitu zaion barruti administratiboaren arabera.

Etnografikoki ez dago alde makala Jata eta Goikomendi mendietako bizkarretan bizi direnen –Billelabaso, Goieta eta inguruko zenbait etxe– eta ibarrean bizi direnen artean –Ergoien osoa eta Erberako zati eder bat–. Ekonomia ereduari ez ezik, beste hainbat ezaugarriri eragiten dien ezberdintasun hau atalka aztertuko dugu.

Auzoaren kontzeptua, belaunaldirik belaunaldi, aldatuz joan den ideia da. Izenerro bereko etxe-multzoa da elkarrizketatu ditugun jatabearrentzat oinarrizko auzunea. Konturako, Garaitakoa dela esango du Garaibeko aldea-etxean bizi denak; gero Ergoiengoa dela esango du eta akabuan Jatabekoa. Norbere etxea, etxe-izen bereko auzunea, auzoa edo alderdia, eta akabuan herria, horixe da Jatabeko biztanleek nongoak diren azaltzeko darabiltzaten modua: Ataunebekoa, edo *San Andresinbekoa*, *Ataunek*, Goieta eta Jatabe, haor beste adibide bat. Adibide horretan kontuan hartzeko modukoa da, *Goieta* ibarrekoek Añekatik gorakoei deitzen dietela; baina, goietarrek gehienbat ez dute izen hori erabiltzen euren alderdia izendatzeko, ibarrekoek hala egiten dutela jakin arren ere. Bertakotasuna azaltzeko etxetik hasi eta herrira arteko azpisail ereduak, herriaren beraren egituratze prozesuari buruzko ezinbesteko informazioa ematen digu. Batez ere, beste atal baten ikusiko dugun lez, komunitateak kolektiboki aurre egin beharreko auzolanei erantzuteko orduan. Egituraketa tradizional hori ageri-agerian geratuko da horiek lanok jorratzen ditugunean.

> «Ta gero Yataben ixen san, distingitten giñen, Ergoien ta Erbera (...). Kamiñotik onantza Ergoienekok ixeten siren, ori gure ixete euden, olan esaten gendun ta esaten san. Baia ori es i da olan. Se begakok gure ixete euden, elixako kamiñoti berantza, elixe eurena dala, ta Erbera dala. (...) *Eta non dago bien arteko mugea?* Errekek ebaten dau. Katike bere bai, se Katike kolindaten dau Yatabegas, ba orrek ibaik ebaten dau. Ori da Isuskitzara don ibai, orrek ebaten dau Katike ta Yatabe. (...) *Zeintzuk dira Jatabeko auzoak?* Ba orixe, Erdigune, Saburdi, Elortegi, Kurtzegane, Elixalde Kurtzegana igol ixengo da, eta Sakalde andikalden arantza dosenak. Baia iñok olan estittu... bertokok olan ulertuten, guk baserrikaittik sertzen gara. *Eta zeuek zelan egiten dozue, ba? Honeek izenok barriak dira?* Bai, orre(k) barri(k) tire. Sakalde bai, baso ba(t) tau, ta bason ixena imin'tzea ari barriori, eta Kurtzegane da au menditxu, emen okalitukes daun menditxu, emen etzen kontra-kontran dauna, ta emen kamiñon asi ta arantza Kurtzegane dire, ta gure esate baterako Erdigune. Orko kamiño, gora in daun kamiñotik, onantzeko gustiek, arik eta Yandurirarte, Erdigune da, ori bege gusti bere bai, kamiñok ebaten dau. (...) Ta gero dau Elortegi, se

Elortegin dau baserri bet. (...) Ta len ixete san..., baserriñ ixenatatik len ibiltte(n) giñen, se edosein baserri esan eta badakit non daun, baia ya oiñ onekas barriokas ba ondiño... Gaminddek bere etzek ixen dire, baserriñ ixena, ta oiñ ai(k) pere Saburdi ixengo dire igual, Unibaso Saburdi ixen ber dau (...) Ta au Garai barrio ixen da. Ta ori ixen da Sabale barrio, Elixalde barrio...»

Ergoien

Añeka errekak Zubiaurre etxean egiten duen mugatik Mungia eta Markaidetarantz dagoen lur-eremua hartzen du Ergoien alderdiak. Udaletxe edo Herriko Etxea –jatabearrek euskaraz beti esan dioten moduan–, eliza, probalekua, tabernak..., herriko azpiegitura nagusiak bere barruan hartzen ditu. Horrekin batera, hamarkada luzeetan zehar baita herriko osagile, abade, alkate, errementari... eta ogibide ondoen ordainduetako profesionalak ere bai. Herriko erdigune politiko, sozial eta ekonomikoa izan da Ergoien, Jatabe barruan. Bereak ditu, betiere edadeko lekukoek erabiltzen duten izendegiari jarraiturik, eta Añeka errekatik Mungiarako norabidean: Gasmuri auzunea –Gasmuri izeneko hiru etxeak eta Txantela, Zubiaurre, Txikitona, Txarakana... Aipatutako etxe batzuk errekaren Erberako aldean egonda ere Ergoiengotzat hartzen ditu herriak–, Zabala *(Zabalek)*, Elizalde *(Elexalde)*, Kurtzegana *(Kurtzegane)*, Garai (*Garaik)*, Larreta *(Larrata)*, Elortegi *(Elortegik)*, Unibaso *(Iñebasok)*, Ianduri *(Iandurik)*, Gaminde *(Gaminddek)*... Horixe edadeko lekukoek Ergoiengo auzo edo *barriok* izendatzeko era. Erro bereko izena duten etxe-multzoak dira unitatetzat jotzen dituztenak. Egungo Jatabeko banaketa administratiboa aintzat hartuta, Ergoien auzoak bere baitan hartuko lituzke: Ibarrako zati bat –lehenago Gasmuri auzoa deitu diogunetik elizalderantz doana–, Sakalden Añeka errekatik elizalderanzko arloa, Kurtzegana, Erdigune, Larreta, Ianduri, Elortegi eta Saburdi. Halere, Ibarra auzoan bizi direnei '*begakok'* deritzete sarritan, 'ibarrekoak', alegia. Ergoien ala Erberako aldearen gainean berbaz dabiltzan zehaztu barik, aparteko nortasuna ematen zaie ibarrekoei.

Erbera

Añeka errekak Zubiaurre edo *Fernandone* etxean egiten duen mugatik, Lemoiz eta Gatikako mugetara arte zabaltzen den lur-eremua da Erbera alderdia. Barruan hartzen ditu Billelabaso eta Goieta auzoak. Auzo bi horiek nortasun handikoak direnez, azalpen-ataltxo bana emango diegu. Añeka etxeetatik behera Jule, Mardaz *(Mardatxek)*, Astintza *(Astintzek)*, Abaro *(Abarok)*, Sustatxa *(Utxek)*, Arrutze *(Arrutzek)*, Ugarte *(Uertek)*, Oleaga *(Oleak)*, Urretxua *(Urretxuk)* eta auzune-izaterik ez duten zonalde bereko etxeek osatzen dute Erberako beheko aldea, ibar inguruko lurretan dauden etxeek, hartan ere. Bereizirik erakutsiko ditugun beste auzo biak mendi-bizkarretan eraikiak dira, Billelabaso zeharrune baten agertzen bada ere. Asteintzako bidegurutzea topaleku garrantzitsua izan da Jatabeko herrian, geroago ikusiko dugun moduan.

Asteintza baserria, Erbera auzoan, 2008.

Billelabaso

Berriemaileen ustez, gerlariak izan ziren auzo honetako lehenengo biztanleak. Mungiako Billela dorreko jabetzakoak ziren basoez osatutako ingurua zen Billelabaso antzina. Eta izenean nabarmen iragartzen zaio bere iragana, eta bere jarduera ekonomiko tradizionala: basoen ustiakuntza. Edadeko jatabearrek gomutan gordetzen dute lehenagoko denboretan borrokan ibili zirela Butroiko jauna eta Billelako dorrekoak. Euren borroka zelaia Jatabe izaten ei zen. Beraz, Erdi Aroko jatorridun auzoa ei da Billelabaso.

Paraje sikua ei da, ur gutxikoa. Jule mendia igarota dugu hango etxegunea. Kaminoaren alde bietan elkarrengandik nahiko hur dauden aldea-etxeek osatzen dute: Goikoetxea *(Goskotze)*, Bekoetxea *(Beskotze)*, Aurrekoetxea *(Aurrekotze)*... Elkarrengandik hurbil eraikitako etxeek herritxo itxura ematen diote Billelabasori. Juletik datorren bidea jarraituta, Unpara baserrietara *(Unparak)* helduko gara, behin Billelabaso igaro eta gero. Zaharren esanetan, azkeneko etxe hauek ez dira Billelabaso auzokoak.



Billelabaso auzoa, 2008.

Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga

Añeka etxeak baino gorago, Unpara etxeak barne hartuta eta itsasora arte dagoen lur-eremuari deitzen zaio Goieta. Jata eta Goikomendi arteko bizkarretan ageri diren etxeek osatua da. Administratiboki, Jatabek Lemoizekin muga egiten duen Txatximintxa auzuneko bide-bazterreko mugarriraino zabaltzen da. Ikazkin eta artzainek sortutako auzoa da, bertako biztanleen hitzetatik. Sasoi baten langintza bi horietan eta karobietan zebiltzan gipuzkoar ugari hartu zituen auzoak. Ibarreko edo beheko aldeko etxeek basoak zeuzkaten Goietan –eta askok oraindino ere badauzkate–. Egur, ote eta ira bila igo izan dira Goietara euren gurdiekin ibarreko biztanleak gizaldietan zehar.

«Badatoz, badatoz goietarrak beherantza» esaten ei zieten herrigunera, Asteintzako bidegurutzera jaisten zirenean. Oinetakoak janzteko eta abarkak euren etxean gordetzeko baimena ematen zien Bidekurtzio etxeko gizonak horrela agurtzen zituen, esaterako. Herrigunekoek Añeka etxeetatik gorako mendi-bizkarretan bizi direnei irizteko izen generikoa da Goieta. Baina bertako auzoko biztanleek ez dituzte euren buruak izen horren bidez aurkezten, nahiz eta izendapen hori onartu ere egin.

Ahaztu barik izan dezagun Goieta auzoko zati bat Mungiako udalerrikoa izan dela administrazio-kontuetan, bertako zentral nuklearreko gorabeheren ostean Jatabe izatera igaro zen arte. Mungigorta edo Mungierrota etxea da horren seinalerik argiena, baina izenak adierazten duenaz gainera, mugarri edo *munarri* handi bat

zegoen etxea bera banatzen zuena. Bertako gizonak esaten zuen seguru, Mungian afaldu eta Jataben egiten zuela lo, etxetik irten barik. Beste etxe batzuk elizaz Lemoiz izan dira, Unpara etxeak esaterako. Gerraosteko errazionamendua ere Armintzatik hartzen zuten Ataune etxeetakoek. Beraz, egun Lemoiz eta Jatabe artean, eta antzina Mungia, Jatabe, Lemoiz eta Plentzia artean banatuta zegoen eremu hau –lau herriek mugarri bakarrean egiten zuten muga–. Errealitate administratibo ezberdinak izan arren, osotasun etnografiko eta egitura sozial bakarra osatzen dute Añeka etxeetatik gora eta Unpara etxeetatik gora (eurak barruan direla) itsasora arte dauden etxe eta auzuneek. Basordaportu zen, lekukoen esanetan, deskribatu berri dugun parajeari esateko ezagutu duten izenik zaharrena. Izen horrekin heltzen zitzaizkien gutunak eta era horretan aurkezten ziren zeregin administratiboak zituztenean. Guztiek azpimarratzen dute, hari beretik, inguruari izena ematen zion Basorda kala ez dela sekula ere itsas portua izan, eurek dakitela behintzat.

Basordaportu izenarekin batera Marutxeaga *(Marutxaga)* izena hartu zuen eremu honek administratiboki. Mungian euren auzoari horrela esaten zitzaion eta orain ere horrela aurkezten dira bertakoak udalerri horretan. Marutxeaga izenak antzinako sustraiak ditu. Egun Lemoiz den Sarakotxe auzuneko etxe baten izena izateaz gainera *(Martxe)*, 1854 data dakarren harri landua dago baserrietxe horretako atariaren ekialdeko horman. Bertan *«Apeo del Vínculo de Maruseaga»* idatzirik dago, auzotasuna aztertzean ikusiko dugun moduan, administrazioaren ikuspuntutik esanguratsua dena eta antzinatasun handia ematen diona Marutxeagari.

Metodologiaren ikuspuntutik, Goietako biztanleen bizimodu, ohiturak eta izaera ulertzeko, akats larria izango litzateke administratiboki Lemoiz diren etxeetatik bereiztea Jatabe direnak. Beraz, batasun etnografikoa erakusten duen auzoari tratamendu bateratua emango diogu. Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga euren osotasunean hartuko ditugu.

Inguru menditsu honetan dauka indarrik handiena erro bereko izena duten etxeak auzotzat hartzeko ohiturak. *Txatximintxek, Ataunek, Unparak, Sarakotxek, Portumek...* dira Goieta auzoko oinarrizko auzune edo egitura kolektiboak. Gero, eurotatik norbera zeinetakoa den adierazi eta ostean, etxeak berak definitzen du norbere azkeneko jatorria. Ibarrean ikus daitekeen egituratze berak indar berezia dauka Goietan, eta urruna begitantzen zaie beste edozein izendapen; kanpotik etorritakoa deritzote, oro har.

> «Onek lelau-lelau euki i aun ixena *barrio Basordas*, Basordaportu orreri gaittute'otzen, baia porturik iños esta egon. Basordaportu, eta gero estai(t) nondi(k) kanbia eutzen *barrio Marutxagas*. Eta ontxe bere nire yaietetze (Txatximintxa) oin da *barrio Arminza*, Lemois da baia. Txatximintxe da *barrio Arminza* imin(i) dotzie orreri, Lemuxera pertenesitzen dau. Eta Yataben oraintzurarten egon dire barrio bi: barrio Erbera ta barrio Ergoien, eta imintxe'otzen ori ixena, ameti bera erreka ba(t) to; ta errekas arantza dosenari danari Ergoien, ta errekas onantza dosenari, danari Erbera. Ta neuri bere lelengo Yatabera pasa eustenen, barrio Erbera imi'osten, ta oin bere karta askotan etorten da barrio Erbera. Eta gero ori ondo iñeko gause, ba..., se Yatabe asko aumenta da, eta aumentakeran oin barrio

asko imin(i) dittue. Ta selan ixenak imingo ete'tzesan pentzaten, ta beti oneri Goieta, se guri esate oskuen Yatabera etorte gintzesenen, or bean egoten sirenak: "Badatos, badatos goietarrak berantza".»

HERRIA

Jatabeko herriak ez du industrializazio prozesu sakonik ezagutu. Ondorioz, nekazal herriari dagokion paisaia ikus genezake. Abelazkuntzaren beherakadak eta basogintzaren gorakadak ekarri dute paisaia-aldaketarik nabarmenena, etxegintzarekin batera. Lehenago ganaduek garbitu egiten zituzten larre eta mendi asko; orain sasiak janda daude. Bestetik, lehenagoko otadien lekuan pinua sartzen hasi ziren, eta gerora eukaliptoa. Baina aldaketa hauek gorabehera, eta geroz eta ugariagoak diren txalet lako eraikuntzak ere ahaztu barik, Jataben azkeneko 50 urteetan izan den paisaia-aldaketa ez da hain zakarra izan, bere inguruko zenbait herrirekin alderatuta, behintzat, Mungiarekin, konturako.

Mendiak

Jata

Herriaren izenak ondo adierazten duenez, Jata da Jatabeko mendi nagusia. 600 metroko garaiera dauka bere tontor nagusiak, *Jatanagosiak*. Elizatik irteten da Jata mendia igotzeko Jatabeko bidea, antzinako bide zaharra, eta handik Bakioko Belategiko landara arteko bide-zatian dauden lekuak eta bere izenak aipatuko ditugu jarraian. Elespuru baserria elizaren gaineko aldean dago, Kurtzeganarantz joanda; Talleburu eta *Sabinone* etxeak igarota helduko gara. Antzinako sasoietan gurdibidea zen egun pista bihurtutakoa. Gurdibideaz gainera, bidezidorrak ere izaten ziren; eskolatik etxera bide horietatik joan behar izaten zuten umeek arinago egiteko. Jatako bizkarrean jaiotako berriemaile batek jakinarazi zigun moduan, otez beterik egon da orain hamarkada batzuk arte inguru hori. Haritz bat zen elizatik Kurtzeganarako bitartean zegoen zuhaitz bakarra. Behi eta zaldiak botatzen zituzten inguru horretara. Mungiako Torrontegi baserrietxeetara irteten zen hango bidea, Alegri baserritik igarota. Baina Jatarantz eginda, Landatxuetara helduko gara; bertan Alegri eta Talleburu etxeetako soroak egoten ziren, eta apur bat aurrerago, Errotatxuko basoaren gainean, pinuak izan dira beti lekukoen memorian. Gurdibide zaharretik Jatarantz berriro eginda, Jatabaso izeneko eremuan sartuko gara. Bertan oraindino aurki liteke antzina erratzak edo eskobak egiteko hain estimatua zen ginarra-landarea. Santakurtze mendira igotzeko bidea ikusiko dugu laster. Jatabe aldeko Santakurtzeko bizkarrean pinuak banakak baino ez dira izan; beste aldean, ostera, pinu-basoa izan da dena. Lehen soro izandakoak dira Jatako bizkarreko lur asko eta asko; laian egiten zen euretan. Lehenago *Askabittutik* Ataune etxeak ikustea gauza erraza zen; orain, berriz, eukaliptoek estaltzen dute paisaiaren zati galanta.

Egun, ostera, eukalipto-basoak daude antzina laiatuta egoniko lurretan. Egin dugun bidetik etortzen ziren prozesioan Santa Kurtze egunez lehenagoko jatabea-

Rufino Agirre abadea bere lobekin Jatako puntan, c. 1949-1950.

rrak. Herri egutegia aztertzerakoan jorratuko dugu gai hori behar den moduan. Santakurtzeko landan Alegri etxeko soroak zeuden. Eta Santakurtzeko gurutzetik Jatanagusirantz hirurehun metro gora eginda *Lauziriko landa* dago; txanpon zahar baten izena darama, lekukoek diotenetik. Landa horretan Plentziarako ur-hodiak eta ur-depositua zeuden.

Santakurtzera igotzeko bidea laga eta aurrera joz gero, *Askabittuko* trokara ailegatuko gara. Bertan ia ehun urteko gurbiztia dago, inork erein barik berez datorrena. Baina gurbiztiak hartzen ez duen eremuan otea zegoen lehenago. Egun, Jata gehienean lez, eukaliptoa sartuta dago.

Egungo pista baino goragotik joaten zen lehen oinezkoen bidea. Gauden lekutik behera dagoen trokan Garaizar errota dago, eta hara doan bidea ona da gaur egun ere. Azpimarratzekoa da euriek, urteen podasuz, gogor kaltetu dutela elizatik *Gauone* baserrira doan pista.

Badira oraindik ere ardi-txabola eta eskorta batzuk, baina horien gaineko zehaztasunak artzaintzari dagokion atalean emango ditugu.

Askabittutik Txatximintxa auzunea ikus liteke, baita Unparagoikoa etxea ere. Eukaliptoengatik ez balitz Ataune baserrietxeak ere ondo ikusiko lirateke. Ataune etxeen gainean Aspuru tontorra dago eta apur bat aurrerago, *Gardubi* izeneko beste gailurtxo bat. Eskumatarago arean eginda, *Askabittutik* begiratuta, Azulatxe tro-

ka itzela dugu. Errekak markatzen du bere hasiera eta harrobia zegoen lehenagoko garaietan. Azulatxe aurreko arroa –bai bata zein bestea errekek egindako sakonuneak dira eta–, Zaldizuriko troka da. Zaldizuri baino itsasorago –elizatik datorren pistatik artezean– eta goratxoago, Markinaresti deritzon ingurunea dago, Azulatxe gainean.

Askabittuko bizkarretik bertatik Jatatxikerreko gaina dugu begien aurrez aurre, eta atzerago Jatanagusikoa. Jatako tontor inguruan zeharrune handia dago. Jatabe aldeko gainari Udola esaten zaio. Egun tontorreko bola zuria dagoen lekuaren albotik, ura irteten zen lehen. Armintzarako ura handixe hartzen zuten eta urtero garbitu behar izaten zen belarrok iturburua estal ez zezaten. Jatanagusiko gaina zorrotza da, bestea ez horrenbestean. Tontor nagusiaren beste alderdiari, Zumetzagako San Migel ermitarantz jaisten denari, Arrizurieta esaten zaio. Alderdi horretan landutako errotarriak egoten zirela diote berriemaileek. Jatako tontor nagusi bien arteko lepoari *Jatabinerdi* deritzo, Jata bien erdia, alegia. Jatako landa dauka izena bertan dagoen zeharruneak, eta apur bat beherago haltzak ziren lehen. Jata bien erdia baino beherago dagoen ibarrari *Amestiko sakata* esaten diote. Ardiak ibiltzen ziren ibar horretan egun sargoritsuetan, ugariak ziren ira-abaro bila. Iturburu asko dago han eta ur-depositua egon izan dira Plentziara ura eroateko. Bertakoek estimazio handian dute *Amestiko sakata* ibar emankor hori.

Askabittuko bizkarretik elizatik datorren pista jarraituz gero, Zaldizuriko trokara igaroko gara. Pistatik gora dauden lursailek Jatabaso herri-basoa osatzen dute. Pistatik beherakoak norbanakoen arloak dira.

Zaldizurira sartu eta apur bat aurrerago dagoen sail bati *Isidron komune* esaten diote bertakoek. Goikomendi, Kukutza eta Kabeliña mendiak ikusten dira ederto baten handik. Hots, Jatabe eta Lemoizen arteko muga egiten duten mendiak. Jatan eta bere aurreko mendietan 1936ko gerrarako prestatutako lubakien arrastoak ugari dira.

Zaldizuri trokaren aurrez aurre dagoen Unparatik, Txatximintxetara zihoan Andrakatik Armintzarako bide zaharra. Goietako biztanleek sarritan erabiltzen zuten hori bideori, besterik ez zegoen eta. Txiboko landa gurutzatu, oinetakoak erantzi eta lepotik dingilizka zituztela joaten ziren Lemoizeko Urizar nahiz Armintzara. Auzo bakoitzera joateko bide bana zegoen, eta egon dago egun ere, erdi itxita baina.

Zaldizuritik bertatik irteten da Santakurtzeko landara joateko beste bide bat. Oinbide zaharretik etortzen ziren markaidarrak Basordarako bidean, lapa bila. *Bitturi* menditxoa dago Zaldizuri gainean eta apur bat aurrerago *Elorritxuko gana*.

Egun otea amaitu eta eukaliptoa sartuta dagoen lekuan hasten ziren Zaldizuriko Harriak. Bidetik 50 bat metrora behera eginda daude, ilaran ipinita. Lurretik metro eta erdi gora altxatzen dira harriok eta zabalera bera dute, laukidun formaz. Zaldizuri troka osoa ixten duen harresia eurok egina da. Harresi erdian ate antzeko bat dago, eta basoko piztiak, ardiak eta behorrak hortik igarotzen izan dira. Lurrean ondo sakon inkatutako harriak dira. Lekukoen esanetan, Zaldizuriko Harriek gizon askoren artean ipiniak izan behar dute. Mugarri funtzioa izango zutela diote ingurukoek. Baina argi adierazten dute harriok ez daukatela eskortekin inolako zerikusirik, Zaldizurin eskortarik ez dutela-eta ezagutu.

Ataunetara aurreratxoago eginda, Markaidetara edo Larraurira jaisteko bidea dago. Azulatxetik jaisten da bidea.

Pistatik aurrera, Markinarestira helduko gara. Bertan haritzak eta sagarrondoak, *sagarrak,* zeuden lehenagoko sasoietan. Abereak hara joaten ziren uretan. Bertatik Elorritxuko tontorrera doan bidea hasten da. Behin tontor horretara helduta, bideak Jata bien erdirantz jarraitzen du.

Markinarestitik aurrera joanda, Aspuru joko dugu, Ataunegoikoa edo *San Andresgoikoa* etxea egon zen lekua. Bertan beherantz eginda, Ataunetara jaitsiko gara eta ostean gorantz eginik, Jata bien erdira. *Bidegorri* esaten diote bertakoek gorantz doan bideari; *Amestiko sakatara* eramango gaitu bide horrek artezean, eta ezkerretara eginez gero, *Arrizabale* megalitoa ikusiko dugu. Jatatxikerra baino beherago dago eta indusmakinekin bere lekutik altxatu aurretik, hiru metro inguruko altuera eta horrenbesteko zabalera zeukan *Arrizabalek*. Zutunik ezagutu zutenek esana da bera zutela ekaitz eta afruntuetan lehorra. Lurzati bertsuan *Arriluze* megalitoa dago, *Arrizabale* baino arean beherago, eta horrexek ematen dio izena ingurune guztiari ere. Gure arbasoen ondare diren historia aurreko eraikin bi horiei jazotako gorabeherak mitologiari buruzko atalean zehaztuko ditugu.

Mendi harritsua izan da beti Jata. Tontor inguruko harriak inoiz landuak ez ote diren izan diote lekuko askok. Esaterako, Markinaresti gainean, bertatik nahiz Elorritxuko gainetik joanda, *Arrimotza* dago Jatanagusi aldetik. Haitzez osatutako harri multzoa zen. Bakioko isurialdean *Arrikirri* dago, itsasoko haitzen itxura daukaten harri bi edo hiru. Baina aurreko harrietako kasuetan ez bezala, berriemaileek ez dute uste gizakiek ipinitakoak direnik.

Markinarestitik aurrera joanda, Artolako errekara helduko gara, iturburu bi dituena. Jatatxikerretik datoz biak eta Lemoizeko zabortegiraino doaz. Artolako errekako ura gozo-gozoa da lekukoen esanetatik eta ez ei da egundo agortu, ezta lehorterik gogorrenetan ere. Jatanagusira, Jatatxikerrera eta *Arriluzeko* eremuan dagoen Bastegiko txabolara joateko bideak, pistan aurrera eginez ikusiko dugun Artolako errekaren bigarren iturburuak sortutako uhalde ondotik hasten dira. Bastegiko txabolaren ondoan dago uren arketa nagusia, eta gorago *Arriluzeko basoa*. Hara batzen ziren Markinaresti, *Lauziriko landa* eta Azpirotik zetozen urak. Gero arketa nagusitik Plentziara bideratzen ziren ur-hodiok.

Artolako bigarren uhaldea igarota, behin Markinarestitik kanpora, amaitzen da Jatabaso herri-basoa. Puntu horretatik aurrera *Arriluzeko basoan* sartuko gara; jabetza pribatukoa da. Handik gorantz doan bideak *Landabide* izena du. Zenbat eta itsasorago joan, orduan eta txikiagoa hango otea antzina. Ganaduek janda egoten zen dena. Hain zuzen ere, zenbat eta itsasorago belarra gozoagoa eta mineral gehiagokoa da eta, kresalaren eraginez. Berriemaileek akorduan dituzte denborale-egunetan itsasotik heldu eta landak bete-bete egiten zituzten harako globotxo gaziak.

Pistak *Gauone* baserrira eroango gaitu. Handik errepidea Bakiorantz jarraituta, *Erreka bin erdi* igaro eta *Basobaltza* edo *Arrastakulo* zeharkatzen hasiko gara. *Basobaltzako* gainari *Kurtzetxikerra* deritzo. Kamino nagusitik eskumatara dagoen Foru Aldundiak egindako bidea hartu eta Belategiko landara helduko gara. Landa hori antzinarik dute inguruko artzainek estimaturik sano, aurrerago azalduko ditugun arrazoiengatik.

Garaitiko mendiak

Behin Jata ingurua eta bereak dituen tontortxoak deskribaturik, sakon ez baina aipatu behintzat egin beharrekoak dira Jatabeko lurretan dauden garaitiko mendiak: era idatzian Eldroka eta lekukoen berbetan *Endrokata* izenekoa, Elortegi auzunearen gainean dagoena Ergoienen; Billelabasoetatik Unpararako bidean Lemoizekin muga egiten duen Andrakagaina *(Andrakagana)*; idatziz Txarola eta berbaz *Txileru* esaten zaion mendi-gailurra; Goikomendi, Artebakarra *(Artebakarre)* eta Kabeliñak *(Kaberiñemendik)* osatzen dute Jatabeko mendien zerrenda.

> «Ta egote(n) san Txiboko landan alan gorantza, menditxu bet, ordun esan piñurik egoten, ba Kabeliñe mendia esaten geuntzen. Egoten siren olau kabeliñek, batzuk, baia usin bet! Ai se usin goso! Nik etzen sarri esan dot: -Baneki non dausen aiek! Jongo ninttike gaur bere.»

Ibai-errekak

Jatabearrek oinarrizko bereizketa egiten dute euren herria zeharkatzen duten erreken eta ibaiaren artean. *«Errekatati ibaire ta ibaiti itxosora»* da gaitzak herritik kanpora uxatzeko darabiltzaten esaera zaharra; konturako, *begizkoena* edo begizkoa osatzeko erabilitako berun urtua errekara isurtzen zenean.

Butroi da Jatabeko ibaia. Gatika eta Jataberen arteko muga zehazten du eta errota nagusien kokalekua izan da. *Ibai,* edo *ibei,* esaten diote bertakoek.

Errekak ugari dira eta edadeko lekukoek ondo igarrita daukate zeintzuk diren udan lehortzen direnak eta zeintzuk ez.

Kurtzeganeko erreka –udan sikatu egiten da–, *Askabittutako erreka*, *Santakurtzi*, *Sabalorta* edo Zabalerrota, *Laxibitxako erreka*, Añeka erreka, *Artolako erreka* –urte guztian ura daukana–, Markinaresti, *Elorritxu, Arrimotza,* Arrizurieta, *Udola* eta Lamitzeta dira Jatabeko errekak. Troka guztietan egiten direla errekak diote Jatako bizkarretan bizi direnek, eta sasoian sasoikoa denez, urak handitu edo idortu egiten zaizkiela errekoi.

Dena den, gehienetan etxe ondotik igarotzen den errekari *erreke* esaten diote etxekoek, aparteko izenik erabili barik.

Iturri eta iturburuak

Han-hor-hemen dira iturburuak ere Jata inguruan. Leku askotan sortzen da ura lurraren azpitik, nahiz eta uron emaria beti bat izan ez, jakina. Aurrerago, etxearen gaineko atalean, ura izango dugu ostera berbagai; belaunaldirik belaunaldi osatzen joan den jakintzari esker, jatabearrek eurontzako eta abereentzako ura ziurtatzeko erabili izan dituzten baliabideak aztertuko ditugu. Oraingoz aipa ditzagun izendaturik dauden iturri eta iturburu nagusiak.

Patroi itxurri –Iturralden, Urrutia etxeen bueltan–, *Bastegiganeko itxurri*, *Juleko itxurri, Altzetako itxurri* –Garai auzune inguruan–, *Azulatxeko itxurri* –izen bereko lekuan–, *Landatxikerreko itxurri* –Mungigorta edo Mungierrota etxe ondoan–.

Horiek dira jaso ditugun iturri izendunak. Askoz iturri eta iturburu gehiago dago Jataben, baina etxe bakoitzari atxikiak eta izen komunik gabekoak dira kasurik gehienetan.

Sitzuski edo ihiztokiak iturri bihurtu eta eurotatik ura ateratzea sarritan egiten zen gauza da, Billelabaso auzoan batez ere. Etxekoen ur-hornidura aztertzerakoan izango dira zehetasun gehiago horri buruzkoak.

Unpara aldean metalura dago. Ingurura isurtzen duen arrasto gorriak adierazten du metalura dena eta normalean urte osoan izaten du txorroa. Gizakiek zein abereek edateko erabili izan da.

> «Aur elixaldeti Yatabera Patroi itxurri edo, ure elegante barres. Ta amen Bastegiko ganen bere itxurri on san. Au bere makiña bat bija intxe dau potixeas ara ure bille. *Altzaga iturria bere badago beste bat ezta, hor Garai inguruan?* Bai Altzeta. *Zuen inguruko iturriak zeintzuk ziran? Zuek nora joaten zinien uretan?* Juleko itxurrire, orra beti. Eta gu Saldisurire, Saldisuriko trokara. (...) Asulatxe, ta atxeti(k) bera bajaten dan ure, ta an bean koisten sendun. Ta gero ure bajaten dan lekun errekako es, albotik urtete'un bertan manantial batek, ta a koisten gendun potixera. Ta goien Markiñeristi, gero Elorritxu, Arrimotza, Arrisubitta ori emetik'alden, Udola goiko telebisiño dekena imintte, Udolako punte. An antene daun lekun, alan dau antene, ta apur-aputxu bet itxosorantza yoan ta ainbe(t) bider posu garbittu'ot nik ardik ure edan deien, bertan puntenpunten. *Orduan, hainbat iturri egon dira?* Errekak ixen dire, troke bajate(n) san leku gustitten ote(n) san ure. Baia siketeas falla itxe un.»

Kobazulo edo leizeak

Zerreñe etxearen inguruan –oraintsura arte Loramendi Hotela izenikoa– kobazuloren bat dagoela esan digute. Orain dela hamaikatxo urte geologoak ibili ei ziren hura aztertu guran, eta gerra-denboran jendea bertan ostentzen zen ustea zabal dabil.

Bestetik, Marutxeaga auzoan, metro batzuen gorabehera Jatabeko muga administratiboetatik kanpora, *Sorgin-lezeak* daude *Atxabaso* izeneko sakostan. Unpara etxeetatik Armintzara joateko bide zaharrean daude, harrizko uraska baten azpialdean. Nekez ikus litezke egun, sasiz beteta dagoelako inguru guztia. Izena daukaten leize bakarrak horiexek dira, baina Unpara aldean ugariak dira urak sortutako zulotzarrak. Bertakoek horiei ere *lezak* deitzen diete. Eta horietariko asko egoteak ezbehar handiak ekarri ditu abereetan. Iturburu, errekatxo eta *sitzuskiak* dauden lekuetan egiten dira zulook, eta abereak ura edatera hurreratzen zirenean, leizeetara jausi eta askotan tragatu egiten ei ziren.

Zidor, estrata edo gurdibide, galtzada, kamino eta zubiak

Gaur egun asko dira autopista, autobia eta era guztietako errepideak. Azpiegituren garapen hori, ostera, orain dela gutxikoa da. Lehenagoko denboretan, autorik

ez eta, oinez, astoz edo gurdiz ibili behar izaten zen sasoian, beste modu bateko bideak zeuden.

Basoetan, soro artean edo mendian dauden oinezkoentzako bideak dira zidorrak. Oinez leku batetik bestera joateko distantziarik laburrena erakusten zuten. Basoko abereak gutxitu ahala, bidezidorrok ere sasiek estali dituzte, gehienak bai, behintzat.

Kaminoa, galipotaz eginiko bidea da; autoek erabiltzen dutenari esaten zaio kaminoa. Galipota gainera egin baino lehenago, harrizkoak zirenean, galtzada esaten zitzaien. Eta galtzadetan ipinita egoten ziren harlauzei *behatzarriak* deritze, antza behatzek lauzekin estropezu egiten zutelako. Horretara, galipota bota eta ostean hasi zitzaien lehengo galtzadei kaminoa deitzen. Galtzada bakarrak Plentziatik Mungiara doan bide nagusia eta Herriko Etxeko bidegurutzetik elizara zihoana izan dira. Bigarren hori estutxoagoa zen, berriemaileen esanetan. Billelabasoetarako galtzada, esaterako, 1950. urte inguruan egin ei zuten; eta geroago bihurtu zen kamino, galipotaz bete zutenean. Egungo kamino nagusiko beste adarrak –Urondora doana, esaterako– beluagokoak dira. Gatika eta Jataberen arteko lurrak padura-lekua izateak eragin izango zuen horretan, seguru antzean.

Antzinako galtzadak txarrak zirela esan digute lekuko guztiek. Gogoan daukate jendea Bilbora gurdiz joan eta bueltatu ere gurdiz egiten zela. Gerra aurretik Mungiako okindegikoa eta herri bereko osagilearena ei ziren ikusten ziren auto bakarrak. Zaldiz zebiltzanak ere baziren, banakak, aberatsenak; garaitikoak oinez, edo astoz, ibiltzen ziren.

Bizikleten kontua beluagokoa da. Gutxik edukitzen zuen eta oso estimatua zen. Kaminoetatik asagoen bizi ziren etxeetakoek bizikleta eta oinetakoak hurrenen zeuden etxeetan gordetzeko ohitura zegoen.

Galipota ezagutu arte, harrizkoa izan zen bide nagusia. Harria zabalduz egiten ziren konponketak eta gero zilindroa igarotzen zuten gainetik, lisutu zitezen. Lan horiek egiteko Bilbotik etortzen ziren beharginak. Jatabeko semeak ere prest egoten ziren behar horretan hasteko, jornaltxoa zen-eta baserritik bizi zirenentzat, baina baztertuak izaten ei ziren, eta influentzia handia zeukatenek baino ez zuten lortzen bertan beharrean hastea.

Kamineruei, bidegileei esleitzen zitzaizkien kamino-zatiak, batzuetan berriak egiteko eta besteetan zaharrak konpontzeko. Antolaketa eredu horretatik datoz zenbait kamino-zatiren izenak. Adibidez, Katiluzubi esaten zaio Jatabetik Andrakara doan bideko bihurrune nagusiari, *Katilu* ezizeneko bidegile mungiarrari eman ziotelako bide-zati hori konpontzeko ardura.

Beraz estrata, *estratza*, edo gurdibideak ziren lehenagoko gizarteko biderik ugarienak, baita mendeetan zehar komunikazio biderik nagusienak ere. Horren adibidea izan daiteke Billelabasoetatik Armintzarako bide zaharra –lehenago estrata eta gaur zidortxoa baino ez dena– edo kostaldetik, Bakioko Uriarte etxeetatik Marutxeaga auzoko Portume etxeetara zihoan gurdibide zaharra, Done Jakue bidearen ibilbide zaharra izan zitekeena, geroago zehaztuko ditugun arrazoiak medio. Bestetik, mendietan erabat aldatu dira bideak atzeneko hamarkadetan. Gerra-denboran tankeekin egindako bideetatik –Belategiko landatik Jatabera sartzeko– eta GMSek zuhaitzak ateratzeko sortutako bide berrietara.

Estrata edo gurdibideak gehienetan basaz beteta egoten ziren, lurrezko bideak izaten ziren eta. Euria sano eginez gero, berriz, basa lodiago egiten zen, eta gurdizainek neke asko jasan behar izaten zituzten eurotatik gurdia erabiltzeko. Lekukoek komediak izaten zirela diote, halako gurdibide lokaztuetan gurdi bi, bata gorantz eta bestea beherantz, suertatzen zirenetan… Bai behintzat, Antzoneko indartsuaren modukorik ez bazebilen ingurutik, eskuekin gurdiak altxatzeko kapaz ei zen-eta gizon hura. Horrexegatik esaten da Jataben, *karreteru* edo gurdizainik onenak San Juan eta San Pedro direla, uda-partean gurdibideetan basarik ez eta bertan katigaturik gelditzeko beldurrik ez dago eta.

Estrata-bazterretan, altueratxoan, oinezkoen bidea egoten zen. Behetik, erdiko aldetik gurdiak joaten ziren eta izkinetatik oinezkoak. Oinezkoak basarekin lohitu ez zitezen oinarriak ipintzen zituzten. Pausoan-pausoan harrien gainetik ibili ahal izaten ziren, horretara.

Errekak ere komunikazio-bide garrantzitsuak izan dira beti. Esaterako, Jataben bertan, Añeka errekatik jaisten ziren oinezkoak Astintzera. Errekako harrietatik ibiltzen ziren eta gauez ere leku beretik igotzen ziren. Erreka zen bidea.

Dena dela, errekak zeharkatzeko modua edukitzea zen garrantzirik handienekoa. Zama handiak edo hildakoak garraiatzeko errekek zubi egokiak eduki behar zituzten. Jatabearrek harlauzekin egiten zituzten zubiak antzina, beste hainbat herritan usua zen lez.

Zubi horiek ez ziren egun errekak igarotzeko sarritan ikus daitezkeen harri-ilara soilak; landuagoak izaten ziren. Errekak igarotzeko harriei *zaparri* esaten zaie Jataben. Erreketako andabideek harlauzaz eginak izan behar zuten; esaterako, Errotabarri etxea baino gorago egon zen harlauza birekin egindako zubia. Lekua bera ere garrantzitsua zen, herri egutegia eta heriotza ohikuneak aztertzerakoan ikusiko dugun moduan. Baina herri eraikuntzaren adibide hori erreka zabaltzerakoan kendu zuten. Bastegitik Añekarako bidean badago oraindino holako zubi bat, berrituta eta itxuraldatuta, egon ere.

Berriemaileen gogoan badira zubi asko lastoz egindakoak. Berbarako, Gasmuri auzunean halako bat zegoen. *Iritxoak* aipatzen ditugunean, hau da, mitologiari buruzko atalean, berriro oratuko diogu gai horri.

Zubi berriak gerraostean egindakoak dira. Kasuren baten, *Lauxarrabeko* etxearen ondokoa kasu baterako, gerrarako atondutako trintxera-etxeetatik ateratako burdinez eginda dago.

JARDUERA EKONOMIKO TRADIZIONALA

Jatabeko biztanlerik gehienek baserritik atera izan dute bizimodua. Baserrietxe edo aldea-etxea izan dute jatabearrek familiaren eta ekonomiaren zutabea. Nekazaritza eta abeltzaintzan oinarritutako sistema autarkikoa izan da nagusi historian zehar. Bizirik irauteko ondasun printzipalak etxean bertan ekoizten ziren. Gero, burgesia garaturik zegoen inguruko herrietara joaten ziren andrezkoak baserriko produktuak saltzera. Horren trukean olioa edo gatza bezalako sueterako edo kontserbarako lehengaiak ekartzen zituzten etxera.

Artzaintzak ere, norbere artegi, ardi-txabola eta eskorta izateak, zeresan handia izan du Jatabeko ekonomian; batez ere, mendi-bizkarretako etxeetan (Goieta, Unibasoak, Añekak...). Eta langintza horren barruan ezin ahantz genitzake lehen Gipuzkoatik etortzen ziren artzain edo *pastoreak*, neguko sasoirik gogorrena hemen egiteko asmoz.

Orain arte aipatutako beharron osagarriak ziren etxetik kanpora egiten zituzten beste lan batzuk ere. Basoetan zuhaitzak sartu edo ateratzea, karobietan kareginen ibiltzea eta ikazkintza izan dira langintza osagarri funtsezkoenak. Azkeneko horrek, ikazkintzak, Goieta edo Marutxeagan izan zuen, batez ere, indarrik handiena.

Artisautzari lotutako makina bat behar ere ezagunak ziren Jataben jarduera lagungarri gisa. Esate baterako, joskilak edo jostunak, arotzak, eta otzaragin edo *zesteruak*.

Nekazaritza eta abeltzaintzaren aurrean, baziren beste jarduera batzuk ere, goragoko maila baten kokatzeko modukoak, ondasun eta diru-sarrera politak ekartzen zizkiotelako familiari, etxeari. Holako jardunetan argi-argia zen andrearen eta gizonaren arteko lan-banaketa. Nekazaritza eta abeltzaintzatik eratorritako beharrak ziren, baina horretan zebilenari ezagutza maila berezia eta dedikazio osoa izatea eskatzen zitzaion. Errotari eta errementariez gabiltza –Jatabeko euskaraz *erradore* esaten zaio bigarren horri–. Lanon berezitasunak ikusiko ditugu aurrerago, beste atal baten, langintza horiek astiro-astiro aztertzen ditugunean.

Juan Oleaga, Zubiaurreko errementeriaren aurrean, 1969.

Añeka *ferreria* edo burdinola izeneko etxeak lekuko batzuek oraindino gomutan duten beste langintza bat dakarkigu hona: burdingintza. Etxe erdia burdinola izan zen eta beste erdia bizilekua. Burdinolari zegokion zatia erre egin zen, haren arrastorik ez dago; baina orduko sasoiko burdin zatiak oraintsura arte sorotik ateratzen ibili dira. Ikatza gurdiz eta gabarraz ekartzen ei zuten Somorrostrotik. Burdina urtu eta lingoteak egiten zituzten. Etxebarri etxeko berriemailearen aititak ezagutu ei zuen burdinola hori jardun betean. Sua egiteko teknika hidraulikoa zen; uraren indarra erabiltzen zuten burdina urtzeko behar den besteko tenperatura lortzeko.

Lekukoen esanetan, Jatabe inguruan burdinolak ugari ziren antzina. Tela-lantegi bat ere egon ei zen, oraindino toponimiak bere antzinako kokalekuaren berri ematen digun zerrategiarekin batera.

Hargin askoko herria ere izanikoa da Jatabe. Hormak egiten eta harria lantzen zuten. Jatako basoetatik harria ekartzen zen eraikuntzak egiteko; errotarriak ere Jatako harriarekin egiten ziren. Mendi-gailurrean landutako errotarriak zeudela gogoratzen dute lekuko ugarik. *Azulatxen*, esaterako, harrobia zegoen. Añekara bidean eta Katiluzubitik eskumatara, bidea bera baino arean beherago, han ere harriak ateratzeko lekuak zeuden. Jatakoa hareharria da gehienbat eta Lemoizeko kareharria zen erabiliena, edadeko lekukoen esanetatik.

Aipatutako ogibideez gainera, ez dira gutxi izan itsasora irtendako jatabearrak: Pisbe konpainian, arrantzan zein merkatal ontzietan. Geroago aztertuko dugun oinordekotza sistemak zerikusia izango zuen prozesu horretan, seguruenik.

Industrializazioak berandu jo zuen Jatabe. Gogoan daukate Ibaizabaleko ezker ibarrera edo Bilboko portura herriko semeak beharrean hasi zireneko sasoia; gutxik hartu ei zuten ebatzi hori. 1950. urtearen bueltan hasi ziren Jatabeko biztanleak baserrietatik irten eta lantegietara behar bila joaten. Mungiako Artetxe izan zen inguruko lehenengoko lantegia. Orduan hasi zen geroagarrenean guztiz ohikoa izan den lan-jarduera hori indarra hartzen, baserrietxeko ekonomi ekoizpenaren osagarri.

POPULAKETA SISTEMAK

Baserri edo aldea-etxeetan bizi izan dira jatabearrak beti, lekukoen esanetatik. Etxean seme-alaba asko batzen ziren, baita belaunaldi biko andre-gizonak ere, zaharrak eta gazteak.

Etxegintzan ez da mugimendu lar egon atzeneko urteetara arte. Orain dela gutxi hasi dira txaletak eraikitzen, baina XX. mendean zehar, akabuko urteak kenduta, pentsa liteke urriak izan direla etxegintzan egindako aldaketak. Gerra aurrean 900 biztanle ei zituen Jatabek, hori esaten zuen orduko *sekretario* edo idazkariak, behinik behin. Orduan etxe zaharrak ei ziren guztiak, ez zegoen gerra aurretik etxe berri bakar bat ere. Etxe zaharrok lagunez ondo beterik zeuden, familia handia ekartzen zen eta. Gerraostean etxe berriren bat (Elespuru eta Iruña –herritar gehienek *Batzoki* esaten diotena–, berbarako) eraiki zuten eta gerrak hondatutako zaharrak konpondu edo berreraiki.

Aipatu beharrekoa da, halere, azkeneko urteotako txaletak eta lekukoek betiko populaketa sistema gisa aurkeztu diguten aldea-etxeaz gainera, gutxienez dorretxe bat ere izan dela. Ergoien auzoko etxearen izenak, Torretxek, hala adierazten du.

Latsibi eta Elortegi ingurua, 2008.

Asko ere asko izan dira artzain-txabolak ere. Goieta edo Marutxeaga auzoan, egungo etxeen aurretik leku berean eta izen berarekin egondako txabolen berri jaso dugu. Baina elkarrizketatu ditugun gizon eta emakumeen akorduan, behintzat, ez dago txabolotan bizi izan zen inoren kasurik. Ikazkintzan jarduteko, basoan eraikitzen zituzten txabolei ere ez zieten bizileku funtziorik ematen.

ERAIKUNTZA ETA AZPIEGITURA NAGUSIAK

Jatabeko eraikuntza eta azpiegitura printzipalak Ergoien auzoan egon dira beti. Bertan elizaren inguruan, Maruri etxeen inguruan, sortu zen herrigune edo erdiguneak batu izan ditu azpiegitura eta eraikuntza nagusiak. Bertara biltzen ziren jatabearrak denak, dela andreak jenerotan, dela umeak eskolara, dela gizonak bolajokoan…

Eskola

Irakaskuntza tradizionalak agindutako lez, neska-mutilek banandurik ikasten zuten; mutilak eraikin baten, eta neskak beste baten batzen ziren. Nesken eskola elizari dautsala eraikita zegoen. Etxe luzanga zen, hiru bentana zituen kanposantura begira eta atzeko aldean komuna zeukan. Sorora, antzinako jasera, ematen zuen komun horrek. Elizpetik sartzen ziren neskatoak barrura.

Mutilena, ostera, elizatik beheratxoago zegoen, egun umeak olgatzen egoten diren lekuan. Bertan mahats beltza ereinda zegoen, idazkariak txakolina egiteko

zerabilena. Maisua mutilen eskolan bertan bizi zen. Eta maistra, edo andereñoa, mutilen eskola ondoan zegoen abadearen etxean bizi izan zen garai baten. Mutilen eskolan zegoen Jatabeko nekazal sindikatuko almazena ere.

Gerra baino arean lehenago etxe berria eraiki zuten, gaur egun Elespe esaten zaiona. Bertara eroan zuten nekazal sindikatua eta izena ematen zion errotulua ere kanpoan ipini. Geroago, gerraostean eraldatua izan zen, aurreko sindikatuaren izenari *católico* berba gehituz.

Gerran nesken eskola erauzi zuten elizarekin batera. Eta gertakizun horrek presazko aldaketak egitera behartu zituen jatabearrak. Gorago aipatu dugun Elespe etxera eraman behar izan zuten nesken eskola hori. Hala, beheko solairuan sindikatua zegoen, lehenengoan eliza –zaharra berreraikin bitartean– eta bigarrenean, andereñoen bizilekua aurrean –egungo eskaileren aldea– eta neskena ostean.

San Lorentzo eliza

Jatabeko antzinako eliza 1937. urtean erauzi zuten. Berriemaile batzuen esanetan *gorriek* bota zuten eliza, baita Birleko ermita eta Mungiako eliza ere. Lurrez italiarrak, airez alemaniarrak eta itsasoz espainiar gerra-ontziak egiten zebiltzan erasotik atzeraka zetorren Tomas Meabe konpainia sozialistari egozten diote elizak eta



Konponketa lanak San Lorentzo elizan, c. 1941. Trinidad García ongina, Aman arkitektoa eta Jose Egia, lanen arduraduna.

zubiak botatzen erretiratu izana. Beste lekuko batzuen hitzetan, hegazkin alemaniar batek bota zuen eliza erasoaldi baten. Eliza inguruan Errepublikaren aldeko soldaduak zebiltzanez, Francoren aldeko hegazkinek erasoa jo eta eliza lurrera bota ei zuten. Horren frogatzat, eliza ingurua odolez beterik zegoela diote; aire-eraso baten, eta ez erretiradan, bota zuten seinale argia. Aurreko eliza erreka-harriz egina zen, eta hormak karez eta harezkoak zituen; horregatik-edo jausi zen hain erraz. Berria egiterakoan arkitektoak esan ei zuen ez zegoela aurrekoa bezain sakona egiteko premiarik. Azkenean atzeko aldetik handitu zuten, nahiz eta matrakan ibili behar izan zuten atzeko lurron jabearekin. Berriemaileen iritzian, abadeak gogorregi egin zion jabeari, modu autoritariotxoan jabetasuna kendu ziolako. Jabe hura eta abadea senitartekoak ziren, seguru. Lur-zati horrezaz gainera, kanposantu zen beste lur-arlo bat ere hartu behar izan zuten eliza zabaltzeko.

> «Ta gero elixe bota eudenen bota san ta, elisegas yausi san dana. Gerraten bota euden, treintainuebeko maietza-bagille ortxe... *Eta eleizea non egoan?* Leku beren egon san, onantzatxuau, oiñ atzeratute dau, a kanposantu ta sati bet kendute dau or, elixe itxeko, geure osabe bateri kendu eutzen, beran terreno sati elixe atzeratuteko, ta andiau bere in san.»

Berreraikuntza-lanak egiteko Gorlizeko hondartzako harea erabili zuten Jataben. Idiak uztartu eta gurdietan ekartzen zuten. Hortik dator, bada, *«Jataben fedea ta Gorlizen harea»* esaera ere. Gorlizetik Jatabera lanera etorritako hormagileek olgetan-benetan esaten ei zuten Jatabeko eliza Gorlizekoa zela.

Elizak ate bi ditu, bata goian eta bestea behean; ate bana dute herriaren alderdi biek. Esan gura da, Ergoiengoak goiko atetik sartzen direla eta Erberakoak behekotik, kontrako aldean izatea suertatu arren ere.

Eliza zaharraren gainean, honako kontakizun hau entzun dugu Jatabeko herritarren ahotik. Eliza egin orduan biztanle batzuek herriaren beheko aldean eraiki gura zuten, eta beste batzuek, ostera, goiko aldean. Herriaren beheko partean egiten hasi ziren baina, euren esanaren arabera, Ama Birjinak berak mugituta, harriak goian agertu ziren. Azkenean eliza Ama Birjinak harriak eroandako lekuan egitea ebatzi zuten.

Santa Kurtze ermita

Herritarrek *Santa Kurtzi* esaten diote. Izen bereko mendiko puntan zegoen antzina.

Lekuko batek jakinarazi zigun, hamar urte zituenean Jatabeko abadeak eroan zituela bere adineko umeak Jatanagusiko gailurrera eta Santakurtze mendira. Bertan egoniko ermitaren hondakinak ikustera joan ziren. Ordurako, orain hirurogeita hamar bat urte, harri-pilo batzuk sasiekin nahastean baino ez zeuden, antza, ezeren arrastorik gehiago ez. Berriemaile beraren amama bizi zela berreraiki zuten Santa Kurtze ermita gaur egun elizako aparkalekua dagoen lekuan. Ermita berreraikiaren inaugurazio-egunean zezenak eta ospakizun entzutetsuak egon ei ziren.

«Yatako puntera abadeas lenengo iyen gendun. An berau ermittetxu bet on san lenau antza Santakurtzin, ta ango arri pillo bat-edo oneko leku bere ikus gendun ordun. Oiñ estaitx, oiñ ermitte topa ber derela dabiltzes baia... *Antza barriro egin gura dabe?* Bai ori da sarate. On giñen gu an, orduntxe abadeas yon giñenen, ta ordun ondiño restok an on siren, arrik eta pillo bat sasi nasteas ta... A ermitte gero ona elixondora baja euden antza, or i euden ermittetxu, or on san. Gero au elixe itteko ta aparkadero anpliateko bota san ori ermitte. Len lenau an on san, baia gero or i euden, or elixe daun alborautxuau. Ermitte politte ote san or. Ta gure amamak esate'un ori ermitte inaugura sanean, txalan bat-edo ixau san, baia torok on sirela elixalden, enbestitte aun txalan bat ixau san, baia torok on sirela. Ori makiña bat bider entzun dot. Yai andi ixen san.»

Berriemaileen iritzia da, ondo jagon barik egon zela Santa Kurtzeko beheko ermita, eliza ondokoa. Santuak egoten ziren bertan gordeta, baita organo edo piano lako bat ere. Umeak, mutikoak, ermitara sartzen ziren olgatzera-edo, baina orduko abadeak errezeloz ikusten zituen sartu-irtenok. Akabuan, eliza ondoko aparkalekua handitu behar zela eta, bota egin zuten ermita, 1967. urtean.

Zoragetxoko San Martin ermita

Goieta edo Marutxeaga auzoan, orain Lemoizeko aldean eta lehenago Mungiakoan, Jatabeko egungo muga administratibotik metro batzuetara zegoen ermita hau.

Antzinako idazkietan Zoragetxo agertzen bada ere, berbaz zein errepideko seinaleetan Sarakotxe esaten zaio orain auzune horri.

Gurutzi Arregi ikertzailearen *Ermitas de Bizkaia* laneko bigarren liburukian dago desagertutako ermita horren gaineko zenbait berri[4]. Francisco Mattheo Agiriano y Gómez izeneko gotzainak erauzteko agindua eman zuen 1791. urtean. Ganora barik zegoela eta, bota, bertan gurutze bat ipini eta han zeuden santuen irudiak apurtu eta ostean Lemoizeko Andra Mari elizan ehortziak izan zitezela agindu zuen.

Goieta edo Marutxeaga auzoko biztanleen artean bizirik dago ermita horren akordua. Mungierrota edo Mungigorta etxean eta Txatximintxetan, ermita zutunik egon zeneko berriak batu ditugu.

Santupe izena daukan basoan zegoen Zoragetxoko edo Sarakotxeko San Martin ermita. *Santupe* basoa Portume etxeetatik Urbietako presara doan bidean dago.

Lehenagokoei entzunda dakite berriemaileek ermita gobernatu barik egon zela, inork ez zuela haren ardurarik hartzen. Haien esana da, baten ermitara behor partida-edo sartu, ateari ikuturen bat eginda itxi, eta gero berriro ireki ezinik, barruan tragatu behar izan zutela behorrok.

---

[4] ARREGI, Gurutzi. *Ermitas de Bizkaia*, II. Bilbao, 1987, 191. or.

«Presati Portumerantza, kamiños andiko alderritxi ixau da nonon egon dana, erremitte egon i san or. Eta lelaukok esate(n) euden, sertu sanen, ate sabaldu edo i'akonen, kaballok-edo, lelau kaballok basotan semegure on siren emen, ta barrun sartu, auri itxen-edo... pistik..., eta ikutu ta ate ixi. Ta gero ate iri esin txe barrun, ta an ongo siren gero gosek-edo, egarrik-edo... ta antxe il sirela. *Orduan ermita hori Santupe basoan egoan?* Ori esta argittuten, se esteko..., an Santupen ongo san, Santupe or Urbitteko presati(k) Portumerantza, or egon i san erremitte. (...) Andra Mari irilleko selebrate san Sarakotxen, setienbren sortzin.»

Ortusantu edo kanposantua

1920. urtean jaiotako berriemaile batek, lehenagoko denboretan ortusantua elizaren atzeko aldean zegoela jakinarazi zigun. Berak ez du ortusantu zaharra erabiltzen ezagutu; arteragokoak izan ei ziren han enterratuak. Bestetik, antzina hildakoak eliza barruan hobiratzen ote zituzten susmoa batu dugu beste lekuko batzuen artean. Izan ere, eliza berria eraikitzeko lanetan hezurrak agertu ei ziren, indusketan zebiltzala. Hara, bada, orduko lanen arduradunak eliza berria zaharra bezain sakon ez egiteko hartu zuen erabakiaren arrazoia.

Lehengo kanposantu zaharrean gorpurik gehienei lurra ematen zieten, aurrean burdinazko gurutzea ezarrita. Ortusantu berria egiterakoan hasi ziren nitxo eta panteoi eleganteagoak egiten lehengoak baino.

«Kanposantu len elixen atzen, frontoi albon ta bai. Baia es enterraten, ni baiño ainbe(t) sartxuau lenengo enterrako i san beko kanposantun, oin dauna. Baia arten elixen atzen on san, alborantza on san, se frontoi egon san gero. Se goiko elispek frontoi euki aun ak, ta makiña bat olgeta mutil bardingok an, eskapa etzeti-txe, topa esiñi(k) kero.»

Pilotalekuak, bolatokia eta probalekua

Jatabeko bolatokia Taberna Zaharraren inguruan zegoen. Goiko aldeko elizpean frontoia egon zen gerra aurretik. Frontoia elizarekin batera galdu zen gerra-denboran. Bertan mutil berdingoek eskupilotan egiten zuten. Pilotaleku txikitxoa ei zenez, eskuz ibili behar izaten zuten derrigorrean. Orduko sasoian eskupilotari zaletasun handia ei zioten Jataben. Iruña tabernaren ondoan, *Batzoki* ondoan, beste frontoi txiki bat egin zuten gerra aurretik. Bertan ere eskuz egiten zuten gazteek pilotan.

Karraju edo probalekurik ez zegoen Jataben antzina, herrian afizino handia betirik egon bada ere. Herriko Etxe aurreko landan egiten zituzten probak lehen-lehen, lurraren gainean. Makal edo txopo biren artean ezarrita zegoen *untzea*, hau da, bira eman aurretik idi-uztarriak egin beharreko distantzia. Orain urte batzuk eraiki zuten probaleku estalia.

Probalekuaren inaugurazioa, 1967.

Tabernak, jantokiak, ostatua, hotela eta estankoa

XX. mendean, eta Gerra Zibilera arte, lau taberna egon ziren Jataben; beti ez ziren lauak batera zabalik egon, baina.

Bat, egun Iruña izena daukana eta gerra aurretik batzokia zena da. Etxe osoa ez zen taberna izan, bertan bizilekua ere bazegoen eta. Edadeko lekukoek oraindino ere *Batzoki* deitzen diote taberna horri. Bigarrena, Herriko Taberna zen, Herriko Etxean zegoena. Udaletxe edo Herriko Etxea beti egon da leku berean, ez da aldatu. Errentan hartzen zuten taberna hori eta urte hasieran erabakitzen zen, gutunazalpe-

Iruña taberna, batzokia, 1964. Atzean: Juan Antonio Alzaga. Umeak ezkerretik eskumara: Jose Luis Urrutikoetxea, Pedro Mª Arkotxa eta Javier Arkotxa. Aurrean: Jose Luis Plaza.

ko diru-eskaintza baten bidez, nork hartuko zuen. Urte askoan itxita egon zen; orain zabalik, orain itxita, hala beti. Osteko aldean ganaduak hiltzeko lekua zeukan; hantxe egiten ziren, nola edo hala, hiltegian egin beharreko zereginak.

Tabernazarre izenekoa zen hirugarrena. Herriko Etxetik elizarako bidean, eskumatara zegoen lehenengo etxea zen –gaur egun, eskumatara doan lehenengo bidegurutzea igaro eta lehenengoa–.

Tabernazarra.

Vistalegre edo *Emilion taberne* zein *Emilione* izen bereko etxean zegoen. Lehenagoko denboretan *Posada de Vistalegre* izena zuen eta ostatua zen. Zazpi logela zituen gaua bertan egitera joaten ziren bidaiarientzat. Bertako berriemaileen hitzetatik dakigu, antzina kaminorik egon ez eta jendeak Plentziatik Bilbora eta Bilbotik Plentziara gurdiz joan behar izaten zuen sasoian, askok hartzen zutela bertan ostatu; eta egin egin behar, basatzak, eguraldi txarrak, nekeak-eta sarritan bidean aurrera egiten ez zieten uzten eta.

Estankoa, Marurizarra etxeak izan zuen.

Gerraostean Loramendi taberna zabaldu zuten. Etxearen izen zaharra Urigoiti da. Lehen-lehen, bertan bizi den berriemailearen aititak lurrak erosi zituen sasoian, zerrategia zegoen gero taberna egin zuten tokian. Hortik datorkio hain zabal dabilen *Zerreñe* izena. Taberna izan zen hasieran eta geroago hotel bihurtu zen.

Antzinako tabernetara jenerotan ere joaten zen jendea. Ardoaz gainera, olioa, azukrea eta baserrietxeetan ez zegoen beste jan-gauza asko saltzen zituzten taberna-

riek; baita abarketak, gomazko abarkak eta oinarrizko jantziak ere. Kontuan hartzekoa da taberna guztiak kamino ertzean zeudela, bidaztien begira. *Tabernazarre* da, kaminoari baino herriari adiago dagoen bakarra, baina hala eta guztiz ere, bide nagusitik nahiko paraje.

Meza osteko bilgune, ermandadeentzat batzarleku, erremateak egiteko leku alazokoak... izan dira tabernok.

Bestalde, eta gauza jakina izan arren, emakumeei ez zietela tabernetara sartzen uzten ere esan beharra dago. Begi okerrez begiratzen zieten holako lekuetara sartzen ausartzen ziren andrezkoei, ez ei zen hori polita eta.

Azpimarratzekoa da akabuko urteotan pare bat garagardotegi zabaldu dela herrian. Eta ez da mira egitekoa, Jatabeko natura-inguruak ezagunak eta estimatuak direlako oso, jatordu onak egiteko alagalakoak. Ergoienen eta Añekatik Goietara edo Marutxeagarako bidean zehar daude garagardotegiok.

II
ETXEA

Etxea batez ere bizilekuarekin lotuta dago. Hor sartzen dira seniderik hurrekoenak, etxekoak, morroi eta neskameak, etxeko bizimoduaren elementu fisikoak, eraikuntza elementuak eta etxeko abereak; defuntuak ere etxearen parte dira. Etxean familia komunitate bat batzen da, tradizionalki bizileku berean bizi eta lan egiten zuena. Baina, horrez gainera, jatorrizko ondasunei eusten ahalegindu izan da historiko-

Mardaratz baserria, 1970eko hamarkadan.

ki momentu guztietan; izan ere, bertan bizi zenak iraun egiten zuen ondasun baten transmisorea baino ez zen nekazaritzako gizartean, arbasoen eta bere ostekoen arteko lotura eginez. Azken urteetan, ordea, abeltzaintzak eta nekazaritzak behera egin dute eta etxegintzak eta azpiegitura lanek, ostera, gora. Horren ondorioz jabetzak kentzea eta lurrak saltzea ugaritu egin dira asko. Prozesu hori gertutik ezagutu duen berriemaileak esan moduan: *batzillen osten dator zabaltzille*. Mendeetan gordetako etxeko ondasunak diru truke esku aldatzen dabiltza urte gutxitan.

Etxeak egiteko eta kokalekua hautatzeko eragin asko daude: klima, orografia, inguruko lehengaiak eta, zelan ez, gizakia bera dira. Eguzki-begira egiten dira etxeak, erreka edo iturrietatik hur, ibarren arteko komunikabideen ondoan edo abeltzaintza eta nekazaritzarako lur egokietan. Sarritan, beharrerako erabiltzen zituzten lurren erdian eraikitzen ziren. Gizakiaren bizimodua eta lana bere etxebizitzan igartzen dira, inguruneak ezarritako zailtasunak gainditzeko eran eginda dago eta. Etxebizitza, inguruko lehengaiekin eginda dagoenez, bere berezitasun, neurri, estilo eta erresistentziarekin, paisaian guztiz integraturik ageri da. Etxeak sakabanatuta egotea ohikoa da hemengo paisaian eta isurialde atlantiko osoan. Jurgi Oteiza eskultore ospetsuak euskaldunak bere buruarekin duen konfiantzari egozten zion etxeak bakartuta eraikitzeko ohitura zaharra[1].

Etxe asko lehenagoko artzain-eraikuntzetatik datozela esan liteke. Hori dela eta hainbat etxeren izenetan *korta* edo *gorta* berbak ageri dira Jataben bertan. Gorta antzina artzaintzarekin lotutako kontzeptua izan arren, gaur egun ganaduarentzat erabiltzen den leku estalia da, eta etxearen zatitzat hartzen da.

Baserri-etxearen ezaugarri nagusia funtzionala izatea zen, babeslekua izatea zuen lehenengo egitekoa. Ez dezagun ahaztu antzinako foruetan galarazita zegoela euskalduna bere etxetik indarrez ateratzea edo eta euskaldunaren etxera armekin hurreratzea.

Aurrekoarekin batera beste betekizun batzuetarako ere bada: erremintak egiteko tailerra, abeltzaintza eta nekazaritza ustiakuntza, leku sakratua izan izanaren arrastoak gordetzea. Etxeak autonomia sozialik handiena eta autogestio ekonomikoa lortzera jotzen zuen, beti ere, inguruarekin hartu-emana hautsi barik. Etxekoek euren produktuak hartzen zituzten eta, gero, soberakinen truke edo salmentaren bidez, etxerako behar ziren hornigaiak eskuratzen zituzten. Planteamendu autarkikoa polilaborantzan eta baserrien inguruan ageri diren era guztietako eraikinetan (labea, oilotokia, ardi-txabola...) ikus daiteke.

Baina iraupeneko erregimen hori, hau da, oinarrizko elikagaiak lortzeko labrantzak eta animaliak haztean oinarritzen zena, krisi sakonean dago. Kasurik gehienetan, etxeak autosufizientzia ezaugarri hori galdu egin du. Egun baserrian bizi direnek, gehienean, beste sektoreetatik dakarte dirua etxera.

---

[1] OTEIZA, Jurgi. *Quousque tandem...!* Iruña, 1993, 11. par.

ETXEAREN IZENA

Lehenik, Jataben etxeari esateko erabiltzen duten generikoaren inguruan berba egin gura genuke. Ustiapen ekonomikoa eta bizilekua bateratzen dituen etxe eredu tradizionalari *aldea-etxe* esaten izan zaio beti. *Baserri* esapidea, azken urteetan erabat zabaldu eta indartu den arren, askoz berriagoa dela diote lekukoek aho batez. *Aldea-etxe* handia dela adierazteko *etxe-kapela* esaten zaio. Etxe txikia denean, ostera, *kapela txikerra*.

Garaibeko aldea-etxea eta inguruak.

Ustiapen intentsiboa egiteko erabili eta bizilekua ez denean *granja* esaten diote. Izen hori hartu dute azken urteetan Jatabeko mugen barruan zein aldamenean jarri dituzten pabilioiek. Etxe eredu berrientzat erdaratik hartutako *pisu* eta *txalet* berbak erabiltzen dituzte.

Jatabeko *aldea-etxeen* izenak aztertzen hasita, jabetza kontzeptuak azken aldian egin duen aldaketa erakusten du etxe askoren izen bikoitzak. Lehenagoko jabetza kontzeptuan biztanlea etxearena bazen, izen berriek adierazten dute etxea biztanlearena dela. Azken hauek nagusitu zaizkie izen zaharrei etxe askotan, ahozko jardunean askoz nabarmenago idatzizkoan baino.

Jatabeko etxe-izen zaharrek ezaugarri batzuk dituzte: ez da antroponimorik ez eta ogibidearekin lotutako aipamenik agertzen, eta ez daramate ahoz *-ne* bihurtzen

den *-ena* amaierarik. Salbuespen bakarra 1704ko Bizkaiko su-erroldan dokumentatuta dagoen Ontxena (*Oinchena* 1704ko erroldan) etxea da. Baina ez da batere argia izen horren esangura. Baliteke etxearen izena esateko *-ena* jabetza atzizkiaren eta, ondorioz, jabetzaren kontzeptu aldaketaren zantzu goiztiarra izatea, edo hizkuntzaren garapen dinamikak iraganean transformatutako beste esangura bat ostentzea. Ondoko herrietan, Lemoiz eta Gatikan esate baterako, etxe askok jabearen izena eta *-ena* jabetza atzizkiarekin osatutako izena zeukaten. Jataben, antza denez, astiroago eta beluago egin zen aldaketa hori. Agian, inguruko herrietakoa baino jabetza banaketa orekatuagoa izateak zerikusirik izango zuen.

Izen zaharrak etxea eraikitako ingurune naturalarekin lotuta daude. Etxea dagoen lekuaren ezaugarri nagusiez egiten dute berba: Mendieta, Abaro, Elortegi... etxeizenak izango lirateke horren adibide. Ohitura izan da etxe berriak eraikitzeko aukeratutako lekuak aurretik zeukan izena ipintzea etxeari. Esaterako, Intxaurnagusi soloan eraikitako etxe berriaren izena Intxaurnagusi izango zen. Bestalde aldameneko azpiegitura nagusien eta eraikuntzako material berritzaileen berri ematen digute: Zubiaurre, Zubieta, Talleburu... Inguruko etxeekiko kokapena eta eraikuntzaren orden kronologikoaren gaineko informazioa helarazten digute, era berean. Unibasogoiko eta Unibasobeko izenek kokapenaren berri ematen digute. Garaizar izenak, berriz, izen erro bereko (Garaigoiko, Garaibeko) etxeetan eraikitako lehena dela adierazten digu.

Etxearen funtzio ekonomikoa, ez bertako biztanleena, sano espezializatua zenean, izen zaharrean ageri da. Horren adibide litzateke Errotatxu izena.

Izen zahar batzuek ez daukate entzun ahala ulertzeko moduko esangurarik, Txatximintxa edo Unpara lirateke horren adibide. Ulertzeko errazak ez direnen artean daude *–uri* atzizkidunak, Gasmuri eta Ianduri kasurako. Garrantzia berezia du herriari izen administratiboa ezarri dion etxearen izenak egitura hori erabiltzen duelako: Maruri.

Jabetza kontzeptuaren aldaketarekin zerikusirik ez duten izen aldaketak ere egin dira. Adibidez Elortegiaurreko etxearen kasua. Egun Etxatxu esaten zaio, hala dakar herriko mapak eta era berean idatzita ageri da 1745eko su-erroldan. Bertan jaiotako berriemaileak, ostera, jakinarazi zigun bere aita sutu egiten zela izen hori entzuten zuen bakoitzean. Euren etxearen izena *Elortegiaurreko* dela esaten ei zuen behin eta berriz.

Antzinako etxe izen batzuen kasuan, bertsio ezberdinak ageri dira. Adibiderako, Mungierrota edo Mungigorta etxea. Ez da agertzen antzinako su-erroldetan, halanda ze etxea berri samarra da. Artzain txabola bat izan zen, batu ditugun datuen harira, leku horretako lehenengo eraikina. Baina banaka azter ditzagun izen posible biak:

Izen biak konposatuak dira. *Mungi* toponimoak osatzen du bi kasuetan hitzaren lehenengo zatia. Hau orain dela hamarkada gutxi arte Mungia eta Jataberen arteko muga egiten zuen harria bertan zegoelako da. Goazen ikustera zein izan litekeen izenaren bigarren zatia. *Errota* da idatziz hobetsi den forma, eta baita bertako lekukoak eta beste herritar askok erabiltzen dutena. Hala ere, bertako berriemaileak gogoan dauka bere aitaginarrebak, etxe horretako jauna izandakoak, *Mungigorta* esaten ziola etxeari. Horrekin batera dio berak badakiela etxe hori ez dela sekula errota

izan. Fonetikoki, ahoskatzeko orduan, sano hurbil daude forma biak, horregatik nahasteko aukera handia da. Argi dagoena da etxe horren aldamenean, errota hidraulikoen nasa bidezko ura eskuratzeko bitartekoei begira, ez dagoela errotarriak mugitzeko indarra emango lukeen errekarik. Ez dago errekatxorik ere. Beraz, etxea inoiz errota izan bada haizearen indarrean oinarritua izan beharko zukeen. Eta hipotesi horrek ez du inolako zantzu materialik ageri.

Bestetik, aipagai dudan etxea Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoan dago. Artzaintzarekin estuki lotutako ingurunean, alegia. Hain zuzen ere, bertako berriemailearen sendia jatorriz Gipuzkoatik etorritako artzainak ziren. Eta *gorta* artzaintza munduari hertsiki lotutako kontzeptua da. Gorta edo saroia artzainek udako goiko larretan ardiak batzeko (herri lurretan bazkatzea libre zuten eta) biribil formako lur eremuak dira. Baso zatiak erraz sortzen ei ziren eta euren 290-330 metroko biribilguneen erdian *austarri, autsarri* edo *artamugarriak* zeuden. *Gortak* sortzeko basoa erretzeak argitu lezake harrien izenaren nondik norakoa. Eta baliteke Mungia eta Jatabe arteko muga adierazten zuen mugarri zaharra *autsarria* izan izana hasiera batean. Beraz zentzuzkoa izan daiteke leku berean egondako lehen eraikina artzain txabola izatea ikuspegi horren barruan. Jataben gauza ezaguna da Mungigorta edo Mungierrota etxeko sasoi bateko ugazabandrea testulari edo bertsolaria zena. Ume asko eduki zituen, eta bere etxeko *errota* izenagatik itauntzen ziotenean, beti bere inguruan bueltaka zebiltzan umetxoei begira esaten ei zuen: *errote bai, hamen dau errote*.

Egun, ostera, hainbat etxek izen bi dauzkate, herriak bakarra erabili arren: Zubiaurre edo *Fernandone* eta Urigoiti edo *Zerreñe*, hartuko ditugu adibide modura. Ahozko jardunean *-ne* genitiboa daroan izen moldea nagusi bihurtzen doa. Hori bai, sano garrantzitsua da azpimarratzea antroponimoari genitiboa gehituta (Fernando+ne) sortzen diren izenak, su edo familia bakarreko etxeetan baino ez daudela. Bizitza biko etxeetan ez da halakorik gertatzen, eta izen zaharra gordetzen da. Bizitza biko etxean aipatu dugun egituradun izen berririk egotekotan, su bakarreko etxea izan zen sasoiko izendapena da. Era berean, zehaztu gura genuke gizonezkoen izenak direla beti izen berria eratzeko erabiltzen direnak. Horrek ere informazioa ematen digu gizarte egitura berriaren inguruan.

Laburbilduz, su-errolden arabera, goizen dela 1796. urtea baino beluago, Jataben jabetzaren kontzeptua aldatzen hasi zen. Pentsamolde zaharrean Fernando *Zubiaurreko* edo beste barik *Zubiaurre* deituko zioten biztanleari, biztanlea etxearena zen. Eta gerora kontzeptu aldaketa etorri da. Fernando bizi den etxea *Fernandone* izatera igaro da, Fernando da etxearen jabea.

ETXEAREN BARRUKO BANAKETA

Jatabeko herrian nagusi den *aldea-etxe* tradizionalaren egitura eta banaketa azaltzeko kanpoko aldetik hasiko gara.

Zelai, sastegi edo *portalaurre* esaten zaio etxeko atariaren aurreko lur zatiari. Bertan lurra laiatzeko erremintak edukitzen ziren eta abereak uztartzeko lekua ere bazen.

Garaigoiko aldea-etxeko portalea, 2008.

Etxera sartzeko atariari *portale* esaten diote. Harlausaz eginekoa izaten da, eta estalia izatean lanerako eta familia ospakizunetarako leku aproposa zen. Sarritan habe bat izaten du erdian. Bertan, jotzen ziren gariak, artoak zuritu eta etxetik kanpoko senitartekoak etortzen zirenean, mahai luzea ipinita egiten ziren bazkari eta geroagoko dantzaldiak.

Etxean bizi diren sendien arabera, zenbat bizimodu dauden kontuan hartuta, etxe barruko gelak gehiago edo gutxiago, handiagoak edo txikiagoak ziren. Edozelan ere, banaketa homogeneo xamarra da herri osoan. Banaketa patroi bat dagoela esan daiteke.

Etxea banatzeko eredu nagusi bi daude Jataben, bertako lekukoen arabera: goi-etxea eta behe-etxea. Goi-etxea esaten diote bizilekua goiko solairuan daukanari. Horrela, beheko solairuko abereen edo langintzaren berotasuna gelak epeltzeko aprobetxatzen zuten. Adibide modura har genezake *Añeka ferreria* etxea. Beheko solairuan burdinola eta gorta egoten ziren. Ondorioz, bizilekua goian zegoen. Erroten kasua edo beheko solairu osoa gorta duen etxea izan liteke goi-etxearen beste adibide bat. Oro har, ostera, behe-etxeak, edo bizilekua beheko solairuan dutenak dira etxerik gehienak. Eta behin azalpena emanda, bigarren eredua, behe-etxea deskribatuko dugu Jatabeko etxe banaketa arketipiko legez.

> «Karreju, andi gortara ta eskillerak euki gendusen. Etze gustik diferentek ixen dire, se gure etze goi-etze ixen san, ta pratikamente onek aldea-

etze danak be-etze(k) dire. Orrek dekea, bean deko bisitze, bean, lurren. Se emen etzek geienak lurre euki deude bean, suten, kuartutan ta danen. Ta geldi-geldi ola imin sakean ta beste batzuk, gero beluau semento bota, ta beluau baldosak... Orre(k) barri(k) tire danak, nire gaste denporan gaienak lurre euki deude bean, ta ola. Orrek ixen dire be-etzek, bean sute ta kuartuek ta olan, ta etzerik erdi ixen da orretariko ta beste erdi gorte, ta goien kamare ta lastegi. Emeko etze danak, gaienak. Baia guren ote san almasen moduen aurreko bea, ta ferreria, a ixen san fundisiño, ta goien bisitze-leku.»

Etxeko atetik sartuta lehenengo *karrajua* dago. Barruko beste geletara, *kuartu* edo *gele* esaten diete, joateko pasabidea da *karrajua*. Eguraldi txarra zegoenean, berez *portale* edo atarian egitekoak diren beharrak egiten ziren bertan. Artoa zuritzea litzateke adibide bat. Leku freskoa izaten zenez esnea, ardoa eta arkak ipini ohi ziren bertan, elikagaiak ondo kontserbatzeko helburuarekin. Etxean jaten ematen zitzaien eskaleen plater eta edalontziak ere, *karrajuan* gordetzen zituzten. Bertatik joaten da etxeko beste txokoetara. Amaieran gorta izaten du gehienetan eta bertatik irteten dira ganbarara igotzeko eskailerak. Eskailera horien azpian, leku freskoan, gordetzen zen ardorik gozoena, *eskilerapeko* esaten zitzaiona.

Karrajutik aurrera eginda aurkituko dugun lehenengo gela etxeko bizimoduaren zutabea zen; *suete* edo *sutea*. Han egiten ziren jatorduak eta etxe barruko bizitza soziala, neguan batez ere. Han egiten zitzaien harrera etxera zetozenei. Bertan egoten zen beheko sua, eta geroago *txape* edo sukalde ekonomikoa. Hotzetik babesteko, etxekoentzat zein abereentzat jatekoa prestatzeko, belaunaldiz belaunaldi kultura transmititzeko... lekurik garrantzitsuena zen suetea. Etxea etenbako jarduera baten erdigunea izan da gizarte tradizionalean. Bertan etxeko kide guztiak kide aktiboak dira; agian horrexegatik, lanari edo beharrari horren lotuta ez dauden barruko gelei ez zaie hainbesteko garrantzirik eman. Lantoki izateari utzi dioten etxeetan egongelak edo harrera-gelak garrantzi handiagoa hartu dute, etxearen barruko irudia eskaintzen dute eta.

Beheko solairuan, suete eta karrajuaz gain logelak izaten ziren, jatabearrentzat *kuartu* edo *gele*. Sasoi batean familiak ugariak ziren, seme-alaba asko, gurasoak, aitita-amamak, mutilzahar edo neskazahar geratutako osaba-izekoak, morroi edo kriadaren bat... Inori ez zitzaion bururatzen, bakoitzak logela bana izan behar zuenik. Logela bat izan ohi zuten gurasoek, eurentzat. Ume jaioberririk bazen euren ondoan egingo zuen lo oholezko kuman. Seme-alaben arteko banaketa sexuka egiten zen. Logela batean mutilak, bestean neskak. Eta aitita-amamen kasuan, batuta daukagu eurak aparteko logela izatea, baita amamak neskatoekin eta aititak mutilekin lo egitea ere. Bigarren egoera hori, batez ere, neska-mutikoak txikitxuak ziren sasoian izaten zen. Etxera ezkondutako seme-alabaren kasuan, batzuetan ganbaran, *kamare*, logela berria egiteko ohitura zegoen.

Beheko solairuaren deskribapena amaitzeko karrajuaren amaieran egoten zen gorta aipatuko dugu. Han egoten ziren etxeko abererik gehienak. Gortaren eta suetearen arteko hormaren kontra egoten ziren askak, batzuetan horman zuloak egoten ziren abereei jaten emateko. Bizitza biko etxe batzuetan gorta erdibana erabil-

tzen zuten, bestela bakoitzak berea. Auzoen arteko hartu-emanak erabakiko zuen hori neurri handi batean. Azkeneko urteetan, abeltzaintzaren gainbehera dela eta ez dago abererik gortetan. Eta etxe askotan *txokoa,* lagun arteko bazkari eta afariak egiteko lekua, egin dute gorta berrituta. Bide berean, nekazaritza eta abelazkuntzaren beherakadak beste irtenbide ekonomiko batzuk bilatzera behartu ditu biztanleak. Hara, Garaizar nekazal turismoa, etxe egitura zaharra eta ekonomi jarduera berria uztartzeko egindako ahalegina.

Gaineratu behar genuke, XX. mendearen bigarren erdira arte, etxe gehienetan behean lurra zegoela. Bai gortan, baita suete zein geletan ere. Gerora hasi zen gortan porlana, geletan oholak eta suetean baldosak ipintzeko joera.

Gortaren gainean *lastotegi, lastategi* edo *lastegi* dago. Izenak ondo adierazten duen moduan, neguan abereei jaten emateko lasto eta belar sikuak gordetzen ziren bertan, *plega-plega intxe.* Lastategira igotzeko eskailera egoten zen gortan. Baita *tranpe* ere, lastategitik gortara zihoan zuloa. Belarrak gurditik lastegira sartu eta handik gortara jaisteko erabiltzen zen. Hasieran, lastategiko behearen gainean *kapirio* izeneko habe, *age*, meharrak ipintzen zituzten, horien gainean gurbitza eta gurbitzaren gainean belar sikua. Beluago heldu ziren, lekukoen esanean, lastegiko zorua egiteko oholak.

Goiko solairuan, lastategiarekin batera, isolatzaile termikoaren funtzioa zuen ganbara egoten zen, *kamare*. Batetik bestera joateko atea zegoen gehienetan. *Kamaran* indaba, artagaraua, irina, *urune*, arkak eta kontserbatzeko jeneroa edukitzen zuten. Etxekoek behar beste leku edukitzen ez zuten kasuetan, *sabai* izeneko bigarren solairu modukoa eraikitzen zen *kamaran*. Oholekin egiten zuten, eta bertan labore edo zerealak sikatzen ipintzen zituzten.

Antzina ez zen komunik egoten etxe barruetan. Ez behintzat egun ezagutzen ditugun modukoak. Beharrizan fisiologikoak lastegiko *tranpatik* gortara, gortan bertan edo soloan *arto bittarten* egiten zituzten.

> «Bean sute, karraju, eta kuartuk. Goien bere bai, baia bean, en jeneral onek etze erdiek, au etzea, kapela txikerra da eta kuartu bi tte sute. Aurren ta atzen gortako alderritti kuartuek, ta erdiñ sute, aldeak en jeneral. Baia gurean, aldea-etze txikerra ixen daleas, atzen ta aurren kuartuk itteko, atzeko kuartu itteko ber dan modukoa, gorteri kendu akon, ta oiñ au bere erdin sutea ta atzen ta aurren kuartu(k) tekos one(k) pere. (...) Ta seme-alaba askotxu edo ser badaus ba kamaran bere kuarturen bat iñ in ber igol. (...) Gero lastegi, lastegi da gortean ganen bedar sikue edo galtzu edo kolokateko leku. *Zuloa egoten zan gortatik lastegira bedarrak botateko?* Bai tranpe ote san, eta kamarati sartzeko serera bere lastegire, egote san ate bat, baia tranpea derrigorreko. *Eta kamarea?* Bai kamare goien.»

ATEAK ETA LEIHOAK

Portaletik sartuta dago etxeko ate nagusia. Eta zenbat bizitza hainbat ate egoten ziren. Berriemaile gehienen esanetan atea zabalik egoten zen beti. Gauez itxi egi-

ten zuten, baina ez giltzaz. Giltzaz senitartekoen etxera egun bereziren batean joaten zirenean baino ez zuten ixten. Lekuko batek aipatu du, hala ere, bakarrik bizi ziren andreek beti aldean eroaten zutela giltza, bidean ostentzen zutela bestela, eta atea ixteko ohitura zeukatela. Dena dela, oro har, giltzarekin barik *pasadora, trabile* edo *trange fuerte ixitxe* zarratzen ei ziren ateak lehengo sasoietan. Horrekin batera egungo gizartean kanpotik etor litekeenaren beldur handiagoarekin bizi direla aipatu izan dute maiz. Zati bakarreko eta zati bikoak izan dira *aldea-etxeetako* ateak. Zati biko ateen kasuan goiko zatia gehienetan egoten zen zabalik egunez, etxean jendea egon zein egon ez. Atearen goiko zatian kristala edukitzen ei zuten batzuek, horretara etxera nor datorren ikusteko. Kristala zeukaten zati biko ateetan egurra ipintzen zitzaion goiko aldean, kristalaren atzetik, gauez ixteko. Ukondoak atearen beheko zatian ipinita, aurrerantz arean makurtuta eta kanpoari adi gogoratzen dituzte berriemaile askok euren aitita-amamak.

Katu-zulo izeneko atearen ondoko behe aldeko igarobidea ezagun dute lekuko gehienek. Baina era berean diote etxe gutxitan zegoela ate nagusian. Ganbarako atean sarriago ikusten zela erantzun izan dute batzuek.

Gortako ateari *albate* esaten zaio. Alde bietara zabaltzen den atea da, goitik behera ebakita dagoena.

> «Albatea kanporengo daune, ta gero ba atek barrurantza bere. Emen ate bi daus gortara yoteko ta gero albate. Albate dau tejabanan kanporengo, etzean kanporengo daune albate ta orren kontra tejabane intte.»

Leihoari *bentane* esaten zaio. Gortako leiho estuak eta bizilekuko zabalagoak bereizten dituzten arren, ez dute izen ezberdinik erabiltzen biak izendatzeko. Lehengo bentanak oraingoak baino txikiagoak ziren. Lekukoen esanean, orain, balustreak, leihoen kanpoaldeko hesiak, burdinazkoak dira, eta lehengoak berriz egurrezkoak.

> «Len bentana txikerrauk, barrik imintxe daus, bai aitxek imintxe. (...) *Kontrabentanarik euki dozue?* Bai ori bere bai, ta oin bentanak, barillek burniskok dekus amen baia len egurreskok orre(k) barille, bentanana(k) pere, egurreskok. (...) *Atea zelakoa zan?* Sati biko, goiko kristelagas, oin bere badau or. Uden a bea ixi, ta goie iritxe, goixeko freskuren ta. Gero aulik etorte siren egurdin ta ixi in ber. Ta gero gauerako ola atzeti tapateko, se kristelaas ote sales.»

Oraindino ere ikus litezke leiho txikiak irekita alboko hormetako goi aldeetan, ganbara aireztatu eta laboreak sikatzen laguntzeko. Kasu batzuetan, hiruki formadunak.

TEILATUA ETA ETXEA EGITEKO MATERIALAK

Jatabeko etxeetan teilatua ur bikoa da. Egun teilaz eginda daude guztiak, baina antzina beste langai batzuk erabiltzen ziren teilatuak egiteko. *Talleburu* etxearen izenak adierazten digu garai batean ez zela ohikoa etxeko eraikuntzan teilak *tailek* erabiltzea. Bestela etxeak ez luke izen hori edukiko, besteengandik bereizteko balio izan



Etxeak egiteko harria eta egurra erabili izan dira batez ere. Marutxeaga, 2008.

ez balio, alegia. Izan ere, XVIII. mendera arte zura nagusi izan zen baserrien eraikuntzan, baina suak hartzeko beldurrak eta basoak urritzen joateak eraginda, eraikuntzaren egiturarako beste lehengai batzuk erabiltzen hasi ziren. Teilatuaren alderdirik garaienari *gailurra* esaten zaio. Bertan harri bat edo burdinazko gurutzea ageri dira. Burdinazko gurutzeak inusturia erakartzen duela entzun du hainbat lekukok. Baina oraindino ezbeharrik jazo ez denez, ez dituzte aldatu.

Etxeak egiteko materialei dagokienez, Jatatik ekarritako harriekin egiten ei ziren etxeak antzina. Landu bakoak erabiltzen zituzten hormak eraikitzeko, eta harlanduak ateburu, bentana marko eta horma ertzetan. Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoko etxe guztiak, berriemaileen esanetan, Jatako harriz eginda daude. Jata sano harritsua izan da lekukoek esan digutenagatik, baina orain harri gehienak estalita daude eukaliptoa ereiteko indusketa makinek egindako aldaketen ondorioz. Ataune etxeen inguruan, adibidez, harri ugari zegoen, harrobi edo *kantare* modukoa zen, eta pikatxoiarekin lan egitera behartuta zeuden hangoak. Jatako harriak landuak zirela ematen zuen, adreilu formakoak ei ziren, eta hormak eraikitzeko sano egokiak ziren, batez ere Arrizurieta inguruan. Bertako harriarekin errotarriak egiten ziren, zulo eta guzti ikus zitezkeen bertan behera utzirik, baina orain estalita egongo dira lehenago aipatutako arrazoiak direla medio.

> «Bai, orko Goietan dausen etze geienak ixengo dire ango arries, Yatako arries intte. Yatan badau, Yatabeko elixelaseko pilloa(k) tekosen arri,

oin lurre ta okalitu ta lurreas tapata dau asko, eskabadorakas, baia ostantzen arri pillok Yatan egon dire... Beres arri pilloak egon, landuko modukoak e! Labrata baleko moduko arriek e! Elegante. Ladrillun formara, ya labrata baleko les, kanteaute, sertute...»

Lekukoek diote etxea egiteko materialei begira ezagun zutela Marurinagusiak eta Maruritxikiak etxerik zaharrenak zirena. Habeekin eginda zeuden, horma barrutik zihoazen habe lodiok. Horma lodiak harriz egindakoak ziren eta, orduan zementurik eta hormigoirik ez zegoenez, *morteru* izeneko nahasketa erabiltzen zuten hormei eusteko.

Harea eta karea nahastatuta sortzen zen mortairua. Masa pilatu eta gogortzen ixten zitzaion, *sanea*, berriro busti egiten zen eta horman eman. Horma bakoitzak bere izena dauka eta gerra sasoiko leherketak direla eta hainbat jausi ziren gerra amaitu eta hilabeteetara. Berriemaile baten etxeko atzeko horma eta beste baten etxeko *alborme* edo alboko hormaren kasuak batu ditugu.

Jataben hormigoiaz egindako lehenengo etxea Ergoieneko Kurtze izenekoa ei da, eta orain 94 urte inguru eraiki zuten.

Lekuko baten aita ibili zen Kurtze etxea egiten beharren. Egitura osotu ostean goiko solairuko oholak josi egiten ziren eta hormak karearekin zuritu.

Lehenagoko etxeetako habeak egurrezkoak dira, 2008.

«Au bere ordun ingo san, se agekas intxe dau, estau ormigoiges eta olan intxe. Agekas dau, postek osten itxen diren modun, ba agekas, poste egurreskokas, orman barrun ta gero orma lodi betzuk, arriges ta ori arri, arri sujetateko are ta kare nasta ta iñ alan..., ta morteru esate'akon. Nik ori itxen esetu dot. Ta gero imintxe san pillata ta nik estai(t) sanea edo itxe(n) san, gogortu-edo, ta gero barriro busti ta a usate(n) san. Lenengo etze emen semento, auri Kurtze, ori goiko etze lelengo iñ i san sementoas. Ta larota... larotamairu urte-edo euki ber dittu. Gure aittek yosi i un ola orko dana, ola imiñi bean, etze gustin.»

Egun hargintza eta forja ia guztiz desagertu dira, eta arotzak ere gutxi dira lehengo aldean. Ondorioz, ohikoak izan diren egurrezko egitura handiak baztertuta geratu dira. Material modernoek aldaketak ekarri dituzte etxe tipologian, ordura arteko estiloarekin apurtu eta gero eta gehiago dira paisaian integratzen ez diren etxeak.

ETXE BERRIAK EGITEN DIRENEKO ERRITUAK

Etxe berria eraikitzerakoan kontutan hartu behar dugun lehenengo gauza orientazioa da. Ipar-mendebaldeari atzea emanez eraiki izan dira Jatabeko etxeak. Beraz, atari edo *portalea* hego-ekialdera begira egoten da gehienetan. Edo behintzat, norabide bi horiek osatzen duten angeluaren barruan.

Eraikuntzan une bitan egiten da ospakizuna. Lehenengoari jera edo teila-afaria deritzo eta teilatua amaitzerakoan egiten da. Etxearen egitura eraikitzen amaitu dela ospatzeko da.

Teilatua amaitzerakoan, azkeneko teilan *erramu* ereinotza edo lizarra ipintzen zuten beharginek. Lehenengo landarea erabiliagoa izan da Jatabeko ibarrean eta bigarrena Billelabaso eta Marutxeaga auzoetan. Etxeko nagusiari azken teilan jarritako landarea (bata ala bestea) erakusten zioten eta etxekoek jatordua opesten zieten beharginei. Txarto ikusita zegoen ohitura horri muzin egitea. Lekukoen arabera, ez Jataben, baina bai inguruko herrietan, badira langileei jatordua emateari uko egin ziotenak. Halakoetan etxeari *Gosetxe* (gose + etxe) esaten zitzaion, eta izen horrekin bataiaturik geratzen zen herriaren aurrean. Gosetxe izeneko etxeak aurkitzen dira, Jatabeko lekukoek adierazi moduan, inguruko herrietan, Getxon eta Urdulizen bai behintzat. Eta herri horietako lekukoak bat datoz izenaren zergatiari dagokionean.

«Tailletu akabaten danen, erramu imiñi, baia gero afari gauen. Klaro, orrek ori esan gure dau, afari prepara ber gauen, bearra giau. Ibil basus bi edo iru obreru, albañelak-edo olauk, ba afari gero gauen. Eske erramu seuk estotzesu imingo, eurek imintten deude. Ta gero esaten'tzue: "Aittu, imin du au e! Onek ia ser esan gure daun". Or dekosu espabila bearra, afari in ber dake gero.»

Bigarren ospakizuna etxekoak bertan bizitzera sartzen ziren egunean egiten zen. Herriko abadeari deitu eta otoitzen artean etxeko geletatik ur bedeinkatua banatzen zuen. Zoritxarretatik babestea eta etxearen sakraltasuna azpimarratzea ziren bigarren ospakizun honen helburu nagusiak.

ETXEAREN KANPOKO APAINGARRIAK

Gaur egun etxe gehienetan ez dago kanpoko apaingarririk. Etxeetan egindako berrikuntzak eta sasoi batean halako ikurrei garrantzi urria ematea izan daitezke horren arrazoiak. Marurinagusi etxea erauzirik zegoen ikerketa lan hau egiterako, beraz, ezin izan dugu begiratu halakorik zuen ala ez.

Egun ikusi daitezkeenen artean badago etxearen kanpo aldeko apaingarri bat azpimarratzeko modukoa. Goieta auzoari Marutxeaga izen zaharra eman zion etxean aurki genezake zorioneko apaingarria. Marutxeaga etxea, berbaz *Martze* deritzona, Zoragetxo edo *Sarakotxe* auzunean dago. Egun Lemoiz da lurrez eta orain gutxira arte Mungia izan da. Dena dela errepikatuko ez ditugun arrazoiengatik Jataberi buruzko lan honetan sartzea erabaki dugu.

Etxe horretako ekialdeko horman agertzen da zizelkatutako margoa eta testua dakartzan harria. 1854ko data ageri da bertan, eta *Goya Arrola* abizeneko gizon batek sinatu zuen.

Apeo del vínculo de Maruseaga desde el nº 1: al 90 ipintzen du harlanduan, testuaren gaineko hiru sinbolorekin batera. Erdiko sinboloa *San Pedroren giltzak* dira, gurutzaturik agertzen diren giltza bi, antigoaleko sasoietan erromatarren Jano jainkoaren ikurra izan ziren. Jean Chevalier teologian doktorearen sinboloen hiztegi

Marutxeagako harlandua, 2008.

ospetsuan[2], batzeko eta banatzeko autoritatearen ikur dira giltzak, eta eguzki solstizioekin lotuta daude. Bere eskumatara *biburua* ikus genezake, antzinako kristauen ikur eta zodiakoko *akuario* zeinuaren antzinako irudi-moldea adieraz lezakeena. Ongiaz eta gaizkiaz osatutako munduaren oreka sinboliza lezake, beste aditu batzuen iritzian. Hirugarren sinboloa biribil baten barruko gezia da, gezia argiaren eta artasunaren ikur izan da mundu klasikoan, baita patuarena ere. Sagitario zodiakoko ikurra ere izan liteke biburuaren emetasunarekiko orekan. Bi data sinboliko adieraz litzakete zeinu biek. Giltzak denbora tarte horretarako lotura izango lirateke. Edozelan ere, argibide orokor batzuk baino ez dira, ez dagokio lan honi ikonografiaren mundu lausoan gehiago barneratzerik.

> «An nire yaietetzen, Sarakotzen, dau olan goitxi bera, eskure letrak atarako arri bet, Martze, Martzeko etzen. Oiñ estai(t) pa, aik guardikas-ta oten dire ta... Arri andi bet, orti onako, arrilose, *Apeo del vínculo de Maruseaga* leiduten naun nik. Gero nik estaitx ser ixen san, ondo oki'aun... A munarritxu on sala atxiñeko denporako munarritxu on i san an, *desde el uno al noventa* edo, oiñ estekot akorduri(k) pere, por Jose Julian de Goya Arrola bere bai. Orrek imintten'tzus an, baia dana dau piketa, piketa intxe. Letrak danak arries piketa, oin kendu espadeure, baia estot pentzaten... *Eta non dago harri hori?* Ori arri an dau beti, etzeko orman, portaleko orman.»

SUKALDEA EDO SUETEA

Beheko sua edo ezkaratza

Berogailu zentralaren sasoietan jaiotakoek agian ez dute ondo ulertuko, baina suaren inguruan batu dira beti etxekoak. Suak epeltzen zituen neguko gau hotzak, aitita-amamen kontuak belaunaldiz belaunaldi igaro eta bizitza sozialaren erdigunea zen. Suetea jateko gela, bisiten gela, egongela edo batzartzeko gela eta beharlekua ere bazen. Urtaro beroan, bizitza biko etxeetan auzokoak batzen zituen portaleak kenduko zion protagonismo handia. Baina etxeko andrearen lantoki nagusia izan da beti etxekoak elkartuta mantendu dituen lekua. Sua familiaren eta etxearen sinboloa da. Su bakoitzari boto bat zegokion antzinako gizarte ereduan. Familia bakoitzeko ugazabari, baldin eta jabea bazen. Bizitza biko etxeetan, su bi egoten ziren, sendi bi. Halakoetan, aurkako botoa eman ezkero elkar baliogabetu egiten zuten. Adostasunera heldu beharra zeukaten euren iritziak zer edo zertarako balioko bazuen.

Etxera sartuta lehenengo geletarikoa da *sutea*, Jatabeko etxe tradizionaletan. Ataritik bertatik edo karrajuko lehenengo atetik helduko gara bertara. Jatorriz, sua gela horren erdi-erdian egoten zen eta kea teilaturantz joaten zen. Goialdean, alboan leiho bat izaten zen, beti zabalik, kea irten zedin. Gure berriemaileen gomutan

---

[2] CHEVALIER Jean; GHEERBRANT, Alain. *Diccionario de los Símbolos.* Barcelona, 1991.

ezagunagoa izan da etxeko horma nagusietariko baten kontra egoten den beheko sua. Halakoetan, beheko su horrek kanpaia izaten du, kea hartzeko, eta ke hori teilatuaren kanpoalderaino doan tximiniatik irteten da. Sua beheko aldean dagoen burdinazko plantxa baten gainean egiten da; beste plantxa bat hormaren kontra ipintzen da, horma hori babestu eta, bide batez, suaren beroa zabaltzeko. Bertan eskegitzen dira txorizo eta piperrak sikatu daitezen. Gelari *sute* edo *suetea* esaten zaio, baina sua ezartzen den gelaren barruko leku konkretuari *ezkaratza*. Beste lekuko batzuen arabera, sua zegoen lekuari barik, suetea dagoen gela osoari eta bizilekuari esateko ere erabiltzen zen *ezkaratza* sasoi batean.

Laratza, *laratzu*, tximiniaren barrualdetik bertatik, zeharretara ipinitako barratik, eskegita dagoen kate handia da. Bertatik galdarak eta galdarilak eskegitzen ziren, bestela *trebere* izeneko hiru hankadun oinarria ipintzen zitzaien su gainean paratzeko. Bere gainean lapikoa ipinita egiten zen lapikokoa. *Txape* edo sukalde ekonomikoa etxeetan sartzen joan ahala abereentzako jana, *egosarik*, egiteko baino ez zen erabiltzen beheko sua. Hiru hankadun *trebereaz* gain lau hankako *parrille* ere ohiko erreminta zen. Taloak berotzeko erabiltzen zuten batzuek, baina oro har erretzekoa zen jenero guztia parrillan egiten zen: sardinak, txitxarroak, xerrak, sagarrak... (azken hauek labean erretzeko ohitura handia egon den arren). Talo-burdinak, *taloburnik*, asta luzea izaten zuen eta taloak erretzeko erabiltzen zen, behin *taloholan* jo ostean, gero parrillan berotu arren. Sua bizitzeko hauspoa erabiltzen zen, *su triste daunerako*. Tenazak erabiltzen ziren txingarrak, *txinarrak, txinarrik, illentik, brasek* edo *ikatzillek*, alboratu, hartu eta zigarroa pizteko, kafean sartzeko, plantxa zaharretarako...

Bartzuna, beheko sutik gauzak ateratzeko pala modukoa zen. Burruntzia etxetik kanpoko jatordu berezi batzuetan ere erabiltzen zen. Txorizoa, patata, sardina... burdin puntan ipini (batzuetan egurrezko makilak erabiltzen zituzten) eta koipetan hasi arte berotzeko erreminta ohikoa zen. *Tanboliñe* edo danbolina burdinazko edukiontzi zilindrikoa zen eta bertan erretzen ziren, esate baterako, gaztainak. Laratzari lotu egiten zitzaion.

Beheko sua eta beheko surako tresnak.

Misto edo pospoloak baino gehiago *txiskeru* zaharrak erabiltzen ei ziren sua pizteko. Erreminta horiek metxa luze lodi bat izaten zuten eta goiko muturreko *txisparriari* eraginda lortzen zuten sua. Egurraren zaborrak, ezpaltxoak eta egurra ebaki osteko hondakinak, erabiltzen zituzten sua isiotzeko.

> «Beko suen, auspo, tenasak, parrillea eta trebere, iru ankako ta parrille lauko. Ta talo-burni, asta luseas, ta beste bat ixete san txingerra atarateko, selan esate(n) sakon areri? Bartzune. Bartzune ixete san olan palatxu bet ta burnies, ta ixete(n) san surtetik prase atarateko ta gero parrille imintte(n) san an, ta talok imintte(n) siren parrillen ganen. Talo-burniñ erre ta parrillen talok, otzitxu estittesen. Ta parrillen altza itxe aken asala, gausa gosok orre(k) tire. (...) Laratzu bere bai, ote san kate ta gantxo bere bai.»

Sueteko garaitiko erremintak

Jatekoa prestatzeko tresnen artean, azpira etxe guztietan zegoen. Irina, egindako ogia gordetzeko eta taloa *igurditeko* erabiltzen zuten altzari hau. Goian tapadun arkatxoa eta azpian armairu txikia zeukan. Ontziteria lurrez edo buztinez eginekoa izaten zen, bai lapiko, galdara eta platerei dagokienez, portzelanazkoak ere egoten ziren arren. Edalontziak kristalezkoak ziren. Lapikoak eta zartaginak horman eskegita egoten ziren, trabesak zituen ohol baten bidez. Gainontzeko plater, edalontzi eta katiluak arasan, sueteko armairuan, gordetzen ziren. Horiek garbitzeko, harrikoa egiteko, *harria* egoten zen suete guztietan. Lapikotik jana platerera ateratzeko *kutxare,* plateretik saldak eta lapikokoa jateko *koillare*, sardexka eta *kutxillo*, pitxar edo *jarre*... gordetzen ziren sueteko armairutxoan.

Txitxilu edo *zizilu* esaten zaio sutondoan egoten zen oholez eginiko banku moduko jesarlekuari. Gehienetan arotzak egiten zituen, baina badira enbor edo *trongo* birekin egindakoak, baita ohol bakarrarekin egindakoak ere. Bertan *sieste* edo bazkalosteko loaldia egiten zuten sarritan.

> «Txitxillu ixete san olan tronko bi, egur tronko bi ebaitxe, ta ol bat yositxe ganen. Batzuk eleganteauk, baia jeneralen ol bat. Ta beste batzuk ote(n) siren ba, arotzak iñekok, olaas iñekok, kaderak eta gusti, baia normalak, tronko bat bean ta ol bat ganen. Ta sieste an botau, intxunte paraute sarrak.»

Sillek, bizkarraldea daukaten jesarlekuak, zimitzekoak izaten ziren sarri. Egitura egurrezkoa izan zezaketen edo osorik oholez egindakoak izan. Bizkarralde bako aulkiak, *aurki*, behiak erazteko eta amak seinari bularra emateko erabiltzen ziren.

Mahaia oholezkoa izaten zen, bertan egiten ziren jatorduak bereziak ez ziren egunetan, eta etxe batzuetan hormara biltzeko burdinazko bisagra erabiltzen zuten. Horretara, beste zereginetarako espazioa irabazteko.

> «Guk oki gendusen sillek, sumetzeskok, sumetzesko sillak oki gendusen yesarteko. *Zeuek eginikoak?* Guk es etzen, baia bataran batek in tte saldu ingo sittusen. Sumetzeskok, are(k) sillek, aik eternok ixete siren, apurtu bere esiren itten. Aurkitxu bakarrik, aurki, atxiñe amak umeri titi

emoteko usate(n) san. Aurkitxu bai okitxe gendun, aurki txikitxu bet, beko suben ondon. *Eta jatordua non egiten zenduen?* Suten, maitxu bet, atxiñe andi beres maie bere, alau olesko maie. *Eta platerak eta lapikoak, zelakoak ziran, lurrezkoak?* Batzu(k) pai, baia porselanasko(k) pere egon siren, baia yan itxe san atxiñe... Gure ama difunteri esakon gustaten, danak kasula bateti yan. Imiñi tenedorak edo kutxarak edo danak, eta kasula bat-edo erdien ta andi yan danak. Baia inddabak-eta gure amari esakon gustaten ori, ta imintxe(n) soskusen bakotxa beran platertxuk ama difuntek. Ta atxiñe olantxe etze gustitxan e! Dana(k) kasula bateti yan. Se platera(k) pere ordun kontauk e! Oki es platera(k) pere gitxi baño etzen. *Basuak?* Basutxu(k) pai, kristeleskoak oki gendusen. (...) *Ze mueble eukiten zenduen sutean?* Suten armariotxu bet eta aspire talo itxeko, orrexe(k) gausa bie(k) pakarrik ote siren. Eta katxarrok gure basendusen oki eskeitte, alan orman imintxe gendusen eskeitte, olau ser bat, imiñi ol bat edo trabestxu betzuk yositte ta an eskeitte imiñi katxarrok, lapikotxuk eta sartenak-eta, se esan oten lekurik, egon beres armariorik.»

Suetearekin lotutako sinesmenak

Herritarren artean batutako sinesmena da, lotara joan aurretik ondo garbitu behar dela suetea. Garbitasun horren beharrak jatabearren berbetan arrazoi argia dauka. Gauez, etxekoak lotan daudela, aingeruak etortzen dira etxeko suetera, dantzan egitera. Aingeruak datozenerako garbi egon behar du sueteak.

Jose Miguel Barandiaranek era horretako sinesmenak etxeko hildakoenganako kultuaren barruan kokatzen ditu[3]. Etxea hildakoen lekua ere bada, gauez arbasoak bueltatzen dira, suak betetzen du bizidunen eta hildakoen arteko lotura. Euskal Herriko beste leku batzuetan, gauez datozenei jan-edana ixten diete. Jataben, beste leku askotan bezala, suetea ondo garbitzen dute.

ALTZARIAK ETA ERREMINTAK

Logeletan egoten ziren altzariak etxekoen atsedenerako eta arropak gordetzeko izaten ziren. Arropak gordetzeko altzariekin hasita, *komode* eta *erroperu* aipatu behar dira.

Logelan, bi armairu mota zeuden. Txikienari komoda esaten zitzaion eta ohe jantziak gordetzeko erabiltzen zen: mantak, izarak, ohe-gainekoa... Bestetik *erroperu* izeneko armairua zegoen. Komoda baino handiagoa zen, gaztainondo egurrez egina sarritan, tailatuta zenbaitetan eta etxekoen arropak eskegitzeko erabiltzen zen.

---

[3] BARANDIARAN, Jose Miguel. *Curso monográfico de Etnología vasca.* Ataun, 2000, 74. or.

Eskuz landutako arka, 2008.

Ohearen ondoan mesanotxea zegoen, eta gaur egun ere hala egongo da etxe askotan. Bertan Biblia edo otoitz liburua edukitzeko ohitura zegoen etxe batzuetan. Eta ondoan ohea. Ohe mota bi aurkitu ditugu. Aipagarriena bietatik, bestearen ezaugarri guztiak barne hartzen ditu eta, *ogaseru* edo ohe-zeruduna da.

Etxeko jaun eta etxeko andrearen ohea izaten zen gehienetan. Baita edadeko osaba-izeko zein etxe barruko autoritate eta begirunearekin lotutako senitartekoena ere. Antzinakoak ohe zabalak ziren, birentzat eginak, lau taketek eusten zioten ohe-zeruari, eta ohearen gaineko sabaiaren funtzioa betetzen zuen. Kolore ezberdinetakoak izaten ziren, eta lekukoen esanean batzuk gorrixkagoak eta besteak iluntxoagoak ziren. Sarritan landuta egoten ziren eta oihalekin ixten zuten ohea eltxoetatik babesteko. Era berean, oihal horrek intimitate handiagoa ematen zion bertako bikoteari.

> «*Ohezerudun oherik ezetu dozu?* Bai, lo intxe nau ni orretan. *Zelakoak ziran?* Ene, politxek, oin bere barri on eskero gustako leskit, baia se politxek! Altutxuk, onen antzen eta kaderak eta onek albotako serak eta one(k) danak loras beterik, gorrik eta asulek... Lorak eta erramak eta dana kolores beterik eta gero goien, lau taket, eta or goien gero ogaseru, ta a bere sentenolau koronak eta koloretekas. Elegantek ixen dire orrek e!»

Lehengo koltxoiak ardi-lanaz betetzen ziren. Ezkon aurretik artzainei agintzen zieten koltxoiak egiteko, arreoaren zati garrantzitsua zen eta. Artilezko koltxoia egin eta

mantentzeak lan handia eskatzen zuen: artileak eduki zitzakeen pintxo eta arantzak kendu, urarekin garbitu, sikatzen utzi, tela erosi koltxoiaren *zaku* edo estalkia egiteko, josi... eta etxearen garbi-ikuziaren atalean aztertuko ditugun lanak egin behar ziren. XX. mende amaieran heldu ziren koltxoi sintetikoek alboratu zituzten ardi-lanaz egindakoak. Horretarako berebizikoa izan zen koltxoi berriak kontserbatzeko lan askoz gutxiago egin behar izatea. Goieta edo Marutxeaga auzoko lekuko baten nebak esan zuen moduan: *Arrabea, hau ez da koltxon Flex, hau da koltxon prest*.

Geletako hormetan ohikoa izaten da argazkiak edukitzea; etxekoen historian garrantzitsuak diren jazoera eta pertsonen argazkiak. Ezkonberrien argazkietan azpimarratzekoa da zelan beti, edo gehienetan, gizona jesarrita ageri den eta andrea zutunik.

Karraju eta ganbaran arkak egoten ziren, leku freskoan, beti ere. Laukizuzen formadun egurrezko edukiontzi erdibituak ziren. Ireki eta itxi egiten ziren goia estaltzen zion oholarekin, beste ohol baten bidez konpartimentu bi sortzen ziren (bakarrekoak ere egon arren), lauburu edo disko itxuradun estelak erakusten dituzten apaingarri landuak izaten dituzte sarri eta irina, artagaraua, indaba... gordetzeko erabiltzen ziren. Euren artean bereiztekoa da *gazunaske* izenekoa, txerrikiak gatzetan kontserbatzeko erabiltzen zena.

Aipatu ditugunez gain tinak, *tiñe*, eta tinakoak, *tiñeku*, balde, otzarak... eta beste hainbat erreminta baziren aldea-etxeetan. Bakoitza dagokion langintza eta funtzioa aztertzerakoan ikusiko dugu.



Irina, artagaraua, indabak, etab. gordetzeko arka, 2008.

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da etxe gehienetan edukitzen zituzten zulo, kutxa eta gordelekuak. Horman, lurrean edo habeetan, zuloak egiten zituzten eta bertan kutxak sartu. Dirua, eskriturak eta armak ezkutatzen zituzten halako lekuetan.

SUGARRIAK

Sua izan da gizarte eredu tradizionalean energia iturri nagusi, etxearen babesle, bilgune eta ezinbesteko osagaia. Sua piztu eta mantentzeko erregaien premia izan da aurreko gizaldietako biztanleen buruhauste handienetakoa. Eta energia-iturria ziurtatzeko inguruko lehengaiez baliatu dira beti Jatabeko biztanleak.

Egur eta ote bila jo dute jatabearrek euren udalerriko basoetara. Herri jabetzakoak batzuk eta jabetza pribatuarekin lotutako partzelen bidez banatutakoak izan dira besteak.

Goieta edo Marutxeaga auzoan ikazkintzak pisu nabarmena izan du. Hala ere, batu ditugun ikazkinen aitormenen arabera, ekoizpen gehiena Mungian saltzen ei zuten aldez aurretik hitzartuta bezeroekin. Beraz, erregaien gainean gabiltzala, hasiera batean beharko lukeena baino askoz garrantzi gutxiago zeukan ikatz kontsumoak Jatabeko etxeetan. Salbuespen modura har genitzake lantegi izaeradun etxeak, esaterako erementari etxea; baina ikatza Bilbon erostea ohikoagoa izaten zen halakoetan.

> «Mungire gurdiñ erote gendun iketza, Txatximintxatati eta orti..., gurdiñ artute, Armintzera bere bai. *Plazan saltzen zenduen?* Eskatute okitxe euren, ordun esan oten eletrisidade ta one(k) pere, gerra aurre ixen san ori, ta braserutarako-ta erote san asko. Ordun estimedu ixete(n) san iketza. Baia alan kosta bere itxe san e, bueno! Aldeanuna beti ixen da narre e!»

Beheko sua egiteko sugarririk onenak gurbitza eta artea dira, lekukoen iritziz. Arkazia ere erregai ona da, ez ostera aurreko biak adina ona. Txarrena berriz haltza da, sasoi batean, toponimiak eta lekukoen gomutak dioenaren bidetik, sano ugaria Jatabeko Ergoienen. Sugarri onenak aurkitzen ez zituztenean, lehen Goieta gurbitzez aberatsa bazen ere, beste egur batzuk erabiltzen zituzten: sahatsa, haritza, lizarra, pinua...

> «*Beheko surterako ze egur erabilten zenduen?* Onena sugarrie gurbixe ta arte. Baia aik euki esik, txarraukes in ber: saratza, altza, lexerra. Lexerra bere esan txarra ixeten, aritte. Aritte bere bastante ona, altza txarren antzeko kasik. Ta piñu bere es ona, baia ona estekosunen txarra badekosu txarraas in ber ba. Ori da kasu, orixe da mundu onetako bizimodu. Ordun onena gurbixe ta arte sube itteko fenomeno. Arkasi be ona.»

Erregai nagusia mukurrak ziren. Mukur esaten zaio Jataben beste ezertarako balio ez eta ihartuta dauden haritz zaharrei. Goizean isiotu eta egun guztian irauten zutela gogoratzen dute lekukoek. Aterpean edukitzen zituzten behin etxera ekarri eta gero, lehor egotea sano garrantzitsua da eta, sugarriak bere funtzioa egoki bete dezan.

Mukurrak *Margaltza* edo Malgarrazaga menditik ekartzen zituzten urte guztian. Baita *Arbiñe* ondotik ere. Eskatu behar izaten ziren, gero agian debalde eskura zitezkeen.

Basoetatik zuhaitzak ateratzea jatabearren langintza nagusietakoa izan zen sasoi batean.

Orain artean beheko sua edo ezkaratza pizteko erabiltzen ziren sugarriak ikusi ditugu. Baina baziren beste su mota batzuk isiotzeko erabiltzen zirenak, esaterako *labasua* egiteko. Labeko sua pizteko *labarote*, ote nagusia edo ote garratza deritzona erabiltzen zen.

ARGIA ETA URA

Zeruko argi eta errekako ure. Hara argiz eta urez hornitzeko jatabearrek, munduko biztanle guztien moduan, hasiera batean erabiltzen zutena. Esan genezake suaren bidezko argiak gizaldietan argitu dituela Jatabeko etxeak.

Etxetik kanpo ibiltzeko *zuzi*a erabiltzen zen. Gari-txolen goiko muturrari, garia jo eta garaua atera ostean galtzu multzoak buruz gora ipinita egiten zen sortari su emanda sortzen zen *zuzi*. Bat eskuetan eta beste bat besapean eroaten zuten antzinako jatabearrek. Bata amatatutakoan bestea eskura edukitzeko. Kale argiztapen bako sasoietan erraza zen etxera zetorren edo etxe ingurutik igarotzen zen bidaiaria ikustea zuziari esker. Argia egiteko modu arriskutsua zen kontuz ibili ezean. Lekukoek aitortu digutenez, behin baino gehiagotan hartu zuten su baso eta etxeek, lehengo eraikuntza materialen eta zuziaren suaren arriskua zela eta.

> «Gaues ibiltxeko len susi erabiltxen gendun, ta peligroso da e! Susi san, ba galtzu, gari koiste san ta gari-txortak itxe(n) siren (...) ta axe ixete(n) san susi, galtzu-txole. Eta a ixete(n) san gauetan, ordun linternarik eta olan bere esan egon, eta gixonak-eta yon ber ixete euden, igual mediku bille bere, eta susi. Baia esan ixeten seguru, ese alboko sasi(k) pere igual artze'un sube, ta basok erre. Subetan eron ber ixete san argi itxeko. Ostantzen ba, karburo-argi edo farola, baia farola bere kandele bere pagateko diru ber san. Ta karburo-argi eta orrek amata itxen siren.»

Lekukoen memorian beti eduki dituzte kandelak etxean. Edozelan ere, argigarri horien erabilera heriotz ohikundeekin lotuago ageri da euren memorian etxeko argiztapenarekin baino, helburu horrekin ere erabiltzen zen arren bitarteko hobeen faltan. Beheko su handiak egiten ziren antzina, eta horien bidez suetea ondo argiztatuta zegoen. Bestela, kandelari, haizeak amata ez zezan, kristalezko estalkia ipintzen zitzaion, *farola*, eta etxean zehar zein kanporako ere erabil zitekeen. Euskal Herriko luze zabalean, oraindino ere, Santa Ageda bezperaz era horretako argigarriak erabiltzen dituzte kantariek.

Horren ostean olioarekin eta ondoren petrolioarekin zebilen kinkea erabili zuten. Edukiontzi txiki batean olio edo petrolioa ipinita alanbre fin batekin egiten zuen argia. Analogiaz *farola* izena hartu zuen argia egiteko era horrek ere, *orio* eta

petrolioaren sugarra haizetik defendatzeko aurretik aipatutako estalki bera ezartzen zioten eta.

Petrolioaren ostean *karburo-argia* heldu zen Jatabera. Karburoa bera Mungian edo Bilbon erosten zuten. Metalezko edukiontzi zilindriko batean sartzen ziren karburo harriak, ur tantekin erreakzioa egin eta askatzen zuen gasak edukiontziaren irtenunean su hartzen zuen. Aurretik aipatu ditugun argia egiteko metodoetatik ondoen baloratua da karburoa lekukoen artean. Hala ere, gortan basa zegoenean karburoa itzali eta kandela erabiltzen zuten, badaezpada ere.

> «Ni ona etor nintzenean emen etzen esan egon, biderik esan egon, urik esan etzen egon, argirik esan egon. *Zegaz egiten zenduen argi?* Arre-argi, karburo eta kandele. Emen karburo eta kandele eta seren..., artean, beste bat orioas itten sana, alau potetxu bet, farola esaten dakona, ori lau kristel dekosena ta goitti astatxue. Alau katxarrotxu bet eukitte'un barrun ta gero imintteko alau kordoitxu bet eta orio barrun, ta ari kordoiri... Baia argi triste-triste itxen dau, baia orio txupaten dau ta sube itte'aun. (...) Alau potetxu bet ixete(n) san eta kolokate(n) san an, seran barrun, farolan barrun, ta berari botate'akon orio, eta gero okitte'un kordoitxu be(t) kora, ta ari kordoitxuri emote'akon sube, eta aiñ orion seraas itte'un sube ak. Ta kordoitxuk lusero aguantate'un e, ta gero amata itten san. Ta amataten sanean olan orros bat sartu ta gorantza tiretute'akon ta emon sube ostabere barriro ta erretan egoten sanen orio usiñe botate'aun. Ta argi triste-triste itte'un baia lusero aguanta. Se kandele imintten sendun baia kandele ariñ... konsumidu itten san.»

Argindarra edo elektrizitatea 1936ko gerraren aurretik heldu zen Jatabera, sano etxe multzo mugatura izan arren. Durangar batek ezarri zuen Sustatxaerrotako, *Utxeko errote,* uraren jausia aprobetxatzeko ipinitako dinamo baten bidez. Zubiaurre, Asteintza eta inguruko sei-zortzi etxetara heltzen zen, lekukoen esanetan, nahiko indar eskaseko argi hori.

> «Argi gerra aurren be on san guren argi. Or goiko Utxeko errotan on san Abadiñoko-edo... mutil sar bat, ta errote, edo uren jausies ak euken dinamo imintte. Ta on siren emen sei edo sortzi etze, ta argi txarra baia argi san apur bet. Gero gerrate akaba sanean orti Serrati imin san argi lelengo. Ta Serrati imiñi arten karburoas, ta karburo tretan badau, kandele-edo. Ordun beko sue(k) pere andik itten siren ta sute sue(k) pere argittu itte'un ba.»

Ura lortzeko errekara joaten ziren hasiera baten jatabearrak. Batzuek hur eta besteek asago zeukaten baina. *Ur-paluk* erabiltzen zituzten, muturretan balde bana zeukan oreka errazteko makila, ura etxera ekartzeko. Bestela balde bat buruan eta bestea eskuan ekartzen zuten andrazkoek. Gauez etxera ura ekartzeko ur-paluetan balde bi, eskuan beste bat eta haginetan linterna eroaten zuen jatabear presturik ere ezagutu dugu. *Errade* eta *kantaroak* (portzelanazkoak batez ere, buztinezkoak apurtu egiten ziren eta) izan dira ura garraiatzeko edukiontzi erabilienetarikoak, inoiz baita *esne tankiñek* ere.

Iturburuak ugariak dira Jata aldean. Horietako askotan metal-ura zegoen, irteten zen lekuaren inguruan mineralaren zantzu gorrixka uzten zuen, eta sano gozoa zen lekukoen esanetan. Antzinako iturriak, txorrotadun iturburu edo *manantielak*, bide alboetan eta etxe inguruetan egoten ziren. Sikate sasoirako bereziak izaten ziren batzuk, lehortzen ez zirelako, esaterako *Azulatxekoa*. Batzuetan zipotza, irtenunearen neurriko zotza, ipintzen zitzaien iturriei ur isuria ireki eta ixteko. Putzuak ere bazeuden, behean harriak ipini eta balde bidez ura eskuratzeko.

> «Orduko denporatan uri(k) baperes, asauti ekarri ber ure, igero ber. Balde bat buruen ta beste bat eskun ekarten nittusen errekati etzera ure. An bertan egote(n) san erreke, edo manantial bat egoten san. Ara manantialera etorte(n) san ure barruti, baia uden ordun sikete andik itten sittusen ta uden siketu itten san batzuten manantiala bere. Ta beste bat oki gendun gero, metaleskoa, metal-ure, andi bera trokarantza bajatu etzeti, ainbes bider in ber, ta an okitxe gendun kantaru bet betetan, se alau txorro txiki-txikitxu bet emote(n) saun, ta balde bete itxeko lusero egon ber. Ta kantarotxu okitxen gendun an txorrotxun imintte, eta yon baldeas eta kantaruti baldera bota ta eron etzera. Metal-ure, goso, sano goso! Ordun metal-ure esan egoten leku askotan. *Zelan igarten jako metal-ura dala?* Ba alan gause gorri bet itxen dako, biden bere bai, metala formaten da, alan gorri. Baia ure goso.»

Billelabaso eta Unpara aldean *zitsuski, itsuski* edo eta ihitokiak erabiltzen zituzten urez hornitzeko. Bertatik edaten zuten abereek. Basoetan eta soloetan agertzen diren lur azpiko errekatxoak dira, berriemaileen arabera. Landare mota batek salatzen du *zitsuskien* existentzia, *luki buztenak* (Equisetum fluviatilis). Luki buztana dagoen lekuan *karkabe, ugerrin* edo ura igarotzeko zuloa egiten zen. Zulo hori harriz bete, gainean lurra bota eta gero urak gizakiak gura duen lekutik korritzen du. Orduan txorrota ipini eta iturria sortzen zuten.

> «Errope etzen itten gendun yabona, ta al bada auri-egunen, ittusureko ure okitxe gendun baldetara batute eta bueno, ona ixete san e! An ixerak imiñi katxarro onak eta deslaba. Al dan modun bixi, oingo modun es. Se Sarakotxe siku ixen da, ureas txarra. *Ur gitxi euki zenduen?* Ure gitxi, edateko oki gendun ure ona. *Iturritik hartzen zenduen?* Es itxurri es, sera, fango bat on san, sitxuski. Sitxuski ixeten da, selan esango'tzut, basatza bat ixete les, eta ure beti dauna, bertan urteten dau urek. Sitxuskik emen bere solotan bere badaus, baia osten ure gitxi dau emen. Eta ara yoten giñen, baia kilometro erdi ingeru bai e! Ta egun gustitxen ara ure bille. Grasik ume asko ixeten giñena. *Non ekarten zenduen ura?* Errade esaten geuntzen, alau tapadun katxarro bat ixete(n) san... Atxiñe kantaru bere bai. Baia kantaru esgendun ibiltxen se apurtu itxen san. Eta potixe bere bai, ta osten onek tankiñek esnenak, ta badaespadan gausa bi eron ber ixete siren. Potixetik gosona ixete(n) san ure.»

Gaur egun ura sueteko iturritik hartzen dute Jatabeko etxe guztietan.

BERRIKUNTZAK: IRRATIA

Irratiari bere tartea egin behar zaio Jatabeko herri ondarearen gaineko lan honetan. Izan ere, komunikabide horrek eragin izugarria izan du etxe barruko kultur transmisioari begira. Bai euskararen ikuspegitik, zenbait lekuko irratiari adi hasi zen erdaraz ikasten, eta baita kultur edukien belaunaldiz belaunaldiko igarotzeari dagokionean ere. Lehenagoko etxeko aitita-amamen berbetaren lekua hartu zuen hedabideak, eta ordutik, etxe barruko komunikazioa beste plano batera igaro zen.

Gerra aurretik ez zegoen irratirik Jataben, ez behintzat erabiltzen zenik. Edozelan ere, batu dugun irratiaren lehenengo datua gerra aurrekoa da. Ergoiengo etxe batera bidali zuen Algortako senitarteko batek bere irratia. Telefunken markakoa zen eta sano handia, gaur egun ikusten direnen aldean. Baina irratia ostenduta eduki zuten, ganbarako arka baten, Jatabeko ebakuazioan berriro Algortara eroan zioten arte. Gerra sasoian irratia edukitzea errezeloak isiotzeko arrazoia ei zen, lekukoen arabera.

1945. urte inguruan hasi ziren irratiak etxeetan euren lekua hartzen. Irrati asko itsasgizonek ekarri zituzten. Radio Bilbaon Begoñako meza entzutea da sasoi hartako programazioaren ohiko akordua. Radio Andorra eta Olaso Aitaren esanak ere entzuten zituzten orduko jatabearrek, garai hartako legedian irratsaio galaraziak ziren arren.

ETXE ALBOKO ERAIKINAK

Etxearen inguruan eraikin batzuk izaten dira, jarduera ekonomiko tradizionala aurrera eroateko lagungarriak. Oilotokia zen horietako bat, etxe guztietan egon ez arren. Etxe ondoko ardi-txabola ohikoa izan da ardiak eduki dituzten etxeetan. Erremintak gordetzeko txabolak ere eraiki izan dira, bertan burdinazko erremintak gordetzeko. Etxetik kanpo eduki izan dira sarri burdinazko erremintak, inusturiaren beldurrez, metalak erakartzen dituela eta. Ezagunak dira inusturiak burdinazko erremintak gordetzeko txabolak jo izan dituen kasuak. Harraska, errekan arropa garbitzeko harria, eta uraska, abereek edan dezaten harriz egineko edanlekua ere ohikoak izan dira etxe inguruan. Horien gainean jantzien eta abeltzaintzaren inguruko ataletan jardungo dugu zehatzago.

Etxe alboko eraikinen artean garrantzitsuena labea izan da. Harriz edo adreiluz egina eta gaineko aldean teilaz estaldurik, etxetxo itxura har lezake. Bertan *labasua* egiten zen *labarotea*, ote nagusia edo ote garratza erabilita. Goieta auzoan, inoiz artea eta gurbitza ere erabili izan dira labea isiotzeko. Bertan, elikaduraren gaineko atalean ikusiko dugun moduan, artoa ihartu, piperrak eta sagarrak erre… egiten ziren.

Urkulu izeneko hortz biko zurezko haga luze xamarra erabiltzen zen sugarria labera sartzeko. *Zestotxu* izeneko zaran txikerra erabiltzen zen artaburuak labera jaurtitzeko.

Labe barruko errautsak ateratzeko eta artaburuak mugitzeko *biriki* edo hiruki itxurako mutur luzedun erreminta erabiltzen zuten. Beste etxe batzuetan pala moduko bat ere erabiltzen zen artaburuei buelta emateko. Azkenik, *biriki* edo belaikiekin txingarrak atera ostean eta artaburuak bota aurretik, basoan apropos bilatutako irak

Asteintzazarra baserriko tresnak gordetzeko txabola, 2008.

lotzen zizkioten mihimenarekin kirten luze bati. Horretara *basnere* edo basnero izeneko erratz modukoa sortzen zuten, uretan busti eta labea ondo garbitzeko.

Labea behar beste berotu dela jakiteko, aurreko aldean, ate ondoan dituen hiru adreiluei begiratzen zaie. Zuritu egiten direnean prest dago labea.

Laberako erremintak etxekoek egiten zituzten. Erreka ondoetako hurritza, *urretxa*, edo haltza izaten ziren egur estimatuenak. Sendo eta luzeak izan behar zuten tresnek. Horretarako ez ziren estimatuak gurbitzaren moduko zuhaitz txikiagoak.

> «*Zeintzuk ziran labarako erremintak?* Ba lelengo, artaburuk sartu itxeko sesto txikitxu bet, sarana san nausie, ta ari sestotxu esate geuntzen, ta aieas sartu. Eta labe, sube egurreas nik esetu'ot beti itten, labarote bere bai, baia egurre *generalmente*, bason piñuri errame, edo gurbixeri punte edo sertu... Labarote estot esetu hainbeste surten sartute nik, baia lelau labarote erote(n) eudela esate(n) euden. Eta gero basnera garbittuteko, palu beten punten olan saku beteas imiñi tte bere bai, baia nire aittek itte un basora yon ta ire ebai, te ire palu luse baten punten imiñi irea, amarrau an mimenagas eta basnera, eta aieas ekarten san autze kanpora. *Busti egiten zan?* Bai, baia irea es siku-siku daune, alan berde antzen dauna batute. Ta gero ire batze ta sertu sanen, saku beteas, baia nire aitteri beste asko giau gustate(n) akon, iregasko. Eta beste bat, alan egur bet ixete



Fernando Egia labasua egiteko lanetan, 2008.

> san ta palu luse bateas, ta aldarri baten eukitte'un sorrostute askoreas ta besten beste era batera, arto mogitteko gero alan erote san, ta emon buelte ta onantza, erre estittesan... Arantza eta onantza ak sertukeran, ak mogidu itte ausen, ta ordun artze(n) euren aurok buelte. Ikus dot beste bat olan pala antzeko bat, oiñ atzerau, geu(k) pere ibil gendun, ser bat, aspittik buelte emoteko, baia nire aittek esaun euki orretariko serik. *Ze uzen dauka horrek?* Biriki. Eta laban egurrek sartuteko, palues iñeko, alau urkulu, alan bi eukitte usen, egurresko. (...) Ta beste gausa bat aukitte'un, a(k) pere eukitte'un asta luse eta egote(n) san ol bat, ixete san aunenbeste ingeru luse, ta alan forma bat, betik ixete(n) san lisu eta goitxik alan ebaitte eta gero emetik eukitte'aun engantxata ta areas itte(n) san artok ekarri. Barrutik atarau, koisteko lekuraiñoko.»

ELIZAKO JARLEKUA EDO SEPULTURA

XIX. gizaldian debekatu arte, ohitura zen hildakoak eliza barruan lurperatzea. Herriko etxe bakoitzari jarleku bat dagokio elizan. Baita lurrez beste udalerri baten egon baina elizaz Jatabe direnei ere. Adibiderako, aipa ditzagun Mungiako Markai-

da auzoko *Arene* eta *Gortezarre* etxeak, elizaz Jatabe direnak. Edo eta lurrez Jatabe izanda elizaz Lemoiz diren Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoko etxeak.

Jarlekua edo sepultura elizaren nabean dago, baina etxearen zatia da era berean. Horrek hildakoak etxe barruan egotearen garrantzia eta lehenago aipatutako suarekiko loturaren berri ematen digu, berriz ere. Etxe bakoitzak dauka bere jarlekua eta etxearen izenarekin edo etxearekin lotutako zenbaki baten bidez identifikatzen zen. Etxea eskuz aldatuz gero, gauza bera gertatzen zen jarlekuarekin.

Hobiratzeak ortusantuetan egiten hasi zirenetik, jarlekua benetako sepultura izatetik sinbolikoa izatera igaro zen.

Etxeko andreak zeukan jarlekuaren ardura. Bera zen etxekoen eta etxekoak izandakoen arteko zubia. Jarlekuan egoten zen mezan, berak garbitzen zuen, eskaintzak egin eta bere inizialak grabaturik zeuzkan jesarlekuan esertzen zen, sepultura gainean.

ETXEA BABESTEKO ANIMALIAK ETA PIZTIA KALTEGARRIAK EZ HURRERATZEKO NEURRIAK

Txakurrak, antzarak eta katuak izan dira Jataben etxea babesteko animalia nagusiak. Antzarek abisatu egiten dute, txakurren moduan, inor etxera hurreratzen denean. Aldran ibiltzen dira, hegoak zabaltzen dituzte erasotzailea beldurtu guran eta sano hegazti suminkorrak dira.

Etxea babesteko erabiltzen diren txakurren artean arraza askokoak daude. Arditxakurra da horietako bat. Artegiak dauzkaten etxeetan ematen duten laguntzaz gain, etxea babesteko zeregina eman zaie beti, lekukoen gomutan. *Kaza-txakurre, erbitxakurre* edo ehiza-txakurra ere etxearen babeserako erabili da. Bereziki oldarkorra izanez gero, katez lotzen izan da etxeko atari ondoan. *Txakur txikerra* edo *ratoneru* izeneko txakur txikiak ere sarri ikusi izan dira etxe inguruak jagoten. Etxe inguruko arratoi, piztia txikerren eta azkonarraren ehizarako ere sano abila da txakur txikerra. Txakurrak, etxea defendatzeaz gain, etxeko abereak ere babesten ditu piztia kaltegarriengandik.

Arratoiek ganbarako eta karrajuko arketako leka, irin zein txerrikirik jan ez zezaten, katua estimatua izan da aldea-etxeetan. Zenbait lekukok dioenaren arabera, katuei ez zaie jaten eman behar euren beharra ondo bete dezaten.

Etxea eta uztak piztia kaltegarriengandik babesteko beste neurri batzuk ere hartu izan dituzte herritarrek. Esaterako, ogigaztari beldur handia izan dio baserritarrak oilotokietan egin izan dituen sarraskiengatik. Halako piztiarik hurrera ez zedin, trapu eta abarketa zaharrak erretzen zituzten. Ondorioz sortzen den ke beltzak etxetik asagotzen ditu piztiak. Euskal Herriko beste lurralde batzuetan zapo eta sugeentzat erabiltzen zen metodo hori.

Azkonarra sano piztia kaltegarria izan da. Arto-soloetan triskantza handiak egiten zituen. Etxe ingurura hurbil ez zedin farola piztuta uzten zuten gauez. Izan ere, etxea piztiengandik babesteko neurri gehienak gauez hartzen ziren. Azken zertzelada gisa aipa dezagun arratoiek sagarrak jaten zizkioten lemoiztarraren kasua. Jatabearrek eta zenbait lemoiztarrek diotenaren arabera, bere ohetik sagarrondoetara

heltzen zen kordel bati txilina eskegi zion mutur batetik. Eta gauak hala ematen ei zituen, lantzean behin ohetik txilinari tiratuz, arratoiak asagotu zitezen.

ETXEA BABESTEKO ERRITUAK

Etxeak giza espaziorik garrantzitsuena osatzen du gure paisaian. Baina kultur ekintza legez, herriaren unibertso mentalean ere sartzen da. Herri pentsaera horren ezaugarriak sinbolo eta erritu batzuen bidez igar litezke. Baina gaur egun, orain dela gutxira arte indarrean zeuden sinesmen horiek galduz doaz. Hori dela eta, batzuetan, erritu eta sinbolo horiek antzina zeukaten esanguratik aparte ikusten ditugu. Beste batzuetan sinbolo zahar horiek apaingarri modura baino ez dira ageri, edo ezpabere eten gura ez den ohitura formal batekiko lotura gisan.

Erramu edo ereinotzak etxearen babesle moduan indar handia eduki du Euskal Herriaren luze-zabalean, eguzki-lorearekin batera. Erramu egunez, Aste Santuaren aurreko domekan, etxe ingurutik hartu erramua eta elizara eroaten zuten bedeinkatzera. Horren ostean etxeko atean, suetean, geletan ipintzen zuten etxea gaitzetatik eta jeinu gaiztoengandik babes zezan. Ur baso batean gordetzen zen edo sikatzen edukitzen zen. San Juan bezperan sutara botatzen zen ereinotza, eta txingarrak soroa bedeinkatzeko erabiltzen ziren. Babesteko ahalmena egotzi zaio erramuari euskal pentsaera tradizionalean. Berez, eguraldi txarraren, gaueko iluntasunaren, edo beste arrisku fisiko batzuen kontrako segurtasuna eskaintzen du.

Baina etxeari, ordena naturaletik kanpo dauden beste eragile batzuek ere eragin liezaiokete. Esaterako, ganadua gaixotasunetatik babesteko ohikoa izan da etxeetako gortetan San Antonen irudia ipintzea.

Etxearen punturik ahulenak teilatua eta atea dira. Hori dela eta, puntu horietan ipintzen dira etxea babesteko sinbolorik gehienak. Adibidez, sasoi batean *erradurak* atean ipintzen ziren babes ikur moduan. Etxea zoritxarretatik babesteko helburuz ipintzen zuten. *Erradurak*, baliagarria izateko, bidean aurkitutakoa izan behar zuen eta buruz behera ezarri behar zen. Espiritu txarrak etxetik aldentzen ei zituen.

Justuria da etxearen aurkako arerioetako bat. Antzina beldur izugarria edukitzen zioten. Lekukoen gomutan agertzen dira oraindino ere inusturiek etxeetan eta etxe inguruetan egindako kalteak. Lehengo beheko suko laratzak, burdinazkoa zenez, erakarri egiten ei zuen inusturia. Goieta auzoko etxe batean tximiniatik sartu eta, txahal bat hil eta txerri erdia erre egin ei zuen.

Trugoia entzuten zenean, *trugonadea* zegoenean, Kandelario egunez bedeinkatutako kandela hartu, musu eman eta suetean piztu egiten zuen etxeko ugazabandreak. Berari zegokion inusturiaren aurkako erritua zuzentzea. Etxe inguruan lanean zebiltzanak ardura handiz aldentzen zituzten burdinaz egindako erremintak; etxe aurrean uzten zituzten, labe azpian edo berariaz horretarako egindako txabolan. Inusturia dabilenean burdina lur azpian sartu behar dela esaten zuten lehenagoko jatabearrek. Uste zabaldua da trumoiak jotzen duenean zuhaitzen ondoan egotea arriskutsua dela. Sinesmen hori indartzen dute urteen joan-etorrian inusturiek ihar-

tutako eta erretako arbola ugariek. Zuhaitzak dauden lekuan harrapatuz gero ekaitzak, zabalgunera irten behar du pertsonak, *garbien plantau*, eta makurtu. Sinesmen berezia dago era berean Txibokolandan dagoen Zinbritza basoarekin. Izan ere, han beti jotzen ei du inusturiak.

> «Ondiño lengualdin on da bat telebisiñon esaten trubonade daunen arbolarten badau urten in ber dala kanpora ta garbin plantau, eta garbin bere makurtute. Eta korrienteri bere, kotxen bado bere bentanak isitxe, korriente dala akabu. *Trumoia egoanean kandelarik iminten zenduen?* Bai, bein baiño sarriau. (...) Eta eskun erremintterik euki eskeron largau. (...) *Erramua erreten ezetu dozu?* Bai, gatza bota surtera ta..., sarran kostunbrek... »

Umeei etxera sartzeko agindua eman ohi zieten. Ate eta leiho guztiak kontu handiz itxi egiten ziren eta argindarra amatatu egiten zen halakorik zuten etxeetan.

Bedeinkatutako kandela piztu ostean otoitz egiten zuten etxekoek. *Justuriaren* babeserako Santa Barbarari eta *trumoi amarra* egiten ei zuen Santa Kurtzeri errezatzen zieten. Lekuko batek baino gehiagok adierazi digun moduan, otoitzak eragina izan dezan Santa Barbaraz ez da trumoia denean bakarrik gogoratu behar. Abisu horrekin lotuta ikusiko dugu, herri egutegiaren barruan, izen bereko mendi, ermita eta jaiegunarekin antzinako jatabearrek izan duten lotura. Hara Jatabeko herritarrek inusturiaren aurka egiten zuten laguntza eskea:

"Santa Barbara, Santa Kruz
jauna balia zakiguz,
inuzenteen ogie
jauna(re)n miserikordie".

Errezu horri *Aita gurea* errezatuta laguntzen zitzaion berriemaile askoren etxeetan. Denborale handia zegoenean ur bedeinkatua botatzen zuen etxekoandreak etxeko atari, leiho eta tximiniara. Hots, inusturia sartzeko arriskua zegoen lekuetara.

Horrekin batera bedeinkatutako erramua eta gatza botatzen zituzten beheko sura. Era horretan etxea inusturitik babesturik lotzen zen.

ETXEAREN GARBI-IKUZIA

Lehenago ere aipatu dugu, egunerokoan, lotara joan aurretik, zeinen garrantzitsua zen euskal pentsaera tradizionalaren baitan suetea ondo garbitzea. Etxea garbi edukitzeko beharren artean bereiztuko ditugu egunerokotasunaren barruan sar genitzakeenak eta bereziak edo apartekoak. Azkeneko horiek urtean behin egiten ziren, etxetik kanpoko senitartekoak gonbidatu eta elkarrekin bazkaltzeko ohitura zegoen herriko jaien aurreko egunetan. Eta etxearen kanpoko aldeari garrantzi berezia ematen zitzaion. San Lorentzo abuztuaren 10ean ospatzen da eta aurreko egunetan egiten zen garbiketa berezia etxe gehienetan. Baina Goieta auzoan, elizaz Lemoiz diren etxeetan, abuztuaren 15aren aurreko egunetan egiten zen, Andra Mari egunaren inguruan.

Eguneroko garbitasun beharrak: harrikoa egitea, bogada, plantxa… andreek egiten zituzten. Garaitikoak erratzak eta *eskupañuak* erabilita burutzen ziren. Harrikoaren kasuan, esaterako, azpimarratu behar genuke beheko suko errautsa erabiltzen zela, eta badela oraindino ere, baxera garbitzeko.

Garbiketa orokorra egiten zen herriko patroiaren aurreko egunetan, ostera, deskribatzeko moduko zenbait behar egiten ziren. Esaterako, egun horietako beharra izaten zen etxeko hormak kareaz, *letxadeagaz*, zuritzea. Gastatutako erratzekin egiten zen behar hori. Erratzaren puntak apur bat ebaki, berdindu eta etxeko hormak zuritzen ziren.

Horiez gain badaude lantzean behineko jardunak ere. Batzuek urtea baino epe zabalagoa zeukaten. Esaterako ardi-lanaz egindako koltxoiak garbitzea. Urte birik behin egiten zuten etxe gehienetan. Koltxoia estalkitik askatu, garbitu, makila batekin jo eta eguzkitan ipini ondo lehortu dadin. Lekukoen esanean ezinbestekoa zen koltxoia era horretan ondo garbitzea behintzat arol manten zedin. Bestela galdu egiten zen, laskitu.

Lantzean behin egiteko beste behar bat, koltxoia garbitzea baino sarriago burutzen zena, tximinia garbitzea zen. Kedarra garbitzeko teilatura igo beharra zegoen. Txapa edo sukalde ekonomikoa bazen tiroa kentzen zitzaion. Zaku batean sartzen zituzten adreiluak edo harriak, etxearen eta garaiaren arabera.

Zakua sokaz lotu eta tximiniako zuloan gora eta behera eginez garbitzen zuten.

ETXEAREN JABETZA

Euskal abizenek, inguruko hizkuntzetakoek ez bezala, ez diote erreferentziarik egiten aitari, baizik eta jatorrizko etxeari. Etxeak ematen zien izena euskaldunei eta lehenago aipatu dugun jabetzaren kontzeptuaren berri ematen digu. Historiako jazoera ezberdinek eraginda, erabat aldatu da jabetzaren kontzeptua.

Etxe gutxi batzuk izan ezik (Marurizarra, Olakorta, Ametzaga…) euren etxearen *propietario* edo nagusi izan dira jatabearrak. Inguruko herrietan ez bezala, euskal foruak indargabetzean jauntxoek ez zituzten etxeak jabetzapean hartu.

Ohituraz etxeko oinordekotza seme-alabarik zaharrenari, edo gaituenari, uzten zioten gurasoek. Lekukoen gomutan, kasurik gehienetan semerik zaharrena aukeratzen zuten. Beraz, gozamenean geratzen ez ziren neba-arrebek aukera gutxi zeukaten herrian bizitzeko. Hain zuzen ere, errentan hartzeko etxerik ez zegoelako. Lemoizen, ostera, jabetzaren egitura guztiz kontrakoa zen. Jauntxo bakarra zen etxe gehienen jabea. Beraz, Lemoizera bizitzen joandako jatabear asko dago. Euren herrian ez zeukaten etxerik errentan hartzeko aukerarik, eta Lemoizen hartu zituzten. Bertan errentadore edo maizter ibili ziren. Sano iritzi zabaldua da lehengo errentak nahiko sinbolikoak zirela eta baserriko produktuekin ordain zitezkeela gehienetan.

San Tomas eguna, abenduaren hogeita bata, izaten zen errenta ordaintzeko eguna. Jabe nagusiak, edo euren administratzaileak, hirian bizi ziren, Bilbon gehienetan, eta hara joan behar izaten zuten errentadoreek. Bertan, bazkaria ematen zieten nagusiek eta errenta ordainduz gero bakean amaitzen zen urtea.

Berriemaile batek gogoan dauka bere aitita-amamak ordaindu beharreko errenta bost ogerleko, oilaskorik onenak eta zenbait lekarik osatzen zutela.

Beste batzuen arabera, ohikoa izaten ei zen uzta txarreko urteetan, San Tomas eguna baino arean lehenago, gurdian euren ondasun guztiak zeramatzaten sendiak bidaiatzen ikustea. Errenta pagatu ezinik, ihesi, errentapeko beste etxe batera heldu guran.

Aho bateko adostasuna dago berriemaileen artean. Errentan bizi izandakoek azkenean euren etxea erosi dute.

III
ETXEKOAK ETA ETXEKO OHITURAK

ETXEA ETA FAMILIA

Etxearen inguruari lotzen zaio familia historian zehar. Euskal Herriko isurialde atlantikoan, etxeak sakabanatuta daudela, etxe bakoitza osotasun bat da, beste inoren premia ahalik eta gutxien izateko antolatuta. Ahalik eta autonomia sozialik handiena lortzea zen helburua, ingurura egokitzeko autarkian oinarritutako planifikazio ekonomikoarekin. Filosofia horrek etxeari nortasun berezia emango zion, beti ere etxea ulertuta ez eraikin materialtzat bakarrik, bertan bizi direnen bizimoduarekin bat eginda baino.

Etxearen osotasuna, biziduna eta bizibakoa, biztanleak eta babesten dituzten hormak, *etxekoak* berbak batzen ditu. Etxean bizi direnek eta etxekoentzat konfiantza osoa merezi dutenek osatzen dute. Ez dago euskaldunarengandik *zu etxeko lez zara* entzutea baino berba ederragorik.

FAMILIA ETA SENIDETASUNA

Familia edo sendia, tipularen moduan, lotura eta konfiantza maila erdigunetik azalerantz doazen mintz edo geruzaz osatuta dago. Erdi-erdian jatorrizko etxean irauten dutenak daude, *etxekoak,* berbaren esangurarik zorrotzenean. Gizarte egitura tradizionalean odol bereko belaunaldiek osatzen zuten erdigune hori eta, aldi berean, beste guztiekin lotura egiteko bitartekoak ziren. Aitita-amamak, gurasoak eta semealabak dira erdigunearen zutarria, etxean bizi eta jarduera ekonomikoaren ardura daukatenak.

Tipularen kanpo alderantz eginez gero, hurrengo mintz edo azalean, senideak daude. *Senide* berbak odoleko ahaidetasuna adierazten du, etxean jaio baina beste etxe batera bizitzen joan eta familia berria osatzen dutenak. Etxekoekin elkartzen

Elorriaga Arruza familia: Jeronimo eta Bizenta euren seme-alabekin, 1926. Ezkerretik: Antoni, Anita, Txomin, Teodoro eta Edurne.

Elorriaga Arruza familia, c. 1959. Goian ezkerretik: Edurne Elorriaga, Jeronimo Elorriaga, Bizenta Arruza, Txomin Elorriaga, Antonia Elorriaga eta Teodoro Elorriaga. Behean Manolo Askarza eta Patxi Agirre.

dira familia batzeko egun seinalatuetan: San Lorentzo edo Andra Mari egunean (etxearen kokalekuaren arabera), Gabonetan, Domu Santu egunean, ezkontzetan… Halakoetan jatorriz etxekoa denak bere familia osoa ekartzen du: andre edo gizona, seme-alabak… eta familia osoa batu dela esaten da.

Tipularen hirugarren azalean *senitartekoak* leudeke. Jatorrizko etxearekin odolezko lotura daukate baina, dagoeneko, belaunaldien joan-etorria dela eta, asagokoak direnak eta politikoki erantsiak. Maila horretako senidetasuna hiletetan ipintzen da agirian.

Tipularen azaletan kanporantz jarraituta, geroz eta zehaztasun gutxiagoko terminoekin egingo dugu topo. *Arteko* edo *tarteko* berbak horretarako erabiltzen dira. *Artekok gara* esaten dutenean familia barruko asagoko senidetasunaz ari dira jatabearrak.

Seme-alabak edukitzea da familia egituratzeko oinarria. Ezkondutako bikoteak ez dira familia bihurtzen seme-alabak jaio arte.

Badago etxekoak estu-estu lotzen dituen beste ardatz bat ere, ekonomikoa. Etxea, bizilekua izateaz gain beharlekua ere izan da euskal gizarte tradizionalean. Lantaldea osatzen dute etxekoek. Beraz, lantalde horren partaide dena etxekoa izango da era berean. Teilatu beraren azpian iragandako denborak eta garaitiko lankideekin lortzen duen harremanak garrantzi handia izango dute horretan. Ikuspegi horren barruan kontuan hartu behar ditugu auzokoak, euren elkarlanak eta une gaitzetan emandako laguntzak etxeko bihur ditzakete. Baina baita kontrakoa ere, elkarren artean ezin ikusia sortzea.

Familia, aldi berean, eredu mentalen, sinismen eta ideologien, ohituren eta gauzak egiteko moduen transmisorea da. Faktore horien guztien eragina etxeko kideen heziketaren muinean dago.

SENIDEAK ELKARTZEKO EGUNAK

Domu Santu egunez eta herriko patroiaren egunean batzen ziren senideak, hau da, San Lorentzotan Jataben, baina Goieta auzoko hainbat etxetan Andra Mari ospatzen zuten elizaz Lemoiz diren etxeetan. Halakoetan, etxean jatorriz bertako kide direnak batzen ziren.

> «Guk, nire yaietetzen Lemux selebraten gendun e! Erriko yaie Lemux selebraten gendun, Andra Mari. San Lorentzotan gu yoten gintzesan ba osabe ta ixeko, Billebason euki gendusen, or barrion euki gendusen, eta ara beskaritten ta olan bai. Eta gero beste bat emen, Ataunen bere euki gendusen osabe ta ixeko-ta, ta orra beskaritten. Ta orrek inbiteduk, gero Andra Maritten gurera.»

Esaterako, urtebetetzea, orain familia batzeko eguna dena, lehen ez zen ospatzen. Apurka-apurka hasi da ospakizun berri hori indarra hartzen.

Jente ugari batzen ziren familia bazkarietan, suetean sartzen ez zirenez, etxeko portalean mahai eta banku luzeak ipinita egiten zituzten jatorduak.

Azkeneko hamarkadetan, ezkontide gazteen artean, ekandu bihurtu da Gabongaua eta Gabon Zaharra gurasoen etxean igarotzea. Eta jaiegun biak ezkontide bien

Makurtuta eta ezkerretik: Jose Mª Bilbao, Antonio Madariaga, Bienvenido Bilbao eta Juan Oleaga. Makurtuta atzean, Ageda Oleaga. Zutik ezkerretik, Francisca Oleaga, Rosario Oleaga, Josefa Bilbao, Anastasia Oleaga eta Karmen Oleaga, Zubiaurre baserriaren aurrean 1950eko hamarkadan.

sendien artean banatu ohi dira. Gabon-gauez senarraren etxera joanez gero Gabon Zaharra andrearenean ematen dute. Baina antzina, etxetik kanpora ezkondutako seme-alabek euren etxe berrian ematen zituzten urte amaierarekin lotutako gauok. Emantzipatu bako seme-alabak, ostera, lana dela eta etxetik kanpora bizi baziren ere, Gabonetan etxera bueltatzen ziren horretarako erarik edukiz gero. Esaterako, itsasora lanean joandakoek sarritan ez zuten halako aukerarik izaten.

Eztegua eta ezkontzako bazkaria emaztearen herriko elizan eta etxeko portalean ospatu ohi ziren, eta halakoetan ezkontide bien etxeetan bizi ziren familiako kide guztiak elkartzen ziren. Horiez gain, osaba-izekoak eta euren bikotekideak gonbidatuak izaten dira. *Etxeko lez* kategoriaren barruan sartzen diren odol harremanik gabeko auzokoekin batera.

Edozelan ere, hiletetan ikusten dira argien senidetasun loturak. Hiletetara urruneko senideak joaten dira, odolkidetasunezko hirugarren gradura arte.

Jaiotetxean egiten diren familia bazkarietan mahai-buru beti izaten zen *aita zaharra*, edo bere faltan, etxearen kargura zegoen semea. Hala ere, edadeko ugazabandreak garrantzi berezia izan du beti mahaiaren inguruko erritoetan.

Ohituraren arabera, mahaian hiru talde osatzen ziren: gizonezko nagusiak (semeak eta suhiak), andrezkoak (alabak eta erranak) eta umeak, *seinek*, oro har aparteko mahai baten. Zerbitzatzeko ardura etxekoandreak izaten zuen, eta alaba ezkondu zein ezkonbakoek laguntzen zioten.

Ospakizun horietan etxeko hildakoak ere gogoan izaten ziren eta jatorduaren hasieran euren aldeko otoitza egin ohi zen.

FAMILIAREN HIERARKIA, SENITARTEKOAK IZENDATZEKO MODUAK ETA HIZKUNTZA ERREGISTROAK

Familian, etxekoen eta eurekiko odol hartu-emana daukatenen artean, edade kategorietan oinarritutako hierarkia baten ezaugarriak topa genitzake. Hurrenera hori galduz joan da, familiaren barruan azken hamarkadetan egin den aldaketa sakonak eraginda.

Familiako, etxeko kideen izenak ematen digu, izen horiei ematen zaien tratamenduarekin batera, hierarkia tradizionalaren inguruko informazio zehatzena. XX. mendearen hasierara arte aitita-amamari aitajauna eta amandrea esaten zitzaien. Ondorioz, jaun tratamendua zeukaten, familia barruko hierarkiaren barruan ematen zitzaien garrantziaren adibide nabarmena. *Aittitte-amuma* berbak hartu-eman pertsonalagoan erabiltzen ziren. Dena dela, aitita-amamei ilobek berorika egiten zieten berba, errespetu handiarekin. Gaur egun zuka hitz egiten zaie, galdu egin da errespetuzko tratamendu horren erabilera.

Hierarkiaren bigarren mailan gurasoak, aita, *aitte*, eta ama, daude. XX. mendearen hasieran aitari sarritan egiten zitzaion berorika. Amarekin hurragoko tratamen-

Egia Agirre familia, c. 1963. Goian ezkerretik eskumara: Tomas Sarria; Ines, Jose, Fidela, Pilar, Nieves, Juan eta Luisa Egia; eta Pedro Elordui. Behean: Begoña Egia, Fidela Agirre, Jose Egia eta Maritxu Egia. Umeak: (---), Marilu eta Pedro Elordui.

Egia Agirre familia. Jose eta Fidela euren seme-alabekin. Behean eta ezkerretik: Fidela, Maritxu, Jose, Begoña eta Ines. Goian eta ezkerretik, Jose, Pilar, Luisa eta Juan.

dua egon da beti, zuka garatzen zena. Zuka egiten zitzaien, era berean, osaba-izeko gazteei (gurasoen neba-arrebak); osaba-izeko zaharrei, ostera, (aitita-amamen neba-arrebak) berorika egiten zitzaien berba. Dena dela, XX. mendean galdu zen familia barruan berorika hitz egitea.

Hirugarren mailan seme-alabak daude. Sexu berekoei hika egiten zieten sarritan aurreko maila hierarkikoetan kokatu ditugun senideek. Aurkako sexukoei zuka egiten zieten, oro har. Ume txikiek, adimen mailan gora egin arte, beti egiten zuten zuka. Ezkontzak, bide beretik, tratamenduan aldaketa eragiten zuen. Ezkon aurretik euren artean hika egiten zuten bikoteek zuka erabiltzen zuten behin ezkondu eta gero.

Edade kategorietan oinarritutako hierarkizazioak indarra galdu du gure gizartean. Horixe adierazten du zuka zabaldu eta beste formek indarra galdu izanak.

Dena dela, Jatabeko lekukoen esanetan, XX. mendearen bigarren hamarkadarako sano gutxik egiten zieten gurasoei berorika. Zuka egin izan diete gurasoei lan hau argitaratzeko elkarrizketatu ditugun jatabear guztiek. Hika etxetik kanpo egiten zen, euren esanean. Giro informalean eta lagunartean, baita aldea-etxeko produktuak saltzera plazara joaten zirenean ere, baina beti lagun eta *bendejeren* artean. Etxe barruan haserre egoera batean aginduak emateko erabiltzen zela esan digu lekuko batek baino gehiagok. Baita morroiei berba egiteko ere. Izan ere, hitanoak, aginteran erabiliz gero, dominazioa sinbolizatzen du, edadeko jatabearren arabera. Neba-arrebek euren artean, lagun koadriletan legez, hitanoa erabiltzeko ohitura zeukaten. Beti ere harreman esparru informalean.

Berorika karreradunei egiten zitzaien; maistrari, osagileari, abadeari... Batez ere azkeneko horri. Izan ere, Jatabeko XX. gizaldiaren erdialdean bizitakoek ondo gogoratzen dute abadeari tratamendu hori eman ezik, burdinazko giltza astun batez jotzen ziela umeei buruan.

> «*Etxean gurasoakaz, zelan egiten izan dozue zuka edo eztok eta badok be erabilten izan dozue?* Es, es, geuk etzen es, emen: "su sara, erdu ona, au ixu edo ori ixu..." edo olan. Ori beste geien partes olan ausoko gisonak alkarreas ta olan: "se indo(k) pa?, ta selan abil ba?". Olan bai, entzun in doas, ta ikusi bere bai ausoko gisonak alkarreas baia etzen es. *Hori etxetik kanpora?* Bai ausoko gisonari. *Eta andren artean?* Enbran arten bere aurki arentxu e! Baia amen etzen es, kasureko plasara yoten saranen ta... (...) Ta abaderi beori esaten geuntzen, esan in ber olan. Espabere giltzeas burun yo, ta min bet! Se alaseko giltzek oten siren atxiñe! Maistreri bere bai. *Medikuari?* Es medikuari es.»

Senidetasun mailari dagokionez, euskaraz egiten dugun izendapena inguruko hizkuntzetakoa baino konplexuagoa da, sexuen arteko bereizketa egiten dugu eta. Hara Jataben arbasoei eta familia artekoei esateko erabiltzen direnak: *arteraukok* edo *lehengok, aittitte-amoma, amuma, giñarrabe* aitaginarrebari esateko, *aube* amaginarrebari, *etxekoandre, etxekojaune, u(ga)zabandre, u(ga)zaba, aitte, ama, osabe, izeko, koiñetu, koiñate, suiñe, errana, seme, alabe, arrabe, ahizte, nebe, anaje* edo *anaie, lobe, lehengusu, lehengusiñe...*

Berriemaileen artean zer edo zelako maiztasunarekin batu ditugu *tio, tia, suegre, abuelo...* berbak. Baina ez ditugu ezarri lehenagoko zerrendan. Izan ere, oso berriki barneratutako hitzak dira, lekuko guztien arabera. Euren aurrekoek, baita eurek ere, gehien erabiltzen zituzten formak emandako zerrendan agertzen direnak dira. Lekukoari gogoeta eskatuz gero, denek jotzen dute zaharrenak ematen dituzten formetara, eta euren aurrekoek horiek erabiltzen zituztela esaten dute aho batez. Egia da, era berean, gaztelaniatik hartutako forma berriak ere entzuten direla. Egia den moduan, lekuko batek baino gehiagok erdarara jotzen duela ondokoak euskaraz egin arren ere. Eta elkarrizketa elebidunari eusten diote denbora luzean. Azken belaunaldietan gertatu diren aldaketa soziolinguistikoek endekapen efektua eragin dute Jatabeko euskaran. Euskararen jakintzak eta, batez ere, erabilerak sano behera egin dute azken hamarkadetan. Era guztietako maileguak ugaritu dira. Ez euskal komunitatean txertatu direlako, baizik eta, erdara eguneroko hizkuntza nagusi bihurtu duen hiztun komunitatea euskara ahaztuz doalako. Lekuko batek ere ez digu esan *suegre, tio, abuelo...* formak ohikoak zirenik bere etxean. Eta laster gogoratzen dituzte *aube, osabe, aittitte* formak.

FAMILIAKO KIDEEN ROLAK

Etxe eredu tradizionalean, erabat arauturik zeuden senide bakoitzaren eskubide eta betebeharrak. Gizonaren eta andrearen arteko lan banaketa, esaterako, indar fisikoaren eta kultur iraganaren araberakoa da. Eta argi ikusten da aldea-etxearen jardueraren baitan.

Goian ezkerretik: Mª Pilar Agirre, Fidela Agirre, Santiago Belaustegigoitia, Benita Larrazabal, Magdalena Agirre eta Francisca Agirre. Behean ezkerretik: Francisco Agirre, Pilar Larrazabal, Irene Agirre, Rufino Agirre, Feliciana Agirre, Margarita Etxebarria, eta Mª Angeles Larrazabal, c. 1950.

Sexuen arteko behar banaketa horrek esparru fisiko bi bereizten ditu argi eta garbi: etxea eta etxaldea. Etxaldearen esparrukoak dira etxearen inguruko eraikinak, euren erreminta, abere, soro, lantzar eta basoak. Guztiak zeuden produkziora bideratuak.

Barruko esparrua, etxea bizileku esangura zurrunean, suetea erdigune duela eta gorta kanpoan utzita; jatekoak egin eta banatzeko, garbitzeko, makalaldian osatzeko, babesteko... eta amaibako beharra izan da andreentzat.

Etxea andrearen ardurapekoa izan da. Baina ez da hori izan andrearen ardura bakarra. Etxekoen osasuna jagotea etxekoandrearen betebeharra zen, aldea-etxeko produktuen salmenta, umeen heziketa, administrazioa, jaiotza eta herioaren aurreko eginkizunak... ziren modu berean.

Produkzio-arloa gizonaren ardurapekoa izan da. Beraz, ustiapen beharretan andreak laguntzen bazion gizonari, etxeari dagozkion beharretan, ostera, gizona zen andreari laguntzen ziona. Gero, etxe bakoitza bere laratzak ezagutuko zuen arren.

Etxea eta etxaldearen arteko banaketa, azaldu gura dugunera hurbiltzeko orientagarria da. Baina sakontzen hasi ahala ikusiko dugu ez dela erabat horrela. Caro Barojak bere azterlanetan argitzen duen eran[1], beste autore askoren bide beretik, nekazaritza giroko gizarte ereduaren sorkuntza eta garapenean berebiziko garrantzia izan du emakumeak. Artzainen gizartean gizonezkoa izan da zutarria. Eta abelaz-

[1] CARO BAROJA, Julio. *Los pueblos del norte de la Península Ibérica.* Donostia, 1973.

kuntzan, oro har, biek parte hartu izan dute. Espeziearen eta aberearen produkzio funtzioaren arabera, batak edo besteak hartzen zuen ardura.

Euskal gizarte tradizionala oinarrizko kultura horien parte hartzearen ondorioz sortua da. Eta horregatik, batari dagozkion ezaugarriak topatuko ditugu bestearenak direnen ondoan.

Ganadua edukitzeko gorta etxe barruan badago ere, askotan gizonarena izan da kudeatzeko ardura. Baina, bestetik, ortuaren ardura, etxetik kanpo egon arren, andrearena izaten zen. Jatabeko zenbait etxetan ondo gogoan zuten amak zelan gobernatzen zuen ortua. Abereengandik babesteko hesiturik zegoen, eta etxekoandreak bertan, ortuariez gain, loreak gobernatzen ei zituen. Sano antzinako eta agerikoa da, euskal kulturan bezala munduko beste herri askotan, emakumearen, lurraren eta landareen arteko lotura.

Zereginen banaketa argia izan arren, etxeko ekoizpenaren ondoriozko irabazi guztiak, salbuespen barik, ezkontide biena zen. Euskal foru zaharrak *dana biena* esapidearen bidez jasotzen zuen aipatu berri den mozkinen jabetza. Produkzio guztia etxerako zen, gero, elkarrekin bizi ziren guraso zahar eta guraso gazteen arteko ondasun harremanek, eragina izango bazuten ere.

Auzoko batzarretan edo herriko asanbladetan, usadioz, gizonak ordezkatu izan du etxea.

Andreak, ostera, etxea ordezkatzen zuen batez ere osasuna, jaiotza eta heriotzarekin lotutako gizarte konpromisoetan. Bizitzarako erabakigarriak diren uneetan andrea bihurtzen zen etxearen ordezkari kanpoan. Gizarteak onartzen zuen neurrian, gizonaren laguntzarekin. Izan ere, osasunarekin, jaiotzarekin eta heriotzarekin lotutako egoeretan, sano ondo bereizita zegoen sexu bakoitzaren funtzioa.

Oinordekoa eta bere ezkontidea etxearen *jaube gazteak* ziren; oinordekoa aukeratzen zen momentutik (ezkontzaren unea erabiltzen zen erabakia formalizatzeko), gazteak ziren etxearen ondasun guztien benetako jabeak, baina ezin zituzten edozein modutara erabili.

Gainerako neba-arrebak, etxe berean bizi ziren. Ezkontzen ez ziren bitartean etxean geratzeko baimena zuten, gozamenean geratzen ziren. Berriemaileen arabera, gozamena *zaharra hil arte* izaten zen kasu batzuetan. Hots, izan zirela hainbat kasu, elkarbizitza arazoengatik edo dena delakoagatik, guraso zaharrak hiltzerakoan emantzipatu gabeko neba-arrebek etxetik joan behar izan zutena. Edozelan ere, arauak hil arte etxean geratzeko eskubidea onartzen zien oinordekoa izan ez eta etxean bizitzen jarraitu gura zuten neba-arrebei.

Zerbitzariak, *morroi* eta *kriedak*, beharrezkoak izaten ziren behar adina besorik ez zegoenean. Etxe barruan seme-alaben tratua ematen zitzaien, hain zuzen ere, seme-alaben ordezkoak zirelako. Zerbitzari gehienak seme-alaba askoko etxe pobreetatik zetozen. Zerbitzarien eta etxekoen artean hitzarmen antzekoa zegoen: lo egiteko aterpea, jatekoa eta hileta duina, lanaren eta zerbitzariaren ondasunen truke.

BELAUNALDIEN JARRAIPENA

Familia tradizionalean ohiko ezaugarria izan da odol bereko belaunaldi bat baino gehiago elkarrekin bizitzea. Gehienetan, aipatu berri dugun familia egitura tradizio-

Larrazabal Egia familia, 1948. Atzean ezkerretik: Francisco, Bernardino eta Ines Larrazabal. Aurrean: Miguel Larrazabal eta Mila Egia lau alabekin: Emilia, Maribel, Mertxe eta Milagros Larrazabal.

Bonifacio Alzaga eta Dolores Muruaga, Jabier eta Joseba semeekin, c. 1967.

naleko etxea osatzen zutenei familia zabala esaten zaio. Aitita-amama, guraso eta seme-alabek osatzen zuten familia. Gerora, ostera, gurasoek eta seme-alabek osatutakoak, familia nuklearrak hartu dio lekua tradizionalari.

Familia eredu tradizionalean, zabalean, lehenengo mailan guraso zaharrak zeuden; bigarrenean andre-gizon gazteak, eta hirugarren mailan guraso gazte horien seme-alabak. Deskribatu berri dugun egoera etenbako aldaketa prozesuaren baitan ulertu behar dugu. Gauza nabarmena da maila batean zeuden familiako kideak beste maila batera igarotzeko bidean aurkitzen zirela une oro. Eta batzuen desagerpena betetzen zutela hurrengoek belaunaldi berriak ekarriaz batera. Modu horretan, aldea-etxearen iraunkortasuna ziurtatzen zuen txandaketa etengabea ematen zen.

Aitita-amamei *etxeko zaharrak* esaten zitzaien. Baina maila horren barruan aurkitzen ziren, era berean, etxetik sekula aldendu ez ziren belaunaldi bereko izeko zein osaba zaharrak. Bigarren mailan ere, senar-emazte gazteei dagokienean, sarritan izaten zen ezkontzeko adinean egon baina etxean jarraitzen zuen neba-arrebarik. Guraso zaharren seme-alabak ziren eta etxeko osaba-izeko esaten zitzaien.

Etxekoen artean belaunaldi bakoitzean bazegoen etxeko ardura hartuko zuen bat. Etxeko erantzukizuna hartuko zuenari *etxagungai* edo *etxegai* zeritzon. Jataberi dagokionez, lekukoek gogoan dutenaren arabera, gizonezkoa izaten zen gehienetan. Semerik zaharrenak hartu ohi zuen etxearen ardura, abizenari eustea ere, bertakoen esanean, garrantzizkoa zelako. Denborarekin, eta guraso zaharren galera fisikoari loturik, ugazaba edo etxejaun bihurtuko da. Eta etxeko ardura guztiak bereganatuko ditu.

Ardura horiek betebehar zehatz batzuei lotuta ageri dira Euskal Herriaren luze-zabalean. Garaitiko neba-arrebei dotea ematea, emantzipatu bakoak etxean mantentzea, arbasoei begirunea gordetzea, jabetzari osotasunean, zatitu barik, eustea... Oinordekoa alaba zenean, ezkondu ostean ugazabandre izena, *uzandre*, hartzen zuen, gizonezko ugazabaren adinakoa. Ez da gauza bera etxeko andrea eta ugazabandrea izatea.

Bizkaiko ohiturazko zuzenbidean, herentzia betebeharren transferentzia legez agertzen da. Etxeko arduraren eskualdaketa euskaraz *zu etxerako* esakunearen bidez adierazten da. Eta ez, jabetza kontzeptu berriarentzat, *etxea zeuretzat* esanda.

Oinordekoa ezkondu eta etxagungai bihurtzen zenetik, etxe berean bizi ziren guraso zaharrak eta andre-gizon gazteak. Bizikidetza hori araututa zegoen, izan ere, bakoitzaren betebehar eta eskubideak notarioaren aurrean egiten zen idatzizko ezkontza-tratuan zehazten ziren.

Jatabeko etxe gehienek bizitza bi dauzkate, odol bereko familia bakarra bizi arren. Zati biko banaketa hori belaunaldi ezberdinen jarraipenerako betebeharrekin eta guraso zaharren eta senar-emazte gazteen arteko oreka zein hartu-emana errazteko egituraketarekin lotuta dago. Familia eredu tradizionalean alde batean guraso zaharrak geratzen ziren etxean bizi zen alaba baten, edo gehiagoren, ardurapean. Beste aldean oinordekoa bizi zen andrearekin. Guraso zaharrak gozamenean bizi ziren hil arte. Haiek hiltzean, berez bertan gozamenean geratzeko eskubidea izan arren, gehienetan, etxetik joan egiten ziren ordura arte jagoten egondako alabak. Salbuespenak ere aurki zitezkeen, lekuko batek baino gehiagok gomutan duen legez. Baina gehienetan, aukera izanez gero, ezkondu edo moja sartzen ziren. Hots, etxetik alde egiten zuten.

Oinordekotza bako garaitiko semeek ere etxetik irteteko ahalegina egiten zuten. Marinel, elizgizon, fraide, asagoko lurretan artzain... Ez dezagun ahaztu, bertso zaharrek, kopla errondek ezarritako ohore mailek eta aurreko mendeetako zenbait informaziok adierazten diguten moduan, etxean neba edo anaia zerbitzatzen ezkondu barik geratzea ez zegoela estimu handian. Ulertzekoa da, beraz, neskak gurasoak jagoteari utzi orduan, eta mutilak, arinago oraindino, jaiotetxetik alde egiten saiatzea.

Etxean gozamenean geratzen zenak artisautza edo bigarren ofizio batekin osatzen zuen sarri senideentzako beharra. Ezkondu edo batzuk erlijio bizitzan sartu arte, jaiotetxea zen bertan jaiotako guztien bizilekua.

Azken mende erdian asko aldatu da errealitate sozio-ekonomikoa. Eta berriemaileek azpimarratzen dute industrializazioak aldea-etxearekin geratzearen ohorea desitxuratu zuela. Gazteek gurago zuten pisuetara joan eta hirian bizitzea. Mungian, esate baterako, Jatabeko seme-alaba asko bizi da egun.

Joera horren ondorioz, oinordekotza familiarik osatzen ez zuten ezkondubako seme-alabei ematen hasi zitzaien, neskazahar eta mutilzaharrei, alegia. Ordurako kategoria gutxiko gauza legez ikusten ei zuten baserriaren jabe egitea. Esan genezake, era batera edo bestera, mespretxatu egiten zela. Irtenbiderik gabeko iraganeko bizimodu bihurtu zen baserria.

Prestigioarekin batera galdu ziren oinarrizko hainbat lege, esaterako, jabetza banatu barik gordetzea. Azken urteetan mendeetan mantendutako jabetzak banatu eta saldu dituzte etxeetako oinordekoek. Bizimodu tradizionalaren gainbeheraren ondorio nabarmena. Jatabeko esaera zaharrak dioen moduan: *batzillen osten dator zabaltzille*.

TRONKALITATEA

Tronkalekotasuna etxeko ondasunak familiari lotuta mantentzeko helburuarekin sortutako usadiozko zuzenbidea da. Eta azken hamarkadetan baserri munduan aldaketa handiak egin badira ere, esan genezake, oraindino eusten zaiola. Tronkalekotasunaren azpian familia ulertzeko era berezia igar liteke. Aitita-amamak, gurasoak eta seme-alabak ez ezik, jaiotetxekoak diren garaitiko neba-arreba eta lobak ere familiaren baitan hartzen ditu.

Familiaren jabetzakoa dena ondasun tronkal edo enborreko moduan hartu izan da beti. Juridikoki etxekoei lotuta ageri da, eta ezin igaro liteke beste inoren eskuetara senide tronkalen baimen barik.

Gaur egun tronkalitateak iraun duela ikus genezake, batez ere, seme-alabarik izan ez eta zuzeneko ondorengorik ez dagoen etxeetan. Halakorik jazotzen denean, familiakoak zuhur ibiltzen dira tronkalen eskubide eta lehentasunei eusteko. Oinordekoa izendatzeko, halako kasuetan, tronkalitatea kontuan hartzeko eskatzen dute senitartekoek. Hala ere, gerta liteke tronkalekotasun legea ez betetzea. Halakoetan, gehienetan, erakunde erlijiosoak egiten dira oinordekotzaren jabe.

Etxea gurasoengandik seme-alabengana transmititzen da. Baina seme-alabarik ez izateagatik katea eten egiten bada, oinordekotza seniderik hurrekoenengana igaroko litzateke. Senidetasun mailaren araberako lehentasuna legoke.

Jose Barandiaran eta Presentación Urrutia, Agustin eta Felix semeekin, Arene baserriaren aurrean, 1950eko hamarkadan.

Sendiaren ondasun bakarra etxea izan denean, garaitiko ezer barik, seme-alaben artean ez zatitzeko ohitura egon da. Osorik gordetzen da, larregi zatitzeak etxekoak irauteko eragozpena izango litzatekeelako, eta oinordeko bakarra izendatzen da, gizona zein andrea. Oinordekotzatik kanpo gelditutako seme-alabek dote sinbolikoa hartuko dute. Ohitura zaharren arabera, dote hori arra bete lur, teila bat edo zuhaitz batek osatzen zuen. Dote sinboliko horren eskabidea eginez herentziatik baztertu egiten zirela erakusten zuten. Baina era berean, tronkalitateak eragindako eskubideei eusten zietela aldarrikatzen zuten.

> «*Hemen etxeagaz nor lotzen izan da?* Sarrena, sarrena ixen da, etzeko usaba, jeneralen bai etzerik gaienetan, mutille bada sarrena, ta neskato bada bere ta mutille badau atzean, ba mutille... Apelledu segidu ber dau jeneralen. Ori atxiñe olan san. *Eta beste neba-arrebak zer egiten eben, kanpora joan edo ezkondu?* Emeko aldeatako jente aldeako jenteas eskondu da geiena, gero urten derenen fabrikatara eta, baia ostantzen beste biderik on estanen, aldeako jente aldeara, beste biderik esta egon,

edo itxosora, esta besterik egon. *Lehen gainera familiak handiagoak ziran?* Bai ta etzen lotzen sana(k) pere, etzegas lotzen sanak, ba besteri arrebari edo serari, besteri bere seosertxu lagundu itte'otzen, seoser emon in ber, ogerleko bat... Arreoa edo seoser emon, ta bera lotzen san txartoena akabun, en jeneralen, se emon ber ixete baotzen besteri seoser, ba sorrakas lotzen san ta ai(k) sorra paga esiñi(k) peti. Ta sarran ardure bere, ba ak artze'un. (...) Emen etze geienak dekes bisitze bi, bestalde esaten dakona. Ordun sarrena lotzen san etzeas, baia gurason faltan. Ta usufruto, beste erdie lotze aken gurasori. Etzen erdi imintte(n) eren gurasok ibilitteko modun dausen arten. Ta jeneralen alaba bat edo lotzen san gurasokas bestalden, anaie bere bai, baia arrebe badau arrebe. Ta gero guraso sarran faltan ak urten in ber ixeten deu. Ta on dire..., sarrenak topa igual beste leku bet ta urten itten dau ta ordun beste bateri iste eutzen. Sarrenak eskapaten badau etzetik, ordun urrengo lotzen da.»

Egun, aldea-etxeko bizimodu tradizionala gainbeheran doala eta batere ogibide errentagarria ez dela ikusita, etxeko ondasunen batasunaren printzipioa hausten doa.

Ezkontideak arreo edo dote legez ipinitakoa ez da ondasun tronkalen barruan sartuko harik eta senar-emazteek ondorengorik eduki arte. Baina behin familia izanda, ezkontideak ekarritako ondasunak tronkal bihurtzen dira. Familiaren ondasunen enbor berrian txertatzen dira betiko.

TRANTSIZIOAK

Baserri munduan, eta ondorioz, familia tradizionalaren egituran, aldaketa handiak egon dira, XX. mendearen bigarren erditik aurrera batez ere. Aurretik ere jabetzaren kontzeptuan eragin izugarria izan zuten gertakariak jazo ziren XIX. mendean. Eta lan honi bide horretatik lar barneratzea ez dagokion arren, ugariak izan dira nekazal gizartea baldintza berrietara egokitzera behartu duten garapen historikoak. Baina XX. mendearen bigarren erdikoa, industrializazioa, abeltzaintza bigarren mailan utzi zuen basogintza politika eta merke erosiz garesti saltzen duten bitartekarien ondorioz, hondoratu egin da aldea-etxea.

Argia da oraindino ere jatabearrek lanaren eta beharraren artean egiten duten banaketa semantikoa. Lana etxean egiten denarekin lotuta dago eta, *bearren yon*, etxetik kanpora jornal bila joatea da.

Gizona sartu zen lehenengo ustiapen eredu berrian, industri sisteman. Horrek etxetik, etxekoengandik, bertako arau juridikoetatik, sinismenetatik, ohituretatik eta bere hizkuntzatik, euskaratik, asagotu egin zuen. Eta bizimodu berriaren abantailek (lanaldi mugatua, erosteko ahalmen handiagoa, gizartean onarpen handiagoa izatea baserritarra izateak baino...) erakargarritasuna galdu arazi zion bizimodu tradizionalari. Jatabeko lekukoen artean batua da mende erdialdeko mutil gazteei burla egiten zietela Mungiako eta Plentziako neskek, euskaldunak izan eta baserrian bizitzeagatik. Zalantza barik, sasoi gogorrak izan ziren euskal kultura tradizional eta euskaldunentzat, oro har.

Jesarrita ezkerretik Juana Egia eta Esperanza Agirre. Zutik ezkerretik: Emilia Larrazabal, Milagros Agirre, Bernardino eta Milagros Larrazabal, c. 1950.

Aldea-etxeak erakargarritasuna galdu zuen eta gazteak alde egiten hasi ziren. Ordura arte gazte askoren ametsa zena, oinordekotza, baztertu egin zuten. Gurago zuten kanpoan bizi. Horrek kultur eredu tradizionalaren gainbehera arindu zuen, ordura arte arautzen zuten lege eta guzti, noski. Egun, ondasunen berdintasunezko transmisio eredurako joera igar liteke.

Desagertze bidean dagoen familia eredu tradizionala alde batera utzita, orain hamarkada batzuk arte banakak baino ikusten ez ziren sendi egitura berri asko ikusten dira gaur egunean. Horien barruan daude bakarrik bizi diren pertsonek osatutako etxeak, familia egitura bako etxeak (ezkontza hartu-emanik ez daukaten senideen arteko elkarbizitza), familia sinple edo nuklearrak, hau da, andre-gizonak seme-alabekin edo seme-alaba barik, edo alargundutako gurasoetariko bat seme-alabekin, ezkondubako amak euren seme-alabekin, "izatezko bikoteak" seme-alabekin edo barik; sendi zabalagoak, andre-gizonekin batera beste senide batzuk bizi direnean, esate baterako, andre-gizonen gurasoak, neba-arrebak edo lobak; andre-gizon bikote bat baino gehiago dauzkaten etxeak; eta beste hamaika konbinazio posible.

Etxea leinuaren oinarria izan zen, luzaz euskarri material eta juridiko legez. Baina azken gizaldietako indibidualismoaren gorakadak eta horrek eragindako jabetza kontzeptu berriak etxeari galdu arazi diote gizaldietan bete duen funtzioa. Norbanakoa da orain garrantzia hartu duena familia-enborraren aurrean. XIX. mendeko gerren eta foruen galeraren ondoren nagusitu zen ikuspegi liberal, indibidualista eta komertziala lekua irabazten joan da euskaldunon buruetan. Jabetzaren kontzeptua

aldatu zen, ikuspegi tradizionalean pentsa ezina zen lurra saltzea. "Saldua, galdua" dio esalegeak. Baina lehen sektore ekonomikoaren gainbeherak eta lurren prezioak garestitzeak itzelezko dirutzak opatu dizkie aldea-etxeetako biztanleei. Bizimodua aurrera ateratzeko aukerak aldatu ziren, eta baserritarrak, guztion moduan, bere burua egokitu behar izan zuen egoera berriaren aurrean.

TESTAMENTUAK

Tradizionalki funtzio bakarra zeukan testamentuak edo jabe zaharrak hil osterako, burua argi daukan bitartean, egin ohi duen ondasunen banaketak. Eta funtzio hori oinordekoa izendatzea zen. Lehenago ikusi dugun eran, oinordekoaren ardura zen ordutik aurrera garaitiko neba-arreben dote, gozamen eta herentzia sinbolikoari erantzutea.

Elortegitarrak. Ezkerretik hasita: Pedro, Felisa, Pedro, Juan Antonio, Kontxita, Teodoro, Alejandro eta Margarita, c. 1947.

Azken aldian, oinordekotza banatzeko irizpideak aldatzen joan diren neurrian, testamentuan ondasunak seme-alaben artean ahalik eta berdintsuen banatzera jotzen da. Hori dela eta, gurasoek zehaztasun handiagoz jokatu behar izaten dute.

Funtzio tradizional hori aldatu denetik, testamentuak beste garrantzi bat hartu du. Hain zuzen ere, baserria eta bere jabetza osoan igarotzetik seme-alaben arteko banaketa ahalik eta paretsuenera jotzeak zehaztasun handiagoa eskatzen du jabe zaharraren aldetik.

Esaterako Jatabeko lekukoek ondo gogoratzen dute zein garrantzitsua zen testamentuan mugarriak edo *munarrik* ondo zehazturik agertzea. Bai etxearen lurrek auzoarekin muga non egiten duten ondo jakiteko, bai neba-arreben artean jabetza banatzen hasi zenean, lurren bereizketa zelan egin den zuzentasunez adierazteko. Lekukoen arabera istilu larriak izan dira sendi barruan testamentuak neba-arreben arteko jabetza banaketa zehaztasunez adierazi ez duen kasu askotan.

Ardura handia egon da, batez ere andreen artean, euren gizonek testamentua buru argiz, osasunez zeuden bitartean, egin zezaten. Ezpabere, testamenturik egin gabe hilez gero, andrea ezer barik lotu zitekeen, eta ezinikusi larriak sortzen ziren sendietan. Banaketa eginez gero, ondo adierazi ohi da jabetza bakoitza norentzat den.

MORROIAK ETA NESKAMEAK

Kridu edo *kriedu* eta *krieda* formak erabiltzen dira ahoz Jataben neskame eta morroiei esateko. Morroi berba be erabiltzen da, etxekoei lanean laguntzen eurekin batera bizitzera etorritako kanpoko beharginari esateko, edo modu generikoagoan, klase sozial altukoa ez den edozein ezezaguni esateko.

Dolores Muruaga (zutik ezkerretik hasita bigarrena) Neguriko D. Enrike Guzmanen etxean kriada egon zanekoa. 1956. urtean, Athletic-ek irabazitako Liga eta Kopako garaikurrekin.

Seme-alaba askoko etxeetan ohiko irtenbidea izaten zen neskame edo morroi joatea. Jatabeko etxeetan morroiak egon dira. Ingurukoak izan dira sarri, zailtasun ekonomikoak izan dituzten etxeetakoak. Gehienetan, zenbait urtez egoten ziren etxean, senide bat gehiago balira legez. Umezurtzak izaten ziren zenbait kasutan. Baserriko lanetan laguntzen zuten ohe, janari eta arropa duinaren truke. Urte batzuk igarota, adin nagusitasunera helduta, etxetik joaten ziren gehienak. Ofizioa ikasi, industriak eskaintzen zituen aukeren bila, ezkondu eta beste etxe batera joan... euren bizimodua aurrera ateratzen ahalegintzen ziren.

Antzinako sasoietan, XX. mendean baino gehiago, bizitza guztirako etxean geratzen ziren morroi eta neskame asko. Etxeak guztientzako beste emanez gero, tratua egokia bazen eta ez bazeukaten euren familia sortzeko asmorik, hartu zituen etxean lotzen ziren betiko. Era berean, izan dira morroi edo neskamea etxeko seme-alabaren batekin ezkondu diren kasuak.

Jataben neskame edo morroi joaten ziren gazte gehienak Plentzia, Bilbo eta Mungiara joaten ziren. Morroi edo neskame joateko arrazoien artean asko zeuden: erdaraz ikastea, hiriko klase burgesari zegokion portaera ezagutzea eta gurasoei eurek mantentzeko zama gainetik kentzea.

Aldea-etxeetako neska-mutilak hartzen zituzten Plentzia, Bilbo eta Mungiako familiak aberatsak ziren askotan. Neskame eta morroiei formakuntza ematen zieten, eskola katolikoetara agindu eta garai hartako goi klaseak zerbitzatzeko hezten zituzten. Baina esan beharra dago euren etxeetatik heziketa sendoa zeramatela, besteak beste, ondo ikasita zeuden autoritatea onartzen, lan fisikoak, sukaldean eta etxearen garbi-ikuzia eta bogada egiten.

Neskatoek batez ere *señorita de compañía* lana betetzen zuten Plentzian. Jantzi beltza, mantala eta kofia jantzita laguntzen zieten aberatsei trenera bidean, harrera egiten zieten, erosketez arduratzen ziren, baina ez ordainketez, eta umeak zaintzen zituzten.

> «Atxiñe onek etze pobretakok, aberatzakana krieda yoten siren, neu bere egonta nau Plentzin. (...) Ta gure ama on san krieda Lemoixen, ta etorte siren ameriketakok eta orrek, eta kosiñera ote san, eta kosiñen itte'un itzel. Kolegio bat ixete san neskatontzako aberatzakana yote krieda. Ta gero beran alaba(k) pere danak bota'itxus krieda. Bota'txus krieda bere alabak, beiñ ogei urte ingerues-edo, eta an ikus deure mundu ser dan. Ta an yatorduk, maiak serbitten, berbaten eta dana ikisten san. Nik urtebete pasautxu baiño enaun in krieda. (...) Kasu da se, niretzako ixen san kolegio bat, ese ikus naun mundu gustiko gause, bai aberatzak alkarreas... (...) Yantzi bere erropak, ba kasureko egurdaten yantzi beteas, atzalden besteas, urteteko aurok emote(n) euren errope... Gero maie bere goxen gausa bat serbitte san, egurdin beste bat eta gero aurok trenera yoten sirenen Bilbora, ara bere aurori lagunten espesial yantzitte yon ber ixete san, ba yantzi baltza eta olau amentaltxuk eta amen bere turbantetxuek... Ta gero auron malete koxi eta andi etor ber ixete san gero auron etzera, aurokas biekas, andra-gison biekas, *señorita de compañía* ixete les. (...) Asko ikis naun nik an, asko urtebete pasautxun.»

Zenbait kasutan inude edo *aña* papera betetzen zuten baserrietako ama gazteek. Hirietako aberatsen artean umerik edukiz gero, eta amak esnerik eduki ezean, edo gaixotzen bazen, herrietako ama gazteak ekartzen zituzten aberatsen umeei bularra emateko. Neskato gazte horiek sarritan euren umeari eta inorenari ematen zieten bularra, eta biak osasuntsu hazteko, gai izaten ziren. Neskame ibilitako lekuko gehienek eskola moduan hartu zuten euren bizitzako sasoi hura. Badira, gutxiago bada ere, Armintzan neskame eta morroi ibilitakoak ere. Billelabason bizi den lekuko batek ondo gogoan dauka zelan ikasi zuen puntua egiten, biderkatzeko taulak... Armintzan neskame ibili zen sasoian.

ADOPZIOAK: URIKOAK

Jataben, inguruko herri guztietan legez, gogoan daukate sasoi batean hiritik aldea-etxeetara umezurtzak ekartzen zirela. Jatabeko adinekoen esanetan, ohitura zegoen etxeko umeren bat hilez gero, ordezkatuko zuen *urikoa* ekartzeko, inklusatik. Gurasoek utzitako umeak batzen zituzten lekutik, alegia.

Ondorioz, eta ahaztu barik lehengo sasoietan gaur egun baino askoz ume gehiago hiltzen zirela; erditzerakoan, umetan, istripuz... hiritik Jatabeko aldea-etxeetara *uriko* asko heldu ziren, adoptatutako umeak.

Sasoi hartan guraso askok utziko zituzten umeak bertan behera. Izan ere, Aldundiak ekonomikoki, errenta baten bidez, laguntzen zien umeak adoptatzen zituztenei. Hainbat lekukoren iritzian, hildako ume bat ordezkatzeko adoptatzen ez zen kasuetan, laguntza ekonomiko hori izaten zen arrazoi nagusietakoa. Garai ekonomiko gaitzetan laguntza handia ziren diru errentak. Eta aldea-etxeetan sekula ez da zer janik faltatu izan.

Hala ere, aipatu berri dugun legeak bazeukan bere alde makurra. Kontuan hartzekoa da, guraso biologikoek semea edo alaba erreklama zezaketela zazpi urteko epearen barruan. Ez ei zen, lekukoek gomutatzen dutenagatik, sarri jazo legeak ematen zuen atzera bueltako aukera hori. Baina hala izan zen kasuetan, barrua urratu zien umea hiritik ekarri zuten gurasoei. Eta batu ditugun datuen esanera, amak goibeldu zituen, batez ere, are gehiago adopzioa hildako seme-alaba baten hutsunea betetzeko egin zutenen kasuan.

Urikoak, seme-alaba adoptatuak, beste guztien modura maite zituzten gurasoek, adopzioa Aldundiko errenta jasotzeko helburu bakarrarekin eman ez zen kasuetan, sikiera. Askotan jatorriko abizenaren ordez familia berriarena hartzen zuten. Eta etxeko oinordekotza ere *urikoaren* esku geratu zen sendirik ere egon zen.

> «*Lehen umeak uritik ekarteko ohiturea egoan ezta?* Bai, asko. *Seme-alabaren bat hilten zanean?* Bai, neure besotakotxu bere il in san txikitxuten, bautisata il san. Neure ixena imiñi eta il in san, ta ain lekun ekarri euden bat, gero anditxuau bat ekarri euden. Aurok euki seme(t) gure ume ta aiñ orde bere ekarri i euden uriti. (...) *Gero urte batzuetan barriro umearen bila etorteko eskubidea eukiten eben ezta?* Bai, ori bere esate(n) euden.»

ETXEKOEN ATSEDENALDIA

Jatabeko adineko biztanleen artean sarri entzun dugu ez zutela deskantsatzeko asti handirik edukitzen. Beti zegoela beharra aldea-etxean eta sano txikerretatik lanean igaro behar izan zutela bizimodua.

Eguzkiarekin batera, edo lehenago, iratzartzen ziren baserrietako jatabearrak. Lekuko baten esanean: "lau ordu lo eginez gero nahikoa izaten zen". XX. mendearen bigarren zatian etxeko lana eta etxetik kanpoko beharra uztartzen hasi zirenean, orduko komunikabide eskasek eraginda, goiz jagi eta belu loak hartu beharra gerta zitekeen. Urte askotan zehar, gainera.

Eguneko lanaldian zehar izaten zen deskantsurako tarterik. Goizean goiz iratzartzen ziren, garoak landa gainak estaltzen zituela, eta soroan beharrean egoten ziren *egurdateko* eguzkiak gogor jotzen zuen arte. Orduan gerizpeko beharretara igarotzen ziren. Bazkal ostean loaldi laburra egiteko ohitura zeukaten. Baina ez urte osoan, maiatzeko Kurtzearen egunetik iraileko Santa Kurtzera baizik. Alegia, siesta egiteko sasoia maiatzaren 3tik irailaren 14ra artekoa zen. Sinismenei eta herri egutegiari eskainitako ataletan, data bien arteko sasoiaren garrantzia ikusiko dugu, behin eta berriz.

Etxeko adinekoak karta-jokoan.

Egia, Agirre, Larrazabal eta Elortegi lehengusu-lehengusinak Jatan eskursinoan, c. 1949.

Loaldi labur hori sueteko zizeiluan egiten zuten batzuetan. Baina San Juan eguneko bazkalosteko loaldia berezia zen. Etxe atarian batutako iratzez osatutako ohean egiten zen. Eta *sanjuan loa* esaten zaio Bizkaiko herri askotan.

Bestela, ia egun guztiak izaten ziren lanegunak. Aldea-etxean beti dagoelako lana.

Edozelan ere, domeka jaieguna izaten zen, batez ere arratsaldez. Horrek ez du esan gura lanik egiten ez zenik. Baina lan arinagoak egiten zituzten goizez, mezatara joan ostean, eta gazteak jolasera joaten ziren arratsaldez, arrosariora joan eta gero.

Jaiegun nagusietan ere, *Natibittete* egunez, Urteberriz, Eguen eta Bariku Guren, Pazko, San Lorentzo eta iraileko Santa Kurtzetan... ez zen behar gogorrik egiten. Dena dela, izan dezagun gogoan aldea-etxeetan, sarri, atsedena hartzea egiten dabiltzan lana utzi eta horren gogorra ez den beste batekin hastea dela.

Azkenik, eta atseden hartzeko egun seinalatuekin amaitzeko, ogibide zehatzei zegozkien patroien egunak aipatu behar ditugu. Ogibide bakoitzak bere santu babesa dauka. Antzinako erlijio klasikoetan ogibideekin lotutako jainkoak zeuden legetxe. San Martin da erementariena, Santa Luzia joskileena, San Kristobal gidariena... Jaiegun horiek ogibide zehatzei lotutako jatabearrei bakarrik eragiten zieten. Eta lekukoek argitu digutenaren arabera, ez zen erabateko atsedenik hartzen. Lanegunak izaten ziren, beste egun guztien modukoak. Baina ospakizun berezia egiten zuten. Bazkari hobea normalean baino, eta ogibidearekin lotutako santua patroi zen herriren batera joaten ziren bertako jaietako ekitaldiez gozatzera.

Amaitzeko oporren gainean egingo dugu berba. Oporrak, *bakazinok* edo atsedenerako egunak dira, eta bidaiatzearekin lotuta daude egun. Jatabeko adineko leku-

koek ostera gutxi bidaiatu dute plazer hutsagatik. Ezkonbidaian ibili dira egun batzuetan, Euskal Herri barruan gehienak. Badira asko bidaiatu dutenak, baina beti ere lana dela medio. Lekukoen ustetan egungo gizartea bere aukeren gainetik bizi da. Eta ez dute begi onez ikusten oporretan joateko derrigortasuna. Are gutxiago, askok azpimarratzen duen moduan, oporrak krediduen bidez ordaindu behar direnean.

GORPUTZAREN GARBIKETA

Gorputza garbitzea oinarrizkoa dugu gizakiok osasunerako. Azken hamarkadetan goitik behera aldatu da gorputzaren garbiketaren kontzeptua. Egun, berriemaileen aho bateko adostasunarekin, sarriago garbitzen dugu gorputza, eta batez ere ilea, lehenagoko sasoietan baino.

Nekazaritza gizarte tradizionalean, ez zen urik egoten etxean. Gainera, ura produkziorako, jana prestatzeko, abereei emateko... behar zen. Eta oro har Jatabe leku urtsua den arren, errekatxo, urburu eta ihitoki ugari dituena, uraren garraioa lan nekeza zen, idorte garaiak ere baziren... Beste faktore garrantzitsu bat ura berotu beharra zen. Udan izan ezik, orduan ur hotzetan sartzea freskagarri eta desiragarria izango zen eta, ura berotu beharra zegoen gorputza garbitzeko. Ur hotzetan sartzea, euskal gizarte tradizionalean, beste askotan legez, beti saihestu izan da. Nabarmentzekoa da arrazoi hori dela eta gure kostaldeko arrantzale gehienek ez zekitela igeri egiten. Eta erreketako putzuekin lotutako izaki mitologikoen kontakizunak ia gure egunetara arte heldu izanaren arrazoi posible bat ere izan daiteke. Gurasoen helburua, beti ere, umeak, gaixotu zitzakeen ur hotzetatik urruntzea zen, edo umeak erreketan sartuta itotzeko beldur zirelako. Beraz, egungo higiene kontzeptu berriaren azpian berotu ez den urarekiko kontzepzio aldaketa dago. Ustezko gaixotasun iturri izatetik osasungarri izatera igaro da hamarkada gutxitan.

Kontzepzio aldaketa horrek, etxe guztietan ur beroa ezartzearekin batera, giza gorputzaren garbiketan aldaketa handiak eragin ditu.

Baina zentra gaitezen Jatabeko gizarte tradizionaleko gorputzaren garbiketan. Horretarako urtaro bi bereiziko ditugu: negua eta uda.

Zalantza barik, antzinako baserritarrek gorputza askoz sarriagotan garbitzen zuten udan neguan baino. Udako hainbat lanek, amaitu ostean, berehala garbitzea eskatzen zuten. Adibiderako, aipa dezagun gari-jotzea, galautsa azaletik, sudur zuloetatik eta eztarritik kentzeko behargin guztiak errekara abiatzen ziren. Bestetik, uda partean, neska-mutilek erreketan bainatzeko ohitura zeukaten sargori egunetan. Garbiketarekin ez ezik, olgeta munduarekin lotuta ageri dira uda sasoiko erreka eta putzuak.

Jarraitu aurretik zehaztasun bat egin gura genuke, gorputza garbitzeari buruz gabiltzala, bainua hartzearen gainean ari gara gehienbat. Baina sarritan gorputzaren atalak partzialki garbitzen ziren, lehenengo aurpegia eta eskuak, gero besapeak, eta gero oinak. Adibidez, eskuak garbitzea ezinbestekoa zen hainbat zereginetan egoki jarduteko.

Udan, urtaro beroan, errekan bainatzea izaten zen gauzarik ohikoena. Freskatu eta garbitu egiten ziren aldi berean. Horretarako erreka putzuak erabiltzen zituzten.

Itsasoan bainua hartzeko ohitura handirik ez da egon Jatabeko herritarren artean

orain gutxi arte. Salbuespen modura, iraileko Ama Birjinaren egunean *Basordan* bainatzen ziren, bazkalostean. Kanpotik etorritako karabineroen seme-alabek ei zuten itsasoan bainatzeko zaletasunik handiena.

Dena dela, antzinatik erabili izan dute jatabearrek, Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoetan batez ere, itsasoko ura osasungarri legez. Batez ere hezurretako gaitzei aurre egiteko erremedio gisan.

Neguan gutxiagotan garbitzen zuten gorputza, eta ilea batez ere andreen kasuan, udan baino. Neguan gorputzaren garbi-ikuzia egiteko ezinbestekoa zen ura berotzea. *Tiñeku* edo tinakoetan ekartzen zuten bainatzeko ura etxera. Tinakoa erditik ebakitako upelaren itxura duen egurrezko edo buztinezko ontzia da. Gehienetan iturri edo errekatik ekartzen zuten ura, baina baita itsasotik ere, osasun arazoak tarteko zirenean. Tinakoetan bertan hartzen zuten bainua. Horretara garbitzen zuten gorputza eta gero ondo sikatzea berebizikoa zen. Horretarako *eskupainuak* erabiltzen zituzten. Gaur egungo toailen funtzioa betetzen zuten oihalak.

Lekukoen esanetan, gorputza garbitzeko *surteko hautse* erabiltzen zuten. Beheko sua amatatzen zenean gorde egiten zuten. Jantziak, ontziak eta gorputza garbitzeko erabiltzen zuten. Beheko suko errautsa hormako zulo batean edo berariaz zeregin horretarako aukeratutako kutxan gordetzen zen. Gorputza garbitzeko erabiltzen zuten, eta gaur egun ere, kentzeko gaitzak diren zenbait orbanekin hori erabiltzen dute zenbaitzuek. Ur berotan hobeto garbitzen ei du hotzetan baino, berriemaileen esanetan.

Metodo horrekin batera, beste produktu batzuk ageri dira gorputzaren garbiketarekin sano loturik. *Txinbo* eta *Lagarto* dira XX. mende hasieratik Jataben erabili izan diren xaboien izenak. Lehenengoa Bizkaian ekoizten zen eta bigarrena Gipuzkoan. Gorputza eta arropa garbitzeko erabiltzen zituzten, baina baita azaleko osasun arazo eta piztien zenbait gaitz osatzeko ere. Orduko denboretan pastilletan saldu eta erabiltzen zen xaboia.

IV
ELIKADURA

Atal honetan Jatabeko gizarte tradizionalaren dieta ikusiko dugu. Tartean aztertuko dira elikagai-konbinazioak, saltzeko ekoitzi eta etxean kontsumitzen zutenaren arteko aldea, elikaduraren euskarri nagusiak zeintzuk izan diren, egun berezietako jatekoak eta mahaiaren inguruko erritu batzuk. Euskaldunon artean jatorduek beti izan dute garrantzi kultural handia. Etxeko ospakizun nagusiak mahaiaren bueltan egiten dira eta lan munduko zein gizarte arloko hitzarmen ugari jatorduen inguruan ebatzi izan dira.

Egungo ekonomiaren arauek gure elikagai gehienen jatorria atzerrian eta ustiaketa eredu masiboetan kokatu dituzten sasoietan bizi gara. Hain zuzen ere horregatik, sano interesgarria da aldea-etxea oinarri zuen produkzio ereduak sortutako elikadura aztertzea. Bai osasunarekin daukan loturagatik eta baita inguruko lehengaiekin garatutako biziraupen ereduak gure gizarteari egin diezazkion ekarpenengatik ere.

Elikadurak beti erantzun behar izan dio etxekoek lanerako beharrezkoa zuten energiari. Lan fisikoan oinarritutakoa zen gizarte tradizionala. Beraz, dieta energetikoa izango zen etxeetan kontsumituko zena. Urtaro hotzek eta beroek elikaduran eragiten zuten; koipearen erabilera, esaterako, neguko sasoirik hotzenarekin lotuta ikus genezake. Argi geratuko da, atal honen bidez, baserrietan mendeetan zehar garatuz joan den elikadura eredua, baldintza ugari kontuan hartuta egindako planifikazio ia autarkikoaren ondorio dela. Eta ez, egungo gizartean askok uste duen eran, zoriak urtaro bakoitzean soroan ernarazitako produktuen multzo soila.

JATORDUAK ETA EUREN ANTOLAKETA

Jataben, Euskal Herri osoan bezala, bost jatordu egin litezke egun berean. Eta hipotetikoa erabiltzen dugu ez zelako derrigorrezkoa bostak egunero egitea. Bost horietatik hiru dira nagusiak eta beste bi bigarren mailakoak. Beheragoko posizio

hori jatekoa gutxitxoago izatean eta derrigortasunik ez izatean oinarritzen da. Jatorduu nagusietara eginbeharrak eginda heltzeko zubi-lana betetzen dute bigarren mailako jatorduek. Baina goazen, apurka-apurka, bostak ezagutzen.

Goizean goiz, iratzartu eta berehala, lehenengo lanarekin hasi aurretik egiten zen jatorduari *barausi* edo baraustea esaten zaio. Etxe batzuetan maiztasun handiagoarekin hartzen zuten besteetan baino. Mezatara goiz joan beharra zegoenean, behiak jetzi aurretik, txerria hil aurretik... hartzen zuten. Zenbait lekukok barausia gizonezkoena bakarrik zela esan digute. Batzuetan, kanpokorik beharren batean laguntzera etortzen zenean, izaera soziala hartzen zuen barausiak. Izaera sozial hori gizonen artean baino ez zuen hartzen, edo eta gizonezkoek egiten zituzten beharren aurretik bakarrik ematen zen. Izan ere, hainbatek barausia gizonezkoekin soilik lotu arren, gauza argia da, jatabearren elikadura ohitura tradizionalak aztertuz gero, andreek ere barausia egiten zutela.

Edozelan ere, andrezkoek eta gizonezkoek jateko ezberdinak hartzen zituzten barausian. Gizonek anisa edo koñaka hartzen zuten galletekin, lekukoen esanetan. Andreek, ostera, kafesnea galletekin. Jaten zituzten galletak Maria Fontaneda zirela esan digu edadeko jatabear ugarik. Lekukoek anisa edo koñaka aipatzen dute goizeko barausiaren osagaien barruan. Baina aipatu berri ditugun likore biek genero markatua izaten zuten gizarte tradizionalean. Koñaka gizonezkoena zen eta anisa andrezkoena, barausiaren adibidearekin ikusi arren, gizonezkoek batzuetan anisa ere hartzen zutela. Andreek koñaka hartzea, ostera, sano txarto ikusita zegoen.

Barausirako garaia beti izaten zen goizean goizik. Baina esakune horri ordua ipintzea ez da horren erraza, denak ez zetozen bat. Barausia hartzeko, beluenez 7:30 a.m. har genezake. Jaso dugun erreferentziarik berantiarrena horixe izan da. Eguzkia irten ahala hartuko zuten batzuek, eta eguna egin aurretik iratzartzeko ohitura zutenak ere ez ziren gutxi.

Goizean goizeko lanak amaitu eta lehenengo lasaitasun unean *armozu*, gosari edo hamaiketakoa hartzen zuten. Jatorduaren hirugarren izenak adierazten du, gutxi gorabehera, zein zen zegokion ordua. *Sartenekoa* izaten zen lehenago jatabearren ohiko gosarietako bat. Sartenekoa txerri jeneroz osatzen zen; giharra, urdaia, txorizo edo pernil zatitxo bat... arrautza ere ohiko osagaia izaten zen eta taloak laguntzen zuen. Bestetik, talo-zopak, esnetan bustitako taloa, eta taloan batutako sardina zaharra edo *gallegu sardiñe* har genitzake ohiko gosari legez. Sardina zaharrak latorrizko kutxa biribiletan saltzen ei zituzten eta luzaroan kontserbatzen ziren. Etxatxun edo Elortegiaurrekoan jaiotako lekuko baten esanetan, egarri handia ematen zuten, eta ez zituzten gustuko, edatea txarra dela eta. Haginik gabeko zaharrek *drungulua* gosaltzen zuten. Azken jenero horiek, taloarekin lotutakoak, goizeko edo iluntzekoak izaten ziren, batean zein bestean jaten zituzten.

Eguerdiko ordu bata, ordu bi eta erdiak aldera egiten zuten eguneko jatordurik garrantzitsuena, bazkaria. Zer bazkaltzen zuten lehengo jatabearrek? Guztiek berdin erantzuten dute: *lapikokoa*. Terminoa berez sano grafikoa da. Etxeetan goiza emango zuen etxeko andreak bazkaria beheko suan prestatzen, lapikoa trebera gainean ipinita. Indaba gorriak, tolosar deituraz ezagunak direnak, izan dira lapikoko nagusia, makina bat egunetan, ahoz beterik zeuden mahai inguruei jaten eman dietenak. Baina porrusalda, arroza, garbantzuak, fideo-salda, patata-tortilla... ere jaten zituzten

Zartaginekoa, *sartenekoa*, 2007.

noizbehinka. Gauza baten aho bateko adostasuna erakusten dute Jatabeko berriemaileek: euren sasoian gaur egun baino askoz okela gutxiago jaten zen. Okela, batez ere, egun berezietako jakia zen.

Ostera, arrainak bazeukan bere pisua aldea-etxeetako biztanleen dietan. Arrain gehiena Mungiatik edo Bilbotik ekartzen zuten. Bilboko Erriberatik bakailaoa, *makaillo,* ekartzen zuten eta Mungiatik bisigua, San Anton inguruan batez ere. Jataberaino heltzen ziren arrain-saltzaile apurrak bermeotarrak ziren, trenez Mungiara eta oinez Jatabera heltzen zirenak. Goieta edo Marutxeaga ingurura arrain-saltzaile armintzarren bat ere agertzen zen. Bakailaoa piperrekin edo tomatearekin jaten zen. Edateko, etxeko jaunak, ardo saltzaileak edo *binoteruk* ekarritako ardoa izaten zuen. Baina luxua izaten zen. Postrea fruta edo frutarekin zein esnekiekin egindako gozokiak ziren sarri.

Arratsaldean edo arrastian, eguna luzea izan bazen etxe batzuetan, eta beti beste batzuetan, askaria edo *meriende* etortzen zen. Ez zegoen ordu finkorik, arratsaldea edo arrastia besterik, bazkalordutik afarira doan tartean egiten zuten, seiak inguruan. Lekukoen arabera txokolatea izaten zen ohiko askaria. Eta bestela, fruta hartzen zuten.

Derrigorrezko jatorduetan azkenekoa afaria zen. Gaueko hamarrak eta hamar eta erdiak bitartean hartzen zuten. Beluago ere izan zitekeen, etxekoak nonbaitera irten beharrik izanez gero. Bazkaria baino jatordu arinagoa izan ohi zen, eta batzuetan

egunean zehar egindako janarien hondakinak jaten zituzten. Bestela gosaritarako ikusi ditugun talodun jeneroak edo saltsa berdean egineko arraina afaltzea gauza normala zen jatabearrentzat.

MAHAIA BEDEINKATZEA

Ohitura zabala da Euskal Herrian, eta beste hamaika lekutan, jan aurretik otoitz egitea. Azken hamarkadetan errezatzeko usadioa nabarmen ahuldu da, ostera. Ohitura izan da, era berean, aitaren egitea armozua edo merienda hartu aurretik. Baita norberak bakarrik jango zuen kopauren bat egin aurretik ere.

Etxe batzuetan bizirik gordetzen da edozer jan aurretik jatekoa bedeinkatzeko usadioa. Baina oro har, egun berezietako bazkari-afarietan baino ez da bedeinkatzen mahaia, adibidez, Gabon-gauean, inoren urteak direnean, senitarteko asko batzen direnean...

Bedeinkapena mahaian jesarri ostean egiten da. Horretarako, lehenago sikiera, gizonek txapela kendu ohi zuten eta andreak umeak geldi edukitzen ahalegintzen ziren. Otoitza familiako edadeko pertsonaren batek zuzentzen zuen: aitak, amak edo aitita-amametako batek, etxe bakoitzeko ohituraren arabera. Etxe askotan mahaian zegoen zaharrenak egiten zuen. Mahaian abaderik balego, berari esaten zaio aurretik egin dezan otoitz.

Mahaian errezatzen ziren otoitzetan etxeko defuntuak gogoan izaten ziren. Hil berririk egonez gero otoitza aparte egiten zen. Bereizi egiten ziren mahaia bedeinkatzeko eta hildakoa gomutan edukitzeko otoitzak. Oroitzapen horrek esangura berezia izaten zuen Gabon-gaueko afarian. Baina egun horretako errezo berezia herri egutegiarekin batera aztertuko dugu.

Agur Maria eta Gure Aita izaten ziren mahaia bedeinkatzeko ohiko otoitzak. Oraindino mahaia bedeinkatzeko ohitura bizirik gordetzen duen adineko jatabear baten esanean: *Jan eurreti beti itxen zan errezu, ta gero garrote!*

JATEKOAK

Nekazal gizartean jatekoak gaur baino naturalagoak ziren, oraindino ere badiren arren elikagaiak lehengo erara landu eta ekoizten dituztenak. Lurrak ematen ziena jaten zuten. Soberakinekin saldu edo trukeak egiten zituzten. Eskuratutako diruarekin lurrak eman ez, edo eurek erein ez, eta falta zituzten elikagaiak beste batzuei erosten zizkieten. Horretara, espezializazio handi barik, sano dieta orekatua egiten zuten. Elikagai energetikoenak egun berezietarako eta neguko sasoi gogorretarako uzten zituzten.

Arrautzak

Etxe gehienetan egoten ziren oiloak. Arrautzak eguneroko jatekoa ziren etxe askotan, frijituta, egosita zein tortillan. Beste batzuetan, beharrizanaren arabera, sal-

du egiten zituzten gehienak, eta txikienak baino ez zituzten jaten. Uste zabaldua da, Jataben, oiloei arto iharra eman behar zaiela jaten, arrautzaren gorringoak kolore gorria har dezan. Oiloei jateko arto hezea emanez gero, gorringoa zuri ateratzen ei da.

Ogia

Jatabearren elikaduran taloak ogiak baino garrantzi handiagoa eduki du egunerokoan, batez ere gerraostean. Garia entregatu behar izaten zuten herritarrek eta ez zegoen ia modurik ogirik egiteko, geroago aipatuko dugun ogitxo beltz gogor eta txikerra, *txusko,* kenduta.

Mungian gerra aurretik okindegiak egon izanak eragina izan du Jataben. Herrian ikusten zen auto bakanetakoa zen okindegikoa. Ogia etxera eroaten zieten batzuei.

Ogia, 2007.

Ogi mota ezberdinak zeuden eta bakoitzak bere sasoia eta funtzioa zuen. Etxeko labeetan egiten zen eta sasoi batean Jatabeko *soloetan* ikus zitekeen gariaren lekukotza parebakoa opesten digu. Behin laba berotuta, aste osorako ogia egiten zen. Horretarako etxe alboko labea edo sueteko txapakoa erabiltzen zuten. Kontu handiz aukeratzen zuten ogia egiteko irina egingo zuen errota. Esaterako, Goieta inguruan Birleko Latxaganera eroaten zuen garia hainbatek.

Irin horri Mungiatik ekarritako *lebadure* edo altxagarria gehitzen zioten. Ondoondo igurdi mahai gainean, labea berotu eta kirten luzedun palaz sartu eta atera egiten zuten. San Lorentzotarako, esaterako, bazegoen dozena bat ogi egiten zuen etxerik.

Mungiako okinak ogi mota asko partitzen zituen; lau kilokoak, kamioi baten gurpilaren neurrikoak, kilo bikoak, batekoak... Buruan eroaten zituzten ogiak andreek, zapi edo *paiñelu* batekin lotuta. Ogia sarrien erosten zutenek bi edo hiru egunerik behin hartzen zuten, zeukan lodierarekin denbora tarte horretan fresko mantentzen ei zela eta.

Fota

Hasteko, Jatabeko aldea-etxe bati izena eman dion ogi mota aipatu gura genuke. *Jota* izeneko ogia. Foteruena izeneko etxea Erbera auzoan dago. Edadeko jatabearren esanetan izen hori Jota izeneko ogi motarekin lotuta dago. Baina bistak dio *Joteruna* behar lukeela etxeak ogia *Jota* bada, edo eta *Fota* dagokiola ogiari etxea *Foteruna* izanda. Azalpen erraza dauka arazo horrek, edozelan ere. *F* eta *J*-ren arteko dantza hori guztiz normala da euskaraz. Horren adibide dira Jatabeko Jule eta Julondo toponimoak. XVIII. gizaldiko testuetan *Fulla* eta *Fullaondo* agertzen dira[1]. Gaur egun *F>J* bihurtu da, aztergai dugun etxearen eta ogiaren arteko kasuan legez.

Behin etxeak eta ogiak oinarrian izen bera dutela ikusita, Jota ogia zelakoa zen azalduko dugu. Lekukoen esanetan ogi luzanga eta lodi-lodia zen, dirudunek baino erosi ezin zutena.

Foteruna etxeko antzinako ugazaba okina ei zen.

Opila

Hurrengo *opila* aipatuko dugu. Arto-irinaz, *artourunez*, egindako ogi berezia da. Beheko suko edo txapako burdinaren gainean egiten zen, baina onena labean egindako opila da, lekukoen arabera. Taloa baino lodiagoa da. Opila egiteko artoa, irina, ura eta gatza erabiltzen zituzten. Labera sartu aurretik orea ondo egin eta biribildu egiten zen. Barrura sartu eta gero ateratzeko kirten luzedun pala erabiltzen zuten.

Txapako edo beheko suko burdinaren gainean egiten zenean, ez zen opila burdin gainean uzten suak ondo berotu arte. Orduan biribildutako orea burdin gainean ipini eta basazko kazola batekin estaltzen zuten. Eta kazolaren gainetik txingarrak, *prasak* edo *ikatzillek* ipintzen zitzaizkion. Barrukoa gori-gori zegoenean atera eta jan egiten zuten. Hoztuz gero, esnearekin nahastuta jaten zuten.

Beste lekuko batzuen arabera, opila arto eta gari-irinak nahastuta egiten zuten Elortegi auzoan. Eta txokolatearekin batera jaten zuten umeek. Amamak egindako gozoki moduan gomutatzen dute.

---

[1] KEREXETA, Jaime de. *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII.* Bilbao, 1992, 185. or.

«*Opila ogi berezia da?* Bai, ori da artogas, arto-urunegas itxen san opille. Ta gariñegas itxen dana da ogi. Ta diferentzi andi eukitte'un, te gorri-gorritxu urtete'un. Politxo oten san, barru ondo intxe, bota ain kasuelan ganera prasea ta autze beroa ta an oten san. Nik estait seme(t) denporan oten san, enas akordaten. *Ze sasoitan egiten zan hori?* Beti itxen san, baia sarri es, gaienetan laban bere itxen san, labasuk itxen sirenen. Labara eroan ta lodi-lodi imiñi alau alturen eta koiu paleas ta sartu, ta an laban asi ta gorri-gorri urtete'aun. Guren esan asko itxen, baia etxek on siren asko itxen sanak. (...) Ori da talo labako, opille, talo baiño loditxuau; ure, gatza ta arto-urune, amasa ondo eta gero biribildu, ta alan alturen sartu paleas barrure.»

Pistola

Ogi estu eta mehea izaten zen, goxoa, dastatu dutenen esanetan. Basaratoste sasoiko tostadak egiteko erabiltzen zuten batzuek, eta urte osoan zehar egiten zen okindegietan. Pistola salda, ogi klase horrekin egindako berakatz salda ei zena, gozo baino gozoagoa zela diote berriemaileek. Ez zen etxeetan egiten, okinak ekartzen zuen. Edo hobeto esanda, okinak Jatabera ekartzen zuen ogia eta bertan herriko gazte bi ibiltzen ziren astoz ogia banatzen. Asteintzako bidegurutzera heltzen zirenean batek Gatikarantz egiten zuen eta besteak Billelabasorantz.

Tremesa

Garaitiko ogia baino arean garestiagoa izaten zen. Okinari hartzen zitzaion eta gurasoek umeei gozoki modura erosten zieten. Afo-afoa ei zen ogia, belakitsu eta arola. Izugarri gozoa ei zen lekukoen esanetan. Goieta edo Marutxeaga auzoan gurasoak Mungiara tremes bila joaten zirenean, umeak nora ote zihoazen itaunduz gero, *susubille* erantzuteko ohitura zegoen. Horretara, seinak bazekien Mungiatik saria helduko zitzaiola. Ogi freskoa zen. Lekukoren batek esan izan digu tremes ogia, bere aitita-amamen sasoian, hiletetan gurutzearen aurretik eroateko eta elizako sepulturan uzteko eskaintza modura erabiltzen zela. Lekuko gehienek ogi integralarekin lotzen dute.

«Gerra-aurren ogies komenentzi itzela on san... Ta batzuri esate(n) geuntzen tremes-ogi, alan tremes suri, terrible goso. Tremes-ogie bere kiloko, eta iru kiloko bere ote(n) san. *Zeri esaten zeuntsen tremes-ogia, ze diferentzia egoan euren artean?* A san..., diferentzi itzela ote(n) san, goso, ori tremes ori ixete san alan afo-afo oten sana, eta yateko paladar bat eukitte'aun terrible. Karitxuau ixete(n) sala dekot a, ta karitxuau ixekeran, dirurik esegoleas besteri agarrate(n) san, merkeri. Baia a yateko itzela ixete(n) san.»

Erritxea

Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoko neska-mutilak, jatabearrak izan arren, Lemoizera joaten ziren eskolara. Elizaz be Lemoiz dira auzo horreetako etxe batzuk.

Unparatik, esaterako, Lemoizeko eskolara joaten ziren umetan. Bide luzeegia zen joan-etorria egin eta etxean bazkaltzeko, arratsaldean ostera be eskolara behar zuten eta. Halakoetan, txokolate ontza bat eta sagartxo bat hartzen eben jatabear gazteek. Bertan, Lemoizen, erritxe izeneko ogia erosten zuten txokolate ontzarekin batera jateko.

Erritxe ogia luzetxoa zen, eta tabernan saltzen zuten. Unada baten hilogi moduan ere erabili zen.

Aurrogia edo hilogia

Antzina hiletetan gurutzearen aurretik eroaten zen ogiari esaten zaio *aurrogi* edo *hilogi*. Errespontsuak ateratzeko erabiltzen zen, eskaintza modura. Lehengo sasoietan dirurik ez zegoela eta, ogiarekin egiten zituzten eskariak. Lekukoen arabera *bollotxu* modukoa zen eta aldarean entregatzen zuen eroaten zuen andre edo neskatoak. Forma berezia edukitzen zuen hilogiak. Hiru motroilotxo edo mutur izaten zituen. Labea zeukatenek baserrian egiten zuten, eta garaitikoek Mungiako okinari eskatzen zioten *difuntun ogi.* Sepultura gainean ixten ziren hilogiak, eta sakristauak batzen zituen zesto batera. Urte guztian hildakoen ogiek kopuru majoa osatzen zuten. Horrek, ogia lortzea egun baino gaitzagoa zen sasoiotan, zer esana ematen zuen herritarren artean.

Familiak enterrura bost ogi eroaten zituen, ostantzean lau, sepulturetan ipintzeko. Askotan Jatabeko sakristauak hartzen zuen Mungiako okindegian aurrogiak eskatzeko ardura.

Zaperoa

Etxeetan artoa amaitzen zenean gari-irinarekin egindako talo modukoa egiten zen, *zaperoa*. Pisbe itsas konpainian egondako jatabear batek ondo gogoan dauka zelan jaten zuten itsasoan zaperoa. Pertsiar Golkoan jatorduak egiten zituzten jatabear itsasgizonek, zaperoa ogi moduan erabilita.

> «Ostantzen arto akabate(n) sanen gari-uruneas sapero, sapero esate(n) sakon, talo, baia gari-uruneas. Ta sapero yan dotela ondiñogarren estire urte asko, nik sapero yan dot Persikun.»

Taloa eta drungulua edo morokila

Amerikako kolonizazioaren osteko gizaldietan elikagai ugari heldu ziren itsasoaren beste aldetik Europara. Iraultza gertatu zen elikaduran, eta azken mendeetan Euskal Herriko dietan oinarrizko lekua hartu duen hainbat jangaik Amerikan du bere jato-

rria. Esaterako *indietako babak* edo indabak, tomatea, piperra eta artoa. Artoa, antzina, egun arto txikia esaten zaion lekariari, *mijo*ari, esaten zitzaion. Baina amerikar lekaria heldu zenean, berak hartu zuen *arto* izena.

Amerikako kolonizazioaren aurretik erabat ezberdina izango zen elikadura Euskal Herrian. Erromatarren garaitik daukagun zenbait berrik dio ezkurrez egindako ogia eta abeltzaintza zein artzaintzatik eratorriko elikagaiak zirela nagusi Kantauriko isurialdean.

Lautadan, edo alde mediterraneoan, gariak eta ardoak pisu berezia izan dute aspaldiko garaietatik.

Beraz, azken mendeetan Ameriketatik heldutako artoak leku sano garrantzitsua hartu zuen gure arbasoen elikaduran. Eta horrela mantendu da XX. mendearen amaiera arte. Egun artasoro bakanak ikusten dira Jataben, baina artoa eta indaba antzinako jatabearren dietako oinarrizko osagaiak izan dira.

Taloa

Ihartutako arto-irinaz egindako opil mehe eta biribilari esaten zaio. Egun ogiak betetzen duen funtzioa bete izan du jatorduetan. Goizean, eguerdian zein gabean jaten zen. Milaka konbinazio ezberdin egiteko aukera opesten du: esnearekin, sardinekin, txorizoarekin, txokolatearekin... edozein elikagairi laguntzeko aproposa da.

Taloak txapan erretzen, 2006.

Irina azpiran edukitzen zen, suetean egon ohi zen egurrezko arka txiki modukoan. Bertatik hartzen zuten irina taloa egiteko. Irina edukiontzi batean ipintzen zen, entsalada-ontzia erabiltzen du egun taloak egiten jarraitzen duen askok. Pitxar edo *yarra* bete ur eta gatz apur bat gehitu behar zitzaizkion oreari. Oreak gatzdun ura xurgatu artean igurdi egiten zen eta pilotaren antza ematen zitzaion. Gero taloholan ipini eta jo egiten zen, ope itxura hartzen joan zedin. Opea eginda zegoenean talo-burdin gainean ipintzen zen eta beheko sura eroan bertan egiteko. Txapa edo suete ekonomikoa heldu zenean bertan jartzen zuten. Talo-burdina trebera gainean ipintzen zen, eta lantzean behin buelta ematen zitzaion belztu ez zedin. Gose handia zegoenean talo-burdinatik bertatik hartzen ei zituzten taloak, guztiz egin arte itxaron barik.

> «*Ostantzean etxetan taloa jaten zan gehiago ezta?* Bai, talo asko. *Taloa zelan egiten da?* Talo neu(k) pere in dot, ori fasille da. Ba koiu olau ensaladera baten urune, eta koiu ba yarra baten ure, eta bota gatz aputxu bet, eta an in masea eta gero olan apur bet iñ igurdi, olan pelotatxu bet modun imintxe ta *ya está*, an itxi aputxu beten ta... *Gero jo?* Ori, gero yo, olau ol baten, ol bat oten san orretarako aproposko, oiñ esteku baia..., ta an yo. *Eta gero talo-burdinara?* Bai gero talo-burnire, ta or erre, ta gero beko sue, ta gero an beko suen imiñi ta... Trebere imintxe(n) san, sue iñ, ta alau trebera bat, iru ser dekosena..., iru anka dekosena. Eta a imiñi sue itxen dan lekun, eta gero talo-burdiñe ari ganean, ta emon buelte baltzittu estitxen. *Noiz jaten zan taloa?* Esneas, talo-sopak, ta ostantzen bere bai, eskun bere bai. *Sardina zaharrakaz jaten zenduen? Hombre!* Ori popularra ixete(n) san. Ori goixen armostarako, ta batzutan illundin bere, aitxek-eta illundi gauerantza yate'desan.»

Drungulua edo morokila

Drungulua edo morokila arto-irinaz eta gatzez egindako masa ia likidoari esaten zaio. Gosaltzeko zein afaltzeko jaten zen eta jatorduko jaki bakarra izaten zen. Ez zen besterik jaten drungulua egiten zenean. Lau bost arto-irin kilorekin egiten zen drungulurako masa, taloa egiteko erabiltzen zuten masa bera. Talo-burdina su gainean ipini eta suak txingarrak egin arte itxaroten zuten, gainean arto-irin masa zeukala. Txingar edo ikatzila egiten zenean kazola batekin estaltzen zuten masa eta gainetik txingarrak ipini. Masa egina zegoenean atera egiten zen, sarritan hozten utzi, eta esne beroa botatzen zitzaion. Behin eta berriz eragitea izaten zen hurrengo pausoa. Orea ondo prestatuta zegoenean esnetara botatzen zen masa eta prest zegoen morokila. Haginik ez zeukaten zaharren ohiko elikagaia ei zen garai bateko Jataben. Etxe bakoitzaren araberakoa izan da elikagai honen presentzia. Lekuko batzuentzat ohikoa bazen ere, ia eguneroko jana, beste batzuek sekula ez ei zuten drungulurik ikusi etxean.

> «Drungulu bere bai, morokil, drungulu etzen asko itxen gendun. *Zelan egiten zan?* Drungulu itxen da, esne bero, bota urune ara, ta eraiñ-eraiñ-eraiñ... ta masa bat itxen da esneas, ta gero bota esnetara, ta axe. (...) Talo itxeko lekun ba drungulu iñ. Ori amak itxe'oskun, drungulu esneas.»

Esnekiak

Sano antzinakoa da gizakiak piztiak etxekotzeko joera. Milaka urte daramatza euskaldunak piztiak hezi, euren indarra erabili eta elikagai moduan erabil dezakeen guztia aprobetxatzen. Eta abereengandik lortzen ditugun elikagaien artean badago bat garrantzi handia izan duena historikoki, esnea. Abeltzaintzaren gaineko atalean sakonago aztertuko dugu, baina orain jatabearren, eta euskaldun gehienen, dietan izan duen eta neurri batean duen leku estrategikoa ikusiko dugu. Ardien esnea ez zen etxeetara saltzen, esnekiak egiteko erabili izan dute beti. Behi-esnea, ostera, ezinbesteko diru-iturria izan da etxe askotan. Inguruko herrietara saltzen zuten eta sobratzen zenean bakarrik erabiltzen zuten esnekiak egiteko.

Gazta

Jataben batez ere gazta freskoa egiten izan da, sikatzeko gaztak ere egiten izan diren arren, lekukoen esanetan. Baina kosta ondoan egoteak ematen duen hezetasunarekin, eta gazta freskoak saltzeko orduan gain-pisua eta prezio altuagoa ematen zuenez ura gordetzeak, gazta mota hori nagusitu zen. Gazta egiteko prozesuan, aipatutako mota bien arteko aldea sikatzen uztea edo ez uztea baino ez da.

Gazta freskoa egiten, 2008.

San Jose egunez hasten zen gazta freskoa egiteko beharra. Sikatu gura izanez gero, lehenago hasi beharra zegoen. Erberako biztanleen artean igarri dugu gaztagintzarekiko loturarik handiena. Ardi-esnez egina da Jatabeko gaztarik gehiena, eta ondorioz, ardidunen beharra izaten zen gaztagintza. Jata mendiko ardi-txabola edo bordetara igo eta bertan egiten zuten gazta.

Gazta egiteko arkumearengandik hartu beharreko legarrak garrantzia berezia zeukan. Legarra, animalia hausnartzaileen sabelean dagoen altxagarria da. Esnez bakarrik elikatu den arkumeari hartzen zaio. Belarra jaten hasi den arkumeak ez du legarra hartzeko balio. Horregatik, legarretarako erabiliko zen arkumea gortan edukitzen zuten gaztagile jatabearrek. Harategietan legar sikua eros zitekeen antzina, eta gaur egun farmazietan eros liteke. Baina legarra ondo erabiltzen ez bazen, gazta zapartu egiten zen, barrutik hustu eta arrak ateratzen zitzaizkion. Eta agian beste lurralde batzuetako gaztagileek irizpide ezberdinak eduki arren, prozesu hori ez da jatabear gaztagileen gustukoa izan.

Alde handia ei dago gazta esku hotzak dituen pertsonak egitetik esku beroak dituenak egitera. Esku beroekin gazta lehenago zapartzen ei da, esne beroarekin gazta latzago irteten den era berean. Jatabearren ustez, esku hotzak dituena gaztagile hobea da, eta esne hotzez egindako gazta finagoa.

Egunean hiru gazta egiten zituzten, Unpara aldean esaterako.

Balde zabal baten, batzuek *terreñu* esaten diotena, ardien esnea botatzen zuten eta gero legarra gehitzen zitzaion. Legarra baldera bota ostean, tenedore batekin

Gaztai-ontzia eta *gaztai-otzarea*, 2008.

apurtu egiten zen eta *lotzen* zenean, legarraren eraginez gogortu egiten zenean, gatza botatzen zioten. Orduan apurtu egiten zen orea eta karga ipintzen zitzaion masari gainean, baita eskuekin lagundu eta beherantz sakatu ere, gazta behean eta ura goian geratzeko. Handik ordu erdira, labanarekin ebakitzen zuten gogortutako masa eta, forma hartzen joan zedin, *gaztai-otzaratan* sartzen zuten. Gazta-otzarak forma ematen zion gaztari, eta masatik ateratako ura irteteko zuloak edukitzen zituen. Ur horri gatzura esaten zaio, batzuek edan ere egiten zuten, eta beste batzuek txerriei jaten emateko erabiltzen zuten. Gazta-otzarak egurrezkoak izaten ziren, lizarraz egindakoak, hainbat kasutan. Gazta plater baten uzten zen egun bat edo bi, gero atera eta ohol baten gainean jartzen zuten eta kordelekin estutu, barruko gatza eta ura irteteko. Prozesuaren puntu honetan ezberdintzen ziren gazta freskoa eta sikua. Sikua egiteko askoz gehiago estutu behar zen, eta batzuetan, gatza kapatan ipini ondo kontserbatzeko. Hasieran egunero ematen zaio buelta sikatzen dabilen gaztari, ezpabere, arnasarik hartzen uzten ez dion geruza egiten dio barrutik datorren gatzurak. Egunean-egunean *pañu* batekin urarekin bustitzen ziren gaztak, lehortu ez zitezen. Lehortzea gaztaren azala arinegi ateratzea da. Etxeko karrajuan eskegita sikatzen zituzten gaztak, trapu baten barruan, muturrak lotu eta iltze, *untze,* batetik dingilizka. Azala egiten zitzaienean, batzuk etxerako gordetzen zituzten eta beste batzuk saldu egiten zituzten. Plentzia eta Mungia izaten ziren saltoki nagusiak.

> «Lelengo jatzi, ta gero ba katxarro bat ote(n) san, ta katxarrori imiñi goitxi tela suri bat eta andi esnie paseu, iritzi esate'akon, andi pasa ta gero txistues ikutu te, txistun tenperature ingerun egon ber ixete'aun. Se beroegi badau bere learra ebai itxe'aun, ta otzegi badau learrik artu es, bai or on ber dau learra ondo artzeko. // Legarra lotzen asten da, ta igerten dako eskues, selan lotzen asi dan. Lotzen esaten da gogortuten asten danen. Gogortuten aputxu bet asten danen bota ber dako gatza ta apurtu. Apurtu ondo ta gero gastai-otzare imiñi ganean karga apur beteas, ta gero eskues yon ber da, sakatuten-sakatuten. Gastaik yon ber dau bera, ta ure(k) kanera. Ordun itxen da ebai kutxilloas, batu, sakatu... // Eta gero ori baldeti otzaratara. Baldeti iñ alan raja-rajak eta ai kuadrutxuk koiu eta serera, olau keserara bota, ta an in gastaia. *Gaztai-otzara esaten zeuntsen?* Gastai-otzare bai, gastai-otzarara bota ta an in gero gastaia. *Horreek otzarak zelakoak ziran?* Sulodunek, suloak euki ber'txu. Oki gendun bat seresko, porselanasko. Ta gero beste batzuk euki gendusen sereskoak, egurreskoak, otzara politxek gastai itxeko. // Ori da gastai itte. Ta gero gastai itten bere, ostabere giau istututen basendun, gastai sikureko ondo istutu ber ixeten san, ganera gatza koiute tartetxun, lantzemiñen, lantzen kapatxu beten sartu. Lantzen matoi kapatxu beten gatza garautxu betzuk barrun kontzerba deiñ, ta agas itten san gastaia. Ostantzen saltzeko fasillau iste(n) san, ta ganera asko istututen basendun gitxiau pixate'un se ure atarat'otze giau ta. (...) *Non gordeten zenduezan gaztaiak sikatuten iminteko?* Olau egur, arotzak-edo intte auxe maien tamaiñu ingeruko ser bat oten san puntatati eskeitte goien seren, karrajuen, eta an ote(n) siren, an ganen. Ta gero traputan bere bai, baia traputan buelte emon ber dako.

Zenbatero? Egun biko edo iruko se..., gero es, gero bein siketu eskero esteko lebarik. Asikeran trapun imintte'su, ta imintte'su puntak amarrata ta untze baten eskaitte. Eta asikeran ure emoten dau, ta ak urek itte'tzo kapa bat teleari eta estau arnasarik artzen da arrak iñ edo gastaia galdu itten da. Ta imintte basu buelte emonta ostabere besteko aldera, ganeko aldera..., edo espabere sare antzeko tele, sede antzeko edo olau, orretarikoa imintten basendun ba orretarikoas sikete(n) san bastante ondo. Baia orre(k) pere igual in ganeti tele ta bapere itxi es arnasik artzen, ta arnasik artzen itxitte espatzo sertu itte san, galdu gastaie. Gastaik siketan bear andi(k) dekos. // Ta gero are(k) gastaik saldu itxen gendusen, Plentzira, Mungiara, aste duranten itxen direnak saldu gero sapatun edo olan plasara yonta. *Freskotan?* Bai freskotan.»

Gaztanbera

Gaztanbera egiteko gazta egiteko baino legar gutxiago botatzen zioten esneari. Sarritan gazta egin eta gero sobratzen zen masa, edo zaborreria, erabiltzen zen. Jatorduko plater bakar moduan jaten zuten, gosari zein afari modura.

JAIEGUNETAKO JATEKOAK

Ospakizunetan janariak beti eduki du aparteko garrantzia Euskal Herrian. Jaiegunaren berezitasuna adierazteko modua izaten zen janari berezia prestatzea. Egun

Josu Agirreren Lehenengo Jaunartzea ospatzen, berarekin Pedro Libarona eta Escolástica Urresti, 1966.

Ezkontza-bazkaria. Ezkerretik: Lide Belaustegigoitia, Mª Pilar Agirre, Trinidad Lopategi, Felisa Agirre, Pedro Elortegi eta Kontxita Iturriaga, 1960ko hamarkadan.

hauetan okelak normalean baino pisu handiagoa hartzen zuen, baita arrain klase batzuek ere. Gainera, egun berezietako askotan etxetik kanpokoak etortzen ziren jatordura. Beraz, neurri batean, etxetik kanpokoen aurrean itxura ona emateko era bat izaten ziren egun berezietako jatorduak.

Bazkari berezia izaten zuen egun berezi bat domeka zen. Erlijio katolikoan asteko egun sakratua da. Orduan lan gutxiago egiten zen, mezatara joaten ziren herritar asko, normalean baino eleganteago jantzi eta bazkaria ere berezitxoa izaten zen. Garbantzuak izaten ziren gehienetan indaben ordezkoak eta behi-okela apur bat jaten zen asteko egun bakarra izaten zen etxe askotan, garbantzuei zaporea emateko erabilitako okela bera tomatearekin, lekuko askoren arabera.

Nahiko aldatu da jatordu bereziaren kontzeptua azken hamarkadetan. Jatabeko lekukoen arabera, gaur egun zizka-mizka, edo sarrerako plater asko ateratzen dira jaki nagusia atera aurretik. Gizarte tradizionalean, ostera, jaki nagusiak zeukan pisurik handiena eta askoz gutxiago ateratzen ziren horri laguntzeko. Lotura nahiko argia ikus liteke zenbait jaiegun eta egun horretarako jateko seinalatuaren artean. Bildotsa jatea, esaterako, egun berezi batzuekin zuzenean lotuta dago. San Jose egunez etxe askotan jaten zuten. Ohitura horren atzean artzainen eta nekazarien arteko barrutiak lagatzeko hitzarmenak egon litezke. Martiaren 19ra arte uzten zizkieten baserritarrek barrutiak artzainei. Egun horretan artegiak mugitu behar zituzten. Artzainek, ordura arte ardiak bertan egotearen trukean, gaztak, dirua eta bildotsa eman ohi zizkieten. Eta bildots hori San Jose egunez jateko ohitura sano sustraituta egon da Jataben.

Izan ere, San Jose eguna Pazko loratu edo udaberriaren aurrerapentzat hartzen da euskal herri-egutegian.

Bildotsa jateko beste egun seinalatua Pazko Domeka izaten zen. Garizumaren ostean, okelarik jan ezin zen bijilia sasoiaren ostean, Jesukristoren berpizkundearekin sinbolikoki lotuta dago bildotsa jatea. Arkumearen garapenean garai ezberdin biri egiten diote erreferentzia artxo eta bildots izenek.

> «Arkume yateko egun señaladuk San Jose, Pasko, San Lorentzo..., Bueno San Lorentzotan bere bai batzuk, baia lelau San Lorentzotan arkume bat, igual arkume bi, baia arkume bat txiker lotzen san igual, ordun lotzen san ardi bet, lodi bet, igual andiau, se oiñ a... pasaten dana gausa asko imintten dosu aurretik, ta ya artxo etorri ordureko betetu itten sara. Baia ordun gausa gitxitxuau imintte(n) san, epoka atan aurretik, eta arxo bateas jente asko batze(n) san. Ordun sute andik eta esiren kabitten aldeatan, ta portalen-ta maie imintte, ta jente asko ote(n) san. Eta igual ardi lodi bet-edo, eta orrek ardi lodik ixete siren seoseattik umerik in barik lotzen dana, se ardi ume itten dauna argal egoten da. Baia umerik in barik-edo lotzen dana edo olan, lodittu itten da, eta orretariko bat San Lorentzotan. Ta artxo bere bai esta, ta gero ba, olau egun batzuk ixete siren, egun señaladuk oten siren artxo yateko. Printzipalenak nire gaste serean: San Jose eta Pasko. (...) Eta gero ba bakotxak urtek-edo, selebrasiñoren bat-edo, umen primera komuniñok-eta.»

Hirugarren egun seinalatua San Lorentzo zen, Jatabeko patroiaren jaiegun nagusia, abuztuaren hamarra. Dena dela, bazegoen beste okelarik jateko ohiturarik ere. Errotabarri baino gorago, harri handi birekin eginda zegoen zubiaren alboan, belarleku txiker bat eta lau edo bost haritz handi zeuden. Eta bertan, San Lorentzo egunez, txahala edo behia hiltzen zituzten eta okela banatu.

> «Errotabarri baiño gorau subi bet oten san. (...) San Lorentzotako txala edo beie-edo iltten i san an lenau-lenau seguru bere, ta an andi errepartidu okele. Ori esate'un gure aitxek eta aitxitxek-eta... An erreka ertzen leku ederra iltteko ta garbitteko, ta andi gero errepartidu itte'eudela okelea. Urte asko ixau da baia orre(k) pere esetu'ittue gure aittittek-eta ondo.»

Mahai ingurura asko batzen ziren etxeetan gutxi izaten ei zen bildots bat. Bildots bi jaten zituzten batzuetan, baina sarritan ardi lodi bat hil eta jan egiten zuten. Urte horretan kumarik izan ez duen ardia izaten zen aproposena. Lagun gehiagorentzako jana ematen zuela eta.

Bildotsa jateko beste egun berezi batzuk umeen jaunartze, bataioak eta ezkontzak izaten ziren.

Azpimarratzekoa da Gabonetako zikloa. Gabon, Natibitate, Gabon Zahar eta Erregenetan senitarteko bazkari eta afariak bereziak izan dira.

Urteko jatordurik erritualena Gabon-gaueko afaria da. Familiako afaririk garrantzitsuena da. Mahaian jesartzen diren guztiak etxeko kideak izaten dira, eta ezkonduta dauden seme-alabak euren familiekin etortzen dira. Edadeko jatabearren esanetan, Gabon-gauean, ardia, oilaskoak, oiloak, bildotsak, *orio-azak* edo olioarekin

bustitako azak, koliflora, karakolak eta arrainen artean bakailaoa, txitxarroa eta *besegu* edo bisigua izaten ziren usadiozko jakiak. *Ahume* edo antxumea jaten zutela batu dugu etxeren batean, baina ez ei zen horren ohikoa, bildotsa baino lehorrago eta garestiagoa zen eta. Postre legez intxaur-saltsa, sagar konpota eta danbolinean erretako gaztainak izaten ziren ohikoenak. Turroia gerraostean hasi zen agertzen, apurka-apurka.

Gabon-gaueko afarian, oraindino ere igarri egiten dira bijilia afariaren ezaugarriak: antzina, Eguberri egunaren bezperan okelarik ez jateko agindua zegoen, eta lehenago barau egiteko eguna izaten zen. Hori dela eta, oraindik ere antzematen da arraina afarian etxe askotan nagusi dela. Beste etxe batzuetan, ostera, sano pisu txikia dauka arrainak, eta okela jateko ohitura sendoa igar liteke. Azken egoera hau Maruetxe edo Goieta auzoan ematen da batez ere, artzaintzak itzal gehien duen ingurumarian.

> «Gabonatan orio-asak, koliflora ta orio-asak... *Arrainik?* Arraiñe..., besegu yaten giñun eta txitxarro bere bai. (...) *Eta ostean?* Konpota-ta olau jenerok ixete(n) siren ordukok. *Intxaur-saltsarik?* Es, estot iños etzen esetu. Intxur-saltzarik eta karakolik estot iños esetu etzen. // Atxiñe-atxiñe, etxeko yateko ixeten san ba ardi bet ill-edo, gure selebrasiño beti olan ixen da. (...) Afari ixete san *en general* makaillo saltza bat eta inddaba suri. Inddaba suri lelau yango san, ta gero makaillo saltze. Gero gastaiñak erreten siren, tanbolin bet esate(n) geuntzen, alan aste dekona beko suben. (...) Turroi estot..., gerraosterarten turroi estot esetu, gero arroskoletxe-edo olan iñ txe postre itxen gendun, eta gastaiñak, eta olantxe, posik.»

Gabon Zaharreko afaria aurrekoaren sano antzekoa izaten zen. Urteari oles egiteko, hamabi kanpaiak jotzean, mahatsa jateko ohitura berria sartu da, telebistaren indarraren bidez.

Basaratoste edo inauteri sasoian, oraindino ere gordetzen da tostadak egiteko ohitura. Eta txitxiburduntzia, sutan erretako txorizoa ogiarekin jatea, ospatzen zuten inauteri domekaz, basaratoste egunez. Txerria hildakoan ateratako okela eta koipea sasoi horretan jatea, sano usadio zabaldua da Euskal Herri osoan.

Urtean zehar jatekoak eskatzeko hainbat kantu erronda egiten dira. Gazteek egiten dituzte batez ere, *Urtebarri*, Santa Ageda... sasoian.

Jendeak elkarrekin egindako beharrak amaitzean ere, gehienetan, jatordua egiten zen. Gariak jo, txerria hil, bideak konpondu... ostean batzen ziren elkarrekin jateko. Eta egindako beharraren onuradunak ipintzen zuen jatekoa.

San Isidro egunez, Jatabeko *Tabernazarran* bazkaria egiten zuten herriko gizonek. Andre alargun bik ardia hil eta jateko prestatzen zieten. Etxean euren zain lotzen ziren andreen esanetan: *bete-beteta etorten siren etxera*.

BARAU EGUNETAKO JATEKOAK

Eliza Katolikoak barauaren eta bijiliaren gainean agindutakoak garrantzi handia izan du egun eta sasoi zehatz batzuetako jateko ohituretan. Dena dela, agindu horiek eboluzio bat izan dute eta lasaitu egin dira, barau-egunak gutxituz.

Garai batean, bijilia barau antzeko bat zen, eta zazpi urtetik gorako guztiek bete behar zuten. Barau egunak bat etortzen ziren egun seinalatuekin: Hautsen eguna, Garizumako bariku-zapatuak, tenporak eta jaiegun jakin batzuen bezperak. Mendebaldeko euskaraz erabiltzen dugun *bariku* berba bera, *abaribako* edo *afaribako* berbatik eratorria dela dio zenbait adituk. Urteko bariku guztiak bijilia egunak ziren, barauegunak izan ez arren. Era berean, bariku edo zapatu ez ziren Garizumako egunak barauegunak ziren, bijilia egunak izan barik. Gaur eguneko eliz arauetan barau eta bijilia egunak Hauts eguna eta Bariku Guren eguna baino ez dira, eta bijilia-egunak urteko bariku guztiak, eta batez ere, Garizumakoak.

Bijilia okelarik ez jatea da, eta baraua, ez jatea edo eguneko jatorduren bat ez egitea. *Barausi dau* izaten zen baraua errespetatzen ez zuenaren gainean esaten zena.

Zenbait elikagai jateko debekuaren aurrean, jatabearrek itsasotik ateratzen zuten bijili egunetarako jana. Basorda, Urbieta eta Basobaltzera (Arrastakulo izenarekin ere ezaguna) joaten ziren jatabear eta markaidarrak, haitzetara. Bertan batez ere lapatan egiten zuten, kontuan izanda erdarazko erredun hilabeteetan baino ezin zirela hartu. Lapak eta hamarratzak hartzen zituzten bijili egunetan jateko. Lapak ardo eta ogiarekin jaten zituzten. Laparik estimatuenak *iretargi lapak* izaten ziren. Laparik handienak horiek izaten ziren, eta gauez irteten ziren, ilargiak ondo argitzen zuenean. Espatula, edo *pertzebiriki*, eta linternarekin joaten ziren lapen bila, gauez. Hamarratzak, lekukoen esanetan, kilo bitik gorakoak baino ez zituzten hartzen. Txikiak itsasora jaurtitzen zituzten bueltan. Eta azpimarratzekoa da, Aste Santu inguruko egun horietan lapak eta hamarratzak batzeko egoten zen jende mugimenduaren baitan, *Laperu* ezizeneko eskalea. *Laperu* haitzetan ibiltzen zen, Armintza inguruan, eta gero saldu egiten zituen etxerik etxe. Aste Santu ingurua izaten zen horretarako sasoirik arrakastatsuena.

Bariku Guren egunez prestatu ohi zen jatordu ohikoenetakoa, entsalada modura atondutako indaba zuriak ziren. Beste alde batetik, Aste Santuko garaitiko egunetan sano ohikoa zen patatak saltsa berdean jatea, perrexil eta tipularekin ipinita eta arrain apur batekin lagunduta.

Diru sarreren araberako limosna emanda *buldea* lortzen zutenentzat, barau eta bijilia egunak gutxitu egiten ziren. Bulda banakoa zen eta urtero-urtero lortu behar izaten zen. Normalean andreek hartzen zuten bulda familiako kide guztientzat. Erosi ezin zuten familiek, gehienak egia esateko, Garizumako egun guztietan aitagure bat errezatuta egiten zuten ordea. Bulda horri "haragi bulda" deitzen zitzaion, okelarik jan ezin izateko agindu orokorraren gainean ematen zituen eskubideengatik.

Adina, osasuna, umedunaldia, bularra emateko sasoia, edo lan fisikoa barau egitetik libratzeko arrazoiak ziren teorian. Lekuko batzuen arabera, Garizuma sasoiko elizako sermoiak sano gogorrak izaten ei ziren. Presio handia jasaten zuten Garizumako arauak bete zitzaten. Bulda ordaintzeko dirua zeukaten apurrek bakarrik jaten zuten okela. Hortaz, hainbat lekuko kexu dira barau egin eta lan egin behar izanaz.

Herritar guztien artean emakumeek betetzen zituzten Garizuma sasoiko arauak zorrotzen.

Orokorrean, baraualdian gutxitu egiten zen jatordu kopurua, merienda edo askaria kendu egiten zen eta afaria askoz arinagoa izaten zen. Egun horietan, lapikokoari ez zitzaion koiperik botatzen, ezpada olioa.

Basordako kalan lapatan. Goian ezkerretik: Edurne Elorriaga eta Maribi Askarza. Beheko lerroan: Antonia Elorriaga, Ana Astoreka eta Rosario Fullaondo. Aurrean, Patxi Agirre. 1960ko hamarkadan.

«Garisuman derrigor in ber ixete(n) san, barikuten esin san okelari(k) yan. (...) Ta gero bulde, neu(k) pere ekar dot elixati ori, ori paga in ber ixete(n) san ori. (...) Eta ori paga eskeron okele yan al ixete(n) san, baia Bariku Guren egunean beti itxen gendun bijili e, bulde eukitxe bere bai. *Eta Bariku Guren egunez zer jaten zenduen?* Ba makailloa, tortillea, olau gausek..., indaba surik... baia es urdeies ta intxe, urdei ta txoriso botata es, orioas eta olan, aputxu bet sikutxu.»

* * *

«Aste Santun beti bijilik eta orrek, bueno bijili in barik pentzau beres. *Sasoi horretan zer jaten zenduen, laparik hartzen zenduen?* Bai Aste Santureko lapatan jente asko, Basordara, Urbittera ta ortik Portumeti bera bere bai, Basobaltza esaten dakon lekuti bera. (...) Ixete san eguenean itxosora lapetan, barikun bijili itteko.»

TXERRIKIAK

Txerrikiek leku garrantzitsua izan dute ohiturazko elikaduraren barruan. Negu hotz eta gogorrari aurre egiteko energia iturri garrantzitsua zen. Osorik aprobetxa-

tzen zuten txerria. Batez ere elikagaiak sortzeko erabiltzen bazuten ere, jantzien gaineko atalean ikusiko dugun eran, beste zeregin batzuetara ere zuzentzen zituzten.

Oraintsura arte, normalena, aldea-etxe bakoitzean txerri bat edo bi edukitzea izaten zen. Kumetan erosi eta etxean hazten zuten. San Martinetik aurrerako egun hotzetan hil eta urteko sasoi gogorrenerako ezinbesteko laguntza ziren.

Txerria hiltzeaz, odola gal ez dadin bete beharreko baldintzez eta ondoko ospakizunez geroago hitz egingo dugu. Orain, behin txerria hilda ekoizten zituzten elikagaietara mugatuko gara.

Txerria hil aurreko egunetan, odolesteak egiteko erabiltzen zituzten ortuariak prestatzen zituzten: *kinpulak* txikertu, porruak txikertu...

Txerria hiltzerakoan odola batzen zuten, etxeko andreak edo beste andreren batek, balde batean. Odolari eskuarekin eragiten zioten gogortu ez zedin, gogortuz gero alferrik galtzen zen eta. Txerriaren hesteak hartu eta errekara eroaten zituzten garbitzera. Ozpina, ura eta limoia (hirugarren hori gutxiagotan) erabiltzen zituzten hesteei usaina kentzeko.

Behin hesteak garbituta aurretik txikitu eta egositako ortuari eta odolarekin betetzen zituzten. Tipula, porruak eta odola izan dira betegarri nagusiak, arrozak ere bere lekua eduki duen arren. *Odoleste* esaten zaio heste mehearekin egiten denari, *buzkentza* heste lodiarekin egiten denari, eta *lope* heste nagusia beteta egiten zenari. Hesteak bete egiten zituzten tipula, porru, koipe, odol eta pipermin apur batekin.

Buzkantzak eta odolosteak, 2006.

Osagaiak galdorostu edo gardostu egiten zituzten, hau da, apurka-apurka egosi egiten ziren, porrua beste osagaietatik aparte. Hozterakoan nahastu egiten ziren eta arroza bota, hala egiten zuten etxeetan. Hesteak onilarekin bete eta gero amarratu egiten ziren. Ondoren gardostu egiten ziren, ur berotan sartuta. Eginda zeuden ala ez jakiteko orratzarekin zulotxoak egiten zizkieten, ezpabere lehertzeko arriskua zeukaten eta.

Txerria goizez hiltzen zen, eta arratsaldean edo hurrengo egunean, behin hoztu eta gero, zatitu egiten zuten. Txerria hiltzen zuen *matarife* berak zatitu ohi zuen. Okelak txikertu egin behar ziren gero. Txorizotarako erabiliko zuten okela aparte uzten zen. *Tenpanu* eta pernilei gatza ematen zieten. Gatza eman ostean gatzunaskan sartzen zituzten jeneroak. Leku gehienetan harriak ipintzen zituzten pernilaren gainean, presioa egin eta gatza hobeto har zezan.

Txorizoak egiteko okela eskuz txikitzen zuten, labana erabilita. Gero gatza eman eta piperrarekin nahastatzen zuten okela. Piperrak garbitu egiten zituzten okelarekin nahastatu aurretik, *uretan pasa*, eta ur epeletan sartzen zituzten gero. Azkenik, aizto edo koilararekin kentzen zieten barruko okela piperrei.

Okela eta piper nahastea eskuz sartzen zuten hestean eta beheko su inguruan eskegitzen zituzten, sikatu zitezen. Behin lehortuta, txorizoak kontserbatzeko hiru modu erabiltzen zituzten: oliotan gordetzea, tenple-tenpleko koipetan eta artagarau artean.

Pernila edo urdaiazpikoa gatzun-askatik ateratzen zutenean uretan sartzen zuten. Jateko eran noiz zegoen jakiteko arrautza bat botatzen zuten uretara. Arrautza gora irteten zenean, pernila uretatik ateratzen zuten. Gero sikatzen ipintzen zuten, piperra eman eta jan artean kontserbatzen zen.

Jatabe sano hur dago itsasotik. Klima hezeak eta itsasoko hurrekotasunak sano gaitza egin izan dute pernila ondo sikatzea.

Txerriaren koipearen azala zatitu, erre eta jan egiten zen. *Txintxortak* esaten diote Jataben.

Egun jana prestatzeko olioa erabiltzen bada ere, lehenago, eta gerraosteko sasoietan batez ere, txerriaren koipea edo *gantzagia* erabiltzen zuten. Txerri-koipea sarritan txerriaren puxikan gordetzen zuten. Bide batez, txorizoak bertan sartu eta kontserbarako balio zuen.

> *"Txarri oson aprobetxaten zan"* diote edadeko jatabearrek. Txerriaren edozein zatirekin jateko ezin goxoagoak prestatzen zituzten. *Piper sikua* erabiltzen zuten saltsaren oinarri legez.
>
> «Txarri il baiño lelau itten giñusen besperan kinpule(k) txikertu, porru(k) txikertu eta kinpulek galdorostu esaten da, nik txapen ganen esetu'as beti orrek, kinpulak itxe(n) siren galdorostu. *Luzaro eukiten ziran ezta?* Bai, geldi-geldi, geldi-geldi itxe(n) siren eta porruk aparte, nik olan esetu dot. Porruk beste katxarro baten aparte. Eta porru itte'akon erdi ingeru eta kinpule doble, guk itte(n) giñun sikeran. Eta gero ba, otzittuten sirenen nastate(n) siren. *Arroza botaten zeuntseen?* Bai, gero arrosa gitxi botaten giñutzen guk, baia gero arrosa egosi eta arros apur bet nastate(n) sakean. Gero odolagas nasta ta koipe sati txiki-txikitxukas aeri nasta, ta odola ta gindilla aputxu bet eta gatza, ta gero ba proba. Iñok esaun in

gure ixeten, baia batan batek iñ in ber ixete(n) saun. *Gordinik probetan zan?* Bai odola-edo proba. *Txarriaren hestekaz egiten zenduen?* Bai txarriñ estek, errekara yon, erreke bastante asau eukitte(n) giñun, ta txarriñ estek garbittuten giñusen ondo, ta gero binagre apur bet eta ureas etzera etorri tte pasa ori usiñe kentzeko, ta itte(n) siren buskentzak. Betetu, amarra... *Betetu zelan egiten zenduen?* Orreas enbudo..., onilleas betetu ta amarra, ta imiñi, eta gero olau balde nausi bet imintte(n) giñun surten uretan beko suben. Eta ure epel-epel daunen bota ara, ta an apur beten eukitte(n) giñusen galdorostuten. // Txarri urrau egunen satitxuten san, satitxu aittek itte(n) saun. *Eta gero okelak txikertu behar ziran*: Bai pernillek-eta, guk urrau egunerarte gero itxi itte(n) giñutzen, otzitxu arten. Eta gero txorisotarako apartate(n) giñun leku batera, ta berak imintte(n) saun tenpanuk eta danak apartata, ta gero gatza emote(n) sotzen, alan mai txikitxu beten emoten sotzen gatza ta gero gasunaskan koloka... Ta gero txorisotarako txikertu. *Zelan txikertuten zenduen okelea?* Txikertu ordun eskus, kutxillogas txiki-txiki iñ, kutxillogas txikertu eta eskues sartu bere gero esten. (...) Lelengo txikertu te gatza emon, eta gero urrau egunen piperra nasta, ta piper apur bet artzen deudenean ba sartu, amarra ta imintte siren eskeitte. *Piperra zelan egiten zenduen?* Piperra garbittu, eta uretan lelengo pasten giñusen eta gero ur epel apur beten imintte(n) giñusen sertuten. Ta gero ur gusti trigerun-edo nonon ure botateko lekun oki, eta ba maie ganen imiñi tte kutxilloas edo koillereas kentze saken, okele kentzeko. Ta gero txorisok amarra ta imitten siren siketan eta siketuten sirenean, batzuk imintte(n) giñusen koipetan ta beste batzuk imintte(n) giñusen lapikotan plegata ta orio bota, orio gordiñe botate(n) giñutzen guk. Baia besteri koipe botate(n) saken, baia tenple-tenpleko koipetxu, ta oriotan ta koipetan imintten giñusen. *Eta ezagutu dozu txorizoak artagarau artean gordetea?* Bere bai, artagarau arten bere gordete(n) siren kontzerbateko, bai ori esetu dot bai. // *Gazunaskan zer gordeten zan?* Gasunaskan ba txarri, tenpanuek, pernillek, aurreko besok, eta txarri(k) tekosen jenero gustik. *Zenbat denporatan eukiten ziran?* Ba gasunaskan... guk lusero eukitten giñusen urdeik-eta olan. Pernillek ataraten giñusen... estaipa senbet egunen eukitte(n) giñusen... Eta gero uretan eukitte(n) giñusen, eta pentzaten dot arrotze bat bota ta olan itxe(n) giñusen, arrotze bota ta gora urteten dauenen, ordun gatzan ondo oten siren. *Gero pernilak sikatuten iminten zenduezan?* Bai, siketuten imiñi, piperra emon eta kontzerbaten siren orre(k) kero pernillek.»

EDARIAK

Nekazal gizartean edari nagusia ura izan da. Baina atal honetan gizakiak gauzatutako eraldaketa prozesuen bidez lortutako edariak, bertan ekoitzi ezin zirelako kanpotik ekarritakoak eta Jatabeko gizarte tradizionalean eduki duten lekua aztertuko dugu.

Kafea armozurako eta bazkalostean hartzeko ohitura aho batez onartzen dute jatabearrek. Erosi egiten zen, ez zegoelako ekoizterik, eta esnearekin batera hartzen zuten gehienetan.

Likoreen artean koñaka eta anisa izan dira nagusi. Goizean goizik eta bazkalostean hartzen zuten. Koñaka gizonezkoena izaten zen eta anisa emakumeena. Anisa galleta edo pastak janda hartzen zuten.

XX. mendearen bigarren zatian gazteek garagardoa hartzeko ohitura hartu zuten, jai giroan batez ere. Zaharragoek, ostera, ardoa edaten zuten jai giroan. Baita likoreak ere.

Ardoa garrafoietan ekartzen zuten baserritarren kooperatibara. Kooperatiban kopuru handietan erosi, merkeago lortzeko, eta gero etxerako erosten zuten.

Jokabide nagusia hori izaten zen. Dena dela, tabernariek eta beste zenbaitek zuzenean erosten zioten ardoa *binoteru* edo ardo-saltzaileari. Gero, jaietarako, esaterako, zahagian eduki eta eroaten zuten ardoa. Hots, berariaz ardoa garraiatzeko larruz egindako zorroan. Emakumezkoek edalontzi erdi edo batera mugatuta zeukaten ardo kontsumoa.

Baina ardoa jaiegunetako edaria zen modu berean, txakolina eta sagardoa egunean-egunean edateko ziren. Sagardoa sagar txikerrak erabilita egiten zen. Ez zuten saltzen, etxerako izaten zen produkzio guztia. Mazuto eta esku dolareak erabilita egiten zuten.

Txakolina

Txakolin ugari egon da Jataben, etxerik gehienetan. Lekukoen esanetan, mahats zuri asko izaten zuten etxe aurreko harrizko zutabe zilindrikoek eusten zieten parretan ipinirik. Zutabeen gainean arkazi edo gaztainondo egurrez egineko taketak ipintzen zituzten. Mahats beltza, zuria beste ikusten ez bazen ere, ohikoa izan da Jatabeko paisaian. Parra horiek hiru-lau metroko altueran zeuden eta herriko bideetatik ikusten ziren posteen gainean.

Lehenengo mahatsak Frantziatik ekarrikoak ei ziren. Eta lekuko batzuek gogoratzen dutenaren arabera, mahatsa ereiten hasi zen Jatabeko lehenengo etxea Garaigoikoa izan zen.

Bakioztarrek txakolina erosten ei zieten jatabearrei, Bakion egindakoarekin nahastu eta Bakioko txakolin moduan saltzen zuten.

Mahatsari sufrea ematen zitzaion, lehen hautsetan eta orain likidoan, hobeto kontserbatzeko.

Txakolina egiteko mahatsa *kaderakaz* edo hankekin zapaltzen zuten lehenik. Lan hori egiten hasi aurretik ondo garbitzen zituzten oinak. Txakolin zuria eta beltza egiten zuten, mahats zuri eta beltzak erabilita.

Beltza egiteko, mahatsa zapaldu eta lau egunez edukitzen zuten barrikan. Izan ere, mahats beltzaren azalak ematen du kolore beltzerako *tinte* edo tindua. Barrika gainean hiru-lau egur astun eta harriak ipintzen zituzten, ez zezan gora egin.

Txakolin zuriari ez zitzaion aparteko ezer egiten, zenbat eta arinago hainbat hobeto, berriemaile txakolingileen esanetan. Txakolin zuria egiten zuten gehien.



Txakolina egiteko dolarea, 2008.

Dolare biribila, eskuz eraginda lan egiten duena, erabiltzen zuten mahatsa zapaldu ostean. Oraindik ere, txakolina egiteko modua aldatu den arren, antzinako dolareak badaude Jataben. Txakolin-ekoizpen handiko etxeetan dolarea edukitzen zuten. Produkzio txikia zeukaten gehienek, ostera, *Utxeko dollare*, edo Sustatxako dolarea erabiltzen zuten. Libre izaten zuten herrikoek aipatutako etxeko dolarea erabiltzea, eta trukean, ekoizpenaren zati txiki batekin geratzen ei ziren dolarearen jabeak.

Txakolinaren zati bat etxerako uzten zuten eta garaitikoa saldu. Txakolin beltza Bilbora saltzen ei zuten, eta zuria Santurtzira, arraina egiterakoan erabiltzeko.

Txakolina egitean geratzen zen mahats hondarrarekin *pitipiñe* edo pitikina egiten zuten. Txakolinaren antzekoa baina ez horren kontzentratua. Egun sargoritsuetan soroan edateko guztiz aproposa zen, lekukoen esanetan.

> «Len txakoliñe etzen itxen san. *Saltzeko edo etxerako egiten zenduen?* Saltzeko, etzerako bere bai, baia saltzeko. (...) *Eta zelan egiten zenduen?* Lenau kaderakas sapaltan san, baia oin makiñeas. Baia ondo garbittu kaderak eta..., edan in ber dan jenero ba, sikeran bere ba, garbikusi apurtxu bet... *Zapaldu ostean, harriak ipinten jakoz ganean?* Ori baltzari itxen dako, tinte emon daiñ, sapaldu eta barriken oten da lau egun ingeru edo bost itxen da, barriken, ta ori irikitxen paraten da ori barriken seren. Ta a tinte emoten dau serak, orrek matzan asalak, emoten dau tinte, ta ordun botate sakon irulau e..., olan egurrek, olan bastante... astune(k) peres, ganen botate(n) sakon gora iyen sedeiñ, an aspiñ on deitxen sera, matzan asala. Baltzari botate(n) sakon ori, suriri eser beres, suri direto itxen da, eser bere imin barik. Ta semet ariñau suri irigi obeto ondikarren bere. *Zer egiten zenduen gehiago zuria edo baltza?* Emen suri giau, Yatabe gustin suri giau.»

Pepinoa

Sagarrekin, sagardoaz gain pepinoa egiten zuten Jataben. Sagarrak mazutoekin txikertzen zituzten. Egur batean zuloa egiten zuten, bertan sagarrak jo eta aska batera irteten ziren sagar joen zati eta zukua. Sagarra jo, barrikara bota, barrika urez bete eta zortzi bat egunez uzten zuten *fermentau* edo muztiatu arte. Muztiatu ostean gozo egoten zen. Bero handia egiten zuenean freskagarri modura erabiltzen zuten eta edan ohi zutenen esanean, itzel zegoen.

Infusioak

Bazkalostean, digestio astunak edukitzen zituztenean, mantzanila-ura hartzen zuten. Gaur egun ere, neurri handiago edo txikiagoan gordetzen den ohitura. Mantzanila herri inguruko landaminetan hartzen zuten. Eta garai batean, lekukoek diotenagatik, gaur egun baino askoz ugariagoa zen. Egun ez ei da agertzen lehenago zegoen lekuetan.

Arrazoi beragatik, edo odolaren larregiko tentsioa jaisteko, asun-ura ere hartu izan dute. Bazkalostean izan zitekeen baina baita arratsalde erdialdean ere. Sustraietako erpeekin egiten zuten asun-ura.

Badira infusio mota gehiago. Lukibuztan (Equisetum fluviatilis) landarearekin egiten zena, esaterako, sano ona ei zen diuretiko moduan. Dena dela, jatabearrek landareen gainean ikasitako gauzarik gehienak herri-medikuntzari dagokion atalean ikusiko ditugu.

TABAKOA

Ameriketatik heldutako landare hori, egun osasunarekin lotutako lege aldaketa askoren muinean dagoena, aspalditik txertatu zen Jatabeko bizitzan. Sasoi batean herriko soroetan ereiten zuten, ereitea debekatuta zegoen arren. Arbola bat da. Pertsona txiker baten altueran hazten da. Puntan ematen ditu hiru-lau erro, eta han irteten zaizkio loreak, azul-azulak. Orriek landarea inguratzen dute bueltak emanez. Puntan loreak irteten zaizkionean haziz betetako bolatxo moduan geratzen ziren.

Orduan, tabako orriak hartu eta ganbaran eskegitzen zituzten. Bestela, soroan uzten zituzten nahiko ihartu arte. Ondoren, kaxetan tolestu eta biltzen zituzten orriak. Hiru-lau orri ipini ondoren, koñak apur bat botatzen zioten. Horretara, lekukoen arabera, tabakoa ederto batean geratzen zen.

Sarritan arto artean ereiten zuten tabakoa, ereitea debekaturik egoteaz gain, beste inork ikusiz gero osteko arrisku handia zegoelako.

Gerraostean, errazionamentu kartilaren barruan sartzen zen tabakoa. Hau da, oinarrizko kontsumo gaitzat zeukaten orduko agintariek. Poltsatxo gorri batean ematen zuten, izan ere, sano berria da zigarro eginak erosteko aukera izatea.

Isiotzeko antzinako metxa lodidun txiskeroak erabiltzen zituzten.

Edozelan ere, tabakoa ez zen erretzen zuten landare bakarra. Arto bizarrak, artaburuaren goiko aldean irteten diren hariak, eta patata azalak ere, erre egiten zituzten jatabear gazte bihurriek.

Gazteek erretzeko paperean bilduta erretzen zuten tabakoa, zaharragoek, ostera, pipan erretzen ei zuten.

> «Tabakoa nik esetu dot..., kontrabando antzen san, proibidute ote(n) san ta, baia solo osoa be etzen esetu dot. Tabako politte da lore gero! (...) Nire altura ingerun edo olan asten da, ta arbola ba(t) ta bakarrik ta gero puntan emoten'ttus iru-lau erro eta serak, lora... alau asul-asul bet emoten dau puntan, lora elegantie. Ta gero biden eukitten dittu errama baleko lez bueltan-bueltan-bueltan orriek, eta an punten arek lorak dokosenien, dana asis beterik daus aik bolatxuek, bolatxuk lotzen dakos, aik eraitteko edo seren... Ta aik orriek ekarri eta amarreu eta imintxen siren goien.»

GARAITIKO JATEKOEN PRESTAKETA ETA KONTSERBA

Sua izan da oraintsura arte etxeko bizimoduaren ardatza, eta sua izan da jatekoak egiteko elementurik behinena. Baina suak bilakaera bat izan du eta, horrek, aldi berean, eragina izan du jatekoak prestatzeko moduan. Bilakaera horren barruan,

beheko su eta laratzetik txapara igaro ziren, eta horrek aldaketak ekarri zituen sueteko tresnetan ere. Jakina, aldaketak ez ziren hor amaitu, geroago butanozko ezkaratzak heldu ziren eta denborarekin, baita ezkaratz elektrikoak ere, funtzionamendu ezberdina ekarri zutenak. Labearekin gauza bera jazo zen. Garapen horren ondorioz, etxe askotan sua desagertu zen (orain ia apaingarri modura bueltatzen ari den arren), eta txapa daukaten lekuetan ere, ezkaratz berrietan egiten dituzte jatekoak, arinagoak eta erosoagoak direlako.

Jateko gehienen prestakuntzan oinarrizko osagai batzuk erabili izan dira euskal sukaldaritza tradizionalean. Horiek berakatza, olioa geroago eta txerri koipea lehenago, tipula, piperra eta gatza izan dira, horietako hainbat Ameriketatik orain dela erlatiboki gutxi ekarriak. Aipatu berri ditugun osagai horiek oinarri hartuta prestatu izan dira eta prestatzen dira, gaur egun ere, jateko gehienak.

Aldea-etxe giroko gizartean, ia erabateko autarkian oinarritzen zen jendartean, normalena eurek ekoitzitako janariak prestatzea zen. Horren adibide dugu ogia, izan ere, ogia erretzeko berariaz sortutako labeak zeuden.

Beste alde batetik, etxe-abereak hil izan dira egun berezietan euren okela jateko. Eta behi-okela sano garrantzitsua izan den arren, etxean ez da hiltzen izan izozkailuak egon diren arte.

Hain zuzen ere, izozkailuek kontserbazio modu tradizional guztiak aldatu dituzte.

Etxeko ortuariak: indaba, baba, ilarra, azelga, patata, tomatea, kalabaza... bakoitza bere sasoian jaten zuten. Hala ere, kontserbatzeko metodo ezberdin asko erabili izan dira, sikatzea, azukretan sartzea edo ozpinetan sartzea. Gaur egun, batez ere, izoztu egiten dira.

Frutak garrantzitsuak izan dira dietan. Nekazaritzari dagokion atalean ikusiko ditugu mota ezberdinak. Fruitu sikuen artean gaztainak, hurrak eta intxaurrak jan izan dira batez ere.

Perretxikoak hartzeko ohitura be aspaldikoa da Jataben. Bertoko zuhaitzak kendu eta kanpokoak sartu izanak erabat aldatu duen arren herriko errealitate mikologikoa.

ANTZINAKO JATEKO ERA ETA BAKOITZAREN LEKUA MAHAIAN

Mahaian kokatzeko ordenari dagokionez, zaharrenak lehentasunezko lekua izaten zuen eta bazkaria prestatzen zuena, etxekoandrea, sutik hur ipintzen zen, jatekoari kargu hartzeko eta bazkaria banatzeko. Gero, familiako gainontzeko kideak jartzen ziren mahaiaren inguruan. Bakoitzak bere lekua izaten zuen, eta beti mantentzen zuten, egoera berezietan izan ezik, leku hori.

Ordena erritual horrek garrantzi handiagoa hartzen zuen jaiegunetako edo ospakizun berezietako bazkarietan. Aita betiko lekuan ipintzen zen, baina gizonezko gonbidatuak, osaba eta lehengusuak, aitaren ondoan paratzen ziren. Etxeko gazteak mahaiburutik asagotu egiten ziren, eta euren adineko gonbidatuen ondoan jesartzen ziren. Egun horietan, mahaian sexuaren eta adinaren arabera batzeko joera argiagoa zen.

Umeek, seinek, mahai nagusia beteta egonez gero, eurentzat berariaz ipinitako beste mahai batean jan ohi zuten. Txikienei besteei baino lehenago, eta aparte, ematen zieten jaten.

Umeen mahaitik nagusienera igarotzeko ez du ematen arau zehatzik zegoenik. Edo ez behintzat azken mendeetako egitura sozialaren barruan. Baina jaunartzea egitea edo fraka luzeak ipintzea kontuan hartzeko aldaketak ziren.

Morroi edo *krieduak* adin bereko mutilen ondoan jesarri izan dira usadioz. Etxean beharginik bazegoen, osaben, semeen ondoan jesartzen ziren. Eskekoek, gehienetan, mahaitik kanpo jaten zuten, atearen ondoan. Baina hori bai, familiak zeukan jateko bera ematen zitzaien. Neskame edo *kriedak* zeuzkaten etxeetan, aparte jan ohi zuten, suetean, etxeko gainontzekoek jan eta gero.

Familiako argazkiak, Azken Afariko Leonardo da Vinciren margoaren bertsioaren kopiaren bat, etxeko abizenen armarria, Andre Mariaren irudiren bat... izaten ziren, eta oraindino ere badira, jateko mahaiaren inguruko hormetan apaingarririk ohikoenak.

Antzina, gehienek mahaiaren erdian ipinitako erretilu edo lapiko batetik jaten zuten. Edaria pitxer batetik hartzen zen, eta ardoaren kasuan, edalontzi bakarretik edaten zuten guztiek. Antzinako ohitura horiez lotsatzen ziren XX. mende hasierako jatabearrak, lekukoek adierazi duten moduan. Eta bitxia da konprobatzea etxe gehienetan badaukatela jateko antzinako eraren berri. Baina lekuko gehienek, gutxi batzuk izan ezik, auzokoei egozten diete ohitura, euren etxean halakorik egiten zenik ukatzen duten une berean. Gaur egun ere, entsaladak edo zenbait postre mota jaterako orduan, lehengo jateko moduaren aztarnak aurki genitzake.

Guztiek ontzi beretik jaten zutenean, janaria atzamarrekin hartzen zuten, talo edo ogiarekin lagunduta, artezean ahora eroateko. Erabiltzen hasi ziren lehenengo mahai-erreminta koilara izan zen; hasieran zurezkoa, gero metal desberdinez egindakoak agertu ziren eta zurezkoak janaria prestatzeko utzi zituzten. Geroago sardexka heldu zen, horretara janaria atzamarrekin ahoratzeari utzi zioten. Hala ere, oraindino eskuekin jaten dira jaki batzuk: mariskoa, piper frijituak, fruta, hezurrak, arrain txikiak... Izan ere, ez du gizakiak eskuak baino erreminta zehatz eta hoberik asmatu.

V
JANTZIAK

Janzkera herri baten kultura eta nortasunaren ezaugarri nagusietakoa da. Horrek sortzen du gure kanpoko itxura eta ezagutzen ez gaituztenak irudi hori hartuko dute lehenengo. Janzkera herrien bereizgarri suertatu da historian zehar. Baita herri bereko kideen artean ere; klase sozial, jaiegun, astegun, produkzio funtzio eta egoera zibila adierazteko balio izan du gizaldietan. Esan genezake, janzkera, berez, hizkuntza bat izan dela gizarte tradizionalean.

Euskaldunon janzkera, orrazkera barruan dela, berbagaia izan da garai ezberdinetako kultur ikerlari, pentsalari eta geografoentzat.

Erromatarrek euskal emakumeen orrazkera eta buruko estalkien gainean berba egin zuten. Aymeric Picaudek, XII. mendean euskaldunok orduko eskoziarren moduan janzten ginela idatzi zuen[1]. Eta Berpizkunde sasoian zer esan handia eman zuten emakume euskaldunen kono formadun burukiek. Debekatua izan zen Aragoi iparraldetik San Vicente de La Barquerarainо zabaltzen zen euskal janzkeraren adierazgarririk behinena.

Lehenago ez zegoen egindako arroparik, gaur egun bezala. Oihalak erostea edo abereei larrua kendu eta ontzea, diseinatu eta jostea izaten zen ohikoena. Artisauen lana izan da jantziak egitea, joskileena, alegia.

Baina industrializazioak eta eskala errendimenduek aurretiaz egindako arropak erosteko aukera zabaldu zuten. Eta une horretan areagotu zen janzkeraren uniformizazioa. Marka komertzial handien nagusitasuna, produkzio intentsiboaren ondoriozko prezio erlatiboki baxuek eta globalizazioak eragin bateratzailea izan dute janzkeran. Gaur egun, esan genezake, Mendebaldea, edo Ipar Hemisferioa, deritzon lurraren ingurune aberatseko biztanleok sano antzera janzten garela. Marka eta produktu berdinak erabiltzen ditugu.

---

[1] URZAINQUI, Tomás; OLAIZOLA, Juan Mª. *La Navarra marítima*. Pamplona, 1998, 48. or.

Baina atal honetan XX. mendera arte iraun zuen janzkera tradizionala aztertuko dugu. Beti ere, gure lekukoek gomutatzen dutenaren arabera.

Antzina, edadeko jatabearren arabera, arropa nagusi bi egoten ziren. Bata astegunetan erabiltzen zena beharrerako, etxerako; eta bestea, jaiegunetan, eta etxetik kanpo, janzten zutena. Etxean behar egiten zuten antzinako jatabearrek eta han, lanerako, kolore iluneko arropak erabiltzen zituzten. Etxetik irteteko, jaiegunetarako, mezetara joateko, kolore argiagodunak ipintzen zituzten.

ANDREZKOEN ARROPA BEHARRERAKO

Andreek lanerako beherainoko gona, atzerainoko mantala, *amantala,* eta mauka luzedun *mariñerak* erabiltzen zituzten, kolore berekoak gehienetan. Koadrodunak izatea nahiko ohikoa izaten ei zen. Beharrerako arropak kolore ilunekoak izaten ziren. Eta horien artean motadunak, lisoak, puntu zuridunak... klase askotakoak izaten ziren. Sarritan gona beltzak erabiltzen zituzten lanerako, mahoizkoak edo frantzesillazkoak ere bai. Horrekin batera, terlizaz egindako txalekoak ere lanerako sano erabiliak izaten ziren. Terliza, umeei arropak egiteko erabiltzen zen kotoiaren antzeko oihal mehea zen. Garbi-ikuzia egiteko errazagoa izaten ei zen mahoia baino.

Horiekin batera telazko jaka zahartuak ere lanerako erabili ohi zituzten. Hasiera batean kanporako izandako arropa, behin zahartuta, lanerako erabiltzen zuten.

Andrezkoek atorra eta *amantala* bi janzten zituzten. Mantalari *eurreko traste* esaten zitzaion etxeko berbakeran.

Ezkerretik hasita: Evarista Elortegi, Kontxi Iturriaga eta Jose Iturriaga, 1950eko hamarkadan.

Elorriaga Arruzatarrak, 1948an.

Barruko arroparen erabilera gaur egun baino irregularragoa zen. Batzuk kuleroak erabiltzen zituzten gonaren azpitik eta beste batzuk ezer ere barik ibiltzen ohituta zeuden.

XX. mendeko bigarren erditik aurrera andreak frakak erabiltzen hasi ziren beharrerako. Erosoagoak eta beroagoak ziren, erabiltzen hasteko erabaki gaitza hartu zutenen ahotan.

Behin fraketara ohituz gero ez zitzaien gonak ipintzea gustatzen. Etxetik irten behar zutenean janzten zuten gona, presio soziala saihesteko, baina etxean, beharrean, frakak ipintzen zituzten. Frakak janzten zituzten emakumeei *marimatxo* esan izan zaie.

Basora beharrean joaten ziren sasoian, ardi-lanaz egindako galtzerdi lodiak ipintzen zituzten. Artzainei eskatzen zizkieten edo herriko dendetan erosten zituzten, baina baita etxean egin ere. Udan, ostera, *bernutsik* joaten ziren. Hau da, galtzerdi barik. Horiez gain, kanpoan erositako galtzetin finagoak ere edukitzen zituzten.

BURUKO PAINELUA

Guk elkarrizketatu ditugun andreek esan digute lehenago ohitura zela buruan painelua eroatea gaztetatik. Horretara, ilea luze utzi, eta paineluarekin bilduta erosoago

Teodora Bilbao, c. 1890.

Bustuntzuriko Celestina Bilbao.

ibiltzen ziren. Kasu batzuetan *moño* edo mototsa erabiltzen zuten, buruko zapia ipini barik. Baina hori buruko painelua erabiltzeari utzi aurreko pausoa izan zen.

Buruko ilea atzean batzen zuten, mototsa eginda. Horretarako andreek ilea luze eroaten zuten. Horren gainean ipintzen zuten painelua. Ezkondu aurretik janzten zuten. Beraz, lekukoek gomutan dutenaren arabera, sikiera, buruko zapiak ez zuen egoera zibilik adierazten. Paineluak kolore guztietakoak izaten ziren, baina batez ere, beltzak eta grisak erabiltzen zituzten. Zapia buruan ondo ezartzeko, mugi ez zedin, orratzak erabiltzen zituzten, *burubaltz* izenekoak. Hain zuzen ere, orratzen burua beltza eta handia zelako. Buruko paineluari, ondo ipinita egoteko, *adartxu* bi atera behar zitzaizkion gora adi. Era horretan gogoratzen dituzte lekuko denek euren aurreko andreak.

Painelua diru-zorro moduan erabiltzen zuten andreek sarri. Txanponak buruko paineluan amarratuta eroaten zituzten askotan, galdu edo lapurtuko zizkieten beldurrez. Udan gariak jotzeko ere, gizonezkoei uzten zizkieten eztarria galautsetik babesteko.

XX. mendearen erdialdetik aurrera andreak ilea laburrago erabiltzen hasi ziren. Ez labur, orain sarritan ikusten den eran, baina ezta ere euren aurrekoek eroaten zuten bezain luze. Ilea liso eroaten zuten, eta gero permanentea heldu zen. Prozesu horrek, buruko zapiaren erabilera apurka baztertzera eroan zituen andreak. Buruko paineluak funtzionalitatea galdu zuen.

Buruko zapia janzteko ohitura galtzearekin batera, Mungian eta Bilbon erositako *sonbreruak* erabiltzen zituzten erosteko besteko diru zeukaten Jatabeko andreek. Udan erabiltzen zituzten, eguzkitik babesteko. Modaren kontzeptu modernoa sendotze bidean zen.

> «Bai buruko paiñelu beti, olan adarrakas, adar bi. Nire ama difuntek beti erote(n) saun ori, moñotxu emen, ta adarrakas paiñelu, ondo seatz imintte. *Painelu baltza izaten zan?* Bueno alan begiduntxu, begi txikitxu deukesena(k) pere bai batzuk. Baltza *en general*, baia begiduntxu(k) bere bai okitten sittusen. *Eta orratzak?* Buru-baltzak, sartu olan eta sujetateko, ta erote(n) sittusen seren, paiñelu mobidu eseditten, au moñotxue mobidu eseditten, orrekas orro baltzakas. *Paiñelua ezkondu ostean iminten zan?* Es, beti eron dau, moñotxue beti eron dau gure amak. Moñotxue atxiñe, batzuk politto eukitte seuden moñotxue, olan adartxuk-eta atarata. Baia beste batzuk ote siren moldabakok edo apur bet molda gitxiaukok eta moño ondo imintte es, laski batzuk.»

ANDREEN ARROPA JAIEGUNETARAKO

Andreek, domeketan, jaiegunetan edo dotore agertzeko egunetan, soinekoa janzten zuten. Garbi jantzita ateratzen ziren eta beharrerako sekula erabiltzen ez zituzten ondo gordetako arropak ipintzen zituzten. Soinekoa erosi behar zutenean, Mungian edo Bilbon erosten zuten, baina *teleru* edo oihal-saltzaileak ere ibiltzen

Ezkerretik: Irene, Anastasia eta Faustino Agirre, eta Ana Elorriaga, 1967.

Ezkerretik Dolores, Jesusa eta Mari Muruaga ahizpak, mantilarekin jantzita. 1950eko hamarkadan.

Mª Pilar eta Fidela Agirre, 1920ko hamarkadan.

Goian ezkerretik: Edurne, Antoni eta Ana Elorriaga, eta Mari Etxebarria. Behean: Carmen Etxebarria, (——), eta Mª Angeles Larrazabal. 1940ko hamarkadan.

ziren etxerik etxe. Soinekoa edukitzeko oihala erosi behar izaten zen, gero joskileari esan jantzia egiteko eta berak neurriak hartzen zizkion bezeroari. *Sastre* esaten zaio Jataben joskile normalak baino kategoria handiagoa duenari. Santiago Ugarte, esaterako, izen handiko sastrea zen. Udan Jatabe eta Lemoiz inguruan ibiltzen zen eta neguan Mungiara bueltatzen zen, bere etxera. Bertan hartzen zituen neurriak eta jantziak egin.

Fleko edo dindirridun mantila, eskularruak eta poltsatxoa janzten zuten egunik seinalatuenetan. Horrekin batera, arrakadak ipintzeko ohitura ageri da. Jaio bezain laster egiten zitzaizkien zuloak belarrietan neskatoei. Gero, itxi ez zitezen, arrakadak eroango zituzten bizitza ia osoan. Baina egun berezietan arrakada dotoreenak ateratzen zituzten. Mantilak gerrian lotzeko moduko handiak eta txikiagoak zeuden. Horrez gain, beharrekoa baino *amantal* finagoa eta beste marinera bat edukitzen zuten, batez ere, domeketarako.

Mantila beltza, beste ezelango apaingarri barik, sano jantzia zen andreen artean. Batez ere, elizara joateko.

Garai batean, une berezietarako, ezkontza, hileta, lutu, jaunartze eta antzekoetarako, arropa beltza erabiltzen zen. Beltza zen dotoretasunaren kolorea.

GIZONEN ARROPA BEHARRERAKO

Jatabeko gizonek soroan behar egiteko mahoizko edo frantzesillazko frakak erabiltzen zituzten. Udan etxerako eta kanporako balio zuten, eta erromerietara ere ez ei ziren gutxi joaten horietariko frakak jantzita.

Frakak lotzeko, zamak altxatzeko eta gerria babesteko gerrikoa erabiltzen zuten. Beharrerako beltza erabiltzen zen. Telazko faxa ere erabiltzen zuten beste batzuek. Berriemaile batek baino gehiagok adierazi zuen, egun halako faxak pilotari eta harrijasotzaileek baino ez dituztela janzten. Gaur egun erabiltzen diren gerrikoei *uhala* deitzen diete.

Gerritik gora *solorako alkondare* erabiltzen zuten. Mahoizko edo frantzesillazko alkandora iluna. Udan mauka laburrekoa eta neguan mauka luzekoa izaten zen.

Beraz, frakak eta alkandora *azulek* izaten ziren orokorrean. Lekukoen esanetan, *bermiotarren klasera*. Hala ere, nahiko normalak ei ziren beharrerako alkandora beltzak ere. Blusa beltzak beharrerako erabiltzea lekukoek ezagutu badute ere, euren gazte-denboran galdu zen ohitura hori. Batez ere, ganadu tratanteek erabiltzen zituzten *brusak* beharrerako. Andreen moduan, galtzerdi lodiak eta galtzerdi finak erabiltzen zituzten gizonek, eguraldiaren eta eginbeharreko lanen arabera. Fintxoagoak zirenak Mungian, Bilbon edo herriko tabernetan eros zitezkeen.

Ardiak zaintzen ibiltzen zirenek hamaika hotz-bero igaro behar izaten zuten. Horregatik, behar horretan ibiltzen zirenek panazko jakak izaten zituzten. Baita *entzaraduek* ere. Neguan jakari urik sar ez zekion, galipota ekarri eta ardiak jagoten irten aurretxoan brotxa batekin bainua ematen zioten jakari. Guardasola asmakizun handia izan zen kanpoan agerian egon behar zutenentzat.

Pedro eta Patxo Arruza aita-semeak.

TXAPELA

XX. mendeko bigarren erdira arte, gaztetatik janzten zuten txapela gizonek. Lekukoak umetan txapela jantzita ageri dira erretratuetan. Egun janzkera tradizionalarekin lotzen dugun txapel beltza negurako erabiltzen zuten, batez ere. Etxeetan sartzerakoan, klase sozial altuko jendearen aurrean eta leku sakratuetan zein otoitzerako txapela kendu egiten zuten. Berriemaileen esanetan 1950. urtetik aurrera hasi zen txapela janzteko ohitura galtzen, eta orain hogei urte ia guztiz desagertu ei da. Hala ere, oraindino Jatabeko edadeko hainbat gizon ikusten da txapela buruan jantzita.

Ezkontza-eguna Unibaso Goikoan, 1964. Ezkerretik: Jose Egia, Fidela Agirre, Anastasia Renteria, Juan Egia eta Victoriano Renteria.

Udan lasto-txapela erabiltzen zuten. Negukoak bero handia emateaz gain, lastoz eginekoak hegala zabalagoa zeukanez, hobeto babesten zuen eguzkitik. *Lasto-txapela* izenez ezagutzen zen udako txapela ziriz egindakoa zen. Ziria mihimenaren antzekoa da baina bigunagoa. Jatabe inguruan ugariagoa zen mihimena, baina beste zeregin batzuetarako erabiltzen zuten.

GIZONEN ARROPA JAIEGUNETARAKO

Egun berezietan (domeka, herriko jaiak, ezkontzak...) arropa dotore eta koloretsuagoak janzten zituzten gizonek behar-egunetan baino.

Milrayas frakak erabiltzen ziren gehien. Geroago, panazko frakak ere agertzen hasi ziren, dotoreago eta garestiagoak. Hotzetik babesteko aproposagoak zirenez, neguan janzten zituzten udan baino sarriago. Dena dela, lehenengo Mungian ikusten ei ziren, berez, Jataben baino gehiago.

Gerrikoa erabiltzen zen denboran, jaiegunetan koloretsuak ipintzen zituzten. Gerriko beltzen bat ere ikusten zen, baina gorriak eta berdeak izaten ziren gehienetan.

Blusari dagokionez, beharrerako ere erabili arren, jaiegunetakoak ezberdinak ziren, bereziak. *Brus-mariñeko* deitzen zieten blusarik dotoreenei. Halakoak janzten zituzten gizonei *ministrotxuk* esaten zieten. Koloretan, grisak, beltzak, urdinak... zeuden.

Anastasia Libarona eta Fernando Oleaga, c. 1907.

Evarista Mª Elortegi eta Jose Iturriaga "Arnabar", 1935.

Herriko jaietan aurreskua eta dantzari-dantza egiteko, gerriko gorria, fraka eta alkandora zuriak eta txapel gorria erabiltzen zituzten.

UMEEN ARROPA

Ume jaioberrien, eta sei hilabetera artekoen jantzia *paxe* edo faxa zen mendearen erdia ondo pasatu arte. Umea estali eta babestu egiten zuen kotoizko soineko sendoa zen faxa. Umeari ez zitzaion hankarik ikusten, mantatxoarekin estalduta eta faxa ondo estututa zeukala. Sein edo umeentzako fardeltxoak, *oielak*, etxean egin eta josten ziren, telatxo suabeekin, gainean algodoi loditxoa ipinita. Gerriari eusteko bertan lotzen zizkieten. Normala izaten zen umeek oinetakorik ez edukitzea etxetik kanpora irteten hasi arte.



Mª Angeles Larrazabal eta Pedro Arkotxa, 1960ko hamarkadan.

> «Paxe ixete(n) san alan ser bat, gause gogor bat, algodoisko-edo, bastante gogorra paxe ixete(n) san. Ta agas, agas ote san ba, bai igual sei illebete ingerurarten edo olan, a paxe imintxe sakon, muda eta a paxea. Imajina, umeri kaderari(k) pere ordun esaken ikusten, tapata. Mantatxues tapata eta gero a paxeas ganeti estutu garritxue eta listo.»

XX. mendeko bigarren erdialdean faldoiak erabiltzen hasi ziren. Faldoi luzeak izaten ziren eta goitik etxean egindako *txaketatxuak* ipintzen zitzaizkien umeei.

Mutikotxoek fraka laburrak eroaten zituzten. Lekukoen esanetan, Jatabeko abadeak Lemoizkoak baino zorrotzagoak izan omen dira, eta ez zuten onartzen belau-

Ezkontza ikusten joandako jatabearrak, euren artean fraka labur zein luzedun umeak, 1960ko hamarkadan.

nak estaltzen ez zituen frakarik. Lemoizen, ordea, bai. Eta gogoratu behar dugu Jatabeko hainbat etxe elizaz eta eskolaz Lemoiz zirela. Horrek janzkera eta ohituretan ezberdintasun batzuk sortu zituen auzoen artean.

Ume izatetik gizon izaterako jauzia, herriaren aurrean, fraka laburren ordez fraka luzeak ipintzen hastea izaten zen.

Euria egiten zuenean, eskolara joateko, abereak jagon zein etxetik kanpoko beharrak egiteko, zira modukoak egiten zituzten umeek. Pentsu zakuei *txoto atara* eta euritik babesteko erabiltzen zituzten. Umeei ez zieten guardasolik uzten, galduz gero garestiak zirela eta. Baina norberak egindako zira horiek ezagutu dituztenek, arin bustitzen zirela diote. Halakoetan, erantzi, zakua zuhaitzen baten kontra jo, lehortu zedin, eta berriro janzten zuten.

Etxera heltzerakoan beheko suaren ondoko iltzeren batean eskegitzen zuten hurrengo egunerako sikatuta egon zedin. Baina zakuak ez ziren kalitate handikoak, eta arin urdintzen ei ziren.

OINETAKOAK

Jatabeko herrian gomutan daukaten oinetako motarik zaharrena larruzko abarkak dira. Batzuek *abarka kurtiduk* deitzen diete. Etxean egiten zituzten behiaren larruarekin eta etxean egindako arropari eskainiko diogun atalean ikusiko dugu zelan egiten zituzten. Dena dela, sano labanak izaten ziren, eta euria egiten zuelako bustiz gero bigun-

Juana Azkorra eta Pedro Elortegi.

du eta lorrintzeko arrisku handia izaten zen. Aurreko punta apurtzea ere sarritan gertatzen ei zen. Basoan ibiltzeko erabiltzen ei zituzten eta askok bazekien zelan egiten ziren.

Gomazko abarkak zabaldu zirenean alde handia igarri zuten, onerako jakina. Gomak euriari askoz hobeto eusten ziolako eta ez zirelako larruzkoak bezain labanak. Udarako azalak eta negurako sakonak erabiltzen zituzten. Burdindegietan, Mungian eta Jatabeko Iruña tabernan –lekukoek Batzoki esaten diotenean– erosten zituzten gomadun abarka beltzak. Larrua ere izaten zuten batzuek barrutik.

Aldi batean beste oinetako eredu bat ere bazen, *txokloa* deritzana. Zurez egindako oinetako trinkoa zen, pisu handia ei zeukan ezagutu zutenen ahotan, ohitu arte ibiltzeko nekeza. Batez ere, Armintzako portuan erabiltzen ei zen, segurutik, lehen aipatu ditugun larruzko abarkak urarekin lorrindu egiten zirelako. Horregatik erabiltzen zituzten zurez egineko oinetakoak.

> «Txanklok, orrek itxes-eskiñetako jenteak asko, Armintzen eta orretati, txanklok, olan iru..., pata bi aurrean ta bat atzean, Armintzen asko, emen es, onetan etzetan es. Egurres iñekok, neu bere ibil nas orrekas se nire aiste difuntek ta gixona(k) pere euki sittusen, txanklok. Ni ibiltte nau orrekas Armintzen. *Ibilteko gustosoak izaten ziran?* Bueno, bai eurekas akostunbra eskeronen bai, iru..., bi aurrean eta atzen pata bat eukitte(n) eudesan, ta onak ixete siren korritxeko e!»

Espartzuz egindako abarketak ere asko erabili dira. Bide zidorretan ibiltzeko eta leku batetik bestera joateko erabiltzen zituzten. Erraz apurtzen ei ziren euria egiten zuenean, eta zolari galipota ematea izaten zen konponbiderik ohikoena. Gomazko abarkak saltzen zituzten leku bertsuetan izaten ziren espartzuzko abarketak. Aro ona egiten zuenean, jatabearrek gurago izaten zuten abarketak jantzi abarkak baino.

Abarketen ostean heldu ziren botinak. *Narruzkoak* ziren, baina azpia sendoagoa zen, orkatilak hobeto lotzen zituzten eta basatzarik basatza ibiltzeko nahiko egokiak izaten ziren.

Azkenik, jaiegunetarako, elizarako, edo hirira joateko erabiltzen zituzten zapatak. Zapata pare bakarra edukitzea zen normalena, dirua ondasun urria zen garaietan erosteko aukera askorik ez zegoelako. Mungian edo, batez ere, Bilbon erosten zituzten zapatak. Eta ondorioz, ondo jagon behar zituzten.

Lehenengo lerroan ezkerretik: Aurelio Arias, Agustina Alzaga, Felisa Elortegi, Bitori Alzaga, Dolores Muruaga eta Boni Alzaga. Atzean ezkerretik, Eustakio eta Pedro Alzaga, 1960ko hamarkadan.

Horregaitik zapatak, askotan, kaminotik hur edo elizatik paraje zegoen etxeren batean uzten zituzten. Haraino, estrata eta zidorretatik, beste oinetako merkeago edo lortzen errazagoak erabiltzen zituzten. Bidean zehar, kamino edo eliza atarirainо heldu artean zapatak eskuan eroatea, era berean, sano normala izaten zen.

> «Ta gero neskatok, igual ameko barriokok, amen Astintzen itxi onek abarkak-eta, orre(k) gomaskok, eta gero itxen san sera, gero sapatak imiñi amen erromerireko, paseorako, narruskok edo... Eta etzera dosenen bere igol, amen mudau, kendu, ta boltzan koiu sapata garbik eta gomaskokas etzera.»

Euriak zapatak hondatzen zituen sarri. Horrexegatik, txerriaren txispegia, gernua bideratzen duen organoa, etxeko portaletan zein karrajuan gordeta edukitzen zuten. Egun euritsuetan zapatak erabiltzeko asmorik edukiz gero, bezperan, txispegiarekin igurzten zituzten. Txispegiaren koipeak geruza babesle bat sortzen zuen eta zapatak askoz hobeto gordetzen ziren.

ETXEAN EGINDAKO ARROPAK

Aldea-etxeko abere eta landareengandik eskuragarri zituzten materialekin ahalik eta arropa gehien egiten zuten lehenagoko denboretan. Gizakiak eskura izan dituen

Carmen Larrazabal, c. 1930.

baliabideak erabili izan ditu beharrizanei aurre egiteko. Horren adibidetzat aipa liteke, Marutxeagako auzoan batu dugun moduan, antzina *firua* edo haria egiteko gauena, edo armiarma sarea, erabiltzen zuten ustea. Aihotzarekin kentzen zituzten gauenak, eta apurtzen ez zirenak *firua* egiteko erabiltzen zituzten. Ikerketa honetan itaunak egin dizkiegun lekukoen sasoirako, ostera, jantzi gehienak kanpoko lurretan lortutako lehengaiekin egiten zituzten. Manufakturatu eta saldu egiten zizkieten. Baina oraindino badira gure berriemaileen artean, arropak, galtzerdiak eta abarkak kasurako, inguruko lehengaiekin egiten zireneko zantzuak. Horiek dira atal honetan ikusiko ditugunak.

Beste alde batetik, oihalak kanpoan erosi eta etxeko joskileek egiten zituzten arropak ere aipatuko ditugu. Merkataritza areagotzeak janzkera egiteko eredu berria ekarri zuen. Baina jantziak atondu, diseinatu eta sortzea, etxeko edo herriko jostunen eskuetan zegoen.

Hasteko behiaren larruarekin egindako abarkak aztertuko ditugu. Behiren bat hiltzerakoan larrutu egiten zuten. Batzuek larrua saldu egiten zuten beste inork abarkak egiteko. Baina baziren ere larrua etxerako gorde eta garai bateko oinetakorik erabilienak, abarkak, egiten zituztenak.

Behien larruarekin abarkak egiten zituzten, batez ere udan erabiltzeko, neguan lorrindu egiten ziren eta. Abarkak egiteko etxekoen oinaren neurriko patroiak edukitzen zituzten, ohol antzekoak. Behin abarkak eginda oinera ondo egokitu zitezen.

Behiaren larrua kamarara igo, han zabaldu eta karearekin igurtzi egiten zuten, *kurtidu* edo ontzeko. Behin onduta, patroiaren neurrira, zola izateko moduan ebakitzen zuten larrua. *Abarketuntzea* hartzen zuten ondoren eta zuloak egiten zizkioten larruari, bertatik uhal bat igarotzeko moduan. Uhala zuloetatik sartu eta oinari ondo lotzeko moduan estutzen zuten. Ardi beltzaren ilea erabiltzen zuten gero abarkari kordela egiteko. Ardi-lana beltza ez ei zen saltzeko erraza, eta abarketarako erabiltzen zuten batez ere. Beluago kordelak eginda agertzen hasi ziren, eta horrek ardi-lana beltzaren gainbehera ekarri zuen. Abarkak atzetik zapalak eta aurretik puntadunak egiten zituzten. Eta aurretik apurtzea

Pilar eta Mª Angeles Larrazabal, c. 1950.

izaten zenez ohikoena, errefortzua ipintzen zitzaien sarritan. Abarkari plantillatxo bat ipintzen zioten oinaren eta zolaren artean oina hobeto babesteko. Erabili izan dituzten guztiek bat egiten dute gauza baten, benetan oinetako labanak zirela, goizeko garotan batez ere.

> «Abarkak etxen iñeko(k) pere bai, ganadu narrues. Ude parten, se narru busti eskero bigundu itten da eta esta ondo... baia siku daunen osasunerako obe dala esate euden ta ganadu narrues iñ itte... ibiltte siren oiñetakok asko. Beien narrues... *Zelan egiten ziran abarkak?* Alan, patroi bet eukitte gendun, (...) ori ol bat ixete san, ta or olean imintte san narru ta ebai, ta gero erdi ta puntek ta atzea kordeltxuk... sulotxuk intte punteroas, ta areas in sulok, ta gero sartzen san korrea bat. Aurrea emen istute san onek alderdik..., ta gero ortik, olan... korree atzeraiño ta amarrata imiñi korree. Ta andi imintte siren kordelak amarrateko sartu kaderan ta agas korreeas amarra bernan. *Kordela zegaz egiten zan?* Narrusko bere bai, ganadu narrune(k) pere egoten siren metxuauk eta serak..., eneittu esan seas intxe oten siren baia kordelak... gogorra bere bai. *En general* baltzak ta agas kordelagas amarra kaderan ta listo. Gustosok, oñetako gustosok ixeten siren, oin denpora txarrerako eseuden balio se narru busti eskero bigundu itxen da ta laban...»

Ardiak zeuzkaten etxeetan sano normala izaten zen ardi-lanazko galtzerdiak egitea, *pastore kaltzerdik*. Lehenik ardi-lana *firu* edo hari bihurtu beharra zegoen.

Horri kardatzea esaten zaio. Belaunaldiz belaunaldi gurasoengandik seme-alabengana igaro da kardatzeko teknika. Kardatzen jakin duten lekuko gehienak andreak izan dira, baina artzain guztiek menperatzen ei zuten teknika hori.

Artilea aukeratu ostean, —kolore zuriena zeukana izaten zen estimatuena—, garbitu egiten zuten. Horretarako eduki zitzakeen troinuak askatu, arantzak kendu eta uretan sartzen zuten, bertan xaboiarekin garbitzeko.

Behin garbitu eta gero kardekin lantzen zuten. Kardak, ahoz *gardak*, iltze antzekoz beteriko pala moduko egur pieza lau bi izaten ziren. Alanbrezko puntak zeuzkan zepilo moduan deskribatzen dute lekukoek. Bien artean ardi-lana garbia igurdi egiten zen behin eta berriz, afotu arte. Behin artilea afotuta txabila ateratzen da.

Txabila haria egiteko erabiltzen da. Behar motela da, denbora luzea eskatzen duena, horregatik izaten zen lan aproposa ardiak zaintzen egonaldiak egiten zituzten artzainentzat.

Txabila kakodun egurrezko pendulua zen. Kakoari lotzen zioten *firu* bihurtzera zihoan artile muturra. Txabila eten barik biratu, eman gura zioten mehetasuna kontrolatu eta artilea apurka askatuz, haria egiten zuten. Abarketarako ardi-lana beltzeko kordelak ere txabilarekin egiten zituzten.

> «Guk ardik oki gendusen etzen. (...) Gardak esaten dake, alau gause bi egoten dire. *Zer dira gardak?* Gardak dire untzes beteko..., untze antzekos beteko... Selan esango'tzut? Plana bi. Eta aikas in ber da au. Emen imin ber dosu, lane garbitxu, eta emen imin ber dosu. Eta onek itxen'tzu onantza, ta onek onantza, ta olan, olan fin-fiñ itxen datzu a lane. Ta gero a imintxen dosu... Gero txabille ixeten da, alau gause ba(t) ta, bueno andiau. Ta emen eukitxen dau alan kakotxu bet eta punten alan dala, eta ari imintxen dako..., a lane yon ber dosu olan-olan itxen, ta sauk imin ber dosu se meune pasaten dan andik. Ta an engatxaten sos, eta imintxen'tzesu txabilleri a sera, eutzitteko modun asikeran ta gero bueltak emon eta bueltak emon, sau(k) yon ber dosu finduten ta finduten eta itxen dosu firu. Eta gero itxen dosus, bollok itxen dosus, madejak, a ekiñes yon ber dosu madejatxu batzen, batzen-batzen, eta gero ba puntu iñ, estau besterik. Eta puntu ba, nik galtzerdik itxen, orpok-eta dana yakin dot ondo, gaur bere ingo neukes.»

Azkenik, *firu* multzoak hartu eta puntua eginez galtzerdiak eta jertseak egiten zituzten. Galtzerdiak egiterakoan gaitzena orpoak ondo jostea izaten zen. Lekukoen arabera, orpoan igartzen zen galtzerdiak josi zituena abila zen ala ez. Gero adabuak ipintzea izaten zen etxeko joskileen beharrik handienetarikoa.

Aldea-etxeetan, gizarte tradizionalean, andrerik gehienek josten ondo zekitela esan genezake. Eta edadeko jatabearren esanean, auzo guztietan izaten zen aparteko trebetasuna zeukanen bat. Oihalak erosi eta era askotako arropak egiten zituzten. Arropa batzuk eskuz josten zituzten, baina beharra arintzeko eskuz eraginda zebiltzan josteko makinak zeuden etxe askotan. Geroago zabaldu zen oinarekin, pedal baten bidez, zebilen josteko makina. Eta azkenik, oinaren indarrez ibili eta Euskal Herri osoan Basarri bertsolariaren bertsoek ospetsu egindako Sigma

josteko makina erabiltzen hasi ziren. Orduko joskileen arabera, benetako iraultza izan zena[2].

> «Ordun yoskillek egoten siren, or Billabasotan egoten san bat, eskuko makiñetxu yosten itxeko, a besarten daula yoten san yosten, eta agas makiñetxues yoten san. *Makineari zelan egiten jakon?* Eskues, eskuesko lelau, gero oiñeskoa, andiau etor san ori. A txikerra eskukok..., alan erruedatxu beteas eraiñ in ber ixete sakon yosteko. Orreas yosi ta adabu bota orregas, erropa sarrantzako-ta. Ta beste ixen san ba kaderegas manejaten sana, andiau, baia ori beluau, *sima*, marke *sima* ixete(n) san.»

BOGADA, ARROPEN GARBI-IKUZIA

Etxeetan urik ez egoteak, ura berotzeko denbora asko behar izateak, lehenagoko oihalak eta ardi-lana garbitzeko nekezak izateak eta egun eguzkitsurik ezean lehortzeko arazoek behar gogorra bihurtu zuten bogada, arroparen garbi-ikuzia egitea.

Bogada egitera errekara joaten ziren Jatabeko andreak, bogada egitea andreen beharra izan da eta beti. Azken hamarkadetara arte ez da *labadero* edo garbilekurik egon. Orain Talleburuko garbilekua dago, bertakoek egindakoa arropa garbitu eta abereei edaten emateko. Baina ez ei da horren leku egokia bogada egiteko. Izan ere, bertako ura metalura da, eta arropak beilegitu egiten dira.

Bogada egiteko, errekara joan aurretik, arropa tinako batean ipintzen zuten ur berotan beratzen. Ostean, mahai bat hartu, edo ohol bat tinakoaren kontra ipini, eta bertan zutik arropa xaboitzen zuten. Gero, egun etxe guztietan dagoen lixibaren ordez, *surteko hautse* erabiltzen zuten, beheko suko errautsa. Izara edo *erropa irigi* bat zabaltzen zen, bertatik *surteko hautse* igarotzeko eta denbora batez eragiten zioten. Era honetara mihiseak, firuz egindako arropa finak, zein bordatutako izarak baino ez zituzten garbitzen. Ordu batzuk bertan itxi eta goizaldean garoa zenean, munetan zabaldu eta eguzkitan ipintzen zituzten, eguerdiko eguzkiak ondo zuritu arte. Eguzkiak ondo jo ostean, arropak hartzen zituzten atzera eta errekara eroaten zituzten irakuztera. Beraz, beratu, garbitu, lixiba edo beheko suko hautsa eman, eguzkitan zabaldu eta errekara eroaten zuten.

---

[2] Hauxe da Basarrik egindako bertsoa:
Ezkondeietan zauden neskatxa,
ordua dezu pozteko,
tresna on horren beharra dezu
zeu ta zeureak janzteko;
bi gauza eskatu behar dituzu
bizimoduan hasteko:
osasun ona bizitzeko ta
Sigma makina josteko.

Errekan, harriak egoten ziren arropa euren aurka igurdi eta irakuzteko. Errekak putzu antzekoak egiten zituen sakonune txikiak erabiltzen zituzten harriak ipintzeko. Osterantzean errekako hondoa altxatu eta arropa berriro lohitzeko arriskua zegoen eta.

Irakuzteko harriak sarritan mugitzen ziren neguan, errekak indar handia hartzen zuenean eta uriolak izaten zirenean. Ondorioz, urtean beti egoten zen sasoi bat harriak berriro aurreko lekura ekartzeko.

Arropak errekan irakutzi beharrak, emakumeei elkarrekin egoteko aukera ematen zien. Bertan batzen ziren auzoko andreak, eta herrian jazotakoa komentatzen zuten. Behar gogorra izanda ere, sarritan egunak etxean sartuta igaro behar zituzten orduko andre beharginentzat, une entretenigarria izaten zen errekara arropa irakuztera joatea.

Hori egin eta ostean zuhaixka, sasi edo eskegitzeko egokiak ziren lekuetan ipintzen zituzten arropak ondo lehortu zitezen. Neguan, ostera, beheko sua erabiliko zuten horretarako.

Behin arropa beratu, garbitu, lixiba bota, irakutzi eta lehortu ostean, plantxatu egiten zuten. Horretarako ikatz-hilekin berotzen ziren plantxak erabiltzen zituzten. Ikatz-hila edo ilentia tenazekin hartu eta plantxa barrura botatzen zuten berotu zedin. Kontuz ibili beharra zegoen, izan ere, berotzen zegoela itotzen bazen, arriskutsua izaten zen plantxa zabaltzea. Gerora txapa edo ezkaratz ekonomikoan ipinita berotzen ziren plantxak. Eta bigarren metodo hori, ez zen aurrekoa bezain arriskutsua. Lehengo plantxa zaharrak erabili zituztenen esanean, ondo betetzen zuten euren lana. Batez ere pisutsuak zirelako. Goiko aldetik kea botatzen zutela gomutatzen dute, irribarrea ahotan dutela. Plantxok Mungian erosten zituzten.

> «*Bogadea zelan egiten zan?* Ba lenengo imintxe siren, atxiñe-atxiñe, bogade esaten sana, tiñeku beten imintxe san beratuten, ur berotan. Eta guk oin lejia botaten dotzune..., surteko eutze, nik aputxu bet esetu dot, ta an auki surteko eutzetan gero. Baia eutze garbi e, yabona ta yaboies intxe, imiñi an tiñekun, ur bero bota, ta autze pasetako imiñi sara bat, erropa irigitxuau dana, eta andi pasa ta gero ereiñ-ereiñ iñ, txe itxi an, ordu bi edo iru edo lau, edo nik estakit seme(t) denpora ta gero eguskitxen sabaldu. (...) Tiñekun beratan lenengo, gero garbitxu ta gero surteko eutze. Ta gero mai bet imiñi, batzuk ola, mai bet imiñi sutunik, au atze altza eta ori imiñi tiñekure, eta or sutunik yabona itxe san. Ta gero atxiñe-atxiñe, bertoko lenau firusko errope, orrek berton iñekok, miesakedo..., orretariko oten sirenak, orregas autzegas itxen siren, egur autzeas, lejia barik. (...) Berton firu iñeko, lane baiño meau, algodoi ixete san. Eta gero ba eskiñek-eta bordata eukitxe eusenak ixeten siren aik, ixeraketa. Ta aik itxen siren tiñen imiñi barriro, ur garbiges, apur bet aklara, ta imiñi an eta ori autze bota, suritxuteko, lejian efekto itxeko. Eta gauen errusiora atara ta munetan ta sabaldute imiñi bean, ta an itxi, ta egurdiñ edo olan, eguski ondo koiu deudenen batu eta aklara. Eguskitxen itxi, eguski yoten oten sanen, suritxu deiñ eguskik, ta gero aklara. Senbet bear itxen san bogada bat itxeko, ta eskus! Oin labadoreas bere ugerras beterik. (...) *Eta labaderorik egon da?* Es, esta egon. Oin dau labadero

bat sikeran, aurtxe goien, elixati gorantza dau, Talleburuko, Sakalden itxen daun lekun. Ta an dau labadero bat, baia eurek iñeko, ure edan deien ganaduk eta errope garbitxu-ta an itxe euden, baia ure esta ona se a(k) metala deko ta errope beillegitxu itxen da. Eta estau iñok a..., ai(k) pere orra etorte siren askotan, aurra bogadarrire, bogadarri oten san or bean ta, errekan. *Bogada-harriak egoten ziran hor?* Bai, arrik-eta oten siren imiñitxe, ta aklara sikeran an itxe san, se poso ona oten san, eta are-are esaun eukitxen, grijillo eukitte'un aspin, ta nekes altzate san are, uriolak osten-edo olan... Ta gero a ganeko kendu ta grijillotxu eukitxe'un ta esan altzetan area aiñ ariñ, ta ona askori gustate'akon etorte. Ta gero or Garaigoikon bere, goratxuau, beste bogadarri bet, baserri gustitxan bogadarrik, urik esales egon, auren eran dekesan posotara. Olan oten siren orrek.»

ARROPAK GORDE ETA JAGOTEA

Arropak armairuetan gordetzen zituzten, gaur egunekoen modura. Eta mozorro kaltegarriengandik zein sundetatik babesteko ohitura ezberdinak garatu zituzten.

Esaterako, arropa usain goxoz manten zedin sagarrak ipintzen zituzten geletan. Armairu gainean batzuek eta armairu barruan bertan besteek. Sagarrak paper lodi baten gainean uzten zituzten. Eta gero, astean behin edo birritan sagarrei begiratzeko ardura izaten zuten. Zatiren bat usteltzen hasita zeukana ordezkatu eta jan egiten zuten.

«Sagarra bai baia menbrillurik es. Sagarra(k) bai, se ordun sagarrak alaseko(k) koisten siren, itzelak, onek urtebete sagarra esate'tzenak, onek baillegi-baillegik eta, itzelak. Ta aik imintte(n) siren kuartun armario ganen, geure ama(k) pere imin daus. Ta selau usiñe gauen-ta, bentane iste(n) sanen-ta... Aspin bota olan papel lodie, ordun papel lodik onek ote siren, ta imiñi bataran bat ustelten bada armario galdu estein. A imiñi eta gero asten bein edo bijilau ia selan dosan, sillen ganera iyenta.»

Arroparen etsaia sitsa izan da antzinatik. Horregatik, sitsak ez jateko, tabakoa ipintzen zuten arropa artean.

VI
ASTIALDIA

Aldea-etxean beti dago beharra, hori da elkarrizketatutako lekuko guztiek aho batez adierazitakoa. Eguzkia irteten zenetik sartu ostera arte eten barik beharren ibiltzen ziren baserritarrak. Urte sasoi bakoitzak bere lanak zeuzkan, batzuk etxekoen artean egitekoak, beste batzuk auzokoen artean egitekoak.

Lan fisiko gogorra izaten zen askotan. Ganaduaren indarra aprobetxatzen bazuten ere, gizakiak bere esku eta besoz egin behar zituen beste asko. Hala ere, gizarte eredu guztietan legez, bazegoen astialdirako tarterik.

DOMEKA ETA JOLASA EDO DANTZALDIA

Domeka jaiegun eta kultu eguna da kristau erlijioan. Munduaren sortzaileak atsedenerako hartu zuen zazpigarren eguna. Eta asteko zazpigarrena, domeka, erlijio zereginetara eta astialdira bideratua izan da gizaldietan zehar. Behar egitea galarazita zegoen, bai behintzat lan mota gogorretan jardutea. Hala eta guzti, aldea-etxeetan domeketan ere lan egiten zela esan behar da. Ahalegin fisiko txikiagoa eskatzen zuen, lan erreminten mantenua, norberaren gustuaren arabera eroangarriagoa... baina beti egin izan da lanen bat domekaz. Etxe batzuetan, are gehiago, domeka goiza beste edozein lanegunen modukoa izaten zen. Eta etxeko gazteek, arratsaldea libre izateko, goizez ondo egin behar zuten lan. Horixe izaten zen hainbat etxetan domeka arratsalderako belaunaldien arteko ituna.

Goizean goizetik iratzartu eta barausi egin ostean goizeko mezatara joaten ziren gazterik gehienak. Goieta edo Marutxeaga auzokoak, Billelabasotar askorekin batera Lemoizera joaten ziren mezetara eta dantzaldira. Hurrekotasunak eragin handia izan zuen, elizaz Lemoiz zirelako euretariko asko. Baina bazegoen gazteek ebatzi hori hartzeko arrazoi gehiago ere.

Hainbat lekukok esana da goizeko mezara pobreenak joaten zirela, eta beluko mezara, eguerdateko hamaiketan ospatzen zutenera, arropa dotorez jantzitako jata-

bear aberatsak eta agintariak. Erbera eta Ergoienen arteko banaketarekin lotzen du hainbat lekukok bereizketa hori.

Beluko meza, hamaiketakoa, etxeko hildakoen oroimen meza izaten zen.

Meza erabiltzen zuten abadeek dantzaldietan behar baino denbora luzeagoa eman, beste herrietako jaietara alde egin edo tabernetan larregiko denbora ematen zuten gazteak salatzeko. Goizeko meza, antza denez, lasaiagoa izaten zen.

Mezatatik irtenda etxera bueltatzen ziren gehienak, bazkalordura arte lan egin behar zuten eta.

Bazkalostean, eguerdiko hirurak aldean, arrosarioa errezatzera joaten ziren jatabear gazteak. Jauna hartzen zuten eta hala sortuak dira gazteen arteko erlijio kongregazioak: San Luisen semeak, *Acción Católica*...

Arrosarioaren ostean norabide ezberdinak hartzen zituzten jatabear gazteek, sasoiaren arabera. Kontuan hartu behar dugu, era berean, Erberakoek Lemoizerantz jo izan dutela gehiago, bai elizara joateko bai arratsaldeko jolaserako edo dantzaldirako ere.

Ergoiengoak ei ziren San Lorentzo elizara eta udaletxe aurreko jolasera joaten zirenen arteko gehienak. Jatabeko domekako dantzaldietan sasoi ezberdinak izan dira, egoera politikoak eta herriko abadearen jarrerak eraginda batez ere.

Arrosario ostean herriko etxe aurrean egiten zen Jatabeko dantzaldia edo jolasa. Kaminoan egiten zuten dantzaldia askotan, eta edadeko jatabearren esanetan, antzinako dantzaldi eta erromeriak bidegurutzeetan egiten ei ziren.

Txistulariak egoten ziren, garai eta domekarik gehienetan. Euren artean Algortako Atxurra izaten zen, Plentziara trenez eta Jataberaino oinez joaten zena. Soltean dantzatzeko piezak jotzen zituen, eta ez ei zuen kobratzailerik eroaten berarekin. Herriko jaiegun garrantzitsuenak alaitzen zituen Atxurra txistulariak. Dantzarako ez ziren gazteak bakarrik batzen, hamar urteren gorabeherako jendeak hartzen zuen parte domeketako jolasean.

Abadeek ez ei zituzten soinulariak begi onez ikusten. Esaterako, pulpitutik esaten zieten jatabear gazteei ez igotzeko Katiluzubitik gora, Andrakara. Bertan, Rufino Arrola, infernuko hauspoa, zegoela eta. Era berean, domeketako dantzaldietan, urte askoan, debekaturik egon zen neska-mutilek elkarri oratuta dantzatzea. Tangoak, baltsa, pasodoblea... dantzatzea galarazirik zegoen, bekatua zen. Dantza soltea baino ez zuen onartzen herriko agintaritza moralak, hau da, jotak eta arin-arin moldatuak. Antzina, jota ere, esaterako, elkarri oratuta dantzatzen zen eta, koplari zegokion zati kantatuan.

Dena dela, gerra aurretik Jatabeko jaiegun nagusietara, eta inoiz domeketan ere, kanpotik etortzen ei ziren soinulariak. Gerra aurretik soinu diatonikoa edo *ilarabikoa* jotzen zuten batez ere. Soinulari horiek jota eta pasodoblea jotzen zuten gehien, eta dantzaldia amaitzeko martxa. Soinulariekin batera euren lagunen bat etortzen zen beti, kobratzaile egitera, erreal bat edo txakur txiki bi kobratzen zizkieten mutilei oratuta dantzatutako pieza bakoitzarengatik. Gerraostean, jazzbandaren sasoian, soinu kromatikoa edo nagusia jotzen zutenak agertzen hasi ziren.

Abadeak herriko gazteren bat ondoko herrietako (Mungia, Plentzia...) dantzaldietara joan zela jakinez gero, gogor egiten zion hurrengo mezan. Hain zuzen ere, Jatabeko mutil gazterik gehienak inguruko herrietako dantzaldietara egiten zuten

alde sasoi hartan. Erberako gehienak Lemoizera, Urizarko plazara, joaten ziren bertako gramola entzun eta elkarrekin dantza egitera. Gramolan garaiko modako espainiar eta amerikar musika ipintzen zuten, bozgorailuen laguntzaz. Dena dela, dantzaldi eredu horrekin arazoak edukitzen zituzten. Izan ere, gramolak bere kobratzailea zeukan, eta oratuta dantzatzen ziren piezak ordainarazten zizkieten mutil gazteei. Neskek ez zuten ezer ordaindu behar. Ondorioz, mutilak ez ziren azken unera arte, neskei etxera laguntzeko unera arte, agertzen eta neskak guztiz asperturik egoten ziren euren artean dantzan edo paseoan.

Gerraostean debekaturik egon zen domekako dantzaldia. Gazteak kaminotik paseoan ibiltzen ziren arrosario ostean. Hori izaten zen euren denbora-pasa nagusia. Eta dantzaldia egoten zenean ere, baziren dantzatu baino paseatzea gurago zutenak. Paseoan ibiltzen ziren neskek euren beharrizanak egin behar zituztenean, *artosoloetara* sartzen ziren. Beharrizanak egin ostean elkarri begiratzen zieten, ea indaba orririk inkatu ote zitzaien jantzian. Berez, indabak eta artoa elkarrekin landatzen zituztenez, jantzian indaba orririk inkatuta izatea artasoroan ibili izanaren seinale zen. Eta orduko gizartean, baita txantxa, broma eta mesfidantzarako aitzakia ere.

Neskatoek debekaturik izaten zuten tabernetara sartzea, baina mutil gazteek euren sartu-irtenak egiten zituzten. Kartetan olgatu, gailetak posturan jokatu eta halakoak egiten zituzten, herriko abadea sartuz gero, ostera, korrika batean egiten zuten ospa guztiek.

Gerora, debekua altxatu eta domeketako dantzaldiak bueltatu ziren Jatabera. Hasieran gramola ipini zuten, eta beluago soinu nagusi edo kromatikoa, jazzbandaren eta mikrofonoaren sasoiarekin batera.

Kasu guztietan, plazan jotzeko edo gramola ipintzeko eskubidea edukitzeko, urte hasierako gutunazalpeko enkantea egiten zen. Hori irabazten zuenak izaten zuen dantzaldia girotzeko eskubidea. Inbertsioa kobratzaileen bidez berreskuratzen zuten.

Dantzaldia amaitzea izaten zen istilu-iturri nagusienetakoa herrian. Iluntzean jotzen zituzten Abemarietako kanpaiak. Urtaroaren arabera ordua egokitu egiten zen, noiz iluntzen zuen kontuan hartuta. Baina Abemarietako kanpaiak jo ostean, dantzaldia amaitu eta gazte guztiek joan behar izaten zuten etxera. Neskatoen kasuan, Abemarietako kanpaiak jotzerako etxean egon behar zuten gehienek. Beraz, orduko basatza eta herriko etxeko plazatik euren etxerako bidearen luzeraren arabera, askok dezente goizago irten behar izaten zuen dantzalditik.

Abadeak ipini ei zuen jolasa iluntzerako amaitzeko baldintza. Horren aurrean alkateren batek argi elektrikoa ezarri zuen dantzaldiko plazan. Horretara, argia zegoela eta, jolasa luzatzeko aukera zegoen. Halakorik jazo zenean, edo egun berezia zelako Abemarietakoen ostean dantzaldiak jarraitu izan zuen kasuetan, abadeak sermoi gogorrak botatzen zituen hurrengo domekan, baita herriko alkatearen aurka ere.

Dena dela, esan beharra dago neska-mutil gazteen arteko dantzaldi, jai eta hartu-emanak ez zirela herriko etxearen aurreko plazara mugatzen. Neskei etxera laguntzea, edo satsetan egitea, leihopera heltzen ziren errondak eta ostendutako erromeriak ohikoak izaten ziren jatabearren artean. Baina hori aurrerago aztertuko dugu, bikoteak sortzeko moduaren atalera heltzerakoan.

Atal hau amaitu aurretik gogoratu behar genuke, orain laurogei eta hamar urteen bueltan dabiltzan lekukoen gurasoen garaian, Erberako herritarrak Txiboko Lan-

dan batzen zirela domeketako jolasa egitera. Bertan, Jatabe eta Lemoiz arteko gaur egungo mugan, soinulariek alaitzen zuten dantzaldia. Azkenean, ordea, Lemoizko herriko etxeak debekatu egin zuen Txiboko landan batzea.

> «Atzalden errosariora, ta gero Yataben, an plasan erromeri antzeko seoser oten san. Eta in paseo an eta illundiñ etzera, baia es oingo modun, urrau goixen es e! *Zelakoa izaten zan erromeria hori?* Domeka normalatan tokadisko bat imiñi, gramole esate'akona, erriko tabarne egoten san an, ta ak erriko tabarnakok imintte'aun a gramolea ta ak sarate atarate'aun, ta saratara yon, eta antxe. Erriko jente dana esetuten gintzesan gu ordun. (...) Ta non yona edo bisiklete-edo eukitte(n) eunak, Mungiñ ote san erromeri andiau eta gero Mungira Yatabeko mutillek-eta... Mutillek libertade giau, guk ara edo ona baia gauko amarratako erretira in ber ixete(n) gendun. (...) *Zer musika klase entzuten zan orduan?* Tangoa eta pasodoblea, orrexe(k) gausek. *Mutilekaz egiten zenduen dantzan, edo orduan pekatua zan?* Es, ori lelau entzun dot nik, baia gure sasoiñ es.»
>
> * * *
>
> «Yolasan arimetako kanpak yoten sirenen akaba itten san, ta etzera. San Lontzotan-edo yote(n) euden igual apur bat belutxuaurarten eta abadek urrongo domekan dana sermoi tte infernue, alkaten kontra ta danan kontra. Bueno! Apur bet belutxuau akabarren. *Eta kobrau egiten eben?* Bai kobra itte(n) euden, sueltuko es. Agarrau itten sanen kobrate(n) euden. Mutilleri bakarrik, neskato libre egoten san. *Akordetan zara zenbat kobretan eutsuen, erreal bi?* Es gitxiau, errel bat-edo, txakur bi-edo, gitxi san. Errel bi ordun diru andi sona gure txiker denporan... *Nork kobretan eban?* Plase alkilata eukitte(n) eunek kobrate'un beran lagunen batek. Soiñulariri emonta oten san yotearren aiuntaminttuk sarritten, ta beran jornaltxu atarateko beran lagun bet-edo ibiltten san kobraten.»
>
> * * *
>
> «Tabernara neskatok yote ene! Txarto ikusitte egoten san serera yote, tabernara, se es gintzesan sartuten. Eta eser artu barik sarri etor gara etzera, eta an kamiñon paseon ibilli, eta ba atzalden domekatan-ta errosariora yon ta ba, nonora edo komun betera-edo yoteko gane bere igual egote(n) san ta, au sasoi onetan arto-ta egote(n) sirenen, arto eskiñetara-ta, andraskok ixen arren... Badaespadan bata(k) pesteri aditxu, indaba-orririk ia yantzin pegata badator. Kamiñora urteten danen ikusi esedein bestek... —Ene, ori arto artera yon da se indaba-orri dakar pegata—. Indaba-orri olan pega itxen san erropan da... Noperan seriñek itxeko bere ba olantxe.»

HERRI-KIROLAK

Herriko jaietan, egun seinalatuetan, edo norgehiagoka hutsak ezarritako egunetan, herritarrak batzen zituzten kirol ekitaldiak egoten ziren. Herritarrek euren arte-

ko lehiarako sarrien antolatzen zituzten joko eta kirolak eguneroko beharrarekin lotuta zeuden. Aldea-etxeko lanetatik ateratako kirolak dira herri-kirolak. Beharrerako trebetasuna, indar fisikoa, abere indartsuenak eta ondoen hezitakoak zeintzuk diren... hara astialdian jatabearrek egiten zituzten demen oinarria.

Herri-kirolen barruan aipagai dira bai gizakiek bai abereek buruturikoak. Lanik garrantzitsuenetan gizakiak eta abereek batera behar egiten zuten gizartean, guztiz arraroa litzateke batzuk eta besteak bereizten hastea. Are gehiago, motibazioaren oinarrian postura dagoen kirol eredu honetan.

Idi-probak

Herri-kiroletan leku berezia betetzen dute idi-probek. Jaiegunik garrantzitsuenetan egiten ziren idien arteko demak. Etxe askotan edukitzen zituzten idiak *soloak* laiatzeko. Behi suitzarrak erabiltzen zituzten osterantzean. Halakoetan guztiek parte hartzen ez bazuten ere, idi-probak ikusten joatea gertakari garrantzitsua izan ohi zen, eta bada, jatabearren bizimoduan.

Jaiegun handienetan egiten izan dira idi-probak Jataben, San Lorentzo eta iraileko Santa Kurtze egunen bueltan. Baina zaharrenek gogoratzen dute antzina maiatzean eta irailean izaten zirela, sasoi bi horietan ospatzen da eta Santa Kurtze. Geroago hasi ei ziren San Lorentzotakoak egiten. Inguruko herri eta auzoetako jaiegunetan ere idi-probak izaten ziren. Ikusleen artean beti egongo ziren jatabearrak, Andrakan, Birlen, Laukizen, Gatikan...

Gerra Zibilera arte lurraren gainean egiten ei ziren probak Jatabe inguruko lekurik gehienetan. Geroago ipini izan dira karrajuak. Leku askotan aldats-gora eta behera egin behar izaten zituzten probak, eta *untze* edo iltzearen neurria ere ez ei zen berbera herri guztietan. Beti ere 26-28 metroen inguruan hala ere. Probak lurraren gainean egiten zituzten sasoiotan berebiziko garrantzia izaten zuen aroak. Izan ere, euria ari zuenean harria *idik baino ariñau* ibiltzen ei zen laprastean. Lehorte sasoietan, ostera, lurrari inkatu eta gaitza izaten ei zen harria mugitzea.

Jataben, herriko etxe aurrean, oraingo probalekuaren inguruan, plazatxoa eginda dagoen lekuan egiten zituzten idi-probak. Idien pisua gerrian ipintzen zitzaien kordel batekin, kanatan 835,9 milimetro, neurtuta. Zortzi arra ingurura arte pisu txikikoak izaten ziren, bederatzi edo handik gorakoak, ostera, pisu handikoak. Pisu txikikoek harria mugitu behar zuten, garaitiko zama barik. Bederatzi arra edo gehiagokoei, ordea, pisu horretatik gorako ontza bakoitzeko, anega erdi gehitzen zioten harriari.

Antzinako lurrezko probalekua makal biren artean zegoen. Zuhaitz horiek erreferentzia legez hartuta markatzen zuten lurra, harriak nondik nora joan behar zuen jakiteko. Makal bietariko batetik eskegita kodaina bat egon ohi zen eta mailuarekin jotzen zuten probei hasiera emateko. Denbora neurtzeko, berriz, iratzargailu bat erabili ohi zuten.

Hasieran librea izaten zen probak ikustea. Gerora, ostera, uralitarekin itxi zuten lurrezko probalekua eta sarrera kobratzen hasi ziren.

Karreteru edo probalaria da idi-probetako protagonista nagusietakoa. Inoren idiei etekina atera eta proba irabazteko jarraitu beharreko estrategia aurkitzen dakiena da.

XX. mendean Jatabeko probalekuan probalari asko ikusi dituzte. Jatabeko Felix Alzaga, Atxuriko Juan Mandaluniz *Perretxiko*, Markinako Leon, Gerardino Bilbao *Laskie*, Gaztelu, Markaida, Julian Ugarte *Iketza*, Otxoa... izan ziren XX. mendeko probalaririk ezagunenak.

Posturei dagokienez, hasiera baten ididunen artekoak izaten ziren batez ere, ez zegoelako jendearen artean posturetan ibiltzeko dirurik. Dena dela Gatikarrak, antza denez, posturazale itzelak ziren. Mendearen bigarren erdialdetik aurrera, ostera, *Rubio* artekaria agertu zenetik izugarri bizitu ziren posturak.

Idiez gain, behi-probak, zaldi-probak, asto-probak eta gizon-probak egon izan dira. Batzuetan, gainera, ganadu ezberdinen arteko lehiak antolatzen zituzten: behiak idien aurka, gizon bi asto baten kontra eta abar.

Proba egunetarako dotore apaintzen zituzten idiak euren ugazabek. Txilinak, borlak, uztarria estaltzeko ardi-larruak... Egun sano berezia izaten zen. Herritar askok zeukan euren idiak eta behiak probetara neurtzera eroateko ilusioa.

> «Yataben aur aiuntaminttun aurren, oin probaderu daun baiño onautxuau bertan. Oin plase dau intte antxe lurren. Txopon bien barrukalden. Txopon eskeitte oten san kodaiñe bat lenau makiñena, ta maillues a yo klank! Asteko. Ta ixete(n) san, ta gero despertador bateas ordure aillegaten sanen sur. Batzutan pendule aillegaten daule yoterik eta pastentxure daule bere denpore ixete(n) san ta dana proteste. (...) *Idi-probak noz egiten ziran?* Lenau-lenau Santa Krusetan, otubren amalaun, lurreko probak oten sirenen an beti itten siren, otubren. Antxe lurren. Megideti ixete(n) siren, kordela megidute, sortzi arrati txikerrak eta bedratzitxi nausikoak. Andi(k) gero segun ontza bat edo segun dekon karge bota gero, ontzako anegaerdi. (...) Idik megidute kordelaas garriñ. Sortzi arrara artean arri utze ta sortzitxi gero ontza bat... altzi bi eskastxu ixeten da, a koisten daunak anegaerdi geiau, ta ontza bi badekos anega bat. Olan kargaten san sobrekarge. *Leku askotatik etorten ziran hona probetara?* Ordun lurren oten sanen asaukok es, se ordun kamioitxen esan ibiltxen ganadurik. Ordun Laukise, Katike, Urdulisti bere bai, Bakioko(k) pere bai, Larrauritti bere bai, berton parajekok, danak oiñes etorritte. Oiñes etzera bere idikas.»

Ahari-topekak eta oilar-borrokak

Artegiak izan diren leku gehienetan izan dira ahari-borrokak edo ahari-topekak. Adineko jatabearren esanetan, herrian ez dute sekula ikusi horrelakorik. Baina inguruko herrietan izaten zirenean jatabear asko joaten ziren ikusle eta baita parte-hartzaile modura ere. Andrakan, Plentzian, Lemoizko Urizarren izaten ziren ahari-topekak.

Ahari-topekan aharito bi elkartzen dira elkarrekin topez egiteko. Hau da, elkarren arteko adar talka egiten dute bietako batek bestea garaitu arte. Inoiz 30 aldiz topeka egindakoak ere ezagutu dituzte baina gutxi ziren kopuru horretara heltzen zirenak.

Zaleen arabera, gehienetan, bosgarren kolperako igartzen da bi aharietatik zeinek irabaziko duen. Erraz ikusten ei da zein den bietatik indartsuena.

Ahari-topeketan ibiltzeko prestatzen den aharitoari adarrak alanbreekin lotzen zizkioten txikerretan. Adarren arteko buru zatia, *gaztai* esaten diotena, topekarako punturik ahulena da. Beraz, adarrak lotuta ziurtatzen zuten ahalik eta ahariarentzako babesik handiena.

> «Ari-topekak bai, orrek erri gustitxan, ta amen Lemoix alden giau barres. Andrakan bere bai. Andrakan Trinidadetan San Fratziskotan ta Lemoixen Andra Maritxan beti ari-topekak. Plentzin bere bai. Yataben estoas esetu. Egon bai in dire arik, geu(k) pere ona euki gendun bat. *Ahari-topekak zelan egiten ziran?* Alkar yo, arik ariñ igerten dau e! Neuk esetu'as etzen otamar golpe emoten, baia arik besteri ensegida igerten'tzo nok irebasiko daun. Ta laugarren edo bosgarren golperako badaki... Ari gitxi dire golpe asko emoten derenak. Otamar golpe segidun emoten neuk ikusi doas etzen arittok, etzekok alkarreri, baia gitxi dires e! (...) Batek eukitte'ausen adarra(k) batuau, ta orretarako itte(n) siren adarra(k) pere alanbre bateas amarra txikerretan, istutu. Se adarrak sabal badekos, au bittarteko, gastai esaten dako orreri, ta gastai koiuten'tzo adarraas, ta ordun miñ itten'tzo. Ta ordun itten san adarra(k) batu, alanbre bateas. Ta ordun betik adarrak urtete(n) euden paraje, ta gastai txikerra aspin koiute(n) euden, topekarako.»

Behiak marruka edo borrokan ipintzea izaten zen beste herri-kirol bat. Baina horiek baino ospe handiagokoak izan ziren oilar-borrokak. Ez ziren jaiegunetan egiten, ez behintzat idi-probak edo ahari-topekak egiten ziren moduan, agerian edo ekitaldi publiko moduan.

Auzoen artean, edo horretarako zaletasuna zutenen artean egiten zituzten oilarborrokak. Getxo, Erandio eta *Sandere* edo Santander inguruan izaten ei ziren borroka entzutetsuenak. Bertara berariaz entrenatutako oilarrak eroaten zituzten, hil artean borrokatzen zirenak.

Jataben, ostera, borrokak auzokoen oilarren artean antolatzen zituzten. Giro pribatu xamarrean, eta oilarrak arin banatzen ei ziren. Ez zen hil arteko borrokarik izaten.

Zaldi- eta asto-lasterketak

San Lorentzo egunez, abuztuaren hamarrean, zaldi- eta asto-lasterketak egiten izan dira Jataben aspalditik. Zaldi-lasterketa, batez ere, ospetsua ei zen. Inguruko herrietan ere zaldi-lasterketak egiteko ohitura sano zabalduta egon izan da iraganean. Kamino nagusia erabiltzen zuten zaldi-lasterketako ibilbidea zehazteko. Gasmuriko Jesus izan ei zen zaldi-lasterketetan gehien nabarmendu zen jatabearra.

Beste alde batetik, asto-lasterketak izaten ziren. Inguruko herrietako jende ugari agertzen zen bere astoarekin. Eta udan jairik jai antolatzen zuten asto-lasterketen zirkuitua zegoenez, parte-hartzaileen kopuru finko xamarra izaten zen urtero. Zaldikarreretan ez bezala, asto-karreretan parte hartzen zuten astoen izenak ospetsuak

izaten ziren. Esaterako, *Anketil* izena zeukan, orduko txirrindulari ezagun baten moduan, sasoi batean lasterketarik gehienak irabazi zituen astoak. Era berean, *Pulidor* izena zeukan, txirrindulariaren eraginez oraingoan ere, Tomas Arrizabalaga *Sitse* soinulariarenak.

Asto-lasterketen ibilbidea herriko etxean hasi, Asteintzako bidegurutzean biratu eta Lekuonara irtenda, eta udaletxera bueltatzea izaten zen.

Literatura ugari sortu zen bere garaian lasterketa gehienetan irabazle izaten ziren astoen zaintzaren gainean. Baba bereziak jaten zituztela, entrenatu egiten zituztela, ardoa edan arazten zietela... baina inork ere ez du zurrumurru horien gainean federik ematen.

> «Asto-karrerak bai Yataben orre(k) pe on dire, esetu doas ameti buelte, ameti barrioti edo orti... *Zein izaten zan ibilbidea?* Itxe(n) san udaletxeti, aurti Astintze edo, ortik bide batetik sartu ta orti buelte. Ta gero barruko bide batetik ara Lekuonara, ara ingerure urtete san, aston karrere. Saldiña bere esetu dot. // Asto-karrera(k) pere bai esetu'oas urte biiruten bere, asto-karrerak. Anketille(k) pere irebasi dau urte bi-iruten emen. *Famadun astoak egon dira ezta?* Bai, Anketil, Platero eta Pulidor bere bai amen gure barrioko sana, bigarren itteiaun jeneral Pulidorrek, fiñe astotxu.»

Sokatira, harri-jasotzea eta garaitiko gizonezkoen herri-kirolak

Abereekin egiten ziren herri-kirolak ikusi ondoren, gizakien artekoak hartuko ditugu berbagai.

Gizon-probak, esaterako, idi-proben sano antzekoak ziren. Zortzi gizonen artean harria mugitu behar izaten zuten, iltze gehiago nork egin. Oraindino gomutan dauka hainbatek Jatabeko zortzi semek Erandioko Dow-Unquinesa enpresako zortzi beharginen aurka galdu zuten gizon-proba.

Sokatirak erro sakona dauka Jataben, lekuko guztiek azpimarratzen duten arren ez dela egundo talde profesionalik egon, beste herri batzuetan legez. Adineko lekukoen esanetan, beti ezagutu dute sokatira herriko jaietan, San Lorentzotan Santa Kurtzetan baino gehiago. Idi-probak egiten ziren lur eremu berean egiten zuten sokatiran. Herrikoen artean egiten zuten batzuetan, baina gehienetan Jatabeko morroskoz osatutako taldeak erbesteko talderen baten kontra egiten zuen. Gatikarren, laukiztarren, edo lemoiztarren aurka, inguruko herrien kontra lehiatzen ziren batez ere.

Entrenatzeko, bateren baten etxe inguruan batzen ziren mutil gazteak. Orduan ez ei zegoen aproposeko sokarik, eta barkuko maiordomo moduan behar egiten zuen jatabear batek ekarri zuen txikota, barkuetako soka lodia, ganoraz entrena zitezen.

> «Gero sokatiraran batzuk bere on sirelako dekot urte baten, bertan probaderon. *Zelan egiten zenduen herrikoak kanpokoen kontra?* En jeneral Yatabeko ekipo bat Katikekon kontra, edo Laukiskon kontra edo olan. Ta Yataben on san unekada baten, Andrakan bere irebasi eudenak, Yataben bere bai, ta ekipo ona on san. Axe entrenaten ibilli nas neu be,

Herriko gazteak sokatiran sanlorentzotan, c. 1980.

> amen etzen bueltan, mutil gaste nasela. (...) Oki gendun soka bat guk, soke, osaba batek ekarritte, maiordomu san, ta olau soka lodi bet, fuerte, luse, barkuti ekarritte. A ataraten neutzen nik eta agas entrenaten gendun. Ordun olau sokarik esan oten. Ta ona etorten siren kuadrillak entrenaten, baia errikok, Katikekok es.»

Herriko jaietan, sanlorentzotan batez ere, gizon-karrerak egiten zituzten.

Azkeneko hamarkadetan herri-kirolen erakustaldiak egon izan dira jaietan. Harri-jasotzaileak, trontzalariak, aizkolariak... ekarri izan dituzte herriko jaietara, Iñaki Perurenaren moduko izarrak tarteko.

Lehenagotik bazen kirol horietarako zaletasunik Jataben, baina ez zen hain modu ikusgarrian adierazten. Esaterako, Iruña tabernaren ondoan, 118 kiloko harri bat dago. Iruña ondotik erreka igarotzen da, eta errekaren kontra dago aipatutako harria. *Lepora altzateko harri* esaten diote bertakoek. Burdinazko oboa dauka eskuarekin oratu eta gora altxatzeko. Gutxi izan dira goraino altxatu duten jatabearrak, gehixeago gerriraino goratu dutenak, baina noski, hori ez da altxatzea. Azken hamarkadetan gazteen interesa galdu ei du Iruña ondoko harriak.

> «Batzoki barra, Iruña barra da ba, ta an emetiko alderritti errekatxu bet pasten da, ta an erreken kontra arri bet egoten da lepora altzateko. Ta aun de amasortzi kilo ingeru edo olan dekos ak, ta batzuk altzaten deure, baia gitxik altzaten ixen dau a... Olau burneisko oba ba(t) teko goittik

Iñigo Ezkerra (?), harrijasotzailea.

engantxateko eskues, eta oiñ oraintxu entzun dot emeko Yatabeko seme batek atxiñe estala altza daule lepora. Baia oin lengo modun astokerik itten estire dedikaten ba...»

ESKUPILOTA ETA PELOTOIA

Herri-kiroletan sartu ditugun jarduerek hartu-eman zuzena daukate nekazaritza gizarteko, baserriko, lanekin. Herritarturik ageri diren hurrengo kirol biak, ostera, aparteko multzo batean deskribatuko ditugu. Hain zuzen ere, aurretik aipatutakoek baino izaera ludikoagoa izanda, baserriko lanetatik asagoago daudelako.

Jataben beti egon da, adindunen arabera, frontoi edo pilotalekua. Iruña tabernarena zen bata eta eliza ondoan zegoen bestea. Tabernakoa partikularra ei zen eta eliza ondokoa txiker xamarra.

Eskuz olgetako pilotak alogeran ematen zituzten tabernan. Baina orduan diru gutxi zegoenez, jatabear gehienek euren pilotak egiten zituzten. Baten batek aitak Bilbotik ekarritakoa zeukan, baina halakoak bakanak ziren.

Eskuz olgatzeko pilotak burdinazko edo egur gogorreko kanikatxoa izaten zuten erdigunean. Gainetik gomari tronbilak egin eta ardi-lanaren firuz, zein listaria erabilita, biltzen zuten. Azkenik, gainetik behiaren larru ondua ezarri eta josten zioten.

Frontoian banaka zein binaka olgatzen zuten. Sarritan, partidua luzatu eta eskolara belu heltzen ziren. Halakoetan, irakasleak "belarrietatik oratu eta lurretik altxatzen ei zituen Jatabeko umeak".

Eskuz pilotan ibili ostean eskuak handitu egiten zitzaizkien gazteei. Orduan, eskua ur hotzetan sartu eta norbere eskua zapaltzea izaten zen berriro lehengo neurrira ekartzeko metodorik erabiliena. Frontoian, gehien bat mutil berdingoak ibiltzen baziren ere, bazen eskuz moldatzen zen neskatorik ere.

Domeketan eskupilota partiduak izaten ziren; lekuko guztien arabera, eskupilotarako zaletasun handia zegoen.

Futbolerako zaletasuna ere ezagutu izan dute edadeko jatabearrek. Txikerretan *pelotoi* esaten zioten. Gerra aurretik trapuz egindako pilotak erabiltzen zituzten eta gerra ostean erositakoak agertzen hasi ziren.

EHIZA ETA ARRANTZA

Ehiza izan da askoren astialdiko egitekorik behinena. Lazoekin, zuloak eginez, eskopeta eta ehiza-txakurrekin ibiltzen ziren *kazeruk*. Hainbatek bizio moduan hartzen du, izan ere, ehiza denboraldian, batzuek egunero joan beharra zeukaten.

Kazeru eta *eskopeteru* arteko ezberdintasuna azpimarratu dute lekuko askok. Lehenengoak ehizarako legeak begirunez hartzen ditu, hau da, kumeak errespetatu, txori sakratuak (elaia eta txindorra kasurako) bakean utzi, eta batez ere arduraz jokatzen du. *Eskopeteruak*, ostera, ez du legerik errespetatzen, eta edozeri egiten dio tiro.

Erbia eta oilagorra ehizatu dituzte gogotsuen XX. mendean. Armintzako San Tomasetan, esaterako, jatabearren ohitura izaten zen erbitan irten eta Armintzara erbiak gerrian lotuta jaistea, harrokeria txiki modura.

Txori txikiak lumatu eta jan egiten zituzten, baita artatxoriaren moduko espezie gogorrak ere, frijitu eta taloarekin zein ogi tartean jateko. Inoiz jan dutenek diote sano hezurtsuak direla. Egun, ostera, ehiztari asko kexu da, Jatako basoak zikin daudenez gero ezin dutela oilagorretan egin.

Lukia eta basurdea, *basorda*, izan dira aurreko bien ostean ehiztarien arreta gehien erakarri duten piztiak.

Ehiztariaren lagunik minena *kaza-txakurre* edo *erbi-txakurre* da.

Arrantzari dagokionez, Garizuma eta Aste Santuari begira hartzen zituzten lapa eta hamarratzak alde batera utzita, erreketakoa izaten zen batez ere. *Kiskilu*, karramarroak eta aingirak arrantzatzen zituzten sarrien. Lehenengo biak harri artean egoten ziren eta arratsalde pasa ibiltzeko modua izaten zen, errekak garbi zeuden sasoian. Egosita jaten zituzten. Bestetik, aingirak basa artetik hartzen zituzten. Makila batekin zartatu, erreketako igarobideetan ipintzen zituzten euritako edo zakuetan sartu, eta frijituta jaten zituzten.

> «Len koisten siren oin baiño giau angirek eta kiskilluk-eta errekatan. Oiñ erreka(k) pere gitxi daus-ta. Len giau egote(n) san, gero urek eta koixu eudesan ta oin gitxiau daus. (...) *Aingirak zelan harrapetan zendue-*

zan? Basa artetik, nik estot iños koixu baia ikusi itten nausen koisten. Angire, palun imiñi sertxu te... Orrostxu bet-edo doblata ta an arra-edo imiñi ta aas koisten siren, olau kaida luseas. (...) Ta gero sakutera sartu. *Kangrejorik baegoan?* Kangrejo(k) pere bai, ikusten siren asko len. *Jan egiten zenduezan?* Bai, egositte, eta angire(k) pere bai, angirek suge antza eukitte(n) euden. Sugen itxure igual-iguala deke. Angire prijidute yaten san, alau satitxuk intte, perejiltxues ta berakatzaas imintte...»

DANTZA TALDEA, AURRESKUA ETA JOTA TXAPELKETAK

Jota dantzatzeko ohitura sano sustraituta egon da Jataben. Edadeko lekukoen gomutak diosku egun berezi askotan jota-txapelketak antolatzen zituztela. Jatabeko XX. mendeko erromeria eta dantzaldietan, agintariek ipintzen zituzten baldintzak ezagututa, esan genezake jota soltean dantzatzen zela osorik. Jotan kopla kantatuaren zatia baltseoan egitea bekatu moduan hartzen zuten abadeek. Ondorioz, egun garrantzitsuetan halako sona eta onarpena izateko baltseo barik dantzatzen zuten. Bikoteak herrikoak zein kanpokoak izaten ziren. Eta txapelketa horietako epaile Felix Urresti eta Maruritxikerra baserriko ugazabandrea izan ohi ziren.

Ikerketa hau egiterakoan laurogei eta hamar urteren bueltan zebiltzan lekukoek gomutatzen dute gerra aurretik aurreskua dantzatzeko ohitura zegoela. Aurreskua

Jota-dantzan herriko jaietan. Ezkerretik: Jose Iturri, Aurora Askazibar, Juan Navarro eta Mª Angeles Larrazabal, 1980ko hamarkadaren hasieran.

San Lorentzo egunez, herriko jaiegun nagusian, dantzatzen zuten. Aurreskua dantzatzen zuten mutilekin batera euren dantzak egiten zituzten gorulariek ere, andreek egiten zuten dantza. Alkandora eta fraka zuriak, gerriko gorria eta txapel gorria izaten zen gizonezko dantzarien janzkera. Neskatoak gorulari janzten ziren.

Mutilek ezpata eta makilak erabiltzen zituzten euren dantzetarako, eta jende artetik aukeratutako neskari egiten zioten dantza. Ostean, mutil eta nesken arteko soka osatuta, jota eta arinekoa dantzatzen zuten guztiek, amaitzeko.

Orduko lekukoek egindako deskribapena entzunda, Elizaldeko soka-dantza edo Erregelen aurrean gaudela ikus liteke argi eta garbi. Gaur egun arte Durangalde eta Busturialdean bakarrik gorde den dantza multzoa. Adindunen gomutaren arabera, Jataben egiten zen Elizaldeko soka-dantza edo Erregelak Durangaldeko aldaeraren antzekoagoa zen Busturialdekoarena baino, jende artetik ateratako neskari dantzatutako aurresku eta jota zein arinekoaz gain, Dantzari-dantza ere dantzatzen zuten eta. Horren froga dira makila eta ezpata, jokoetarako erabiltzen ziren dantzarako erremintak, presente egotea. Eta baita orain argituko ditugun beste hainbat ezaugarri ere.

Gerra aurreko ohitura hori ulertzeko sano garrantzitsua da garai haretan euskal dantza taldeak sortzeko egon zen mugimendua. Gerra aurretik Mungiako gizon bat heldu zen Jatabeko Batzokira eta zortzi ume aukeratu zituen *ezpata-dantzari* taldea sortzeko. Hots, Dantzari-dantzarako taldea osatu zuten. Euren janzkera orain Dantzari-dantzan dabiltzanen berbera zen, belaun azpietan lotutako zintzarri eta guzti.



Ezpatadantzariak Txomin Elorriaga txistularia aurrean dela, 1967.

Egun txaletak eraiki dituzten Herriko Etxetik elizarako bidean landa handi bat zegoen lehen. Gerra aurretik bertan batu ziren hamabost dantza-talde erakustaldia egiteko. Jendetza handia parajetu ei zen dantzariak ikustera.

Beraz, Bizkaiko dantza tradizioa indar betean aurkitzen dugu Jataben gerraren aurretik. Ezin argi genezake Dantzari-dantza egiteko ohitura gerra aurreko dantza taldea sortzearekin heldu zen edo lehenagokoa zen. Baina jota, arineko eta aurreskuaren gainean informazio gehiago aurkitu dugu.

Jota eta arinekoaren kasuan, antzinako berriak daude, eta gizarteratze mailarekin eta zabalpen geografikoarekin ez dago zalantzarako lekurik. Horri gehitu behar genioke, San Lorentzo egunez Silbestre Elezkano *Txilibrin* jotalari eta albokari ezaguna izaten zela, berariaz Herriko Etxeak kontratatuta. Aurreskuari dagokionez, ostera, herri literaturak ematen digu argibidea. Bada Jataben esalege bat, Elizaldeko soka-dantza edo Erregelak gerra aurreko dantza taldeak sortzeko mugimendua baino antzinagokoak direla iradokitzen diguna. Esalege horrek dio kuku txoriari (*Cuculus canorus*), apirilaren zortzirako heldu ez bada, hileta egin behar zaiola. Baina behin helduta, San Pedrotxu egunean Laukiz Txikerrean (Laukariz) alkatearen alabarekin aurreskua eginda alde egiten duela. Hara, aurreskuaren ohitura, Jataben, XX. mendeko hirugarren hamarkadakoa baino zaharragoa den zantzua[1].

> «Aurreskuk ni baiño jente sarrauk itte'ausen emen. (...) Emen grupo egon san aurreskulariña, hombre, eta onak! *Noz egiten eben dantzan?* San Lorentzotan bai sikeran eta ilandera(k) pere bai ganera, neskatok. Orrek gerra aurren e! Euron yantzi ta euron taketa imiñi tte trentze iñ. Eta mutillek aurresku eta olau ser batzukas, palu batzukas bere goien..., ta plipla alkarreri emon ta, oiñ itxen dan modun. Emen aurresku gerra aurreko da. Ta yantzitxe ba euron garriko, estait garriko berde ixeten basan, ela gorri, ta euron sapatillek, eta suririk frakak eta alkondare. Eta gero txapela gorri. (...) *Eta neskatoren bat ateraten eben dantzan?* Bai, gero neskato atara, eta gero aas yantzan iñ edo olan ixete(n) san. Atxiñeko da ori... Elejidu, ta elejidu bere edoseiñ eseuren itxen, olan aparta antzeko guape eta itxurede... Gero beraas in yantzan-ta, kategori altzate'un neskatok, bera danan arten elejidute.»

MUSIKA

Musika munduko gizarte guztietan ageri den kultur adierazpena da. Irratiak, telebistak eta gramolak kanpoko musika ereduak barneratu zituzten Euskal Herrian. Bizkaian Bilbo izan zen pieza-eredu eta forma berriak zabaltzeko gunerik garrantzitsuena. Gerra aurretik hartua zeukan gaztelaniak modako musikaren transmisore funtzioa. Modako kantak, eta komertzialki zabaltzen ziren gehienak, gaztelaniaz sortuak

---

[1] Kukuaren eta berari buruzko sineskeren gaineko informazio gehiago Mitologiari dagokion atalean aurkituko duzue.

ziren. Ingelesak izango zuen bere indarraldia, baina horretarako gerraostera itxaron behar dugu. Gerra aurrerako guztiz normala zen erdararik ez zekitenek ere erdaraz abestea. Egun gauza bera ikus genezake ingelesaren inguruan.

XX. mende hasieratik hirurogeiko hamarkadako kultur berpizkundera arte, erromerietako errepertorioa askok uste baino zabalagoa zen. Tangoa, pasodoblea, baltsa, habanerak... herritxo euskaldunetako dantzaldietan guztiz etxekoturik zeuden forma musikalak ziren. Are gehiago, soltean dantzatzen ziren jota eta arinekoa baino, elkarrekin oratuta dantzatzen ziren pieza motak ziren arrakastatsuagoak orduko dantzaldietan. Hirurogeiko hamarkadako euskal kulturaren berpizkundeak, ostera, jota, arineko eta martxa ez ziren beste forma musikal gehienak baztertu zituen. Eta orduan sortutakoa da egun daukagun euskal musikaren kontzeptua.

Gerra aurretik hainbat soinulari zegoen Jatabe inguruan. Soinu diatonikoa edo *ilarabikoa* jotzen zuten. Eta Arratiako zein beste eskualde batzuetako lekukoek adierazten duten eran, Bakio inguruan, Jatabetik sano hur, beraz, zeuden orduko soinularirik ospetsuenak. Soinua polifonikoa izatera eta baxuekin erritmoa eroateko aukera edukitzera, panderoaren laguntza ez zen beharrezko. Beraz, egun banaezina begitantzen zaigun musika-erreminta parea hautazkoa baino ez da izan orain gutxira arte. Hori erakusten dute Jatabeko lekukoen aitortzek, pandero-joleak ez zion beti laguntzen soinulariari. Soinu diatonikoak garaitiko tresnak baztertu zituen. Hala ere, txistuak bizirik iraun du XX. mende ia osoan zehar Jatabeko dantzaldietan.

Dantzaldi berera soinulari bat baino gehiago, edo musikari bat baino gehiago, agertzea guztiz normala zen mikrofono bako garaietan. Korru ezberdinak egiten zituzten dantzariek euren gustuen arabera eta musikariaren laguntzaileak bere korruan zeudenei kobratzen zien. Soinularia herrikoa zenean normalena ez ordaintzea izaten zen. Txistulariekin ez zen gauza bera gertatzen. Herriko Etxearen zerbitzupeko txistulari bat edo gehiago edukitzea sano ohikoa izaten zen eta.

Gramolak gerra aurreko soinulari eta musikariak baztertu zituen. Plaza lortzeko enkantean diru gehiago eskaini eta musikari ospetsuen piezak ipintzeko erea eskaintzen zuen. Eta ipiniko zuten musika aurretik kontrolatzeko aukera ematen zuen.

Gerraostean soinu diatonikoa sano bazterturik egon zen. Nazionalisten musikatresnatzat hartzen zen. Gainera, soinu kromatikoen aukera musikal handiagoek errepertorio landuago eta modernoagoak jotzeko bidea zabaldu zuten. Ondorioz, diatonikoa jotzen zuten gehienek sasoi baterako utzi zuten, edo kromatikoa ikasten hasi ziren. Mikrofonoaren eta jazzbandaren sasoia zen, herrietako plazetan nagusituko zen musika ereduarena, harik eta hirurogeiko hamarkadan, euskal berpizkunde kulturalak gerra aurreko musikari, erreminta eta pieza eredu batzuk berreskuratu eta gaur egungo herri musikaren kontzeptua ezarri zuten arte.

Mende hasieran soinulari asko batzen zen, debekatu zuten arte, domeketan Txiboko landan egiten zuten jolasean.

Gerra aurretxoan Lemoizeko Karli eta Gamizko Eugeniok jotzen zuten soinu diatonikoa Jatabeko dantzaldietan. Horien inguruan sarri jotzen zituen txistua eta danbolina Algortako Atxurrak. San Lorentzotan kalejira jo ohi zuen bertoko atabalari baten laguntzaz. Baina txistularirik ere izan da Jatabeko semeen artean. Herriko aguazil izandako Txomin Elorriagak txistua eta danbolina jotzen zituen. Bai dantzaldietan eta baita jatabearrek herritik kanpora egiten zituzten osteretan ere.

Florencio Fullaondo eta Txomin Elorriaga.

Andrakako itsuak ere soinulari ospetsuak izan ziren, Jataben sarri girotu zituzten dantzaldiak. Baita inguruko herrietan ere. Eurak hasi ziren hedatzen jazzband izeneko gerraosteko talde instrumentala, Jatabe inguruan.

Marutxeaga auzoan, Sarakotxetan, bizi zen Luis Ansoleaga izeneko soinularia. Inguruko Ataune etxeko seme bat ere soinularia izan zen. Eta auzune horretako iraileko Andra Mariaren ospakizuna alaitu ohi zuten.

Gatikako *Euspo* eta *Txinda* izaten ziren Jatabera etorri ohi ziren beste soinulari bi.

Gerra aurretik Jatabeko jolasa alaitzen soinulari ospetsua izan zen Rufino Arrola, Andrakako errementaria. Bere anaiak kobratzaile egiten ei zuen, mutilei kobratzen neskei oratuta dantzan egiten zutenean. Rufinorekin batera, Urdulizko Prudenek jotzen zuen panderoa hasieran eta Kepa Arrizabalaga plentziarrak beluago. Kepa, Tomas *Sitseren* seme moduan ezagutu dute lekuko askok. Ondorioz, Isuskizako soinularien sagaren sortzailea ere musikari ezaguna zen jatabearren artean. Gerraostean abadeek debekatu egin zuten helduta dantzatzea, eta baita *infernuko hauspoa* ere. Baina debekua iraungi ondoren jarraitu izan du jatabearren musikarako senak. Horren adibide dugu Agustin Barandiaran, lehenengo Urgabe eta orain Korrontzi musika-taldeko soinularia.

Gizonezko pandero-joleak aipatu ditugu, baina emakumezko pandero jotzaileak ere hainbat ziren Jataben bertan. Gizarte balioek, ostera, bizitza publikotik baztertzen zituzten orduko andreak, eta auzoko edo etxeko ospakizunetara mugatuta geratu ziren.

Kepa Arrizabalaga pandero-jolea eta Rufino Arrola trikitilaria, 1980ko hamarkadaren hasieran.

Txilibrin albokaria San Lorentzo egunez izaten zen, baina badirudi dantzari modura nabarmentzen zela gehiago Jataben.

Kantatzeko ohitura handia egon da Jatabeko hainbat etxetan. Azken mendeko kantarien artean Daniel Agirre aipatu beharrekoa da.

> «Jota-yantzan soñues ta pandero, soñu bai ori Andrakako Rufino askotan Yatabera ta Kepa Isukitzeko bere urte askotan ibilli da. (...) Eta gero oten san pasakalle, txistulari Algortako, famadu Atxurra eta tanborra yoten Yatabeko Gorra. *Pasakallea noz izaten zan?* San Lorentzon, goisen.»
>
> * * *
>
> «Gero probak akabaten sirenen, se ordun probak oingo modun gauen esiren ixeten, atzalden ixete(n) siren, ta gero seuser soiñulari bet edo, biedo ta seoser erromeri, baia es oingo modun ordubiek eta iruretararten, gauen amarratan akaba eta etzera danak. *Nortzuk ziran soinulariak?* Andrakako itzu te Errufiño ta orre(k) pai, se lelau olau orkestarik emen ingerun esan oten, gero asi siren orrek orkestak, jasbanak-eta... Ta gero beste bat atzerau Txilibrin etorte(n) san ona...»

UMEEN OLGETAK

Olgetak gizakiaren bizitzan une guztietan agertzen dira. Gizakiaren garapen aroaren arabera, ume, heldua edo zaharra denean, zeregin ezberdina betetzen duten

arren. Umezaroan jokoa betetasuna da, denborarik behinena betetzen du; esperimentazioa, garapena, ikasketa, sinbolizazioa eta inguruan duen munduaren antzezpena da. Helduarentzat, ostera, beharretik askatzeko modua.

Olgeta eta giza-garapena

Askok pentsatzen du olgeta denbora-pasa, astiunea betetzeko eta pozteko bide bat baino ez dela. Baina olgeta ikasteko, esperimentatzeko, antzeratzeko, antzezteko, sinboloak sortzeko eta rolak betetzeko jardunbide ordezkaezina da.

Seinak badaki inoiz heldua izango dela. Eta helduen mundua, balio handiko erreferentzia da berarentzat. Umearentzat sano garrantzitsua da heldu bihurtuko den eguna. Eta nagusien jokabidea jarraitu guran, lan eta eraikuntza olgetak burutzen ditu, erremintak sortu, lur eremuak mugatu, nagusien rolen itxurak egin eta antzezten ditu...

Seinen gizartea, nagusiena legez, antolatuta dago. Euren eginbeharretan, hau da, olgetetan, ohiturazko arauak eta formula erritualak transmititzen dira. Umeek, olgetan, zer edo zelako burujabetza ezaugarri batzuk hartzen dituzte nagusien mundutik.

Haurren gizartean ezin du nagusiak sartu. Pertsona helduak, egokitzen ona izan arren, umearentzat gehiegi jakin eta kontrolatzen du. Seinak seina behar du sortzeko eta umeen mundu horretan baino ezingo du lortu bere buruarengan eduki beharreko konfiantza. Umeen gizartean leku bat izanda baino ez ditu bereganatuko gizarte guztietan ematen diren ordena, hierarkia, elkartasun eta komunikazioaren kontzeptuak. Umeen gizartearen egituratze maila gorena bere erakunderik adierazgarrienak dakar, lagun talde edo koadrilak.

Egia esan taldeko burua mutikorik indartsuena edo neskatorik trebeena izango da. Behar besteko indarrik ez daukatenek, gazteenek eta taldean sartuta ez daudenek bigarren mailako funtzioak izango dituzte.

Seinak olgeta itxuran adieraziko ditu nagusien kultura eta jokabidea. Jokoak zenbakituz gero, argi ikusiko dugu generoak bereizten dituela. Gizarte egitura baten erakusgarri da hori. Izan ere, gizarte horretan gizonen eta andreen zereginak guztiz mugatuta eta definituta zeuden.

Olgeten banaketa sexualak gaur egun arte iraun du, dagoeneko horren markatua ez den arren. Zurruntasun hori malgutzeko lanean garrantzi berezia izan du eskola mistoak. Neska eta mutilen arteko hartu-eman estuago eta normalagoa bultzatu du eta.

Dena dela, oraindino ere joera argia dago bakoitza bere sexukoekin batzeko.

Umeen olgeten ezaugarri gehiago

Gizarte tradizionalean, seinen olgeta asko urtarotan banatuta egon izan dira. Olgeta batzuk urteko edozein sasoitan egiteko modukoak ziren arren, beste batzuk urtaro jakin batekoak ziren. Esaterako, karrakak hartu eta Judari burua apurtzea Bariku Guren egunez bakarrik egiten zen olgeta sinbolikoa zen. Urtaro eta egutegiari estuki loturik zegoen.

Beste adibide bat aipatzeko, Jatabeko umeek Basaratoste sasoian txerriaren puxika puztu eta elkar jotzeko, edo besteak jotzeko, erabiltzen zituzten. Hori bai, egutegiko sasoi konkretu bati lotutako jarduera da.

Gizarte tradizionalean, gurean legez, aldikadaka olgatu izan da joko batzuetan. Esan gura da, sasoi batean tronparekin olgatzen zen, beste batean botilen txapa edo iturriekin eta hurrengoan intxaur edo hezurrekin. Modaren kontzeptua igar liteke antzinako portaera horietan.

Seinen olgeten zerrenda egiten hasterakoan, erratuta pentsa genezake gure kulturari bakarrik dagozkiola. Baina inguruko kulturetan arakatzen hasiko bagina, laster ikusiko genuke ume-jokoak antzekoak edo berdin-berdinak direla batean eta bestean.

Esate baterako, hezurretara olgatzea umeen jokoa baino ez da gaur egun. Ikertzen hasiz gero, denbora eta espazioan sano aldenduta dauden herri eta kulturetan topa genezake, adibidez, antzinako Grezian. Kanikak ere benetan aspaldiko olgeta dira. Egipton eta Erroma Errepublikarrean ezagunak ziren. Mundu guztian zehar daude zabalduta. Europan, batez ere, eskolako eginbeharren ihesbidetzat hartu izan dira.

Hasierako seintzarorako olgetak

Lehenengo seintzaroan badira hainbat jarduera, erritmikoak batez ere, nagusiek ume txikerrentzat egiten dituztenak. Esan liteke arreta deitzen dion zer edo zeren plantak egin gura dituenean hasten dela seina olgetan.

Nagusiaren zeregina, seinarentzat egiten dituen olgeten bitartez, garrantzitsua da ume txikiarekiko hartu-emanean. Olgeta horiekin batera, gehienetan, kanta edo formula laburrak ageri dira. Batez ere laztan edo umeei egiten zaizkien bromekin lotutakoak, umeak jan dezan asmatutakoak, golpea hartu ostean trankildu dadin, lehenengo pausuak eman ditzan animatzeko sortutakoak...

Atzamarrekin egiteko hamaika olgeta dago, esate baterako, *Honek arrautza ekarri*, *Atxea motxea*, *Cinco lobitos*; edo eta txalo egiteko olgetak, *Txalo pin txalo, txalo ta txalo, katutxu mizperru ganean dago*.

Beste olgeta batzuetan umea kulunkatu egiten da, besoetan hartuta edo belaun edo hanka baten gainean ipinita, esate baterako, *Din-dan nor hil da?* edo *Din-don Beleron, A la silla de la reina...* Sein-seinetan agertuko da ostentzearekin lotutako lehenengo olgeta, *Kuku* formularen bidez. Bestalde, bizitzako sasoi horretan garrantzi handia hartzen dute lo-kantek: *Obabatxua*, *A ro-ro corderito divino...*

Natura olgeta esparru legez

Seinak, euren kontura ibiltzeko moduan daudenean, olgeten bidez, naturak opatzen dituen elementuak aurkitu eta erabiltzen hasi ohi dira: fruitu lehorrak, harea, harriak, lore eta landareak, intsektuak, arrain eta hegaztiak... Izan ere, Jatabe moduko landa ingurune baten haurrak esku-eskura ditu natur elementuak. Elementu horiek erabiliko zituzten hainbat jokotarako. Esaterako, *intxurrekaz kistorren* jaurtiketa olgetan.

Olgeta batzuetan antzinako kultur etapak ageri dira, esaterako, ehiza eta bilketa. Gainera generoa markatzeko joera dago: ehiza jokoak mutilenak izan ohi dira eta bilketa jokoak, ostera, neskenak. Joko horiek normalean taldean burutzen ziren.

Animaliekin lotutako jarduerak egin izan dira, adibidez, habiak bilatzea, *grillu* edo girgilu eta *zapaburuak* harrapatzea, barraskilo edo karakolen lasterketak egitea, *sugelintxe* edo sugandilak harrapatzea buztana ebakitzeko, erlastarrak hartzea atzeko aldean papera ipini eta hegaldi deigarria egin zezaten, edo saguzarrak hartzea zigarroa errearazteko.

Mota horretako olgeten adibidea dugu *jilgeruten* izenekoa. *Jilgeruen* edo kaiolatxorien habiak topatzen zituzten eta kaiolatan sartzen zituzten. Gero San Pedro inguruan Mungian egiten zen txori kantarien txapelketetarako prestatzeko. Olgeta horren arau modura, denek habian arrautzarik topatuz gero bertan utzi behar ziren.

Txoriak harrapatzeko tranpak egitea ere olgeta arrunta izan da jatabearren artean. Lurrean zulotxo bat egiten zuten aitzurrarekin, gero palu txiker bat sartzen zuten, estalki moduan lotuko zen zohiari eutsiko ziona. Segidan artagarauren bat, ogi zatitxoren bat edo txoria erakarriko zuen beste amuren bat botatzen zuten barrura. Txoria janari bila sartzerakoan, palutxoa bota eta harrapaturik lotzen zen. Gehienetan txindorrak jausten ei ziren, baina txori sakratua zenez, askatu egiten zuten atoan, gurasoen errietaren beldurrez.

Hala ere, olgeta horrek bigarren denbora-pasa gaiztoagoa zekarren berarekin. Batzuetan, umeek eskua tranpan sartzen zutenean txoria hartzeko asmoz, kakamokordoa aurkitzen zuten hegaztiaren lekuan. Ume batzuek besteei egin ohi zieten txantxa lohia.

Jataben sarri egiten ziren kakarraldo borrokak. Esan beharra dago Jataben bereiztu egiten direla *eskarabajo* eta kakarraldoak. Mamarro ezberdin bi dira. Kakarraldoak udan irteten ziren eta besteek baino adar handi eta gogorragoak zeuzkaten. Elkarren aurrean paratu, adarretatik *engantxa* eta luze borrokatzen ei ziren, mutil berdingoen pozerako.

Gizaldietan zehar olgeta modura ulertu izan dira ekinbideok. Gaur egun, ostera, animalienganako jarrerak aldaketa filosofiko handia izan du, hirietan batez ere. Ugaritu egin dira animaliei sufrimendua eragitearen aurkako taldeak, eta eurekin batera, besteon kontzientzia. Eta baliteke, pentsamolde hori garatzen jarraituz gero, etorkizunean erabat aldatzea orain arte animaliekin egin izan diren olgetak. Baina hori gurasoek haurrei ematen dieten hezkuntzaren araberakoa izango da. Esalege da: *umeen zentzune etxen entzune*.

Landareei lotuta ikus genezake loreen erabilera olgetarako. *Txiribitak*, iduneko eta koroak egiteko; arrosa petaloak ere hartu ohi ziren, gero uretan beratuta, arrosa lurrina egiteko; edo masusta eta mailukiak, ezpainak margotzeko.

Ostentzeko olgetak

Lehenago aipatutako "kuku" hori da hasierako ostentze jokoa. Eta apurka-apurka, garatuz eta azpimultzo bitan banatuz doaz: helburua gauzak ostentzea duten olgetak alde batetik, eta jokoaren oinarria pertsonak ostentzea dutenak bestetik.

Olgetari guztiek ezagun zuten objektua ostendu eta topatzean oinarritzen zen jokoa leku itxietan egin ohi zen. Objektua ostentzen zuen olgetariak topatzen laguntzen zien garaitikoei. *Hotz* edo *bero* esanda bilatzaileari argibideak ematen zizkion, bilatu beharrekotik paraje edo asago zegoen jakin zezan.

Gauzak ostentzea helburu legez daukaten jatabearren olgeten artean *Ratón chitón...* izenekoa dago. Biribilean paratzen ziren olgetariak, biribilaren barruko aldera begira. Txanda hartzen zuen jokalariak, garaitikoek kantatu bitartean, zapia uzten zuen baten baten atzean, lurraren gainean. Zapia topatu eta lurretik jasotzen zuena zen irabazlea. Eta hurrengo txandan zapia ostentzeko ardura hartzen zuen.

Olgetariak ostentzeko joko ezberdinak egon izan dira. Batzuetan, sein batek beste guztiak topatu behar ditu. Beste batzuetan, ostera, bilatzaile bat baino gehiago egoten ziren. Jataben, ostentzean datzan olgetari *ostu-ostuke* edo *kuike* esaten zaio.

Salto egiteko olgetak

Azpimultzo handi bitan banatzen dira oinarrian salto egitea duten olgetak. Lehenengo azpimultzoan pertsona bat edo bat baino gehiago makurtu egiten dira, normalean *astoa* deritzon posizioan, eta beste guztiek gainetik egiten dute salto. Orekarako trebetasuna eta hanka indartsuak behar dira olgeta horretarako. Joko mota horien adibide dira *Astoka* edo *Txorro-morro-piko-tallo-ke*.

Bigarren azpimultzoan, soka baten gainean salto egiteko olgetak daude, *sokajantzan itxen gendun*. *Sokaka* izaten zen olgeta horri deitzeko beste modu bat. Nesken olgetak izan ohi ziren eta gehienetan taldean burutzen zituzten, inoiz bakarrean ere egin ohi zen arren. Gero aldaera bat sartu zen, eta salto egiteko modua aldatu zen materialekin batera. Izan ere, sokaren ordez goma elastikoa erabiltzen hasi ziren XX. mendeko azkeneko hamarkadetan. Olgeta multzo hori sano garrantzitsua da, batez ere, kanta ezberdin asko erabiltzen zirelako. Aipatutako kanta horiek funtzionalak dira eta olgetaren menpe daude. Kantuok eguneroko bizimoduko istorio edo esperientziak adierazteko balio dute. Kantarik gehienak, leku euskaldunenetan ere, erdarazko letrak izan dituzte, askotan jatorria eskolan dutela.

Jataben, esate baterako, edadeko lekukoen arabera *Al pasar la barca*, *El cocherito lere* eta *Al pimiento colorado azul y verde* izan ziren ospetsuenak.

Beste olgeta batzuetan, saltoa jokoaren osagaia da, baina ez da ezaugarri nagusia. Lurrean harri edo makilekin marraztutako edo kartekin zehaztutako irudien gainean, sei koadrotan banatuta egiten diren jokoak dira. Olgeta horietan neurri egokiko harria edo antzekoa izaten da beharrezkoa. Koadrorik koadro kinkirrinka edo kisketean, hanka bakarrean, salto egitea da jardunbidea, olgetaren arauen barruan, eta hutsik egin barik. *Trukume, trukame* edo *kinkirrike* esaten zaio deskribatu berri dugun olgetari.

Jaurtiketa olgetak

Hauetan zer edo zer jaurti edo botatzea izaten da oinarria. Olgeta hauen artean azpimultzo garrantzitsua osatzen dute, esate baterako, harriak ahalik eta asagoen

edo ahal denik goren botatzea, ur-azalera errekarri zapalak jaurti eta hondoratu aurretik ahalik eta gehienetan jagitea... Talde berekoak dira, era berean, harrika egindako borrokak edo punteria frogak. Garai batean sano normalak ziren Ergoien eta Erberako umeen arteko harri borrokak.

Jataben XX. mendearen lehenengo erdian ohikoak ziren olgeten artean multzo honi dagokio *intxurrekaz kistorren* izenekoa. Olgeta horretan hiru intxaur ipintzen ziren ilaran. Gero, lau metroko distantziatik intxaur bat jaurtitzen zuten *narrasen*, hau da, lurretik zehar botatzen zen. Jaurtitzeko erabiltzen zuten intxaurrari *loke* esaten zitzaion. Intxaurren bat joz gero jaurtitzailearentzat izaten zen. Jo ezean, jaurtitako intxaurra galdu egiten zen.

> «Kistorren, intxurrekas. Intxurrekas kistorren, sue! Intxurrek imiñi eta tokaten dakona, illedan, bakotxak intxur bana imiñi, eta tireda bana. Ta beste eskun beste intxur bet, loke esaten dakona. A botau, ta ara botaten bada intxurre seutzako, ta bestek botaten badau berantzako. Ta botate(n) espadosu seure galtzen da. Ta olantxe.»

Jaurtiketa olgeta da era berean palu luze baten laguntzaz mutur biak zorroztuta dauzkan beste makila laburrago bat, txirikila izenekoa, asagora jaurtitzea.

Beste batzuetan intxaurrak erabiltzen dira, edo haziak, hurrak, indabak, hezurrak, buztinez egineko kanikak... Txanponekin jaurtiketa jokoetara olgatzea, ostera, sano gauza berria da. Lehen ez zegoen dirurik, eta erosketak egin ostean bueltak zekartzana zuhur ibili ohi zen txanponik ez galtzeko.

Horrez gain, misto kutxen tapak, kromoak, gomazko takoak zein botiletako iturriak sarri erabili izan dira, bakoitza bere sasoian, jaurtiketa olgetak asmatzeko. XX. gizaldiko azken hamarkadetan, eta txirrindularitza imitatzeko lasterketekin loturik, izan zuten iturriek euren urrezko aroa.

Beste azpimultzo batean daude pilota jaurtita burutzen diren olgetak. Horietan hainbat umek parte hartzen badu ere, pilotak bakarrik olgetako aukera ematen du. Horretara olgetako, boteak ematearekin batera, eta lantzean behin hankaren baten azpitik igaroaz, abesti bat kantatu ohi da.

Lasterketa olgetak

Lasterketa osagarri garrantzitsua den olgeta ugari dago. Sailkatzerakoan olgeta mota bi bereiz genitzake: lasterketa olgetaren oinarria dutenak eta, olgetaren helburua beste bat izanda, lasterketa ezaugarrietako bat dutenak. Edozelan ere, lasterketa olgetaren osagarririk behinena denean ere, sarritan norgehiagoka kutsua galdu eta denbora-pasarako jolas bihurtuko dira.

Lehenengo multzokoen artean aipatzekoa da San Lorentzo jaietan ospatu ohi zen zaku-lasterketa. Zakua hanketarako traba bihurtuta, helmugara arinen heltzen zenak irabazten zuen.

Bigarren multzokoa litzateke Jatabeko haurrek, mutilek gehienetan, egiten zuten *txatximingorrin* olgeta. Sei, zortzi edo hamar ume joaten ziren elkarri atzamarretatik oratuta. Batek *txatximingorrin bat, bi eta hiru* esaten zuenean, garaitikoak korrika egiten zuten alde. Atzamarretatik lotuta zihoazenak karreran ateratzen ziren

besteen atzetik eta harrapatzen zutena atzamarretik oratutakoen multzora batzen zen.

> «Mutillek en jeneral olgaten gendun txatximingorriñ imiñi batek esku eta a eskapa eta koisten bestek... Txatximingorriñ esate'akon orreri, olan imiñi da atzamarratati agarrata paraten siren sei edo sortzi edo amar, ta "txatximingorri, bat, bi, iru" esaten sanen eskapate'eren bestek eta eskues oten sanak, ak koiste'aun. Eta a koiste'unek beste(k) koisten ostabere ta olan, trotan, errementaten alkarren atzen, ordun besterik eson oten ta...»

Multzo honetako beste adibide bat da marroka olgeta ezaguna. Batek txanda hartzen zuen eta zenbaketa amaitu ostean garaitiko olgetariak koxitu behar zituen. Sarritan zuhaitz baten edo eskolaren inguruan ibiltzen ziren olgetan.

Marroka deitzen zioten, era berean, mutilen arteko borrokari, *behera botaten olga.*

Trebetasun olgetak

Kromoekin mutilek eta neskek hartu dute parte, nahiz eta batzuek eta besteek olgeta mota ezberdinak egin, eta modu ezberdinetan olgatu izan duten. Tronpaka eta kinkika olgatzea mutilen gauza izan da gehienetan.

Tronpa eta tronpoiak Mungian erosi behar izaten zituzten. Barikuko plazako salmenta ondo joanez gero, seinei opariak eroaten zizkieten. Tronpoia ondo bota eta denbora luzez egoten zenean bueltaka leku berean, hain ondo botata eze ez zitzaion igartzen bueltaka zebilenik ere, *tronpoi lo dau* esaten zen. Hori izaten zen trebetasun mailarik handiena.

Jostailuekin egiten diren beste olgeta batzuk txirrindolan, diaboloa, yo-yoa eta patinak izan dira.

Multzo honen barruan dago neskatilen artean sano ezaguna zen jokoa, *tabaka*.

Badakigu XX. mende hasierarako Jataben sano zabalduta zegoela olgeta hau. Eta antza denez, lehenago arau konplexuagoak zeuzkan, denbora igaro ahala sinpletuz joan direnak. Telesforo de Aranzadiren arabera historiaurretik olgatu izan da *tabaka* Europan. Santimamiñeko leizean aurkitu izan dira tamaina eta neurri ezberdinetakoak. Eta antzina kutsu magiko eta erlijiosoa ei zeukaten. Kristoren aurreko VI. mendeko datuek iragarleekin lotzen dituzte. Artxoaren belaun inguruko hezurra da taba. Kanika bat jaurtitzen zen gorantz eta bitartean tabaren posizioa aldatu behar zen. Jataben batutako taba olgetaren terminologia gehiena erdarazkoa da. Tabaren posizio bakoitzak izen bat zeukan: *primeras, segundas, terceras...* Tabekin olgetako hamaika modu ezberdin egon dira lekuaren, garaiaren eta olgetariaren gustuaren arabera.

> «Tabaka bere bai. *Etxean artxoa hiltzen zanean hartzen zenduen?* Bai beti, tabatxu gorde, gero olgetan itxeko. Urten baten, urten taba bat, ela bi eukitxe sittusen? Bi, urten taba bi. *Zelan olgetan zenduen tabetan?* Tabatan, tabek berak eukitxen dau, parte bat eukitxen dau lisue, beste bat eukitxen dau apurtxu bet ondulautxue, sakontxuau, eta gero alboti(k) pere eukitxen dau lisu alderdi bet eta beste alan maillatxukas. Eta buelte emon

Tabak, 2007.

ber ixete sakon *primera*, *segunda*, *tercera* eta olan emoten geuntzen ari tabatxuri bueltea. Eta emoten espaseutzen momentuan ba galdu itxen sendun. Tabaka esate(n) sakon orreri. Buelte emoteko kanike gora bota, eta ari buelte emon ber. Eta galtzen badosu buelte emoten ba, galdu dosu. Bai orretara asko olgaten gendun.»

Olgeta erritmikoak

Olgeta hauetan jokalariak kanta baten erritmopean mugitzen dira. Batzuetan taldeak neska eta mutilez osatuak izan daitezkeen arren, normalean neska hutsenak izaten dira. Sarritan, kantarekin batera txaloak jotzen dira. Korruan olgatzen dute; parte-hartzaileak eskuetatik oratuta egoten dira eta neskato batek erdian egiten du dantza, kanta antzeztuz. Geroago, neska horrek beste bat hautatzen du berarekin bikotea osatu eta dagokion jarduera egiten lagun diezaion. Kasu batzuetan aurrez aurre paratzen dira neskak dantzan egiteko. Gero, abestiaren erritmoan parajetu eta asagotzen ziren elkarrengandik. Jatabeko umeen artean *Al corro de las patatas* zen olgeta erritmiko erabilienetakoa.

Imitazio, antzezpen eta mimika olgetak

Imitazio olgetetan, haurrek, euren sormen eta bat-batekotasunarekin, nagusien ohiko eginbehar, egoera edo lanak antzezten dituzte. Antzezpen eta mimika

olgetetan seinek parodiak egiten dituzte planta eta keinuak eginaz. Batzuetan kanta batek adierazten dizkien jarraibideei segitzen diete. Baina beti ere, hari eroale legez har litekeen gidoi edo istoriotxo baten oinarrituta. Gidoitxo horren zehaztasun maila alda liteke olgetatik olgetara, egunetik egunera edo neska-mutil taldetik taldera.

Imitazio olgeten artean aurki genitzake *Amamaka*, *Dendetara, Jatekoetara, Erizain eta osagileetara* edo *lelangok itxen daune itxen*.

Hizkuntza olgetak

Hizkuntza olgetak etxetik irteteko eguraldirik ez zegoen egunetan egiten ziren batez ere. Eskoletako atarian edo elizatean, etxeko egongelan, suetean edo beste edozein aterpetan olgatzen izan dira.

Multzo horretakoak dira, adibidez, aurreko berbaren akabuko silabarekin hasten diren berbak osatzea, zorakeria edo errima bitxiak esatea edo aho-troinua. Gustukoa ez den norbait nahasteko olgeta moduko hizkera bereziak erabili izan dira, esaterako, ahuntzerdara.

Elkarrizketa kateatuak, zenbaketa-abestiak, errezitatu barregarriak, sekula amaitzen ez diren kontuak, edo ume nagusiagoek berdingoei egiten dizkieten bromak.

Asmatzeko olgetak

Asmatzeko olgetetan, parte-hartzaile batek objektu, pertsona edo lanbide baten... izena igartzeko zidorrak ematen dizkie besteei. Aurrekoetan legez, normalean leku itxi edo aterpeetan egiten ziren, eguraldi txarra egiten zuenean, alegia.

Horrez gainera begiak itxita egiten diren olgetak ditugu, esaterako, *itsu-itsuka*. Olgeta horren Jatabeko aldaeran txanda zeukanari begiak estali egiten zizkioten zapiren bat erabilita. Garaitiko olgetariak harrapatzeaz gain, atrapatutakoa nor zen asmatu behar zuen begiak zabaldu barik.

Igarkizunetara ere olgatu izan da. Olgeta horretan nagusiek ere parte hartu izan dute, sarri familiako gaubeiletan.

Etxean egineko jostailuak

Olgeta jarduera osoa da, eta, askotan, hasiera olgetarako behar izango diren erremintak egitea edo erabiliko den eremua markatzea izan liteke. Era horretara egiten dituzte seinek tiragomak, baleztak eta pistolak. Azken kasu bietan, malgukidun egurrezko pintzak erabiltzen zituzten. Makilak ere landu izan dituzte, luze bat eta labur bat hartu eta laburra alde bietatik zorroztu ohi zuten, *txirikilan* olgatzeko. Beste artisautza jarduera bat iturriak prestatzea izaten zen. Eta era berean, nagusien laguntzarekin gehienetan, goitibeherak, kometak eta txirrindolak egiten izan dira. Olgetarako guztiz normala izaten zen txilibituak egitea; ereduetako bat, esaterako, kanabera zati batekin eta erretzeko paperarekin egiten zen.

Jataben jostailuak sortzeko orduan garrantzi berezia eduki izan du Zubiaurreko sutegiak. Burdinaz, gomaz eta beste hainbat lehengairekin egiten zituzten jostailuak

bertan. Sasoi bateko umeentzat jostailuak edukitzeko aukera askoz handiagoa ekarri zuen herrian errementaria eta sutegia egoteak.

Horren adibide dugu, esate baterako, *txiri* edo *txirri* izeneko olgeta. Burdinazko gurpil bat izaten zen, kakodun alanbre batek gidatzen zuena, gurpileko heldulekuaren laguntzaz. Alanbre eta heldulekuarekin mugiarazi behar zuten gurpila, kakoa askatu edo abiadura ezagatik lurrera jausten itxi barik. Galipota zeukan Jatabeko kaminotik ibiltzen ziren seinak, eskolarako bidean sarri, ia nork eroan *txirrie* arinen. Ume batzuek baldeen helduleku bi elkartzen zituzten *txirrie* egiteko.

> «Txiri, burni bet..., biribil bet ta beste burni beteas, emeti agarrata, eskolara yote(n) gintzesan aurreti dula. (...) Imintte'akon olan sertxu bat, okertute imintte(n) san ta sartze san txiri. Alau alanbre biribil bet, atzamarren lodierako edo olan, ta a erote(n) gendun... Ta gero apurtute baakun, Juan Oleaga, a ixen san errementari, ta ara. Surtegin berotu, surten berotu te maillues yo ta aplastata, a txakur txiker bat edo kostate(n) san ta ordun diru ber ixete(n) san.»

Horiez aparte, baziren umeei eskuz jostailuak egiteko ardura hartzen zutenak ere. Esaterako, etxeko seintxoari olgetarako gurdia egin zion morroia. Honek lehenago etxe guztietan zegoen gurdiaren kopia perfektua egin zion, baina jostailu neurrikoa.

> «Eguno leleko gurdi arek in sosten niri, gurditxu, olan mutil bakarra nintzenen olgetako. *Gurdia egin?* Bai, etxen in gurditxue. Ebai tronkoari satiek eta erruedak itxeko... *Umeentzako gurdia egin eutsun?* Bai umentzako gurditxu, baia sistema igualaas e, irespata, gurtekarra..., eta politxo in sosten. Kapritxos, makiña bat buelta erain tzet nik areri.»

Beste adibide bat litzateke erdian intxaurren neurriko zuloa zeukan ohola. Zuloari azpian poltsatxoa ipintzen zioten, eta umeek intxaurrak jaurtitzen zituzten zulotik sartzeko. *Botxoka* esaten zioten olgeta horri, eta huts eginez gero jaurtitako intxaurra galtzen zuten.

Jostailu erosiak

Gizarte tradizionalean askoz diru gutxiago zegoen aldea-etxeetan eta zegoen apurra lehen mailako beharrizanetara, baserriak eman ez eta ezinbestekoak ziren ondasunak erosteko bideratzen zuten, gaurko kontsumo-gurari barik.

Hala ere, XX. mendearen lehenengo erdialdean, kasu bakanak baziren ere, erositako panpin eta jostailuak zeuden Jataben. Batez ere itsasoan zebiltzan jatabearrek euren seme-alaba, loba eta ilobei ekarritakoak. Beti izan da itsasgizonen ohitura etxera bueltatzerakoan opariak ekartzea. Horien artean sar genezake, esate baterako, hiru gurpildun bizikleta.

> «Umek olga, olgetan kuadrillek, oiñ es, oiñ estere bapere olgetan umek, oin bapes. Olgetako jenero asko nik eukitte'nun, ta emeko barrio dustiko jente niana etorte(n) san. Nik gause dustik eukitte nusen bisikletea,

muñekak... ta klase asko. Abuelo ixen sales, makiniste... Bueno makiniste baiño giau ixen san. Ta jenero dustik ekarte(n) eustesan ak, montoik, iñok esaun eukitten muñeka ba(t) peres, ta emeko koitteduk eta danak nire atzen ote(n) siren. Ni ixen nintzen emeko usabandre.»

Horren bidetik aipa genezake gerraostean horren ezaguna zen *Mariquita Pérez* panpina. Gutxi ikusten baziren ere, askok dauka oraindino akorduan.

Kasu batzuetan *tabak* ere erosten ziren. Mungian saltzen zituzten margoturik, eta handik ekartzen zituzten etxean hildako artxoari kentzen ez ziotenak.

Agian sail honen barruan sar genitzake karta-jokoak. Nagusiek ere erabili arren, umeen denbora-pasa ziren eguraldi euritsuko egunetan. Briskan olgatzen zuten, eta galtzaileak kakahueteak erosi behar izaten zituen. Erarik izanez gero, jakina.

Herriko jaietako olgetak

Herriko jaiegun nagusietan seinentzat antolatutako olgetek ez dute beti izan gaur egun duten garrantzia. Nagusiek ospatutako egunak izanik, antzina ez zen umeentzako ekitaldi berezirik egiten. Hala ere, esan genezake Jataben badirela hainbat hamarkada seinentzako olgetak antolatzen hasi zirenetik, kasurako zaku-lasterketak.

Nagusiei begira antolatutako olgetak ere baziren, herri-kirol, norgehiagoka eta lasterketekin lotuta ageri direnak.

Batzuentzako zein besteentzako ekitaldi gehienak eta garrantzitsuenak San Lorentzo egunez, abuztuaren hamarrean antolatzen ziren.

Euretako bat *burutxek batzen* izeneko jokoa zen. Ilaran ipintzen zituzten hainbat burutxa, garandutako artaburua, zestotxo baten aurrean. Zestotxo beste talde egiten zituzten umeek. Jarraian lehenengo parte-hartzaileak burutxak banan-banan, eta albait arinen, sartu behar zituen zestotxoan. Hurrengo parte-hartzaileak banan-banan atera behar zituen zarantxotik eta berriro egondako lekuan utzi. Jokalari beste biderrez batzen eta ipintzen ziren burutxak, kontuan hartuta talde guztiek parte-hartzaile kopuru bera eduki behar zutela. Arinen amaitzen zuen taldeak irabazten zuen.

Olgeta tradizionalen krisia

Olgeta tradizionalen krisiaren arrazoi legez, sarritan, eragile bi aipatzen dira: batetik, seinek olgetarako eremu zabal gutxiago izatea, eta batez ere, telebistak, ordenagailuek zein bideo-jokoek umeengan eragiten duten lilura. Baina baliteke krisi horrek arrazoi konplexuagoak izatea. Gizarte tradizionaleko bizimodua, eta lana ere, aldea-etxe inguruan egituratzen zen. Gainera, hartu-emana batasun soziala osatzen zuen inguruan jazotzen zen. Seina etenbako hartu-emanean bizi izaten zen nagusiekin, eta edade jakin batetik aurrera nagusien zereginetan parte hartzen hasten zen. Harreman horren barruan transmititzen ziren lanerako trebetasun eta teknikak, ezagutzak, sinesmenak, konbikzio moralak, sinboloak eta sinboloen esangurak. Eskolako zereginak osagarriak izaten ziren, eta gehienentzat irakurri, idatzi eta kalkulu aritmetikoa ikastera mugatzen zen. Herri edo auzune bateko umerik gehie-

nak batzen zituen herri eskolak. Jatabeko kasuan, beste herri askotan legez, alboerrietako eskolak parajeago zeudenez, batzuk beste eskola batzuetara joaten ziren arren.

Dena dela, onura handiak zituzten herrietako seinak batzen zituzten eskolek, edade ezberdinetakoak bateratzea, esaterako. Egungo eskola sisteman, sarritan haurrek ez dute euren herriko beste umerik ezagutzen. Aldaketa horren lekuko direnek esaten dute orain ume bakoitza bere etxean dagoela, gero eskolara joateko autobusean sartu eta ez dagoela komunikaziorik. Ikasten duten eskolan dauden umeak ezagutzen dituzte, eta gaur eguneko eskola ugaritasun eta dispertsioa kontuan hartuta, sarri suertatzen da koadrila ere herritik kanpora osatzea.

Nagusien bizimoduan legez, umeen bizitzeko eran ere aldaketa sakonak izan dira. Beharrak geroz eta konplexutasun tekniko handiagoa hartu du, eta, horretara, balio handiagoa eman zaio umearen prestakuntza akademikoari. Ondorioz, eskolak garrantzia handiagoa hartu du eta eskola-sasoia luzatu eta trinkotu egin da. Lehenago astialdi luzea izaten zuten olgatzeko, baina gaur egun sarritan jolas-ordua eta asteburua baino ez dituzte.

Olgetarako erabiltzen direnak ere aldatu egin dira. Artisautza nagusi zen gizartean, eskulangintza teknikak guztiz agerikoak ziren olgetarako jostailu eta baliabideak egiteko garaian. Gizarte industrialak, ostera, elementu mekaniko eta elektrikoz hornitutako jostailuak seriean ekoiztuta opesten ditu.

Gaur egungo gizarte informatizatuak, berriz, ordenagailuen munduarekin lotutako olgeta eta denbora-pasak eskaintzen dizkie haurrei.

Beraz, umeen mundua eta jarrera aldatu badira, nagusien mundua eta nagusien jarrera aldatu direlako da.

VII
AUZUNEA

SARRERA: AUZUNEA ETA AUZOKOA

Auzunea bere jatorrian nekazaritza jarduerarekin zuzen lotuta dago. Bizileku egonkorrak behar dira; familia talde bakoitza higiezin batzuen jabe izatea.

Baina edadeko jatabearren esanean, gerrariak izan ei ziren Jatabeko auzo batzuetako lehenengo etxeen jabeak, eta etxe horiei izena eman zietenak. Billelabaso auzoa, lehenago, Mungiako Billela dorrearen basoak ziren eta handik datorkio izena. Billelatarrek Butroiko gazteluko leinukoekin borroka latzak izan zituzten, eta Jatabe ei zen ohiko borroka zelaia. Butroitarrak Oinaztarrak ziren, Bizkaia Gaztelari lotzearen aldekoak, eta Billelatarrak Ganboarrak, Nafarroako erresumaren barruan jarraitzearen aldekoak. Orduko jauntxo gerlariak basoetatik behar zutenaz hornitzeko sortu ei zen Billelabaso auzoa. Bertako bizilagunek diotenez, berez nahiko eremu lehorra ei da eta ibarreko lurrak baino askoz desegokiagoa nekazaritzarako. Baina basoei etekina ateratzeko leku oso egokian dago.

Bestetik, Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga deritzan auzoa artzain eta ikazkinek sortua da. Bertako gurbizti eta mendi bizkarrak sano egokiak izan dira ikatz egiteko eta ardiak bazkatzeko. Bertako bizilagunak gomuta ona dute, Marutxeaga auzora bizitzen etorri zirenetariko hainbat gipuzkoarrak izan zirela. Artzainen kasuan, negu gogorra egiten zuenean Gipuzkoako Goierri aldetik euren artaldeekin etortzen ziren pastoreak.

Aldea-etxe edo baserri munduan, auzunea sortzeko eta elkarbizitza arau komun batzuen inguruan egituratu dadin, ezinbestekoa da gizatalde hori lurrari lotuta egotea, leku finko batean; higiezinen jabetza antolatzea, herri-ondasunak zehaztea eta baliabide natural eta produktiboen gozamen arautua izatea.

Auzune baten oinarrizko baldintza kokatua dagoen ingurune geografikoa da. Etxeak non eraiki ebazteko orduan, orografia ez eze, klima ere gogoan hartu izan da. Esaterako, ez zen aldea-etxerik eraikitzen iparreko haizeak jotzen duen mendi-

hegaletan, eta ahal dela, ura dagoen lekutik paraje egon zitezen ahalegintzen ziren; beraz, iturriak eta errekak izan dira sarritan auzunearen kokagunea erabaki dutenak.

Aurrekoa esanda, gaineratu daiteke langintza jakin batera emana dagoen gizataldeak eta eurak bizi diren etxeek osotzen dutela auzunea; talde egonkor legez ageri zaigun gizataldea da. Bertakoen arteko hartu-emanak etenbakoak eta iraunkorrak dira. Horrez gain, harreman horiek oinarrizko beharrizanei erantzun dieten erakundeen bidez egituratu izan dira. Horren adierazgarri da auzolana eta baita Marutxeagako *Vínculo* edo lotura ere, bere izenaren bidez auzotasunaren izaera ezin hobeto azaltzen duen erakundea. Auzuneko taldeen bidez herri-ondasunen mantenua eta gozamena arautzen zen. Auzunearen indarra, batez ere, herri-ondasunetan egon da, auzunea osatzen duten etxeen gozamenerako lurretan.

Auzunea, etxeak bere gain hartu eta konpondu ezin dituen arlo guztietan garatu da. Arazo horiek ez dira materialak bakarrik; espiritualak ere badira, eta arazooi auzune barruan eman izan zaie konponbidea. Azken batean, familia baten bizitzaren erdigunea etxea bada, gizarte tradizionalean, bizitza jardueraren esparrua auzunea izan da.

Auzokoa edo auzoa izatea ez da beste baten ondoan bizitze hutsa, gaur egun horretara ulertzeko joera geroz eta handiagoa badago ere. Tradizio gizartean, auzokoa izateak bertakoen arteko hartu-emanetan betebehar eta eskubide batzuk erakarri ditu berarekin, usadioan oinarritutakoak, eta bizitzako egoera eta beharrizan guztiei erantzuten izan diotenak.

Auzokoen artean leku nabarmena bete izan du lehenengo auzokoak, hau da, ondo-ondoko etxean, edo aldea-etxe bereko bestaldean bizi denak, *bestaldekoak*. Horrexekin edukitzen da hartu-eman berezia eta, beharrizana dagoenean, laguntasuna emango du. Izan ere, laguntasun hori emateari ez zaio uko egiten, ez eta etxe bien artean txarto konpontzen direnean edo ikusiezina dagoenean ere.

AUZOKOEN ARTEKO HARTU-EMANAK

Auzokoa etxeko moduan hartzen da, *etxeko lez*. Etxe bakoitzean egiten diren ospakizunetan egotea eta parte hartzeko modua usadio eta ohituren arabera ezarrita dago.

Bizitzako ohikundeekin lotutako ospakizunetan, lehenengo eta behin, normala denez, etxekoek hartzen zuten parte, izan ere, gertakari horiek batez ere etxekoei eragiten diete eta. Baina auzokoak ere modu berezian integratzen dira ospakizun horietan. Parte-hartze horretarako badaude arau batzuk, eta, kasu batzuetan, arauok usadio eta usadiozko eskubide bihurtu dira.

Auzuneko bizilagunen bat agonian zegoenean, auzokoek zeregin garrantzitsua betetzen zuten; esate baterako, abisuak egiten zituzten, azken sakramentuak ematerakoan lagundu egiten zuten... Hiltzen zenean ere, abisuak egiten laguntzen zuten, hilaren etxeko beharrak egiten zituzten, andrezkoek hildakoari hil-jantzia ipintzen zioten eta *gaubelan* parte hartzen zuten. Hiletan ere zeregin garrantzitsua betetzen zuten eta ostean egiten zen bazkarian egoten ziren.

Antzina auzokoen arteko hartu-emanak askoz ere estuagoak ziren. Daniel Agirre eta Mª Karmen Ezpeletaren ezkontzara auzoko andre eta neska gehienak joan ziren, 1963.

Seinen jaiotza ere jakinarazten zitzaien auzokoei. Eta auzokoek, etxekoekin batera, umea egin berri zegoen andreari bisita egiten zioten, opari eta guzti. Bataioan eta ama elizan sartzeko ohikundean ere hartu ohi zuen parte auzoko andreren batek. Partera, osagile eta hilak janzten zituena izan ohi zen, bizitzaren unerik berezienetan leku garrantzitsua zuen andrea. Gizarte tradizionalean ardura eta errespetu handia izaten zuena.

Elkarrizketatutako lekuko guztiek diote aho batez azken hamarkadetan izugarri galdu dela auzokoen arteko hartu-eman eta elkartasuna. Eta eraikuntza berriko etxeekin ematen da, lehenengo aldiz lekukoen esanetan, auzokoek elkar ezagutu ere ez dutela egiten. Horretan garrantzia berezia ematen diote etxeak zuhaixkaz hesitzeari. Joera berri horrek, etxeko intimitatea bilatzen duena, auzokoekin hartu-emana ia ezinezko bihurtzen du. Etxeak elkarren ondoan egonda ere, auzokoek ezin izaten dute elkar ikusi. Eta etxetik irteterakoan ia beti autoa erabiltzeak are gehiago gaizten du auzokoek elkar ezagutzeko eta komunikatzeko guneak izatea.

Horri gehitu behar genioke autoak herritik mugitzeko ematen duen erraztasuna, eta kanpotik etorritako biztanleek hartu-eman sozialei jatorrizko bizilekuan eutsi gura izatea. Bien arteko emaitza da Jatabeko auzokoen arteko geroz eta elkar ezagupen urriagoa. Beste lekuko batzuen arabera, ume gehienak eskola ezberdinetara joateak, eta euren artean elkar ez ezagutzeak, arazoa sakondu du.

BEHARREAN ELKARRI LAGUNTZEA

Auzuneko loturak, auzuneko etxeen artean elkarrekin egiten diren beharretan ikusten dira, era berean. Elkarri laguntzeko era ezberdinak izaten ziren: batetik, zer edo zeren ordean egindako beharrak zeuden, hau da, *ordeak*; bestetik, doan egiten zirenak, edo *karitateko beharrak*; eta, azkenik, beharrizan kasuetan egiten ziren mailegu materialak edo *totoak*.

Etxean ospatu zen ezkontza baten zerbitzen laguntzen joandakoak, c. 1963. Ezkerretik: Emilia Larrazabal, Maribel Larrazabal, Mª Teresa Larrauri, Milagros Larrazabal, Milagros Agirre eta Maribel Areskurriaga.

Behar bat egiteko behar zen eskulana etxekoek eskura zeukatena baino handiagoa zenean egiten ziren ordeak. Lan astunak izaten ziren, beso asko behar izaten zituztenak. Eta lan horretarako auzunekoak batuz gero, askozaz arinago egiten ziren. Behar horien artean zeuden luberria egitea, laiatzea, belarra ebakitzea, garia jotzea, artaburuei kapaxak neguko gaubeiletan kentzea, eta antzinako sasoietan, lihoarekin lotutako lanak, goruetan egitea, eta baita puntua egitea ere; azken behar horiek gauez egiten ziren eta tertuliarako une aproposa ziren sarritan. Ardi-lana moztea eta belarra, ira eta egurra eroatea ere elkarren artean egitekoen barruan egon izan dira. Lan guzti horiek jatordu batekin amaitzen ziren. Eta jatordu horretan bertan lagundu zuten guztiek hartzen zuten parte. Aldea-etxe handietan, ordean oinarritutako auzolana barik, alogerean hartutako beharginak erabiltzeko ohitura sustraiturik ageri da XX. mendearen lehen erdirako. Kasu hori ematen zen ordea egiteko desorekatutako lan zamak agertzen zirenean ingurune bereko etxeen artean. Bestetik,

sasoika ugariak ei ziren euren etxeetatik irten eta uzta sasoia alogerean ematen zuten andre eta gizon taldeak. Dirutan ordaintzen zitzaien egindako lana. Kasu batzuetan inguruko etxeren bateko mutil gazteak hartzen zituzten alogereko behargin moduan.

Karitateko lanei dagokienez, auzokoek presazko edo premiazko lanetan hartzen zuten parte, etxekoek, eskulan urriaren ondorioz, egin ezin zituztenean. Seme-alaba txikerrak zituzten alargunen, bakarrik zeuden pertsona zaharren edo gertaera tamalgarriren bat jasan zuten pertsonen kasua izaten zen hori.

Auzokoen artean egiten zen beste laguntasun mota bat *toto* izenekoa izaten zen. Baina elkarlan mota hori mailegu materialetan oinarritzen zen. Euretariko bat satsa ematea izaten zen, sats-totoa izenekoa. Aldea-etxe batek satsik ez zeukanean, eraiki berria zelako edo ez zuelako behar zuen beste, jabea etxerik etxe joaten zen auzunean satsa eskatzen, eta ahal zuenak gurdikada bete sats ematen zion. Ostean, eskaleak jatordua ematen zien lagundu zioten guztiei.

Auzunekoren batek artegia osotu behar bazuen, izurrite, istripu edo ezbeharren bat jaso zuelako, auzoko artzain bakoitzari ardi bat eskatzen zion. Ordean merienda bat opesten zien. Ardi-totoa esaten zitzaion laguntasun mota horri.

> «Toto urtero-urtero itxen gendun. *Hori zer izaten zan?* Ori ixete san ba emen ingerun idi-busterri(k) taus esta? Parajerengo idiek, baia etze gustitxen oten san idi. Ba lau edo bost edo seiri esan, gurdi bete irea edo ote ekar ber dosu, edo egurre... Ta egun beten imintxen san danana, ta kargau eta ekarten siren, ta ekarri etzera, ta mete itxe(n) san, ta afari emote'aken ta listo. (...) *Eta artegiak egiteko holakorik egiten zan?* Bai. Ordun bardin. Artegi imiñi gure badau, ta posibilidaderik espadeko, dirurik es, itxen sauen toto bat. Afari bet ta ardi bet eroten sendun ara. Ardi bet erregalaten seuntzen ta afari emote'otzun, eta olan asten san artegi. Yon gara aitxe ta biok, ni umetxu, gaste nasela ondikarren, emeti Lemoixera. Toto in san, ardiña ta satzana. (...) Ta gixona pobrea ta etzetxu in sauren, eta diru barik, ta toto in sauen, afari. Satza ta ardik. Ta gurditxu bete satzaas yon giñen aitxe ta biok beiekas emeti. Memorin dekot ondikarren nondi sartu gintzesan ta nondi yon gintzesan. Ta beste batzuk ardi, ardi emo'utzen ta alan in san pastore.»

Goieta auzoan gerraostean jazotako kasua ere ondo gogoan daukate batzuek. Jatorriz Ataundarra zen artzain batek bere artegia galdu ei zuen gerra sasoian. Oinez bueltatu zen bere jatorrizko herrira, Ataunera, eta bertako artzainek ardi bana eman zioten artegia berrosatu zezan. Eman zizkioten ardiak hartuta, Jatabera bueltatu, eta artzaintzan jarraitu zuen.

Beheko surako, laberako eta azpietarako egurra zein otea faltan zutenei ekarri egiten zieten auzokoen artean. Kasu horretan ere, jatordu batekin ordaintzen zieten onuradunek auzokoei egindako mesedea.

Suteren batean erretako etxeak berriz altxatzen laguntzeko ohitura ere egon izan da. Horretarako, auzoko bakoitzak egurra, zuhaitza edo eskulana ipintzen zituen. Azken urteotan laguntasuna dirutan ematen izan da. Egoera bera jazotzen zen etxe berria eraiki gura zutenean, lana egin behar zuenak beharrizana bazuen.

Basotik ekarritako ondasunen bidezko auzokoen arteko maileguari egur-totoa esaten zitzaion. Egur-totoaren barruan sartzen zen erregai eta azpietarako ote eta iren mailegua. Baina XX. mendearen erdialderako, partzela bidezko baso pribatuen sistemak egur-totoa desagertze bidean ipini zuen. Egurrik, erregairik, edo azpietarako ote edo irarik ez zeukanak erosi behar izaten zituen. Aukera izaten zuen beste inoren esparrutik hartzeko, baina diru kopuru bat ordaindu behar izaten zuen gurdikada bakoitzeko. Etxeetarako erregai, azpigarri eta beste zereginetarako egur hornikuntza baso esparru pribatuetatik atera behar izaten zen. Herriko Etxearen basoak eta Aldundikoak beste zeregin batzuetarako ziren, ez hornikuntza pribaturako.

Berriemaileen arabera, totoa egiteko derrigortasuna zutenak idi-uztarridunak izaten ziren. Eta idi-uztarridunei ematen zitzaien ordain moduko jatordua.

Jatordu bidez ordaindu ohi ziren mailegu mota horiez gain, etengabekoa zen auzokoek elkarri epe laburrerako behar zutena utziaz ematen zuten laguntza. Esaterako, zama handiak eroan behar zituztenean, bai plazan saltzeko zein errotara eroateko, guztiz ohikoa izaten zen auzoko batek besteari astoa uztea. Edo egun berezi batean aparteko garraiorik edo beharrik egin behar bazen, auzoko idi-uztarridunek idirik gabekoei laguntzen zieten. Batez ere une gaitzetan, gerra sasoian eta, sufrimenduen aringarri itzela izan ei zen auzokoen arteko laguntasuna.

AUZOLANA

Auzunearen egiturari eragiten dioten lanetan ere inplikatzen ziren auzokoak. Hainbat etxerentzat ezinbestekoak ziren beharrizanei aurre egitea zen helburua. Nekazal bizimodua indarrean zegoen lekuetan, auzunea osatzen zuten etxe guztiek auzolanean parte hartu behar izaten zuten, nahiz eta aurrerago ikusiko dugun moduan, bazen salbuespenik, eta denborarekin batera derrigorrezkotasun hori malgutuz joan zen.

Auzuneko gizon guztiak, hainbat beharretan etxe bakoitzetik bat gutxienez, derrigortuta zeuden auzolanean parte hartzera. Derrigortasun hori ez betetzea sano txarto ikusten zuten garaitiko auzokideek. Orokorrean, auzuneko etxe guztiek ipintzen zuten adin egokiko gizon eta mutilen bat auzolana egiteko. Andre alargunak, edo etxekoak zaharregiak zeuzkatenak bakarrik geratzen ziren derrigortasun horretatik kanpo. Eta hala ere, auzolan osteko jatordua antolatzeko ardura hartzen zuten batzuetan. Bidai edo gaixotasunagatik, etxeren batek ezin bazuen ordezkari egokirik agindu, ordezko bat topatzen zuen, jatordua edo dirua ipintzen zuen. Garai bakoitzaren, eta auzolanean egin beharrekoaren arabera erabakitzen zen ordezko konpentsazioa. Auzolanen araudia usadiozkoa izan da gehienetan.

Batzuetan, etxeren batekoak ez bazetozen, isunak ipintzen ziren, eta lortutako dirua auzolanaren amaierako jatordurako ardoa erosteko erabiltzen zen. Auzolanak gehienetan udagoienean egiten ziren. Baina ustekabeko zer edo zer jazotzen zenean, urteko edozein egunetan egin zitekeen auzolanerako deialdia. Dena dela, baziren urteko sasoi ezberdinetan egin beharreko auzolanak, esaterako, bogada egiteko harriak neguko euriteen ostean euren lekura bueltatzea udaberriko auzolana izaten zen. Deialdia auzo-alkateak, Herriko Etxeak aukeratutako auzolanaren zuzentzaileak

Santa Kurtze ermitako harrizko mahaia, gaur egun San Lorentzo elizan dago, 2008.

egiten zuen garai batean. Baina beranduago, auzo-alkatearen figura desagertuz joan ahala, herriko aguazila hasi zen auzorik auzo egin beharreko lanen daten berri ematen. Elizaren edo ermitaren atarian bertan egiten zen batzarra, eginbeharrekoak zehaztu eta lanaren planifikazioa egiten zen. Egun, San Lorentzo elizako goiko aldean ikus liteke berez Santa Kurtzeko ermitari zegokion harrizko mahaia. Aldeetan irakurtzeko sano gaitzak diren letrak ikus litezke, eta lekukoen esanetan, antzina batzarrak harrizko mahai horren inguruan egiten ei ziren.

Lan batzuetarako, auzokoek erreminta edo uztarriak ipini behar izaten zituzten. Oturuntza eta ardoak adierazten zuten batzarraren amaiera.

Auzolanean egindako beharren artean auzo-bideen garbiketa eta konponketa lanak egon ohi ziren: bidegintza. Auzolan zehatz horretarako Herriko Etxeak zuzendari bat izendatzen zuen, *Kartapasa* izenekoa. Kartapasak erabakitzen zuen noiz egin behar zen auzolana, nortzuk joan behar zuten, zelan egin behar zen lan, zeintzuk erreminta erabili, behar osteko jatorduaren antolakuntza, agertzen ez zena apuntatu... gero Herriko Etxeari isuna ordaintzeko. Sarritan aitzurrekin zabaltzen zituzten bideak. Auzo bakoitzean bat izaten zen Kartapasa, herriko bideen konponketa auzoka banatzen zen eta. Etxeetan gaixorik edo joan ezinik zebiltzanean, Kartapasak entzun behar izaten zituen batzuen eta besteen kexak. Bere beharra, joaten ez zena apuntatzea zen, eta errugabeko pertsona izanda ere, ardura deserosoa iza-

ten ei zen sarri. Auzunea eliza eta ortusantuarekin elkartzen zituen bidearen, andabidearen konponketari garrantzi berezia ematen zitzaion. Auzokoren bat hiltzen zenean, auzokoek eurek garbitu eta atontzen zuten hildakoaren etxetik elizarainoko bidea. Bidegintzako beharrak urri inguruan egiten ziren. Eta batzuetan, premiarik larriena auzune zehatz bateko bideak zuenean, auzune horretara joaten ziren garaitiko auzuneetatik ere. Bide ondoetako ugarrainak garbitzea, sasiak kentzea, harria zabaltzea, gero alper-harri edo zilindroarekin lisatzea... izaten ziren bidegintza beharrak. Urtebete irauten ei zuten konponketa beharretan egindako onurek. Hara bidegintza urterokoa izatearen arrazoietako bat.

> «Errik egun bi imintxen sitxusen erri-bidek arreglateko-edo. Ta egoten san arri apur bet errekatatik-edo batute, al dan moduen ibiltxen giñen sertzen. Errik agintxen saun bide itxeko, sasik ebai txe itxeko, estratzak... bidegintze. (...) Atxurreas. *Etxe bakotxetik bat joaten zan ezta?* Bai, danak yoten siren. *Nork egiten eban hori egiteko deia?* Bueno emen bertoko barriokok akordu artute. Barrioka alkarrartute bide itxeko apur bat sabaldu edo... Selan esaten sakon? Kartapasa esakon esaten? Bat ixete san usaba. Emeko barrioko bat usaba ta ak agintzen saun ser in, ta a oten san ikusten ser bear itxen daun ta nortzu(k) tosan. *Berak agintzen eban bidegintzan?* Bai, berak esate saun illen amakan ta amabien kasureko ba bidegintzan. Ta bakotxa, al daunak, yoten san ta bera bijilantzin egote san nortzu(k) tosan estosan, ta agindu selan in ber dan. Kasu da se agintxen bat egote(n) san, barriada bakotxen bat. *Eta kartapasa nor izaten zan?* Aiuntamintxuk imintxe ongo siren orrek. (...) *Ze sasoitan izaten zan bidegintzea?* Udegoienen ixete(n) san, otubre ingeru-edo.»

Plentziarako kaminoa eta Gatikarakoa estatuak egin zituen, Igida izeneko enpresa baten bidez. Behar horretarako herritarrek dirua eman zuten. Baita, gortetan hormigoia botatzen hasteko ere. Herri izaeradun finantziazio ahalegin hori interes barik eman zuten. XX. mendearen amaierako hamarkadetan asfaltoa zabaldu zen, ez soilik kamino nagusian, baita etxeetarainoko bide ugaritan ere. Horretarako, ingeniari bat egon zen auzo-alkateekin batera lanak zuzentzen. Herritarrek dohainik eman behar izan zituzten lurrak kamino berriak egin zitezen. Biztanle batzuen aldetik mesfidantza nagusitu zen. Auzo-alkatearen ardura etxerik etxe joatea izaten zen, jabeei lurrak emateko eskatzera. Etxeren batera zazpi biderrez joan behar izan zuten, jabeak erakusten zuen aurkako jarrera zela eta. Antzina egin ei zuten Larrauritik Jataberako bidea. Galipotaren aurretik, auzolanean, erreketako harriak hartzen zituzten bidegintzarako.

Bidegintzaren beste atal bat izaten zen etxe egin berrietan, edo zaharrak izanda ere etxerako kaminorik ez zeukatenetan, bidea egitea. Ibarrean era horretako beharrak auzolanean egin ei ziren. Marutxeaga auzoan, ostera, familia bakoitzak bere etxe aterainoko bidea egin izan du, auzokoen laguntza handi barik. Inguruko etxeentzako onuraduna zen bide zatia baino ez ei zen egiten auzolanean. Norberaren etxerainoko bidea eskuz eta pikatxoiarekin egin izan du hainbatek. Hasiera batean basoetako harriak eta gerora galipota botata. Billelabasotik ibarrerako bidea, ostera, inguruko auzokoek egin zuten auzolanean.

Ugarrain eta putzuen garbiketa, ostera, ez ei zen auzolanean egiten. Izan zitekeen auzoan guztiok garai berean ateratzea karkabak, ugarrainak; bide eta soro ertzetako ubideak garbitzea, soro bazterreko errekatxoetan pilatutako orbelak batzea... neguko euriteetan urak ezbeharrik sortu barik korri zezan. Baina bakoitzak bere lur eremua, eta eremutik igarotzen zen erreka zatia, garbitzen zuen. Behar horretan aparteko ardura izaten zuten errotariek. Nasak, edo errekatik errotara doan urak, bidea garbi izan ezik gainezka egiteko arriskua zeukan eta, errotak potentzia galtzeaz aparte. Errekatik errotarako ubideak garbitzen zituzten errotariek udagoienean. Presa garbitzearen moduko behar gogorrak egiten ziren batzuetan. Presatik lurra ateratzen zuten, ur gehiago batu eta errotaren potentzia eta lan gaitasuna handitzeko asmoarekin. Halakoetan, errotakoek auzokoei laguntza eskatzen bazieten, jatordu baten bidez ordaintzen zieten egindako beharra. Ibaiko errotetan, ostera, ez ei zegoen garbitu beharrik.

Iturriak garbitu eta atontzea urtean behingo auzolana izaten zen, ordea. Datu horrek adierazten digu iturriak herri edo auzo-ondasun moduan ulertzen zituztela gizarte tradizionalean. Iturriak garbitzerakoan karkabak ateratzen zituzten, ugarrainak garbitu, lohia eta metalaren arrastoak kendu eta iturri azpietako harriak ondo lekutzen zituzten. Horretara, iturrietatik ondo eta gustura edatea ahalbidetzen zuten.

Iturriak garbitzeko auzolanari lotuta ageri da iturburuak garbitzeko egiten zen beharra. Horren adibide argiena Jatako gailurreko Udola aldeko iturburuena litzateke. Haize iharreko egun sargoritsuetan ardiak Udolara igotzen zirenez edatera, eta Plentziara zihoazen uren iturburuetako bat zenez, urtero igotzen ziren Marutxeaga edo Basordaportu auzokoak, iturburuetatik sasiak kentzera.

Auzolanak, denborarekin, berrikuntzak izan ditu, esate baterako, mendiko suei aurre egiterako orduan. Lehenago artzainek sarri ematen ei zioten su mendiari. Basoari lekua kendu eta ardientzako lantzarrak handitzea izaten zen gizaldietan zehar eman zen borroka horren helburua. Orduko Jatako paisaiak, ostera, ziurtasun osoa opesten zuen suaren aurrean. Izan ere, orduko ardi eta basoetako piztia ugariek guztiz garbi mantentzen zuten mendia. Zidorrak zabalak ziren eta ez ei zegoen sua mendi osotik zabaltzeko arriskurik. Gaur egun, ostera, eta aurreko gizaldiko laurogeiko hamarkadako suteak izan ziren lekuko, pinu eta eukalipto landaketa masiboak, artzaintza eta abeltzaintzaren beherakadarekin batera, sua abiadura bizian zabaltzen duen paisaia utzi dute Jatan. Baso itxia eta sasitza dira nagusi. Hain zuzen ere horregatik, eta laurogeiko hamarkadako sute birrintzaileen ondorioak ikusita, hasi ziren auzolanean su-bideak egiten. Egun, mendiko lurren ustiakuntza ereduaren aldaketaren ondorioz, suari aurre egiteko bitartekoak sortzeko berreskuratu dute auzolana. Hala ere, joera geroz eta nabarmenagoa dago, auzokoek lan egin beharrean, diru poltsa bat sortu eta basoetako lanak enpresa pribatuei esleitzeko. Bai behintzat Aldundiak beregain hartzen ez dituen zereginetan.

Mitologia atalean sakonago aztertuko dugun beste auzolan baten berri jaso dugu, era berean. Gizon askoren lana izan behar izan zelako, lekukoen iritziz, Jata inguruan aurki daitezkeen hainbat harri erraldoi mugitu eta orain gutxi arte egon diren leku eta posizioan ipintzeko indarra. Zaldizuriko harriak, Arrizabale, Arriluze... antzinako jatabearrek auzolanean ipinitako harriak ei dira.

XX. gizaldiko bigarren zatiari dagokio auzolanaren eta lan pribatuaren arteko nahasketa. Esaterako, Añeka erreka ondotik doan errepidea bizkarreko etxe batzuekin lotzeko eraikitako zubia daukagu. Zubi horren premia zuen hainbat etxek. Zubiaren eraikuntza bertako auzoko baten eta hormagin baten artean egin zuten. Inork eskatu barik, baina errekaren beste aldean bizi zirenen pozerako. Beharra amaitutakoan ordaina eskatu zieten egileek zubia mesedegarri zitzaien auzokoei. Baina zegoeneko egina zegoenez, ez zieten zentimorik ere eman. Ondorioz, auzolana sano kalteturik geratu zen, ordearen printzipioa betetzeari utzi ziotelako.

Ermiten txukuntze eta garbitze lanak ere, auzolanaren parte izan dira. Jataben horren ugariak izan diren karobietan karea egitea legez.

ERMITA ETA AUZOA

Baseliza edo ermiten ugaritasuna da euskal giza paisaiaren ezaugarrietako bat. Auzorik gehienetan egon ohi da ermitaren bat. Jataben, ostera, ez da halakorik gertatzen. Izen bereko mendian zegoen Santa Kurtze ermita da biztanle guztien gomutan dagoen bakarra. Garai batean, menditik San Lorentzo eliza ondora jaitsia. Bertan behera utzia eta akabuan aparkalekuak egiteko erauzia. Marutxeagako auzoan, Santupe basoan zegoen eta Agiriano gotzainak XVIII. gizaldiaren amaieran erauzarazi zuen Zoragetxoko, *Sarakotxe*, San Martin ermitaren gomuta lotzen da. Sasoi berean botatako Barasordako Andra Mariaren ermitaren gomutarik ez da agertu gure ikerketan. Baina geroago ikusiko dugun legez, ermita horretan ospatzen zen jaia eta Andra Mariaren irudia, *birjina txikerra*, orain hamarkada gutxi arte indar betean mantendu dira.

Beraz, sano argiak ez diren arrazoiengatik bota bazituzten ere, eta orduko auzoetako jaiegunak, apurka-apurka, ermiten gomutarekin batera ahulduz eta desagertuz joan diren arren, bada oraindino auzo bakoitzak bere ermita zeukan sasoiaren gainean berba egiteko besteko zantzurik.

Izan ere, ermitek funtzio garrantzitsua betetzen zuten nekazal auzoen bizitzaren barruan.

Ermitan auzuneko bizitza kultural guztia batzen zen, batez ere, ermitaren santuaren egunean. Egun horretan, auzuneak bere zaindariaren jaia ospatzen zuen. Auzuneari lotutako guztiek jai horretan parte-hartzeko derrigortasuna zeukaten, zer edo zelan esateko.

Auzoetako egitura kolektibo guztien bilgune, eta batzarleku nagusia, ermita ataria izaten zen.

Egunean zeharreko kanpai-deiek egunaren banaketa ezartzen zuten. Eta gure kasuan, lekukoen gomutan funtzio hori beti elizak bete izan duen arren, ermitek, zutunik zeuden sasoian, funtzio bera beteko zuten. Eta sano zeregin garrantzitsua zen auzunearen bizimoduan. Eliztarrei mezatarako deia egiteko ez ezik, zeregin sozial garrantzitsuak ere betetzen zituzten: kanpaiak joaz batzarretarako deia egiten zen, hildakoen berri eman, "ordara joaz" babazuza edo *abazuze* iragartzeko, edo etxeren zein basoren bat erretzen zegoela adierazteko.

San Lorentzo elizako kanpaia, 2008.

Egia esan, kanpai deiak komunikatzeko modu bat izan dira auzuneko bizimoduan. Kanpaien lengoaia guztiz kodeturik zegoen, eta jendeak bazekien mezu bakoitza behar zen moduan interpretatzen.

Ermita jagoteko zeregina beti egon da ermita horri lotutako auzokoen ardurapean. Behar horretan auzuneko etxe guztiak arduratzen ziren leku batzuetan, hurbilen zeudenak bestetan, eta ermita ondoko etxeko andreak, edo serorak, egiten zuen beste kasu batzuetan. Santa Kurtzeko ermitaren ondoan ardi-txabola eta soroa egon izanak, ostera, ez digu zidor argirik ematen orduko ermita jagoteko moduaren inguruan.

AUZO-ELKARTEAK

Auzunearen esparruan antolaketa sozial eta politikorako egitura bat egon izan da historikoki: kofradia. Herri-ondasunak ditu, eta ondasun horiek auzokoek eurek administratzen dituzte ohiturazko arauen bidez. Batzuetan, arau horiek, idatziz eman dira ordenantza legez. Orokorrean, elkarte horiek ez dira sano handiak, eta auzokoen parte-hartzea eta eginbeharrak araututa daude. Kofradiek antolaketa administra-

tiborako oinarri bat ezartzen zuten, izan ere, deialdiak eta batzarrak egiten zituzten, kontu liburuak idatzi, batzordeak eratu...

Jataben, herri-basoak egon arren ere, ez dago ia kofradiaren gomutarik. Ikerketa osoan lekuko bakarrari egin zaio ezaguna kofradia berba; lehenago *ardintzako kofradi* egoten ei zen, baina gomuta lausoa baino ez da. Herri-basoen kudeaketa Herriko Etxeak egiten izan du. Derrigortasunak ezartzen zituen herritarrek esparru horietan egin beharreko lanak. Sasoi batean etxe guztiak zeuden herri-basoetan landareak sartzera derrigortuta. Gaur egun, ostera, dirua ordainduta ez dute landareak sartzera joan beharrik. Gainerakoa lotetan banatuta zegoen, eta hala dago gaur egun ere. Eta loteei dagokienez, jabetza pribatukoak direnez gero, jabe bakoitzak hartzen zituen erabakiak. Bestalde, Aldundiaren lurrak ere badaude. Baina horietan, auzokoen lekuan, Aldundiak berak agintzen du. Beraz, beste leku batzuetan kofradiak sortzeko baldintza ziren herri-basoak egon arren, ez dago kofradiarik egon izanaren gomutarik. Hiru jabetza mota daude Jata mendian, eta hiruretatik bat bera ere ez da kudeatu kofradiaren bidez XX. mendearen hasieratik, sikiera. Beste herri batzuetan kofradiak bete duen funtzioa, Jataberi dagokionez, Herriko Etxearen, norbanako pribatuen eta Aldundiaren bidez egin da. Bakoitzak jabetza eremu ezberdin bat kudeatu du, eta ez da auzo mailako elkarte kudeatzailerik sortu.

Kofradiaren eginbeharren arteko hainbat, kasurako auzuneko bideak konpontzeko eguna ipintzea, herri basoetako otea eta ira banatzea, negurako egurraren banaketa... Herriko Etxeak ezartzen zituen. Bai behintzat bideen konponketa eta herri-basoen ustiapenari zegokionean. Bestetik, beste baso esparru handi bat pribatuki partzelatuta egoteak, beharrizan guzti horiei era indibidual eta pribatuan erantzuteko aukera eman zuen. Baso pribatuak zeuzkaten etxeek euren esparruetatik lortzen zituzten behar zituztenak. Eta oro har, ez zuten elkarlan handirik egiten.

Kofradiako kideek urtean-urtean aukeratzen zuten euren arteko kideetako bat ardura postuak betetzeko. Postu horietako bat maiordomoarena izaten zen; batzarren deia egitea eta auzokoak batzea, bideak konpondu, arbolak sartu eta beste era bateko konponketak egiteko. Era berean, diruaren administrazioa ere kofradiako kide horrek hartzen zuen bere gain. Jataberi dagokionez, kofradietako maiordomoak betetzen zituen funtzioak Herriko Etxeak betetzen izan ditu XX. mendean.

Kofradiak auzolana zuzentzeko arduraduna izendatzen zuen, gurean *Kartapasa* zena. Aurretik esandakoaren ildo berean, Kartapasaren aukeraketa Herriko Etxeak egiten zuen. Baina hortik aurrera, bidegintzari zegozkion beharretan, kargu hori zeukanak agintzen zuen egin beharrekoa, parte hartzen zutenak eta ez zutenak identifikatu, isunak ipini, amaierako jatordua ziurtatu eta Herriko Etxearen aurrean azalpenak ematen zituen.

Herri-basoak izan dira auzo-elkarteen eraketarako ezinbesteko baldintza. Basoak izan dira auzoko eta herriko ondasunik handiena, izan ere, eraikuntzarako, tresna eta altzariak egiteko, etxea berotzeko, karobietarako, labeetarako eta ganaduen azpietarako lehengaia opesten zuten. Neguan egurra botatzera eta gurbitzak ateratzera joaten ziren, sugarri moduan erabiltzeko, gehienetan. Marutxeaga alderdiko gipuzkoar jatorriko artegidun etxeek batzen zuten ira, batez ere. Ardien azpietarako eta metaren bat egiteko erabiltzen zuten gehienbat. Ibarrerantz joanda, ostera, otea

erabili izan da iraren ordez, indartsuagoa ei delako. Ibarrean, Erbera zein Ergoiengoek, iraren erabilera Goietakoekin lotzen izan dute.

Bizkaiko beste herri batzuetan ez bezala, Herriko Etxeak kudeatu ditu zuzenean herri-ondasunak. Lehenago deskribatu dugun partzela pribatuen eta Aldundiaren ardurapeko basoekin batera, hirugarren jabetza eredua eratu da Herriko Etxearen inguruan.

Arbola-sartzea ere auzolanean egiten zen, behar sano garrantzitsua zen eta Herriko Etxeak agindu eta kudeatzen zuen. Urteko egun jakin baten, aita-semeak, herri-baso horietan landareak sartzera eta zuhaitzak jagotera joaten ziren. Kanpaijotzeaz iragartzen zen beharraren hasiera. Berba egin dugun lekukoen arabera, landareak sartzea eta herri-basoetan behar egitea jatabear askoren lanbidea izaten zen gerra aurretik. Egun seinalatu bakarrean ez ezik, urte osoan jarduten zuen baso-lanetan hainbat gaztek, aldea-etxeko beharraren osagarri modura, eta beste beharmoduetan sartzeko zituzten eragozpenen eraginez. Dena dela, urtean behingo landare-sartzean parte hartu beharra biztanle guztiek ez zuten gogo onez onartzen. Lekukoen akorduan dago, ezadostasuna erakutsi guran, pinu-landarea buruz behera sartu zuenik ere izan zela.

Ondorioz, argi ikus genezake, gurean Euskal Herriko antzeko ondasun eta jabetzak dituzten herrietan ez bezala antolatu dela kudeaketa. Hiru jabetza mota: Aldundia, Herriko Etxea eta norbanakoak, ageri zaizkigu. Herri ondasunak udalak berak kudeatzen izan ditu zuzenean, eta ez dago instituzioetatik kanpoko kofradia eredurik. Ermitek aspaldi indarra galdu izana izan liteke antolakuntza eredu horren zergatia. Ermitak zutunik eta indarrean mantendu diren lekuetan, auzo-elkarteak mantendu izan dira eta. Azpimarratu beharrekoa da, herri egutegiaren barruan ikusiko dugun legez, ermitetako jaiak antolatzeko, kasu batzuetan, auzo egiturak mantendu izan direla orain gutxi arte. Beste batzuetan, elizak berak kudeatu ditu ospakizunak, Santa Kurtzeren kasuan legetxe. Hala ere, garai bateko auzo-elkarteen kudeaketa zantzuak ageri izan dira, oraintsura arte. Esaterako, jai-egunerako ardo zahagia auzuneko biztanleen artean ordaindu izan dute, diru kopuru berdinak, *eskota*, ipinita.

XX. mendera arte jarraitu izan du herri-basoak pribatizatzearen inguruko eztabaidak. Udalerriko premiei erantzuteko saltzearen aldekoak izan dira batzuk, eta baliabide horiek ustiatzen jarraitzearen aldekoak besteak. Gaur egun, Jatabeko herribasoak XX. mende amaierako neurrian mantentzen dira: Katiluzubitik gorako esparruetan, Unpara aldean eta Lamitzeta inguruan.

Gure ikerketa saioan ez dugu kofradiaren arrastorik topatu. Herriko Etxeak betetzen zituen klasikoki aipatutako auzo-elkarteari zegozkion funtzioak. Gainera, hiru jabetza mota deskribatu ditugu Jata mendiko basoak kudeatzeko ereduaren barruan.

Ostera, administratiboki lehenago Mungia eta egun Lemoiz den Marutxeaga auzoko esparruan, baliteke antzinako auzo-egitura administratzaile baten zantzuak egotea.

1854. urtean Goya Arrola sendiak sinatutako harlandua ageri da auzoari izena ematen zion Marutxeaga etxean. Bertan, *APEO DEL VINCULO DE MARUSEAGA* irakur liteke. Batetik laurogei eta hamarrera doan zentsu batek jarraitzen dio.

Marutxeaga etxeko harlandua, 2008.

Vinculo berbak oinordekotza esan lezake, hau da, etxe horri lotutako lurren banaezintasuna eta mugak adieraziko lituzke aipagai dugun harlanduak. Baina izan lezake bigarren esangurarik ere. Izan ere, *Vinculo* izenekoak antzinako nekazal auzo-elkarteak izaten ziren. Herriko Etxeen aurrekoak, oinarri administratiboa auzoa zen garaietan sortuak. *Apeo* berbak adierazten digu ondo mugatutako lur eremu baten inguruan gabiltzala. Eta inguruko lurretan erraz igar litezke oraindino ere mugarriak.

Bestetik, *Vinculo* berbak Nafarroako legeei, eta ondorioz, Bizkaiko foruei lotutako elkarte baten berri ematen digu, estatuko beste lurralde batzuetan *Pósito* izenarekin ezagutu izan dena. Auzo-elkarte horiek, XVI. mendeko testuek antzinako erakunde modura aipatzen dituztenak; auzoko eta kanpotarrek, erromesak barruan direla, ogia ziurtasunez eta salneurri egokian lor zezaten eratu zituzten. Nekazal krediturari erantzuteko bitarteko legez hartzen dute adituek. Eta karitatearekin lotutako funtzioak zeuzkan, esaterako: garia maileguan ematea, interesik kobratu barik, alargunei, nekazari pobreei, erromesei... Azkeneko datu horrek ideiaren bat eman liezaguke kokapenaren zergatiaz, izan ere, Marutxeaga etxetik igarotzen zen galtzada zaharra, Donejakue bideko kostaldeko adar bat izan zitekeen. *Vinculo* izeneko elkartea auzoko gari biltegi baten modukoa zen, sikate eta garestitze sasoietan ereiteko eta jateko maileguak ematen zituena, interes barik, herritar xumeenak lukurreriatik

babesteko. Foruen galerarekin desagertu ei ziren *Vínculo* izeneko elkarteak, 1876. urterako Bizkaian. Hogei urte lehenagokoa da Marutxeagako idazkia, eta harrian idatzitako gauza guztiak legez, iraunaraztea zen egileen helburua.

LAGUNTASUNA EMATEKO MODU TRADIZIONALAK

Etxeko esparrua gainditzen duten beharrizanei erantzuteko asmoz, antzinaantzinatik elkarri laguntzeko elkarteek funtzionatu izan dute. Borondatezko elkarte horiek ermandade izenarekin ezagutu izan dira. Batzuetan, berba horrek ermandadeen artean ezagunena izan dena ekarri ohi digu burura, abeltzainena. Etxe errea, edo *etxerre*, ostera, suteen aurkako aseguru elkartea dugu. Badago, era berean, hileta gastuetarako, altzariak aseguratzeko... elkarte edo mutualitaterik. Kasu batzuetan, elkarte horien esparrua auzunearena baino zabalagoa izaten da.

Ermandaderik garrantzitsuena, ganaduaren arduraz osatutakoa, auzunean ganadua zuten etxerik gehienek osatzen zuten. Aseguru mota bat zen, gerora *igualatorio* berba emango zuen *iguala*, edo etxe batzuen artean ordaindutako aseguru mediku antzeko bat. Ermandadea ordaintzen zuten ganaduen (behien) istripu, gaixotasun eta heriotza kasuetarako. Era horretako ezbeharren bat jazotzen zenean, etxe bakoitzak eskudirutan indemnizatzen zituen kaltetuak, aseguratutako kopuruaren arabera. Laguntasun mota hori behi-aziendetarako baino ez zen izaten; kanpoan lotzen ziren abere txikiagoak, eta idi-pareak izaten ziren garrantzia handieneko abereak. Etxeren batean idiren bat tragatzen zenean, gainerako bazkideek, ermandadeko kideek, dirua ematen zioten ugazabari, galera garrantzitsu horri aurre egin eta uztarria osatzeko.

Baserri eremu askotan ohiturazkoa da elkarri laguntzeko elkarteren bat izatea, hau da, sute kasuetarako asegururen bat izatea, etxe errea izenekoa. Etxejabeak baino ez dira elkarte horretako bazkide, eta ganadua babesteko ermandadeen antzera funtzionatzen dute. Etxeak, gehienetan, behar luketen balioaren azpitik tasatzen zituzten. Sutea dagoenean, kaltetutako familiari hainbanaketa sistemaren bidez ordaintzen diote ermandadeko kide guztiek, etxe bakoitza aseguratu den proportzio berean. Elkarteko idazkariek koaderno bat izaten zuten, ermandadea osatzen zuten etxeen zerrendarekin. Elkarte guztiz autonomoak izaten ziren, eta nekez jotzen zuten justizia ofizialera elkarteko kideen arteko auziak konpontzeko. Era berean, etxe bat erretzen zenean, ohikoa izaten zen jabeek senideei eta beste auzune zein herri ezberdinetako bizilagunei laguntasuna eskatzea. Dirutan, egurretan edo esku-beharrean kobratzen zen laguntza hori etxerik etxe eskatzen zuten. Eta hain zuzen ere, metodo horrek ekarri zuen etxe erre ermandadeen gainbehera handia. Izan ere, askok edo gutxik egin, etxe bat erretzen zenean kaltetutako familiarentzako diru eske irteten ziren mutil koadrila batzuek gero euren poltsikorako hartzen zuten dirua. Eta jokaera horiek sortu zuten mesfidantzak izugarri gaiztu zituen etxe erreak konpontzeko diru, egur eta eskulan bilketak.

HERRI-LURRAK

Herri-ondasunak aipatzen direnean, hor ez da bakarrik sartzen lur edo baliabide natural batzuen gozamena; herrien bizimodu kolektiboa ere adierazten da: aldea-etxe mundu tradizional horretako jarduera askotan zer edo zelako "elkartasuna" izan den, auzuneko ondasunei etekina atera eta eurei ardura hartzeko zereginak banatzerakoan. Baliabideak ugariak ez zirenez, herri-ondasun batzuk gorde egiten ziren, etxe guztientzako janaria eta gutxieneko baliabideak bermatzeko. Baliabide horien gozamena auzoko guztiena zen.

Lehen lantzar eta zelai izandako lurrak, orain pinuz eta eukaliptoz estalita daude, 2008.

Hasiera baten, mendi bizkarrean ziren auzuneetako bizibide nagusia artzaintza zen. Baina denborak aurrera egin ahala, bizimodu horri gutxi batzuek baino ez zioten eutsi. Hala ere, abeltzaintzak eta nekazaritzak gaur arte iraun dute biztanle gune edo auzune sakabanatuetako bizilagunen lanbide nagusi legez. Komunitate horren ekonomi oinarria, ohituraz, herri-lurra izan da. Jatorriz, lurrak herriarenak ziren, komunalak, eta orain dela gutxira arte landu gabeko lurrak; basoak eta goialdeetako lantzarrak, herri-lurrak izan dira.

Gozamen erregimen hori aldatzen hasi zen, behealdeko ibarretan lurra lantzen hasi zirenean. Nekazaritzak lur jakin baten behar intentsiboa egitea eskatzen du, eta lur hori eten barik eta belaunez belaun jagon behar da. Landutako lur horretan gizakiak egiten duen beharra sano handia da. Ostera, ez da gauza bera jazotzen ar-

Orain Jata inguruan pinua eta eukaliptoa dira nagusi, 2008.

tzaintzarako erabiltzen diren lurrekin. Hori horrela izanda, laster hasi ziren lurrei mugarriak ipini eta jabetasuna ematen. XX. mendean ere antzeko prozesua ezagutu da, gehienetan lurra pribatizatzera heltzen ez bazen ere. Alogerean eman ohi ziren herri-basoak. Errentan hartzen zituztenek zuhaitzak kendu eta soroak egiten zituzten. Ez ei ziren lur on-onak, baina patata, erremolatxa eta lur berrian sartu ohi diren jeneroak ereiteko erabiltzen ziren. Inguruko herrietan ere antzeko prozesuak gertatu ziren, Gerra Zibilaren inguruan batez ere; elikadura premiak lur gehiago ustiatzera eroan zituen biztanleak.

Edozelan ere, oraintsuko denboretara arte baserri-auzoek lur asko erabili izan dituzte goialdeetan; eta hori herri-lurtzat hartu izan dituztelako. Auzuneko etxeetatik ganadua lur horietara eroaten zuten; eta egurra ere lur beretatik ateratzen zuten. Jatabeko kasuan, une jakin baten herri-lurren zati handi bat herritarren artean banatu zuten. Lote pribatuak egin zituzten, baina bakoitzaren eremua izendatu barik. Jabe txikien artean banatzen ziren 22 lote, hain zuzen ere. Ondorioz, jabetza pribatuko lur bihurtu arren, herri-lurren funtzionamenduari eutsi zioten. Librea zen herriko ganaduak partzelatutako esparruan askatzea, han bazka zitezen. Hala ere, orokorrean funtzionamendua hori bazen ere, bazen jendea, bere partzelan abererik sartuz gero, abereak hartu eta Herriko Etxera isun eske jaisten zituztenak. Gutxienak ei ziren. Era berean, ganaduak Bakio eta Jataberen arteko muga igaroz gero ere arazoak izaten ziren. Baina horren gainean artzaintzaren atalean jardungo dugu.

Gerora partzela hauek, izendatu, lekutu eta abeltzaintza eta artzaintzaren beherakada gertatu ondoren, ustiapen pribatuko baso bihurtu ziren. Baso partzela priba-

tuak dotetzat erabili izan ziren aldi batean, ondasun gehiagoren faltan. Prozesu horrek jabetzak, eskuz aldatu eta geroko salerosketen bidez, kontzentrazio maila batera eroan ditu. Bien bitartean Herriko Etxeak eta Aldundiak lur komunal edo herri-lurrei eutsi egin diete.

Baina XIX. mendean aldaketa sakonak izan ziren herri-lurren erregimenean. Gerra karlisten ostean, bai eta lehenagoko Independentzia gerra deitutakoaren ostean ere, zerga gogorrak ipini zizkieten Herriko Etxeei, eta ondorioz, euren mugapeko herri-lurrak saltzera behartu zituzten. Era horretara etxe batzuek, behar den aberastasuna zutenak, pribatu egin zituzten ordura arte gozamen erregimenean erabili zituzten lurrak. Geroago, ordaintzen zuten kontribuzioan oinarrituta, aldea-etxe askok euren izenean erregistratu zituzten gozamen erregimenean zeuzkaten baso-lurrak, bertan sartutako arbolak arrazoitzat hartuta.

Lehenago aipatu dugu Jatabeko lurretan hiru lur-jabetza mota izan direla XX. mendean. Aldundiaren basoak, Herriko Etxearen basoak, eta jabetza pribatuko baso esparru eta nekazaritza lurrak. Herri-lurren ustiaketa librearen zantzuren bat heldu da, hala ere, gaur egunera arte. XX. mendean ere izan dira oraindino, herri-lurretan soroa laiatu eta uzta jaso izan arren, lurrok pribatu bihurtu ez dituztenak. Goieta edo Marutxeaga aldeko lurretan jazo da batez ere fenomeno hori.

Herri-jabetzako lurren kasu antzekoa da erreka bazterreko zuhaitzena. Legediak agintzen du hesiak eta eraikinek erreka emarietatik gutxieneko distantzia batera egon behar dutela. Hori dela eta, erreka bazterreko lurren inguruan ere jabetza hutsunea egon da. Zer esanik ez dago, lurrok, berez, inguruko etxeetakoek erabili izan dituztela. Orokorrean, uriolen arriskupean dago bertan eraikitako edozer. Baina erreka bazterreko zuhaitzak, dauden lekuan daudelako eta zur ona ematen dutenak izanda, jabetza pribatuaren morrontza barik ebaki eta ustiatu izan dira. Batez ere erremintak, edo erreminten kirtenak egiteko.

Herri-lurrak urritu diren neurrian, auzokoen artean lehen ziren hartu-eman askok bere zentzua galdu du. Azken urteetan txaletak eraikitzeko ere saldu izan dira herri-lurrak. Bestetik, etxeak utzi egin dio gure lurraldeko egitura politiko-administratiboan oinarrizko erakunde izateari, eta garrantzia galtzen joan den neurrian, desagertuz joan da auzunearen eta auzokoaren kontzeptu tradizionala.

Herri-lurren kontzeptuaz gainera, herri-urena ere badugu. Izan ere, azken aldiotan iturburuak euskal herri askotan pribatizatzen joan dira altsika-altsika. Lehenago, goian esan denez, iturriak garbitzea auzo-lan legez hartzen zen. Beraz, ura, ondasun kolektibotzat jo izan da.

Ez da ezagutu izan, erreka inoren lurretatik igarotzeagatik emaria urritu edo ebakitzeko eskubiderik. Eta Jatako urak etxe barruko txorroetara heldu zirenean, *herriko ure imiñi du* esaten zen. Plentziako herria hornitzen bazuten ere, jatabearren herri ondasuna dira euren aldera datozen Jatako urak.

ESPARRU BIREN ARTEKO MUGAK

Urak izan dira tradizioz, esparru, lur eremu eta herrien arteko muga naturala egiten izan dutenak. Ibai eta errekek bete izan dute antzinako garaietatik funtzio hori.

Butroi ibaiak bereizten ditu Gatika eta Jatabe, Añeka errekak banatzen ditu Ergoien eta Erbera.

Iturburuen isurialdea beste muga mota bat izan da. Jatabera doazen uren sorrerako lurrak herri-lurrak dira. Baina isurialdea aldatzen denean, Bakiora doazen uren sorrerako lurrak Bakiori dagozkio. Mendiak ezinbesteko muga sekula ez dira izan, baina isurialdeak, ostera, gizataldeen arteko muga izan dira antzina-antzinatik.

Denboraren joan-etorrian, urek mugatutako lurren barruan ere banaketak gertatu dira. Eta beste irizpide batzuk erabili behar izan dira lur zatituon arteko mugak zehazteko. Esaten dute, artegi eta artzain bati zegokion barrutia mugatzea izan zela gizakia halako lur-banatze beharrizanean ipini zuen egoera zaharrenetariko bat. Hortik sortu ziren gortak, haustarriaren inguruan egituratzen ziren erabiltze edo gozamen esparruak. Jabetza kontzeptua bera ere denborarekin aldatuz joan da.

Nekazaritzarako lurren pribatizazioak eta lege zaharrak ahazten edo aldentzen joan izanak ekarri zuen, lur eremu eta esparru ezberdinen artean mugak zehaztu beharra. Izan ere, nekazari herrietan izan diren istilurik gogorrenak lurren banatze mugen inguruan sortu izan dira.

Esparru ezberdinak banatzeko erarik nagusienak honako biak izan dira tradizioz: palatua eta *munarria*.

Palatua, jabe diferenteen arteko basoak bereizteko egiten den karkaba, muna edo zuloa da. Zulatzean ateratzen den lurra palatua egiten duenarena da. Ondorioz, palatuko lurra jaurtitzen den alderantz, beste jabearen lurretan, hiru metroko distantzia palatua egin duenarena da. Lur arlo osoak inguratu izan dira palatuekin mugak ondo bereizteko.

> «*Lurrak banatuteko munarria erabilten da, ezta?* Bai. *Azpian teila zatia ipinten zan?* Bai. *Eta iketzik?* Iketza bere batzuk imingo deude, baia iketza estaunen talle, printzipal talle. Mogiduten badeure bere ikusteko gero non egon dan. *Palaturik erabili dozue?* Palatu bere bai, au etze palatues buelta gusti isitte on san, usabak, ta palatuti daus lau metro kanpora edo iru. *Eta palatutik kanpora dauena bere norberarena da ezta?* Bai. Palatu da sulo handi, ta gero munarrik, separasiño. An goien bere an daus munarrik.»

Mugarriak, arloen arteko banaketa egiteko ez eze, herrien arteko banaketak egiteko ere erabili izan dira. Mugarririk handienak herri-lurrak beste herrien lurretatik banatzeko, *herrin aparterako*, ipintzen zirenak ei ziren. Eta dolmenak, edo mairuetxeak ere herrien lurrak banatzeko isurialdeen arteko mugetan ezarritako mugarriekin lotzen dituzte, kasu batzuetan.

Mugarriak, legezkoa izateko, baldintza batzuk bete behar ditu. Kasu askotan mugarriaren ondoan beste harri txikiago bat ezartzen da. Hori, mugarria mugituko balitz ere, lurren banaketaren posizioa edukitzeko eta, batez ere, ondoan dagoen harri handiagoa mugarria dela adierazteko erabiltzen da. Bestetik, mugarriaren azpian ikatza edo teila zati bat ipini ohi zen. Lekukoek diotenez, ikatzik ez zegoenean sartzen ei zen teila, baina euren gomutan teila, *talle*, izan da erabiliena.

Teila jabetzaren ezaugarria da euskal kulturan. Mugarria lekuz aldatua gertatzen bazen, jabeak aitzurrarekin teila bilatzen zuen jatorrizko lekuan. Teila edo ikatza agertuz gero, mugarria aurreko lekura bueltatu beharra zegoen.

Ibarreko biztanleek esaten dute Marutxeagako mugarriak handiagoak direla behekoak baino. Izan ere, ibarrean, Ergoien zein Erberan, askotan soroetako ugarrainak erabili izan dituzte lur eremuak mugatzeko.

Herri egutegi eta mitologia ataletan ikusiko dugun legez, mugarriek, edo mugarri batzuek behintzat, handienak eta mairu-etxeetatik bereizten gaitzenak direnak –nahiz eta argi egon ez bereiztu behar liratekeen ala ez–, sano garrantzitsuak izan dira jatabearren bizimoduan. Jai-gune diren eta erlijio zantzua duten leku guztiek izan dituzte. Hiruko zenbakian askotan: Txiboko landa, Kredoko landa, Marutxeagako landa, errogatibetako gurutze-bidea... lurrak bedeinkatzeko ospakizunekin lotuta ageri dira eta baita ostendutako altxorrekin ere. Itzal handiko etxeen inguruan ere mugarri handiak ei zeuden; hala, esaterako, Jataberi izen administratiboa eman dion Marurinagusi etxearen ondoan.

SALEROSKETA KONTRATUAK. LEKUA BERME MODURA

Egungo zuzenbide estatua garatu baino lehen, era askotara finkatu izan dituzte herritarrek euren arteko salerosketak egiteko arau eta bermeak. Zin egiteko, epaiketak egiteko eta salerosketak egiteko leku jakinak egon izan dira. Gernikako haritzaren azpian defendatu behar zuen bere burua foru zaharrean, zer edo zer dela eta akusatua zen bizkaitarrak. Eta haritzaren aurrean beti egia esatera behartuta zegoen. Leku berezien inguruan egituratzen dira legeak, justizia eta zin egitea.

Jataben ere, antzeko zer edo zer jazotzen zen Bakioko lurretan dagoen *Belate(gi)ko* landan; horren gomuta Marutxeagako artzainen artean bakarrik gorde izan bada ere.

Bertan batzen ziren Jatako alde bietako artzainak, Bakiokoak eta Jatabekoak, euren artean salerosteak, ordainketak, ganadu trukeak edo arraza gurutzaketak egin edota ardien gaixotasunak osatzeko. Era berean, bertan egiten zituzten artzainen arteko festak ere.

Garagarril edo jorrail inguruan batzen ziren artzainak. Han Jatabeko artzainek Bakiokoei dirua ordaintzen zieten, eta hauen artean arduradun zenak Aldundiari entregatzen zion dirua. Ordainketa hori, ardiak alde batean eta bestean libre ibiltzeko eskubideagatik izaten zen. Hilario izeneko artzain bat izan zen XX. mendearen bigarren erdian dirua batu eta Aldundiari emateko ardura eduki zuena.

Ganadu ermandadeek ere, urtean behin euren abereak batzeko leku jakinak izaten zituzten.

NEURRIAK

Egun sistema metriko bateratua dago Ipar Hemisferioko mendebalde osoan. Kultura anglosaxoiak gorde dituen unitate batzuk kenduta, guztiz bateraturik daude pisu, luzera, bolumen... neurriak. Tradizioko euskal gizartean, orain arrotz egiten zaizkigun neurriak erabili izan dira gizaldi askotan. Azkenean, merkatuak eskatuta garatu denez batasun premia eta bere nagusitasuna, balio praktiko barik geratu dira neurri zaharrak, ia guztiz desagertzeraino. Baina adineko jendeak oraindino gomu-

tan ditu oraintsura arte indarrean izan diren neurriak, eta gaur egun ere lehengo izenak erabiltzen dituzte sarritan.

Lurren luze-zabalera neurria

Lurra neurtzeko oinarrizko unitatea *gizelan* edo gizalana da. Bi eratakoak daude, handiak eta txikerrak, herriaren orografia eta jabetza ereduaren arabera neurtzen direnak. Gizalanak, *gizelan* delakoak, izenak berak dioenez, gizon batek egun bateko beharrean landu zezakeen lur eremu hipotetikoa adierazten du. Gizalan handiak 380 metro karratu ditu eta txikerrak 280. Herri bakoitzean gizalan mota bakarra erabiltzen da. Esaterako, Jataben gizalan handia erabiltzen da lurra neurtzeko eta Gorlizen txikerra. 25 gizalanek hektarea bat egiten dute, gutxi gorabehera.

Lurrarentzako luzera neurria

Lurraren luzera neurri erabilienetakoa *untze* edo iltzea izan da. Oraindino ere indarrean dago idi-proba eta antzeko herri-kiroletan. Iltzeak, 26-28 metro inguru ditu, eta probalekuaren luzera markatzen du Euskal Herriko lekurik gehienetan.

Pisuari lotutako luzera neurriak

Arra dugu tradizioko beste neurri modu bat. Erkoroa eta atzamar txikerra luzatu eta garaitikoak jaitsiz gero, surf-arien modura, mutur batetik bestera dagoen luzerari esaten zaio arra, edo *arra bete*.

Antzina, neurri guztiak legez, nahiko zehaztuta zegoen arraren balio numerikoa. Hala izan ez balitz, sekulako istiluak sortuko ziren bestela. Gaur egun, tamalez, gomuta denborarekin batera doanez, gutxi gorabeherakoak direla esango dugu.

Ontza luzerari dagokion neurririk txikerrena da. Hatz bete, edo atzamarraren neurriarekin lotuta dago.

Kana izan da, luzera adierazten duen arren, abereen pisua neurtzeko erabili izan den beste neurri modu bat. Antzina oihalak edo eta luzeran erosi beharreko jeneroak neurtzeko erabiltzen zen. Egun, ostera, aizkolarien desafioetan mukurren lodiera neurtzeko baino ez da erabiltzen. Kanak, berez, 835,9 mm ditu.

> «*Ganadua zelan tasetan zan?* Ba kordelaas, edo bisdera itxe san. Kordelaas probatarako, me(g)idute ameti. Probatarako medideti, kanakas, kane, saspi kana... Segun selau proba(k) tiren, arri txikerra edo andikok. Bedratzi andikok pentzat'ot ixen sala, ta saspi, ta gero andi gora paste(n) basan, onenbeste kargate eutzen arriri pixu. Megide imintxe oten san: are ixete san, are sakuk: ogetabost killokok, txikerrauk, danatarikok.»

Pisuarentzako neurriak

Libra izaten zen pisua neurtzeko unitate txikerrenetarikoa. Libra diferenteak daude, izen bera eduki arren. Gure kasuan erabiltzen zenak kilo erdi pisatzen zuen, ingelesaren 0,452 kilogramoen aldean.

Erraldea, ganadu nagusia, behiak, idiak, txahalak... pisatzeko neurria izaten zen. Erraldeak egungo bost kilo inguruko pisua hartzen zuen.

Txerrien pisua neurtzeko, ostera, "arroba", *arro*, erabiltzen zen. Hamabi kilo eta erdikoa zen arrobaren pisua.

> «*Uruna zelan pisetan zan?* Anegatan, berrotamar killo, eta libre eta killo. Anega bat eta libre bat-edo. *Librak zenbat dauka ba?* Librak emen killo erdi emekok. *Erraldeak bere erabilten dira, ezta?* Bai, erraldek ganaduntzako, erraldek bos(t) killo eta arrok amabi killo, arrok txarrintzeko ta. Oin bere arrotan itxen du guk. Amabi arro dekos, dana arrotan, killotan iños beres.»

Kintala izaten zen pisua neurtzeko unitaterik handienetakoa. Izan ere, tradizioko gizarteak erabiltzen zituen pisu neurriek, gizon baten lanerako eta garraiorako indarra hartzen zuten oinarrizko erreferentzia legez. 50 kilokoa da kintalaren pisu neurria.

Laboreentzako pisu neurriak

Laboreek, tradizioko gizartearen janarietan, elikaduran, oinarrizko funtzioa izan duten nekazari produktuek, euren pisu unitateak izan dituzte. Pisu neurri horiek zehazteko, eta bateratzeko, edukiontziek berebiziko garrantzia izan dute. Hau da,

Artzea, garaua hartzeko edukiontzia, 2008.

Zelemina, 2008.

edukiontziaren neurriak zehazten zuen pisu unitatea. Era horretara, aldea-etxeen arteko trukeek, merkataritza eta errotarekiko tratuak bideratzen zituzten.

Imiñe edo imina zen laboreentzako pisu neurririk txikerrenetarikoa. Egungo sei kilogramoko pisua zeukan, eta edukiontzi txiker baten bidez neurtzen zen.

Zelemiñe edo zeleminak 12 kilogramo eta erdiko pisua zeukan. Eta hori ere, edukiontzi bidez neurtzen zen.

Artze esaten zitzaion zumitzezko astadun pala handi baten itxura daukan garaua hartzeko edukiontziari. Aurreko neurriak baino garau pisu handiagoa mugitzeko erabiltzen zen. Baina ezin izan dugu batu zein pisu kopuru zehatzekin lotzen zuten garai bateko erabiltzaileek.

Errotara eroaten zen laborea neurtzeko, anega izaten zen tradizioko gizartean erabiltzen zuten neurria. 55,5 litroko edukiera zeukan eta berrogei eta hamar garau kilo ingururekin lotzen dute erabiltzen zutenek. Anega neurtzeko arkak erabiltzen ziren.

Edukiera neurriak

Likidoei lotuta ageri dira edukiera neurtzeko neurriak. Edariak izaten ziren sarritan, ardoa batez ere, edukierari lotutako neurriak gaur egunera arte iraunarazi dituztenak.

Esnearen inguruko ustiapenak, *orio* edo olio erosketarekin batera, garrantzia izan zuen edukiera neurriak erabiltzen jarraitzeko orduan. Egun, ostera, neurri uniformizatuen aurrean ahazturik daude euretariko gehienak. Esan behar da era berean, likidoekin lotuta ageri badira ere, gauza solidoak neurtzeko ere erabili izan direla batzuetan.

Katilukada, zarankada, eskukada, esku-bete... edukiera neurtzeko gutxi gorabeherako neurriak dira. Aipatzen den edukiontzia, *-kada* atzizkiagaz batera, edo eskuaren neurriaren araberakoa.

Azunbrea da edukiera neurtzeko neurrien oinarrian dagoena. Litro biko edukia adierazten du. Hala bada, azunberdiak, guztiz erabilia izan den neurri eratorria bera, litro baten edukiera adierazten du.

Kuartiluak, edo azunbrearen laurdenak, litro erdiko edukiera dauka.

Eta azkenik, *errade* edo edarrak hamar azunbreko edukiera zuen. Hori izaten zen gutxieneko zehaztasunez ezarritako edukiera neurririk handiena. Hortik aparte, tinakuak, kantinak, kaikuak... edukiontzi mota ezberdinak egon dira. Baina hauek ere ez dira edukiera neurri zehatz batekin lotuta ageri.

ERMANDADE ETA SINDIKATUAK

Gizarte tradizionalean elkarlanak ematen duen indarraz konturaturik, egun aseguru-etxeek opesten dizkiguten zerbitzuen sano antzeko elkartasun egiturak existitu izan dira.

Ezbeharrei bakarrik aurre egitea gogorra izan da beti. Horren aurrean, unerik gaitzenetan, elkarri babesa emateko erakundeak sortu izan dira historian zehar gure gizartean.

Hemen agertuko ditugu XX. mende hasieran, Jataben, herritarren laguntzarako biztanleek eurek sortutako elkartasun erakundeak.

Etxerre edo suaren aurkako ermandadeak

Pluralean diogu, ermandadeak, Jataben bertan bat baino gehiago egon direlako. Edo hobeto esanda, jatabearrak suaren aurkako ermandade batean baino gehiagotan eratuta egon izan direlako.

Jatabear asko Urdulizko *etxerre* ermandadean sarturik zeuden. Beste asko Jatabe bertako ermandadean. Abere ermandadeak herrika edo auzoka antolatzen ziren moduan, *etxerre* ermandadea, suaren aurkakoa, azken hamarkadetan behintzat, eskualde mailakoa izan da, herria baino zabalera handiagokoa.

Suaren aurkako *erremandaden* edo ermandadean sartzen zirenek, hasiera batean, erretzen zen etxeari egurra eman eta eskubeharrean laguntzeko ardura hartzen zuten bere gain. Tasadorea egoten zen, eta honek etxearen balioaren aurreikuspena egiten zuen. Aurreikuspen hori benetako balioa baino baxuagoa izaten zen. Horretara, inork bere etxea erreta irabazten irteteko tentaziorik eduki ez zezan.

Horrekin batera, kaltetuari laguntza eskean etxerik etxe laguntzen zioten. Gerora, dirua guztien eskurago egoten hasi zenean, urteroko kuota bidezko ordainketara

igaro ziren. Eta XX. mendean zehar, harik eta desagertu arte, antzinako konpromisoak ordainketa eredu berriekin nahastu dira egoera eta jendearen beharrizanen arabera.

Etxe bat erretzen zenean, etxerik etxe irteten ziren inguruetan ermandadeko kideak. Zaku edo poltsa bat eroan ohi zuten dirua batzeko. Gatikako etxe baten kasuan, zuhaitzak emateko ohitura zaharra jazo zen XX. gizaldiko bigarren erdian. Esku beharra, ostera, etxeko ugazabak antolatzen zuen, ermandadeko etxeetako gizonen laguntzarekin.

Denborak aurrera egin ahala, baina, indarra galtzen joan zen etxerre ermandadea. Alde batetik mesfidantza zabaldu zen. Izan ere, erretako etxearentzat eskean joan eta dirua eurentzat hartzen zuten gazteak agertzen hasi ziren. Gero eta harrera hotzagoak egiten zituzten etxeetan. Akabuan, aseguru-etxeak tartean sartu eta elkartasun erakundeak desagertu egin ziren.

Tarteko aldi bat izan zen, hala ere, jendea etxerretik irten eta oraindino aseguru-etxeak agertu bitartean. Garai gogorrak izan ziren horiek. Izan ere, hainbat etxe suaren aurkako babes barik zeudela, XX. mendeko suterik handienetakoa gertatu zen Butroitik Bakioko hondartzara arte.

Billelabasoko lekukoen esanetan, *prasazko edurre* egin zuen gau hartan. Batzuek alde egiteko deiadar egiten zuten bitartean, andreak izan ziren etxea babestu beharra aldarrikatu zutenak. Etxeetan geratu ziren familia osoak, mangerekin kamara eta lastategietan. Akabuan etxe guztiak salbatu ziren. Askoren ustea da *maderistek* basoei su eman zietela, gero egurra merke erosi ahal izateko.

Abeltzainen ermandadeak

Abereak babesteko ermandade nagusi bi egon dira Jataben, Ergoiengoa eta Erberakoa.

Billelabaso eta Marutxeagako etxeak, euren aldetik, modu autonomoz antolatzen ziren, beste ermandade bat osatzen zuten. Birleko herritarrek ere, Mungiako auzoa izan arren, Jatabeko Ergoiengo ermandadean parte hartzen zuten.

Ermandade bakoitzak, urtean behin, leku jakin baten batzen zituen ganaduak. Han egiten zen tasazioa eta ermandadearen gaineko informazioa ere ematen zen. Ergoiengo ermandadea elizatik Herriko Etxera bitarteko hariztian batzen zen. Erberakoa, Asteintzako bidegurutze inguruan. Eta Billelabaso eta Marutxeaga auzokoak Iribi edo Gaztaiñederra etxe ondoko hariztian batzen ziren. Hariztiak izaten ei ziren batzeko leku hautatuak.

Urteroko bilgune horiez gain, domeketan ere ermandadeko batzarrak egiten ziren. Halakoetan, gaztainak erretzen zituzten eta, jaten zituzten bitartean, berba egiten zuten konpondu beharreko arazoen gainean. Hantxe batzen ziren tasadoreak ere. Ermandade bakoitzeko bi izaten ziren. Horretara zehazten zuten, ganadu arraza eta pisu bakoitzaren arabera, zenbateko kalte-ordaina emango zitzaion ganaduzale bakoitzari, abereren bat hilez gero.

Ganadurik gaixotu edo makaltzen bazen, ermandadeko tasadorea etortzen zen etxera. Tasazioa egiteko kordela erabiltzen zuen, eta kanetan ateratzen zuten abereren pisua.

Tasadore kargua urterik urtera aldatzen zen, derrigorra izaten ez bazen ere.

Tasadore biekin batera *listeru* izeneko kargua ere bazegoen ganadu ermandadeetan. Honen zeregina, egungo notario baten antzekoa zen, zeozelan esateko. Ermandadeko gorabeheren gaineko akta altxatzen zuen, eta batzar egunetan, edo urtean behingo abereen bilkuran, gertakizunen berri ematen zuen.

Noiz edo behin ganadu ermandadea eta suaren aurkakoa beharrean batera ibiltzen ziren. Esate baterako, gortaren bat erretzen zenean, gorta berreraiki eta erretako abereen kalte-ordainak kudeatu behar zirenean.

Akabuan, ermandadeak desagertu egin ziren eta aseguru-etxeek hartu zuten euren lekua. Herri erakundea amaitu eta eredu pribatua hobetsi zuten abeltzainek. Horren arrazoi nagusietako bat honako esakunean adieraz daiteke: *feririk onena erremandade*. Izan ere, abeltzain batzuek ez ei zituzten abereak behar zen moduan jagoten. Sarritan abeltzain berari behin baino sarriago ordaintzea tokatu zen, eta jendearen arteko mesfidantzaren hautsak harrotu ondoren, ermandadeak gainbehera hasi ziren. XX. mendearen bigarren erdian aldendu ziren guztiak.

Ganadu ermandadeak abere nagusietarako egin ziren. Behiak, idiak, zezenak, zekorrak... garrantzi maila batetik gorako ganadua babesten zuten. Garaitiko abereak jagoteko ez ei zen erakunderik egon. Marutxeaga auzoan, hala ere, sasoi baten ardientzako kofradia ere egon zela gogoratzen dute.

> «*Ermandaderik egon da?* Bai, ganaduna bai. Yataben bi oten siren, bat andiaua ta bi... Bat Ergoieneko ermandade esate(n) sotzen, eta beste bat; bi on sirena bakitx, amen Yataben bi on siren. Eta gu beste baten on gintzen; ameti Erberati beste bat on san. Ori gero... Birleko aldeko(k) pere, ai(k) pere emen on siren. Gero beie iltxe(n) sanen ba, etzerik-etze tasadore-edo ibiltxe(n) san bertan ermandadeko, senbet balio daun pagateko gero beie, senbe(t) tokaten dakon pagateko. Gero narru bere erre-partidu itxe(n) san. *Erremata egiten zan?* Bai, satitxen. *Non egiten zan?* Guren bere iños in de(ure), edo bertan etzen-edo, iltxen san etzen, eta paga an itxen san, kobrantzak an. Eta an erreuniñok, domekatan, jokon in txe..., an pagaten siren. Ori urte askotan on da.»
>
> * * *
>
> «Erremandade esate'akona egote(n) san, ta egoten siren gison bi ganadu tasateko imintte; ardittan baiño beietan giau esetu'ot nik ori, bai onenbeste bei. Eta batan bateri beiran bat geixotu edo seuser itten badako, beste danan arten kalkulau ai bi oten sirenak, kalkulau semet ingerun balio daun ta semet dausen, ta sertu ta diru emon, ori bai.»

Nekazari kooperatiba edo sindikatua

Nekazariak, abeltzainen antzean, kooperatiba edo sindikatuetan elkartzen izan dira euren beharrizanei hobeto erantzuteko. Elkartzeak ekarri duen onurarik handienetakoa, guztien erosketak batera egin ahal izatea izan da. Horretara, prezio merkeagoan zuzentzen zituzten ustiakuntzarako behar zituzten lehengaiak. Nekazari kooperatiba izan arren, abereekin lotutako erosketak egiten zituzten sarri. Izan ere, ez

da egon herri honetan nekazari eta abeltzainen arteko banakuntza edo bereizketa garbirik. Aldea-etxe guztietan egon dira abereak, eta aldi berean, baserri guztietan landu izan dituzte lurrak. Hala, esaterako, jatabearrak esnea saltzen hasi zirenean, pentsua denak batera erosten hasi ziren, sindikatuaren bitartez.

Herritar gehienak egon ziren sasoi baten Jatabeko nekazari kooperatibaren barruan. Haziak eta pentsua prezio hobean erosi eta saltzea zen herritarrei horrek opesten zien abantailarik garrantzitsuena.

Batzarren bidez kudeatzen zuten kooperatiba. Arduradun karguak hautatzen zituzten kideen artean eta urterik urte aldatzeko era egoten zen.

San Isidro egunez, maiatzaren hamabostean, kooperatiba-kide ziren gizonezkoek bazkaria egiten zuten. Eta bazkalostean sororako erreminten zozketa egin ohi zuten.

Etxerako garrantzi handiko ziren hainbat gauza, ostera, inguruko herrietako kooperatiben bidez zuzentzen zituzten. Hala esaterako, ikatza Plentziako kooperatiban erosten zuten. Datu bitxia da hau, zeren XX. mendearen bigarren erdira arte oraindino ikazkinak baziren Goieta auzoan. Dena dela, Mungiara saltzen zen Jataben ekoitzitako ikatzik gehiena, ofizioen atalean ikusiko dugun legez.

Azkenean aldendu egin zen Jatabeko nekazari kooperatiba. Gaur egun, Mungiako eta Plentziako kooperatiben artean artatzen dituzte Jatabeko baserritarren beharrizanak.

> «Sinkidato bertan elixen ondon egon san. Elixen aspikalden sindikato on san, ta sindikato gero, bastante etze andi da a bere, saldu in san ta oin jente dau bisten an. Baia sindikato Yataben negosio gitxitxu ba, sindikato oiñ a Mungiñ eta Plentzin bere badau. Eta danatariko eukitten dau a(k) pere. Ta andi iketza ekarten du. *Sindikatoan zer erosten zenduen?* Ba asik, pentzu bere apur bet, baia ordun bere pentzu gitxi gastate son. (...) Emen danak es, baia asko on dire sindikaton sartute koperatiben. Baia on akaba dire orre(k) danak. Sindikaton len egon direna(k) dusti(k) pere, bei bet edo baperes edo...»

BASO PRIBATUEN USTIAKUNTZA

Lehenago aipatu dugun legez, Jatako basoak hiru jabetza modu diferentez kudeatzen dira. Aldundiarenak, eurakatik egiten ziren ordainketak direla-ta aipatu ditugu. Herri-basoak eta euren kudeaketa eredua ere azaldu ditugu, jabetasun kontzeptuaren garapen historiko eta auzo-lanarekiko erlazioaren barruan. Orain, bada, hiru antolaketa ereduen artean berriena, loteetan banatutako jabetza pribatuaren bidez ustiatzen diren basoak azalduko ditugu.

Karlistaden osteko foru abolizioa eta herriei ezarritako isun astunen ondorioz, artean herri-baso zirenak esparru pribatu bihurtu ziren. Alogerean hartutako lurren ustiakuntzen aitzakiaz ere, herriarenak ziren hainbat baso-arlo norbanakoenak izatera igaro ziren.

70eko hamarkadan basoen ustiakuntza intensiboak indar handia hartu zuen. Juanjo, Iratxe eta Maribi Egia neba-arrebak, c. 1977.

Esan dezagun, gure kasuan aldaketa hori inguruko herri askotan baino era naturalagoan gertatu zela. Izan ere, herri askotan salgai jarritako lurrik gehienak kanpotar gutxi batzuen esku lotu ziren bitartean, Jataben bertako herritarrek, eta nahiko banaketa orekatuan, beregandu zituzten herriarenak ziren lur eta basoak. Salbuespentzat jo daitezke azken hamarkadetan Iberduerok eta beste baliabide handiko pertsona eta erakundeek egin dituzten erosketak. Eurotariko asko Basordako zentral nuklearraren eremukoak.

Gerraostera arte, baso pribatuen ustiakuntza, erregai, azpigarri eta ikazkintza beharrizanei loturik ageri da, edota lantzean eraikuntzaren bati. Abeltzaintzak egurgintzak baino garrantzi handiagoa zeukan gizartean; hori dela-ta, ereiteko edo abereak bazkatzeko lurrek lekua kendu zieten zuhaitzei. Lekukoek diotenez, lehenago gurbitz, arte eta haritz arlo bakanak baino ez zeuden.

Gerraostean, ostera, pinu-sartzeari itzelezko garrantzia eman zitzaion. Abelazkuntzak eta artzaintzak behera egin zuenez, basoen ustiakuntza intentsiboak hasi ziren, diru-etorriak orekatzeko. Lehenago zuhaitz bako arloak zirenetan pinuak landatu eta geroago osorik ebaki eta saltzen hasi ziren. Prozesu horrek XX. mendearen 80ko hamarkadan hartu zuen indar betea. Ordura arte, abeltzain eta artzainek harrituta ikusten zituzten zura saltzeak zekartzan etekin ekonomikoak. Baina eurek ezin zuhaitzik landa zezaketen, zeren abereei jaten emateko behar zituzten arlook. Basoa barik lantzarra behar zuten abeltzain eta artzainek.

XX. mendeko azken bi hamarkadetan abereak asko gutxitzen hasi ziren paisaiatik. Hasierako pinuaren lekua eukaliptoak hartu zuen eta Jata mendia guztiz itxuraldaturik geratu zen.

GMSen bidez landaketa eta ebaketa masiboak egin ziren. Eta ordutik aurrera hori izan da ustiapen eredua.

Lehenago, nekazaritzaren gaineko atalean deskribatuko ditugun gurdi berezi batzuekin ateratzen ziren zuhaitzak. Metodo hori herri-basoetan erabili izan da luzaro. Gerora, Marutxeaga inguruko basoetan batez ere, kable bidez garraiatzen zituzten enborrak kostaldera. Gero handik itsasontziz eroateko.

KOMUNIKAZIO SISTEMA: KANPAIAK

Behin baino gehiagotan esan dugunez, kanpaiak izaten ziren tradizioko gizartean herritarrei gertakizun garrantzitsuren bat adierazteko komunikazio sistema nagusia.

Mezatarako deia egiteko, soroentzat kaltegarri izan zitekeen babazuza arriskuaren aurrean, suteren bat zegoenean, gerra sasoian, norbait hiltzen zenean... kanpaihotsen bidez jakinarazten zitzaien herritarrei dena delakoaren berri.

Kode-sistema zehatza finkatua zen kanpaiekin. Horren ezaugarri garbia dugu hilkanpaiena. Gizonezkoa bazen hildakoa, hirutan jotzen zuten kanpaia. Andrezkoa bazen, birritan jotzen zuten; eta seina edo umea izateko kasuan, kanpai txikiagoa erabiltzen zen. Kanpai bidezko kodeak, gaur egun erdi ahazturik badago ere, eragin handia izan zuen lehenagoko denboretan.

Elizarako kanpai berrien bedeinkazioa, gerraostean. Abadeak ezkerretik: D. Cándido Orbegozo, D. Juan Agirre eta D. Sandalio Bilbao. Jendeartean beste batzuen artean: Eduardo Asensio, Ana Astoreka, Mª Angeles Larrazabal, Felisa Elorriaga eta Trinidad García.

Gorago aipatu ditugun kanpai seinaleak egoera berezietan jotzen ziren. Hau da, deskribatu ditugun jazoerak izaten zirenean.

Baina baziren egunero jotzen ziren kanpai seinaleak ere. Hauek egunaren denbora banaketa adierazten zuten. Eta *Angelu*saren kasuan bezala, eguzkiaren posizio zehatzak erlijio adierazpenekin, errezoekin loturik zeuden.

Abemaritxeko edo Ave Marietako kanpaiak jotzen ziren eguerdian, eta baita *ilundi* edo iluntzean ere. Kanpaiok entzuterakoan beharra alde batera uzten zuten jatabearrek. Gizonezkoek txapela erantzi, eta Aita Gurea edo Ave Maria errezatzen zen.

Iluntzeko *abemaritxekoak* baino beluago, arimen kanpaiak jotzen ziren. Une horretatik aurrera etxean egoteko ordua zen, errespetuzko ordua.

> «Lenau amaritxekok bai erresaten siren, amaritxeko kanpaie yoten san, ta amaritxeko ya itten sirenen... *Eguerdiko hamabietakoak ziran?* Illundin bere bai, amaritxekok illundiko(k) dire. Egurdin bere bai, amabik yote ausenen kanpaik, solon bere yorran edo oten basan labrantzan, ta oiñ erresau, aittaren in tte... *Txapela kenduta?* Bai. *Ze errezu egiten zan?* Aittegure, edo Abemari bet, laburtxu ixete san baia... Gero osterau arimenak yote euresan ostabere kanpak, amaritxekok illundien ta arimenak beluau. Ya arimen kanpai entzun eskero, ya etzen on ber dalako edo... errespetuko ordu andi(k) gora.»

PIZTIA KALTEGARRIEN BATIDAK

Animalia sakratuak ere egon dira, aurrerago aztertuko ditugunak. Intsektu, itsasoko ugaztun eta txori batzuei kalte egitea edo animaliok hiltzea galarazita egon da.

Baina izan dira, era berean, gizakiarentzat eta bere ardurapeko soro eta abereentzat guztiz kaltegarriak izan diren piztiak ere. Lukia, azkonarra, mirua, satorra eta *bela-baltza* izan dira, lekukoen esanetan, aldea-etxeetako biztanleei burukominik gehien eman dieten piztiak.

Aipatu ditugun animaliok noiz agertu diren Jatabe parajean, lekukotasun eta iritzi diferenteak izan dira. Edozelan ere argi dago, gizakien eta piztien arteko liskarrak aldian aldiangoak izan direla. Lekukoengandik entzun dugu, esate baterako lukia, ez dutela XX. mendearen bigarren erdira arte ezagutu. Beste lekukotasun batzuek kontrakoa diote, baina argibide diferentzia horrek ez du besterik adierazten, istilua ez dela etengabekoa, jarraikoa izan. Aldiak eta aldiak egon dira.

Auzuneei edo herri guztiari kalte eragiten zioten piztiei aurka egin behar zitzaienean, bat egiten zuten herritarrek. Antza denez, kasu batzuetan asko kosta izan zaie, denbora asko behar izan dute, auzokoek bat egiteko, euren arteko ezinikusiak direla eta. Baina behin bat eginez gero, arazoa denbora laburrean konpontzen zuten.

Eta modu horretara akabatzen zituzten, arto-arloen arerio handiak ziren azkonarrak. Ardi-txakur eta *ratoneru* esaten zaien txakur txikerrekin irteten ziren azkonarren bila. Txakur txikerrak irakatsita egoten ziren, azkonarren zuloak bilatu eta zulo barrura sartzeko. Azkonarra barruan bazegoen, aitzurtu egiten zuten habia. Eta gero azkonarra hil.

Lukien kontra ere antzeko ehizak eratzen zituzten, kalte handiak egiten zituztenean. Hala ere, lazo bidezko ehiza askoz eraginkorragoa gertatu da lukiaren kasuan. Lukia barruntatzen zuten inguruan, edo norberaren etxe inguruan, lazoak, lakirioak, ipintzen zituzten.

> «*Lehen lukia atrapau ezkero gero etxerik etxe ibilten ziran erakusten, ezta?* Bai, baia ori galdu in san, se koisten daunari eser emon gure esi(k) jente. "Bera(k) kure ixen dauleko, ta guaittik estau iñ" ta alau yakiturik jentek. Ta gero iñok e'saun gure ixetan ibilli. Geu(k) pere koxi dus. *Zelan egin zenduen?* Etzerik etze, imiñi aston amarrata ta erakusten luki selan daun. Baia arin galdu san. (...) Guren baten luki itzela, neu(k) koxi naun. *Zelan?* Lasu, emon bastoias, ta emon bastoias, domina arten oidalestxu bastoias emoten amarrata daun lekun, ta gero bera kordela solta ta kordeleti narras etzera. Ta parran eskei, ta lantzen girrintze bat...»

Satorrari goizeko seietan itxaroten zioten aitzurra eskuan zutela. Uste orokorra zen, satorra goizeko lehenengo eguzki-printzekin batera hasten zela jotzen, orduan egiten zituela bere erasoak. Ezaguna da lekukoen artean, satorrari orduetan zaran baten gainean itxaron zion gizonaren pasadizoa. Itxaroten gogaituta zaranetik altxatu zenean konturatu zen, harridura aurpegiz, jesarleku moduan hartu zuen zaranaren azpian egin zuela satorrak zuloa.

Miruak oiloen *txitxe* edo txitak eroaten zituen, asagotik zelatari ibili eta gero. *Ollo loke* edo oilo lokak babesten zituen txitak, eta miruari, ahal zuen neurrian, aurre egiten zion.

Itsas ertzeko labarretan bizi da mirua, eta hara joaten ziren kaltetutako biztanleak haren habia topatzera. Antzeko erantzuna ematen zioten soroan ereindako haziak lurpetik atera, jan eta tragatutako abereengana sarraski-jale moduan agertzen zen bele beltzari. Altueran zelatan ipinita igartzen zuten herritarrek non zeukan bele beltzak habia. Geroago bila joan eta hala amaitzen ziren hegazti beltzaren ibilerak. Dena dela, argibide modura esan dezagun, bele beltza eta erroia ez direla bat. Hegazti ezberdinak dira, eta jatabearrek ondo bereizten dituzte bata eta bestea.

Auzune edo herriarentzat kaltegarri ziren piztiak hiltzen zituztenean, astoari lotuta etxerik etxe eroaten ziren. Eta herriko jendeak, komunitatea gaitz horretatik libratu zuen ehiztaria saritu egiten zuen. Arrautzak, fruitu sikuak eta dirua izaten ei ziren saririk ohikoenak, etxe bakoitzak ahal zuenaren arabera. Askotan Herriko Etxeak zigilatutako paper bat aurkezten zuten ehiztariek, egiazkotasuna frogatzeko. Gerora mesfidantzak sortu ziren ordainketa eredu horren gainean. Izan ere, txakur gorrixkak hil, burua ebaki eta herritarren aurrean luki modura aurkezteko ohitura hartu zuten batzuek. Horren lekuko da Pastor Izuela bertsolariak XIX. mendearen hasieran idatzitako *Txakur txiki gorritxo bat faltatu zait neri* bertso-sorta ezaguna. Esakuneak dion legez, *ordun bere txakur arrak eta txakur emek*.

VIII
HERRI-MEDIKUNTZA

SARRERA

Herri-medikuntzari beste izen batzuk ere ematen zaizkio: *etno-medikuntza, folk-medikuntza* eta *medikuntza tradizionala*. Jakintza honek, bizitzaren sasoi ezberdinetan gizakiaren gorputzarekin eta pentsaerarekin lotutako sinesmen eta praktikak batzen ditu. Pertsonari mina eta heriotza eragin liezaioketen patologiak eta egoera ezohikoak aztertzen ditu, eta gaitzak osatu eta osasuna jagoteko erabiltzen diren erremedioak[1].

Osasunaren eta osabideen gainean batu ditugun informazio eta datuek erakusten dutenez, osasun kontua beste era batera ulertzen zen lehenago, eta ez da erraza zehatz azaltzea, ez dagoelako behar den besteko informaziorik.

Herriko jendeak osasunaren eta izadiaren artean lotura estua dagoela sinesten du. Ilargiaren eragina sarritan aipatzen da, batez ere, ilargiaren aldiek gaixotasunarekin eta bizi-zikloarekin zerikusia duten hainbat alderditan duten eragina. Eguraldiari lotutako eragileak ere izendatzen dira osasunaz jardutean, bai agerikoak, tenperatura adibidez, bai osterantzekoak, haize motak eta gaueko haizeak kasurako. Ura ere askotan azaltzen da; gaur eguneko begiekin hain gauza arrunta den ur horrek, lehenago –eta gaur egun ere bai kasu batzuetan– osatzeko ahalmena zuela uste zen, leku jakin batean edo urteko zikloaren egun jakin batean hartuz gero batez ere. Azken batean, ohitura horiek guztiek erakusten dute gorputza bera, bakarrean barik, inguruko munduarekin guztiz bat eginda ikusten zela[2].

---

[1] ERKOREKA, Anton. "Herri-Medikuntza" in *Euskal Etnografiaren online ikastaroa*. 2009, 2. orr.

[2] ETNIKER EUSKALERRIA. Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Medicina popular en Vasconia*. Bilbao, 2004, 82. orr.

Herriko jendearen pentsaeran, gaixotasun jakin batzuk landare mota batzuekin lotu izan dira; euren arteko harremana antzeman da. Gaixotasun eta gorputzeko gorabehera batzuek zerikusia ei dute orriak ernetzeko eta jausteko sasoiekin. Odolaren loditasuna eta garbitasuna ere desberdinak ei dira urteko aldi bakoitzean, zuhaitzen negarrarekin gertatzen den legez.

Beste alde batetik, magia usaineko ohiturek ere atal garrantzitsua osatzen dute herri-medikuntzan. Madarikazioa eta *begizkone* edo begizkoa gaixotasun eragingarri sendotzat jo izan dira.

Erlijioarekin lotutako ohitura eta sineskerak ere, gaixotasunei aurre egiteko bitartekotzat jo izan ditu gizarte tradizionaleko jendeak. Sano sustraituta egon da leku sakratuetara joateko ohitura gure artean; hala, San Juan Gaztelugatxekoa, Urkiola, San Felicísimo eta Andre Mari Begoñakoaren basilikak izan dute osperik handiena. Santuen artean ere zelanbaiteko "espezializazioa" dago gaixotasun batzuk edo besteak osatzeko orduan. Izan liteke, gainera, leku sakratu horietako batzuk kultu paganoetarako lekuen gainean eraikirik egotea. Baina hori ez da oraingo gure arloa; ikerketa bereziek argitu beharko dute puntu hori.

Gaixotasunak dakartzan zoritxarren aurrean, batez ere gaixoaren bizia arriskuan dagoenean, errezu egiteko ohitura dago. Horren lekuko dira ospitale moderno guztietan diren kaperak.

Baina erremedio guztiak ez dira sinesmenen esparruan sartzen. Lan honetan jaso dugun informaziorik gehiena erremedio enpirikoak dira; hau da, oinarri materiala duten erremedioak. Oinarri material horrek mineralekin, animaliekin, eta batez ere, landareekin zerikusia dauka. Horretarako ezinbestekoa da gizarte tradizionalaren ezaugarrietako bat: bere ingurune naturala sano ondo ezagutzea.

Gaur egun, farmako berriak bilatzeko helburuaz, ikerketa ugari egiten dira "herri primitiboen" medikuntza baliabide naturalen gainean. Eta horren kontrara, harrigarria da Europako nekazari parajeetako jendeak bere natura inguruaren gainean erakusten duen interesik eza, batez ere antzinako jakituria galtzen edo aldentzen doan une erabakior honetan.

Herri-medikuntzak badu beste ezaugarri bat ere: sintomak osatzen ditu, ez gaixotasunak.

Beste alde batetik, gaur egun herriko jende zeheak erabiltzen dituen erremedioetariko batzuk, lehenago, medikuntza ofizialak erabiltzen zituen.

Askotan, gaixotasun baten azalpen zuzenik ez izateak, ez du esan gura erabilitako erremedioak ezelako onurarik ez dakarrenik; hara herri-medikuntzaren beste ezaugarrietako bat.

Herri-medikuntza gaur egun

Gizaldietan zehar herri-jatorriko osakintza jakituriari izan zaion mespretxua eta egin zaion baztertze sistematikoa batetik, eta medikuntza akademikoak XX. mendean ezagutu duen garapen handia bestetik, baldintza biok izan dira herri-medikuntzako osabideak ia desagertzeraino eroan dituztenak.

Azken urteotan, ostera, medikuntzako adituak horiei balioa ematen hasi dira. Herri-medikuntzak landareei ematen zien funtzioa bat dator zientziak esleitzen dizkien ezaugarriekin[3].

Azpimarratzekoa da, era berean, herri-medikuntza aplikatzen zuten osagileek izan duten zeregina. Lehenago, osatzeko gaitasuna zuten pertsonek leku garrantzitsua zuten gizartean. Medikuen urritasunak eta euren zerbitzuen salneurri garestiak ezinbesteko bihurtzen zituen herrietako osagileak. Eta gaur egun hirugarren munduko herrietan, herri-osagileak osasun sare publikorik ez dagoen lekuetan irtenbide egoki bihurtu dira.

Herri-medikuntza praktikatzen zuten osagileen jakintza familian transmititzen zen. Gaur, ostera, medikuntza akademikoak bete du ia oso-osoan herri-medikuntzak zuen lekua. Baina gogoratu beharrekoa da, beste herrialde batzuetako herri-medikuntzek, txinatarrak kasurako, gero eta arrakasta handiagoa dutela gure gizartean, medikuntza akademikoaz kanpoko beste alternatiba batzuekin batera.

Antzina, zauriak osatzeko erremedioak etxean gordetzen ziren, baita erretasunentzako ukenduak eta inhalazioak egiteko, zein infusioak prestatzeko landareak ere.

Landareekin egindako erremedioak garrantzitsuak ziren. Etxeko ugazabandreak jagoten zuen ortuan, landare batzuk helburu terapeutikoekin landatzen ziren, baina landarerik gehienak zelai edo basoan batzen ziren. Baliotsuagoak izateko, landareetariko batzuk urteko egun berezietan batu behar ziren; beharbada, San Juan eguneko goizaldea izango zen unerik aproposena, eguzkia irten aurretik.

Egun, ostera, prestakin farmazeutikoek erremedio tradizionalen lekua hartu dute. Kamamila edo *mantzanille* kenduta, ia ez da osabelarrik batzen. Eta kamamila bera ere geroz eta gutxiago batzen da, izan ere, farmazian edo dendetan erosten du jenderik gehienak. Horrez gain, basoetatik ganadurik ez ibiltzeak, eragiten duen ongarri ezari lotuta, sano urritu ei ditu lehenago landaminetan ugari agertzen ziren osabelarrak.

Herri-medikuntza apurka-apurka baztertzen joan den arren, azken aldion berriro loratzen hasi da, beste modu batean bada ere. Sendabelar edo osabelar direlakoak gero eta gehiago erabiltzen dira; dendan erosiak izan arren. Beharbada, sintesi-medikamentuak baino naturalagoak diren ustea dagoelako, eta ondorioz, albo-ondoriorik gabekoak direlako egin du gora euren erabilerak[4].

SINTOMA ETA ERREMEDIO OROKORRAK

Kalentura eta asun fregazioak

Kalentura edo sukarra da gaixotasun askoren sintoma arrunt nagusia. Gaixotasun diferenteen lehenengo sintoma zenez, ostean zer zetorren jakin barik, ahalik eta

---

[3] FERNÁNDEZ, Margarita. "Medicina popular navarra" *in Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, XIV (1997) 35. or.

[4] ETNIKER EUSKALERRIA, *Medicina popular en Vasconia,* op. cit., 87. or.

Asunak, 2007.

arinen aurre egiten ahalegintzen ziren. Gaixoa oheratu egiten zen, eta bekokian, ur hotzetan bustitako painua ipintzen zitzaion.

Edurre edo izotz industriala agertu zenean, Mungiaraino joaten ziren haren bila, gaixoaren bekokian ipintzeko asmoaz. Bidean apurren bat urtu arren, gau oso baterako beste izaten zuten ostera bakar bat eginda.

Sukarrak txarrera egin zezakeen, eta griperako bidea hartzearen itxura ikusten bazen, *asun fregaziñoak* ematen zizkioten gaixoari. Asuna hain da landare baliotsua herri-medikuntzan, eze urrezko jorraitxoarekin jorratu beharko litzatekeela dio esakune batek. Geroago gogoratuko ditugu asunen beste erabilera batzuk, baina gripearen sukarrari aurre egiteko, *kostipedu* edo katarroaren, zein muskuluetako min eta hotzikaren erremedio moduan ere bai, asun fregazioak ematen ziren.

Ustea zabal zebilen, asunekin igurdiak eginez gero gaixoaren odola garbitu egiten zela, eta horretara osasunak hobera egiten zuela.

Lehenengo, gorputzean, edo bizkarrean gutxienez, alkoholaz igurdi egiten zitzaion gaixoari. Gero, asunekin jotzen zen alkoholaz igurditako gorputzeko partea. Erreakzio gogorrak eragiten zituen batzuetan osagarriak: garauak atera eta gorriuneak egin azalean.

Hurrengo, ohean sartu eta izara artean batu-batu egin, hala gaixoak izerdia bota zezan. Egun gutxitan guztiz berrituta lotzen zen gaixoa. Baina lekukoek diotenez,

gurasoek txikerretatik horretan ohitutakoek bakarrik praktikatzen zuten osatze modu hori. Garaitikoek beldurra izaten zioten asunekin egiten zen erremedioari. Botikak hartzera jotzen zuen asunen beldur zen jendeak.

> «*Asunakaz fregazinoak emotea ezagutu dozue?* Bai, ori bere kostunbre bat ixete san, gripe daunen ta kostipedu daunen... Odola kanbia itxen daula ta... Emon frotasiño lenengo, trapu beteas alkolaas igordi, ta gero agas yo. Ta garaus beterik lepo ikusi dot nik, itzel... (...) Batzuk oitxure itzela euki deure emoteko... *Eta gero ohera sartu?* Bai, ondo tapa ta ixerdi emon. Esate san odola kanbia itxen daula, orre(k) garautxuk urtekeran igual erreasiñoran bat eraingo'tzo odolari. Ona dala esate euden, baia iñok, edo kostunbre dekona(k) baiño esaun artu gure ixetan, bilduregaitxik, se ikutu eskeron asunek, beti on ber dosu aska ta aska, ta pika ta pika... Ni nau enintzen atrebitzen.»

Katarroari aurre egiteko beste etxeko osagarri bat esne beroari koñaka eta eztia botatzea zen.

IZURRITE BIDEZKO SUKAR HILGARRIA: *TIFUSA*

Gerraostean tifus izurrite larria izan zen Euskal Herriko hainbat lekutan, eta Jatabe izan zen horietako bat. 1941-42. urteetan zabaldu zen tifusa. Uraren bidez kutsatu ziren biztanleak eta Ergoien izan zen kalte gehien jasan zuen auzoa. Gerrako alderdi galtzaileko hildakoak edozein lekutan eta edozein modutara lurperatzen ziren, eta lur azpiko urak kutsatu egin ei zituen, batzuek diotenez. Gero, ur kutsatu hori edanaren ondorioz gaixotu ei zen jendea.

Horregatik galarazi zuten sasoi hartan bertako ura erabiltzea. Debekua ez zen bakarrik edatekoa izan; baita bogada egitea eta urarekiko beste edozein jarduerarena ere, baldin horrek bertako urarekin ikutuan egotea eskatzen bazuen.

Tifusaren sintoma agerikoenetakoa indar handiko sukarra da, sukar tifoideoak. Horren aurrean medikuarengana jotzen zuten gaixoek, gaixotasunaren larritasunaz beldurtuta.

Medikuek digitalina zeritzan osagaia hartzeko agintzen zieten gaixoei. Botika horrek sukarra apaltzen laguntzen zuen.

Tifusaren beste sintometariko bat, gaixoa jakantzea zen, jateko gogo barik uztea. Horren aurrean elikagai osasungarriak jateko agintzen zuen medikuak.

HERRI-OSAGILE EDO *KURANDERUK*

Herri-osagileen artean era bitakoak bereizi behar dira. Batetik, gaixo guztien gaitzak osatzen ahalegintzen direnak. Hauek, ukendu, enplasto eta magia usaineko sendagai batzuk erabiltzen dituzte. Bestetik, *hazur-imintzaille* izenekoak, batez ere hautsitako hezurrak, lekutik kanpora irtendakoak, bihurkadak eta antzeko gaitzak osatzen dituztenak. Antzina, herri-osagileentzat izen diferenteak erabiltzen ziren,

bakoitzak zein espezialitate zeukan, halakoxea. Esaterako, *urdillena* (urdailena) izeneko sabeleko nerbio eta ondoezak osatzeko, belar eta igurdi bidezko osabidea praktikatzen zuen Berangoko andrea. Baina gaur egun, ofizio horietariko asko galduak dira.

Edozelan ere, aipatu beharreko beste batzuk pomadagileak dira. Nahiz eta hauek, herri-osagile baino, herri-botikarien egitekoak gehiago betetzen zituzten. Mungiako *Señoretxeko* andreek erretasunen eta azaleko gaitzen aurkako pomadak egiten zituzten. Eta sano erabiliak izan ziren aldi batean.

Jataben beti egon da medikua, lekukoek diotenez. Herriko medikuak euskaldunak izaten ziren. Gipuzkoar jatorrikoak batzuk eta Bizkaiko beste herriren batekoak besteak. Horregatik esaten dute herrian ez dela sasi-medikuen beharrik egon. Egia da baita, botikako produktuak XX. menderako nahiko era normalizatuan erabiltzen zirela. Aspirina, ume zein nagusientzat, alkohola eta oinarrizko beste botika batzuk etxe askotan erabili izan dira aspalditik. Beraz, Jatabeko herri-medikuntza eta herri-osagileak ez dira hutsune bat bete beharrean ibili. Artean ez zen eskari bati erantzun izan diote, beste barik.

Lehenengo multzoko herri-osagileen artean andrezkoak izan dira gure entzutera heldu diren bakarrak. Lorentza Ametzagakoa eta Bonifacia Lopategi dira hauen artean azkeneko biak. Hauek osabide magikoekin eta belarren erabilerarekin loturik ageri dira.

Andrezko herri-osagileok ziren erditzeetan, ume egitean laguntzen zutenak; seinak bataiatzera ere eroaten zituzten, eta hildakoei hil-jantzia soinean ipini ere bai. Funtzio horiek guztiak andrezko herri-osagileekin lotuta ageri dira, ez Jataben bakarrik; baita inguruko hainbat herritan ere.

Bigarren multzoko *hazur-imintzailleen* artean, Laukizko enterradorea izan zen inguruetako ospetsuena. Honen aita ere *hazur-imintzaillea* eta enterradorea izana zen. Beraz, bigarren belaunaldia zuen gutxienez ofizio bietan. Behar asko izaten ei zuen eta emaitza onak atera ere bai. Hautsitako hezurrik ez ei zuen osatzen, baina lekutik ateratakoak euren onera ekartzen zituen. Bere eskuekin hezurrak lekutu ostean, bendak ipintzen ei zituen.

Zanetena, *zanatena* zan era bietako herri-osagileek egiten zuten beste erremedio magikoetariko bat. Herritarren iritzian, *buruko grazi* edo dohain berezia izaten ei zuten garaitikoak osatzeko ahalmen hori zutenek. Hala ere, baziren botere hori eduki, baina euren etxeko eta auzokoentzat baino erabiltzen ez zutenak. Kasu horretan ere, andrezkoak izaten ziren gehienak.

Sarritan izaten ei ziren medikuaren iritziaren eta herri-medikuntzaren arteko gatazkak. Medikuek gehienetan mespretxatu egiten zituzten etxeko erremedioak, konpetentzia profesional modura ikusten zituzten eta.

Lekukoen esanean, herri-medikuntzako erremedioek behin baino gehiagotan osatu ei zuten medikuak ezin izan zuena; ume txiker eta pertsona adinduen kasuetan batez ere.

Gauza bera jazotzen zen *hazur-imintzailleekin* ere. Sarritan ospitalean egindako osakuntzak ez zuen fruiturik ematen eta Laukizko enterradorearengana joaten ziren gaixoak. Eta lekukoen akorduan, kasurik gehienetan laukiztarraren abileziak ondorio hobeak ematen ei zituen.

BURUKO MINA

Buruko mina kentzeko erremedio legez, arropak eskegitzeko pintza belarrian ipintzea aholkatu digu lekuko batek. San Juan Gaztelugatxeko ermitako kanpaiaren barruan burua sartu eta kanpaia jotzea izaten zen beste osabide bat. Bigarren hori, magikoen edo sineskerekin lotutako erremedioen barruan sartu beharko genuke.

Kapar edo mozkorra edukitzea ere buruko gaitzen barruan ulertu izan da gizarte tradizionalean. Osabide moduan gatzdun kafea ematea, edo burua iturri azpian ipintzea izan dira erabilienak.

HAGINETAKO MINA

Jataben, lekukoen gomuta ailegatzen den ginoan behintzat, beti egon da medikua, baina dentistarenera Mungiara joan behar izaten zuten. Haginak eta matrailaginak dira janaria ahoan ebaki eta mamurtzeko atalak. Haginetako mina zeukatenean, dentistarengana joateko dirurik eduki ezik, koñaka hartzen zen anestesiko modura.

Haginean zuloa edukiz gero, tabakoa sartzen ei zuten zuloan.

Hagina usteltzen hasten bazen, edo mina jasanezina bihurtzen zenean, hagina ateratzea izaten zen irtenbide bakarra. Kordeltxo bat lotzen zioten haginari, eta besteren batek kordeletik tiratuta kentzen zion hagina. Jaso dugunaren arabera, hagina erdi-loka zegoenean, edo ustelaren ondorioz ateratzeko erraza zirudienean praktikatzen zen metodo hori. Hagina atera ostean koñaka ematen zitzaion gaixoari, mina arintzeko.

Flemoi edo handitua zegoenean berotan jarritako birzahia ipintzen zen. Birzahia nekazari sindikatuan erosten zuten, eta infekzioa egonda ere, lehertu eta zabal ez zedin erabiltzen zuten.

> «*Hagineko mina egoanean, zer egiten zan?* Aguanta! Koñaka, baia es tragateko, espabere an euki, erre itxen daula-ta, anestesia itxe un, momentun pasa apur bet. Ta flemoi daunen, anditxute daunen birsaie. Anditxu itxen danen a errementateko, birsaie berotan egon daitxen. Se birsaiek aguanta itxen dau. Se arase anditxu itxen san batzutan, ta arase anditxute badau, errementa arten, esan kuraten, esan osatuten. Eta ori imintxen san berotasune, kendu barik euki dain, birsai bero, ak errementa deiñ, se infesiño barrun oten san.»

BEGIETAKO GAITZAK

Begietako gaitzen artean *begitxindorra* aipatuko dugu. Begitxindorra betazalean irteten den garau gorrixka mingarriari esaten zaio. Orratz buru baten neurrikoa da. Begitxindorra irtetearen arrazoia, norbaiti ipurdia ikusi izana ei da. Zigor moduko bat denez, berez aldendu arte itxaron behar zaio.

BELARRIKO MINA

Belarriko mina kentzeko, minaren handiz eutsi ezin zitzaionean, olio apur bat epeldu eta tantatxoren bat isurtzen zen belarrian, galtzutxo baten laguntzaz. Olioa isuri ostean painutxo batekin estaltzen zen belarria, berotan egon zedin.

Beste erremedio bat, *belarri-bedarra* erabiltzea zen. Belar hori horma zuloetan eta teilatuetan egoten zen antzina. Izen eta erabilera gehiago ere baditu belar horrek, geroago ikusiko dugunez. Itxura borobil samarreko orri mamitsu eta bigunak ditu, eta alde bietatik kentzen zaie azala. Azala fina eta urtsua du *belarri-bedarrak*. Landarearen orria hartu eta zartaginean erretzen da, bira eta buelta, olio apur batekin. Gero, epeletan sartzen zen belarrian, eta painutxo batekin ondoren estaldu. Landareak lore zuriak ditu, gorantz ateratzen direnak.

Belarri-bedar izeneko landare mota bi ezagutzen dira Jataben, *Sempervivum tectorum* eta *Umbilicus rupestris*. Lehenengoa teilatuetan ageri da sarriago, eta bigarrena horma zaharretan. Biak erabiltzen ziren belarriko minari aurre egiteko. Herri-medikuntzan ohikoa den legez, izen bera erabiltzen da biei esateko, baina non ageri diren kontuan hartuta, *talletu-bedarra* eta *horma-bedarra* izenak ere erabiltzen dira. Batez ere bigarrena, beste gaitz batzuen aurka erabiltzen da, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Belarri-bedarra (*Sempervivum tectorum*), 2008.

Eride edo zauriak guztiz ohikoak izan dira eguneroko bizimoduan. Sein edo umeek euren olgetetan egiten zituztenez aparte, soroko erremintek, batez ere *zerre* edo *kodañe* moduko tresna zorrotzek, zauri ugari eragiten zituzten eguneroko beharretan.

Hemorragia edo odol-isuria gelditzeko *zanbedarra* (*Plantago lanceolata)* erabiltzen zen, zanetenak egiteko legez. Landare hori soroetan aurkitzen zen; urarekin garbitu ostean tirak egiten ziren, zauri gainean ipini eta gainetik painutxo bat jartzen zen. Lekukoen esanean, *zanbedarrak* atoan egiten zion azala zauriari. Gaur egun Ameriketatik ekarritako Aloe Vera landarea erabiltzen hasi dira zeregin bererako.

Hemorragiak gelditzeko *gauena* ere sano ona zelako ustea egon da. Gortetan egoten ziren gauenak, bertatik hartu eta tornikete modukoa egiteko erabiltzen ziren.

Zauriak desinfektatzeko *gatzura* erabili izan da sarri, eta egoera bereziren batean, norberaren garnua ere bai.

Zaurientzako beste erremedio bat honako hau zen: berakatza ondo jo, koilara bete ur bota, nahastu eta bustitako gasan ipintzen zen zauriaren gainean. Horretara ez zen sekula zauririk zoltzen. Antza, arazoa da, erremedio horrek zauria erre egiten duela, eta min ematen duenez, seinek alde egiten zutela. Dena dela, ez da zauriaren gainean denbora luzez utzi behar, ezpabere azala zabaldu eta zauria handitu egiten da eta. Behin painua kenduta, ondo sikatu behar da zauria.

Soro izkinetan irteten den *iodo-bedarra* (*Chelidonium majus)* izaten zen zaurietarako erabiltzen zen beste bat. Zauriaren gainean orria ipintzen zen, gatzura erabilita desinfektatu ostean, edo ezpabere, mukur barruan daukan iodoa aplikatzen zuten painu batean. Bolatxo gorriek salatzen ei dute zein landare den *iodo-bedarra*.

Arantzak eta iltzeak ateratzea

Arantzak eta *untze* (iltzea) sartzea ohikoa zen gizarte tradizionalean. Izan ere, soro beharretan, eskubeharretan eta zorroztutako erreminta edo tresna zatiak etenbako arriskua ziren. Arantzak ateratzeko lehenengo ahalegina atzazalekin egiten zen, horretarako behar den besteko luzera eta abilezia izanez gero. Gehienetan, ostera, pintzak erabiltzen ziren. Arantza atera aurretik, pintzak sutan ipintzen ziren. Arantza sakon sartuta bazegoen, mingarria izaten zen ateratzea, eta askotan zauria eragiten zuen.

Kadera edo hankazpian iltzea sartuz gero, ohol batekin jotzen zen oinaren alboetan, odol txarra ateratzeko. Behin iltzea eta odol txarra aterata, gatzura emanda garbitzen zen zauria.

> «Lelau untze sartzen basiñun, kadera-aspiñ edo, ugerra dekona, olaas yo, odola txarra atarateko, ta gero garbitxu gatzaas ta ureas. Ol bateas yo albotan odola bota dein kanpora. Odol txarra, kangrene-edo sartu esdaitxen ba, ugerdune bada untze. Ta gero gatzureas garbitxu.»

Azala erretzea

Erretasunak hamaika arrazoi ezberdinengatik gertatzen ziren. Batzuetan, soroan beharrean ibiliaren porazuz eguzkiak eragindakoak ziran. Beste batzuetan, andreak

suetean beharrean egonda beheko su edo txapak sorrarazitakoak. Likido goriek, erraturek, eta ikazkin edo erementarien beharretan suaren ondoan ibili beharrak eragiten zituen; eta ezbeharrak ere bai sarri.

Erredurari olioa botatzea da sarrien ageri den erremedioetako bat. Beste ohiko bat honakoa zen: ozpina eta ura ipini erdiz erdi edukiontzi batean, olio apur bat bota, ondo irabiatu eta nahastea erreduran isuri. Ukendu bera erabiltzen zen umeen azal fina erretzen zenerako ere.

> «Baten kadera gane gusti erre, se ordun txapari(k) pe eskendun euki; egon san beko sue, ta trebere, ta ain ganen ure, irikitxen ure. Ta ni ba an ibiliko nintzen saltzan, edo ikutu... Kasu da se, yausi i asten ganera, eta asala gusti altza asten. Oiñen gane, dana altza asten. Ta i austen ordun kure, a asala kendu, miñ itzela, ta gero pomada bat eta benda, erosiko pomade... Baia arterau orio emote san, baia oriok erre itxe un. Biñegreas batidu orioa ta ur apur betegas, ur apur bet, biñegre apur bet ta orio gota batzuk eta agas... Biñegre ta ure erdis-erdis eta orio apur bet, ta ondo batidu, igerri itxen be estala eta a emote(n) san.»

Erredura larriak zirenean, ur goria gainera jausterakoan esaterako, beste era bateko osabideak aplikatzen ziren. Lehenengo, erreduraren ondorioz altxatutako azala kendu egiten zitzaion gaixoari. Pausu hori benetan mingarria zen, bizi izan zutenen esanetan.

Gero *Señoretxeko* pomada ospetsuak aplikatzen ziren. Lehenago aipatu dugun Mungiako etxe horretan era askotako pomadak egiten zituzten, beti ere, inguruko belarrak erabilita. Andre bi ziren pomaden egileak. Bezeroek bere beharrizana azaltzen zien, eta eurek egokiena begitantzen zitzaien osabidea konposatzen zioten.

Señoretxeko andreak joan ziren eta inork ez zuen euren lanbidea ikasi. Gerora, apurka, botikek hartu zuten lehenago erremedio naturalek izandako lekua.

Itzebakiak

Itzebakiak, *itzebaiek*, sortzen dira azalean, eta batez ere eskuetan, hotz-bero aldaketa handiak daudenean edo bat sano behar gogorretan ibiltzen denean. Osatzeko, *horma-bedarra* erabiltzen zen, belarriko minak direla-ta aipatu dugun *belarribedarren* mota bietako bat: *Umbilicus rupestris* deritzana. Bere orri mamitsu zabalak erabilita osatzen zituzten itzebakiak.

Azaleko infekzioa

Azkordinak dira azaleko infekzio mota bat. Hotz handia egiten duenean sortzen dira, eta mingorrak dira benetan. Hazka eta hazka ibiltzen ziren, ia azala urratu arte, azkordinak zituztenak. Osagarritzat erabiltzen zuten, beste gauza askotarako legez, horma zaharretan ageri den *horma-bedarra* (*Umbilicus rupestris)*.

Señoretxeko andreek ere azkordinen aurkako pomada egiten zuten. Hatz bete pomada botatzen zen, gero mindutako inguruan ondo-ondo igurdi, eta galtzerdia ipintzen zen gainean.

Teilatu-bedarra (*Umbilicus rupestris*), 2007.

Zaldarrak sama inguruan irteten ei ziren gehien bat. Horiek osatzeko *talletu-bedarra* eta *horma-bedarra* erabiltzen ziren. Batez ere *Umbilicus rupestris* motakoaren orri borobil eta urtsuak.

Azaleko orbanak

Gariak izan dira denboran zehar, eta gaur egun ere bai adin bitarte batzuetan, azalean, ageriko lekuetan askotan, irteten diren azaleko orbanak. Berri-emaileek fruituekin kentzeko osabidea azaldu digute, fruitua eta fruituaren lurperatzea oinarri duen erremedioa.

Sagarra erdibitu egiten zen lehenengo. Gero, sagar erdiarekin igurdi egiten ziren gariak. Azkenik sagar erdi hori leku sekreturen batean lurperatu behar zen, aukeratutako lekua inori esan barik, ezpabere, osabideak ez zukeen efekturik izango.

Pausu horiek guztiak eman ostean, egun batzuetara, gariak aldendu egiten ei ziren.

> «Garikas Isidorak itxe aun, emon sagarra edo unta seoser, eta etzera sosenen gorde edo bota, edo... Neuk euki nausen garik ta berak i austen neuri, kendu i austen neuri. Sagar sati bet, eta esta esan ber non gordeten dan, lurren aspin sartu, ta nik siñestu beres, baia desaparesidu...»

Oreztak, azal urdin edo argia duten pertsonei irteten zaizkien orbanak dira. Berezkoak izan litezke, eguzkitan egon eta ostean sortutakoak edo adinean gora joan ahala agertzen direnak. Gure lekukoek izaera neutroa ematen diete; esan gura da, ez dituztela oreztak gaitzekin lotzen, berez. Ilegorriak direnei egozten dizkiete oreztak, batez ere. Eta zahartzaroan irteten diren oreztei, *ortusantuko lorak* esaten diete.

Haginkada eta ziztadak

Mamarroekin batera bizi behar izan du gizakiak betidanik. Gure lurraldeko mamarroen ziztadak ez dira hilgarriak izaten, normalean, talde handian eraso ezik. Euli, erle zein udaberritik negura ager lekiguken edozein mamarroren ziztadaren aurka, ozpina botatzen zen. Era berean, ozpina mamarroen aurreko babes moduan ere erabiltzen zen, ziztatu aurretik ere.

Haginkadei dagokienez, gizakiarena eta txakurrarena sano arriskutsuak dira, lekukoen esanean, beti zoltzen dira eta. Ur epelari gatz apur bat egin eta gatzura erabilita garbitzen zen haginkada. Baina, hala ere, beti zoltzen ei da zauria.

Txakurrek, haginkadaren bidez, amorrua kutsatzea izan da beldur handietako bat. Kutsatua izanez gero hiltzeko arriskua handia zen benetan. Eta arriskua saihesteko, Gabon-gauez, afaltzen hasi aurretik ebaki eta urtebetean gordeta egon ohi zen ogi-kurrusku bedeinkatua, *ogi salutedu*, ematen zitzaion txakurrari, amorra ez zedin.

Sugeen haginkada edo *usigien* aurrean esnea edatea eta haginkada hartutako inguru guztia gogor lotzea, odolak korri eta gorputz guztia pozoitu ez zezan, izaten ziren herritarren erremedioak. Batez ere *sube egune* denean, egun sargoritsuaren ondorioz justuriak sortu eta behea bustita dagoenean, kontu handiz ibili beharra ei dago. Orduan ateratzen ei dira sugeak, eta egun horietan izaten dute haginka egiteko joerarik handiena.

Halako egunetan, batez ere lantzarretan belarra ebakitzen ibili behar izanez gero, galtzerdi lodiak janztea izaten zen ohiko gomendioa. Hala ere, ospitalera albait arinen joatea izan da haginkadarik jaso dutenen jokabidea.

Muskerraren haginkadaren aurkako erremediorik ez dugu batu. Baina musker batek haginka eginez gero, ez ei da askatzen zazpi elizatako kanpaiek jo artean.

ODOLEKO GAITZAK

Herri-medikuntzak odolak osasunean duen garrantziaren kontzientzia izan du beti. Gaitz askoren jatorria odolari egozten zaio, eta odolaren garbitasuna, loditasuna eta ustekabeko agerpena, osasun egoeraren adierazle moduan hartu izan dira beti.

Odola loditzea, egun *tentziño iyen* esaten zaiona, izan da odolari buruz ardurarik gehien sortu duen gaitzetarikoa. Tentsioa jaisteko, edo *odola mehetuteko*, asunen sustraietako erpeekin egindako ura edaten zen. Batzuek jatekoa prestatzeko ere erabili izan dute, helburu berarekin, ortuariak prestatzen zituztenean asuna botatzen zieten.

Odol lodiari aurre egiteko beste modu bat, *odol-atarate* edo sangriak izan dira. Pertsonei ez ezik animaliei ere egiten zitzaien, abeltzaintzaren atalean ikusiko denez. Besoetatik edo belarritik ateratzen zieten odola, eta horretara, odola berritu, mehetu eta gaitzak osatzen ei ziren.

Odol lodiaren, zein gaixotasun askoren iturri legez jo izan den odol lohiaren erremediotzat, *uzen* edo odol-edaleak erabili izan dira. Kokotean ipintzen zitzaizkion gaixoari eta odolez bete egiten ziren, puztu, eta kokotetik jausi. Era horretan odola garbitu eta mehetu egiten zela uste zen.

Sudur-hemorragia zegoenean, odola ateratzen zen sudurzuloa algodoitxo batekin estaldu, eta beste aldeko besoa altxatzen zen. Hau da, ezkerreko sudurzulotik odoletan egonez gero, algodoitxoa ipini eta eskumako besoa altxatzen zen.

ARNAS APARATUKO GAITZ ETA OSABIDEAK

Damistiku* eta *kostipedu

Damistiku, dominiistikua edo usin egitea, *kostipedu* edo katarroaren hasiera da lekukoen ustetan. Pertsona berotik hotzera denbora gutxian igarotzen denean ematen da. Baina arnasa beste era batera hartu delako ere izan liteke. *Damistikuaren* atzetik zer edo zer dator beti. Horrexegatik egon izan da antzinatik dominiistikuaren ostean *Jesus!* esateko ohitura, babes magiko modura. Hain zuzen ere, *damistiku* berba, latineko *Dominus tecum* (*Jauna zurekin)* esakunetik dator. Beraz, pentsa liteke sano antzinakoa dela berbazko babes hori, gaixotasun seinale den dominiistikuaren aurrean egiten dena.

Sein batek katarrorik bazuen, edo gurasoek izanez gero, kontu handiz ibiltzen ziren etxekoak umea berotan edukitzeko eta zaharragoek gaitzik kutsa ez ziezaioten.

Tuberkulosia, pulmonia eta bronkioak itxita edukitzea

Bulerreti, *pulmoni* eta *bronkiok ixitxe.* Esaera horiexekin adierazten dira, lekukoen akorduan, Jatabeko biztanleek jasan dituzten arnasari lotutako gaixotasunik larrienak.

Bulerreti esaten zaio tuberkulosiari. 1918. urtean izurrite handia izan zen Europa osoan. Euskal Herrian ere ondorio larriak izan zituen; familia osoak hil ziren eta gazteriaren artean heriotza asko eragin zituen. Herrietako aguazilak joaten ei ziren, lantzean behin, erdigunetik asago lotzen ziren aldea-etxeetara, askotan etxeko guztiak hil eta inor ere ez zelako konturatzen. Gurasoak hilda umezurtz lotu zirenak ere ugari izan ziren. Marutxeaga, Billelabaso eta Ergoienen oraindino gomutatzen dira umezurtz geratu ziren auzokideez.

Bestalde, erraz kutsatzen zen gaixoa. Horren adibide modura, akorduan dute lekukoek, Sarakotxetik Billelabasora, gaixorik zegoen ahizpa jagoten joandako hemezortzi urteko neskatoaren kasua. Ahizpa batek besteari kutsatu zion gaixoa eta biak hil ziren. Egoera lazgarria bizi izan zuten orduko jatabearrek. Familia osoak hiltzen ziren eta ez zuten topatzen lurperatzen lagunduko zien jenderik. Kutsatzearen beldurrez hiletetara ere ez ei zen hurreratzen jendea.

Bulerretia kamineruen izerdiarekin osatzen ei zen; uste hori zegoen. Ohitura zaharren batekin lotua egon behar du honek: gaixoak bidegurutzeetan ipini, gaitza ezagutu eta osatuko zituen norbaitek lagun ziezaien. Ohitura zahar hori, gure kasuan legetxe, komunitateak osabiderik aurkitu ez eta hiltzeko arrisku handian zeudenekin egiten zen. Baina, lekukoen arabera, kamineruek ez zekitenez izerdirik ematen, ezin izan zituzten izurritearen ondorio lazgarriak saihestu.

> «Gaixori(k) txarrena ori ixen san, tisikuk. Kure bakok. Orrek kamiñerun ixerdies osatuten i siren. *Kamineruen izerdiagaz?* Bai. Beti esate san tisikuk osatuteko kamiñeruk ixerdi emon ber daude. Ta kamiñeruk esekilles ixerdirik emoten, esan tisikurik osatuten. Ori esaten san, eseuden ixerdi botaten eseudelako bearrik itxen.»

Tuberkulosiak jotako gaixoak osaezinak ziren, betirako gaixoak.

Bulerretiak jota hildakoen arropa guztiak erre egiten ziren, izurritea gehiago zabal ez zedin.

Pulmoni esaten zaio okerrera egindako katarroari. Ez zen izaten aurretik aipatutako gaitza bezain hilgarri eta beldurgarria, baina hiltzeko arriskua handia zen, txarrera eginez gero.

Pulmoni-bedarra (*Pulmonaria longifolia*), 2007.

Osatzeko *pulmoni-bedarra* (*Pulmonaria longifolia)* erabiltzen zen, geroago agertuko ziren beste osagai batzuekin batera. Jendeak fede handia zion *pulmoni-bedarrari*. Orbantxo zuridun belarra da, *sanjuan bedarraren* nahiko antzekoa. Etxe inguruetan batzen zuten.

Gaixoaren bularrean ipintzen zen *pulmoni-bedarra*, kataplasma modura, eta zapitxo batekin eusten zioten.

Gerora heldu zen *linaza eta mostaza* ospetsua. Botikan erosten zuten eta gaixoentzako kataplasmak prestatzen zituzten. Azken botika horrek *pulmoni-bedarraren* erabilera baztertu egin zuen apurka-apurka. *Pulmoni* edo birikietako gaitza izaten zutenentzat beste osagarri bat *uzenak* izaten ziren. Mamarro horiek herriko iturrietan eta erreketan topatzen ziren. Hartu eta gaixoari kokotean ipintzen zitzaizkion. *Uzen* edo odol-edaleek odola xurgatzen zioten gaixoari, eta horretara, odola garbitu egiten zelako ustea zegoen. Froga egin zutenen esanean, sano aringarriak izaten ziren. Botikara joatea baino askoz gurago zituzten *uzenak*.

> «Odola atara, personari ta pistiri bere bai esetu dot. Odola lodiegi dekonari..., medikuk itxe aun. Baia usenakas bere bai, itxurritxen oten siren usenak, ta ai(k) bota kokotera, kokoten imiñi txe aik txupa odola. Gure itxurrin bere oten siren usenak. Alau marroitxu betzuk, aunen ingeruko gausatxu betzuk, ta txupa itxe euden, ta ensegida alibiate euden. *Eta nori iminten jakozan?* Pulmoni dekonari bere asko imintxe akon usena. Len pulmoni asko oten san.»

Bronkiok ixitxe esaten zaie bronkitis eta asmari. Kantauri isurialdeko klima hezeak asma eta bronkioetako arazoak eragin dizkio askori aspalditik. Gaur egun ere handia da gaitz horiek Euskal Herrian jasaten dituztenen kopurua.

Bronkioak itxita dituena osatzeko antzinako osagaietako bat, bentosak ipintzea zen. Bentosak botikan erosten ziren eta lepoan ipintzen zitzaizkion itolarrian zegoenari. Suarekin hutsunea sortzen zitzaion bentosari, era horretan, lepoan presioa eragin eta birikak zabal zitezen. Alkoholaren laguntzaz isiotzen zen sua. Bentosa lepoko azalaren aurka ipinita itotzen zen sua eta larrua altxatzen zuen baso barrura. Era horretan birikak ireki eta arnasa errazten zen. Gerriko mina arintzeko ere erabiltzen ziren bentosak.

Bronkioak zabaltzeko, eta asmaren kontra, eukalipto lurrunaz arnasa hartzea izan da beste erremedio bat asko erabilia. Eukaliptoa berandu agertu da Jatabeko basoetan. XX. gizaldiaren azkenerantz sartu zituzten lehenengo landareak. Baina beronen orriak erabiltzen arintxo hasi ziren, eta bizkor indarra hartu.

Eukaliptoa baino lehen, ur goritan lurruntzen zen botika likidoa erabiltzen zen asmaren kontra.

Eta amaitzeko, zabal batu dugun beste sineskera bat aitatuko dugu, biriketako gaixoen inguruan. Auzo ezberdinetako lekukoei batu diegunez, *akar zaharrak* biriketako gaixoak eta izurriteak osatzen ei ditu eta kutsatua izatetik gorde. Zenbat eta zaharragoa izan akerra, hainbat eta sunda bortitzagoa botatzen du. Eta zenbat eta sunda handiagoa, hainbat eta indartsuagoa ei da sendagaia. Etxekoak babesteko, akerra etxeko gortan sartzen zen, ahuntzak kanpoan solte uzten ziren bitartean. Gehienetan aker beltza izaten zen.

TRIPAKO GAITZAK

Tripetako minak edo tripalak izan dira giza gorputzaren digestio alderdiaz zerikusia duten gaitz mota ezberdinen sintoma nagusia. Eta tripetako minen aurka mantzanila izan da osagarririk erabiliena.

Mantzanila landaminetan ernetzen da, osasunarentzat onuragarri diren landare eta urburu gehienak legez. Landaminetan ez da belar txarrik ernetzen, ezta oterik edo sasirik ere, garbi daudenean behintzat. Lur arinak izaten dira, ez haitzezkoak.

Mantzanila garagarrilean batzen zen normalean, eta bero handia egiten zuen urteetan bagilerako etortzen zela diote lekukoek. Batzeko ordua zenean, otzarak betetzen zituzten; behar den beste bildu ez bazen, gehiago batzen zen, eta sobera zeukanak ez zeukanari ematen zion.

Botiketan saltzen hasi ziren arte, jendeak mantzanila batu eta Mungiako plazara eroaten zuen saltzeko. Plazara eroateko altsikatu egiten zuten mantzanila.

Mantzanila etxean kontserbatzeko, ostera, arropa edo paper batean batuta ipintzen zuten gerizpean, lantzean behin apur bat eragin eta denborarekin berez sikatzen zen. Gero kristalezko tarroetan gordetzen zuten gehienetan. Beste batzuek diotenez, eguzkitan eduki behar da luzaro, harik eta ondo sikatu arte, ezpabere urdindu egiten da eta. Mantzanilak, naturala bada, garratza izan behar du, lekukoen esanetan.

Etxe batzuetan bazkalostean mantzanila hartzeko ohitura ere egon da. Mantzanila infusioan hartu izan da beti, *mantzanilla ure*.

Beheranzkoa edukiz gero, olio tantatxo batekin egindako arroz zuria hartzen zen.

Estomagu siku edo estomago lehorra izanez gero, okaran naturalak eta lehorrak egosi eta bi edo hiru hartzen zituzten baso bete urarekin batera. Piku sasoia zenean, goizean baraurik bat hartzea sikuaren aurkako erremedio ona ei zen.

Bestalde, urdailena, *urdilena* deritzan gaitza zegoen. Batzuek sabela jaustearekin lotzen dute eta beste batzuek, jazoera traumatikoren batek eragindako ikara bategatik dela. Gaitz hori osatzeko, lehenago aipatu dugunez, berenberegiko espezializazioa zuten herri-osagileak zeuden. Horiek igurdi edo *iyosi,* eta landareekin egindako ukenduen bidez osatzen zuten gaitza. Gerra ostean *urdilena* zeukan gaixo asko egon ei zen.

HEZURRETAKO MINA

Unure edo erreuma esaten zaio, batez ere zahartzaroan izaten den hezurretako minari. Kantauri isurialdeko klima hezea, ez ei da hezurretako minarentzat ona. Eta horregatik, klima lehorragoko parajeetara joatekoa izan da azken hamarkadetan medikuek aholkatzen izan duten osagarria.

Jendeak gaztetan izaten zituen hezurretako minak, lehen aipatu ditugun *hazurimintzailleak* artatzen zituen, bai igurdien, bai benden bidez.

Zahartegian etortzen ziren erreuma edo hezurretako minak, ostera, itsasoko uraren bidez osatzen ahalegintzen ziren. Itsasora joan, ura ekarri eta umorea jasaten zuen adinekoak tinaku batean hartzen zuen itsasoko ur bainua.

Marea biziak, *mare bizik* daudenean, urteko itsasgora eta itsasbehera handienetan bainua hartzea gomendatzen zen antzina. Eta jai giro barruan, marea handien irailaren hasierako sasoian, iraileko Andre Mariaren egunean, Basordako kalan bainatzeko ohitura zegoen. Herri egutegiari dagokion atalean ikusiko dugu hori.

BIHURKADAK ETA ZANETENA

Bihurkada, *bihorkade* esaten zaie, egungo medikuen terminologian luxazio, distentsio, dislokazio... izenekin ezagutzen diren gaitzei. Dislokazioan aparteko tratua ematen zen, hezurra ateratzea bazen; halakoetan *hazur-imintzailleagana* jotzen zuten.

Baina puntu honi dagokion gaitz eta osagarria, bihurkada eta zanetena, *zanatene*, hezurrekin barik, zainak edo tendoiak bihurtzearekin lotuta dago. Orkatila edo eskumuturra bihurritu, *bihortu* ostean jazotzen zen zanetena, gehienbat. Hezur-ipintzaileek zanetena egiten ba ei zekiten, baina zanetena egiten zuten guztiak ez ziren hezur-ipintzaileak. Auzo gehienetan egoten ziren zanetena egiten zekitenak, eta normalean andrezkoak izaten ei ziren.

Zanatenez egiten jakitea buruko grazia da, lekukoen iritzian. Pertsonari berez, jaiotzaz datorkion dohaina. Osatzen jakitea, beste abilidade batzuk legez, ikasketa

Andrezkoak sendatzeko erabiltzen den *zanbedarra* (*Plantago media*), 2009.

prozesu baten ondoriotzat baino, jaiotzaz jasoriko dohaintzat epaitu izan du herri pentsaerak.

Norbaitek orkatila edo eskumuturra bihurtzen zuenean, *zanatenea* egingo zionagana joaten zen.

Zanetena egiteko derrigorrezkoak dira *zanbedarrak*. *Zanbedar* mota bi bereizten dituzte lekukoek: orri luzeak dituena (*Plantago lanceolata)* erabiltzen zen gizonezkoen bihurkadak osatzeko, eta orri borobilak dituena *(Plantago media)* andrezkoentzako.

Zainbelarrak, *zanaz beterik dauzenak*, oliotan frijitzen zituzten. Gero gurutzeak egin frijitutako belarrekin, bihurritutako gorputz-atalaren gainean, atzamarrekin igurdiak edo *iyosik* egiten zituzten bitartean. Igurdiei, edo masajeari, magiko usaineko esaldi eta errezoen bidez laguntzen zitzaion. Igurdi eta zainbelarrekin gurutzeak egin bitartean, honako esaldia errezitatzen zen:

"Zanatene, zana urrutu,
zana bere lekuan sartu".

Behin igurzteari utzi eta ostean, *mendau* edo bendatu egiten zen kaltedun gorputz-atala. Bendatu ostean, eskutan hartzen zen orkatila, eskumuturra edo bihurritutako aldea, eta errezatu egiten zen. Lorentza Ametzagakoak, XX. gizaldiko Jatabeko *zanatene* egilerik ezagunenak, Aita Gurea errezatzen zuen. Beti ere gaixoarekin batera, biek batera egiten zuten otoitz.

Orkatila, eskumuturra edo bihurtutako gorputz-atala, bendaturik mantentzen zen hainbat egunetan. Bederatzi egun izaten ei ziren, adinekoen esanetan. Baina ez dugu aurkitu guztizko adostasunik. Batzuek diote hiru egun zirela, beste batzuek bederatzi zirela –bederatziurrenarekin zeozelango lotura eginez– eta adostasun bakarra egun kopuruaren izaera bakoitian dago.

> «Biorkade itxen dosunen, momentun agarra ber dako. Beluau agarraten batzesu, ainbeste denpora tardate'tzu kuraten. Ori, ariñ agarra ber dako, ta in beran kure, ia pasten badatzu. Ta paste espadatzu, medikuana. *Kurea zelan egiten zenduen?* Olan bedar batzuk oten dire ta aik iñ oriotan sartenen, ta aik imiñi. *Ze bedar klase da hori?* Sanbedarrak, edoseiñek itxeko da ori. (...) Sanakas olan potolo-potolok, olan biribillek. Baia gisonanak luse(k) tire, estire igualak biek e! *Zer dagoz, batzuk enbrentzako eta beste batzuk gizonentzako?* Bai, eta orrek inportantzi andi deko. Alan esaten dee. (...) Sanatenesa(k) pere beran asuntu deko. Asko in badosu, gitxitxuau in badosu, se kargata badeko esta pasten egun beten. (...) Lantzarratan oten dire, bedarra daun solon, es labrata dausen solotan, landamiñetan. *Eta zelan egiten da?* Oriotan bota bedarrak, ta imiñi ganetxun, ta gero benda bateas amarra.»
>
> * * *
>
> «Sanatenes Lorentza Ametzakok itxe un, biortu edo min eskuturren edo dekosunen, orkatillen bere bai, baia eskuturren askotan ixete san, edo ukondon, edo kadere edo... (...) Ori grasi i da, buruko grasi i da. Ori itxen da, oriotan prijidu bedar batzuk, sanbedarrak, lusenga batzuk, sanas bete-

ri(k) tausenak. Aeri emon buelta batzuk sartenen oriotan, eta imiñi an kurtzetara, eta iyosi lelengo, ta mendau, ta an imiñi. *Josi?* Yosi es, iyosi, iyosi..., igurdi. Eta iyosi-iyosi iñ eta an imiñi ai(k) bedarrak, eta gero trapu betegas... *Errezurik egiten zan?* Bai, erresa beti itxen san, orrek Lorentzak Aitxegure itxen i un. Lelengo "sanatene, sana urrutu, sana bere lekun sartu" esaten i san, ta gero imiñi mendata, eta esku ganen imiñi txe erresa.»

UMEEN GAITZAK

Aipatu berri ditugun gaitzak helduenak ere izan daitezke, baina batez ere umeek jasan izan dituzte. Umeen ahultasunak, helduen sendotasunaren aldean, tratamendu bereziak eskatu ditu kasu batzuetan. Antzina seinen heriotza kopurua nahiko handia zen, eta horrek asko larritzen zituen gurasoak, gaixotasunen aurrean. Beste gaitz batzuk, ostera, heldutasunean arriskutsuagoak dira seintzaroan baino.

Elgorria, eskarlatina eta *kukurruku-eztule* edo tosferina izan dira Jatabeko seinek jasan izan dituzten ohiko gaitzak.

Ume batek elgorria hartzen bazuen, gorputzean ateratzen zitzaizkion garauetan igartzen zitzaion. Etxean edukitzen zuten gurasoek, berotan, osatu arte. Sein batek elgorria hartzen zuenean, gaitza igaro barik zeuden etxeko garaitiko umeekin sartzen zuten gela berean. Horretara, umetan igarotzen zuten guztiek elgorria. Nagusitan askoz arriskutsuagoa zelako.

Tosferinari kukurruku-eztula esaten zaio. Lekukoen esanetan, gaixoa arnasa bete ezinik eta akabuan kukurruku antzekoak eginez ibiltzen zelako ei deritzo horrela. *Aceite de ricino* edo akain-belar olioa hartzen zuten gaitzak jotako umeek. Erremedio horrek zapore oso txarra ei zeukan, beheranzkoa eragiteaz gainera.

Txatxur edo esne-haginak loka zeuzkatenean, firutxoa lotu haginari, tira egin eta kendu egiten zuten.

SINESMEN ETA HERRI-ERLIJIOAN OINARRITUTAKO GAITZ ETA OSABIDEAK

Euskal Herrian, beste lurraldeetan legez, izan dira, eta badira, sorginkeria eta madarikazioek oste txarreko gaixotasunak erakartzeko indarra dutelako sinesteak. Norbaitegazko areriotasuna erakusteko, *madariketu* esateak ondorio kaltegarriak ekar zitzakeen, pentsaera tradizionalaren arabera. *Ijitto* eta eskekoen madarikazioa izaten zen beldurgarriena; herri pentsaerak sorginkeriarekin lotzen zituen jendeenarekin batera.

Umeak izaten ziren holakoetan ohiko kaltetuak, eta ume txikerrak zeuzkaten gurasoek ardura bizia hartzen zuten euren seme-alabak madarikazioetatik babestu edo libratzeko.

Begizkoena, *begizkone*

Lehenago oso zabalduta zegoen ustea zen, pertsona batzuek, euren begirakunearen bidez, gizakiei eta animaliei kalte egiteko indar misteriotsu baten jabe zirela-

koa. Jose Migel Barandiaranek, bere Mitologia Hiztegian[5] *betadur* berba dakar jasorik, begiaren indar magikoa adierazteko. Jataben *begizkone* (begizkoena) esaten zaio begien indar magikoaren bidez osasunean egindako kalteari. *Txarto gure daunek ezkerreko begiez aditxuten dau*, esaera da, kalte egin gura duen lagunagatik. Lehenago itzelezko beldurra izaten zitzaien indar magiko horrek osasunean eragin zitzakeen ondorioei.

Gailegoak, *galleguk*, beldurgarritzat eduki dituzte Jataben, begizkoa egiteko zeukaten joeragatik eta haren ustezko indarragatik. Gaitz-erizte hori ezin da ondo ulertu, bere kultura kontestu barruan ez bada. Izan ere, XX. gizaldian zehar Jatabera agertzen ziren eskeko asko galiziarrak ei ziren. Hala bada, galiziarrekiko uste hori, ijito eta eskekoei betidanik egotzi izan zaien begizkoena egiteko gaitasun eta joerarekin lotuta dago.

Jaso ditugun datuen arabera gizakiei egiten zitzaien begizkoena, animaliei baino gehiago. Eta gizakien artean umeak izaten ziren arriskurik gehien izaten zutenak. Begizkoena egiteko aukera ere, umearen edertasunaren araberakoa zen. Ezaina edo motza izatea begizkoaren aurkako erremediotzat ikusi izan da. Erberako lekuko batek bere amari esaten zion legez: *Grazik ez garen majak, ezpabere...* (Eskerrak dotoreak ez garena, bestela...). Umea, polita bazen, ez ei zen larregi erakutsi behar, ezpabere begizkoena egiteko arriskua handiagoa zen. Umeren bat gaixotu eta begizkoena egin zioten ustea zabaltzen bazen, lar erakutsi izanagatik zela esaten zuten herritarrek lehenago.

Umea begizkotik babesteko *kutunak* eta eskapularioak ipintzen zitzaizkien. *Kutunak* baileta antzeko bihotz itxurako poltsatxoak ziren. Lekukoek ez dute akorduan zer sartzen zen euren barruan. Uribe Kostako hurreko herrietan, hurreko erreferentzia legez, kirikolatzaren haginak, San Juanen ebangelioko zatiak, tripako zil ataltxoa, *tripeko zillen zatitxu bet*, ikatz apur bat... sartzen zituzten babesgarritzat poltsatxo horretan. Izan liteke Jatabeko *kutunek* ere antzeko edukia izatea. Gerora, eskapularioek ordezkatu zituzten kutunak; arterago erabiltzen zen babes eredua aldatu egin zen. Andre Mariaren irudia agertzen zela eta, gaitzen aurreko babesa ematen zuten poltsatxo bedeinkatuak erabiltzen hasi ziren.

Begizkone ume bati egin izanaren ezaugarriak, ume hori jakandu eta erkintzea izaten ziren. Jan gura ezik bazegoen, eta asko argaltzen bazen, begizkoena egin izan zioten ustea zabaltzen zen.

Umeari begizkoenik egin ez zekion, *Ze ume edarra!* esaten zuenean norbaitek, *Jaungoikok berinketu deille!* gehitzen zitzaion segituan. Esaera hori gehituz, umea begizkoenetik babesturik geratzen ei zen.

Umeak begizkoenaren sintomak zituenean, bedeinkatzera eroaten zen, Deustuko San Felicísimora gehienetan. Aurrerago ikusiko dugunez, eliza horrek umeekin zerikusi berezia dauka.

---

[5] BARANDIARAN, *Diccionario de Mitología Vasca*, op. cit., *betadur* ahotsa, *adur:* begietako indar magikoa.



Kutunak eta ebangelioak.

Bedeinkatu eta gero ere umeak jakan eta erkinduta segitzen bazuen, begizkoena osatuko zion baten batengana jotzen zuten etxekoek. *Begizkone* osatzen zutela esaten zutenen artean gezurretan zebiltzanak ere asko ei zeuden. Horregatik, halako pauso bat emateko orduan, etxekoak uste osoko lagunen batengana joaten ziren, edo begizkoa berak osatu edo nork egin zezakeen esan zezan.

Behin osagile egokia aurkitu eta gero hasten zen osabidea. Euskal Herrian zehar begizkoa osatzeko modu ezberdinak ezagutzen dira. Jatabeko kasuan, berun urtuaren bidez egiten zen; ez hori bakarrik, begizkoena egin zuen erruduna zein zen ere jakitera ematen zen. On Jose Migel Barandiaranek begizkoa osatzeko modu horren gaineko informazioa Jataben bertan batu zuen, XX. mendearen lehen hamarkadan[6].

Batzuetan osagileak izara zuria ipintzen zuen gaixoaren gainean, osabidea garatu bitartean, baina antza denez, gaixoa umea zen kasuetan baino ez zen egiten. XX. mendearen bigarren erdirako galduta zegoen osabidearen pausu hori.

Osagileak –gehienetan andrezkoa izaten zen–, beruna urtzen zuen zartaginean. Jarraian beruna ur hotzetan isurtzen zuen. Beruna solido bihurtzen zen berehala eta osagilearentzat esanguratsuak ziren irudiak hartzen zituen. Oilarraren itxura hartuz

[6] ETNIKER EUSKALERRIA, *Medicina popular en Vasconia,* op. cit., 628. or.

gero ziurra ei zen norbaitek begizkoena egin izana[7]. Horrez gainera, bihotzaren eta orratzaren irudiak izaten ziren berunak hartzen zituen beste itxura esanguratsu bi. Orratzek erruduna zein zen jakiten laguntzen zuten, eta inoiz begizko egilearen irudia ere agertzen ei zen.

Azkenean, bihotza orratz barik agertzen zenean osatzen zen gaixoa. Gerta zitekeen horretarako, osabidea egun askotan ematen ibili beharra.

Begizkoenaren gainean jardutean, erlijiotasunaren gaia atera izan da sarri gure ikerketan. Lekukoen ustez, begizkoenari sinestea ematea ez ei da *fede garbiko* pertsonen kontua. Beste batzuek, *fedebakoen* kontua dela esateraino ere heldu dira. Baina batzuk eta besteak bat datoz, lehenago Jataben, begizkoenaren gainean fede handia eta indartsua zela.

Liburu honi dautsan DVDan, Bonifacia Lopategi jatabarra (*G.B.*) ikus daiteke *begizkone* osatzeko modua praktikatzen[8].

Osasuna eta herri-erlijioa

Osasuna izan da beti bizitzan gehien balio duen ondasuna; gaitzak, eritasunak, ostera, bizirik irautea galarazi dezake eta ez du bizitza behar moduan gozatzen uzten. Leku batzuek izaera sakratua dute gure lurraldean. Horrelako garrantzitsuenetakoen daturik ez dugu, kultua noiztik dagoen indarrean edo eta zergatik egiten den argitzeko. Baina dakigun apurretik, badakigu indar handikoa eta sakon sustraitua izan dela herri jendeak leku horiei izan dien lotsa, errespetu eta fedea.

Leku horietako Ama Birjina eta Santuei, gaitzak osatzeko gaitasuna egotzi die herritarrek antzina-antzinatik. Bertako urek gaitasun magikoak dituzte sarritan, eta data jakin batzuetan, Doniane egunez (San Juan) eguzkia irten aurretik, esaterako, leku horien indar osagarria biderkatu egiten da. Horien artean jatabearrentzat garrantzitsuenak izan direnak aztertuko ditugu ondoren.

Ekandu ezaguna izan da, norberaren edo inoren osasunaren truke, santuei leku sakratu batzuetara erromesaldiak eskaintzea. *Promesak* esaten zitzaien era horretako jardunbideei. Promesa egiten zuenak ezin beste inori esan zer eskatzera zihoan, zeren osterantzean ez zen promesa hori beteko. Bestetik, eskatu zuena betetzen bazen, behartuta zegoen trukean eskainitako erromesaldia egitera. Osterantzean, heriotza ohikundetan ikusiko den legez, promesa egin eta betetzen ez zuenak ez zuen atsedenik hartzen, ez eta haren arimak hil eta ostean ere.

Santu bakoitzak, eta lur eremu sakratu bakoitzak, bere berezitasuna dauka gaixotasunei begira. Baina, edozelan ere, badago botere handiagoa, edo hiltzeko arriskurik handiena dakarten gaitz guztiei aurre egiteko indarra esleitzen zaion leku berezirik, Urkiola esaterako.

---

[7] BARANDIARAN, Jose Miguel. "Paletnografía vasca" *in Euskalerriaren alde,* X (1920) 460. or.

[8] Bideo hori, Anton Erkoreka, herri-medikuntza ikerlari nekaezin eta EHU-ko medikuntza irakaslearen bidez zuzendu dugu. Eskertzekoa benetan, irudi horietan Jatabeko herri-medikuntzaren altxor parebakoa ageri da eta.

Jatabearrak peregrinazioan Arantzazun, 1957ko uztailaren 11n.

Osasun eta bizitza kalitatearekin zerikusia duten eskariak egiteko, santutegi bereziak egon dira lehenagoko jatabearrentzat. Santutegi horiekiko fedeak indar eta funtzio ezberdinak izan ditu denboran zehar. Izendatuko ditugunez gainera, gogoan hartzekoa da Elorrioko Balentin Berriotxoaren eliza eta Arantzazukoa ere. Garai batean familia asko haraino joaten ei ziren erromesaldian.

Deustuko San Felicísimo

Santutegi honetan santuaren gorpua dago eta horrek indar handia eman dio jendearen fedeari. Santu gaztea ei zen, eta horregatik, umeen gaitzak osatzeko gaitasuna eman diote belaunaldietan zehar. Lekukoen arabera, bertara joateko, Bilbon, hirian sartu behar zenez, batzuk horra joan beharrean batzuetan, Begoñako Andra Mariaren basilikara jotzen zuten. Bertara heltzea errazagoa zelako.

Umeak San Felicísimora bedeinkatzen eroaten zituzten, begizkotik babesteko asmotan. Deustuko Santutegira berbetan ikasteko arazoak zituzten umeak ere eroaten zituzten, santuak berbetan ikasten lagun ziezaion.

Begoñako Andra Mari

Lekukoek diote beti joan direla Begoñako Andra Mariaren basilikara erromesaldian. Fede handia eduki izan diote, eta bada oraindino ere urtean-urtean, abuztuko Andre Mariaren egunean basilikaraino erromesaldian doanik.

Begoñara ezkontzen joateko ohitura ere antzinakoa da, han jatabear gutxi batzuk baino ezkondu ez diren arren. Umeak bedeinkatzeko ere, Begoñara eroateko ohitura zegoen.

Jatabeko itsasgizonen babesle moduan ere har genezake Begoñako Andra Maria. Izan ere, antzinako itsasgizonen artean, etxera bizirik eta osasunez bueltatuz gero, Begoñara joateko usadioa zegoen. Osorik eta onik bueltatu izana eskertzen joaten ziren.

Lekuko batzuen iritzian, Begoña izan da erromesaldi eta promesak egiteko, jatabearren artean, indar handiena izan duen leku sakratua. Umeak larriki gaixorik egoten zirenean Begoñara eroaten zituzten gurasoek, beste santutegi batzuetara legez, euren osasunaren alde otoitz egitera.

Garai batean herriko abadeak gidatzen zuen abuztuko Andra Mariaren bezperako erromesaldia. Gauez irteten ziren, eta Mungiatik egiten zuten bidea Bilbora. Begoñan, goizeko lehen meza entzun eta herrira bueltatzen ziren. Antzina oinez etortzen ziren bueltan, baina sasoi batetik aurrera trenez itzultzen hasi ziren, Mungiara.

Andra Mariaren egunean ez ezik, urteko edozein egunetan joaten ziren erromesaldian Begoñara. Bertan etxekoen hildakoei meza atera eta oinez itzultzea izaten zen ohikoena. Osasun arazoengatik joan ezin zutenek ere, dirua eman ohi zieten erromesaldian zihoazenei, mezak ateratzeko.

Jendeak urteetarako promesak egiten zituen, ez egun bakarrerako. Ondorioz, nahikotxo ziren urtero huts egin barik joaten zirenak. Jatabetik Begoñara oinutsik joan direnak ere ezagutu izan dituzte lekukoek.

Urkiolako San Antonio

Lekuko guztiek, seintzarotik, ezagutzen dute Urkiolara erromesaldian joateko ohitura. Jende askok ei zeukan santuaren egunean hara joateko usadioa. San Antonioren arteragoko egunean irteten ziren oinez, eta Gamizeko norabidean abiatzen ziren Durangorantz. Gaua bideko etxeren bateko lastategian egiten zuten, eta, santuaren egunean, goizeko seietako meza entzun eta gero itzultzen ziren etxera. Janaria etxetik prestatuta eroaten zuten. Jatabe inguruko herri batean batua da, egun horretako janaria artxoa izan ohi zela, baina gure lekukoek ez dute gomutatzen euren aurrekoek holakorik egiten zutenik. Biderako behar zen lo egiteko lekua, belaunaldiz belaunaldi, erromesaldiz erromesaldi, sortutako hartu-emanak zuzentzen zuen. Horretara, seme-alabek gurasoek lo egin ohi zuten etxe berean hartu ohi zuten aterpe. Beste batzuen arabera, hainbatek, bideko etxeetan barik, Urkiolan bertan egiten zuen lo. Azken horiek irak batzen zituzten, oheak egiteko, eta bertan hartzen zuten gauerako deskantsua. Jendeak urteetako promesak edukitzen zituen, beraz urtetan joaten zen. Mezak ateratzen zituzten, hildakoen alde gehienetan, eta eurentzako edo maite zituztenentzako eskeak egiten zituzten. Gero, egindako promesa bidez bete beharreko erromesaldiaren truke.

Urkiolara erromesaldian joateko ohitura hain zen zabala, ezen horren inguruko kontakizunak ere batu ditugu. Horiek herri-literaturari dagokion atalean ikusiko ditugu. Eta Urkiolako harria eta Anbotoko Damari buruzkoak, Mitologiari buruzko kapituluan aztertuko ditugu sakonkiago.

Urkiolako harriari bueltak ematera joaten ei ziren gazteak, era horretan bikotekidea topatuko zutela eta. Baina adindunek dioten moduan, santuak ez zien dirurik ematen, eta laguna aurkitzea sano gaitza zen. Erromes sekula joan ez eta harria ezagutzen ez zutenek ere San Antoniori eskatzen zioten, desio bidez, bikote-laguna. Lekukoen iritzian harri berezia da Urkiolakoa, baten batek arrazoiren bategatik hara eroandakoa. Izan ere, ez ei da hori hormak egiteko harria.

San Antoniori mezak ateratzen zitzaizkion, mirariak egiten zituela eta. Horren bila agertzen ei ziren neskazaharrak.

Azken garaian autobusez egiten ei dituzte jatabearrek Urkiolarako osterak. Eta irribarrez begiratzen ei diete adin batetik gora harriari bueltak ematen ibiltzen direnei, sasoia joan ostean akordatu direla eta.

Gaztelugatxeko San Juan

Jatabearren artean sano santutegi estimatua da Gaztelugatxeko San Juanena. Aurreko hirurekin batera, erromesaldien ohiko helmuga da. Jatabetik horren hur egoteak eta San Juan egunak, edo udako eguzki solztizioak, gizarte tradizionalean zuen garrantzia handiak, indar berezia eman diote. Ostera, ezberdintasun handi bat adierazten dute lekukoek santutegi horren inguruan. Izan ere, aurretik aipatu ditugun santutegietara edozein egunetan joaten ei zen jendea promesa betetzera. Baina Gaztelugatxera, santutegiaren jaiegunetan bakarrik.

Ustez tenplarioek eraikitako gaztelua zegoen leku berean dago egungo santutegia. Bermeoko lurretan, baina Bakioko erdigunetik askoz hurrago dagoen irlan eraiki zuten. 365 eskailera, urteak egunak beste, ei zituen arterago santutegira igotzeko bideak. Egun, ostera, berrikuntza beharrak direla medio, 303 baino ez ditu. Eskailera kopuru bat izan zein bestea, oinutsik igotzeko ohitura egon da antzinatik. Batzuek diotenaren arabera, norberaren etxetik santutegira oinutsik joateko ekandua ere existitu izan zen.

San Juan egunaren, bagilaren 24aren bezperan abiatzen ziren santutegirantz. Askotan musikariak lagun zituztela joaten ziren inguruko herrietako gazteak. Horrexegatik, hain zuzen ere, lekuko batzuentzat Gaztelugatxera joatea jaia egitea izaten zen.

San Juan egunaren bezperan ez ezik, San Inazio egunean ere joaten ziren jatabearrak Gaztelugatxera, Arrietako, Errigoitiko... eta beste herri batzuetako biztanleekin batera.

Dena dela, herri-medikuntza lantzen gabiltzan atal honetan, San Juan egunean zentratuko gara. Aurreko kasuetan legez, lekuari osasunaren aldeko botere magikoa onartzen zaion modu berean, bagilaren 24ari berari, bere bezperarekin batera, osasunarentzako mesedegarriak diren ahalmenak esleitzen zaizkio.

Gaztelugatxera joaten ziren San Juan egunez, eguzkia irteten ikusteko, semealabak eduki gura eta ezin zituztenak. Erromesaldi berezi horri zin-opariak gehitzen zizkioten sarri, antzutasunaren aurkako kasuan, sein jaioberrientzako arropatxoak uzten zituzten santutegian bertan.

Goizaldeko bost eta erdietan irteteko ohitura onartu digute bertatik hurren bizi zirenek. Elizatik gora doan bidetik joaten ei ziren Bakioraino.

Baina asagotik zetozenek *Oizarretan* egiten zuten lo, egun Eneperi jatetxea dagoen lekuan, menditik hartutako iren gainean.

Heltzerakoan kanpaia jotzeko ohitura dago. Horretara, buruko minak desagertzen ei dira urte guztirako. Beste batzuek haginetako minaren aurkako erremediotzat daukate santutegiko kanpaia jotzea.

Orratzak itsasontzi baten barruan gorde, eta santutegian uzteko ohitura ere ezagutu dute lekukoek. Antza denez itsasgizonek, edo euren andreek, egiten zuten. Horren bidez santuari barkuan itsasoratutako guztiak onik bueltatzeko babesa eskatzen zioten.

Koxo edo herren ibilita ostean osatzen zirenek ere, santutegian uzten ei zituzten euren makuluak. Era horretan eskertzen zioten santuari euren osasunaren hobekuntza.

San Juan eguneko goizaldeko garoari, osasunaren aldeko botere magikoa esleitzen zioten lehengo jatabearrek. Eguzkia irten aurretik garo gainean oinutsik ibiltzea hezurretarako ona zen ustea zegoen. Era berean, San Juan bezperan leihoan edalontzi bat utzi eta hurrengo goizean garoa edatea ere, sano ona ei zen osasunerako.

Horrez gainera, San Juan bezperan batzen ei ziren gero etxeko erremedioak egiteko erabiliko zituzten sendabelarrik garrantzitsuenak.

IX
JAIOTZATIK HERIOTZERA BITARTEKO OHIKUNEAK

Igaro-erritu —"ritos de paso" gaztelaniaz— moduan hartzen dira egoera batetik besterako igaropidea, trantsizioa, markatzen duten ohikune kolektiboak. Pertsona baten bizitzan, edade batetik bestera igarotzean egiten diren erituei esaten zaie: jaiotza, nerabezaroa, ezkontza eta heriotza, batez ere. Igaro-une horietan ekintza sinboliko asko egiten dira. Kristau sakramentuen eskema barruan egituratu izan dira gizaldiz gizaldi igaro-erritu horiek: bataioa, lehenengo jaunartzea, sendotza, ezkontza eta hileta. Hala ere, bizitzako jazoera horiek, hainbat eta hainbat herri sinesmen eta herri ohituraz horniturik daude.

JAIOTZA

Oraindino oraintsura arte —eta izan liteke gaur egun ere gehitxoago edo gutxiago irautea—, umeek euren jatorriaz galde egiten zietenean euren gurasoei, hauek erantzun diferenteak eman izan dizkiete. Erantzun bide guztion helburua, modu batera edo bestera umeek ernaltze edo ugaltzearen gainean zuten jakingura desbideratzea zen.

Orain adinekoak diren jatabearrei, umezaroan, umeak zikoinak ekartzen zituela esaten zieten gurasoek, Bilbotik, Parisetik edo Frantziatik.

Batzuek sinestea ematen zieten gurasoen esanari, eta beste batzuek ez, gaur egun aitortzen dutenez. Eta naturaren obserbazio bidez hurbiltzen ziren ernaltze eta ugaltze prozesuaren ulermen arrazoizkoa izatera, abereen ugalketaren bidez.

Antzutasuna nekez zuten gaitza zen andreentzat tradizioko gizartean; kasurik gehienetan, ondorengorik ez edukitzearen errua andreei egozten zitzaien eta.

Halako kasuetan[1] San Juan Gaztelugatxekora jotzen zuten familia eske. Santuaren egunean hara joaten ziren eguzkia irten aurretik eta ume jaioberrientzako soinekoak uzten zituzten, zin-opari modura.

---

[1] Herri medikuntza atalean aipatua dugu puntu hori.

Erberako lekuko bati bere amak hil aurrean aitortu zion, San Juani egindako promesa bati esker etorri zela mundura.

Seindun zegoen andreak, bere haurdunaldian, azkenengo egunera arte ekiten zion bere betiko zereginetan. Ama izateko zegoenak bere gurariei neurria hartu behar ziela uste zuten, zeren, jadetsi ezineko kapritxo edo gutiziaren bat bazuen, seinak horren zeinua gorputzean grabatuta zeukala jaioko zela pentsatzen baitzuten.

Umerik gehienak etxeko ohean jaiotzen ziren. Erditze orduan, *partere,* emaginaren laguntza izaten zuten, etxeko garaitiko andre eta auzoko emakume batzuk ere horretan parte zutela.

Erditzealdia emaginaren ardurapean egiten zen. Hark agintzen zizkien garaitiko andreei egin beharreko zeregin guztiak, eta ahal zuten guztian laguntzen zioten. Jataben, lekukoen akorduan behintzat, beti egon da medikua. Horregatik, erditze batzuetan medikua eta emagina biak egoten ziren. Baina orokorrean, erdialdi gogorra edo gertatu ezik, ez zitzaion medikuari deitzen. Jakoba izena zuen emagin ospetsua ibiltzen zan aurreko gizaldian Erberako etxeetan.

Emaginaren egitekoa izaten zen amari erditzeko unean laguntzea. *Zille* edo zilbor-hestea ebakitzen zuen. Gero, barreño baten ura ipini eta umea garbitzen zuen, sikatu, jantzi, faxa bueltaka ondo batu gorputzaren inguruan, eta ilunetan ipintzen zuten sein jaioberria. Neskatila bazen, belarrietako zuloak egiten zitzaizkion, geroago belarritakoak ipini ahal izateko. Egurrezko kuma izaten zen umetxoaren etzalekua, belaunez belaun igarotzen zena. Geroago metalezkoak ere agertu ziren.

Juanjo eta Maribi Egia, Mardaratz baserriko portalean, 1969.

Umea begiak itxita jaiotzen zen, eta horregatik lehenengo egunetan leku ilunean edukitzen zuten. Egunak igaro ahala, begiak zabaltzen hasten zen umea, eta amak poz handia hartzen ei zuen. Begiak irekita jaiotzen zen umea *espabilau* jaio zela esaten zen.

Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkaden bueltan, aldakuntza handiak gertatu ziren umea erditzeko orduan amari laguntza ematen ziotenen inguruan. Emaginak bere jakintza enpirikoaren arabera jokatzen zuen; ametatik alabetara irakatsitako ezaguerak ziren emaginenak. Eta erditze kontuaz gainera, osabelarren gainean eta bizitzako erritu garrantzitsuetan, jaiotza eta heriotzakoetan kasurako, bete beharreko zereginen gaineko jakituria zeukaten. Baina apurka-apurka, aldi horretatik aurrera, ama seindunak ospitaletara eroaten hasi ziren, han heziketa akademikoa zuten profesionalen eskuetan uzteko amei erditzen laguntzea.

Aldaketa horren arrazoietariko bat, nagusiena, tradizioko gizartean umea jaiotzerakoan edo handik gutxira gertatzen zen umeen heriotza kopuru handia zen. Orduan horrexegatik bataiatzen zuten umea jaio eta lasterrera. Tradizio gizartearen pentsamoldean, umea *moroa* zen harik eta bataiatu arte; hala dute euren akorduan Jatabeko eta inguruetako adineko jendeak. Eta bataioa baino lehen hiltzea suertatuz gero, ezin izango zuen lur sakratuan atseden hartu.

Bataiatu barik hiltzen ziren umeei *linboan* ematen zieten lurra, ortusantu ondoan berariaz bereizitako lur atalean; eta *linboko umek* esaten zitzaien. Jokabide hori, amak eta etxekoek gurata edukitako umeak hiltzen ziren kasuetan bakarrik hartzen zen. Bestela esanda, aldi hartako moralak markatzen zituen irizpideen barruan jaiotako umeekin jokatzen zen horretara. Ezkongabeko ama batek, edo adulterio bidez umedun geratutako batek seina galtzen bazuen, ugazabandreak jagon ohi zuen ortuan lurra ematen zitzaion. Ezin izan dugu jakin, ostera, ea hildako umeari teila baten azpian lurra ematen zitzaionentz, ekandu zaharrean egiten zen legez. Teila gainean ipintzearen bidez, hildakoaren etxekotasuna eta babesa adierazten ei zen[2].

Ikerketa-jardunean jakitera eman zaigunez, seina ortuan hobiratzea sekretu handiz egiten ei zen. Ume horien gainean berba egitea tabua zen. Existitu ez balira lez jokatzen zen. Baina behin baino sarriago gertatuz gero, gauzak beste batzuen jakitera heltzen ziren: ba ei dago soroan zazpi ume lurperatu dituen etxerik ere.

Desohore faktore barik, araubide moralaren arabera etorritako umeren bat hiltzen zenean, ohikoa izaten zen beste ume bat ekartzea *uriti* edo inklusatik, joandakoaren lekua bete zezan. Aldundiak errenta moduko bat ematen zien familiakoei, umea hartu izanagatik. Hala ere, odoleko guraso zirenek zazpi urteko epea izaten zuten umea atzera eskatu ahal izateko. Eta hori jazotzen zenean, umea adoptatu zuten gurasoentzat guztiz mingarri izaten zen, batez ere amarentzat.

Orduko denboretan ez baitzegoen familia plangintzarik –gaur ulertzen den eran, behintzat–, izaten ziren familiak, euren ondasun urriekin jagon ezin zuten beste seme-alaba ekartzen zutenak, eta halakoetan ohitura zen sein jaioberria elizako ateetan uztea. Edo ostean, Bilbora eroaten zituzten, *urire*. Ezkontzaz kanpo ekarri-

---

[2] ETNIKER EUSKALERRIA. Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia.* Bilbao, 1998, 120. or.

tako umeen kasuan ere, gauza bera egiten zen: elizako ateetan utzi edo Bilboko umezurtz-etxera eroan.

Umea erditu ondoren, arreta eta zaindu-behar guztiak umearentzat eta amarentzat izaten ziren.

Kezka handia izaten zen, amak behar den beste esne izango ote zuen. Ama batek umeak eskatzen zuen adina esne izaten ez bazuen, auzoko andreren bati eroaten zitzaion, seinari bularra emateko ardura har zezan. Auzoan horretarako modurik zeukan andrerik aurkitzen ez bazen, aldea-etxeetako amaberri gazteek opesten zuten euren burua umetxoari bularra emateko. Baserrietako neska gazteak herri eta hiri handiagoetara ere joaten ziren aña edo inude lana egitera.

Isidro Elgezabal, 1972.

BATAIOA ETA ELIZARA SARTZEA EGITEA

Aurreko atalean esan dugunez, umea ahalik eta arinen bataiatu behar zen, kristau egin barik hilko ote zen beldurrez. Kasu batzuetan, arazoekin jaiotzen ziren umeekin esaterako, etxe-bataioa egiten zen: emaginak berak, medikuak edo etxekoren batek betetzen zuen bateo-erritua.

> «*Batzuetan umea jaio eta segiduan etxean bertan bateatzen zan?* Bai, seoser difikultade..., seoser umeri pasa sedakion, bai ingo san, se ni akordate(n) nas, nire koiñeta batek euki saun famelie, eta esakon ondo

Isidro Elgezabalen bataioa San Lorentzo elizan, 1972.

> etorri. Txarto etor sakon ta medikuk in sotzon berinkasiñoa, berak aittaren intxe in sotzon umeri, ta ondiño ori esta... urte pillo bere estire. In sotzon medikuk berinkasiño, ume txarto egon sanen, ikusi saunen ume estala bisiko.»

Erlijio erritu hori egiten zen, bataioaren bidez umea kristau egiteko eta hala jatorrizko bekatutik libre gelditzen zela pentsatzen zelako. Eta horrez gainera, jaiotzatik hogeita lau ordu barruan egiten bazen, barkamenak irabazten ziren. Denborarekin normalago bihurtu zen egun batzuk itxarotea harik eta bataiatu arte, eta ahal zenetan domekaz egiten zen bataioa. Umea jaio eta bi edo hiru egunera eroaten zen umea elizara bataiatzen.

> «Lenengo bautisau. Bautisora ba... padrinok-eta erote(n) euden umetxu. *Zenbat egunera egiten zan bautizoa?* Ba denpora ona badau, urrau egunen edo alik ariñen, se ardure andi eukitte san ill iñ estakien, se ume txikerrak igual il bere itxen siren, ta ill eskero, bautisa barik daunari estotze itxen elixakori(k) pere. Linbora. *Hori kanposantuan aparte egoan beste lekutxu bat zan, ezta?* Bai, baia ara iñor esan yon eser itxen. Niri estat suerta, baia entzute dekot orrena. Gero peligru andi da, ume txikitxu dan arten baia, bautisata euki eskeronen ba, beres serure dola okitxe san ta bestera linbora.»

Bataioaren erituak babes berezia izaten du aitabitxi eta amabitxien bidez. Aitabitxik edo aita-besoetakoak eta amabitxik edo ama-besoetakoak —bietara esaten dute jatabearrek—, etorkizuneko ardura hartzen zuten euren besoetako umearekin: inoiz gurasoak faltatzea balitz, umearen kargu egiteko ardura. Eta seinari izena ipintzeko orduan, aitabitxi-amabitxiena, etxekoren batena edo jaiotza egunari zegokion santuarena ipintzea izaten zen ohitura.

Vatikanoko II. Kontzilioaren 1970eko erabakiak etorri arte, bataioa elizpean egiten zen, hau da, umea oraindino ez zen elizako kidetzat hartzen. Baina erabakia aldatu zenetik hona, eliza barruan egiten izan dira bataioak, eta domekaz. Normalean bataioetan ez zen bazkari handirik egiten; hori oraintsuagoko kontua da. Jataben, dena dela, oparitxoak eroaten zizkioten amari umearen bataio egunean.

Umeari elizara aitabitxik, amabitxik, aitak eta auzoko andreren batek laguntzen zioten. Umeari laguntzen zion andreak, emagina bera izaten zen gehienetan, besoetan eroaten zuen seina eliz atariraino. Auzoko umeek poztasun handiz bizitzen zuten gertaera hori, ezen elizatik irtetean aita- eta ama-besoetakoek gozokiak bota ohi zituzten eta. Ohitura hori, hala ere, ez zuten etxe guztietakoek betetzen, sarritan zer banaturik ere ez zen egoten eta.

Bataio egunerako soinekoak erosten zizkioten umeari. Gehienetan *faldoitxuk* izaten ziren, mutiltxoen kasuan urdina eta neskatxoenean arrosa.

San Lorentzo elizako pontetegia, Santa Kurtze ermitaren kapitel erromaniko izandakoa, 2009.

Herriko abadeak bataiatzen zuen umea, batzuetan aitabitxik eta amabitxik ebatzitako izenarekin. Ur bedeinkatua isurtzen zen umearen buru gainera, eta *potentegi* edo bataioarriaren gainean bihurtzen zen seina kristau izatera. Gaur egungo bataioarria, Santa Kurtze ermita zaharrean egon zen kapitel erromanikoa da.

Umearen ama ez zen bataiora joaten; egunetan ohean egoten zen. Aldi hartan amaberriak ezin izaten zuen etxetik irten, harik eta garbikuntza erritua bete arte. Erritu hori, Ama Birjinak, Jesus eduki eta berrogei egunera, Jerusalemeko tenpluan egin zuen agerraldiaz loturik dago: garbikundea.

Berrogei egun horietan emakumea orbandurik zegoela uste zen, erditzeak andrea izpirituz lohitu egiten zuela, hain zuzen.

Amaberria, etxe barruan ematen zituen egunetan, ikustaldiak izaten zituen. Beraren ama izaten zen lehenengoetarikoa, senitarteko eta auzoko andreak ere opariekin etortzen zitzaizkion. Ohiko opariak galletak eta anisa izaten ziren. Hala ere, ohitura zaharra oiloa eroatea izan zen. XX. mendean oraindino bizirik egon da ama izan berriari oiloa oparitzeko ohitura. Erdituaren amak beti ekartzen ei zuen oiloa alabaren etxera. Gero, oiloa senarrak jan ohi zuen eta salda uzten zuen andrearentzako. Ohitura hori gogoratzean irribarrea irteten zaie, gaur egun ere, elkarrizketatutako lekukoei.

Antzina, andreak, erditu eta ostean askoz egun gehiago egiten ei zituen ohean gaur egun baino. Elikadura ere ez zen egunerokoa izaten, oilo-salda hartzen zuten egun askotan, janari arrunta jaten hasi aurretik. Lekukoek harriduraz ikusten dute egun, umea egin eta egun bigarrenera, emakumeak bizimodu normala egin eta ohiko janaria hartzea.

Berrogeigarren egunean, amak *elex-sartzeitte* edo elizara sartzea egiten zuen. Etxetik irteten zen eskuetan kandela bedeinkatua duela; emaginak lagundu ohi zion umea eroaten. Beluko mezara heltzen zen amaberria, domekaz batez ere, eskutan kandela eta emaginak umea zeukala, elizaren kanpoko aldean itxaroten zion herriko abadeak. Han ur bedeinkatuz bedeinkatzen zuen ama, erditzeaz garbiturik gelditzen zen eta erditze-osteko egoerari amaiera ematen zitzaion.

> «Ama etzetik urten barik oten san, illebete pentzaten dot ixeten sala, arik eta elix-sartzeitxe esate(n) san. Umeas yon ber ixete(n) san illebetegarrenen edo olan, ta arten esaun urtetan etzeti bere, arik eta sertu arten. *Ama joaten zan eleizara umegaz?* Bai ama umegas elixara, lenengo urteten daun sera ixete(n) san umegas elixara yote.»

Orokorrean, jaiotza berria, bataio egunean baino gehiago, amak elizara sartzea egin ostean ospatzen zuten. Egun horretan, etxean jan-edana prestatzen zen, eta, horrela, erditzen lagundu zioten eta erditu ostean erregaluekin bisita egin zieten andreei, ama ume egin berriak gomita egiten zieten, esker sari.

UMEZAROA

Bataiatu ostean, umetxoak beste egoera bat hartzen zuen jendearen aurrean. Lehen umezaro horretan umea amari oso lotuta egoten zen. Ume jaioberriarentzat

egurrezko edo zumitzezko kuma atontzen zen, zabuan edo kulunka egiten zuen haietarikoa.

Umeari bularra, urte bi inguru zituen arte ematen zitzaion. Batzuetan luzatu egiten zen titia ematea, uste baitzuten umeari bularra ematen zioten artean ez zirela berriro umedun geratuko. Gutxitan erabiltzen zen behi- edo ahuntz-esnea umearen janaritzat, baina erkin zeuden umeei asto-esnea emateko ohitura zegoen, indartu zitezen. Eta, lehenago esan denez, esnea sobran zeukaten andreek beste ume batzuei ematen zieten bularra.

> «Ibiltten siren andrak bulerra emoten, yote(n) siren bulerra emoten, berak amak oki es igual bulerra edo olan, ta yoten siren ausok, umeri bulerra emoten. Antxe..., ori yaso san Unparan bere baten.»

Umea hazteak zekarren karga astuna arintzeko, eta lehengo familiak benetan umetsuak izaten zirela kontuan hartuta, senitarteko andreek ere laguntzen zioten amari horretan. Neba-arreba zaharragoek jagoten zituzten sarritan seme-alabarik gazteenak. Garaitiko senitartekoak *soloan* beharrean zebiltzan bitartean, zaran edo izara baten gainean uzten zuten seina sarritan, olgetako zer edo zer emanda: pilota, sagar bat... eta bertan edukitzen zuten.

Ali Lopategi, Mª Jose Zelaia altzoan duela.

Umeari txikerretan, berbetan ikasten laguntzeko, modu berezian berba egiten zitzaion. Lekuko batzuen ustez, hala ere, umeari diferente berba egitea ez ei da ona. Umeari normal egin behar ei zaio berba, horretara normal ikasiko duela eta. Umeei egiten zitzaizkien berba berezien adibide legez: jesartzeko esaten zitzaien, *apatxe egin*; paseoan irteteko, *atantan*; okelari esateko *txitxi* eta hala.

Lehenengo *txatxurrak* irteten zitzaizkionean, umea bigarren umezaro batera igarotzen zen. Min itzelak edukitzen zituen umeak haginak irteten hastean. Mina arintzeko gauza gogorrak ematen zitzaizkien ahora, haginka egin zezan; ogi-azal gogorra, esaterako.

Bigarren umezaro horretan elikadura ohiturak aldatu egiten ziren, eta umea oinez eta berbetan hasten zen. Jazoera bi horiek poz iturri handia izaten ziren etxean.

Umeari oinez irakasteko, behin *katuke* hasi eta gero, painelu antzeko bat ipintzen zitzaion besapeetatik; nagusiak paineluari eutsi eta ibiltzen hasten zen seina. Beste batzuek eskutik oratuta laguntzen zioten umeari lehenengo pausoak ematen.

Esne-haginak jausten ziren sasoiak, sei eta zazpi urte bitartean, arrazoimen edo arrazoizko adinera heldu zirela esan gura zuen; horrekin batera gizarteratze olgeten hasiera eta etxeko lan batzuk egin beharra zetorren. Une horretan finkatzen zen

Kontxi Iturriaga, 1939.

lehenengoz sexuen banatzea olgetetan, eta olgetekin batera eskolara hasi beharra gertatzen zen.

Esne-haginak jausterakoan, egungo *Ratoncito Pérez-en* mitoa nagusitu baino lehen[3], *Maritxu Talletakori* agintzen zizkioten haginak umeek.

Maritxu Talletako mamarro bati esaten zaio, berez. Beste leku batzuetan Marigorringo esaten zaiona *(Coccinella septempunctata)*. Goitik begiratuta, bere orban belzdun oskol gorriak teilatuaren itxura dauka. Eta Mari, euskal mitologiako izaki nagusiaren ohiko transformazioa ei da, beste animalia batzuekin batera.

Umeari esne-hagina jausi egiten zitzaionean, umearen burkoaren azpian gordetzen zuen amak hurrengo goizera arte. Hurrengo egunean, etxeko edo labeko teilatu gainera jaurtitzen zuen hagina umeak. Indar gehiago edo gutxiago eduki, batera edo bestera jaurtikitzen zuen, baina beti teilatu gainera. Eta botatzen zituen bitartean errezitatu hau esaten zuen umeak:

"Maritxu Talletako,
gona gorridune,
autsi agin zarra ta
ekazu barrie".

Behin hori eginda, *Maritxu Talletakok* hagin berria ekarriko zuela espero zen. Eta beti ekartzen zuen, bai eta ahoan berez irten ere.

Jatabeko umeak behiak jagoten, c. 1975.

[3] Aita Coloma jesuitak XIX. gizaldiaren amaieran asmatua Alfonso XIII.aren amaren aginduz.

Gure ikerketan, ohikune zahar honen eta aipatu berri dugun Aita Colomaren *Pérez* arratoiaren ekandu berriaren arteko gurutzatzeak aurkitu ditugu. Hala, sasoi baten, aurreko gauean gordetako haginarekin batera *Pérez* Arratoiaren oparia agertzen zen. Oparia jaso eta ostean jaurtitzen zuten hagina teilatura. Apurka-apurka kanpotiko ohitura berriak bertoko zaharrari lekua kendu zion, baina bien bitartean sinkretismo antzeko bat gertatu da, azaldu dugun moduan.

Gure lekukoek diotenez, urtegunak ere ez ziren ospatzen antzina. Ez gozokirik, ez oparirik ez eta belarrietatik tira egiterik. Akabuko urteetako ohitura ei da hori.

Adin arrazoizkoan, arrazoi adinean sartuz gero hasten ziren umeak, lehenengo beharrak egiten: itaurren egitea, hau da, uztarriaren aurretik goldaketan ganadua gidatzea, gerraostean errazionamentuaren bila joan eta etxera ekartzea, uretan iturrira joatea, errekaduak egitea eta abar.

> «*Umetan etxean gurasoai lagundu egin behar jakien?* Bai, txikertxikerretati, eskolara ba amairu urte ingerurartean, ta eskolara dola bere itxurren edo ganadun aurreti, edo beiek yagoten solon edo... Nik estot asko iñ orretan, se txikerretati sutegin aitteri laguntan beti, ari aguanta edo beste, edo bakik ba, beti bearra.»

Eskola

Jatabeko umerik gehienak eliza aldeko herri-eskolara joaten izan dira. Goieta edo Marutxeaga auzoak, berriz, bai elizaz Lemoiz ziren etxeetako umeak, bai elizaz Jatabe baina lurrez Lemoiz askoz hurrago zuten etxeetakoak, Lemoizeko eskolara joaten ziren.

Sei urterekin hasten ziren eskolara gutxi gorabehera, eta hamahiru-hamalau urte bete arte joaten ziren. Batzuek adin horretara heldu baino lehen uzten zioten eskolara joateari. Behin hamalau urtera helduz gero, beharrean edo ofizioren bat ikasten hasten ziren. Itsasora joateko zaharragoa izan beharra zegoen. Eskolara joatea, dena dela, etxean egin beharreko lanekin uztartzen zuten. Eta aldea-etxeetan behar asko zegoen sasoian, eskolara huts egitea normala izaten zen. Zehaztu behar da, hala ere, gerra aurretik izan dutela Jatabeko gurasoek euren seme-alabek eskolara hutsik egin barik joateko ardura.

Mutilek eta neskek gela banatan ikasten zuten. Mutilek maisua zuten eta neskatoek andereñoa.

Gerraostean euskara galarazi egin zuen Francoren gobernuak. Jatabeko umeek euskara baino ez bazekiten ere, eskolan erdaraz egitera derrigortuta zeuden. Eta horrekin batera ikasi behar izaten zituzten erregimeneko abesti militarrak.

Jatabera etortzen ziren maisu-maistrek arin alde egiten ei zuten. Irakasle gehienek euskara ez jakiteak izugarri jaitsi zuen heziketa maila. Eta azkenean, Jatabeko ume askok partikularretan eta Plentziako moja eskoletara jo zuten. Garai batean ume asko joaten zen Birlera, klase partikularretara; hango irakasleak ondo zekien euskara, eta erdaraz irakurtzen eta idazten irakasten zien neskamutilei.

Mutilen eskolako umeak, 1934. 1. Agustin Askasibar. 2. Justo Alzaga. 3. Juan Jose Arrieta. 4. Isidro Larrazabal. 5. Juan Mardaras. 6. Bienvenido Bilbao. 7. Jose Maria Bilbao. 8. Jose Ramon Lopategi. 9. Antonio Madariaga. 10. Pedro Torre. 11. Juan Oleaga. 12. Frantzisko Arrieta. 13. Juan Iturain. 14. Balentin Erkoreka. 15. Billalabaso aguazila. 16. Don Luis. 17. Salustiano Bilbao. 18. Angel Ibergarai. 19. Alejandro Elortegi. 20. Angelin Braceras. 21. Jose Bilbao. 22. Anastasio Etxebarria. 23. (---). 24. Felix Urrutia. 25. Patxo Arruza. 26. Teodoro. 27. Santiago Renteria. 28. Pedro Elortegi. 29. Felix Sarria. 30. Luzio. 31. Antonio Mardaras. 32. Iñaki Arrieta. 33. Faustino Agirre. 34. Lino Arrieta eta 35 Teodoro Elortegi.

Eskolako neskatilak, 1930. Beste batzuen artean: Vitoria Larrauri, Ana Elorriaga, Valentina Erkoreka, Irene Agirre, Mª Angeles Larrazabal, Pilar Larrazabal, Antoni de Abaros, eta Vitoria Agirre.



Jatabeko eskolako neskak gerraostean, c. 1940.

Eskolako neskak, 1936. Behean ezkerretik hasita: 1. Pantxike Alzaga. 2. Toribia Plaza. 3. Elena Erkoreka. 4. Mª Angeles Larrazabal. 5. Pilar Larrazabal. 6. Enriketa Golzarri, 7. Bizenta Oiarbide. 8. (---). 9. (---). 10. Elena Erkoreka. 11. Pilar Erkoreka. 12. Felisa Elortegi. 14. Tere Olaran, Clara umeagaz. 15. Luisa Egia. 16. Ines Egia. 17. Irene Agirre. 18. Julita Plaza. 19. Antonia Golzarri. 20. Esperanza Agirre. 21. Isabel Larrauri. 22. Teodora Larrauri.



Don Eduardo Arriaga, herriko abadea eskolako umeekin, 1963. 1. Iñaki Arrieta. 2. Mª Ines Sarria. 3. Jesus Mari Urkiaga. 4. Lourdes Sarria. 5. Inmaculada Sarria. 6. Marisol Urresti. 7. Maite Torrontegi. 8. Bego Torrontegi. 9. Mª Tere Arrieta. 10. Pedro Arkotxa. 11. Juan Mari Plaza. 12. Jose Mari Urrutikoetxea. 13. Iñaki Agirre. 14. Patxi Agirre. 15. Jose Jabier Urkiaga. 16. D. Eduardo Arriaga. 17. Jabier Urkiaga. 18. Jabi Arkotxa. 19. Pedro Mari Arrieta. 20. Angel Areskurrinaga. 21. Ignacio Areskurrinaga. 22. Mª Angeles Renteria. 23. Begoña Larrazabal. 24. Maria Agirre. 25. Mª Carmen Arruza. 26. Begoña Trebolazabala. 27. Rosa Mª Azkorra. 28. Mari Tere Fernández. 29. Cristina Torrontegi. 30. Angelica Amezaga. 31. Begoña Elortegi eta 32 Isabel Amezaga.

Patxi, Iñaki eta Josu Agirre eskolan, c. 1964.

Nieves Egia, c. 1940.

Maribi Egia eskolan, c. 1978.

Jaunartzea eta sendotza

Umezaroak une goren bi ditu kristau erlijioari lotuak, adin maila ezberdinen arteko pausoa markatzeko adierazgarri garrantzitsu izan direnak: jaunartzea eta sendotza.

Esne-haginak jausi, berriak irten eta eskolara joateko adin inguruan —arean beluago lekukoen esanetan—, egiten zen jaunartzea. Jaunartze sakramentua hartzeko egunean umeen janzkera aldatzen joan da XX. gizaldian zehar. Hasieran batzuk beltzik jantzita egiten ei zuten jaunartzea. Gerora, gerraostetik aurrera, neskatilek buruan belo edo mantelina zuri luzea eroateko ohitura zabalduz joan zen. Mutikoen artean, ostera, marinel traje dotoreak soinean eroaten hasi ziren.

Adinez txikerra zenak egiten zuen hurrengo erlijio erritua sendotza zen. Sakramentu hori gotzainak ematen zuenez, gotzaina herrira zetorrenean egiten zen. Vatikanoko II. Kontziliora arte herriko guztiek batera egiten zuten sendotza. Ordutik aurrera, ostera, hamasei-hamazortzi urterekin egiten da, eta horren aurretik prestakuntza egin beharra dago.

Lehenengo Jaunartzea egindako neskatilak, c. 1900. Beste batzuen artean: Mª Pilar Agirre, Margarita Ibarguengoitia eta Eskolastika Urresti.

Milagros Larrazabal eta Luis Egia, 1945. Lehenengo Jaunartzeko oroigarria.

Jose Luis Plaza, 1956.

Angel Plaza, *Karpi*, 1957.

Iratxe Egia komunioa hartzen Juan Egia eta Anastasia Renteria gurasoak bertan direla. San Lorentzo eliza, c. 1979.

GAZTAROA

Praka laburrak kendu eta luzeak ipintzen hasten zirenean igarotzen ziren umeak mutil gazte izatera. Neskatoen artean, ostera, ez dute gogoratzen lekukoek, jazkeraren edo itxuraren aldetik umezarotik gaztezarorako aldaketa agerikorik egiten zenentz. Neska-mutil berdingoak izatetik neska-mutil makarrak izatera igarotzen ziren.

Etxean laguntzetik aldea-etxetik kanpora beharrean joaten hastea ere, praka luzeak janzteko sasoiaren seinale zen mutilentzat. Herri-basoetara beharrean joatea, itsasora, hirira edo aldea-etxe oparoren batera morroi edo neskame joatea, eta XX. mendearen bigarren erditik, industriara lan bila joatea; horiek izan dira umezarotik gaztezarorako pausoa adierazi duten jazoera batzuk.

Bizitzaren aro horretan, ezkondubakoen elkarteetan parte hartzen zuten neska-mutilek. Erlijioko elkarteak izaten ziren, batez ere: Mariaren Alabak, Luistarrak eta *Acción Católica*.

Mariaren Alabak izenekoa neskatilaz osatutako elkartea zen eta kuota bat ordaindu behar zuten kideek. Luistarrak, ostera, mutilen elkartea izaten zen. Herriko abadeak hautatzen zituen kideak eta etxerik etxe diru-batzeak egiten zituzten urtean zehar; Deun Agate bezperan, esaterako.

Neska-mutil gazteak Batzokian, c. 1964. Ezkerretik hasita: Esteban Eguskiza, Ana Mª Elorriaga, Iñaki Zurbano, Inazio Eguskiza, Jesus Aurtenetxe, Jose Mª Bilbao, Mª Asun Alzaga, Jesus Torrontegi, Begoña Bilbao, Imanol Uriagereka eta Jose Luis Plaza.

Neska-mutil gazteak Batzokian, c. 1964. Goian ezkerretik hasita: Iñaki Askasibar, Ana Mª Elorriaga, Esteban Eguskiza, Patxi Alzaga, (hurrengo biak dantzan irakasten etortzen zirenak) eta Iñaki Zurbano. Erdiko lerroan: Begoña Bilbao, Inazio Eguskiza, Mª Karmen Elorriaga, Inazio Larrauri, Ines Uriagereka, Jesus Torrontegi, Jesus Aurtenetxe, Mª Asun Alzaga, Luis Bilbao, Jesus Askasibar eta Juan Cruz Laraudogoitia. Behean: Patxi Askasibar, dantzaria, Jose Luis Plaza, Imanol Uriagereka, Jose Mª Bilbao, Juan Antonio Alzaga eta Oskar Murua.

Acción Católica elkarteak behar handia egiten zuen, lekukoen esanean. Eliza garbitu, loreak landatu eta halako gauzak.

Gazteak ez zeuden derrigorturik erlijio elkarteotan parte hartzera. Norberak erabakitzen zuen kide izan gura zuen ala ez.

Gaztezaro sasoia izaten zen erlijio bizitza aukeratzeko unea ere. Sasoi baten Jatabeko gazte askok hartu zuen moja, fraide edo abade joateko erabakia. Heziketa hobea hartzeko bide eskuragarrienetakoa zen, familientzat harrotasuna ere bai, eta batzuetan etxean mantendu beharreko aho bat gutxiago izatea ere bai. Aldi berean gogoratu behar da, dote antzeko bat ere eroaten zutela etxetik fraide edo moja sartu gura zutenek.

Erlijio elkarteetan askoz gogotsuago jarduten ei zuten Ergoieneko biztanleek. Erberakoak, aldiz, gutxiago joaten ei ziren mezatara eta ez ei zuten horren gogo beroz parte hartzen erlijio elkarteetan. Lekukoen akorduan, Don Juan abadeak esana ei da Ergoienen zerua zegoela eta Erberan infernua.

Gaztaroa izaten zen, gaur den legetxe, bikoteak osatzen hasteko garaia ere. Horretarako ezinbestekoak izaten ziren elkarguneak. Neska eta mutil gazteak elkartu eta elkar ezagutzeko behar-beharrezkoa zuten euren giroa. Domekako jolasak, hau da, dantzaldiak, eta jaiegunetako erromeriak izaten ziren horretarako erarik onena. Lehengo denboretan, elkarri oratuta dantzan egitea galarazita egon zen Jataben, eta lehen aipatu dugun erlijio ohituren diferentziak —neurri handi baten diferentzia sozial eta ekonomikoa ere zena—, gazte asko herritik kanpora eroan zuen bikotea bilatzera.

Jolasa edo dantzaldia amaitzen zenean, neskarik gehienek etxean egon behar zuten orduan, abemarietako kanpaiak jotzen zuenean, eta orduan hasten ziren gazteen arteko komeriak. Dantzaldian zehar mutilek eskatzen zien neskei ea eurekin dantza egin nahi zuten, eta neskek erabaki egiten zuten bai ala ez. Elkarrekin dantza egitea onartuz gero, erromeria amaitzean etxera laguntzeko gonbitea egiten zion batzuetan mutilak neskari. Orokorrean, nesken papera pasiboa zen, mutilek zeramaten iniziatiba, baina azken erabakia nesken esku zegoen. Are gehiago, aldeaetxea dantzalekutik asago zegoenean, neskek etxera heltzeko bide bi izaten zituzten sarritan, laburra eta luzea. Neskari laguntzeko eskaintza bidean egiten zen batzuetan. Neskak, mutila gustukoa bazuen, bide luzeagoa hartu ohi zuen. Aldiz, mutilari gaitz irizten bazion, bide laburretik jotzen zuen, edo ihes egin. Eta laguntzen utzita ere, etxera ahalik eta arinen ailegatzeko bidea hartzen zuen.

Etxera heltzerakoan mutila suetera sartzeko ohitura zegoen, baldin neskatoaren gustukoa bazen. Han gurasoekin berba egiten zuen mutilak. Bien bitartean neskak etxeko beharren bat egiten zuen, behiei jaten eman edo besteren bat. Gero mutilari atera lagundu eta elkarri agur esaten zioten.

Neska bati etxera laguntzeari *satsetan itxea* esaten zitzaion. Neskari lagundu ostean tabernaren baten lotzen ziren mutilak, eta han, frakak zikinen zekartzana izaten ei zen txapeldun. Hori ei zen *satsetan* ondoen egin zuena.

> «Yolasa domeka gustitxen itxen san. *Eta gero neskai laguntzen joaten zinien?* Bai, gero gure daunek-edo, yoteko gane dekonak-edo, amitidu neskatok itxen badau-edo... Satzetan esate'akon orreri. "Gaur satzetan

ixen nok Fulanaas edo besteas...” Eta gero erronkak tabernara etorte(n) sanen. Kuadrillen yoten basiren emen kamiñon igual, ta atzerikera tiretu neskatori tte atrasaten san, bera(k) kure deuna bada, ta gure estauna bada, adittu ta baperes, aurrera, kasuri(k) peres.»

Lehenago ere ondamua, inoren ona eroan ezina, izaten zen, eta behin baino sarriago, beste baten gustukoa zen neskatilari laguntzeagatik harrikadak eta borrokak ere izaten ziren.

Iturria, edo bogada egiteko harria, izan ziren neska-mutilak elkarrekin topo egiteko ohiko lekuak, gure herri kanta batzuek erakusten duten eran.

Neska-laguntzen etxeetara egiten ez zuten mutilak koadrilan batzen ziren eta errondan joaten ziren neskatoak bizi ziren aldea-etxeetara. Bertara argiekin parajetzen ziren sarri, neskak gorteiatzeko kantuak eta zantzoak egiten zituztela. Zantzoak gauetan bakarrik egiten ziren. Eta nesken etxeko gurasoekin topo eginez gero, liskarrak ere egoten ziren. Gurasoek ez zuten begi onez ikusten, mutil gazteak euren alabak gorteiatzera joatea. Era horretako errondak asteko edozein egunetan egiten ziren.

Gaztaroko sasoia izaten zen, era berean, mutilak soldaduska egitera joaten ziren aldia ere. Etxetik urrun egin beharra tokatzen zitzaien sarritan. Hainbatek, *soldadiske* edo soldaduska egin aurretik nobia aurkitzen zuen eta handik bueltan ezkontzeko plana egiten zuen. Batzuetan, denborak eta urruntasunak aurretiazko planak okertu egiten zituen, hala ere.

Jose Luis Plaza soldaduskan, zigortuta patatak zuritzen, 1968.

Neska-mutilen arteko hartu-emana egiteko, goian aipatutakoez gainera, lagun, senide edo profesionalengana ere jo izan da batzuetan. *Ezkontzagina* esaten zitzaion bitarteko horri eta berak egiten zuen bidea biren arteko elkartzeak errazteko. Bikote bat "bakarrik irteten" hasten zenean, etxeko eta auzokoen aurrean hartueman hori formaltzat jotzen zen. XX. mende hasieran oraindino izan ziren gurasoen ebatziz eginiko ezkontzak. Guraso bitzuen artean dotea izendatu eta hala ezkontzen zituzten seme-alabak; ekonomia interesak zuen lehentasuna amodioaren gainetik. Eta seme-alabek, lekukoek diotenaren harira, gehienetan ontzat ematen zuten gurasoen erabakia. Baina XX. mendean zehar ezkontzak naturalago izaten hasi ziren. Mutila neskatilaren gurasoengana joaten zen "haren eskua" eskatzera, ezkontzeko baimena, esan nahi da. Eta lehengo mendearen erdirako, neska-mutilak eurak ziren norekin ezkondu erabakitzen zutenak.

Aurretiaz abisua ematen zitzaien neskatilaren gurasoei, mutila harekin ezkontzeko baimen eske joango zela eta noiz.

Gurasoen baietza jasoz gero *geierak* egiten ziren. Ezkontza-egun aurreko hiru domeketan egiten ziren deierak, meza nagusian, eta hala jakiten zuen herriko jendeak ezkontzaren berri. Aldi tarte horretan familia biek ezkontzarako behar ziren prestakizunak egiten zituzten.

Ezkongaien familiek ere batak bestearekiko hartu-emanak estutzen zituzten ezkontza aurreko asteotan.

Herriak eta auzoak orain baino bakartuago zeuden eta batetik bestera joateko moduak ere urriagoak ziren lehenago. Horregatik ezkontzak ere herri berekoen artean edo auzo-herrietakoekin egiten ziren. Arrazoi horren ondorioz endogamia kasuak ere suertatzen ziren batzuetan. Ohitura zabala zen lehenago, eta denbora luzez, norbait alargun geratuz gero, bere ezkontide zenaren anaia edo ahizparekin berriz ezkontzea. Etxe bateko anaiak beste etxe bateko ahizpekin ezkontzaz elkartzea ere guztiz ohikoa zen. Horretara, anaia bata, bestearen heriotzaren aurrean, haren familiaren kargu egiten zen.

Gaur egun ez bezala, neska-mutilak, ezkondu eta ostean, bietariko baten etxera joaten ziren bizitzera, etxe hartako gurasoekin batera. Dotea, edo kanpotik zetorrenak etxerako ekarri beharreko ondasuna, garrantzi handikoa zen. Jataben dotetzat, basoak, abereak... edo aberastasun iturri izan zitekeen beste edozer onartzen zen orokorrean. Eta jakina, zenbat eta handiagoa izan dotea, hainbat pozgarriago izaten zen ezkontidearen gurasoentzat. Etxe baten oinordeko zenak, batzuetan ezinbestekoa izaten zuen dotea, garaitiko neba-arrebak etxetik bialdu ahal izateko. Aldea-etxekoek, izan ere, biziraupenerako lain etorri eduki arren, dotetzat eskura entregatu beharreko beste diru nekez izaten zuten.

Andreak arreoa eroaten zuen mutilaren etxera, harenera bizitzen joateko kasuan. Ezpabere, bere etxean edukitzen zuen. Batzuetan, ezkontza aurreko egunetan arreoa erakustea egiten zuen. Halakoetan, jendea neskatilaren etxera joaten zen arreorako prestatu zuena ikusten.

Tradizio gizartean oso gazterik hasten ziren neskatoak euren arreoa atontzen. Euren eskuz egiten zuten soineko kontu guztia. Eta lihoaren denboretan, neskatilei

zegokien lihoaren prozesoa, erein eta *firu* bihurtu arterainoko pauso guztiak, eta eurek egiten zituzten eurentzako soinekoak.

Arreoa gurdian eroaten zen ezkongaiak biziko ziren etxera, ezkontza baino lehen. Gurdi handiak erabiltzen ziren gehiago horretarako; zenbat eta gurdi handiagoa erabili, hainbat eta gauza baliotsuagoak eroateko modua zegoelako. Ganorazko arreo batek bost edo sei gurkada eskatzen zituen. Hortik beherakoa pobrea izaten ei zen, eta hortik gorakoa harrotasuna, benetako aberatsak ez baziren ere. Lekukoen akorduan dago oraindino, XX. mendean izan zen arreorik handienetarikoa, bederatzi gurkada handiz osatutakoa.

Gurdiak apaingarriz hornitzen ziren, dotore, arreo-eroaterako. Hasteko, gurtotzak zarata egin behar zuen, *gurdik kantau in ber dau*, esaten zuten lehenagokoek. Eta egun seinalatuetan, arreoa eroatekoan kasurako, gurtotzak zarata handiagoa egiteko moduak topatzen zituzten. Idiei txilinak ipintzen zitzaizkien idun buelta guztian, eta fronteretan borla gorriak. Gurdi guztiak ilaran joaten ziren, eta ateratzen zuten soinu, apaingarri eta garraiatzen zituzten ondasunekin batera, herritar guztientzako ikusgarri eder bihurtzen zuten arreoa ezkongaiak biziko ziren etxera eroatea.

Armairuak, komodak, oheak, ardi-lanaz egindako koltxoia... eta ezkongaien logela edo etxeko beste gela batzuk hornitzeko altzariak eroaten ziren arreoan. Horiekin batera, andregaiaren arropak, berak eskuz eginikoak, eramaten ziren. Arkak ere arreoaren ohiko osagarria izaten ziren, eta arketan janaria eroaten ei zen askotan, indaba, arto eta antzeko produktuak gehienetan.

> «Arreo len gurdin, ta semet eta gurdi giau, ba eskontza andiaua, gausa asko eroan. Gurdi betek arka bat, beste batek armario bat, eta olan eroten sittusen gausak, kuartuk a yantzitxeko, oiak, ogaserudun oiak, eta erote(n) sittusen bost edo sei gurdi olan igual. Esate(n) seuden bedratzi-amar gurdi bere bai batzuk (...). Eta gurdiek, ba kantetan, kirrin... ori sarate itxen, euren sera ori ixete(n) san. Ba biden dosenen sarataka gurdik: —An do sera, an do bodea. Eta sarataka gurdik basotati, kirrin... Gurtotza estuau edo seoseas unta edo estait ser, aurok yakitxe'euden selan iñ. Kasu da se, sarata itzelaas yoten siren danak. Eta gausa elegante ixete(n) san ori, ainbeste gurdi!»

Arreoan eroandako ondasun guztiak zerrenda batean apuntatzen ziren. Gaur hainbat aldea-etxetan aurkitu daitezke oraindino antzinako ezkontzetako arreoen inbentario zerrendak.

Orain arte aipatutako ondasunez gainera, gonbidatuen opariak ere gehitu behar dira ezkonberriek batzen zituzten ondasunetara. Gonbidatuen ohiko opariak, izarak, baxerak, kafe jokoak... izaten ziren.

EZKONTZA ETA EZTEGUAK

Ezkontzak, bizitzan egoera batetik bestera igarotzeko diren beste erritu batzuen antzean, maiatzean egiten ziren sarri. Lekukoen esanetan, Andre Mariaren eta loreen hilean. Ezkontza erituaren barruan ekitaldi bi bereizi behar dira: ezkontza-

elizkizuna eta ezkondu osteko jaia edo eztegua. Ezkontza-elizkizunari, antzina, ez zitzaion hainbesteko garrantziarik ematen, elizkizuna astegunez egiten zen, gonbidatu gutxirekin, eta ia ez zen eten ere egiten eguneko beharra. Ezkontzako egun berean edo hurrengoetan egiten zen bazkarian, batez ere, kanpotiko ezkontidea etxe berrian sartzea ospatzen zen. Hala ere, XX. mende erdirako, Jataben, ezkontza-elizkizuna, ezteguarekin batera, ospakizun handia izaten zen. Baina beti ere, etxe bakoitzak posible zuen neurrian.

Egun horretarako ezkontza gonbita egiten zitzaien senide eta auzokoei. Lehen auzokoekin orain baino hartu-eman askoz handiagoa izaten zen. Aurreko ataletan esan dugunez, auzokoak etxekoak lez izaten ziren tradizio gizartean.

Ezkontza neskatoaren herrian egiteko ohitura zegoen. Eta bazkaria ere, orokorrean, neskatoaren etxean egiten zen. Diru gehiago zutenek —gutxienak ziren hauek—, hotel edo jatetxeren baten ospatzen zuten eztegua. Baina herriko jenderik gehienak andrearen etxean egiten zuten ospakizuna. Zehaztu dezagun, eztegua senargaiaren etxean egin zen kasurik ere batu dugula gure lekukoen bitartez. Hala bada, egoeraren arabera alda zitekeen ohituraz ospakizuna egiteko lekua ere.

Oinez joaten ziren ezkongaiak elizaraino, eta etxekoek eta auzokoek laguntzen zieten eliz atariraino. Neska beltzez jantzirik ezkondu ohi zen XX. mendearen bigarren erdi ingurura arte. Eta etxetik elizarako bidean arrak eta eraztuna eroan ohi zituen. Antzina andregaiak bakarrik eroaten zuen eraztuna, eta lortzeko modurik ez zuten etxeetan, batak besteari eskatzen zion elizkizunerako, gero atzera bihurtzekotan.

Gizarte klase diferenteek leku eta modu ezberdinak aukeratzen zituzten. Eta izan dira, arra modura urregorrizko txanponak eroan eta ezkontza Gorlizeko Kasinoan ospatu izan duten jatabearrak ere.

> «Gu on giñenen es, baia nire aitxek, eskontan yon sanen, amairu diru eron ber ixeten siren eta, urregorriskokas paga i aun bere andre. Oin bere eskontako arrak eron ber dire. Amairu diru.»

Ezkontza-elizkizuna kristau liturgiak zuzendurik egon da beti. Aldian aldiko Kontzilioek zehaztu dituzte ezkontza-elizkizunaren erritua eta denboran zehar izan diren aldaketak.

Elizatik irtetean ez zen arroza eralgitzen, gaur ohi den legez. Andregaiak lore erramua eroatea eta horren ondorengo ohiturak ere berriak dira Jataben. Gure lekukoen esanetan, lehen ez zen lore erramurik eroaten. Eztei bazkaria egingo zen etxera zuzentzen ziren elizatik irten eta segituan; gehienetan, oinez.

Etxe portalean atontzen zen ezteguko bazkarirako mahaia. Senideak eta auzokoak ere etortzen zirenez, huraxe izaten zen jende mordo guztia sartuko zen lekurik egokiena. Mahai eta banku luzeak ipintzen ziren. Bazkaria egun berezietakoa izaten zen. Elikaduraren atalean ikus liteke halakoetan zer bazkaltzen zuten jatabearrek. Hala ere, etxe guztietan ez ziren gustu eta aukera berdinak egoten.

Bazkariaren ostean dantzaldia egiten zen. Horretarako berariaz dei egiten zitzaion soinulariari. Baltseoa egiten zen ezteguko dantzaldiaren barruan. Beste giro edo leku batzuetan moralaren aldetik txarto ikusia bazegoen ere, eztegua lako ospa-

Jose Agirre eta Maria Legarreta, c. 1890.

Fidela Agirre eta Jose Egia, c. 1920.

Rufino Arkotxa eta Eskolastika Torrontegi, 1924.

Mª Angeles Larrazabal eta Salus Arkotxa, 1954.

Dolores Muruaga eta Bonifazio Alzaga, 1950eko hamarkadan.

Mari Alzaga eta Jose Agirre, 1950eko hamarkadan.

kizun berezietan onartzen zen baltseoa. Dena dela, etxe bakoitzaren arabera izan zen ostean dantzaldia egitea ala ez.

Ezkon gaua, senar-emazte berriek aurrerantzean biziko ziren etxean igarotzen zuten. Huraxe ei zen elkarrekin igarotzen zuten lehen gaua. Ezkonberriak neskazahar eta mutilzaharrak zirenean, herriko gazteak etxe ondora joaten ei ziren lehen gau horretan zarata eta hotsa egitera. Baina garaitiko kasuetan, bakean uzten zitzaien ezkonberriei.

Eztei bidaia ez zuten bikote guztiek egiten. Gastu handia zen batetik, eta gainera, antzina ez zen sentitzen egun bizi dugun ezkonbidaia egiteko premia hori. Eztei bidaiarik egitea ez zen hartzen ezinezkotzat. Neba-arrebaren bat herritik kanpora ezkonduta zeukatenak, horien etxeetara joaten ziren batzuetan. Kasurako, Erberako bikote bat, andre ezkonberriak neba Gallartan zeukala eta, ezkonbidaian hari bisita egitera joan zen. Han egun pare bat igaro eta atzera berriz etxera.

Atal honi amaiera emateko, beti izan diren kasu bereziak aipatuko ditugu. Umedun ezkontzen ziren neskatoen kasua, lehenengo. Faxak eta jantzi nasaiak erabiltzen zituzten sabela ostentzeko. Oso nabarmena bazen, ezkontza isilperik handienean egiten zuten. Haurdunaldiaren kontuak ere egokitu egiten ziren: ezkondu aurretxoan jantzi lasaiekin ibiltzen ziren neskatoek zazpikiak izaten zituzten sarri. Hileen zenbaketa egokitzen zuten, eta inoiz izan da, umea amarena dela esan duten neskatoen kasurik ere.

Belazioaren erritua ezkontzan, 1960. Ezkerretik hasita Felix eta Felipe Agirrezabala, Ines eta Emilia Larrazabal.

Ines Larrazabal eta Felipe Agirrezabala ezkonberriak eta gonbidatuak, 1960.



Salus Bilbao eta Irene Agirreren ezkontza, 25-XI-1954. 1. (---). 2. (---). 3. Jose Jauregi. 4. Emilia Agirre. 5. Frantzisko Agirre (Patxo Errota). 6. Irene Agirre. 7. Salustiano Bilbao. 8. Anastasia Oleaga. 9. Txaro Madariaga. 10. Ana Mari Madariaga. 11. Miren Larrazabal. 12. Ageda Oleaga. 13. Jose Agirre. 14. (---). 15. Antonio Madariaga (aita). 16. Rosario Oleaga. 17. Francisco Oleaga. 18. Bienvenido Bilbao. 19. Julian Bilbao. 20. Antonio Madariaga (semea). 21. Carmen Oleaga. 22. Frantziska Oleaga. 23. Juan Oleaga. 24. Daniel Agirre. 25. Jose Maria Bilbao eta 26. Jose Mari Maurolagoitia.

Ezkerretik hasita: Pedro eta Carmen Elortegi, Alejo Garai eta Julia Laraudogoitia, c. 1963.

Daniel Agirre eta Mª Carmen Ezpeletaren ezkontza eguna, 1963.

Jose Luis Alzaga eta Pili Petreñasen ezkontza, 1965. Behean ezkerretik: Felisa Elortegi, Julene (---), Pili Petreñas, Jose Luis Alzaga eta Dolores Muruaga. Atzean: (---), Eustakio Alzaga, Andres (---) eta Boni Alzaga.





Nieves Egia eta Francisco Larrazabalen ezkontza, c. 1967. 1. Jorge Agirrezabala. 2. Raquel Sarria. 3. David Elordui. 4. Miguel Angel Agirrezabala. 5. Begoña Elordui. 6. Inmaculada Agirrezabala. 7. Mª Nieves Larrazabal. 8. Inmaculada Sarria. 9. Pilar Elordui. 10. Lourdes Sarria. 11. Mª Ines Sarria. 12. Bernardino Larrazabal. 13. Ines Larrazabal. 14. Mª Luz Elordui. 15. Pedro Elordui. 16. Ines Egia. 17. Tomas Sarria. 18. Pilar Egia. 19. Aventino Barandiaran. 20. Jose Egia. 21. Nieves Egia. 22. Francisco Larrazabal. 23. Juanita Barandiaran. 24. Juan Madariaga. 25. Maribel Larrazabal. 26. Mikel Larrauri. 27. D. Jaime Larrinaga. 28. Felipe Agirrezabala. 29. Milagros Larrazabal. 30. Pedro Elordui. 31. Luisa Egia. 32. (---). 33. Mertxe Larrazabal.

Ikerketa honetan batu ditugun adulterio kasuak, gizonak etxetik kanpora aldi luzeak igarotzen zituen etxeetakoak izan dira, batez ere. Itsasgizonen eta karabineroen andreen kasuak. Normalean amak hartzen zuen umea bere gain, edo inklusara eroaten zuen sarritan, adulterioan umedun lotzen bazen. Baina izan zen bestelako kasurik ere; esaterako, gizona itsasoan zuen andrea bestaldeko gizon ezkonduak umedun uztea. Umea jaio eta batera, andre erditu berriak esan zion emaginari umea bestaldeko andreari eroateko, haren gizonarena zela eta.

Juan Egia eta Anastasia Renteria, 1964.

Goian ezkerretik: Alberto Libarona, D. Eduardo Arriaga eta Escoli Aurtenetxe. Umeak: Josu Agirre eta Mari Tere Arrieta, 20-II-1966.

HERIOTZA OHIKUNEAK

Gure herri jakiturian, heriotza bizimodu baten amaiera eta beste baten hasiera delako ustea oso zabalduta egon da. Heriotza, beraz, puntu batetik bestera, egoera batetik bestera igarotzeko bide legez hartu izan da, eta ondorioz, ardura jakinak eskatzen zituen unea izan da.

HERIOTZAREN ZANTZUAK

Gertakizun natural batzuk heriotzaren zantzu legez ulertu izan dira herri jakintzan. Kasurako *sorgin-epetxari* beldurra eduki izan dio lehenagoko jendeak. Norberaren inguruan bazebilen, atzetik segika edo inguruan kantari, zoritxarren bat jazoko ez ote zen beldurra izaten zuen. Bestalde, txakurren alarauak, erostak, baten bat hilko ote den edo hiltzeko dagoen seinale ei dira. *Nobedade dakar*. Egun, anbulantzia sirenak agertu aurretik erostaka hasi diren txakurren berri izan dugu. Oilarrak desorduan kukurruku egitea ere, familiara etorri beharreko desgraziaren baten iragarle delako ustea egon da. Norbaiten heriotzaren iragarle ei da oilarraren desorduko kantua. Oilarrak gauerdian kantatzen duenean, norbait hil delako ei da.

Baina heriotzaren zantzuak ez dira animalien jokaera berezi batzuen bidez bakarrik hautematen. Era berean, badira gizakiek ere era misteriotsuan jasotzen dituzten zantzuak. Gehienetan, seme edo alabaren baten heriotzaren zantzua izaten du amak, informazioa jaso aurretik. Antzeko kasuak batu ditugu amama-iloba eta nebaarreben artean. Etxetik urrun hildakoaren berri izan dute etxekoek, zantzu bidez, inork esan aurretik.

Horren adibide egokia izan daiteke harako amarena: semea etxetik urrun hil zen ordu berean iratzartu zen ama hori, bere semea hil egin zela esanez. Beste kasu batzuetan logelako horman Andre Mariaren antzeko irudiak ikusteak, edota hildakoak oparitutako kaxa batetik hodei beltz bat irteteak iragarri dute senitartekoren baten heriotza. Gerora baieztatu izan diren berri tristeak dira beti ere.

AGONIA ETA AZKEN SAKRAMENTUAK

Gaixotasunaren eraginez heriotzaren aurretik dagoen egoera fisikoa agonia da. Trantze horretan dagoen pertsona aparteko eran jagoten da. Bere ohe inguruan elkartzen dira etxeko eta senideak, eta gaixoaren egoera latz hori aringarri bihurtzeko asmoaz, lagun egiten diote. *Agonian dau,* esaten da egoera horretan dagoenagatik. Lekukoen esanetan, agonian dagoenak buru argitasun unea izaten du hil baino ordu batzuk lehenago. Une horretan, gaixorik ere ez dagoela dirudi, adorez eta energiaz beterik egoten da gaixoa eta lotu barik berba egiten du. Gaixotik gaixora aldea egoten ei da argitasun une horren iraupenean. Eta behin igaroz gero une hori, gaixoa loak hartzen du eta hil egiten da.

Agonia luzea izaten zenean, mezak egiten ziren, etxean edo elizan, gaixoa ahalik eta sufrimendu gutxienarekin hil zedin; hau da, agonia laburtzeko helburuaz. San Blasetan antzina jatabearren topaleku izaten zen Barrikako herrian, Jataren edo Solluberen gailurrak elurrez ageri zirenean, esaten zen sorginak izara zuriak ipini dituela.

Izan ere, agonia oso luzea zen kasuetan, antzina, hilzorian zegoena sorgina zelako ustea zegoen. Eta sorgin batek, hil ahal izateko, sorgin gurariak betetzen zituen orraztokia, *eraginez* betetako *orroztoki*, beste andre bati eman behar zion, hala bere lanbideak, bere ofizioak, aurrerapidea izan zezan. Hala bada, antzina, agonia luzea zeukaten andreen gainean "orraztokia eman ezinik" zebiltzala esan ohi zen. Era berean, sorginak orraztokia beste norbaiti igarotzeko, eta behingoz hil ahal izateko, izara zuriak ipini behar ei zituen etxe aurrean. Hori da Jata eta Sollube mendi tontorrak elurrez estalita zeudenean esaten zen esaeraren jatorria.

Lekukoak ondo gomutatzen dira agonia luzeez. Izan ere, medikuntzak egungo garapena izan aurretik, etxe batzuetan ustel sunda ere egon izan da norbait agonian zegoenean. Gaixo batzuk, hiltzen zirenerako, barrutik guztiz ustelduta zeudelako.

Agoniari amaiera emateko beste era bat kanpaiak jotzea zen, *Jaungoikok miserikordi emon dein*. Zazpi herritako kanpaiak jo behar ei ziren agoniari akabua emateko. Baina izaten ziren, lehenago aipatu dugunez, horretara ere hiltzen ez zirenak.

Heriotza gertatu aurreko erituetan, berariaz aipatzekoak dira eukaristia eta azken untzioaren sakramentuak. Eliza katolikoak sakramentu bi horiek eta peniten-

tzia eskatzen ditu gaixotasun larriaz diren kristau guztientzat. Hilzorian dagoenari ematen zaion eukaristiari *biatiko* esaten zaio, eta izen horren jatorrizko esangura "biderako janaria" da. Bizien mundutik hildakoenera doan biderako janaria. Aurrerago ikusiko dugu, heriotzako errituaren beste ezaugarri batzuek, *aurrogiek* esaterako, esangura berbera daukatela.

Auzokoren bat edo etxeko mutikoren bat joan ohi zen abadeagana, gaixoa burua galtzen edo agoniako seinaleak ezagun izanez gero, azken sakramentuak ematera etor zedin. Monagiloa joaten zen abadearen aurretxotik, txilina joaz, kriseilua eta ur bedeinkatua eskuetan zeramatzala. Abadeak *Gure Jaune* eroaten zuen, eta txilina entzun eta batera belauniko jartzen zen inguruetako jendea, eta gizonek txapela eransten zuten, harik eta elizgizona eta bere laguntzailea ondotik igaro artean. Lotsa eta begirune handia edukitzen izan zaio *Gure Jauneri*.

> «Agoniñ egon esate(n) san. Ta ordun telefonorik es eser esan egon, eta batan bat yon in ber abade bille. (...) Ta ordun etorten san abade monagilloas, ta Gure Jauna badator txilintxu beteas ta monagilloas, baia osten es. Formakas, forma berinketues, osties badator, ordun bai, baia artute badau, sakramentuk artute badau, bisitxaten edo seoser erresetan badator, ordun es, ordun monagillo barik. (...) Ta inor biden topa eskeron, beluniko para ber.»

Untzioa egiteko gaixoari oinak agerian ipintzen zitzaizkion, abadeak *iyosi,* igurtzi zitzan. Auzoan emagin eta herri-osagile lanak egiten zituen andrea izaten ohi zen gaixoari oinak estaltzeko zeregina hartzen zuena.

HERIOTZA, GORPUA ETXEAN EDUKITZEA ETA ETXEKOEN DOLUA

Gaixoa hiltzen zenean elizako kanpaiek ematen zuten heriotzaren berri, eta egunean birritan jotzen ziren. Hildakoa gizonezkoa bazen, hiru kanpai jotzen zituzten; andrezkoa bazen, kanpai bi. Eta hildakoa umea zenean, kanpai txikiago batekin ematen ziren tokeak.

Hildakoari begiak ixten zitzaizkion, behin hilez gero. Lekukoek diotenez, estetika edo itxura arrazoiengatik ixten zaizkio begiak; zabalik uzteak itxura txarra ematen zuela eta.

Uste erabat zabala da, behin pertsona bat hiltzen denean, arima irteten zaiola gorputzetik. Arnasarekin batera joaten ei da arima gorputzetik.

Pertsona bat hil eta batera argia isiotzen zen, arimari argi egiteko. Lau kandela isiotzen ziren, hildakoaren alde bietan. Bedeinkatutako kandelak ipini ohi ziren, baina ahal dela argizari hutsezkoak izan behar zuten, gero eliz jarlekuan ipintzeko erabiltzen zirenen modukoak. *Orio-argik* ere erabiltzen ziren, *txirpilote* edo *mariposatxuk* ere esaten zaienak. Edalontzi batera olioa isurtzen zen urarekin batera eta gainean metxa ipintzen zitzaion. Kandelek baino gehiago irauten ei zuten *orio-argiek*. Argiek isiotuta egon behar zuten gorpua etxean egongo zen denbora guztian.

Argiekin batera erramua ipintzen zen ur bedeinkatuz beteriko edalontzi baten. Erramu edo ereinotza, lehenago ikusi dugun legez, botere bereziak dituen landarea

da, herri jakiturian. Erramua hartu, ur bedeinkatuan busti eta hildakoa ur bedeinkatuaz garotzen zen. Erramua erre egiten zen, era berean, gorpua eta ingurua garbi mantentzeko.

Gorpua zegoen gelan izara zuri bat ipintzen zuten mahai baten gainean. Izararen gainean *ataute* edo hilkutxa ezartzen zen, atautik baldin bazegoen; ezpabere gorpua bera ipintzen zen beste barik, eta alde bietan kandela isiotuak.

Hildakoa janztea, edo *mortajea egitea*, izaten zen hurrengo egitekoa. Antzina aproposko jendea egoten zen, zeregin hori beteko zuena. Gehienetan andrezkoen zeregina izan den arren, etxe batzuetan gizonezkoak izaten ziren hildakoa janzten zutenak. Baina orokorrean, herri-osagile eta emagin beharrak egiten zituen andrea izaten zen hildakoa janzteaz arduratzen zena. Hildakoaren etxeko edo auzoko andreren batek laguntzen ei zion.

> «Gorpu yantzi, orretarako aproposko jente oten da. Oiñ ori kaje dakarrenak itxen dere. *Eta lehen?* Gixonak, guren sikeran gixonak ikus doas. Eta ganera atauteas batera yantzitxen dere. Etzen badau illeko, etorten dire ataute dakarrenen. Len besinok itxe'euren, geure gixona(k) pere askotan in daus, yantzi, eta kajan sartu te bixerra kendu te... Ordun ausok itxe'euren. Eta etxeko bearratan lagundu, ganadukes eta...»

Jantzi aurretik, hildakoari, erritu bainuaren antzekoa dan garbiketa egiten zitzaion. Garbitzeko erabiliko zen uretan erramu edo ereinotz bedeinkatua egosi egiten zen; osterantzean, udako solstizio inguruan bazen, sanjuan belarrak egosten ziren.

Hildakoari antzina, lekukoen esanetan, fraide edo moja soinekoak janzten zitzaizkion. Horretara Jainkoa eurekin errukitu zedin nahi zen. *Errope tristek* esaten diete oraindino ere hildakoari antzina ipintzen zitzaizkienei. Geroago, hildakoak kaleko soinekoez janzten hasi ziren.

Heriotzaren ostean, hildakoaren etxekoak dolu aldian, luto aldian, sartzen ziren. Aldi horren lehenengo ezaugarrietako bat da, ohiko jarduerak eten egiten zirela. Dolu sakoneko egoerak hileta osteko bazkaria amaitu arte irauten du. Dolu aldiaren beste ezaugarri bat zen, etxekoek ez zutela etxetik irten behar. Denbora horretan, hurreko auzokideak eta beste etxe batzuetan bizi ziren senideak arduratzen ziren etxeko lanez. Auzoko eta senideek hartzen zituzten gainerako ardurak: mediku, abade eta dena delakoari deitu, edo etxekoak gaixoarekin egoteko modua izan zezaten egin beharreko gauza guztien ardura. Orokorrean, andreek etxeko zereginak egiten zituzten eta gizonek soroko beharrak edo ganaduak gobernatzea.

GAUBEILA, *GAUBELA*

Ohitura zaharra da, hildakoa bakarrik ez uztea. Hala bada, etxeko, senide eta auzokoek gauez eta egunez zaintzen zuten defuntua, etxean egiten zen hileta antzeko baten arabera: *gaubela,* gaubeila deritza horri. Hildakoaren etxeko ateak zabalik egoten ziren, eta hildakoa ikustera zetozenak isilean egoten ziren; eta gorpua zegoen gelan errezatu egiten zen. Ikustera zetozenek, errezatuaz batera, gorpua erramuaz eta Zapatu Santuan bedeinkatutako uraz garoztatzen zuten.

Auzokoak eta senideak etorri ohi ziren hildakoaren etxera *gaubela* egitera. Txandak egiten ei zituzten, batzuk hamabiak arte geratzen ziren, beste batzuk ordu biak arte..., eta horretara hildakoaren inguruan beti egoten zen norbait. Arrosarioa errezatzeko ardura hartzen zuen batek, edadeko andreren batek gehienetan, eta garaitikoek erantzun egiten zuten. Galletak eta anisa egoten ziren *gaubelan* parte hartzen zuten guztientzat. Goizean anisa eta kafea, eta gauez ardaoa izaten ei ziren ohiko edariak. Eta lekuko batzuen esanean, *gaubelak* jai txiki baten antzekoak izaten ei ziren batzuetan, hildakoa guztiz zaharra zenean eta haren heriotza bizilegetzat hartu behar zenean. Hildakoa gogora ekarri eta haren gainean berba egiten zen; batzuetan hari bizitzan jazotako pasadizo barregarriak gogoratzen ziren, errespetu osoz. Heriotza ulertzeko filosofia baten adierazgarri dira ohitura zaharrok.

> «Gero gaubele, gorpu etzen daunen, errosariok erresa eta... ba gorpu esan bakarrik itxitxen. *Gau guztian bere?* Bai, neure ama il sanen bere gau dusti beraas pasa naun. *Auzokoak eta familiakoak bere etorten ziran?* Bai, eta emen aldeatan len asko, batzuk yon ta bestek etorri, ardureas. Ganera alterna, batzuk egon amabitxararten, beste batzuk ordubitxararten, beste egune iñ arten. Baia gorpu bakarrik itxi es. Eta egunes bere bat beti beran ingerun silla baten yesarritxe, an. Olan bakarrik iños beres.»

GORPUA ORTUSANTURA EROATEA, ANDEROLAK ETA ANDABIDEAK

Hirurogeiko hamarkadaren amaierara arte hileta ohikundeak goizez hasten ziren. Beraz, goizean eroaten zen gorpua etxetik. Antzinako hiletak eguerdian izaten ei ziren Jataben.

Andetan eroaten zen gorpua etxetik ortusantura, *heriotze ordu* esaten zaiona. Gorpua eroaten zutenei *anderolak* esaten zitzaien, eta auzoko mutil gazteak edo gizonak izaten ziren. Andek egurrezko astak izaten zituzten, mutilek gorpuari hobeto eusteko. Gorpua astuna izaten zenez, eta bidea luzea sarritan, txandak egiten zituzten anderolek, bide gurutzeetan, errespontsu edo hil-otoitzak esaterakoan, edo etxeren baten ondoan. Bidea laburra bazen, ostera, lauren artean egiten zuten bide osoa.

> «*Gorpua andetan eroaten zan?* Bai, anderolak, se gorpuk eukitxe ausen astak, astatxu batzuk, eta a lepon apoiateko eta oiñes eron. (...) Akordate(n) nas baten, auri, base... Bueno ser esan egon! Anderola koitxeduk! Sutunik estait selan ero'euren. (...) Aik euki euren tragu! Eta nos yausiko, danok billurretan. Laprastadaka, sapata(k) pere ordun oingo modukok esiren oten. Eta dana sidorra, dana basatze! Aillega giñenen gorpu bera yausi barik, posik on giñen. (...) Ganera alterna itxen deure, lelengo lau gixon eta onenbeste bideti beste lau, ta gero ostabere beste lau; batzuk estire yoten beti. Olau bide lusetan (...) an bost edo sei bider kanbiaten siren kanposantureko, ta lepon.»

Gorpua, andetan, andabideetatik eroan behar zen. Andabideak edo hilbideak aldea-etxeetatik elizara zeuden bideak ziren. Lantzean behin garbitu egiten ziren, batez ere norbait hilez gero, gorpua derrigorrez handixe eroan behar zen ortusantura eta. Andabideak estrata edo galtzadak ziren; eguraldi ona eginez gero, ez zen arazorik egoten, baina eguraldi txarra zenean, basaz betetzen ziren. Orduan izaten ziren arazoak eta lorrak. Izan ere, gorpua andabidetik atera eta beste leku batetik joanez gero, ibilbide berria andabide bihurtzen zen betiko. Eta ondorioz, ezin izaten zen soro moduan landu edo ustiakuntzarako erabili. Hori hala izaten zen, baldin lurraren jabeak berak eroaten ez bazuen bere lurretatik. Gorpua bidez aldatzeko tratuak egin dira inoiz Jataben, euren basoetatik erabiltzeko baimena eman zieten batzuek beste batzuei eta, lekukoek esan digutenez, handik denboragarrenera erreklamazioak egon ziren, handik gorpua igaro zela, eta ordutik aurrera pasoa eta bidea zegoela. Baina azkenean, momentuko mesede moduan ulertu zuten batzuk eta besteek, eta ez zen arazorik egon. Behin behineko jardueratzat hartu zuten eta andabide zaharra erabiltzen segitu ei zuten.

Beste kasu batzuetan, ostera, bidea basaz beterik egon arren, horrek gorpua jausteko sortzen zuen arrisku eta beldurrarekin, ahal zuten moduan egiten zuten aurrera andariek, *korteju* edo segizioaren laguntzaz; batez ere, administrazioz herri batekoa izanda elizaz beste herri batekoak ziren etxeetan. Hala ere, lekukoren batek akorduan dauka, zelan izan zen hil eta gero ere birritan hil zen andrearen pasadizoa. Andabidea basazturik zegoenez, andatik jausi eta aldatsean behera laban eginda errekara jausi zen gorpua. Eta horregatik esaten ei zen, hirutan hil zela.

Andabideek zubiak ere izaten zituzten; Errotabarri etxearen inguruan harlauza birekin egindakoa da horren adibidea. Hildakoa gaitz kutsagarri batekin hil bazen, etxe inguruko bidegurutze baten erretzen ziren bere soineko, ohe eta kutsagarri izan zitekeen beste guztia. Erretze hori, gorpua etxetik ateratzen zen egun berean egiten zen orokorrean.

Bidegurutze bakoitzean errespontsuak errezatzen zituen abadeak, hilaren aldeko errezoak, Aita Gurea gehienetan. Hildakoa andan oinak aurrerantz zituela eroan ohi zen. Segizioa etxeetara hurreratzen zenean, han bizi zirenek kanpora irten eta hilotoitzak egiten zituzten defuntuaren alde. Ohitura zen, etxeetako jendeak abadearen kapelara dirua botatzea eta segizioarekin bat egin eta aurrera jarraitzen zuten. Etxeetakoak, abadeak errespontsuak egitean, geratu egiten ziren eta Aita Gurea errezatu.

Marurizarra etxea izan zenaren ondoan badago harri handi bat, gailurrean gurutzea daukana. Izaera edo era horretako harri bakarra ez da Jatabeko herrian, errogatiba eta prozesioez jardutean ikusiko dugunez. Baina andabidearekin lotura estua dauka; izan ere, harri handiok, eta geroago gainean ipinitako gurutzeek, erlijioaren aldetik itzal berezia duten lur eremuak eta bideak markatzen zituzten lehenago.

KORTEJU EDO SEGIZIOA

Hileta segizioa edo *kortejua* prozesio bat zen, hildakoari ortusanturaino laguntzen ziona. Abadea hildakoaren etxera joaten zen, erituzko leku-aldatze hori zuzentzeko. Andabide guztian atautaren aurretik joaten zen errespontsuak errezatzen. Eta bidea egiten zen bitartean, sasoi batean, hil-kanpaiak jotzen ziren.

Segizioan zihoazenen ordena honetara zen: lehenengoa aurrogi edo hilogia eroaten zuen neskato edo andrea joaten zen, gero gurutzeduna, eta horren atzetik abadea eta monagiloa joaten ziren. Horien ostean anderolak joaten ziren gorpua eroaten, eta atzetik beste jende guztia. Kandelak edo zuziak isiotuta eroaten ziren hildakoaren arimari argi egiteko.

> «*Taldea zelan joaten zan?* Lenengo aurrogi yoten san. *Eta hori zer zan ba?* Nau bere iños yon nas aurrogi. Ori ixete(n) san ogi biribiltxu bet trapu beten barrun, eta ori yoten san lenengo. Gero yoten san kurtzedune eta abade monagilloas gero, bai. Gero anderolak eta gorpu, eta gero jente.»

Hori da lekukorik zaharrenek eman diguten aitortza. Hala ere, badirudi denboraren joanean, ohitura hori desagertu baino hamarkada gutxi lehenago, aldaketa batzuk gertatu zirela. Gurutzeduna aurrogiaren aurretik joaten hasi zen segizioetan.

Aurrogi edo hilogia, jatabear batzuek *erritxe* esaten diotena, opil moduko ogi borobila izaten zen, hiru motroilotxo zituena. Berau eroaten zuen andrea segizioaren aurretik joateak kultura aldetik garrantzia handia du. Hilogia mantel beltz edo zamau, *zamu*, baten barruan eroaten zuen emakumeak elizara heldu arte. Han, aldarean, abadeari ematen zitzaion ogia, hildakoaren aldeko eskaintza legez. Abadeak hildakoaren etxeko jarlekura eroaten zuen hilogia. Badakigu bestalde, antzina abereak eskaintzen zirela, idiak esate baterako, eta segizioan leku bera zeukala eskaintza eroaten zuenak[4]. Lekukoei itaundu zaienean ea zertarako zen hilogia, ia erantzun bera jaso dugu eurengandik: *abadek jateko; txakurreri ez eutsen emongo, ez dozu pentsaten?* Antzina, hilogia eroaten zen posizio berean eroaten ziren hilobian sartuko ziren eskaintzak.

Historia aurretik bertatik daude dokumentatuta hildakoarentzako janari eta ondasunekin hornitutako hilobiak. Historian zehar erlijio diferenteetan dagoen erritua da hori, hildakoak egin behar duen bidaiarako lagungarri suerta dakizkion. Eta aurrerago ikusiko dugunez, hildakoaren etxeak elizan zuen sepulturan, hilobi sinbolikoan, ipintzen ziren hilogiak.

Familiak hiletara bost hilogi eroaten zituen, eta horietariko lau sepulturan ipintzen ziren.

Gorpuaren ostean zetorren segizioak zuen egiturak islatzen zituen hildakoaren gizarte eta familia loturak. Odoleko edo hurkotasuneko loturak zituzten senideek osatzen zuten ohorezko taldea. Eta senidetasun mailaren arabera, gizonen edo andreen segizioan hartzen zuten lekua. Erropen lutoaren intentsitateak ere hildakoarekiko lotura maila adierazten zuen. Geroago jorratuko dugu sakonago puntu hori.

Lekukoei jasotako aitortzetatik jakin dugu, Bermeo aldeko hiletetan erostariak izaten zirela. *Sokorrulari* esaten ei zitzaien, halako gaitzespen apur batekin, baina arterago, lekukoen esanean, *erostari* deitzen ei zitzaien. Gaur egun horien gomuta baino ez da gordetzen.

---

[4] ETNIKER EUSKALERRIA. Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Ritos funerarios en Vasconia*. Bilbao, 1995, 371. or.

Segizioak gorpua ortusanturaino eroaten zuen, eta han uzten zuen, bertako kaperan. Gerraostera arte ez ei zen sartzen gorpurik eliza barrura. Lekuko batzuen iritzian, hildakoa ortusantuan utzi eta hiletaren ondoren lurra emateko ohitura zaharra izurriteen eraginez izan liteke. Gaixoak segizioko inor kutsa ez zezan, ortusantuko kaperan uzten zuten, elizara sartu barik.

Tenpluaren barruan gorpua ez egoteak, formalismo gehiagoko praktika liturgikoa erakarri zuen, eta horrek 60ko hamarkadara arte iraun zuen. Horren arabera, elizaren erdian, presbiterioko harmailen aurrean, defuntuaren hilkutxa islatzen zuen hil-armazoi bat ipintzen zen, katafalkoa deritzana.

60ko hamarkadaren amaierara arte, kategoria diferenteetako hiletak zeuden: lehenengo, bigarren eta hirugarren kategoriako hiletak, hildakoaren etxekoek zituzten baliabide ekonomikoen arabera. Elizakoetarako ematen zuten diruaren araberakoa izaten zen: hileta mezan zenbat abadek parte hartzen zuen, eta hileta erituaren handitasun eta dotoretasun maila. Beti egoten ei ziren abade bi, eta kanpotik etorritako beste bat.

Kategoria ezberdinetako hiletak zelakoak ziren azaltzeko, pasadizo bat kontatu zigun lekuko batek. Aberatsak hiltzen zirenean, dotorezia handiz eroaten ei zen segizioa eta hileta, eta abadeak esaten ei zuen:

Geldi-geldi honegaz,
honek badeko zegaz.

Eta pobrea hiltzen zenean, ostera, ahalik eta arinen egiten ei zen segizioa eta hileta. Eta abadearen esana:

Arin-arin honegaz,
honek ez deko zegaz.

Hileta mezan, tenpluko lekurik agerienak, *lutu-bankuak*, doluan zeuden gizonezkoek betetzen zituzten. Familiako andreak, berriz, hilobi sinbolikoaren, jarlekuaren, parean jartzen ziren, tenpluaren atzeko aldean. Gaur egungo San Lorentzo elizan ez dago sepulturarik. Eliza hori gerraostean eraikia da.

Hileta-elizkizunak ez ziren egun horretan amaitzen. Etxekoek, senideek eta hurhurreko auzokideek ohikune erlijioso gehiagotan parte hartzen zuten luto aldian zehar. Hileta-egun horien artean zeuden ohore-mezak, hiletaren osteko bederatziurrena, eta "arimen hileroko eguna". Dolu-aldiak bizpahiru urte irauten zuen, intentsitate maila ezberdinarekin, eta gomuta mezarekin batera amaitu ohi zen.

Urteetan zehar, eta batez ere domeketan, egiten ziren hildakoaren gomuta ekimenez gainera, mezak ateratzea izan da senitartekoen eginbehar nagusienetakoa. Begoña eta Urkiolan atera ohi zitzaizkien mezak defuntuei. Sinestea zegoen, mezarik atera ezean hildakoen arimak etxekoei agertzen zitzaizkiela. Eta mitologiari dagokion atalean sartuko ditugun hainbat kasu batu ditugu. Horietan, Jatabe inguruko herrietan eman izan diren arimen agerraldien berri jaso dugu. Mezarik ez ateratzeagatik agertu diren arimak, eta gaztetan hilda gurasoei edozein lekutan agertu izan zaizkienak.

Bizi zirela eginiko promesak bete barik hildakoen arimak ere agertu izan dira Jataben. Hala esaten da, ezkondu zenetik bere jaiotetxera gehiago joan ez zen andrea, hil zen egun berean agertu ei zitzaien bere jaiotetxe horretan bizi ziren senitartekoei.

Arimen presentzia usaimenaren bidez ere igarri izan dute Jatabeko biztanleek. Une jakin batzuetan, zergatik inork ez dakiela, olio errearen usaina egoten ei zen. Usain horri *orio-sunde* esaten zaio Jataben, eta purgatorioko arimaren bat inguruan dabilela adierazten ei du.

Hileta-elizkizuna amaitzen zenean, eliztarrak ortusantura joaten ziren atzera, gorpua kaperatik atera eta lurra ematen zitzaion. Lurra eman aurretik, abadea eta senitarteko edo auzoko hurbilenak gorpu ondora hurreratu eta azken absoluzioa errezatzen zuten, hildakoari ur bedeinkatua eta intsentsua botatzen zitzaion bitartean.

Hildakoak lurrean ehorzten ziren Jataben lehenago. Hilobi gehienak lurrezkoak izaten ziren, burdinazko edo egurrezko gurutzetxoa zeukatenak. Oraintsuagokoak dira panteoiak eta marmolezko hilobiak, ortusantu berriarekin sortutakoak.

Hildakoa lurrari ematerakoan, bere senideek lur apur bat hartzen zuten eskuan, mun egiten zioten lurrari eta ataute gainera isurtzen zuten. Gorpua lurrari eman aurreko azken erritu horri *tapate,* tapatzea, esaten zitzaion.

Azken urteetan gorpuak errausteko joera nagusitu da gure gizartean. Horren aurrean mesfidantza iritziak batu ditugu lekukoen artean. Hara berrikuntza horren gaineko iritzi bat: *hazurrek munduri lotu ber dakoz*.

JARLEKUA, SEPULTURA EDO ELIZAKO HILOBIA

XIX. mendeko lehenengo hamarkadetara arte, hildakoei eliza barruan lur ematea gauza normala izan zen. Etxe bakoitzak ehorzketarako leku bat, hilobi bat, zeukan tenpluko nabean. Gero, ortusantuak tenpluetatik aparte eraiki zirenean, etxeek elizetako hilobi zaharrak gorde zituzten, eta, bertan, antzinako moduko erituak egiten jarraitu zuten. Hilobi sinboliko hori, kandelaz, *atxeruz*, *zamuz* —zamauz—, hilogiz eta diruz hornitutako arreoarekin, familiako defuntuak gurtzeko aldare legez erabiltzen zen.

Bertako argiak isiotu eta familiako hildakoen aldeko eskaintzak egiteko ardura, hau da, hildakoen eta bizien arteko lotura egiteko ardura, etxeko emakume printzipalak izaten zuen.

Etxeko hilobia modu berezian atontzen zen hileta-mezarako eta dolu aldiko ofizio liturgikoetarako. Denbora horretan, hildakoaren etxekoek argiak, ogiak eta limosnak uzten zituzten, defuntuaren arimaren alde.

Sepultura bakoitzak zenbaki bat izaten zuen, etxeari zegokiona. Etxe bakoitzak bere sepultura ezagutzeaz gainera, ingurukoak ere ezagutzen zituen. Elizako hilobi bakoitzak bere gainean jarleku bat izaten zuen. Jarlekuari familiaren abizenen inizialak zizelkatzen zizkioten iltzez. Jarlekuaren gainean *zamu* edo mantela ipintzen zen. Hiletako segizioan hilogiak biltzeko erabiltzen zen bera. Zamaua ondo apaindurik egoten zen, familiaren izena eta puntila edo parpailaz hornituta egon ohi zen.

Elizako sepulturarako zamaua, 2008.

Domeketan, lutoak irauten zuen artean, goizeko hamarretan, meza nagusian, ipintzen ziren zamauak. Zamauaren gainean *atxeru* izeneko kandelak ipintzeko hiru hankako atril modukoa ipintzen zen. Atxeruan kandelak kokatzen ziren, bata lodiagoa besteak baino, urtebete amatatu barik irauten ei zuena; argizari hutsezkoak eskatzen zituzten horretarako, nahasketarik gabekoak. Badakigu XX. mendearen bigarren erdira arte gutxienez, erlea zegoen etxeetan argizaria kandelak egiteko erabiltzen zutela. Baina XX. mendean aurrera egin ahala ohitura hori galduz joan zen, eta kandelak erosten hasi ziren. Luto arropak saldu, luto arropa bihurtu gura zirenak belztu edota kandela aproposak saltzen zituzten denda batera joaten ziren Bilbora. Denda horretan kandela gorritxo batzuk erosten ei zituzten. Gero Mungian zabaldu ei zuten antzeko jeneroa saltzen zuen denda bat, eta hara joaten hasi ziren jatabearrak.

Gomutatu gura zen hildako bakoitzeko kandela bat ipintzen zen gutxienez, haren arimari argi egin ziezaion. Ortusantuan ere, antzina, argi edo kandela bat isiotuta uzteko ohitura zegoen, kaperan sarri, arimari argia egiteko helburu berberaz. Kandelak, gehienetan, aurreko belaunaldikoei ipintzen zitzaizkien, euren gomutan.

> «Elixan sepulturek oten siren, kandelak, bakotxa(k) pere famelik. Etxe bakotxak beran sepulture. (...) Gixonak aurren bankutan ta andrak atzen

silletan ta sepulturatan. Atzen sillek egoten siren, usenaas, bakotxan usenaas. Untzekas, olan tatxuela doraukas grabata, inisialak, edo isena edo apelledu... (...) Ta sepulturek numeraute oten siren. Baia sepulturek esiren imintxen amarratako mesan baiño, mesa nagusin, mesa kantadu. Ta gero imintxen san paiñelu baltza aspitxi, ta gero samu, samau. Bordaute, ta ondo imintxe, ta puntilletxues eskiñetan ta ardureas... Ta atrille bere oten san kandelak imintxeko. Iru patatxu basen, ta gero olau biribil bet, ta andi gora erdin lodi, ta gero kandelak sujeta iladillu baltzaas. *Zenbat kandela ipinten ziran?* Segun senbet dausen. Iru il badaus, iru te olan, segun senbeteri itxen dakon argi. Gero akabukontzat ixete san, beti argi batan batentzat. Arimen argi esate'akon.»

Sepultura garbitzea etxeko andrearen egitekoa izaten zen, zamaua etxera eroaten zuten garbitzera, eta kandelak ere kendu egiten ziren. Gehienetan domekako meza nagusiaren ostean egiten zen hori. Abadea pasatzen zen arrosario batzuk errezatzera, eta sepultura gainean utzitako diru eta hilogiekin ordaintzen zitzaion. Lau hilogi uzten ziren sepulturaren gainean hileta egunean, eta hortik aurrera aste osorako ogia eta dirua uzten zen zamauaren gainean. Ogiak eta diruak herriko sakristauak batzen zituen. Domekero pizten ziren kandelak eta diruak uzten ziren.

«Ordun bere mesa..., funtziño egunen bere ogik imintxen siren sepulturen, eta aiñ ogitxariko bat ixete(n) san aurrogi etorte(n) sana, se entierro badau, bost ekarko'usen, osten lau ixeten siren. Ogitxuk ixete(n) siren, alau ingerukotxuk. Eta aik ogik yoten siren gero sakristire.»

Hiletetara agertzen ziren herritar guztiek eroaten zituzten hilogiak, hiru motroilotxodunak. Era zeukaten baserritarrek etxean egiten zituzten hilogiak, eta garaitikoek Mungiako okindegi bati eskatzen zizkioten. Elizan sepultura zeukan etxeak derrigorrez eroan behar zituen hildakoarentzako eskaintzak.

HILETA OSTEKO BAZKARIA ETA LUTOA

Hiletetara kanpoko jendea etortzen zen, senideak batez ere, kanpora ezkonduak eta behar egitera asagora joandakoak. Lehenago komunikazio onik ez zegoenez, eta hileta amaierarako bazkalordua izaten zenez, hileta-jatordua eratzea ekarri zuen ondorenez. Horixe da behintzat, lekukoek hileta eguneko bazkariari ematen dioten zentzua.

Hileta-bazkaria, lehenago, hildakoaren etxean egiten zen. Baina, gure lekukoen gomutan, herriko tabernetan egiteko ohitura baino ez dugu batu.

Bazkaria atontzen auzokoek laguntzen zieten etxekoei, baina tabernetan egiten hasi zirenetik, beharrik gehiena tabernarien esku lotu zen. Gauza logikoa dirudi, etxekoentzat horren momentu mingarriak izanda eta horren lanpeturik egon beharra, gainera. Jatordua normala izaten zela diote lekukoek, baina okela eta garbantzua jatea ohikoa izaten zenez, esan daiteke bazkari berezia izaten zela, jaiegunetakoen antzekoa.

Ezkerretik: Daniel Larrauri, Vicenta Arruza, Angela Fullaondo, Mª Carmen Ezpeleta eta Ana. Behean Patxi eta Iñaki Agirre.

Higinia Larrazabal eta Ali eta Trini Lopategi ama-alabak.

Elizkizunera eta osteko jatordura joateko erarik ez zutenek auzoko baten bidez ateratzen zituzten hildakoaren aldeko mezak. Eta familiakoek ogia bialtzen zieten haiei, esker ona adierazteko.

> «Eta mesa osten yatordu itxen san. (...) Eta ganera egoten siren mese atara deudenantzat, yon espada yaten, ausok edo errikok, yon espada beskari yaten tabernara, an emote'eutzen Fulanontzat au ogi. Eta ak ekarte'un ogitxu bet mese atara deudenari. Esate baterako ni eno mesara ta oneri emot'otzet: -ataraixu nire mese, ta gero oneri emongo'utzen ori ogie niri ekarteko. Ogi espesiala ixete(n) san, ori iru txurrokotxu. Okiko un igol, kilo bat es, baia libra bat, kilo erdi txe olan baiño giau. *Orduan ogi hori emoten eutson familiak mezea ateraten ebanari?* Bai, olantxe itxen san.»

Lehenago, hileta osteko bazkariko tonua ez ei zen izaten etxekoen tristurarekin bat egiteko modukoa. Jatorduok jai moduko bihurtzen ei ziren sarri. Bestetik, eratzen zuen familiarentzat ere gastu handia izaten ei zen. Gure lekukoetarik hainbatek ez du iritzi onik agertu ohitura horren inguruan, eta ondo begitandu zaie ia guztiz aldendu izana.

Ezkerretik zutik: Francisco Agirre, Rufino Agirre, Mª Pilar Agirre, Francisca Agirre, Amelia eta Santiago Belaustegigoitia lutoa adierazten duen besokoarekin. Behean: Pilar eta Mª Angeles Larrazabal, 1940ko hamarkadan.

Egia esan, asko izan dira historian zehar, eliza katolikoak hileta osteko jatordua galarazi eta aldenarazteko egin dituen ahaleginak. Horien arteko zaharrenetarikoa 1590ekoa da[5]: agindu bidez Iruñako Gotzainak hileta osteko jatorduan gonbidatuen kopurua eta janaria mugatzeko ahalegina egin zuen. Baina 60ko hamarkadara arte, esan daiteke, normaltasun osoz garatu izan dela. Are gehiago, badira gaur egun ere ohitura horri eusten dioten familiak, bai Jataben, bai Jatabetik kanpo. Gaur egun bazkaria olata-mezaren ostean egin ohi da, hiletaren hurrengo domekan.

Hileta ondoko bazkariaren ostean hasten zen etxekoen lutoa. Gehienetan, etxekoek aurretik zeuzkaten arropak beltzez tindatzen zituzten, berririk erosi behar ez izateko. Gazteak etxetik irten zitezkeen, baina ez dibertsiora. Lutoaren iraupena hildakoarekiko senidetasunaren araberakoa zen. Gurasoetako bat hilez gero, hiru urteko lutoa izaten ei zen. Neba-arrebaren bat hilez gero, urte bikoa. Arrosarioaren ostean etxera itzultzen ziren, jolasera joan barik, lutoz zeuden gazteak.

Lekukoen esanetan, lutoa gogorragoa izaten zen andreentzat, gizonentzat baino. Naturaltasun handiagoz hartzen zuen herriko jendeak gizonak gizarteko bizitzan arinago integratzea, andreak baino.

---

[5] ETNIKER EUSKALERRIA, *Ritos funerarios en Vasconia*, op. cit., 547. or.

Sei hilabetetik aurrera luto erdia izaten zen. Kolore beltzeko arropekin batera zuriak tartekatzen hasten ziren. Gizonen kasuan, zinta beltz bat ipini ohi zuten besoan, egungo futbol jokalarien modura, gabardinaren edo jakaren gainetik.

Sarritan lutoa urteurreneko gomuta mezarekin amaitzen zen.

X
HERRI EGUTEGIA

SARRERA

Herri egutegi baten azpian beti dago izaera kosmogonikoa duen trama bat, solstizio bietan oinarritzen dena. Solstizioko egunen inguruan asko ugaritzen dira ekintza sinbolikoak, urteko zikloekin eta jarduera tradizionalekin lotuta. Gabon, Gabon Zahar, *Urtebarri*, Erregenak eta Kandelario dira neguko solstizioaren inguruko jai nagusiak. Ziklo beraren barrukoak dira, baina garrantzi txikiagokoak, Santa Luzia, San Silbestre, San Anton eta San Blas. Udako solstizioan, San Juanen jai nagusia daukagu, eta egun horretakoak dira su garbitzailea, belar eta lore babesleak eta etxeko atean ipintzen den lizarra.

Orain azalduko dugun Herri Egutegian eguzkiaren zikloarekin eta ilargiaren zikloarekin hartu-emana duten egun garrantzitsuak aipatuko ditugu. Eliza Katolikoak ilargi egutegia darabil jaiegunak zehazteko. Eta ilargi egutegiari lotuta, berrogei eguneko multzoak iragarri genitzake lurra lantzeko zikloekin lotuta.

Baina ikusiko dugun legez, eguzkiaren zikloa deskribatzen duten egunik berezienak ere ospakizun izan dira nekazal gizartean. Lurrarekin hartu-eman estuan bizi ginen beste sasoi bateko aztarnak dira.

DOMU SANTU

Jose Migel Barandiaranek Domu Santu egunetik hasi zuen Sara herriaren gaineko Herri Egutegiaren atala, eta maisu handiaren moduan, egun beretik hasiko gara gu ere[1].

---

[1] BARANDIARAN, Jose Miguel. "Le calendrier traditionnel de Sare: Renseignements généraux" *in Obras Completas*. V. Bilbao, 1974, 171. or.

Aurreko atalean ikusi dugun legez, etxekoek hildakoa gomutatzeko mezak egiten izan dituzte. Era horretako erituak pribatuak izan ohi dira, etxekoek antolatu eta parte hartzen zuten, eta hildako bakarraren gomutaz egin izan dira. Ostera, zemendiaren lehen eguna, Jataben *Domi Santuru* esaten diotena, erritu kolektiboa izaten zen. Hau da, herriko defuntu guztiak gomutatzeko eguna izaten zen. Horiez gain, herriko patroiaren jaietan, San Lorentzotxu edo jaietako bigarren egunean, herriko defuntu guztien aldeko meza egiteko ohitura egon da. *Arimen meza* esaten zaio.

Gizarte tradizionalean hildakoak gomutan eduki dituzte egunerokoan. Eguneroko otoitzetan eta beste ekimen batzuetan defuntuen gomuta egon da beti. Ezpabere, ogi eta argi eskaintza egiten izan da elizako sepulturan. Zemendiko lehenengo eguneko ospakizuna lehenago ospatu ere ez ei zen egiten. Baina gure lekukoek ondo gogoan dute XX. gizaldi hasieratik Domu Santuru egunez egiten izan den ospakizuna.

Domu Santuru egunaren bezperan ortusantua apaindu eta loreak eroaten zizkieten hildakoei. Ortusantuan lurrean egoten ziren sepulturak eta oholezko *kurtze* edo gurutzeak atontzen zituzten. Egun beratan, herriko elizara joaten ziren herritarrak. Bertan, tenpluko atze aldeko sepulturan izaten zen gomutatze erritua. Bedeinkatutako kandelak isiotu eta zamauaren gainean uzten zituzten hilogiak eta diruak, eskaintza modura. Zamau beltzak erabili aurretik kolore zurikoak erabiltzen zirela esan digu lekuko batek.

Sepulturetatik igarotzen zen abadea, *txakur handik koiu* eta errespontsuak errezatzen zituen ordu erdi edo ordu betez. Zerrenda batean sepultura bakoitzean batutakoa apuntatzen ei zuen herriko abadeak. Andreek buruan mantila beltz handi bat eroaten zuten eta ez zitzaien aurpegia ikusten. Elizako liburua ere eroaten zuten herriko andreek *Domi Santuru* egunez mezatara. Meza entzun ostean, ortusantuan etxeko hildakoen aldeko errezoa egin eta etxera bueltatzen ziren. *Domi Santuru* egunez hasi eta urteberri egunera arte zabaltzen zen zuhaitzak *iñustu* edo inausteko sasoia.

> «Domi Santuru egunes, ori, elixara ta etzera. Koronan egune ixeten da ori ezta? Koronak eta lorak imintxe kanposantun. Kanposanture beti eron dus lorak, ori beti usa du. *Zelango lorak eroaten zenduezan?* Ba lorak, jardiñekok eroten siren. Guk kanposantun eskubete lora beti imintxen gendun jardiñeko. (...) *Egun horretan eleizara bere joan behar izaten zan?* Bai, eta kandelak imiñi, eta samu esate'akon, samu mantel bat, ta ain ganera diru bota abadentzako. Eta ostabere atzalden kanposanture, ta kanposantun bere barrin diru. Eta gero abadek txakurrandiko Aitxe Gure erresa airi diruri, eta apunte semet on dan, non semet on dan, eta esin baittus erresa ba urrengo egunen erresateko erote'usen, se luse itxe'akon danak itxe. Eta Defuntun egunen barrin samu imiñi te dirues. Iru bider yoten giñen.»

SAN MARTIN

Erementarien patroia da San Martin, zemendiaren hamaika. Herritar guztiei eragin ez arren, Bizkaiko akabuko erementari tradizionala lotzen den herrian, Jataben, aipamentxo bat egingo diogu honako jaiegunari.

Goizez, eta bazkalordura arte, behar egiten zuen errementariak San Martin egunez. Baina etxean beti egiten zen ospakizun bereziren bat. Esaterako, bazkari berezia jaten zuen errementariak bere ogibideko patroiaren egunean. Bazkalostean ohitura Laukizera joatea izaten zen, bertan idi-probak egoten ziren eta.

Arrietako herrian ere San Martinak ospatzen ziren. Eta adindun lekukoen esanetan, ohikoa izaten zen garai batean jatabearrak Arrietara joatea.

Txerria hiltzeko sasoiaren hasiera ere adierazten zuen San Martin egunak. Urtaro horretako hotzarekin txerrikia kontserbatzea errazagoa zen eta. Dena dela, Jataben ohitura izaten zen etxe batzuetan txerria abenduaren zortzian, Kontzepzio egunean hiltzea. Gero, solomoak Gabonetarako uzten zituzten.

NEGUKO SOLSTIZIOA: GABON, GABON ZAHAR ETA URTEBERRI ZIKLOA

Gabonen inguruko jaietan, neguko eguzkiaren jaiotzaren zikloaren barruan, umeak, taldean batuta, eskean ibiltzen ziren herrian etxerik etxe. Orokorrean, auzuneko edo inguruko etxeetan ibiltzen ziren. Eske horren oinarrizko osagaia jaiegun bakoitzari zegozkion kantak izaten ziren. Kanta horietan ez ziren falta izaten eskearen bidez lortu gura zituzten emaitzen gaineko erreferentziak: gaztainak, intxaurrak, arrautzak eta etxeko produktuak izaten ziren, gero jatordu bat egiteko.

Neguko solstizioko jaietan umeek parte-hartze garrantzitsua daukate. Esan liteke, eguzkia eta Jesus jaiotzen diren sasoia izanda, umeei arreta berezia ezartzen zaien sasoia dela. Ia jaiegun guztiek umeei begira zuzendutako ekitaldiak dituzte.

San Tomas

Jataben batutako esalegea da, Santa Luzia egunetik San Tomasera eguna zozoaren begia beste hasten dela. Zozoak begi txikerra dauka, eta beraz, gutxi hasten da eguna Santa Luziatik, argiaren eta joskileen patroiaren egunetik, San Tomas egunera. San Tomas eguna ei da, Eguberri egunera artekoekin batera, argi ordu gutxien daukan eguna. Baina esaerak dioenaren arabera, Santa Luzia oraindino egun laburragoa izango litzateke.

San Tomas egunean errentak ordaintzen zizkieten errentadoreek nagusiei. Urtearen amaiera legez har genezake ikuspegi horretatik. Uzta batuta zegoen ordurako eta, Jataben errentadore askorik ez zegoen arren, horrela bizi zirenek, etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, errentak ordaindu behar zituzten abenduaren hogeita batean. Garai batean Bilbo eta Gernikan bizi ei ziren Jataben aldeaetxeak alokairuan zeuzkaten ugazabak. Orduan ez ei zen egiten egun San Tomas egunez Bilbon egiten den jaiegunik. Errentadoreek dirutan errentaren zati bat ordaintzen zuten, ia sinbolikoa izaten zena, baina orduan jendeak likidezia arazoak izaten zituenez, batzuetan maileguan eskatu behar izaten zuten. Horregatik, hain zuzen ere, Jatabe inguruko hainbat herritan, Gorlizen esaterako, *bentana egune* esaten zitzaion San Tomas bezperari. Auzoko batzuek besteei maileguak eskatzen zizkietelako, euren etxeetako bentanetara hurreratuta.

Garaitiko errenta jenerotan ordaintzen zuten maizterrek; kapoi, ortuari eta oilaskorik onenak izaten ei ziren ohiko produktuak.

Ohitura zaharrak agintzen zuen nagusiak bazkaltzen eman behar ziola errentadoreari San Tomas egunez. Lekukoen arabera, ugazaba gehienek betetzen zuten ohitura, guzti-guztiak izaten ez ziren arren.

Lekukoen arabera San Tomasetan errenta ordaindu eta bost ogerleko soberan zituen errentadorea munduko pertsonarik aberatsena bailitzan sentitzen ei zen.

Aipatzekoa da, era berean, Lemoizeko Armintza auzoan San Tomas ospatzen zutela. Hori bai, eguna urrira aldatu zuten, abenduan egin ohi duen aro hotz eta euritsua dela eta. Armintzako San Tomasetan, jatabearren olgeta erbitan joan eta Armintzara ehizatutako erbiak gerrikotik eskegita agertzea zen. Lekukoen esanetan *txulokeri* izaten zen.

Gabon-gaua eta Natibitate

Jataben abenduaren hogeita bostari *Natibittate* eguna esaten zaio, Nazareteko Jesusen jaiotza ospatzen da eta.

Abenduaren 24a behar egun normala izan da Jataben, gure lekukoen arabera. Egun normala izaten zen, eta gauera arte ez zuen ospakizun kutsurik hartzen.

Beste batzuen arabera, behar eguna izaten zen baina ez zuten lan nekezik hartzen. Abereei jaten ematea eta egunero egin beharreko zereginak betetzen zituzten, ez besterik.

Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoan, Gabon-eguneko beharretako bat izaten zen *Gabon-mukurrek* etxera ekartzea. Gurdian ekarri behar izaten ei ziren aldea-etxeetara. Gabon-mukurrak urte askoko zuhaitzak izaten ziren, eta lekukoen esanetan, erreka bazterretan aurkitzen zituzten. Askotan, usteltzear egoten ziren Gabon-mukurrak, baina haiexek izaten ziren sugarririk preziatuena. Su indartsua egiten zen, gau osoan eusteko modukoa, eta hurrengo goizera arte isiotuta egoten zen. Lekukoen arabera etxeko sua beti egoten zen piztuta. Lehenago misto eta sua egiteko tresna gutxiago egon izanak eragin ei zuen ohitura hori. Eta garaitiko Jatabeko auzoetan, *Gabon-mukur* berbaren gomutarik izan ez badute ere, gau horretan sugarririk onenak eta sikuenak ipintzen zirela baieztatu digu hainbat lekukok.

Afaltzeko familia bakoitza bere etxean batzen zen, eta kanpora ezkondutako senitartekoak etortzeko ohitura zegoen etxe batzuetan. Bikote batzuek Gabon-gaua baten gurasoen etxean igarotzen zuten eta Gabon Zahar gaua besteenean.

Afari berezia izaten zen Gabon-gauekoa. Elikaduraren gaineko atalean ikus liteke zer afaltzen zuten jatabearrek halako gauez. Esaterako, sagar urarekin egindako ardo-zopak ohikoak izaten ei ziren Gabonetan.

Gabon-gaueko afariak erritu berezi bat izaten zuen, egun horretan baino egiten ez zena. Afaltzen hasterakoan ogiaren kurruskua ebaki egiten zen, bedeinkatu, gurutzea egiten zitzaion eta musu eman; gero mantelaren azpian gordetzen zuten afari amaierara arte. Afalostean gorde egiten zen hurrengo urtera arte, sekula ere ez ei zen *urdindu* edo *amiotuten* eta aurreko urtekoa etxeko txakurrari ematen zioten, *amorrutu zedein*. Ogi berezi horrek, *ogi salutedu* edo *ogi sanadu* izenekin esaten

zitzaiona, amorrutik babesten zituen txakur eta jabeak. Ogia, jatorduan zehar, lurrera jausten bazen, batu, musu eman eta mahai gainean uzten zuten berriro.

Afalostekoa ezberdina izaten zen etxe bakoitzeko zaletasunen arabera. Etxe batzuetan kartetan olgetan zuten, beste batzuetan kantatu egiten zen, ohera joaten ziren etxe batzuetan eta gauerdiko mezatara joateko itxaroten zuten garaitikoek. Lekukoen esanetan *hator, hator mutil etxera* izaten zen Gabon-gaueko ohiko kantetako bat, eta hara adibiderako beste bat:

Gabon gabean ohituten dogu
guztiok afari ona:
orio-azak goxo-goxoak
bakotxak berak ahal dauna.

Gero txurrun-plin-plan,
ardau ta paitarra
katuak hartuta
zabu-zabuka.

Gauerdian, *Natibittate* eguna hasten zenean, oilar-meza egoten zen, eta hara joaten zen jatabear ugari. Seriotasun handiko meza izaten zen, kantariak egoten ziren, eta eliza bete egiten ei zen.

Natibittate edo Eguberri egunean, jatabearrek, eguerdira arte hiru meza entzuteko derrigortasuna zeukaten. Hiru abade egoten ziren eta bakoitzak hiru meza ematen zituen. Meza batean hiru abadeak egoten ziren, bakoitza aldare batean, eta horretara, mezatara zihoazen herritarrek hiru meza entzuten zituzten bakar batera joanda.

Elizako sepulturan argi eskaintza egiten zitzaien etxeko defuntuei.

Goizeko hamarretako mezan ez zuen inork hartzen *Gure Jaune*. Jauna hartzeko bezperako gauerditik baraurik egon beharra zegoen, ez zen ametitzen ez jaterik ez eta ura edaterik ere. Barauaren eta kandelen kearen ondorioz, jende asko mareatzen ei zen eguberri eguneko mezan.

Dena dela, jatabearrak izanda, Lemoizeko elizara joan ohi zirenek derrigortasun lasaiagoak zituzten. Esaterako, Natibitate egunean gosaltzeko txokolatea hartzeko ekandua zeukaten.

Abenduaren 25a jaieguna izaten zen, jendeak ez zuen beharrik egiten. Errotak eta sutegiak lotuta, sinestea zegoen egun horretan egindakoak ez zuela etekinik ematen. Gure lekuko batek esan zigun eran: *alkondarak garbitu bere ez*.

Eguerdian bazkari berezia egiten zen, senitartekoak batzen ziren bertan, eta gehienetan aurreko eguneko afarian sobratutakoa jaten zuten. Ondo bazkari goxoa izaten zen. Turroia jateko ohitura zeukaten etxe batzuetan.

Gabon Zahar eta Urteberri

Gabon Zahar edo *urtezahar* esaten zaio urteko akabuko gauari, abenduaren 31koari.

Egunez behar egiten zen, laneguna izaten zen, hala ere, aurretik esan legez, beharrik gogorrenak beste egun batzuetarako uzten zituzten. Lekuko batzuek, esaterako, Gabon Zahar arratsaldean ez zuten beharrik egiten. Etxe batzuetan kanpoko senitartekoak etortzen ziren afarirako eta beste batzuetan etxekoek egiten zuten ospakizuna. Baziren Gabon-gauaren eta Gabon Zaharraren artean bikotekide bien gurasoen etxeak bisitatzen zituztenak ere.

Afari berezia izaten zen Gabon Zaharrekoa, egunero jaten ez ziren jeneroak dastatzen ziren halakoetan. Postrerako, esaterako, gaztainak erre edo egosi eta jatea izaten zen ohitura. Gaztainak prestatu eta jan artean kontu kontari, txisteak esaten eta kantuka egoten ziren etxekoak, batez ere, kanpotik inor heldu bazen eurekin afaltzera.

Gaueko hamabietan, urte berriarekin batera, etxetik irteten ziren jatabearrak eskopetarekin hamabi tiro egin, bat hilabete bakoitzeko, eta bolanderak botatzera.

Gaur egun horren zabalduta dagoen hamabi mahats jateko ohiturarik ez ei zegoen antzina. Herrian mahats ugari egon arren, Gabonetarako galduta egoten zen. Geroago hasi ei zen egun indarrean dagoen ekandua, eta plastikoetan ondo gordeta hasi ziren mahatsak abendura arte iraunarazten.

Gure lekukoen sasoirako gazteak ez ziren etxetik irteten. Baina akorduan daukate zelan eurak baino arteragokoak errondan atera ohi ziren Gabon Zaharretan. Errondan irten eta bihurrikeriak egiten ei zituzten antzinako gazteek egun horretan.

Urteberri egunez, urtarrilaren batean, goizean mezatara joaten ziren herritarrak. Horren ostean, umeak *urtebarri batzen* ateratzen ziren herriko aldea-etxeetatik. Gure lekuko guztiak ez ziren urteberri batzera irteten, baina gomutatzen dira zelan beste etxeetako umeak eurenera hurreratzen ziren. Guraso batzuek ez zuten gustuko euren seme-alabak eskean ibiltzea, eta ez zieten joaten uzten. Beste guraso batzuek senitartekoen etxeetara joateko baimena ematen zieten umeei, baina ez besterik. Hala ere, ume talde ugari ibiltzen ziren herri guztitik etxerik etxe.

Ume bakoitzak bere poltsatxoa eroaten ei zuen, bertan erronda osoan batutakoak gordetzeko. Taldeka heltzen ziren etxeetara eta atari aurrean kantatzen zuten:

Urtebarri,
txarri-belarri,
dekonak ez dekonari,
nik ez dekot eta (zuk) niri,
ezpabere mailutxuagaz
haginek hautsi,
kriski, krauski!

Kantatu ostean saria espero zuten umeek. Etxe batzuetan txokolatea prestatzen zieten zetozenerako, baina fruitu sikuak, sagarrak, mandarinak edo gozokiren bat izaten ziren ohiko ordainak. Ume bakoitzak bere poltsan hartzen zuen berari zegokiona.

Bestalde, azpimarratzekoa da etxeak zer emanik ez zeukala adierazteko erabiltzen zen modua. Umeak heltzerakoan, etxekoek txizontzia ateratzen zuten atarira, hutsik zegoela. Lekukoen esanetan, horrek esan gura zuen etxean ez zegoela jene-

rorik emateko. Baina olgeta modura egiten zuten etxekoek, umeei adarra jotzeko. Akabuan, etxe barrutik umeei emateko oparitxoak atera eta guztiak lotzen ziren gustura. Inoiz, txizontzia eguneko lehen gernuaz bete eta etxeko atarian uzten zuten. Halakoetan, seinek sarritan beste etxe batera egiten zuten ospa. Etxe batzuetan, ontzian txiza egiteko esaten zitzaien umeei, ezpabere ez zela oparirik egongo.

> «Urtebarri egunes, etzerik etze, ingeruko etzetan, etzekoartekogana en jeneral, edo ixekoana edo olan. Eta batzuten esauneri-eta, umeri, emeko andra batek, a grasiosa ixen bere in san, ta segun nor don, urtete'un oraiñelagas. Oraiñela utzik, jenero barik, ta orrek esan gure dau estaule eser. Baia gero emote'un, baia umeri desengañu emoteko asikeran, oraiñelagas urten. (...) Grupo(k) yoten siren e! Es bat eta bi txe. Gu eskara asko ibilli, baia egoten siren bandadak erri gusti korritxe(n) eudenak, nire denporan bai. Ta jente posik etzetan bere ikusteko umek. Daunatxu emon ta...»

Eguerdian bazkari berezia egiten zen urteberri egunez. Orio-azak ohikoak izaten ei ziren eta txerriaren arduraz ibiltzen ei ziren sasoi horretan. Izan ere, Kontzepzio egunez txerria hil eta gero, Urteberri eguneko bazkarian solomoak eta ortuariekin prestatutako buzkantzak jatea ohitura izaten zen etxe askotan.

Erregenak

Urtarrilaren seia da Erregena, baina umeei, Gabon sasoi honetako protagonista handiei begira, bezpera sano garrantzitsua izaten zen.

Olentzero pertsonaia ezezaguna izan da XX. gizaldiaren amaierara arte. Baina Errege Magoen etorrera antzinatik ospatzen da Jataben.

On Eusebio abadearen sasoietan, eta on Eduardorenean ere arean, umeen antzerkiak egiten zituzten Erregenetan Jatabeko elizan. Entseguak zuzentzen zituen abadeak abadetxean bertan, eta antzerkian parte hartzen zuten umeek. Antzerkia, esan beharrik balego, euskara hutsezkoa izaten zen. Elizan bertan ipintzen zuten eskenatoki edo oholtza. Kantatu ere egiten zuten herriko umeek. Belen modukoa antolatzen zuten, eta umeak artzain jantzita, Bibliako Epifaniaren pasartea antzezten zuten gehienetan. Umeentzat gaitzena *brusak* topatzea izaten ei zen, eta etxerik etxe igarotzen zituzten aurreko egunak, utziko zieten *brusa* baten bila.

Errege-egunaren bezperan zapatak garbitu eta etxeko bentanan uzten zituzten umeek. Gauez Erregeek opariak ekartzen zizkieten, eta umeek ilusio handia edukitzen zuten.

Opariak gozokiak eta umeek beharrezko zituzten arropak izaten ziren gehienetan. Ez behintzat oraingo moduko jostailurik.

Pasadizo modura kontatuko dugu Erregenaren bezperan zapatak garbitu eta etxeko bentanan utzi zituen seme bakarraren kasua. Antza denez, etxe batzuetan opariak errege-egun berean mezatara joan ostean baino ez ziren agertzen. Mezatatik bueltatu zen umea, oparia hartzeko ilusioz beterik. Baina, oparirik ez agertzeaz gainera, oiloek kaka egin zioten zapata barruan. Urte asko igaro arren, lekukoek gomutan dute mutiko haren disgustua.

Gabonen ostean beste ospakizun ziklo bat dator, Basaratoste, Aratoste eta euren inguruko jaiak. Aurretik ikusi dugun legez, era horretako ospakizun tradizionaletan pisu handia dauka eguzkiaren egutegiak, baina Basaratosteetako jaietan indarrez agertuko zaigu ilargi-egutegia. Basaratosteen egutegia urterik urte aldatzen da, izan ere, ekinozioaren osteko lehenengo ilargi beteak ezartzen du. Ekinozioa gaua eta egunak luzera bera daukaten urteko egun bakar biak dira. Eta eguzki urtea ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia dira.

Pazkoa, ekinozioaren osteko lehenengo ilargi betearen ondorengo domeka da. Pazkoa domeka baino berrogei egun lehenago *Hautsen egune* edo Hausterre eguna da. Bere aurreko domeka Aratoste eguna da, eta zortzi egun lehenago Basaratoste eguna zen.

Aratostea gizarte ikuspegitik apurketa zekarren ospakizuna izan da, eta XX. gizaldira ia galtzear heldu zen Jatabera. Domekako Basaratostearen ohiturari ondo eusten bazioten ere, mozorrotzea eta beste adierazpen kultural batzuk ia desagertuta zeuden. Baina ospakizunaren filosofiaren oinarrian bidezkoa zen arau batzuk apurtzea eta gizarte mailen arteko ordena iraultzea.

Dena dela, lege-hausketa horrek muga bat zeukan: Hausterre eguna. Egun horretan elizak Garizumaren hasiera markatzen du. Ordutik aurrera Pazko egunera arteko estutasunak eta gorputzarentzako barauak eta urritasunak etorri ohi ziren.

Ospakizun ziklotik ospakizun ziklora dauden berrogei eguneko multzo garrantzitsuekin egin dugu topo. Udaberriko ekinozioaren ospakizunak, neguko solstiziotik berrogeigarren egunera hasten dira. Kandelario egunez, zezeilaren bian.

Kandelario

Kandelario egunez, zezeilaren bian, kandelak hartu eta elizara eroaten zituzten bedeinkatzera. Gero, etxea justurietatik babesteko isiotzen zituzten Kandelario egunez bedeinkatutako kandelak. Trumoiak gogor jotzerakoan pizten zituzten, eta Santa Barbarari laguntza eskatzen zioten.

Hileta, beila eta sepulturarako ere erabiltzen ziren Kandelario egunez bedeinkatutako kandelak.

> «*Kandelario eguna zelan ospatzen zan?* Emen elexara ta kandela(k) berinketu, ta gero etzera ekarri. Gero illetak-eta egoten sirenen etzen, ai(k) kandela berinketuk imintten siren, gorpu etzen badau, orre(k) kandelak. Orretarako ixete(n) siren. Ta tenporala daunen bere ni(k) beti esetu dot, trugoi egunetan. *Truboia egoanean, zer egiten zan?* Orrexe(k) kandela(k) pistu, berinketukok e! Ta ur berinketu ta erramu erre ta orrek, etze batzutan itxen san giau beste batzutan baiño ori. Etze batzutan oten san kostunbre erramu erretako, ta batzuk feaas esate'euren.»

Garai batean Kandelario eguna jaieguna zen. Gerora jaiegun erdia izatera igaro zen eta gaur egun lanegun arrunta da.

San Blas

Antzina, zezeilaren hiruan, jatabearrak Barrikara joaten ziren San Blas egunez. Oinez edo bizikletaz joaten ziren gehienak. Azpimarratu behar dugu batez ere mutikoak joaten zirela. Neskak, sarri, etxean lotu ohi ziren beharrean.

Barrikan erromeri modukoa egoten zen meza ostean. Mutilek *San Blas zintxek* erosten zituzten, etxekoei ekartzeko eta baita neskei oparitzeko ere. Egungo San Blas kordoien aldean zintak erabiltzen ziren antzina. Etxetik eroaten zuten bazkaria eta Barrikan egiten zuten jatordua, nahiz eta batzuetan elurtza handiak egon.

San Blas zintek eztarria jagoten duten sinestea egoten izan da, eta badago gaur egun ere. Zintak ipini eta gainean eroan behar dira bederatzi egunez; egunok igarota, zinta erre egiten zen.

Malbazuri gozokiak ere San Blas egunez bedeinkatzen ziren. *Confitería Santiaguito* dendan erosten zituzten gozokiok, Bilboko Santiago Katedralaren atzean. Ez ei zen erraza sasoi batean malbazurikoak bezain gozoki finak topatzea.

Hurrago zegoenez, Barrikara joateko ohitura indartsuagoa bazen ere, bazegoen urtero Abadiñora joateko ekandua etxe batzuetan. Batzuk urtero joaten ziren, trenez orokorrean.

Abadiñon abereak erosten zituzten jatabearrek, eta lekukoek akorduan dauzkate arteragoko sasoietan Abadiñotik Jatabera ekarritako idiak.

Santa Ageda

Santa Agedako uretan, zezeilaren bostaren osteko lehenengo ilbeheran, ereiten dira lehenengo piperrak eta patatak. Lekuko batzuen arabera, epoka horretan *iñustu* edo inausi behar dira mahats-parrak eta fruitudun zuhaitzak. Beste batzuek abendutik martira arteko epera zabaltzen dute behar horretarako sasoia. Baina esan genezake, lurrarekin lotutako lehenengo beharrak hasteko epea adierazten duela zezeilaren bostak.

Ospakizun nagusia, ostera, bezperakoa izaten zen. Orduan eske-errondak egiten ziren, etxerik etxe, Santa Agedaren martirioak kantatu eta jatordutxo bat prestatzeko. Ageda Kataniakoak, elizaren santutegian, ez du martiri handien garrantzirik, baina herri-ohituretan badauka agerpen zabala eta, gainera, aspaldi-aspaldikoa. Martiriak sufritu zuen zigorretariko bat bularrak ebakitzea izan zenez gero, herripentsaeran bularreko gaixoen, eta orokorrean, andrezkoen gaixoen babesle legez ageri da.

Lotura handia dauka gazteriarekin; bezperako ospakizunetan mutil gazteak ibiltzen ziren batez ere errondan, zaharren taldeak ere ibiltzen ziren arren. Mutil taldearen buru egiten zuen koplariak kopla bat bota eta gero taldeak errepikatu egiten zuen. Neskak, ostera, etxean geratzen ziren.

Santa Ageda bezperako kanta errondetako mutilek makila bana eroaten dute. Makilak dira ospakizun honetako ezaugarri garrantzitsu bat. Gurbitzez egineko makila lurraren kontra jotzen da kantatu ahala.

Gure lekukoek diote euren sasoian ez zitzaiola zintarik ipintzen makilari, gaur egun legez. Baina hori, gertakizunen batek eragindako salbuespena izan liteke, kul-

Santa Ageda abesten ibilitakoak, 1950eko hamarkadan. Behean ezkerretik hasita: Francisco Agirre, Jesus Etxebarria, Antonio Amezaga, Valentin Azkorra, Salustiano Bilbao eta Faustino Agirre. Goian: Salus Arkotxa, Teodoro Elortegi, Felix Urresti, Angel Ibergarai eta (---).

tur ezaugarria baino. Inguruko herrietan makilei zintak ipintzen zitzaizkien eta. Hain zuzen ere, egun bi lehenago Barrikan erositako San Blas zintak.

Etxeetara heltzerakoan *Kanta ala erreza?* itauntzen zioten ugazaba edo ugazabandreari.

Etxean lutoz bazeuden, edo desgraziaren bat jazo bazen, errezatu egiten zuten gazteek. Baina normalena kantatzeko eskatzea izaten zen.

> «*Santa Ageda bezperan baegoan kantetan urteteko ohiturarik?* Bai mutillek, neskatok es. Ordun neskatok amarrata oten siren, etzen, edo tresna garbitxen, edo etxe garbitxen, edo solora espabere bedar ebaten... *Eta etxerik etxe ibiltzen ziran kantetan?* Bai. Kanta ala erresa preguntate(n) euden. *Eta erreza noz egiten zan?* Ba erresa itxen san batan bat ilparri badau, ba ordun erresa. Baia osten kanta *en jeneral*. *Kanta, zelan egiten eben?* Ba soliste oten san, ta ondo-ondo kantate(n) euden askok, se preparata oten siren, eta bos ona dekona imintxe(n) san soliste, ta bestek aputxu bet..., koru itxe(n) euden. Errepetidu bestek. Baia detaillegas itxe(n) euden e! Ondo preparata itxe(n) san, gogos. *Noz urteten eben?* Egunes. *Danak edade batekoak, kintoak?* Es, es, danatarik, barieduk.»

Egunez hasten ziren mutil gazteak etxerik etxe eta iluntzera arte luzatzen ziren sarri. Horrexegatik, iluntzetik aurrera, farola eroaten zuten taldeari argi egiteko.

Lekukoek gomutan dute orain arte ikusi dugun ospakizun honen genero ezaugarria, mutilek bakarrik abestea, apurtzen duen jazoera bat. Bermeoko andreak Jatabera etortzen ziren Santa Ageda kantatzera.

Baina ez ziren erbestetik Jatabera etortzen ziren bakarrak. Armintzako mutilak ere santa eskean ibiltzen ziren Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoan.

Eta horri gehitzen diote, bai batzuek eta bai besteek, *tonu* edo doinu berean abesten zutela, baina letra ezberdinarekin.

Etxekoak atarira irteten ziren eta kantari taldeak koplak botatzeari ekiten zion. Lehenengo koplari edo solista, eta errepikapenean garaitikoak. Agur egiten zieten etxekoei, Santa Agedaren martirioak koplatzen zituzten, banan bana etxeko guztiei kantatzen zieten, eskea egin eta esker ona edo esker txarra erakusten zuten. Jasotako sariaren araberakoa izaten zen taldearen eskerra.

Etxekoei kantatutako koplek oinarri gotikoa daukate Juan Mari Lekuona eta Jabier Kaltzakortaren iritzian[2]. Erdi Aroko zantzua daukaten aberastasun, santutasun eta edertasun irudiak erabiltzen zituzten koplariek etxekoak lausengatzeko. Guztiz logikoa, helburua buzkantza, arrautza, zezina edo gazta apur bat eskuratzea bazen.

Jarraian Santa Ageda bezperan kantatzen ziren koplen erakustaldi bat eskainiko dugu. Agertuko diren koplen artean jatorri bi bereiztea ezinbestekoa da. Kopletako batzuk Luistar gazteek, ezkongabekoen erlijio elkarteko kideek etxerik etxe botatzen zituztenak dira. Bertan ageriagoa da gipuzkeraren eragina martirioen pasarteetan. Inguruko beste herri batzuetako aldaerekin konparatuta, ematen du Gipuzkoa aldetik zabaldu zen bertsio baten aurrean gaudela. Ziurrenik elizaren bidez zabalduko zen, eta ohitura errepikatzeak eta bertsioa herritartzeak aldaketa handiak eragin zizkion. Bertakoek eurena bihurtu zuten, eta Gipuzkoako formekin batera, bertakoak ere ikus litezke.

Beste alde batetik, erlijio elkarteetakoak ez ziren gazteek kantatzen zituztenak daude. Horietan ageriagoa da bertako bertsio zaharra dela. Eta erratzeko beldur barik esan genezake, Jatabetik Getxora seguru, eta lekukoek esanaren arabera, baita Jatabetik Bermeora ere, abesten zen kopla multzoaren eta doinuaren barruan daudela. Ohikoak dira aipatu dugun ingurune guztian, eta hauek dira:

Sante Ageda ez da izaten
hilean hilean,
Sante Ageda urtean baten
bera zezilen bostean.

Oles ta Oles atetan,[3]
nor dabil ordu honetan.
Zazpi morrosko alkar hartute[4]
baztarrak inkomodetan.

---

[2] KALTZAKORTA, Jabier. "Erronda-kantuak eta eske-bertsoak" *in Euskera*. 48. zenb. Bilbo, 2003, 109. or.

[3] Oles esaten zen antzina Jataben inor agurtzeko: *Oles in ta jon zan...*

[4] Lerro horren lekuan *Armintzaldeko mutil zoroak* kantatzen zuten Goietara zihoazen armintzarrek.

Bereinkatua izan ditela
etxe honetako jentea.
Pobre ta umilde dabilenantzat
badeuke borondatea.

Jesus esan eta hasita
hauxe dot hasikerea,
pobre ta umilde dabilanantzat
badeuke borondatea.

Santa martiri maitea
dago errukiz betea.
Berak alkantzeu egin deiskula
osasun eta bakea.

Alkate jaunaz egonta gagoz
atzoko arratsaldean,
libertadea emon in dosku
ibilitzeko bakean.

Ene Joxepa non zara
hemen agiri ez zara.
Beste danak ezkondu dira ta
gu biok noz eingo gara.

Errota azpin harrie
haren ganean txorie.
Elaztuneti pasa leittike
—-[5] zure garrie.

Solomoaren osoa
haren koipearen goxoa.
Zatirik kentzen ibili barik
ekarri egizu osoa.

Kamaran dago arkea
lukinka-arrotzez betea,
banaka-binaka ibili barik
ekarri altzokadea.

Etxeko andrea
eskaten dogu borondatea.
Bagoaz amaituten eta
agur hurrengo urtera artean.

Goazen-goazen hemetik
hemen ez dau gauza onik,
atorra zahar bat iko ganean
ha bere kakaz beterik.

Etxekoen aurrean egiten den kantuak bete behar dituen funtzioak nahiko agerian daude kopla hauetan.

Hasierakoek taldearen aurkezpena egiten dute etxekoen aurrean. Santa Agedaren martirioaz berba egin eta santuarekiko maitasuna kopla bidez adierazten dute.

Alkate jaunaren erreferentziak ohitura zahar batera garamatza. Izan ere, sasoi batean herriko alkateari baimena eskatzen zitzaion eskean irteteko. Antza denez, baimen hori eskea erregulatzeko baino gehiago, mutil gazteen koadrilen artean izaten ziren istiluak saihesteko izaten zen. Inoiz, aurreko urtean *agarradan* edo *drogan*, hau da, istilutan ibilitako koadrilei Santa Ageda bezperan irteteko baimena kentzen zieten.

Jarraian etxekoen lausengua heltzen da, adibide honetan etxeko alaba gaztearen koplak ageri dira. Gorputzaren edertasuna eta galai gazteen ezkondu gurea dira gai nagusiak, dotearekin batera.

Amaitu aurretxoan jatekoen eskaria egiteko koplak datoz. Lehenengoa solomoaren gainekoa, eta bigarrenean lukainka eta arrautzak aipatzen dira. Txerrikiekin lotutako janaria garrantzitsua zen zezeil inguruan. Eta kopla bietan errepikatzen da eskuzabaltasunaren beharra, zatirik kendu barik ibiltzeko eskatzen dute.

---

[5] Koplatua zen neskatoaren izena. Ahal zela, hiru silabakoa behar zuen.

Azkenik, saioari amaiera emateko kopla bi ageri dira. Lehenengoa, batutakoa ontzat emanez gero kantatu ohi zirenen adibidea izan liteke. Bigarrena, ostera, ezer gutxi eman dutenei kantatzen zitzaienetakoa. Etxekoak zikoitzak baziren, mutil gazteak ez ziren isilik lotuko.

Santa eskean batutakoarekin, jatordua antolatzen zuten abesten ateratakoek. Baina mutil gazteek ez zuten neska gazterik gonbidatzen jatordu horretara. Inguruko hainbat herritan, antzina Euskal Herriko beste askotan legez, ohitura, mutil bakoitzak neskaren bat gonbidatzea izaten bazen ere.

Lehenago esan dugu Santa Ageda bezperan abesten diren koplen sorta bi batu ditugula. Lehenengoa, ikusi berri duguna, eremu zabalago bateko doinu eta kopla eredu baten barruan sar genezakeena.

Bigarrena, orain agertuko duguna, Bastegiko Felix Urrestiri batutakoa da. Luistar gazteek zezeilaren bosteko bezperan abesten zituzten koplak dira. Eta gipuzkeraren eragina igarri arren, batez ere martirioei dagozkien kopletan, guztiz bertakotuta ageri dira kopletako asko. Adibide ederra, kanpoko aldaera bat beste euskalki bateko herrian sustraitzen denean ematen den asimilazioa ikusteko.

Aintzaldu daigun Agate Deuna
bihar da ba Deuna Agate,
etxe honetan zorion hutsa
beti eukiko al dabe.

Deuna Agatena batzeko gatoz
bertoko Luistar gazteak,
bihotzez hartu gaizuez eta
zabaldu zuen boltsea.

Etxe honetako kristiñauari
opa deutsegu zoriona,
Jangoikoaren esker bero eta
bere amaren bihotzurra.

Luistarrari jarri limosna
zeruko amari eskeintzeko,
gero bera ba izango dela
denori lagunduteko.

Zeruetara begiek altzeu
graziak eskatuteko,
Santa Agedak zer pasau eban
zeuori esplikateko.

Hasierako nasituen
lehendabizirik hasteko,
martiriozko pena tristeak
zeruak ikusiteko.

Gobernadore Palermokoak
aginpidea bazuan,
Santa Ageda hain zan ederra
bere andratzat nahi zeuan.

Gizon handie izanagatik
hori logratu ez zuan,
lehendabiziko nobledadeak
horgaitik izan zituan.

Soldadu batek itaundu eutson
ia nahi zuen damatu,
Santa Agedak erantzun eban
Jesus nahi dot nik maitatu.

Hobeagorik izango danik
sekula ez dot gogoratu,
eta holan bai honek esanik
betiko egin zan isaldu.

Jentil gaiztoak aditurikan
esan zioten bertatik,
bere bularra ebagitzeko
kutxiloagaz sustraitik.

Gorputz guztie estaldu zion
odolez bere zauritik.
Probidentzie ez zuen falta
Jaungoikoaren aldetik.

Hil arteraino Jaungoikozale
garbi-garbia izan zan,
bere antzeko garbizaleak
geu bere izan gaitezan.

Orain bagoaz hemendik eta
eskerrik asko zeuori,
agur hurrengora artean eta
osasun onagaz bizi.

Egun, santa eskean batutakoa Afrikako behartsuei laguntzeko agintzen dute jatabearrek.

San Jose

Martiaren hemeretzian da San Jose eguna. Egun garrantzitsua zen, ospakizuna egiten zen senitartekoekin eta artxoa jateko ohitura zegoen. Data horrek adierazten du artzainek neguko barrutiak utzi eta euren etxe inguruetara bueltatzeko epea. Martxoa, artzainek euren artegiak negutik babesteko egiten dituzten bidaien amaiera epea da. Nekazariek neguan uzten zizkieten euren lurrak artzainei. Horretara, ardiak elikatu eta lurrak ongarritzen zituzten. Barrutiaren alokairu modura, askotan hutsik zegoen etxeren bat edo aldea-etxearen alderdiren bat barruan hartzen zuena, gazta, artxoa eta dirua izaten ziren ordainsariak. Horregatik, San Jose egunez, ohikoa izaten zen artxoa jatea, egun horretara arte euren lurretan ibilitako artzainek ordain legez emandako artxoa jaten zuten eta. Artxoak jaiotzeko garaiaren amaiera adierazten du San Jose egunak. Hori azaltzeko artzainek erabiltzen duten esalegea: *San Jose ezkero edozein egunetan antzuk*.

Basaratoste, Aratoste eta Karnabal Martitzena

Hautsen egune edo Hausterre egunaren aurreko domeka da *Aratoste.* Lekuko batzuek *karnabalen arterauko domeka* dela esanez adierazten dute bere data. Eta Aratosteren aurreko domeka Basaratoste edo Basatoste izaten zen. Jatabearrek berba biak erabiltzen dituzte. Beraz, Basaratoste ospatzen zuten domeka batez, eta Aratoste hurrengoan.

Basaratoste egunez txitxiburduntzia egiten zuten jatabearrek. Gazteen jaia izaten ei zen, neska-mutil gazteek ospatzen zuten eta. Geroago gurasoak eta umeak joaten ziren eta azkenik umeentzako jaia izan ei zen. Lekuko batzuek hamabi urtera arte parte hartu ei zuten Basaratostean, umeen gauza zela eta. Dena dela, etxe batzuetan familia osoa batzen zen eguna ospatzeko, aititaamamak, sein eta guzti.

Leku ezberdinetan ospatzen zen Basaratostea. Batzuek Julen edo Julemendin egiten zuten; Errotabarri etxe inguruan harlauzazko andabidearen zubi ondoko haritzian beste batzuek; Goikomendin ospatzen zuenik bazen; Garai auzunekoak *Basisi* basoan elkartzen ziren, eta azkenik, beren etxeko soro bazter batean egiten zutenen berri izan dugu.

Leku horietan guztietan ardurarik handienetakoa basoak surik ez hartzea zen. Horregatik, sua ondo kontrolatzeko moduko txokoak aukeratzen zituzten txitxiburruntzia egiteko.

Basaratoste egunez txitxi-burruntzia egiten zen, 2009.

Subilek erreka ertzean egoten ziren, *sube* egiteko. Gurbitz adarrak erabiltzen zituzten, zorroztu eta txorizo zatia ipintzen zioten puntan. Sutan berotzen zuten txorizoa *izerdi iñ arten*, eta talo edo ogi bitartean sartuta jaten zuten.

> «Basatoste egune. Geu bere, ordun aittitte ta euki gendusen or Mardatzen ta ara yoten giñen txikitxuten, gurbixe ixete(n) san olan palutxu politte, oin bere. Gurbixe, gorri-gorritxu. Lelau asko oten san baia oin desaparesiduten do ori. Ari puntetxu artu te txorixo imintxe ogi saties an erretan, basatoste egunen. Kuadrille. *Zelan esaten jakon Txitxi-burruntzi edo Basaratoste?* Txitxi-burruntzi bera bearra ixete(n) san, baia Basatoste bere bai. *Urtero leku batera joaten zinien?* Gu jeneralmenten, aittitte-amamak oki gendusen etzera yoten giñen, se ango lengusuk eta guk, eta an etzalbon, an Subitta oten san, an beratxuau erreka albon, aretxak ta an itxe(n) san sube. An batzen giñen kuadrille, amar-edo, amabi-edo.»

Sasoi batean neska-mutil gazteek baino ez zuten parte hartzen, eta iluntzera arte egoten ziren basoan. Ardo apur bat eroaten uzten ei zieten zaharragoek, antzina produktu garesti eta estimatua zen arren.

Etxe gehienetan tostadak egiten ziren Aratoste egunez. Ogi eta arrautzez egiten zituzten tostadak, oliotan frijituta.

Aratoste eguna igaro eta hurrengo martitzenari *Karnabal martitzena* esaten diote lekukoek.

Gure lekukoen sasoian Karnabalak ez du ia indarrik eduki. Horren arrazoi legez, jendea *sano elizatsua* izan dela batu dugu.

Tostadak egiten ziren Aratoste osteko eta Hausterre aurreko martitzenean. Gure lekukoek ezagutu duten sasoirako inor ez ei zen mozorrotzen. Baina salbuespen modura hartu behar dugu Goieta edo Marutxeaga auzoa. Bertakoek mozorrotzeko ohiturari eusten zioten eta.

Ameriketara beharrean joandako senitartekoek agindutako arropak janzten zituzten, elkarri biboteak margotu eta amerikarren itxura hartzen ei zuten.

Gure lekukoen garaian, XX. gizaldian, *txarrin puxike* puztu eta haiekin umeek elkar jotzeko ohitura zegoen bizirik. Egungo jaietako buruhandiek erabiltzen duten eran.

Gure lekukoen gurasoen garaian, ostera, XIX. gizaldiko azken hamarkadan eta XX.aren hasieran, mozorrotzeko ohitura zegoela diote hainbat lekukok. Etxekoei entzundakoaren arabera mutilak neska eta neskak mutil janzten ziren. Batzuek arropa berriak ere egiten ei zituzten mozorrotzeko.

Behin mozorrotuta, koadrilan batzen ziren neska-mutilak eta etxerik etxe joaten ei ziren eske-errondan.

Gure lekukoen sasoian, hainbat jatabear gazte Bakioko erromeriara joaten ziren Hausterre bezperan. Hastear zegoen Garizuma, eta sasoi horretan ez zenez erromeriarik ez dantzaldirik egiten, sasoi lehorra hasi aurretik ondo aprobetxatu behar zuten akabuko aukera.

Garizuma

Garizuma *Hautsen egune* edo Hausterre egunean hasten zen. Aldi hau Pazkoarekin, Jesusen berpizkundearekin, guztiz lotuta dago. Pazkoaren prestakuntzarako baraualdia luzatuz joan da historian zehar, eta azkenean, egungo berrogei egunera heldu da.

Baraualdia bekatuetatik garbitzeko era legez ulertzea, filosofia dualista greziarrean bilatu behar dugu, hau da, Platonen ideietan. Pentsaera horretan oinarrituta, kristauentzat gorputza arimaren kartzela da. Eta ondorioz, arima purifikatzeko gorputzak sufritu egin behar du, zigorraren bidez. Bekatuak garbitzeko bidea sakrifizioa da. Beraz, berrogei egunez zigortzen da gorputza baraualdia eginaz, Pazko Domekarako arima garbi egon dadin.

Garizuma zorroztasun handiz egiten zuten gizarte tradizionaleko biztanleek. Hausterre egunean baraua eta abstinentzia egiten zen. Baraua egun horretan jatordu bakarra egitea zen, bazkaria normalean. Garaitiko jatorduak ezabatu behar ziren, edo gauzatxoren bat baino ezin zuten jan. Abstinentzia, ostera, okelarik ez jatea zen. Jataben abstinentziari *bijili* esaten zaio.

Garizumako berrogei egunetan barau egin behar izaten zen, eta horrez gainera, eguazten, bariku eta zapatuetan, baraua eta abstinentzia. Ondorioz, jatordu bakarra egin zezaketen egunero, eta eguazten, bariku eta zapatuetan, horrez gain, ezin zuten okelarik jan.

Lekuko asko garraztasunez kexu dira orduko sasoiaz. Izan ere, behar handia izaten zuten aldea-etxean eta indar barik egoten ziren, ezin izaten zutelako ganoraz jan.

Elizari dirua pagatzeko beste zeukatenek, ordea, *buldea* erosten zuten. Bulda, dirua ordainduta elizak saltzen zuen agiria zen. Agiri horren bidez Garizumako neurri zorrotzak lasaitu egiten ziren. Garizumako eguazten eta zapatuetan okela jateko eskubidea erosten zuten. Gutxi balitz, bariku, zapatu eta eguaztenak kenduta, garaitiko egunetan normal jateko eskubidea erosten zuten buldaren bidez. Buldak pezeta bat balio zuen, gure lekukoen gurasoek erosten zuten sasoian.

Detaile modura esan dezagun, bulda pagatzeak gauza askotarako balio zuela. Esaterako, bulda ordainduz gero, ez ei zitzaien etxekoei lamiarik irteten.

Garizuman barau eta bijilia ez ziren izaten herritarren murriztapen bakarrak. Esaterako, jolas, erromeri edo dantzaldirik ere ez zen egoten sasoi horretan. Gazteek, hala ere, elkarrekin egoteko moduak topatzen zituzten.

Garizumaren aurretik fraideek misioak egiten zituzten, eta sermoien ostean konfesioa izaten zen. Jatabera etortzen ziren eta sermoiak botatzen zituzten, goizez eta arratsaldez. Mutilak hartzen zituzten alde batetik, neskak bestetik eta bekatua zer den eta zer ez bereizten erakusten zieten. Sasoi beratan egokienak ziren gazteak aukeratu eta fraide izan gura zuten itauntzen zieten. Horretara erlijio bizitzara sartu ziren hainbat jatabear. Aita Patxi ere aipatu behar genuke honaino helduta. Izan ere, Arrietako elizgizona sarri agertzen zen Jatabetik. Hori bai, urteko edozein sasoitan, ez soilik Garizuma aurretxoan. Bere lana fedebakoak federa ekartzea zen, eta etxerik etxe ematen zituen mezak.

Garizuma sasoia, erlijiotasunari begira, errespetu handiko sasoia ei zen. Elizako irudiak estali egiten ziren eta abadeak ilunez janzten ziren.

Garizuman prozesioak egiten ziren. Elizatik ateratzen ziren eta *kurtzeen bisitxe* edo gurutze-bidea egiten zen. Ama Birjina eta San Jose balira legetxe jantzi egiten ziren herritar bi. Hamar estazio egoten ziren, eta bakoitzean irakurraldi bat egiten zen. Hasieran luzeagoa egiten zen prozesioa, elizatik eta Herriko Etxeraino. Gero laburtu zen ibilbidea, Maruri etxera arte egiten zen, buelta eman eta elizara itzultzen ziren. Ibilbide laburragoa, geroago ikusiko ditugun beste prozesio batzuetan errepikatuko zena, gurutzedun hiru harlanduk markatzen zuten. Harri landuak ziren, oinarriak zabalagoak eta gorantz joan ahala estutzen zihoazenak. Harrien gainean burdinazko gurutze bat edukitzen zuten. Ez dira Jataben era horretako harri bakarrak. Santa Kurtzeko ermita zaharra zegoen hasierako lekuan, Santa Kurtze mendian, gurutzerik ez zeukan halako beste harri bat ei zegoen, lekukoen arabera.

Prozesioen ibilbidea, eta andabideena ere, markatzen zituzten hiru harrien kokagunea honakoa zen: Marurizarrean (egun galduta dago), Sabinone etxean eta Markaidetatik datorren errepidetik, Marurizarra eta Sabinone etxearen arteko bide gurutzean. Azken hori bere lekuan dago oraindino ere, bidegurutze bazterreko horma batean. Hiru harri horiek garrantzi handia eduki dute erlijiotasunean. Eta prozesioen, hileta-segizioen, errogatiben... ibilbideak markatzen zituzten.

Beranduagokoa, baina erlijio ibilbidearen hasiera eta amaiera adierazten zuena, *Pasionisten kurtze* izenekoa zen. Hamar metroko luzera zeukan eta kanpandorrean ipini zuten. San Lorentzo elizan tximistorratza ezarri zutenean kendu zuten gurutzea, burdin biek elkar jotzen zutela eta.

Erramu eguna

Erramu eguna Pazko Domekaren aurreko domeka da. Egun horretan erramua edo ereinotza eroaten zen elizara bedeinkatzen. Etxe inguruetan batzen zen erramua, eta hori eskuan hartuta joaten ziren elizara jatabearrak.

Bedeinkatutako erramua etxera ekartzen zenean etxeko atean edo edalontziren batean ipintzen zen adartxoren bat. Bazegoen etxeko soroan ipintzen zuenik ere. Aurreko urteko erramu bedeinkatua, ostera, txapara edo beheko sura botatzen zuten.

> «*Erramu-egunez zer egiten zan?* Ordun erramu eron elixara ta berinketu, oin bere bai. Oin bere segitxen du. Ta gero berinketute ekarri ta urtebete euki or portalen; portalen edo bakotxak al daun lekun. *Erramu hori zeozertarako erabiltzen zan?* Es, urte pasakeran txapan erreten dot, gero barri imintxeko.»

Erramuak botere babeslea izan du euskal pentsaera tradizionalean. Etxea justurietatik babesteko sutara botatzen zuten; etxeko atean ipintzen zen espiritu okerretatik babesteko, hildakoa ur bedeinkatuz ihinztatzeko eta bere gela purifikatzeko erabiltzen zen; San Juanetan bezperako suarekin batera zabaltzen zen soroetan uzta oparoa izan zedin. Landare garrantzitsua izan da erramua euskal gizarte tradizionalean.

Erramua etxeko portaleko habean sikatuta, 2008.

Aste Santua

Aste Santuak Jesus Jerusalemen Mesias moduan sartu eta gurutziltzatu zuten arte igaro zen astea gomutatzen du. Egun bakoitzak bere sinbolismo eta mezua dauka erlijio katolikoaren baitan. Egunik garrantzitsuena Pazko Domeka da, Jesusen berpizkundea ospatzen da eta.

Eguen Guren eta Bariku Guren Pazko Domekaren aurreko egunak dira. Jaiegunak izaten jarraitzen dute gaur egun, lehenago izaten ziren legez. Are gehiago, sineste zaharra da Eguen Guren egunetik Pazko domekara egindako beharrak ez duela fruiturik ematen, eta zigorra dakarrela atzetik.

Eguen Guren egunez itsasora joaten ziren lapetan jatabearrak, Bariku Guren egunez bijilia egiteko. Lapa bila Basordara, Urbietara (Jatako eta Urizarmendiko urak batzen diren lekua izatetik datorkio izena) eta Portumetik behera Basobaltzera joaten ziren. Eguen Guren arratsaldez mezatara joaten ziren. Egun bereko mezan Eukaristia hartzen zen aldaretik, gordeta egoten zen sagrariotik, eta Aste Santurako beren-beregi egiten zen monumentu izeneko aldaretxoan ipintzen zen.

Elizaz Lemoizi dagozkion Jatabeko aldea-etxeetako biztanleek, Eguen Guren egunez, esandako herrian egiten zen prozesioan parte hartzen zuten. Prozesioa kantuan egiten ei zuten, elizatik frontoiraino egiten zuten ibilbidea eta elizan amaitzen zen gero.

Eguen Guren egunez Jesusen azkeneko afaria eta mezaren ezarpena ospatzen da.

Bariku Guren eguna, ikuspegi kristautik isiltasun eguna da, Kristo gurutziltzatua gomutatzen da. Eta hain zuzen ere horregatik, mezarik ospatzen ez den urteko egun bakarra da. Geroago landuko dugu sakonago, baina barikuak izen txarra izan du gizarte tradizionalean. Aste txarra edukitzeari, zorigaitzak normalean baino ugariagoak izan dituen asteari *bariku biko astea* esaten zaio. Kristo hil zen eguna da barikua, aste santuan janari murrizpenen egun seinalatua da, sorginak ere barikuz batzen ei ziren eta herri pentsaeran asko dira barikuz egin ezin daitezkeen edo hasi behar ez diren ekintzak.

Bariku Guren egunez, herriko umeek, hamar urte ingurukoek, karrakak jotzen zituzten elizan, Judasi burua apurtzeko. Gerra aurretxoan, sakristauaren loba ei zen karrakaren jarraitzaile sutsuenetarikoa. Elizako koru aldean karraka handi bat egoten zen, hori hasten zen zarataka, eta bere ostean, elizako garaitiko ume guztien karrakak hasten ziren.

Bariku Guren eguna seinalatua izaten zen Bermeotik heltzen ziren arrainsaltzaileentzat. Ugari agertzen ei ziren, egun horretan okelarik ezin jan zitekeela eta. Prozesioa ere egiten ei zen Bariku Guren egunez.

Zapatu Santu gauez, gauerdiko hamabietan meza izaten zen, Gloriako meza izenekoa. San Lorentzo elizara eta Lemoizeko Andre Maria elizara joaten ziren jatabearrak, bakoitza bere etxearen hurbiltasunaren arabera. San Lorentzoko elizkizuna serioagoa izaten ei zen. Andre Marian, ostera, gazteek parrandatxoa egiten ei zuten meza ostean.

Gloriako mezan sua eta ura bedeinkatzen ziren. Sua bedeinkatzeko su txiki bat egiten ei zen elizpean, batzuetan. Besteetan, kandelekin egiten ei zen bedeinkapena.

Uraren kasuan, ostera, elizako ateetan zegoena bedeinkatzen zen. Eta herritarrek, botila bete ur bedeinkatu eroaten zuten etxera; justuriaren aurka erabiltzeko, esaterako. Ur bedeinkatu berriarekin, etxera heltzerakoan, soroak, gorta, abereak eta etxe ataria zein barruko aldea bedeinkatzen zuten herritarrek.

> «Eta sapatuen gero gaueko mese, oiñ illundittan egoten da segun, parroki betzuten sortzirek-bedratzik edo olan, baia ordun gauko amabittan. Eta nire nebe-ta sarri yon dire, emen ausok, mutillek Lemuxera, eta Lemuixen iñ egurrekas sube elixepen, ta sube berinketu, ta ure berinketu ordun itxen san, Paskotan. Ori oin bere bai, emen Yataben bere bai. Baia oin sube itxen espada ba kandelakas edo seren... Baia len sube elispen iñ eta sube berinketu eta ure berinketu urte dustireko. Ur berinketu elixako atetan beti, eta gero bakotxak etzetara-ta eroteko, umek bautisateko ta... Ori Sapatun amabitteko mesan. Ta osten juergatxu ingo euren mutil gaste(k) kero.»

Gloriako meza amaitu ostean kanpai jotze itzela egiten ei zen, Kristo berpiztu zela ospatzeko.

Pazko aldian, baina ez berez Pazko domekan, derrigorra zen konfesatzea. *Zekorra entregaten jon* esaten zioten herritarrek urtean behin derrigorrez egin beharreko ekintza horri. Hainbat herritar urtean behin baino ez ei ziren joaten elizara, eta honako kantak ematen digu horren berri:

Nabo-lorati nabo-lorara
etorten dira billabasotarrak elizara.

Nabo-lora edo arbi-lorea udaberrian agertzen da. Beraz, kanta horrek, herri egutegian sasoiak adierazteko ohikoak diren landareen loratze edo usteltze prozesuen berri ematen digu, konfesio garaia adierazteko. Udaberrian loratzen da arbia, eta udaberriko ekinozioaren osteko ilargi betearekin lotuta dago Pazkoa. Ondorioz, abesti horrek argi esaten digu Pazko garaian derrigorrezko konfesioa egitera baino ez zirela joaten elizara.

Konfesatzera, aurreko egunetik baraurik joan beharra zegoen. Aurreko gaueko hamabietatik, ezin izaten zuen ezer jan ez edan konfesatzera zihoanak. Lehengo zaharren artean ardura handia zegoen konfesatzera baldintza guztiak ondo beteta joateko. Horren adibide da agure batek, pipa eskuan zeukala, konfesatu aurretik abadeari Gatikan itaundutakoa: *erre nengi?*

Lekukoen esanetan, jendea baraurik joaten zenez, kandelen kearekin mareatu egiten ziren asko. Antza denez, tentsio eta ezinegon handiko momentua izaten zen konfesioa. Eta horri, baraua gehitu behar diogu.

Pazko aldiko konfesioa Hautsen egunetik Maiatz-pazko edo Mendekosterainoko epean egiten zen. Baina gure lekukoen esanetan, Pazko Domekarako konfesatuta egon behar zuten. Konfesatu egiten ziren, hau da, urtean zehar egindako bekatuen berri ematen zioten abadeari. Ostean, Gure Jauna hartzen zuten eta azkenik, doktrinaren gaineko itaun bati ondo erantzunez gero, *txantela* ematen zieten. *Txantel* edo txartel hori, beharra lortzeko ezinbestekoa zen sasoi batean, batez ere gerraostean.

Aste Santuan, barikua kenduta, goizeko seietatik aurrera ei zeuden mezak, konfesiora zihoan jende ugaria eta konfesio luzeak zirela eta. Hainbati lotsa ematen zion konfesatzera joaten ikus zezaten, eta eguna argitu aurretik ateratzen ziren elizarantz. Entzuna da, burusoila zela eta, konfesatzera eguzkia irten aurretik joanda ere *iretargi beten argi* ematen zuen gizonarena. Horretara, hutsean lotzen ei ziren ostentzeko ahaleginak.

Pazko Domekaz ospakizun handia egiten zen. Artxoa jateko ohitura zegoen, asteetako barau eta bijilien ostean. Gazteentzako dantzaldia egoten zen *ilundi* edo iluntzean, eta egun horretan ez ziren urte osoan bezain zorrotzak izaten arau moralak. Kontuan hartu behar dugu, Garizuma osoan ez zela dantzaldirik egoten. Eta gazteok bereziki pozik agertzen ziren Pazko Domekako dantzaldian.

SANTA KURTZE MAIATZEKOA

Santa Kurtzetik Santa Kurtzera doa siesta egiteko garaia, eguna luzatzen da eta. Maiatzaren hirua eta irailaren hamalaua dira, berez, Santa Kurtze egunak.

Jataben, izen bereko mendia dago eta izen bereko ermita egon izan da, eliza ondora jaitsi eta azkenik erauzi zuten arte.

Jai honen bertsio kristauak diosku, Konstantino I.a Handia Erromako enperadoreak gurutze bat ikusi zuela zeruan borroka garrantzitsu baten aurretik. Gurutzea ikur moduan hartuta garaitu zituen etsaiak eta kristautasunera bihurtu zen. Horren ostean, bere ama, Santa Elena, agindu zuen Jerusalemera Jesusen gurutzearen bila. Joan, eta baita aurkitu ere, ordutik, Santa Kurtze biak ospatzen dira. Maiatzaren hirukoak Konstantino I.aren garaipen eta bihurtzea ospatzen du, eta irailaren hamalaukoak, ostera, Santa Elenak gurutze santua aurkitu zuen eguna.

Caro Baroja[6] eta Frezer moduko adituek, ostera, ospakizun horiek antzinagoko multzo batean sartzen dituzte; *Maiatzeko zikloa* izenekoan. Maiatzak, antzinatik europar kulturan, Naturaren bizitza eztanda sinbolizatzen du. Gizakiak maitasun eta emankortasunaren sasoiarekin lotu izan du, eta eskerrak eman dizkio ugalkortasun hori posible egiten duten indarrei. Aldi berean, sasoi honetan, oparotasunaren etsaiei aurre egiten die, Euskal Herrian bertan hainbat lekutan batutako konjuru eta erituen bidez.

Egun, Jataben, irailaren 14ko Santa Kurtze da indar apur batekin ospatzen den bakarra. Antzinatik, gure lekukoen gomuta ailegatzen denera arte, beti egon dira eta idi-probak. Egun, horrez gainera, jubilatuek bazkaria egiten dute. Maiatzeko Santa Kurtzetan ere idi-probak egiten ziren antzina.

Baina Santa Kurtze ziklo bat da, lurreko landarediaren eta bizitzaren oparotasun handieneko sasoia markatzen duena, maiatzaren 3tik irailaren 14ra. Antzina, gure lekukoen bizitza sasoien barruan, maiatzaren 3ko Santa Kurtze ere ospatzen zen. Mezatara joaten ziren herritarrak eta eguerdiko hamabietan kanpaiak doblatzen zituzten, hau da, kanpak birritan jotzen ziren. Hala egingo zen egunero irailaren 14ra arte, Gurutze Santuaren goratzarrea egiteko.

---

[6] BAROJA, Caro. *La estación de amor: (fiestas populares de mayo a San Juan).* Madrid, 1979.

Maiatzaren hiruaren aurretxoan abereei *erradurek* edo ferrak ipintzera etortzen ziren inguruko herrietatik, Gipuzkoatik, Kantabriatik... Erromeria nagusia San Lorentzotakoa izan arren, iraileko Santa Kurtzetako idi-probek ospe handia zeukaten. Gerora, karrajua hobetu zenean, abuztura aldatu zituzten, San Lorentzoetara.

Antzina, ostera, maiatzaren 3ko jaieguna Jata aurreko Santa Kurtze mendian izaten zen, eta noski, izen bereko ermitak garrantzi handia zeukan. Santa Kurtze mendira igotzen ei ziren prozesioan jatabearrak, bakoitzak bere etxetik hartutako janaria aldean zeroala, eta egun desagertuta dagoen ermitan ematen ei zen meza. Jendearen gomutak dio ermitaren ondoan soro bat zegoela, egun ere bertan jarraitzen duena. San Lorentzo elizatik Jatarako bidetik joaten ziren Santa Kurtzera. Bide hori andabidea dela esan digu ermita eliza ondora jaisteko beharrean ibilitako lekuko batek. Ermita desagertu bada ere, lekuak Santa Kurtze izena dauka orain ere. Beste lekuko batek esanaren arabera, ermitak egiten diren lekuak herriarenak izaten ei dira beti. Baina Santa Kurtzeren kasuan ez, jabetza pribatuko lurra ei da egun. Hori bai, ermitaren azken arrastoak ezagutu dituztenek diotenaren arabera, ermitaren inguruan ez da sekula beste etxerik egon, ermita askotan zaintzaileak edo serorak egon ohi ziren eran. Edozelan ere, ardi-txabola zahar bat egon zen, gerora jausi egin zena, baina.

Lekukorik zaharrenek sano antzinako ospakizunaren zentzuaz argi apur bat eman liezagukete. Esaterako, esalegea da Santa Kurtzetan: *Maietzan hasikeran trugoia solta itxen da eta irilen, Santa Kurtzi egunen, amarra*. Eta amarratuta egoten da hurrengo maiatzaren hirura arte.

Esaera horrek, On Jose Miguel Barandiaranek leku ugaritan dokumentatutako[7] justuri, trumoi, babazuza... eta uzta kaltetu lezaketen gaitzen aurkako errituetara garamatza. Lekukoei itaunduta ere, era horretako ohikundeen berri eman digute. Erberako adindun baten esanetan, bere amak kontatu zion zelan trugoiari eta uzta kaltetu ahal zuten gaitzei aurre egiten zien herriko abadeak. Behin, hodei beltzek estaldu zuten Jatabe. Herriko abadea ur bedeinkatua botatzen hasi zen eliza atari inguruetan eta errezoak egiten ekaitzak herritarren soroak honda ez zitzan. Horretan zebilela, hodei beltzei begira, *beginziñoak* eduki zituen. Lekukoak ere ezin izan zuen sano argi azaldu, baina plagak eta pizti arraroak hasi ziren agertzen hodei beltzetatik. Akaburako, ostera, abadea izan zen garaile eta hodei beltzek beste alde batera egin zuten ihes.

Jose Miguel Barandiaranek gure herrian antzeko historia ugari batu zituen. Maiatzaren hirugarren egunean, uztei kalte egin diezaieketen gaitzen aurkako erritua da Santa Kurtze leku askotan: Aketegi, Aloña, Zegama... Baina aurretik aipatutako ikerlanetan, pertsonai mitologiko batek pertsonifikatzen ditu gaitzak, Anbotoko Damak, bere izen ugariekin. Gure kasuan, *trugoi* berbak kalte guztiei esateko balio du. Erritu horren beste ezaugarri bat Dama ekaitz-sortzailea kobazulo batean bizitzea da, eta leize horren aurka botatzen dira otoitzak. Gure kasuan, lekukoek ez dute lotu-

---

[7] BARANDIARAN, Jose Miguel. *Eusko-folklore materiales y cuestionarios*. I. Alea. Ataun, 2006, 77 or.

ra hori egiten, baina mitologia atalean ikusiko dugun legez, baliteke, Jataben ere, aipatutako erituetako osagai guztiak ematea, egun banandurik ageri zaizkigun arren.

Ermitako meza amaitzen zenean, ondoko landan hartzen zuten etxetik ekarritako bazkaria herritarrek. Eta zaletasuna zeukana, inguruko putzuetan arrankariak arrantzatzen ahalegintzen zen. Bazkalostean erromeria izango zen.

Errogatibak

Errogatibak, *sikete* edo lehortea zegoenean, euria egin zezan, abadeak gidatuta herritarrek egiten zituzten prozesioak ziren. Maiatzeko zikloan sartu ditugu, sarritan sasoi horretan egiten ziren eta. Beranduago izatea ere jazo zitekeen, baina ez zen ohikoa maiatza baino lehenago ur premia handirik izatea.

Lekukoen esanetan, *letani klasera* izaten ziren errogatibak. Abadeak aurretik errezitatu egiten zuen, santu guztien izenak esaten ei zituen eta herritarrek *ora pro nobis* erantzuten zioten, latinez.

Santuak eta Andre Maria ateratzen ziren prozesioan herritarrekin, eta batez ere, bigarrenari erregutzen zitzaion euria eragin zezan. Batzuetan, antza denez, belauniko paratzen ziren errogatiban parte hartzen zutenak, euria eskatzeko. Lehengo sikateak gogorragoak izaten ei ziren gaur egunekoak baino. Eta ekonomiari askoz kalte handiagoa eragiten zioten.

Ur bedeinkatuz ihinztatzen zuten prozesioan ateratako Andre Mariaren irudia eta errogatibako bidea. Intsentsua zabaltzen zuten aldi berean. Ibilbidea gainean burdinazko gurutzeak zeuzkaten mugarri handiek ezartzen zuten. Sabinonen, Markaidetatik datorren errepidearen eta Marurizarraren arteko bidegurutzean eta Marurizarra etxearen ondoan zeuden harriok. Errogatiben kasuan, garrantzia berezia zeukan Marurizarraren ondoko mugarri handiak, eliza eta ortusantuaren bidean zegoenak. Lekukoen esanetan, Marurizarreko gurutzedun harri handiari bueltak emanda, zortzigarren egunerako edo egiten ei zuen euria. Harriari bueltak ematen zizkiotela esaterakoan, prozesioko ibilbidearen ardatza zela esaten dute lekukoek, harriari berari bueltak ematen zizkiotela baino. Edozelan ere, harridura eta errespetuz berba egiten dute harri horren gainean. Baina ez ei dakite, euren berbetan, zein esangura zuen.

Errogatiba amaitzean elizara bueltatzen ziren, Andre Mariaren eta santuen irudiak euren lekuan uztera. Akabuan, abadeak kanpaiak jo eta euria eskatzen ei zuen.

> «*Siketea egoten zanean errogatibak egiten ziran?* Bai, abadek itxe'un elixatik, eta etzera etorritte bere bai, nik esetu dot errogatibek itteko, erresau eta serak itxen an kurtze batzuk. Ta iñ itte'un lantzemiñen euri e! (...) Ta etzerik etze ibiltten siren kanpo berinketuten. *Ze sasoitan izaten zan hori?* Ointxe udebarri, sasoi au ingerun.»

Harraren eguna eta uzten bedeinkazioa

Maiatzaren bederatzian *Harran egune* ospatzen zen. Egun horretan ez zen artorik erein behar, ez eta beste ezer ere, ezpabere uztari harra sartuko zitzaiola eta. Bes-

te behar batzuk egiten ziren maiatzaren bederatzian, baina ereitea galarazita zegoen. Artoari, egun beratan, gatza botatzen zioten, gatzak artoa bedeinkatu eta ez ei ziolako harrari zabaltzen uzten.

Berez, eta lekuko gehienen iritzian, San Juan egunez bedeinkatzen dira soroak. Baina aipagarria da maiatz inguruan egiten zen soroen eta uzten bedeinkapena.

Maiatz inguruan, indabak eta artoak ereinda zeudenean, etxerik etxe joaten zen abadea lurra eta soroak bedeinkatzen. Eta etxe bakoitzean sariren bat jasotzen zuen: arrautzak, jateko zer edo zer... Lekuko batzuen arabera garia eta artoa batu berritan agertzen zen abadea etxerik etxe lurra bedeinkatzera, astoa berarekin zekarrela. Zelemin bete gari eta zelemin bete artagarau eman behar izaten zitzaion abadeari bedeinkapenaren truke. Astoa bete-bete eginda, hustera joan behar izaten zuen abadeak, bedeinkapenekin jarraitzeko. Soro ondora joaten zen abadea, *Aitxe gure* bat errezatu eta gurutze batzuk egiten zituen. Horretara, lurra bedeinkatuta lotzen zen.

Beste lekuko batzuen arabera, soroak Jaungoikoak bedeinkatzen zituen goitik, eta abadea jeneroa batzera baino ez zen joaten.

Hainbat lekukok ez diote baliorik ematen soroak eta uztak bedeinkatzeari. Jarrera pragmatikoagoa erakusten dute, eta soroen bedeinkapenaren gainean itauntzean, honako esaera batu dugu: *Satsa eta kare, solo bereinketuteko hobe*.

SAN ISIDRO

Maiatzaren hamabostean ospatzen da San Isidro eguna, nekazarien patroia. On Eduardo abadea egon zen sasoian jai egiten zen. Jaiaren izaeraz itaunduta, jaia mezatara joatea zela esan digute lekukoek.

Osterantzean urtero bazkaria egiten zuten nekazarien kooperatibako herriko gizonek *taberna zaharren*. Bazkalostean sororako erreminten zozketak egiten ziren. Andreek ez ei zuten parte hartzen, eta jakin dugunagatik, gizonak ondo berotuta, *kaparraz* edo neurritik gora edanda agertzen ziren etxera. Ez guztiak, noski, bakoitzak dauka eta bere izaera.

Elkarrizketatu ditugun andreen artean, orokorrean, ondo ikusita zegoen gizonek batu eta jaitxoa egiteko eguna izatea.

Gutxi saltzen zela eta Jatabeko kooperatiba itxi zenean, Mungiakoan eman zuten izena baserritar gehienek. Ordutik, San Isidro egunez Mungiara joaten izan dira. Goizean kooperatiba edo sindikatura joan eta zozketarako zenbakia hartzen zuten. Hamaiketan meza izaten zen, ostean pilota partidua eta bazkalostean erreminten zozketa. Mungian bertan arratsaldean ez ei zegoen besterik, eta ospakizuna jarraitu gura zutenek Fruizera jotzen izan dute. Bertan idi-probak egin ohi dira eta.

ASENTSIO ETA GORPUZTI EGUNAK

Pazko Domekatik berrogeigarren egunera Asentsio eguna da, eguena, legez. Laurogeiko hamarkada amaieratik aurrera, dagokion egunaren osteko domekara igaro bada ere.

Asentsio egunez jaunartzea egiten zuten herriko umeek.

Asentsio egunetik hamar egunera da Mendekoste Domeka, hurrengoa Hirutasun Guztiz Santua eta, berez, osteko eguena izan da Gorpuzti eguna. Laurogeiko hamarkada amaieratik eguenetik domekara pasatu da Gorpuzti eguna ere.

Gorpuzti egunez prozesioa egiten zen. Prozesio buru Asentsio egunez jaunartzea egindako umeak joan ohi ziren. Umeok arrosa petaloak eroaten zituzten otzaretan, eta abadeak agintzen zienean, *Santisimoari* botatzen zizkioten, prozesioan zehar. Santisimoa esaten diote lekukoek, Gorpuzti egunez, prozesioan Kustodia izeneko edukiontzi eta guzti ateratzen den *Gure Jauneri*. Santisimoa paliopean eroaten zuten Gorpuzti egunez, hau da, zortzi morroik, euren borondatez, zortzi makilen bidez eusten zioten estalki santuaren azpian eroaten zuten Kustodia.

Gure lekukoen esanetan, egun jaiegunak domekara igaro izanak, sano gaizten die ospakizun bakoitza noiz den jakitea.

SAN ANTONIO

San Antonio egunez, bagilaren hamahiruan, Urkiolan izaten da jai nagusia, eta akabuko urteetan, autobusak eta garraiobide berrien laguntzaz, herritar taldeak hurbiltzen dira. Nobio eta nobia egiteko bertako harriari bueltak eman behar zaizkiola eta neskazahar eta mutilzaharrak eskean doazela gauza jakina da lekukoen artean. Adibide modura honako kanta batu dugu:

Neskazaharrak joaten dira
San Antoniogana,
santuari eskatera (sic)
senar on bana.

Santuak esaten dotse:
buru ariñe,
orain arte zer e(g)in dozu,
orain aren ez.

Lekuko baten esanetan, San Antoniok ez zuen dirurik ematen, eta era horretan, sano gaitza zen mutil-laguna topatzea.

San Antonio da abereen santu jagolea. San Antonio egunez, antzina, herriko ganadu guztiak eroaten zituzten San Lorentzo eliza, Marurizarreko harlandua, Sabinone etxekoa eta Markaidetatik datorren bideko gurutzeen artean dagoen hariztira. Harizti hori landamina zen, *iñok kasu in bako bedarra,* eta landaminak leku bereziak ziren gizarte tradizionalean. Aurretik, hainbat erlijio ekintzatarako garrantzitsua zela ikusi dugun eremu berera eroaten zituzten abereak. Gero han bedeinkatzen zituen abadeak eguerdiko hamabietan. Ganadua Jaungoikoari eskaintzen zitzaiola esan digute lekuko batzuek. Eta argi uzten dute, San Antonio eguneko bedeinkapenak ez zuela ardientzat balio.

«*Eta San Antonion ganaduak bedeinkatu egiten ziran?* Bai entzute bakot nik lelau ona Yatabera ekarten sittusela berinketuten, ori Marurisa-

rra selan esan dosun, ain terreno ixen san ori Taberna Sarren ondoko ori leune, ta orra ekarte(n) sittusela erriko ganaduek berinketuteko. Entzunde aitteri tte, baia neuk estot esetu. (...) Ori dana ixete(n) san landamiñe, ori ixete(n) san ganaduk yanta, bedar fiñe, iñok kasu in barik, ta gero bitxartetan ota-moltzoak eta, ta orra bajaten sala, esate(n) euden ganadue. Ordun or aristi antzera on san.»

Apurka-apurka baina, geroz eta jende gutxiagok eroaten zituen abereak harlanduen arteko hariztiko landaminera. Erberakoentzat bide luzea zen, eta ez zen gauza erraza hainbeste abere bidean gobernatzea. Ondorioz, urte batetik aurrera, ganaduak etxean eduki eta San Antonio eguneko eguerdiko hamabietan gortako albateak zabaltzea bihurtu zen ohitura. Abadeak, elizatik kanpaiak jotzen zituen eguerdiko hamabietan, eta horretara, abereak bedeinkaturik lotzen ziren.

Ohituraren beste aldaera bat ere batu dugu. Izan ere, San Antonio egunez, eguerdiko hamabietarako, abereak etxe aurreko soroetara atera eta albateak irekitzen zituzten. Horretara, aurreko adibideetan legez, ganaduak bedeinkatuta geratzen ziren.

Ganaduren bat urtean zehar gaixorik paratzen bazen, *San Antoniok jagongo al dau!* esaten zen. Eta, gaur egun, oraindino ikus litezke Jatabeko gortetan San Antonioren irudiak. Horretara, gortako abereak osasunez eta sendo jagon ditzan.

UDAKO SOLSTIZIOA: SAN JUAN

Nekazal gizarteak ospakizunak naturaren zikloen arabera antolatu ditu. Urtaro aldaketak eta solstizioak izan dira ospakizun horien unerik garrantzitsuenak.

Udako solstizioan, bagilaren 24an, eguzkia zeruko bere bidean punturik altuenera heltzen den unean, San Juan Bataiatzailearen jaiotza ospatzen da kristauen artean.

Kultura tradizionalak, Euskal Herrian ere bai, jazoera astronomikoekin lotutako ospakizunak gorde ditu. Antzinako bizimoduan, ekoizpenarekin lotutako ekintzen ardatza zen eguzkia.

Jataben, orain ikusiko ditugun beste sineste batzuekin batera, esan ohi da San Pedro eta San Joan direla kaminerurik onenak. Bide guztiak sikatu, eta bertatik erraztasun osoz pasatzeko moduan uzten dituztela eta. Aspalditik gauza jakina da bertako biztanleentzat, San Juan urteko egunik luzeena dela.

Sano aspaldiko sasoietatik, antzinako ezaugarridun erituak egiten dira udako solstizioaren inguruan.

San Juan bezpera

Bagilaren hogeita hiruan, San Juan bezperan, suak isiotzen zituzten etxe aurreko soroan. Zaborreriak edo *sakelerik* erabiltzen ziren sua egiteko, *San Juan sua* sortzeko. Sasiak, irak, egur *zozpelak*, etxeko traste zaharrak... batzen ziren su eman aurreko motroilotxoan. Ume eta gazteen artean postura modukoak egiten ziren,

San Juan egunaren bezperako sua, 2008.

nork surik handiena egin. Ilundian isiotzen zituzten suak. Batzuek panpina moduko bat ipintzen zuten zaborreri motroiloaren gainean, erdiko palu bati lotuta, eta sorgina zela esan ohi zuten.

Ostean, gari-txolei su eman eta horiek eskuetan hartuta arineketan joaten ziren gaztetxoak soroetatik. Ganaduen txilinak ere ipintzen zituzten sama gainetik. Batbatean txilin-hotsez eta gari-txolen argiz betetzen ziren soroak. Era horretan apainduta, soroetatik bueltaka eta sutan zeuden galtzu-txolak altxatuta, honako kanta abesten zuten soroak galtzu-txolen kearen bidez bedeinkatzeko. Lehenengoa da bertsio zabalduena, baina lau aldaera batu ditugu:

San Juan bagileko,
zapoak eta sugeak erretako,
artoak eta gariak gordetako,
San Juan bagileko.

San Juan ba(gi)rileko,
zapok eta sugoiak erretako,
artoak eta gariak gordetako,
San Juan ba(gi)rileko.

San Juan bagilean,
artok eta indabak gorde,
zapok eta sugeak erre.

San Juan bagilean,
egun ederrean,
zapoak eta sugeak erre,
eta garia gorde.

Kanta amaitzeko, aldaera edozein zela ere, *Gora San Juan!* esaten zen. Kanta osoa txaloka kantatzen ei zen.

Suak indar apur bat galtzen zuenean, gainetik salto egiteko ohitura zeukaten gazte batzuek. Eta suaren azkeneko txingarrak soroetara botatzen ziren ongarri legez. Etxeko *surteko hautse* ere, soroetara bota ohi zen ongarri legez. Hurrengo egunean bideak galtzuz beterik egoten ei ziren. Soroak bedeinkatzeko ohikunde hori, lekukoen esanetan, 1938-40 inguruan galdu zen.

Udako solstizio ingurua belarra ebakitzeko sasoia izaten zen, gehienetan. Eta egun beroetan sugeak agertzen ei ziren sarri lantzarrean. Apoak estimu gutxi dauka gure lekukoen artean. Inori faltsu esateko *zapo* esaten zaio. Eta lekukoen esanetan, benenoa daukan piztia da, bere txuak kalte egiten ei dio aurrean daukanari. Apoa eta sugea dira, bide batez, *sotzardea* edo palu bat sartu eta bertatik eskegita hil ondoren ere eguzkitan sikatzen uzten diren pizti bakar biak. Inoiz, *barakillek* ere horrela hil izan dituzte.

Barandiaranen arabera[8], sua eta bere inguruko ekanduak sano aspaldiko eguzki kultuaren ondorenak dira, sinboloen bidez gure garaietara arte heldu direnak.

San Juan bezperako beste ohitura bat izaten zen landare, lore eta belar usaintsuak batzea. San Juan belarra batzen zuten, menta usainekoa. Eta ira berdeak batzen zituzten etxeko portalera.

Ira berdeekin ohea egiten zuten etxeko atarian, hurrengo egunean, San Juanez, bertan siesta egiteko. Eta belar usaintsuek usain ona ematen zioten portaleari. Lizar adarrak ere batzen zituzten, arrosa, kala, lore eta zenbait ortuarirekin batera, hurrengo egunean erabiltzeko.

Landare- eta belar-bilketa eta suarekin lotutako errituak egin ostean, gazteak Gaztelugatxera abiatzen ziren. San Lorentzo elizatik irteten den bidetik joaten ziren hara, Belategiko landatik igarota, gehienetan. Bakiora heltzerakoan errekara joaten ziren jatabear gazteak. Bertan, abarketa zaharrak kendu, *kadera* edo hankak garbitu eta Oizarretara abiatzen ziren.

San Juan Gaztelugatxekoaren irla aurrera, egun Eneperi jatetxea dagoen lekura joaten ziren gaua pasatzen, *Oizarretara*. Oizarra esaten diote auzo horri. Inguruko herrietako gazteak elkartzen ziren, eta agintari moralek txarto ikusitako jaia egiten zen bertan. Herritik Oizarretara bidean zantzoak, kantuak, pandero eta soinuaren laguntzaz gau alaia izaten zen inguruko gazteentzat. Bertan, ira berdez egindako oheetan egiten zuten lo. Baina jatabear gazteek urte askotan debekatuta eduki zuten

---

[8] BARANDIARAN, Jose Miguel. *Diccionario de Mitologia Vasca*, op. cit., voz "Eguzki".

Oizarretara joatea, herriko abadeak hala aginduta. Orduan, Oizarretan gaua igaro barik, goizeko bost eta erdietan irteten hasi ziren Gaztelugatxerantz.

Ekandu zaharraren arabera, Gaztelugatxetik ikusten zuten eguzkiaren irteera inguruetako gazteek.

San Juan eguna

Bagilaren 24an, ohikundeak eguzkia atera aurretik hasten ziren. San Juan goizaldean euri ugerra izaten ei zen beti. San Juan marinerua izan zelako ustea egon da Jataben, eta Goietako etxe batzuetan, *langoste* edo otarraina jateko ohitura zegoen. San Juan eguneko *errozio* edo garoari (bietara esaten dute jatabearrek) gaitasun magikoa ematen zioten gure lekukoen aita-amek. San Juan goizaldean garo gainetik ibiltzea ona zela esaten zen zirkulaziorako, hezurretarako, katarroa gelditzeko... Katarrotik osatzeko garo gainetik ibili behar zen, oinak bero sentitu arte, orduan oinetako sikuak ipini eta beroa gorde behar zen. Eguzkia irten artean etxe aurreko soroan ibiltzen ziren garo gainetik oinez, era horretan gorputza hobeto edukiko zutela eta urte gehiagotan. San Juan eguneko goizaldeko garoarekin ilea busti eta ebakitzen zuten beste batzuek. Eta beste ohitura bat izaten zen aurreko egunean bentanan baso handi bat ipintzea, bertan garoa batu eta eguerdian edateko.

> «*San Juan egunean erruzioaren gainean oinutsik ibiltea ona dala entzun dozu inoz*? Oiñutzik es, baia ule ebaitxe bai. Ule San Juan goixeko errusioas busti eta ebai ule, atxiñe itxen i san.»

Lizarra soroan, San Juan egunez, 2008.

Lizarrez eta lorez egindako sanjuan erramua, 2008.

Lekuko batzuen esanetan, edozein biharamunetako garoa da ona osasunerako.

Sasoi berean, eguzkia atera aurretik, garoz bustitako *lexar* edo lizarra ematen zitzaien behiei jateko. Batzuek gurutzea egiten zioten lizarrari, beste batzuek ez, lizarraren orriak berez gurutzea daukala eta. Eguzkia irten aurretik ipini behar zen lizarra lege zaharraren arabera, gero ohitura hori malgutu, eta egun, arratsaldean ipintzen duenik ere bada.

Soro erdietan ipintzen zen lizar adarra, soro erdia sakratua izaten zen eta. Modu horretan soroa bedeinkatzen zen. Iturri ondoetan ere ipintzen ziren lizar adarrak. San Juan inguruan urak oparotasun eta osasunarekin zuen loturaren erakusgarri, iturriak bedeinkatzen ziren horrela. Lizarra etxeko ate gainean ere ipintzen zen, adartxo edo erramu modura, etxearen babeserako. Lizarrarekin batera loreak, arrosak, kalak eta *kinpulle* edo tipula zein porruaren moduko sasoiko ortuariak ipintzen ziren.

> «Eta lexarra errusioas daula ebai eta portaleko aten imiñi eta gure aitxek itxe'aun, besparan ekarri lexarrak, eta in kurtzetxu bet eta alan pasa kutxillo eta kurtze iñ eta solon imiñi. Arto-solotan eta gariña pasata ote san. *Eta etxeko atean bere bai?* Bai, etzeko aten bere bai, lora bi edo irues, dausenak, larrosak..., iru-lau loratxues... eta arkutxu intxe. Ni(k) peti imin dot San Juan egunen.»

Gazteak, familia edukitzeko zeudenak, eguzkia irteterako Gaztelugatxen zeuden. Baina eguzkia atera ostean heltzea ere sano normala zen jendearen artean. Etxe batzuetan, arto-jorra eginda eduki ezik ez zieten gazteei Gaztelugatxera joaten uzten. Gaztelugatxeko eskailerak oinutsik igotzen zituen batek baino gehiagok. Gora heltzerakoan kanpaia jotzen zuten, urte osoko buruko mina kentzen zuela eta. Neskatoek, ostera, nobioa topatzeko jotzen ei zuten. Hamabietako mezara heltzea izaten zen batzuen ohitura.

Gaztelugatxetik jaitsi eta etxetik eroandako bazkaria jaten zuten. Oizarretan erromeria egoten zen eta apurka-apurka etxera bueltatzen ziren. Etxean bazkaltzen zutenek, ordurako familia zeukatenek, portaleko iretan egiten zuten siesta. Edo hori izaten zen ohitura zaharra. Lekukoen arabera, aita izaten zen ohiturari eusten ziona, baina ira artean kapar asko zegoela eta amaitu ei zen ekandua.

SAN LORENTZO

Abuztuaren hamarrean da San Lorentzo, Jatabeko patroiaren eguna.

San Lorentzo jaiek egun bi hartzen zituzten, San Lorentzo, lehenengoa, eta *San Lorentzotxu*, bigarrena. Gaur egun lehenengo egunean batzen ei da jende gehiago. Baina antzina, bigarren egunean batzen ei zen jendetza, erromeriara batez ere.

Jubilatuen hamaiketakoa San Lorentzo egunez, c. 1978. Atzean agertzen direnak: Petra Aurtenetxe, Eskolastika Torrontegi eta Mª Pilar Agirre.

San Lorentzo egunez meza nagusia izaten zen lehenengo ohikunde garrantzitsua. Goizeko hamaiketan hasi ohi zen. Herriko jendea elegante jantzita joaten zen, arropa berriak janzten ziren eta herriko abadearekin, denek hartzen zuten parte, meza garrantzitsua zen eta.

Meza ostean dantza eta musikari zegokion ospakizuna hasten zen. Silbestre Elezkano *Txilibrin* albokari eta jotari ospetsua, esate baterako, meza osteko ospakizunerako kontratatu izan zuten behin baino gehiagotan. Gizonak tabernetara hurreratzen ziren, herriko taberna aurrean batzen ei zen jenderik gehiena, eta bertan egoten zen girotxoa. Gerra aurretik soinulariak ere egoten ei ziren eguerdian.

Sokatira egoten zen, herrikoak kanpokoen aurka, eta baita jota-txapelketa ere. Etxera bueltatzen ziren bazkaltzera, egun bietan, senitartekoak batuta, etxeko portalean, bazkari handia egitera. Bazkalostean senitartekoei soro eta abereak erakusten zitzaizkien, adindunak etxean lotzen ziren eta gazteak erromeriara. Elikadura eta etxekoen ohiturei dagokien ataletan ikusi litezke sakonago ohitura horiek. Etxearen gaineko atalean irakur litezke jaien aurretik egiten ziren beharrak, etxea garbitu eta zuritzea.

Atxurra txistulariak kalejira eta erromeria alaitzen zuen. Rufino Arrola, *Andrakako Itsuak,* jazz-band eta guzti, eta etxekoen ohituren gaineko atalean agertzen diren musikari eta kobratzaileak etortzen ziren erromeriara. Agintari moralek arin amaitzen zituzten erromeriak eta aipatutako atal berean irakur daitezkeen murriztapenak eragiten zizkieten herriko gazteei.

Sukalkia San Lorentzotan, 1980ko hamarkadaren hasieran. Ezkerretik: Daniel Udaeta, (---), Gregorio Ezkerra eta Salus Arkotxa.

Pasodoblea eta baltsa izaten ziren gehien entzuten ziren piezak, tangoren bat ere bai, baina jendeak ez zekien doinu hori dantzatzen. Dantzara neskatoak irteten ziren lehenengo, mutilek lepoan ukitu eta mesedez eskatzen zieten dantza egiteko. Neskatoak ezetz esanez gero, mutila, alde batera aditu eta joan egiten zen.

Arratsaldeko erromerian ematen zituzten jota-txapelketako sariak.

Idi-probak orain 30-40 urte hasi ziren sanlorentzotan, ordura arte, Santa Kurtze jaietan bakarrik egiten ziren eta. Sari txikiak egoten ziren irabazleentzat.

Erromeria bitartean gaztetxoentzat olgetak egiten ziren: zaku-karrerak, lasterketak, asto-karrerak...

Errementariaren *aitxitxeren* sasoian *Zubitxa* inguruko hariztian, ur putzu baten ondoan, txahala eskegi, hil eta okela banatzen zen sanlorentzotan. Jaietarako okela zen.

Aipatu berri dugun jaiegunaren egitura sano antzekoa zen egun bietan. Programa ezberdintasunik handiena *San Lorentzotxu* eguneko meza izaten zen. Herriko defuntuen gomutan egindako meza izaten zen, *arimen meze*.

IRAILEKO ANDRE MARI

Irailaren zortzian Andre Mariren erromeria egiten zen Marutxeaga, *Martxe*, etxeko landan. Bertan egin baino lehenago, Txiboko landan ospatzen zen. Inguruko lekukoek txikerretan ezagutu zuten Txiboko landako iraileko erromeria, orain laurogeita bost urte inguru. Txiboko bidegurutzetik eskumatara, apur bat beherantz, gizalan eta erdiko landamina zegoen, gizalan eta erdi garbi-garbi, belar usaintsuak irteten ziren lekua. Lekukoen arabera, mantzanila usaina egoten zen Txibon. Bertan hiru mugarri ei zeuden, bata beste biak baino nabarmen handiagoa, kintalak dituen harria. Eta gaur egun ere ba ei daude, landarediak estali dituen arren.

Gerora jaia egin izan den Marutxeagako landan ere, mugarri handiak zeuden.

Jaia egun desagertuta dagoen Barasordako Andre Mari Magdalenaren ermitarekin lotuta egon liteke. Izen bereko kalan ei zegoen ermita lehen[9], baina lekukoek ez dute horren gomutarik.

Lekukoek, ostera, inguru horretako Santupe basoan zegoen Zoragetxoko San Martin ermitaren akordua daukate. Eta lotura zuzenik egiten ez badute ere, irailaren zortziko erromeriaz itauntzen hasita Santupe basoa, eta bertan zegoen ermita aipatu digute.

Interesgarria da erromeria hau, antzina, Txiboko landan egiten zela jakitea. Izan ere, ibarreko biztanleen artean esakune jakina da Txiboko landan sorginak batzen zirela. Eta misterio kutsu bat dago lekuaren inguruan. Ostera, Goieta, Basordaportu edo Marutxeagako biztanleentzat, Txiboko erromeria ezagutu zutenentzat, dantzaldi normal bat izaten zen. Ez besterik.

---

[9] ARREGI, Gurutzi. *Ermitas de Bizkaia.* II. Liburukia. Bilbao, 1987, 189. or.

Danbolintxeru edo txistularia izaten zen musikari; pasodoble, baltsa eta soltean, jota eta arinekoan, egiten zuten dantza. Oratuta dantzatzea galarazita egon arren, Txibon herrigunean baino askatasun handiagoa ei zegoen.

Txibotik Marutxeagako landara, Marutxeaga eta Iketza etxeen artean dagoenera, igaro zen festa. Eta bertan ospatu zen, Zentral Nuklearra egin zen arte, Iraileko Andre Mariren jaia. Txibon, geroago Marutxeagan legez, Jatabe, Mungia eta Lemoizeko herritarrak elkartzen ziren. Antzina, Txiboko landako mugarriak aipatutako herrien lurrak banatzen zituen. Baita Plentziakoak ere, antzina, egun Lemoiz diren lur batzuk *eskritxuretan* Plentzia ei ziren eta. Txibotik bertatik, urek isurialdea daukate aipatu ditugun herrietara, malda bat bakoitzerako, eta halako lekuetan ipintzen ei ziren mugarriak, lekukoen arabera. Antzina, artzainek, mugarri beraren inguruan ospatzen ei zituzten euren jaiak. Baina gure lekukoak jaio baino lehenago utzi ei zioten ohitura horri. Euren aurrekoek esandakoen bidez baino ez dute izan artzainen jai horien berri.

Egun beratan, Jatabeko gazteak herriko tabernara joan eta bizpahiru ardo zahagi hartzen zituzten, *eskota* esaten zitzaiena. Kuadrilen artean ordaintzen zuten eta gero guztientzat libre izaten zen edatea. Inoiz, kostak zaintzen zebiltzan karabineroekin istiluak izan ziren, guztien artean ordaindutakotik larregi hartu gura zutelako.

Lizarrekin arkua eginda apaindutako gurdian hartzen zituzten zahagiak eta Añeka erreka ondoko bidetik abiatzen ziren Sarakotxerantz. Soinulariren batek laguntzen zien gehienetan, bolanderak botatzen zituzten bidetik, eta Kukutze menditik bolanderak igartzen zirenean jakiten zuten Marutxeaga, Iketza eta garaitiko etxeetakoek jende aldra zetorrela.

Bertakoen esanetan, irailaren zortzian, jendeak pozik edaten zuen *ardau* eta *ordun danak eukitxe euden bigarren arime, danak kariñoso*. Edanez gero bigarren arima ateratzen zitzaion jendeari, eta orduan, normalean baino jatorragoak izaten ei ziren.

Sarakotxera helduta, meza egiten zen. Batu dugun informazioaren arabera, meza horrek sasoi ezberdinak izan zituen. Hasiera batean ez ei zen mezarik egiten, ermitarik ez zegoelako. Eta datu horri loturik aipatu ohi da Santupe basoa.

Gerora, meza Marutxeaga eta Iketza etxeen arteko landan egiten hasi ziren. Eta Iketza etxeko horman mahai bat ipintzen zuten Mungiako abadeak erritua egin zezan. Sasoi horretan ez ei zen Andre Mariarik egoten mezan. Lekukoen iritzian, antzina Santupeko ermitan zegoena Armintzara eroango zuten. Baina kontuan har dezagun Santupekoa San Martinen adbokazioko ermita ei zela. Barasordakoa zen Andre Maria Magdalenari eskainitakoa.

Mungiako abadeak meza ematen zuen sasoian, goietarrek eta ibarrekoek haserre egiten ei zioten elkarri. Eta abadea tristatu egiten zen, jaiak bakean igaro behar zirela eta. Haserre horien ondorioz, Iraileko Andre Mariaren jaiegunetik zortzigarrenera bueltatu egiten zen Mungiako abadea Sarakotxeetara. Mutil gazteen arteko haserre barik jatordua egiteko edo. Jaiaren errepikapen moduko bat izaten zen, jaiegunekoa baino giro baketsuagoan igarotzen ei zena.

Gerora Marutxeaga etxeko portalean hasi ziren meza egiten. Eta haraino, Lemoizen *Ama Birjina Txikerra* esaten dioten Andre Maria eroaten hasi ziren, Armintzako San Tomas ermitatik Marutxeagako portalera, zelanbaiteko prozesio-

an. *Ama Birjina Txikerra* lemoiztarrek eta elizaz Lemoiz ziren jatabearrek erro-gatibetan, euria egin zezan, ateratzen zutena zen. Kondairaren arabera, itsasoak ekarria.

Ama Birjina Txikerra Marutxeagako portalera ekartzen hasi ziren sasoi berean, Mungiako abadeak meza emateari utzi zion eta Armintzakoa hasi zen bere lekuan.

Marutxeagako portalean aldare txiki bat egiten zioten *Ama Birjina Txikerrari*. Tapetea eta loreak ipintzen zizkioten, atontzen ibilitako lekukoen esanetan, kapritxoan apaintzen zuten.

Meza ostean soinularia hasten zen giroa alaitzen. Soinua eta panderoaren arteko lotura ez zen egun ulertzen dugun bezain derrigorra, eta batzuetan soinulariak bakarrik jotzen zuen, panderoaren laguntza barik. Ataunetakoa izan ohi zen soinularia. Edo hori da, sikiera, lekukoek maitasun handiz gogoratzen dutena. *Zahar eta gazte, armako du nahaste* izaten ei zen bere ohiko esaldia. Eta zelanbait, testulari izaera ere bazeukan.

Paella-ontzi handiak eroaten zituzten etxetik Marutxeagako jaialdira zihoazenek. Barasordako hondartzara jaisten ziren eta bertan egiten zuten jatordua. Batzuek etxetik eroaten zuten eta garaitikoek bertan prestatzen zuten.

Barasordako hondartzan bainatzeko ohitura zegoen irailaren zortzian. Bainujantzi barik, arropa normalekin hartzen zuten bainua.

Arratsaldeko bostak aldera Marutxeaga atzeko mugarridun landara bueltatzen ziren, eta bertan erromeria egiten zen iluntzera arte.

SANTA KURTZE IRAILEKOA

Irailaren hamalauko Santa Kurtze jaiak ziklo bat ixten du, maiatzaren hiruan beste Santa Kurtze jaiak zabaltzen duen landarediaren, uzten eta lurraren oparotasunaren sasoia: siesta egiteko aroa, trumoia askatu egiten den garaia, egunero elizako kanpaiak *dobladu* egiten ziren hilabeteak.

Maiatzeko Santa Kurtzek trumoiaren aurkako konjuruen sasoia zabaltzen zuen eta uzten gaitzen aurkako erritua zen berez.

Irailaren hamalauan trumoia amarra egiten zen. Uztaren zati bat batzea baino ez zen falta, udagoiena hastear dago eta babazuzak, trumoiak eta zeruko gaitzek ezin zieten soroei kalte handiegirik egin. Aro bat ixten du iraileko Santa Kurtzek, udagoienerako sarrera da eta lurraren emankortasuna apurka-apurka hiltzen hasiko dela adierazten du.

Maiatzeko Santa Kurtzeren gomuta badago, baina askoz lausoagoa da irailekoa baino. Maiatzaren hasieran idi-probak egin izana, kanpai doblatuak eta trumoia solte eta amarratzeko erituen gomuta eta ermita egon izanaren kontzientzia heldu dira gugana.

Iraileko ospakizunak luzaroago iraun zuen maiatzekoak baino, herritarren artean. Elizak maiatzekoaren akordua gordetzen lagundu zuen. Eta trumoiaren eta siestaren sasoiaren gomutak, hasiera eta amaiera erituekin batera, ziklo baten existentziaren berri ematen digu.

«*Santa Kurtze eguna zelebrau egiten zan?* Bai. *Egun bi dira ezta?* Bai, bat maietzen, baia emen nik esetu dotena setienbreko da, setienbren amalaun. Ointxe bere ondiñokarren, jubiladuk-eta seosertxu itxen deure. (...) Nik entzute dekot, Kurtzen egunetik eta Santa Krusetara sieste itteko sasoi aillega dala, beskalosten lo itte. Kurtzen egunetik eta Santa Krusetara, Kurtzerik Kurtzera sieste itteko sasoi, se egune daula luseau, ta ya Santa Krusetati laburtu itten dala.»

Iraileko Santa Kurtzen idi-probak egiten izan dira luzaro. Horixe izan da antzinako jaiegunetik gaur egunera indartsuen ailegatu den gomuta. Hain zuzen ere, idiprobek eta izen bereko mendian, hasieran, eta eliza ondoan, erauzia izan arte, egondako ermitaren akorduari esker irauten du jaiak gaur egun ere. Santa Kurtze egunez egiten ziren idi-proben gaineko informazioa, astialdiari dagokion atalean azalduta dago.

Lekuko askok ermitaren gainean daukan gomuta, eliza ondoan erdi jausita egotearena da.

Meza egiten zen Santa Kurtze egunez, eta erritu horren bidez egunero kanpaiak doblatzeari uzten zioten. Siesta egiteko sasoia amaitzen zen. Landaredi, oparotasunaren zikloa amaitzen zen eta *trugoi* amarratzen zen.

Bazkalostea Santa Kurtzeko jaietan, Txilibrin taldeak alaituta. Laureano Libarona, Txomin Elorriaga, Nicolás Plaza, Faustino Agirre, Ana Astoreka, Basili Iturri, María Bilbao, Faustina Arruza, Victoria Larrauri, Edurne Elorriaga, Fernanda, Jose Iturri, Ana Elorriaga eta Maria Luisa Azkorra.

Dena dela, lekukoen arabera, hogeigarren gizaldiaren erdialdetik aurrera etxe askotan ospatu ere ez zen egiten Santa Kurtze eguna. Baina ospatzen jarraitzen zuten etxeetan, San Lorentzo egunez elikaduraren inguruan egiten ziren hainbat ohitura mantentzen zituzten. Esaterako, Santa Kurtzeetan *gari-urun* edo irinez egindako ogia prestatzen zuten.

Arratsaldeko idi-probetara joatea izaten zen herritar guztien jai-ekintza bakarra. Sarrera kobratzen zen, lurraren gaineko proben eremua itxi egiten zen, eta, hala ere, erbestetik herritar asko etortzen zen. Eta jatabearrek euren behi- eta idi-uztarriak lehian ipintzen zituzten. Eurek edo inguruko itzainek gidatuta.

Horrez gain, dantzaldia egoten zen irailaren hamalauan, Herriko Etxe aurrean. Soinulariren bat egoten ei zen, eta lekukoek Andrakako itsuen akordua daukate. Hasieran soinu hutsez eta beluago jazzbandaren laguntzaz.

Erromeria goizetik amaitzen zenez, gazteak herritik zehar zabaltzen ziren gero. Mahats-parrak zeuzkaten etxeetan guardian egoten ei ziren iraileko Santa Kurtze egunez. Mahatsak sasoi ederrean egoten ziren eta neska-mutil gazteek ostu ez zitzaten egiten ziren guardiak.

Horixe egiten zuten, neurri batean, hogeigarren gizaldian iraileko Santa Kurtze egunez herritarrek. XIX. gizalditik, lekukoen aitita-amamak izango ziren azken belaunaldia ziurrenik, antzinako jaiaren entzutea heldu zaigu. Maiatzeko ospakizunaren nahiko antzekoa zen, hala ere, esangura ezberdina eduki arren.

Antza denez, antzinako jatabearrak prozesioan igotzen ziren Santa Kurtze mendira, izen bereko ermitara. Bertan, aurretik aipatutako esangura zeukan eliz erritua egin ostean, etxetik prestatutakoa jaten zuten eta erromeria modukoa egiten zen. XX. gizaldira arte bizirik iraun duten egun horretako ohiturak ere, presente egongo ziren antzinako jaian. Esaterako, idi-probak.

XI
IKAZKINAK, ERREMENTARIAK ETA ERROTARIAK

Nekazaritza, abeltzaintza eta artzaintza izan dira, ohituraz, Jatabeko ekonomian pisurik handiena izan duten hiru jarduerak. Neurri batean edo bestean etxe guztiek izan dituzte ortua eta abere batzuk. Jatak artzaintzarako aukera parebakoa opetsi die bere inguruko biztanleei ogibide horri ekiteko.

Baina atal honetan, ekonomia jarduera horren barruan izaera espezializatuagoa duten hiru lanbide aipatuko ditugu: errementari, errotari eta ikazkinarena. Gure lekukoek bizirik ezagutu dituzte hirurak, eta horietatik bi jardun betean filmatzeko aukera izan dugu.

IKAZKINAK

Lehenago ere esan dugu Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoa artzain eta ikazkinek sortu zutela. Horietariko hainbat, antza denez, Gipuzkoatik etorri ziren. Badakigu, Ataunetik etorritako artzainak eta Elgetako ikazkinak heldu zirela Jatako bizkarretara.

Ikazkinek Goieta auzoko gurbizti basoak ustiatzen zituzten. Gero, ikatza egin ostean, gurdian eroaten zuten saltzera. Bezero egonkorrak zituzten, ez zen etxerik etxeko salmentarik egiten. Eta produkzio gehiena herritik kanpora saltzen zuten, Mungia eta Plentziara batez ere.

Artilezko galtzerdiak erabiltzen ziren ikazkintzan ibiltzeko. Txabola bat egin ohi zuten ikatza egingo zuten lekuaren, ikaztokiaren inguruan. Ikatza egiterakoan guardiak egin behar zituzten, txondorra prozesu osoan zehar jagon behar zen eta. Horretarako txabolan lotzen ziren lotan ikazkinak.

Ikatza egiteko lehenengo pausua *larne* edo larraina egitea zen, ikaztokia prestatzeko zehargunea. Gerra aurrean leku ugari zegoen Goietako basoetan larraina prestatzeko.

Larrainari alboetatik karkaba edo ugarrainak egiten zitzaizkion, urik sar ez zekion.

Artea izaten ei zen ikatza egiteko sugarririk preziatuena. Baina askorik ez zegoenez, gurbitza erabiltzen zen gure lekukoen sasoiko ikazkintzan. Urtero gurbitz sail bat botatzen zuten eta erre. Gero, neguan, erretako gurbitza batu behar izaten zen.

Zuloa egiten zen larrainean, eta basoan batutako sugarria multzoan pilatu ostean, taketa ipintzen zitzaion erdian, goitik beherako zutabe moduan.

Egurra larrainean pilatzeko takoak egiten zituzten. Azpian, lehenengo lekuan, irak eta zaborreriak ipintzen ziren. Gero tronpoi modura batzen ziren egurrak, ikaztokiari tronpoi forma ematen joateko. Horretarako egurrezko takoak plegatzen zituzten elkarren kontra jarrita. Plegatzen amaitzerakoan ira edo ote sikuarekin estaltzen zen txondorra.

Horren ostean, lurrean, aitzurrarekin *arpalak* egiten ziren, alde batetik lurra eta bestetik belarra zeukaten zohiak. Behin behar hori amaituta, arpalen gainetik aurreko ikaztokiko hautsa botatzen zen, iduria.

Pauso guzti horiek eginda txondorra ondo sakatzen zuten, eta gainetik ur apur batekin bustitzen zen.

Su indartsua egin eta eskailera baten laguntzaz, erdiko paluko zulotik sua botatzen zuten ikaztoki barrura, behean zeuden ira eta zaborreriek su har zezaten. Ikaztokia ketan ikustea, ondo egindako lanaren seinalea izaten zen.

Ondoren iduriarekin estaltzen zuten pilo osoa berriro. Hortik aurrera, ikaztokiak denbora behar zuen, egunak behar zituen, prozesu osoa burutzeko. Horretarako, baina, gauez guardia egin beharra zegoen. Izan ere, ikaztokiak su hartuz gero, dena galtzen zen. Horregatik ikaztokiak arnasteko egindako zuloak zohiz estaltzen ziren.

Egurra, ikatza egiteko, egosi egin behar izaten zen, baina ez erre. Sugarra atereaz gero, ikatz guztia gal zitekeen.

Egosi ostean *eskubera* edo eskuerarekin kentzen zituzten gainetik ikaztokiaren garaitiko osagaiak. Egun pare baten ikatzari hozten itxi behar zitzaion.

Garraiatzeko, zakuetan sartzen zuten ikatza. Eta inoiz, ikatzaren beroaz, zakuek su hartu izan dute.

Azkenik, Mungia, Gorliz eta Plentziara eroaten zuten saltzera.

Ikatza egiteko prozesu osoak zortzi egun inguru behar izaten zituen, dena ondo joanez gero. Denbora horretan, ikaztoki bati guardia egin bitartean, hurrengorako prestakuntza beharrak egiten zituzten.

Argindarra agertu aurretik, sano ondasun estimatua zen ikatza. Etxea berotzeko laguntza parebakoa.

Goieta auzoaz gainera, Unibaso auzunean ere ikatz begetala egiten zuten. Basobaltza ei zen Goietako ikazkinentzako lekurik egokienetakoa. Bertan ez zelako sugarririk falta.

Ikatzaren garraioa nekeza izaten zen sarri, baso artean gurdia sartzea ezinezkoa zelako. Halako trabak suertatzen ziren kasuetan, narrak erabiltzen zituzten ikatza leku batetik bestera eroateko.

> «Ikaskiñen neu bere ibilliko nas aitxeas, ikestokin, eta txabolan lo intxe barres. Txabole eukitxe'un gure... Larne esaten dako lelengo, itxen da

searrune bat, len basotan leku gustitxan oten san. *Larne, zer da? Zuloa egitea?* Es, llanadatxu, searrune bat, eta a larne in ber ixete(n) san, lelengo imintxe(n) san, ak okitxe'un gero, eskiñetati okitxe'un karkaba bat, ure yon dakion, iños urerik sartuko balitxeke... Eta imintxe(n) san lelengo sulo bat itxe(n) san, ta imintxe(n) san palu bet, ikestoki itxeko. Bueno lelengo egurre batu pillora, aistek eta nik, senbat egur batzen gendun aitxeri laguntzen bason. *Ze egur batzen zenduen, artea?* Arte ona ixete(n) san, baia arte gitxi ote(n) san. Gurbixe asko, gurbixeas itxen gendun guk. Gure aitxek urten saille bat botate'un eta erre, eta gero a batu ber ixete(n) san, negun ikestoki itxeko. Ta larne ixete(n) san ikestokin buelte. Eta ara larnen ondora ekar ber ixete(n) san a egurre, eta an pillotute imiñi, alau takok intxe.

Eta gero a imintxe(n) san lelengo lekun, ire edo olau saborreri gosogoso pillo bat, ta gero sulo bat iñ eta taket andi bet sartu. Ta gero yoten san enroillaten, ai(k) takok yoten siren an imintxen. *Meta bat egitea lez?* Tronpoin klasera. Eta gero emote'akosen beari bi-edo, eta goikori bat. Eta gero selan don, iru illeda ixete(n) siren jeneralen, ta yoten san dana ondo plegaten, eta aiñen egurren kontra, egurre fuerten kontra. Gero in ber ixete(n) san, dana akabaten danen, imintxe'aun dana ire edo oteas tapa, sikues. Eta gero itxen san arpala. Bean atxurrekas, bedarra alderdi beteti eta besteti lurre dekon satik. Aas tapa ostabere dana. Eta gero ain ganen botate(n) san ostabere autze, autze an egon dana. Lengo ikestokiña. Eta gero ya dana sakatu-sakatu iñ eta ure apur beteas busti gane eta itxitxen san an.

Eta gero albon itxe(n) san sube bat, eta fuerte on ber dau, eta eskillere artu, eta andi suloti albon dau prase botate(n) san ara pala bateas, a(k) bekok, saburrerik artu dein sube. Eta gero jakitxen san ba, ketan asten danen ya artu deu. Eta gero dana tapate san ondo eta iduri ixete(n) san ango autze. Ta a iduri botate'akon danen. *Zer da iduri?* Lengo ikestokik itxi daun autzeri, a iduri in ber ixete(n) san gero dana tapa.

Ta gero gauen, aitxe ote(n) san an ba, eta amak botate(n) nindun, amak esaun gure ixeten aitxe bakarrik on deitxen bason. Eta ni yote(n) nintzen txabolara, se aitxe bijilaten ibiltxen san aitxe. Se ikestokik sube artzen badau dana errete(n) san. Sulo bat itxe'akon, ta a sulo tapa in ber ixete'akon. Orretariko esan'tzuten soieas, orreas tapa. Eta a egositxe san, baia garra barik. Egosi, ese garre urten eskeron a iketza yan itxe'un.

Eta gero itxe'euden, egositxe osten, kendute(n) euren eskuberatxu bateas kurioso-kurioson ganeko txarrikeri. Eta lotzen san dana iketza, eta a iketza gero otzitxuten oki ber ixete(n) san egun bet edo bin, eta gero sakuten karga. Eta iños yon eta sakuk itxi an, eta erreta, sakuk suetan bere topa dire ainbeste denporagarrenen. Asike truko bat okitxe'un *de Padre y Señor mío!*

Eta gero artu eta Mungire-ta..., iketzan dirutxu daunen posik! Lau txakur orreas artze'usen ba, iketzaas, baia seme(t) kostata! Ikus dosu senbe(t) kostaten san! Bear andi intxe!»

Juan Oleaga, buru argi eta memoria oneko lekukoa izateaz gainera, Bizkaiko atzenekotariko errementari eta *erradore* edo perratzaile tradizionala da.

Odoletik datorkio lanbidearen zati bat, errementaritzari dagokiona. Izan ere, Juanen aurretik, bere aita eta aitita ere errementariak izan ziren. Baina Juan izan da herradurak ipintzen ikasi duen familiako bakarra.

Arteragokoengandik ikasi ez zuena Urdulizeko Enrike Legarra errementariak irakatsi zion Oleagari. Urdulizera joaten zen bizikletaz Juan, Enrike Legarrarekin ofizioa ikasten. Antzina ferrak albaitariek ipintzen ei zituzten. Eta Juan ikasle ibili zen sasoietan, XX. gizaldiaren erdi inguruan, horretarako baimena Albaitarien Eskolan atera behar izaten zen. Orduan On Juan zen Jatabeko albaitaria, eta berorrek egin zuen Juanentzako eskaria. Itaun batzuei era egokian erantzun ostean, herradurak ipintzeko lizentzia eman zioten Juani.

Juanen aititak leiho txikidun txabola luze baten eduki zuen beharlekua. Gerora, gaur egun Juanek sutegia daukan lekura igaro zuen tailerra aititak, Ingalaterratik ekarritako hauspo berri handia ipini zuen orduan. Harrezkero, Juanen sasoietara ez ei da aldaketa tekniko handirik egon. Juanek gurdiak egin izan ditu, eta baita *erradu-*

Juan Oleaga, Zubiaurreko errementaria, 1998.

rak ipini ere. Bere aititak sororako erremintak egiten zituen sutegian, baina Juanen sasoirako, fabrikatik ekartzen zituzten.

Zubiaurre etxekoari, Juanen beharlekuari, *ferreri* esaten izan diote. Añekakoa, ostera, ola ei zen. Bertan, Somorrostrotik ekarritako burdina urtu eta lingoteak egiten zituzten.

Juan beharrean hasi zen sasoian errementariak zeuden inguruko herri guztietan. Hala ere, berari bezeroak Bizkaia, Gipuzkoa eta *Sandere* edo Santanderretik etorri izan zaizkio.

Juanek ez du ezagutu errementarien arteko ermandaderik. Behin Mungiako Elorduigoitia kaleko taberna txiker baten batzartu ziren Arrieta, Jatabe, Fruiz... eta inguruko errementariak. 1948-50 urteen inguruan izan zen batzarra eta prezioak izan ziren eztabaida gai nagusia. Atzenean, guztiak haserretu ei ziren elkarrekin eta ez zen beste batzarrik egin.

Traktoreen agerpenak eragin ei du errementaritzaren amaiera.

Gurdia egitea

Gurdiak egitea izan da luzez errementarien beharretako bat. Horretarako, zer edo zelako elkarlana egiten zuten errementariaren eta arotzaren artean. Edozelan ere, lehengo sasoietan errementariek arozgintzan jakitunak izaten ziren.

Gurdia egiten hasteko, arotzak, hamabi egun inguruan, gurpiletako *kamak* egiten zituen. Errementariak berak lantzen zuen egurra kama egiteko, baina behar handirik edukiz gero, arotzari eskatzen zion laguntza. Kama, pertika eta aldamenak haritzez egiten zituen. Pertika eta uztarria elkartzen dituen gurpunta legez. Haritza lisoa izan behar izaten zen, lar lodia ez zena, inoiz iñustu edo inausi bakoa. *Askazi* edo arkaziarekin ere egin zitekeen, baina gerora ezpal gehiago ematen ei zituen, *trastariagoa* zen.

Errailak arkaziaz eta irezpata lizarraz egiten zituen. Zurruna, ostera, egur ezberdinekin egiten zen. Sarritan eskura zegoenarekin, egun batean bat eta hurrengoan beste bat erabil zitezkeen eta. Garrantzitsua, ostera, punta zorrotza eta indartsua edukitzea zen. Eta gurtekarra, ostera, gurbitz egurrez egiten zuten. Jata inguruan gurbitz ugari egon da, eta herritar batzuek basoan bertan egiten zituzten taketak.

> «*Gurdia egiteko zenbat denbora behar izaten zenduen?* Gurdi jeneralmenten erruedak itten siren, arotzak itte'ausen kame esaten dakona, ta erruedak itteko or amabi egun ingeru, bear ondo intte. *Eta kametik buztarrira doan zatiari zelan esaten deutsazue?* Partike, ta gero puntekori, gurpunte, eta gero sotza aurrekori. *Eta horreek arotzak egiten ebazan?* Bueno orrek, jeneralmente gero errementari(k) bere asko itte'ausen, partikeri erraille(k) sartu, eta barrik apurtuten direnak, eta orre(k) danok itte(n) gendusen errementarik, dana dominate(n) san arotzi bere olau asuntuko, danak itten siren. Baia noperak bear asko euki eskeronen arotzari agindu igual: —Isu kama bat. Ta adelanta itten san alan prisas daunari bere. *Kamea ze egurragaz egiten zan?* Kame aritzeas, askasies bere itten san baia askasi bere, astille fasillau, traste-

riau da askasi, astille emoten dau fasillau. Jeneralmente aritze partike ta aldamenak eta orrek, ta gero erraillek askasi, orre(k) bateri bestera dekesenak. Aritze lar lodi estana ixeten san ona, lixu-lixu errama bakoa, lau kantoitxu kendu eta itteko, a ixete san onena. (...) Eta irespate lexarraas itten san, lexarra bere aterpen goberna eskeron material fuerte da, ona. Ta surrune sarritten era danakas, askok gaur bat ta bier beste bat igual ibiltte'aun. *Eta gurtekarra?* Ori gurbixe askok ibiltte'aun, gurbixe bere egurre fuerte da, gogorra.»

Gurtolak egiteko, belarra garraiatu behar zenean gurdiari ipintzen zitzaizkion aparteko egurretarako, haltza erabiltzen zen. Hau da ilgoran bota litekeen zuhaitz bakarretakoa.

Burdina Bilboko Erriberako almazen baten erosten zuen. Txortak amarratu eta trenez ekartzen zituzten Mungiara. Gero, zaldi-karroan etxeratzen zuten.

Txapak, *untze* edo iltzeak egiteko hagatxoak, 8 zm inguruko pletinak eta banda izeneko txapa meheak ekartzen zituen Bilbotik.

Gurpilak egiteko, erradio bakoak, lehenengo haritzaren ohola behar zen neurrian ebaki eta egurra lisatu. Gurpil normalak lau zentimetro inguruan ateratzen ziren, eta ostean, errementariak *bonbeo* apur bat ateratzen zien. Ohol borobila egin ostean, erdiko *mastarra* egin behar izaten zen. Oholetan, behar zen lekuan zuloa egin eta egurrezko *zie* edo ziria sartzen zen. Gero mastarrari punta bietan erematxe bana egiten zitzaion, presioarekin salto egin ez zezan. Ohola egin ostean, lehenbizi *llante* edo uztaia sartzen zen eta gero mastarreko txapak gurpiletan. Mastarraren erdialdean iltzerik handienak sartzen ziren eta ostean geroz eta txikerragoak. Iltzeak gauez sartzen ziren. Eta hamaikatxo iluntze eman ditu Juanek iltzea berotu, burua atera eta *klabereaz* jotzen.

Erruede edo radiodun gurpiletan, tronpoiari, edo gurpilaren erdiguneari, aro bi gogor sakatuta sartu eta ipintzen zaizkio. Zuloak egin eta neurri bakoitzerako erradioak prest edukitzen dira. Gurpilaren kuboa edo gurpegia balde handi batean egosten zen, sutegian eduki ohi zuen Juanek irakiten. Hozterakoan presioa hartzen zuen. Gurpil denak maila berean ipini behar izaten ziren. Erradioak sartu ostean, pinak ipini behar dira, ostean *llante* sartzeko.

Tronpoia tornuan egin izan du beti Juanek. Lau fleja ipintzen zizkion, errementa ez zedin. Gurpil bat egiteko, sei-zortzi egun behar izaten ziren. Eta egin dituen gurdirik gehienak gurpil bikoak izan dira.

Gurpil eta erruedek kapela behar izan dute. Kanpotik eroaten zuten estalkia, ezinbesteko babesa izaten zen.

Galga edo frenoa garrantzi handiko pieza zen gurdietan. Era ezberdinetako galgak egon izan dira. Batzuk uztaia ipini aurretik jartzen ziren. Aurretik galgatzeko balio zutenei hagatxoa ipintzen zitzaien. Atzetik egitekoei, ostera, burdinazko kuadra bat ipintzen zitzaien atzean eta kordel bati tira eginez funtzionatzen zuten. Aurreko galga izaten ei zen praktikoena, gurdizainak eskurago zuen eta. Baina aurreko galgak partikea ahultzen zuen, ipintzeko zuloa bertan egin behar izaten zen eta. Gainera, galgatzerakoan, pisu guztia aurreko alderantz bideratzen zuen. Horrek zekarren arriskuarekin.

Gurtotza egurrezkoa zenean, galgak inoiz su hartzen zuen edo kea bota. Gurtotza erretzen bazen, berriari koipe eta xaboi apur bat ematen zitzaion. Horretara, distira irten eta laster kantuan hasten zen berriro.

> «Su artu bere bai iños, gurtotza egurresko(k) bai, ta keatan sarritten, ketxu botaten, ketxu botaten. Baia bein subek artute, olan erre eskeron apur bet, esaun erresultaten, se barrin bere ensegida itte'un gero, fasillau. Orreri yaboi apur bet unta ta in ber ixete'akon barriken, arik eta brillun ondo para ta kantaten ta asi artean. Koipe apur bet edo yaboitxu untata... Ori ixete'un beran sisteme. *Gurdien kantuagaz ezagutzen zenduezan gurdiak?* Bai batzutan, batzuk ondo kantaten deenak okitte(n) euden. Bai, lantzin kapritxoso batek, estela ondo kantaten ta gurtotza ondo daula ondiño kendu bere bai, beste bat imiñi. Kantate gusta ta, girrintzeka gurdi... Gurtotza ondo oten sanen, kanta, ta kante bere lusero, kantaten-kantaten... ta ostera unekada aren barik ta ostabere barrin tte... Karreteruk senaille karge dakarrelako edo, apur bet onbrade okitte'un ba, gurdi kantaten ekarri eskeron.»

Burrukoa, gurdi txikerrari, zama handiak eta luzeak garraiatzeko, kamaren erdian ipintzen zitzaion pieza zen. Erdian torlojua izaten zuen. Garraiatu beharreko zama burrukoari lotzen zitzaion mutur batetik eta bestea narras eroaten zen.

Sei-zortzi metroko pieza garraiatu behar bazen, gurdi txikerrean ipintzen zuten burrukoa. Eta burrukoa erdian ipinita zeukan gurdiari *gurditxille* esaten zitzaion.

Basoan behar egiten zutenen artean, bakoitzak halako gurdi bat izaten zuen. Zama handia garraiatu behar bazen, idiekin eroaten zen gurditxillera, bertan zama burrukoari lotu eta narras ekartzen zuten behar zen lekura. Pinu eta eukalipto luzeak garraiatzeko erabili izan da, batez ere.

Gerora etorri zen gurdiari burdinazko gurtotza edo ardatza ipintzea. Era horretako gurdiari gurdi-bolante edo *bolantiñe* esaten zitzaion. Zama astunagoak garraiatzeko balio zuen eta bihurguneak hartzea ere errazagoa izaten zen. Juan Oleagak sarritan eduki ditu gurdi-bolanteak etxean, alogerean egoten ziren eta. Inork tejabana edo etxe berria egiten zuenean, Juanen gurdi-bolantea erabili ohi zuen. Dena dela, Jatabetik ez ei ziren asko ikusten. Erandio inguruan ikusten ziren gehien.

Abereekin ibiltzeko egurrezko gurtotza zeukan gurdia gurago zuten. Abiadura motelagoa izan arren, gidatzeko erosoagoa izaten ei zen.

Gurdi-bolanteak arinago iraultzen ziren garaitikoak baino. Izan ere, askotan gomazko gurpilak erabiltzen zituzten. Orduan, zama astunak garraiatzerakoan gurpilen bat airez husten bazen besteak baino gehiago, gurdia desorekatu egiten zen.

Juanen iritzian antzinako gurdiak kalitate handiagokoak ziren, egiteko material hobeak erabiltzen ziren eta.

> «*Gurdiaren zatiak zeintzuk dira? Gurkamatik buztarrira doan zatiari zelan esaten deutsazue?* Partikie, ta ori busterries engantxateko gurpuntie. Gero andik satos, irespate, irespate sie, seu(k) gusun modun imintteko aurrerautxu edo atzerautxu. *Irezpatea aurrekoa da ezta?* Bai, a goie..., fardoak imintteko aurrerau gure badosu edo atzerau edo... sertzen

GURDIA



GURDIA



PERTIKEAREN PUNTEA



GURTOTZA ESTUTZEKOAK



A-GURPILA (erradio bakoa)



B- ERRUEDA (erradioduna)



Pasaerruedak

dana. Eta gero galdu siren, baia lelauko gurdietan esan oten olau adelanturik eta gero orrasie. *Zer da hori?* Ba gurdin kamie eta eskiñeko serak, aldamenak, eta aldamenatan aukitte'usen silloak sartute orrasik, ol bi ixete les goitti bera, gurtotza lotzeko an barruen. *Alboetan?* Gurtolak yoten diren lekuen, an orrasik. Eta gero erraillek, trabesak, aspin doasena(k) dire erraillek, ta beste egalekoak aldamenak, eta an sartute erote'usen orrasiek. Ta aik orrasik ote(n) siren gero, aspitxi sartze'akon gantxie ta goitxi sartze yakon orpasie. Orpasie yoten sendun askoreas aputxu be(t) giau, eta gurdik kantateko, ordun kantate'aun gurdik. Elegante ixete(n) san, baia gero lar istututen basendun sue artze'un gurtotzak! Ondiño badekoas nik or orretariko erruedak. (...) *Dana izaten zan egurrezkoa?* Bai, bueno erruedak es, erruedak euren burriñekas yositxe daus bandak edo serakas. Ta gero kapele kanpoko, burnisko. *Aurrekoari irezpatea esaten jako eta atzekoari?* Gurtekarra, ta goien bateti bestera dona surrune, olan esate(n) geuntzen guk. Ta gero beste bat, autzagea bere ibil du makiña bider. *Eta zer zan hori?* Ori gurdiri eusteko. Gurdie kargate'su konpleto ta surruneas amarra itte'su, atzen sokeas, ta amarra itte'su. Ta gero a erdi baiño apur bet atzerautxu sartzen'tzesu surrunen aspitxik autzagea. Punte sorros dekon palu be(t) da. Eta andik agarraten'tzesu gurdiri iruliteko billurre badau, iruli estaitten. (...) *Gero beste batzuk gurtoholak dira ezta?* Bai orrek arritteko, satzetako, edo... abonok ekarteko, olau gausetako, ostantzen gurtolik esan imintten. Otatako ta olan es. Ta ordun imintten siren egur batzukes intte edo lo ke sea, pasarruedak, erruedan ganetik, frena estitxesan, pasa estittesan yagoteko, aldamenatan sartzen siren. Ta batzuk burriñeas intxe, kendu es itxeko, fijo imintte eukitxe eresan, beti bertan. *Eta erroberatan batetik bestera doana?* Gurtotza, bai ejeari gurtotza. Apur be(t) kargate sendunen, kristotza kantate'un orrek! Emeti lelau esan oten besterik, gero urten siren bolantillek, ori ya beluau.»

Erremintak konpontzea

Juanen aititaren sasoian, plazarik plaza ibiltzen ziren errementariak eurek egindako sororako erremintak saltzen. Baina Juanen sasoirako, erremintak fabriketan egiten zirenez, berak zorroztu eta konpondu baino ez zituen egiten. Astak ipintzen zizkien, laiak eta aitzurrak errekaltzau egiten zituen.

Juanen aitak, gurdiak eta zaldi-karroak egiteaz gainera, are-hortzak, exak, bostorrotzak... egiten zituen. Oraindino ere sutegian dauzka Juanek bere aititaren sasoian egindako aitzurrak. Bere sasoian saltzen zirenekin alderatuta, ezberdinak ei dira. Zaharrei eskuz eginak direla igartzen zaie, atzea estuagoa daukate eta begia aterata eta bertan suarekin inkatuta daukatelako. Kaldean eginda daude, eta behar delikatua izaten zen. Aurreko aldean *galtzairu* edo altzairua ematen zitzaien. Ondo kaldea edo galdatzeko burdin bejetala erabili behar izaten zen, eta ez *azeradue*, altzairuduna. Lehenengoak eusten zion ondoen zati ezberdinak berotan ondo elkartu arte.

Sutegia eta auntegia

Juanek auntegia edo herratokia ipini arte, sutegiaren atzeko aldea ikatzez beterik egoten zen, egun osoan suarekin ibiltzeko asko behar izaten zen eta. Egur-ikatza ere ezagutu izan du, inguruko basoetan egina. Kaldeateko edo galdatzeko ona zen, eta su bizia isiotzen zuen. Harri-ikatza erabiltzen ere ezagutu du.

Sutegiko aurreko aldean ez da aldaketa handirik egon. Goiko aldean edukitzen zituen hagatxoak, txapak, pletina... Hauspoa eta zuloak egiteko taladroa leku berean egon dira beti. Taladroa Juanen aititak ere erabiltzen zuen. Kapelari zuloak egiteko erabiltzen zen.

Brokak ere etxean egiten ziren, eta sutegiaren aurreko aldeari tobere esaten diote.

Ikatza su-lekura botatzen zen eta gradu asko hartu behar izaten zituen, burdina urtu behar izaten zen eta. Denbora lar edukiz gero, lar berotzen bazen, burdina guztiz urtzen zen eta orduan ez zegoen konponbiderik. Burdina galdatzeko, kolore zurigorria izan eta txinpartak ateratzen zituenean hartu, atoan atera ingudera eta mailuarekin jotzen zen. Burdina une egokian ateratzea segundotako kontua izaten zen. Ezpabere, suak burdina jaten du, eta egin gura dena txikerregi lotzen da. Horrexegatik, denborarik galdu ezin denez, eskura txinpartak jausita ere, ekinean jarraitu beharra zegoen. Juanen akorduan, egundo ez dute euren etxean eskularrurik erabili beharrerako.

Ingudera atera, jo, lisatu eta dagokion forma eman ostean, batzuetan uretan sartu behar izaten da burdina. Beste batzuetan ez da beharrezkoa, eta beste lan batzuekin jarraitzen da. Kapela, esaterako, ez da uretara bota behar.



Lehen Zubiaurreko erementerian sutegia eta auntegia zeuden, 1998.

Uretara bota behar den pieza arinegi botaz gero, burdina lar gogortzen da eta mailukadaka jarraitzean apurtzeko arrisku handiagoa dago.

Aizkora, esaterako, uretan epeldu behar da. Lehenengo tenple zuria dator, gero gorrixka eta azkenik urdina. Denbora gehiago edo gutxiago egongo da epeltzen aizkorari eman gura zaion gogortasun edo biguntasunaren arabera.

> «Gero suleku oten san, iketza bota ta... *Ze tenperatura hartzen dau horrek?* Orrek tenperature, gradu andi koiu ber enpalmateko, burni urtu itten da or. Or lar tardaten basu urtu akaba itten da, ta estau balio gero, jodidu'su seure bearra gusti! Koiu ber da kaldeateko, ya gorri..., surire ya txispek abiaten danen, orduntxe momentun, atara ta maillues yo, se apur bet luseau basaus yan itte'otzu burni gusti eta gero... txarto gero, txikerregi lotzen da ta. Segundon kontu ixeten da, estu dok ori, txispe eskure yausi ta erretan badau bere danak aguanta ber dire an. *Eskunarrurik erabilten izan dozue?* Estu usa guk iños. Ain rapido in ber dok! Se apur bet otzitten bada, eseres bat, estau agarraten gero. *Orduan koloretik igarten jako?* Bai koloretik iger ber da, suri ta txispetati. Ordun da aprobetxa ber dana. Ta ortik yungedera, ta yo, enpalma in ber dau, yo ondo ta beran forman imiñi tte..., lisutu te gero uretara bota bearreko bada uretara, ta osten uretara bota barik aurrera segitten da bear batzutan. Segun se bear dan. Kasureko llanta bat kaldeaten danen estau bota bearrik, se arin botaten baosu, gogortu itten da lar burni, ta gero golpeka asikeran probabilidade deko astille edo apurtu edo itteko bere. Askorak eta one(k) pere ba sorrostu, ta berotu ta gero tenpla itten'sus uretan. Lelau tenple surie, gero gorriskea ta asulera, an koiu ber dako tenple. Se larren emoten batzesu salta itten dau gero, sati botaten dau.»

Sutegian ura dagoen harriari ur-arka esaten zaio. Juanen aititak egin zuen zuloa harrian bertan ura edukitzeko. Beste errementari batzuek adreiluz egindakoa ei daukate, baina harria indartsuagoa da, luzaroan irauten du.

Ingude ezberdinak eduki izan ditu Juanek. Alde batetik, zaharrak apurtzen joan zaizkiolako, eta bestetik, bakoitza behar ezberdin baterako delako. Sutegiko beharra eta herradurak ipintzea ezin egin litezke ingude bakarrarekin. Sutegikoak handiagoa izan behar du eta punta lodiagoa dauka. Horretara, hagatxo eta burdinari buelta handiagoa errazago ematen zaie.

Yungede edo ingudeak beti erosi izan dituzte. Beharlekuan daukana barku batean ei zegoen antzina. Lekeition erosi zuen bere aititak, eta mungiar baten laguntzaz, zaldi-karroan ekarri zuten. Beroarekin bigundu eta kolpeekin desberdindu egiten da ingudea. Horregatik, Bilbora eroan izan dute zepiloarekin lisatzera.

Herradurak lantzeko ingudea txikerragoa izaten da, belarriari eta buelta emateko leku gutxiago behar da eta.

Gaur egun Juanen sutegiak 120 urte ditu.

Ferrak ipintzea

Lehenago esan dugun legez, Bizkaia, Gipuzkoa eta Kantabriatik ekartzen zizkioten piztiak Juani. Garai baten Mutrikun erosten zituen ferrak eta Ormaiztegin

beluago. Apurka, ostera, ferrak egiteari utzi diote, egun probetarako baino ez direla erabiltzen eta.

Ganaduari *erradurak* ipintzeko, lehenik, auntegian lotzen da, gero altxatu eta atzeko hankak sokaz lotzen zaizkio. Beharrean hasteko zaku batekin garbitzen zaizkio hankak piztiari. Lagun bakarrak egin lezake herradurak ipintzeko beharra, baina bi badaude askoz hobeto.



Ganadua ferratzeko, lehenengo kaderak lotu behar zaizkio gogor, 1998.

Atzeko hanketan ipintzen ditu ferrak lehenik, banan-banan, eta horiekin amaitu ostean ekiten die aurrekoei.

Juanek ezkerreko hankatik hasteko ohitura dauka. Hasi aurretik piztiaren hanka lotuari zakua ipintzen dio, azala urra ez dakion. Hankak lotzeko sokaren puntan katea ipintzen du, erabileraren porasuz soka apurtu egiten da eta. Aurreko hanketan ez die zakurik ipintzen piztiei. Auntegiko abrazaderatan ipini eta lotzen ditu. Ez ei daukate atzeko hankek besteko arriskurik.

Ferra ipintzera doan hanka tolestu eta sokaz lotzen du. Ondo lotuta egon behar du puntada onak emateko. Eta hala ere, ez da Juan piztien ostikadarik hartu bakoa.

Buztana lotzeko zuloa dauka auntegiak, tako eta guzti.

Idiak ferratzerakoan, aurreko hankei ipintzen zaien egur takoari, basoetako lanetan ibiltzeko gurdiaren piezari legez, burrukoa esaten zaio. Hanka baten herradura ipintzen amaitzerakoan, burrukoa askatu eta beste hankan ipintzen da. Auntegi edo ferratoki batzuek askaezineko burruko bi edukitzen zituzten, bat hanka bakoitzeko.

Aurreko hankak egiteko, burrukoaren gainean ipintzen dira, 1998.

Juanek dio berak gurago duela askatu eta batetik bestera mugi litekeena. Ezpabere, idiaren aurreko hankak urra litezke eta.

Lehenengo eta behin *erradura* zaharrak kendu behar zaizkio piztiari eta berria komeni zaion neurrira prestatu. Ferra piztiaren apatxaren gainean ipintzen du neurri egokikoa den ikusteko. Ez balitz, ingudean moldatuko luke.

Probatarako idiei ferrak ipiniz gero, gantxoak atera, ipini eta josi behar zaizkio. Gantxoek handiak izan behar dute, eskuadra onekoak, idiek laban egin ez dezaten. Beste batzuetan, erraduren alboko aldean ere gantxoa ateratzen zen. Probetarako idiei sei herradura ipintzen zaizkie, garaitiko piztiei ipintzen zaizkien zortzien lekuan. Zortzi lar ei dira probetarako, idiek laban egiten dute. Baina edozelan ere, apatxak delikatuak izanez gero, probetarako zortzi ipintzea suerta liteke.

Sei herradura ipintzerakoan, apatxen kanpoko aldeko bi kendu ohi dira. Eta probetan bizpahiru egun emanez gero, ferrak barrurago sartu beharra egoten zen, etxeko beharrean ibiltzeko.

Ingudean ematen zaio behar duen forma herradurari. Ondo aiutu behar zaizkio ferrak apatxari, ezpabere piztia ez da eroso ibiliko eta.

Herradura ipintzen denean, apatxak tenazeaz neurrira ebaki behar dira eta eskofineaz gastatu. Pujamanteaz apatxak desgastatu egiten ziren, *zepillu* edo eskuila batekin legez, ferra ondo egokitzeko tenazekin amaitu ostean. Apatxak sarri zorroztu behar dira, eta era horretan gerora hobeak datoz. Hala ere, kontu handia eduki behar da apatxekin. Ez dira lar ebaki behar, ezpabere min egin liezaioke piztiari herradura ipintzean. Odoletan has liteke, eta urbatua eragin.

Erradurak jartzeko kaskua errebajatu behar da pujamantearekin, 1998.

«Lelengo erradure sarra kendu ta errebajau megidera, ta megideko erradure ganen ikusi ta a preparau gero, ajusteu gero ber dan moduen ta... Probatarako bada, gantxok atara, ta imiñi tte yosi tte... eskofineas gero konpondu eta eurrera. *Jungeden emoten jako formea, neurrian iminteko?* Bai, yunken in ber ixeten da molde emon ta dana, ta gero baten goratxuau belarri ber badau etorri tte..., edo ajustaten donen ikusten'su, koño, ba emen ueku deko, au artasau, beste belarri gorau bota, toke bat edo bi tte emon ta barrin gero ostabere aproba ber da, arik eta noperan gusture planta arten. Ta beran puntun atzerantza botata ta megiden, erradurek beran posisiño deko, se espabere aurreregi imintten basu aurren lotzen da erradure ta atzen es, eta bueno, inkomodo ta txarto. *Apatxak bere ebagi egin behar izaten dira?* Bai, apatxak tenaseas gero erradure imintten danen kendu ber da, tenase nausies ebai ta eskofineas gero gasta ta imiñi beran lekun, tamaiñutxun. *Eta pujamanteagaz zer egiten da?* Pujamanteas kasku errebajau, kasku andi badau tenaseas sati andi

betzu(k) kentzen dire, ta pujamanteas imintten da, sepillutxun modun prepara ber da kasku errateko, beran tamaiñure bajata. Pujamantek bear andi deko. (...) Pujamante(k) sorrostu in ber dire sarritten, ta sorrostukeran beti yato'su jenero ba. Orre(k) sorrotz euki ber dire, orrek ondo dausenen emen iñ, tte biserra ebateko modun oten dire orrek, orrek sorrostu... a tope on ber da. Espabere noperak in ber dau inder andie, ta amos badau bear be estosu ber dan modun itten. Orrek ondo eukitte fundamental dok.»

Ferrak sartzeko erabiltzen diren iltzeek zenbaki ezberdinak dituzte, zerotik hirura, lodieraren arabera. Idiekin bi eta bat zenbakidunak erabiltzen dira. Behiekin zero zenbakiduna erabiltzen da sarritan, herradura txikiagoa dutelako. Ferrek ere euren zenbakiak dauzkate, zortzitik beherakoak. Hirua da gehien erabiltzen den herradura tamaina.

Iltzeak mailu txikerrarekin sartzen dira, tenazekin ebaki eta amaieran erematxatu.

Erradura iltzeekin josita ostean, hauek ebaki eta erematxatu egiten dira, 1998.

Urte asko daramatza Juanek ferrak ipintzen, eta dagoeneko, piztia ikusitakoan begiratu hutsarekin jakiten du zein herradura tamaina dagokion. Huts egiterik eginez gero ferretako zuloetan, punteruaz konpondu behar izaten du.

Belarria *erraduraren* eta apatxaren gainean, goian doan pieza da. Herradurari apatxera hobeto egokitzen laguntzen dio. Belarribako ferrak prestatze berezia behar dute, ezpabere atoan jausten ei dira.

Iltzea, ahal dela, garbi sartu behar da beti. Horretara, denborarekin ugertuko balira ere ez legoke arriskurik. Arazoa iltze uger bat odolera ailegatzea da.

Apatxak ere gaixotu litezke, batzuetan arin osatzen dira baina besteetan denbora luzez ibiltzen dira piztiak *koxorik* edo herren.

Halakoetan, errementariak osatu behar izaten zuen piztia. Apatxaren atzeko aldean, barruko aldetik, zati zuri bat ateratzen zitzaien piztiei. Eta bizpahiru hilabete egiten zituzten piztiek herrenik. Osatzeko kura egiten zuen Juanek: garbitu, desinfektatu, algodoitxo batekin zauria orbantzeko botika eman, kartoi bat ipini eta erredura lasaitu egiten zion piztiari.

Nafarreria gaixoak apatxak jausi arazi egiten dizkie piztiei. Denbora batean ez zitzaien berririk ateratzen. Eta hurrengo hiru-lau urteetan ere, itxura txarreko apatx bigunak ateratzen ei zaizkie.

Kojorik egondako piztiak ere eroan izan dizkiote ferratu zitzan. Tenazekin estututa jakin behar izaten zuen non zeukan gaitza. Piztia herrenei *erradurak* ipintzeko kontu handiz ibili behar da. Bakoitzaren apatxaren itxurari ondo begiratu behar zaio. Apatxak aurre txarra badauka eta atzeko aldetik on gunea izanez gero, hori aprobetxatu behar da zuloa egiteko eta iltzearekin ondo josteko.

Koxo dauden piztiei hiru puntada on eman behar zaizkie apatxetan, herradura bere lekuan manten dadin. Garaitikoak puntada lasaiagoak izan litezke. Herradura ondo lotu beharra dago.

Apatxak limatzea dotoretasun kontua dela dio Juanek. Horretara apatxa arteztu eta kuriosoago lotzen da. Apatxak okertzeko berezko joera dauka, eta hori konpondu egin behar du *erradore* edo ferratzaileak.

Herradura ipini ostean olio beltza botatzea gauza ona da, ferraren estutasuna eragozten duelako.

Ferrak ipintzeko *narruzko amentala* erabili izan du beti Juanek. Behi-larruz egindako mantala da, Bilbotik ekarria. Derrigorrezko babesa da beharrerako.

Idien adarrak ere, *armere*, konpondu izan ditu errementariak luze zeudenean edo ugazabak, polito ipini eta fintzeko, ebakitzeko eskatzen zuenean. *Zozpeldute* edo ezpalduta zeuden adarrak ere konpondu izan ditu Juanek. Kablearekin ebaki izan ditu adarrak. Kablea ona bada, odolik eragin barik ebakitzen ei du adarra. Ebaki ahala zauria erre egiten du kableak, horretara, ez da zauririk zoltzen.

Behiei ere konpondu izan dizkie adarrak. Baina sarriago suertatzen zitzaion idienak konpontzea, ididunek gehiagotan eskatzen zioten eta.

Probetarako *buztarri* edo uztarriak handitu, txikitu eta konpontzea ere tokatu izan zaio Jatabeko errementariari.

ERROTARIAK

Francisco Arrieta Libarona, *Patxito*, Jatabeko akabuko errotaria da. Erdikoerrota da lege zaharrean ehotzen jarraitzen duen herriko errota bakarra. Garai batean, Erdikoerrotaz gainera, beste batzuk ere bazeuden: Unibaso errota, Gaztainetako errota, Patxonekoa, Paulonekoa, Goikoerrota, Errotatxu, Garaizaharra, Askabitxu, Gaztanabarre, Añeka, Balbi, Mardatxe, Errotabarri, Zabalerrota, Hutseko errota eta Lauxarreko errota. Askabitxu, Zabalerrota eta Hutseko errota izan ziren, aipatutako guztien artean, lehenago itxi zituztenak. Gure lekukoetako batzuek ez dituzte martxan ikusi ere egin azkeneko hiru errota horiek. Errotak izendatzeko, lekukoek izen desberdinak erabiltzen dituzte.

Errota batzuek erreka bereko ura erabiltzen zuten ehoteko. Baina Jatatik jaisten diren erreka ezberdinek, Katiluzubitik datorrena barruan dela, errota multzo ezberdinak sortu zituzten. Lauxarrekoa izan da guztietan handiena, eta erreketakoa barik, Butroi ibaiko ura erabiltzen zuen errotarriei indarra emateko.

Aipatu ditugun errotez aparte, Lemoizeko Aurteneko errotara, Armintzako Andresen errotara, Birleko Latxaganera eta Butroiko Arbiñe errotara eroan izan dituzte euren arto eta gariak jatabearrek. Badakigu Aurteneko errotako Inazio Bilbao errotari eta bertsolari lemoiztarra etxerik etxe ibiltzen zela Jataben. Bere gurdian hartzen zuen garaua eta ehotuta bueltatzen zuen.



Patxito Arrieta da Jatabeko azken errotaria, 2008.

Lekukoen esanetan, Jataben ez da egundo herri errotarik egon. Errotak jabedunak izan dira beti.

Herritar gehienek artoa eroan izan dute errotetara. Artagaraua heze edo ihartukoa izan zitekeen. Ihartutakoa, labasutik igaro ostean, gorriturik lotzen zitzaionari esaten zaio. Arto ihartutik lortzen ei da *urun* edo irinik gozoena, eta errotan ehotzea ere errazagoa zen errotariarentzat. Arto heze edo berderik, sorotik harakoa eroandakoa, ez zuten hartzen errota askotan. Izan ere, ehotzea izugarri gaizten zuen pasta sortzen zen errotarrietan.

Propietario edo ugazaba handiak ziren garia eroaten zutenak. Garaitikoek, batez ere, artoa erabiltzen zuten.

Errotaria eta errota

Erdikoerrotak bostehun urte inguru ditu. Herentzia bat izan ei zen, Torrontegi auzuneko seme bat etorri zen Erdikoerrotara. Orduan, Patxitoren aitaren aititak, beste anaia batekin batera, errota erosi zuen orduko 4.000 pezetatan. Anaiak laster utzi zuen errota, eta errotari lotu zen Bonifacio Arrieta, Patxitoren birraitita. Ordutik, belaunaldiz belaunaldi, errotariak izan dira Arrietarrak.

Erdikoerrotan oraindino artoa ehotzen da, 2008.

Patxito ezkondu zenean, 24 urterekin, eman zion aitak errotaren ardura osoa. Gau eta egun ibiltzen zen lanean, errotarriaren lan ordutegia errekak ematen duen uraren araberakoa da eta.

Herriko garaua ehotzeaz gainera, inguruko herrientzat ere hamaika ehotze egin izan dira Erdikoerrotan. Gerra sasoian zaldi-karroan, astean behin edo birritan, joaten zen Plentziara Patxitoren aita. Etxerik etxe barik, dendetara saltzen zuen irina. Kopuru handiak saltzen zituen, Gorlizera tona bat, itsasgizon herri zelako, Barrikara tona erdi...

Arto iharra baino ez du hartzen izan Patxitok, hezeak irabazi gutxi eta arazo handiak ematen zituela eta. Portugaletera saldu izan du irina, batez ere. Astean anega bi, ehun kilo inguru eroaten izan ditu. Garraiorako Citroen bat erosi zuen 1955. urtean. Ordutik Citroen bi gastatu eta Land Roverra erosi izan du.

Patxitok, gaur egun, lagun eta senitartekoentzat baino ez du ehotzen. Urtean 3.000-4.000 kg irin ekoizten ditu. Baina aspaldi erabaki zuen 20 kilotik gora baino ez ehotzea, hortik behera behar handia eta etekin txikerra ateratzen delako.

Ehotzen duenetik salgai ipintzen duena dendara eroaten du, ez du etxean saltzen.

Errotarriak

Ehotzeko errotarri bi erabiltzen dira, goikoa eta behekoa. Bakoitza material ezberdinekoa da, funtzio ezberdinak dituztelako. Goikoari eusten dio behekoak eta

Errotarri zaharra, 2008.

goikoari dagokio garaua ehotea. Goiko harriari egiten zaizkio, geroago ikusiko dugun legez, konpondu eta mantentzeko beharrik gehienak.

Jatako harriarekin errotarri ugari egin izan da. Jata, aurreko ataletan esan izan dugun legez, mendi harritsua izan da. Lekukoen arabera, landuak ematen zuten harri asko zegoen, hormak eta errotarriak egiteko aproposak. Harearria dago Jatan, batez ere.

Errotarriak egiteko *harri-losa* handiak erabiltzen ziren. Jatara eredu moduan erabiliko zen harria eroaten zen. Harlauza aukeratu eta gainetik zein azpitik gutxi kenduta, behar gutxi eginda, forma borobildunak hartzen zituzten. Mendian bertan lantzen eta egiten zituzten ehotarriak. Eta lekukoen esanetan, egongo da oraindino ere Jata mendian lurrak estalitako errotarririk. *Zillo* edo zulo eta guzti egoten ei ziren errotarriak Jata inguruan, bertan landu eta han edukitzen zituzten eta, etxera jaitsi artean. Garai batean, erreka bazterreko etxe guztiek ei zeukaten gutxienez errotarri bat.

> «*Jatan errotarriak egiteko harriak egon dirala entzun dot:* Bai errotarrik itteko au emetiko alde san. Bai or oten siren, orretariko arri-losak andiek. Eta kanpon oten siren ta or itten'ausen eskiñek eta sertu... Intte bere lotu siren an, oin labrata dau eskabadoreas ta lurreas tapata ongo dire, baia intte bere badaus an, bertan itxitte, silloak eta gusti intte. Es ke ordun errotarrik ber bere in siren e! Erreka bastarren on san etzerik esan on errota barik, ta danatako arriek andik etorko siren, Yatati. Nondi etorko siren ba? Ta aittu emen, oiñ errota asko falta da baia, se errota daun amen bertan bere... »

Jatako harriz egindako errotarriak Jatabetik kanpora ere ospetsuak ziren. Gaur egun martxan ez dabilen baina Jatako harriekin egineko ehotarria duen Errotatxu etxea aurkitu dugu Berangon. Bertan, Jatan egindako errotarria garia ehotzeko erabiltzen zuten, zeukaten beste harriak, Matxitxakokoak, baino hobeto zehatzen zuela eta.

Erdikoerrota etxeko errotarriak Jatakoak dira. Hainbat aldiz aldatu ditu ehotarriak. Orain daukanetako bat, Jata harria izanda ere, Mungiako errota batetik ekarri zuen. Lehen Mungiako feria zegoen lekuan lau ehotarriko errota egon ei zen. Derioko gasolindegira saldu zituzten harriak eta handik ekarri zuen gure lekukoak.

Erdikoerrotako ehotarriak harlauzak dira. Badaude beste batzuk, kantare edo harrobiko harriak direnak, eta lau zati elkartuta osatzen dira. Patxitorenak pieza bakarreko harriak dira.

Garia eho izan du ganaduarentzat. Horretarako harri zuriak, harrobietan daudenak behar dira. Artoa ehotzeko lauza, harri berde edo kaliza erabili izan da. Kutxiloaren moduko korteak egiten dituena.

> «*Garitarako harri zuria behar dala esan dozu?* Bai. *Eta artorako?* Au kalise da, lose esaten dako, baia kalise da. Arri berde da, onek itxen dau korte moduko, kutxillon korte moduko. Eta dau beste bat arrie... au baltza, au sera granito.»

Orain arte goiko harriaz ibili gara, ehoteko goiko harriak behekoaren kontra zapaltzen du eta garaua. Behekoa harri beltza edo granitoa izaten zen, eta marmolarekin konparatzen du Patxitok. Gainean kaliza eta behean granitoa erabiltzen zen.

Bere etxeko ate ondoan oraindino ikus liteke 45 zentimetroko lodiera duen errotarri izandako harlauza. Errotarri bakoitzak mila kilo inguru ditu. Eta pisutsuagoa izan behar du harriaren barru eta erdiko aldeak. Kanpoko aldean baleuka pisurik gehiena errotarriak, indar gehiago egingo luke alderdi batzuetatik bestetik baino. Eta ez luke garaua ondo ehoko.

Errotarri bikoa da Erdikoerrota, garai batean Gaztainederra errota izan zen moduan. Lauxarrekoak bi baino gehiago ei zituen, herriko handiena zen eta. Horietako gehienak artorako erabiltzen ziren eta aparteko harri batek ehotzen zuen garia.

Errotarriak pikatzea

Errotarriak, goiko harriak, eguneroko jardueran badabiltza, hile birik behin pikatu behar izaten dira. Ondo ehotzen jarrai dezaten. Ondo pikatu behar dira harriak, ezpabere desgastatu eta txarto ehotzen dute, geroz eta latzago.



Errotarria altxatzeko peskantea erabiltzen da. Gero pikamailu eta bufardearekin zorrozten da harria, 2008.

Erdikoerrotan peskante edo garabi baten bidez altxatzen dituzte harriak pikatu behar direnean. Patxitoren esanean, antzinako gizonak indartsuagoak ziren egungoak baino eta eskuekin altxatzen zituzten errotarriak. Kontu handiz mugitu behar dira harriak, bakoitza tona ingurukoa da eta. Ez da Patxito ehotarriekin sustorik igaro bakoa, behin arrisku larrian egon zen, ia jausi zitzaion eta harrietako bat gainera.

Harria altxatu ostean urkulu bat erabiltzen da harriari eusteko. Behin *orkillek* harriari ondo estutu ostean, *buloik* sartzen dira orkillen eta harriak aldamenetan dituen zuloen artean. Ordura arte libre doa harria, eta norberaren gainera jausteko arriskua dago. Baina buloik aldameneko zuloetan sartzen direnetik kontrolatuta dago harria, kanporantz atera liteke eta buelta eman. Orain urte batzuk arte, ziri, *zie*, batek eusten zion egiturari harria altxatu eta buelta eman artean. Baina behin apurtu egin zen, eta ordutik burdinazko torlojudun *sortija* bat ipini du Patxitok. Orain ondo eusten dio harriari. *Arkaziz* egineko txori batek laguntzen dio, egitura bira ara-

ziz, harriari kanporantz irteten. Erraz etortzen da harria kanpora. Bertan buelta ematen zaio. Hala ere, harriak sartutako buloi baino zulo gehiago dituenez aldamenetan, pisu handiaz gainera, behar gaitza izaten da. Edozelan ere, derrigorrez egin beharrekoa da, ehotzen duen aldea gora adi ipini behar da eta harria pikatzeko.

Horretarako pikamailu berezia erabiltzen da, eta harriko kanal erradialak pikatzeko *bufarda* izeneko hagindun mailua erabiltzen da. Kanalak, goiko harriak beheko aldean garaua birrintzeko dituen formak, sakondu egin behar dira ondo ehotzeko. Bufarda handi batekin egiten zaio *estomagu* harriari. Izan ere, goiko harriak, pikatu eta ostean, sakonunetxo bat izan behar du erdiko aldetik, distantzia apur bat sortzen duena beheko harriarekiko. Kanpoko aldetik, ostera, askoz estuagoa da harri bien arteko aldea. Horretara, garaua barruko aldetik sartu, ehotu eta kanporatu egiten du. Akabuan *urun-askan* amaitzeko.



Ehotzea amaitzen denean irina *urun-askara* jausten da, 2008.

Patxitok dio hagin handiago eta txikiagoko bufardak erabiltzen direla, horretara harrietako kanalak elkarri hobeto egokitzeko.

Errotara doan urari *nase* esaten zaio. Udagoienean, ugarrainak ateratzearekin batera, erroten ubideak garbitu ohi ziren. Presak atera egiten ziren batzuetan, hau da, palekin lurra ateratzen zen behetik ura hartzeko gaitasuna handiagoa izan zedin.

URAREN BIDEA



Erdikoerrota

«Errotari(k) berak artze'ausen ardurek, emeko errotari(k) pere berak garbitze'aun, asi goien eta ona bera arteko, ure etor dakion bere. Errotari(k) bakotxa(k) berek, aurek itte(n) eudesan. Beste Mardasko errote-edo or esaten dana, Loramendiñ asi tte, orreri nase esaten dako orra don ureri ba, errotara don aparteko serari, nase esaten dotze. Orrek urte bi edo iruri(k) baten atarau eta garbi-garbi imiñi palakeon, ta gero presa(k) pere bai atarate eudesan. Presa(k) pere esetu dot au bere ataraten, iru-lau gisoneas, kanpora lurre, presen kabide geiau on deitten, ta ure akumula deitten asko.»

Errotako uren erabilerak garrantzia izan du herritar guztiengan. Esaterako, errotek ubetu, edo antepararen ur edukiera osoa, askatzen zutenean aprobetxatzen zuten herritarrek bogada egiteko.

Erreketatik hartzen dute ura errotek. Erdikoerrotak, Udola eta Arrizurieta aldetik, datorren izen berezi bako errekatik hartzen du.

610 metrora dagoen konporta bi zabalduta hartzen du ura zuzenean. Konporta bakoitzean hodi bat dago, bata 50 zentimetroko diametrokoa eta bestea 40koa. Ez dago konportak baino lehenagoko presarik. Ura berez dator beherantz, eta errotako ubideak grabitatea aprobetxatzen du. Horrexegatik ez dauka errota gehienetan ohikoa den ur sarreraren aurreko presarik.

Uriolak daudenean ez da konportarik zabaltzen. Ezpabere, lohikeri asko sartzen ei da, errotaren funtzionamenduari kalte egin eta garbiketa behar nekagarriak sortzen dira. Halakoetan, Patxitok gurago izaten du konportak itxi eta beste egunen batean gau eta egunez behar egin.

Zuhaitzetaik orbel ugari jausten da errekara, eta ez ditu inork garbitzen. Horrexegatik, hain zuzen ere, konporten sarreran hiru zentimetroko burdinazko parrilla ipinita dauka. Horren bidez, orbelak ez dira errotako barruko ubidean zehar ibiltzen. Horretara antzina baino behar gutxiago dauka errotako ubidea garbitzen.

Urak, konportetatik sartu eta antepara izeneko presara egiten du bidea. Anteparea deitzen zaio, Erdikoerrotan, errotarriak mugitzen dituzten turbinei indarra emateko ura batzen den lekuari. Konportetatik antepare edo presara bidetxo batetik doa ura. Antzina kanal itxurakoa zen eta gaur egun hogei metroko hodi batek osatzen du. Hodiaren forma karratua da, garrantzi handiko ezaugarria, turbinak azaltzean ikusiko dugunez, uraren indarra ondo aprobetxatzeko. Hodiak ura galduz gero kalte handia eragiten dio errotari. Kanabera zein gogorragoa dena, Butroi kainabera edo banbua, erabilita garbitu liteke. Baina arazoak ematen baditu, hobe izaten da osorik berritzea.

Erdikoerrotako anteparak 9,5 metroko sakonera du.

Ubetu esaten zaio, ura geldirik dagoenean, turbinak lanean ari ez direnean, presa beteko ur edukierari. Errekatik ur gutxi zetorrenean ubetua egin behar zuen errotariak. Turbinek ondo lan egiteko besteko ur bolumena batzen zuen, presa osorik beteta. Aldameneko Uribe Kostako herrietan presari berari esaten diote ubetu: *Ubeture bainaten joten gintzen!* Errotaren produkzioaren gaitasuna eta arintasuna orain gutxira arte, ubetu edo urbatuaren araberakoak ziren. Errotariek euren lan erritmoa eta gaitasuna zehazteko, gutxi gorabehera ubetuko zenbat eho zezaketen kalkulatuta izaten zuten.

Ur emaria handia denean, ostera, errotariak ez du urbaturik egiten ibili beharrik. Iraunkorra da konportetatik turbinetara heltzen den ur bolumena. Eta errotarriek indar betean eho dezaten besteko potentzia ematen du.

Presatik turbinetako paletara txifloi edo *upek* botatzen dute ura. Erdikoerrotak txifloi bi ditu errotarri eta turbina bakoitzerako. Zabalik edukita presak ordu bete edo bitan uraren presio egokiari eusten dio.

Txifloiak zabaltzeko, turbinen gainean, errotarriak dauden gelako kateari tiratzen zaio. Katearen gogortasunak eta tiratzeko zailtasunak adierazten du uraren presioa. Presa bete ostean katetik tiratzen zaio. Horretara, garaua ehotzeko prozesua hasiko da.

Errotarri bakoitzerako kate bat dago. Orain dela urte gutxi katearen inguruan 4 zentimetroko lodierako hodia ipini zuen Patxitok. Ezpabere, katetik arratoiak sartzeko arriskua zegoen eta.

Txifloiek ura turbinetako paletara botatzen dute. *Errueda* edo turbinako borobilaren perimetro osoan dauden katilu moduko burdinak dira palak. Eta urak indarrez jotzen dituenean errotarriaren erdiko zulotik igarotzen den ardatzaren inguruan bueltak emanez mugitzen dira. Eurekin batera turbina mugitzen da. Eta turbinaren mugimenduak errotarrien erditik igarotzen den ardatza mugitzearekin batera hasten da ehotzea. Ardatzarekin batera goiko errotarria mugitzen da. Behekoa beti geldi dago eta.



Erruedetako katiluak edo palak, 2008.

Konportatik datorren hodiak forma karratua izateak garrantzia berezia du. Izan ere, uraren *kaide* edo jauste maldarekin batera, hodiaren formak, ura hobeto aprobetxatzen laguntzen dute. Kaida txikia denean, ura zabaldu egiten da, eta pala bati edo biri eman beharrean, hobeto erabiltzen da uraren indarra.

Turbinaren palak gaur egunekoak baino handiagoak izaten ziren antzina. Hori, Patxitoren arabera, antzina ur gehiago egoten zelako da. Eta ur emari handiagoarekin, hobeto aprobetxatzen da ura turbinaren pala handiak izanda. *Ur erdin* egiten zuten lan lehengo errementariek, ur gehiago egoteak ahalbidetzen zien eta. Baina gaur egun, finagoa ateratzen ei da irina, ur gutxiago izan arren, hobeto erabiltzen da eta.

Egungo ur emari txikiagoarekin lan egiten jarraitu ahal izateko, palak aldatu zituzten Erdikoerrotan. Turbina mugitzen duten palei tapadorak esaten zaie. 40 pala dauzka turbina bakoitzak. 6,5 x 6,5 zentimetrokoak dira egungo turbinak mugitzen dituzten tapadorak. Lehengoak 10 x 10 zentimetrokoak ziren. Ur emari handirako hobeak ziren, pala handiak indar handiagoa ematen zion eta turbinari. Baina ur emari gutxiago dagoenean, ur asko galtzen da pala eta pala artean. Horrexegatik, egungo palak lehengoak baino txikiagoak dira. Ur handitan pala gutxiago eta handiagoak, ur gutxiago dagoenean, ostera, pala txikiagoak eta gehiago.

Harrizko *errueda* edo turbina asko egon da errotetan. Baina egun burdinazkoak edo altzairuzkoak dira martxan jarraitzen dutenak. Hondatu egiten baziren, Bilboko Matiko auzoan zegoen lehen konpontzeko tailerra.

Turbinek errotarriak mugi ditzaten ardatza dago. Ardatzaren beheko aldean kajera bat dago, plaka bat daukan kajera. Hortxe egiten dute bat txoriak eta ardatzak. Eta ardatzak, uraren indarrez, errotarriak mugitzen ditu.

Turbinetara heltzen den ura hustubideari jarraituta bueltatzen da errekara.

Txaramelak botatzen du artagaraua dolaretik errotarrira, 2008.

ERROTAREN ATALAK

1. Peskantea
2. Dolarea
3-4-5. Txaramela
6. Tapak
13-14. Urun-askea
15. Ardatza edo ejea
16. Erruedea. Turbina
17. Txifloiak
18-19. Txoria
20. Plaka
21. Kajera



Artagaraua *trigeru* izeneko galbahetik igaro ostean botatzen da dobarera. Dolarea piramide irauliaren enbor itxurako egurrezko kutxa da. Dolaretik errotarrira txaramela izeneko erregulatzaile batek botatzen du garaua. Txaramela erregulatu egin daiteke. Ur emariaren arabera gurpilak arinago edo astiroago mugitzen dira. Harriak arin dabiltzanean garau gehiago botatzen da, ura aprobetxatzeko.

Tornuan *mariposa* izeneko piezak ematen du igarobidea. Mariposatxuak uztai bat dauka. Uztaia askatuz gero zabaltzen zaio igarobidea garauari. Eta era horretan, zenbat garau botatzen den neurtzen da.

Errotetako egurrezko piezak egiteko lizarra erabili izan da batez ere. Egurrik gogorrena ei da, *nerbio fuertek* ditu. Peskanteko txoria, ostera, *arkaziz* egina da.

Errotarriei egurrezko tape ipintzen zaie irinak alboetatik ihes egin ez dezan. Horretara, irin guztia *urun-askara* joaten da. Eta bertatik pala zabalarekin batzen du Patxitok.

Presakade edo urbatu batean 50 kg garau ehotzen dira Erdikoerrotan.

Batzuetan, arto hezearekin sarri, pasta moduko bat sortzen da errotarrien artean. Ehotzean egiten duten zaratak salatzen du holakorik pasatzen bada. Konponbidea ehotarriak atera eta garbitzea izaten zen. Ezpabere, sortzen zen pastak ez zuen ondo ehotzen uzten. Baina ezin izaten zen une berean garbitu.

Irina bahetik pasatuta irteten da zahia. Lohikeri moduan hartzen dute zahia.

Gutxitan ikusi arren, badago gure lekukoen artean, garia etxean eskuz eho eta bahetik igarotzea ezagutu duenik. Baina ez zen era horretan lar ondo ehotzen. Eta ogi latza irteten ei zen.

> «Garie Latxaganera eroten gendun, eta arto bestera. Ta garies, andik ekarte(n) senduneas ya ogi suri-suri itte(n) saun amak. Ogi itzela. Baia Latxaganen egote(n) san dana kribie. Bajate(n) san bera garie, ta iyete(n) san poste baten modukoti gora, sinta baten, andi goiko kamarati bueltan etorte(n) san, eta bidien kribie pasten ta ya gari klasifika itten san dana. Eta len esan dun ori tximintxoiek asi deko, asi baltza, nabo-asin modukoa, eta orretariko asuntun, danak bideko kribiek apartate(n) sittun, dana, ta ogi suri ederra itte(n) san Latxagati ekarriko gari-uruneas. *Etxean egiten zenduen?* Bai, nik esetu'ot, es asko, baia esetu in dot, etxen erroteas iyo ta, eskus iyo ta bere garies..., trigeruti pasau, baiati, ta agaz itten bere ogi baia esaun urtetan..., latz urtete(n) saun, esaun urtetan ondo. Estot askotan yan baia gose oten san ta yan in bear.»

Bezeroak

Hogei kilotik gorako garau ihartua baino ez du hartzen izan Patxito Arrietak Erdikoerrotan. Hortik behera, edo garau hezearekin, ez ei du bizitzeko etekinik ematen. Arto hezea arto iharrarekin nahastean emateko ohitura zeukaten bezero batzuek. Jakinik errota askotan ez zutela arto hezerik hartzen, zakuaren beheko aldean ipintzen ei zuten. Gainetik garau iharrarekin estaltzen zuten eta errotariari dena ihartukoa zela esan. Irinaren bila etortzerakoan, gainera, ihartuko garauarekin egindakoa gura izaten zuten osorik.

Portugalete, Plentzia, Barrika, Gorliz... inguruko herrietara eroan izan ditu irin anegak Patxitok. Egun, lagun eta senitartekoentzat baino ez du ehotzen.

Zakuetan edukitzen du errotariak eho beharreko garaua. Zakuei kordel zuria edo berdea ipintzen die, era horretan garau klaseak bereizteko.

Ehotutako garau anega bakoitzeko, 50 kg inguru, lau kilo hartzen zituen errotariak. Egindako beharraren ordain modura. Ehosari edo mendea esaten zaio kobrantza horri.

Horrekin, egindako beharra, errotaren desgastea eta teilaturaino edozein bazterretatik zabaltzen den hautsaren kaltea amortizatzeko aukera eman behar zion errotariari. Denborarekin batera ehosariaren zenbatekoa handitzen joan zen, anegako 11 kilora heldu arte.

Sikateak eta *zaharbarriunea*

Ura da orain arte aipatu dugun errota ereduaren energia iturria. Ur barik ezin eho zitekeen. Eta ondorioz, sikateak zeudenean une gogorrak bizi ziren. Garau iharra edukita ere, ezin izaten baitzen irinik lortu.

Urtarrila zezeilera arte ez zen irin zaku oso bat etxera eroaten sikate sasoietan. *Zeziñe* egoten zen denek era batean jan zezaten. Errotariren batek zerbait ehotzea lortzen bazuen garaitikoei ematen zien. Lekukoen esanetan, kontsideratuak izaten ziren. Bakoitzari errazio bat ematen zioten. Orduko familiak handiak izaten ziren, eta artorik ezin eho zutenean Lauxarrako errotara joaten ziren. Bertan, irin kilo batzuk ematen zizkieten.

> «Urtaille seseillerarten saku oso bat urun esan ekarten etzera. Se esin iyo ixete euden danantzat, eta apur bet bakotxari emote'eutzen danak yan daigun era baten. Eta bateri iyo eskeron beste etzek aren barik lotzen dire, eta aputxu bet..., errotari kontzideraduk on dire emen. Emen jente ona on da e! (...) Errotak bear itxen eseuden denporan apurke-apurke, bakotxari erresiñotxu emon. Se emen etze bakotxeko, saspi, sortzi, bedratzi, amar ume... famili andi(k) danak eta iñok esin iyo artorik, ta Lauxarrera... Eta ai(k) pere ara, danak ara, ta Josefak esate'un: –Ia ba, asko sare ta bier etorri beste aputxu bet bille. Danantzat iñ. Eta atagiñoko, aiñ ona ixen san andre, berantzako dekona bere emon itte'un askotan.»

Garaizaharra eta Askabitxu errotetan zer edo zer ehotzea lortzen zuten gauez. Horretara, etxeetan jateko apur bat izaten zuten.

Sikate sasoietan ohikoa izaten zen errota handiek zaharbarriunea egitea. Butroiko Arbiñe errotan egiten zuten, esate baterako. Halakoetan, errotariek ehota zeukaten irin zaharra saltzen zuten berria etorri arte.

XII
NEKAZARITZA

Nekazaritzan faktore biren eragina dago, batez ere: klima eta orografia. Jatabeko herria Euskal Herriaren isurialde atlantikoan kokaturik dago; hala bada, klima ozeanikoa, suabea eta euritsua dauka; isurialde mediterraneoaren aldean, eguzkiordu gutxiago, hezetasun handia, erliebe malkartsua eta sakonera gutxiko lurrak dira, askotan azidoak.

Ondorenez larreak ugariak dira, eta, hargatik, abeltzaintzak pisu handia izan du bertan.

LANTZARRA SORO EGITEKO PROZESUA

Aldi baten Jataben lurrik gehienak goldatzen eta lantzen ziren. Mendi-bizkar ugari ere *labrata* egoten ziren. Eta baso lurrak askoz murritzagoak ei ziren. *Lantzar* esaten zaio deskantsuan, landu barik dagoen lurrari.

Lurra laiatzen, *laiaten*, zezeil-marti inguruan hasten ziren lehenago. Lurra berotzen zenean, San Marko aurretxoan, hasten zituzten ereite beharrak. Eta horren seinale saltamatxinoak izaten ziren. Hauek lurrean saltoka zebiltzanean, lurra laiatzeko aro onean zegoela esan gura zuen. Santa Agedako urek, zezeilaren bostaren osteko lehen ilbeherak, lehenengo piper haziak ereiteko eta parrak inausten hasteko sasoia irekitzen zuten.

Landa soro, *solo*, bihurtzeko lehenengo pausoa belarra ebakitzea zen. Berriz landu beharrekoak ziren *gari-soloetan*, garia ebaki ostean hasten ziren beharrok. Lehenago *zerre* edo igitaiarekin ebakitzen ei zen belarra. Gure lekuko batzuek aurrekoei entzunda dakite, eta beste batzuek ume zirela ikusita, belarra igitaiaz ebakitzen. Atzamarren bat galtzea ere ez zen gauza arraroa, belarra igitaiaz ebakitzen zen aldietan.

Bostortza igarotzen zuten lehenengo, gelditu ziren belarrak altxatzeko. Bostortzaren ostean *arrastilloa* etorri zen, eginkizun bera betetzen zuen sororako erreminta berriagoa.

Gaztañeta inguruan, lehen soro zirenak, orain lantzar dira, 2009.

Behin bostortz edo *porkere* eta *arrastillo* edo karramarroarekin lotzen ziren belarrak altxatuz gero, gaitzagoa zen soroa sikatzea lurra laiatzeko orduan. Batez ere lur aroletan ibiliz gero.

Hurrengo urratsa lurra ongarritzea izaten zen. Lehenengo satsa egin lurrari eta gero laiatzen zen. Gortan azpigarritzat erabilitako otea zabaltzen zen soroan sats modura, ira baino gehiago. Harea-lurretan, lantzeko errazak diren lurretan, ote asko botatzen ei zen.

Gure lekukoek ezagutu dituzte lehenagoko laiak eta erabiltzen ikusi ere, satsitutako lurra iraultzeko. Umetan ezagutu dute, baina ez soro osoa lantzeko, ezpada idi edo behi uztarriaz goldatu ezin ziren soro bazterretarako erabiltzen zuten. Baina akorduan dute, zelan lehenago soro osoak laiatzen ziren laia zaharrak erabilita. Lau edo seiko koadriletan batzen ziren, ilaran ipini; ahulenek erdiko lekua hartzen zuten eta *solo* osoak laiatzen zituzten. Txandaka egiten zituzten etxe batzuetako eta besteetako soroak.

> «*Laietan egin dozue inoz?* Esetu bai, baia iñ es. Itxen bai ikusi nosonos, baia asko es. Ixekok babe olan itxe'un. Ixekok labra bere bai apur bet saille txikerra; ganadu sartzeko lekurik esanen egoten itxe'un laiekas, antza. Baia lelau solo osok itxen i siren, olan kuadrillen, lau edo sei para eta gero, urrengon bestena, ta olan itxen i siren. Baia nik ori estot esetu.»

Ortua laiatu aurretik, *koneju* edo untxien azpiak ateratzeko ohitura zegoen etxe batzuetan. Sanjuan patata ereingo bazuten, batez ere.

Laien ostean etorri zen *golde* edo *makiñe zaharra*, zohia soilik alde batera, eskumatara botatzen zuena. Sarritan ikusi dute gure lekukoek lurra goldearekin laiatzen.

Oja bakarreko makiñe edo goldearen atzetik, lur gogorrak laiatu behar zirenean, buztinetan esaterako, exa sartzen zuten. Ondorioz, uztarri bi joaten ziren, bata bestearen atzetik. Exa goldearen arraileti k sartzen zuten lurra aroltzeko. Goldeak, bueltan zetorrenean, aurretik egindako arraila estaltzen zuen. Eta sano lur gaitzak zirenean, uztarri bi ipintzen ziren indar egiteko, bata bestearen atzean.

Azkenik, traktorea heldu aurretik, gure lekukoek gehien erabili izan duten lurra laiatzeko erreminta *makiñe* izan da, goldatzeko makina. Gerraostean heldu zen Jatabera, kodainarekin batera. Zohiak, soroa laiatzerakoan altxatzen diren lur zatiak, alde bietara botatzen dituen erreminta, idi edo behi uztarriaren indarrez mugitzen zen.

Sasoiaren arabera, aipatu ditugun modu ezberdinak erabili izan dituzte lurra laiatu edo *lurreri buelte emoteko*.

Lurra ahal zela siku zegoela laiatzen zuten. Ezpabere, mokilak ateratzen ziren ugari, eta beharra askoz nekezagoa izaten zen, batez ere buztin-lurretan.

Laiatu ostean areatu, *aretu,* egiten zen; areaz igaro lurra. Egun batzuetan sikatzen uzten zen lurra, area pasatu aurretik. Eguzkiak jo behar zuen buelta emandako lurra. Hala izerdia bota eta lurra emankorrago bihur zedin. Horretarako euri bako egunak izatea komeni zen.

Areak lurra *aretu*, aroldu edo afotu egiten zuen. Hau da, lurra askatu edo apurtu egiten zen, hurrengo eginbeharrak errazagoak izan zitezen. Arearen ortzak lurrez betetzen ziren, lur horretatik *bedar txarrak* batzen ziren, multzoetan ipini eta su ematen zitzaien; hau da, erreturak, *erraturek*, egiten ziren. Hala esaten zaio, belar txarrekin soroan bertan eginiko multzoei su emateari. Ira lehorrak bota multzoei gainera, eta su ematen zitzaien. Lehengo zaharrek esaten zuten hori soroarentzat sano ona zela.

Area pasatu eta gero ere oraindino *mokilek* geratzen ziren askotan. Mokilak lur multzoak dira, aroldutako lurrean ere sarri gelditzen zirenak. Mokilak kentzeko, *esto* deritzen narragaz pasatzen zen soroa, *mihimen* edo *urretx* egur oholekin egindako zurezko egituraz. *Sarats* eta *lexarra* ere erabili izan dira; eta gurbitza batzuetan, garaitiko egurrak tolesteko erabiltzen zuten. *Estoa* edo narra egiteko, aipatu berri ditugun egur gogorreko bost taket sendo egiten ziren lehenengo, ahalik eta artezenak. Lantzar batean inkatzen zituzten taketok eta mihimen edo urritx egur bigunagoarekin bueltak ematen zizkieten beste bost taketei. Egur bigunek gogorrak guztiz inguratzen zituztenean eginda zegoen *estoa*. Tresna hau egiteko sasoirik onena ilbehera izaten ei zen.

> «Lelengo karramarro emon, bedarra kentzeko, olan ortza(k) dekosena. Ta agas bedarra galtzeko eta gero, satza badau, satza botau te laietu. Eta gero itxi apur beten, obeto..., erre itten da lurre ba. Eta ordun, itten sanen areas, are pasau eta gero apur beten itxi ostabere ta gero esto, narra. Basora yoan, ekarri bost estaka edo olan, onak, urretzak, ekarri

olau palu onak, etzera atariko karge ekarri, eta sartu olan illedan serean... Sartu illedan, aik estakak emen imiñi, illedan, eta aik urretzak asi an bean eta gora, sube albon iñ eta buelte emon ber ixete akon, airi urretzari. Olan buelte, an suben bigundu itten san seen, buelte emoteko. Sube albon in, eta an suben erre barik e! Eta emon, tamaiñu koiute, alan, alan... bueltaka, esku gusti(k) pere apurtu a esto itten lelau. *Orduan, zeuek egiten zenduen estoa?* Bai, geu(k) pe in'du. Mimenakas bere bai, baia orrek, urretzakas, urretza ixete(n) san.»

Lurra makinatuta ostean, idi-uztarriarekin estoa pasatzen, umeak ganean direla, 2008.

Estoa ganaduari lotu eta pisua ipintzen zitzaion gainean. Umeak izan zitezkeen, edo harriak, umeak eta harriak... Helburua *soloa* lautzea zen, horretarako mokilak apurtuta. *Estoa* nahikoa ez bazen, mazoaz apurtzen ziren mokilak. Batzuetan baita aitzurrarekin ere, baina gehienetan mazoa erabiltzen zen.

Narre, *estoa* baino handiagoa den lera itxurako erreminta erabili izan dute inoiz zeregin bera betetzeko. Lur gaitzetan batez ere, baina indar handia behar ei zen mugitu ahal izateko. Idiak behar ei ziren, eta ez zen askotan erabiltzen.

Arpela deritzana, makila biren laguntzaz lurra lautzen zuen harria, ikusi izan dute inoiz. Baina hori ez zen ia erabiltzen.

Behin mokilak birrinduz gero, ereiteko *exabarrak* egiten hasi baino lehen, tarte bat uzten zuten. Batzuetan bi hilabete ere uzten ziren. Horretara, lurrak bitamina gehiago hartzen zuen, izerditu egiten zen eta emankorrago bihurtu. San Jose egunerako soro asko gorrituta egoten ziren, eta hori lurra emankorrago bihurtzen zegoen seinale izaten zen. Lurra ereiteko prest egoten zen maiatz hasieran, gehienen esanetan, baina beti ere aro on edo txarraren menpe. Artoa eta indaba ereiteko exa erabiltzen zen; lehen aipatu diren erreminta guztien moduan, ganaduaren indarraz mugitzen zena. Exarekin *exabarrak* egiten ziren, lurrean haziak sartzeko egiten ziren arrailak. Exabarretan haziak botatzen ziren eta segituan estali behar izaten ziren, ezpabere txoriek jaten zituzten eta. Estalita guzti ere, beleek eta mikek trebetasun handia ei dute lur azaletik haziak atera eta jateko.

Beste etxe batzuetan aitzurrarekin zuloak egiten zituzten, euretan hazia bota eta lurraz atzera estaldu. Indabak, patata eta beste jenero batzuk ereiteko *sotatxurraz* soto edo zuloak egiten ziren. *Lanatxurre* edo aitzur arrunta baino arean handiagoa da, sotoak arinago egiteko. Sotoak egin eta ostean, hazia bota eta estali egiten zuten. Sorotik harri handiren bat atera behar bazen, *pikatxoi*, pikatxoia deritzan esku erreminta erabiltzen zen.

Era horretara bihurtzen zen landa bat *solo*.

ORTUA ETA SOROA: EREIN ETA BATZEN DIREN JENEROAK

Gure lekukoen esanetan, arteragokoek behar handia egiten zuten, eta eskuz. Lehenago soroak ere hormaz zarratuta egoten ziren, ortu askoren antzean, batez ere ganadurik sar ez zedin. Eta ura sorora heldu ahal izateko, palatuak egiten zituzten.

Jatabeko aldea-etxe guztietan bereizten dituzte soroa eta ortua. Eta etxeren baten, orain dela laurogei urtetik hona behintzat, baita *jardiñe* ere. Hirurak izaten ziren ereiteko lekuak. Horiez gainera lantzarra zegoen. Lantzarrean ganaduentzako belarra ereiten zen.

Solo bat baino gehiago dago aldea-etxe askotan. Eta bakoitzak bere izena du: *Solotxikerra, Lauxarralde, Goikosolo, Sagargorriko soloa...* Soroa, ortua baino handiagoa izaten da. Ortua ia beti etxe ondoan egon ohi da. Hormaz inguratuta egotea ohikoagoa ei zen, soroen kasuan baino. Ortuan ortuaria ereiten zen. Frutaarbolak ere sarri egoten ziren, eta batzuetan ortuari izena ere ematen zion, bertan fruitu bakarra batzen zenean; esaterako, *madari ortu*. Etxeko neskatoek eta ugazabandreak loretoki modura erabiltzen zuten ortuaren txatal bat. Goizetiko jeneroa ereiteko erabiltzen zen etxe askotan ortua, esaterako, *sanjuan patate*. Eta tabakoa ere erein izan da etxe batzuetako ortuan.

Soroan, lekukoen esanetan, artoa eta indaba ereiten izan dira batera. Udaberri inguruan gehienetan. San Isidroetatik maiatzaren amaierara arte ei da artoa eta indaba ereiteko sasoirik onena. Orain dela hogeita hamabost urtera arte, etxerik gehienetan garia ere ereiten zen soro baten. Udagoienean ereiten zen garia. Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoko *soloak* hobeak ei ziren ibarrekoak baino garia ereiteko. Ibarrean, beheko lurretan, arazoak edukitzen zituzten uriolekin. Etxe batzuetan gerratera arte gari asko ereiten zen. Eta hirurogei eta hamar anega gari batu

Ortua, 2008.

dituzten lekukoak ere ezagutu ditugu. Baina gerraosteko *abastos* sasoiak eta artatxoriek amaiera eman zien gariari. *Abastos* esaten diote Jataben, beste herri askotan legez, gerra eta gerraostean, baserritarrek administrazioari derrigorrez eman beharreko gari eta arto zergari.

Artoa eta indaba batera erein izan dira beti. Jataben ereiten den artoari *arto fiñe* esaten diote lekukoek. Indaba artoaren lastoaren bueltan, *trongo* gainetik, etortzen da gora. Eta horretara ez zegoen, azken urteetan indaba ereiteko ipintzen izan diren *bañepaluk* ipintzen ibili beharrik. Indaba *burumotz*, buru gorri barik ernetzen dela, esan digute lekukoek. Baita orri barik galdu egiten dela ere.

XX. mendean behintzat, gehien erein izan den indaba mota, *tolosane* izan da, *gorri motatxu zurikez*. Baina gorria, zuria, *kaspiadue* eta beltza ere erein izan dituzte, askoz kopuru txikiagoan bada ere.

Galsoroetan, *gari-soloan*, *nabo* edo arbia ereiten zuten, batez ere ganaduentzako jateko modura. Arbi-garak laban eginda jan egiten ziren, eta galiziar eskekoek estimazio handia ematen ei zieten.

Soroan baba, *babe*, ere erein izan da. Batez ere ganadu-jatekotzat. Baina *ijito-babe* deritzan baba txiker eta merkea ere ereiten zen batzuetan. Katiluzubi inguruko kaminoa egiten ibili ziren beharginei ematen zieten *ijito-babe* jateko.

Soroak San Markotarako ereinda egoten ziren lehenago. Hala ez bazen, Jatabeko gazteek ez zeukaten Gatikako erromeriara joaterik.

Ibarrean uzta hobea jasotzen ei da aro sikua dagoenean. Lurrak hobeto eusten ei dio lehorteari Goietan baino. Ikerketa urteotan uste baino beluago jaso dute uzta jatabearrek. Ez du behar besteko berorik egin, eta gero, uda beteko eguzkiak guztia galtzen ei du.

Ortuan, lehenago esan dugun legez, Santa Agedako uretan ereiten ziren lehenengo piper eta tipulak. Ikerketa hau garatu dugun urteetan, ostera, apiril hasieran erein izan dituzte ortuko jenerorik gehienak. Patata, tomatea, tipula, erremolatxa, kalabazina, piperrak, azak, porruak... eta antzeko ortuariak ereiten izan dira ortuan. Lekukoen esanetan, denetarik, baina arlo txikia ereiten izan dute. Ortuariekin batera loreak ere eduki izan dituzte ortuan, esaterako, kalak.

Piper gorriak, 2008.

Patata *lur barrin*, lur berrian ereitea ei zen onena. Baso izandako mendibizkarra izaten ei zen onena patata ereiteko. Patata sakon ereiten zen, artoaren eta indabaren aldean. *Sotok* egiten zituzten aitzurrarekin patata ereiteko.

Gerraostean patata gorria egoten ei zen. Patata handia erein izan dute Jataben, porrusalda egitean salda loditzeko ona dela eta.

Fruitu eta fruta-arbola ugari landatu izan dira Jatabeko ortuetan. Okaranak, garagarrilean batzen ziren zuri edo beltzak; *kerixek*, gereziak, mota txiki bat eta *kereix nagosi gorrik* izeneko mota handiagoa. Mahats zuri eta beltzaz aparte baziran *indi-mahatsa*, kolore granate antzekoa zeukana, eta *asta-mahatsa*, garau handi eta lodia ematen zuena. Horietaz gain *sidiri madari*, *gabon madari*, mailukiak, eta *mizperuk,* ere hartzen ziren. Azken hauek batzeko fruitua ia ustelduta egon behar da. Ikoak, *atxikok*, borobiltxoak eta *iko baltzak*, luzangagoak, uda ostetxoan hartzen ziren.

Fruitu mota batzuen izenek eurek ematen digute arbolak fruitua ematen duen sasoiaren berri.

Ortuetan ereiten ziren fruituak eta arbolak. Baina mahatsak, esaterako, etxeko portale gaineko parretan egoten ziren. Egurrezko taket luzeek eusten zieten, ezpabere, harriz egindako zutabe zilindrikoek. Oinarrian zabalagoak izaten ziren goiko muturrean baino.

Etxeko atari gainean egoteaz aparte, soroetako munetan eta bidertzetan ere egon ohi ziren mahats-parrak. Lehenago, Jatabeko etxerik gehienetan egiten zen txakolina.

Fruta-arbolek baso esparruak osatzen zituzten batzuetan. Fruitu sikuen kasuan, urritxak, intxaurrak eta gaztainak ei ziren estimatuenak. Inork erein barik, berezko basoa osatzen zuten sarri.

Gauza bera jazotzen zen beste fruitu mota batzuk ematen dituzten zuhaitzekin. *Sagarra*, sagarrak ematen dituen zuhaitza, da horietako bat. Jatabetik Andrakarako bidean, Markinarestin eta Txatximintxatatik Lemoizeko Gortetarako bidean sagardiak egoten ziren. Bertan, *urtebete sagarra*, kolore beilegikoa, eta *uane* ei ziren gehien ageri ziren sagar motak. Baita *larrabetzu sagarra* ere, sagar gorriaren mota bat, *sanpedro sagarra*, beste sagar gorri mota bat, *sanjuan sagarra*, kolore zuriduna, *gurdi sagarra*...

> «*Sagar gorriari larrabetzu-sagarra esaten deutsazue?* Larrabetzu-sagarra, larrabetzu-sagarra da, ta sagar gorri, sagar gorri da. *Bi dira orduan?* Bai, ta sagar gorrin bere badaus giau, sanpedro sagarra bere badau. *Hori bere gorria da?* Bai, ta badau suri bere. Guren iru-lau suri(k) pere oten siren, ta sagarrak ederrak ta asko emote(n) euren e! Sanjuan sagarra, suri. Gero urtebete sagarra, a san sagar ederra! Amarillo-amarillo itxen sanen, gure alden sikeran alaseko sagarrak asten siren, ta es botikarik ta eser beres e! *Mendau egiten zenduen?* Itxen gendun menda, baia en jeneral landarak ekarri. (...) Ta emon bere sagarratan itxe'euren gero! Ta len esan'tzuteles, agarrau erramatik eta amarillo-amarillo paraten sirenen ta eskuen pegata, menbrillu balitte les, eskun pegata, ta yateko gosoau! Ta es ori... yon Gabonatan-edo, bigarren korte edo ebaten bedarlekure, eta koño sagarra amen yausitte. Ta kodañen bertan kendu asala ta senbet bider yan doan, ta ondiño sagarra itzel, bera yausitte, ya Gabona(k) pasauta, ta bean ganen egonta eta goso sagarra mantenitte(n) san.»

Orain arte aipatu ditugunez gainera, belarra ere erein izan dute Jataben, ganaduari jaten emateko. Batera ereiten ziren sarri, soro berean, lekariak eta belarra. Esa-

Sagar klase desberdinak, 2007.

terako, artoa eta *frantsesa* deritzan belarra batera egoten ziren. Udaberrian ereiten zen *frantsesa*, eta artoa jorratzen zenean ebakitzen zen *zerregaz*, igitaiarekin. Orduan ereiten zen urte guztirako balio zuen *sekulebedarra* ere. Negurako gordetzen zuten *alfafe* eta *ailurbe,* satsaren bidez bera bakarrik zabaldu eta udan ebakitzen zen *gallufe*, inork zergatik ondo ez dakiela aldendu zen *trebol bedarra*, eta amoniako apur bat botaz gero neguan hamabi mozte ematen zituen *malluko* izan dira Jataben gehien erein diren belarrak.

LUR MOTAK

Jataben, oro har, era bitako lurrak bereizten dituzte lekukoek: *basalurrek* eta *otalurrek*, lur arintxoak.

Eta lantzeko lurretan ere, goldatzeko izaten duten gaiztasunaren arabera, era bitakoak bereizten dituzte: lur *arolak* eta lur *gogorrak*.

Lehenago neguan ezin izaten zen lur beharrik egin, lurren izaera horregatik. Ondoan dagoen Bakioko herrian, ostera, *are-lurrek* direnez, neguan ere zeozer egin ahal izaten zela diote. Jatabeko aldea-etxe batzuetako soroetakoak ere harea-lurrak

dira, Asteintza inguruan, eta otearekin egindako satsarekin uzta ona ematen ei zuten.

Jataben lur eremu bi bereiz daitezke nahiko modu zehatzean. Batetik Ibarra dago, Ergoien eta Erberako beheko partea hartzen duena, Butroi errekatik Julemendi eta Santa Kurtzeko bizkarren arteko eremua. Eta bestetik Billelabaso edo Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoak dautzan mendi-bizkarretako lur eremua.

Mendi-bizkarretako lurra *buztiñe* da, buztintsua neurri handi baten; kolorez origorriska, *beillegi gorrirantz urteten daun lurre*. Goldatzeko lur mota gogorra ei da siku dagoenean. Eskua sartzeko besteko *arrakalak* egiten ei dira, eta sats asko egin behar zaio, uzta ona emateko. Baina ondo areatuz gero, hobeto gordetzen ei du ura sikateetan. Ostera, buztina daukan lurra, satsik ez badauka, euriarekin dena multzotuta gelditzen ei da.

Billelabasoko lurrak lehorrak direla diote. *Arbola lurre* izena batu diogu bertako lekuko bati auzuneko lurrei esateko. Urte bi edo hirutan ukitu barik utziz gero, lizarra ernetzen ei da erraz.

Goietako, mendi-bizkarretako eta goragoko lurrak finagoak ei dira belarretarako behekoak baino, ganaduentzako onak. Eta laborantza noiz egin jakinez gero, ekarkorrak ei dira: *terreno fiñek dire*.

Katiluzubi inguruan, herri-basoak dauden lurretan, ez ei dago buztinik. *Baso siku* da, lur *flojo* edo arina. Patata eta erremolatxa ereiteko egokia.

Baso izan den lekuan zuhaitzak ebaki, eta garbitu eta goldatu ondoren, ereiteko erabiltzen den arloari *lur barri* esaten zaio.

Ergoienen, ostera, lurrak onak dira, goldatzeko errazak: Zubiaurre etxe inguruan ei daude lurrik onenetarikoak, *lur baltzak*. Lur beltza iluna da, laiatzeko erraza eta mokilik nekez ateratzen duena.

Beherago joanda, Erberan, ibaitik hurregi dauden lurretan arazo handiak eduki izan ei dituzte aspalditik, uriolak direla eta ez direla.

Uztarako, arto eta indabatarako, ibarreko lurrei estimazio hobea ematen diete goitarrek.

ZUHAITZEKIN EGITEN DIREN BEHARRAK

Lehenago aipatu ditugu Jatabeko aldea-etxe edo baso esparruetan batzen ziren fruituak. Mota ezberdinetakoak egoten ziren, bai itxuraren eta bai zolitzen diren sasoiaren arabera. Sagarrak, eta batez ere mahatsak, pisu apartekoa izan dute fruituetan. Garaigoikoa izan ei zen mahatsa Jatabera lehenengo ekarri zuen etxea, eta Frantziatik ekarri ei zuen. Baina horrezaz ostean izan dira ia mahatsa bakarrik lantzen izan duten aldea-etxeak: Maruritxikerra, Elortegi eta beste.

Gure lekukoek diotenez, aldi baten berez etortzen ei ziren fruituak. Zuhaitzak ez ziren inausten, ez eta mendatu ere. Baina gure lekukoen gurasoen denboran zuhaitzak mendatu eta inausi, *iñustu*, egiten ziren.

Fruiturik ematen ez duen zuhaitza inausteko sasoia *Domi Santuru* egunetik *Urtebarrire* artekoa izaten zela jaso dugu. Mahats-parrak eta fruta-arbolak, ostera,

lehenengo ereite lanekin batera egiten ziren: *Santa Agedako uretan*. Aurreko ataletan aipatu denez, Santa Ageda igaro eta hurrengo ilbeheran. Baina *ur bizik*, urteko itsasgora eta itsasbehera handienak eragiten dituen iretargiaren egoerak, txarrak ei dira zuhaitzak inausteko.

Mendatzea ere fruta-arbolei urtero egiten zitzaien beharra zen. Labana batekin ebakia egiten zitzaion trongoari. Ebaki hori arean zabaltzen zen bertan *txirpia* sartu edo *injertaten* zen. Mendatuko zuten arbolari indarra emateko, aukeratutako mota bereko beste fruta-arbola batetik hartutako ezpala zen *txirpia*.

Txirpia ebakian sartu eta behi gorotzarekin edo benda batekin mendatzen zuten arbola. Horretara, fruitu handiagoa eta hobea ematen zuen zuhaitzak. Gainera, ihartu eta hiltzeko arriskutik babesten zuen. Etxe askotan errementaria izaten zen arbolak mendatzen zituena.

Aipatutako beharrez gainera, zuhaitzen *eperdia* aitzurtu eta ongarria botatzen zitzaien sustraira. Gerora botika apur bat botatzen ere hasi dira zuhaitzei.

Azken urteetan, ostera, fruta-arbola ugari ihartu eta hil ei dira: sagarrak, intxaurrak, mahastiak... Lekukoek kutsadurari egozten diote errua, fruta-arbolak hain kopuru handiak ihartzearena.

Ahuntza daukate zuhaitzen areriorik handienetakotzat: ahuntzak zuhaitzari haginka eginez gero, ihartu egiten ei da.

Zuhaitzak sartzeko sotoa egiteko *arratxurre* erabiltzen zen lehenago. Basoetan erabiltzeko erreminta zen. Zuhaitzak botatzeko, berriz, hiru erreminta ezagutu dituzte gure lekukoek, zaharrenetik berrienera izendatuta: *azkore, trontze* eta *motozerre*.

ONGARRIAK

Ongarria, lurrari etekina atera eta uzta oparoa batzeko ezinbesteko osagarria izan da beti nekazaritzan. *Solori indderra emon* esaten zaio soroa ongarritzeari. Lehenago gaur baino garrantzi handiagoa ematen zitzaien ongarriei. Ongarri nagusi bi erabili izan dituzte gure lekukoek euren soroetan: satsa eta karea. Soroak ongarritzea, zeozelan, soroak bedeinkatzea, oparotasunaren aldeko jarduera garrantzitsua izan da beti tradizioko gizartean. Horren lekuko da batu dugun esaera hau: *satsa eta kare, solo bereinkatuteko hobe*: satsa eta karea, soroa bedeinkatzeko hobea.

Satsa lurrari noiz egin, aipatu dugu lehen, lantzarra soro bihurtzeko prozesuaren barruan. Baita etxe batzuetan untxien satsa izaten zela ortuan, jenero goiztiarra erein aurretik erabiltzen zena.

Basoetan otea ebaki eta aldea-etxeetako gortetara igarotzen zuten abereei azpietan ipintzeko, azpiak egiteko, azpigarritzat. Goietako etxe batzuetan ira ere erabili izan da *ganadun ohiak* zein azpiak egiteko. Baina estimatuagoa ei zen otea. Abereen gernuak eta gorotzak busti egiten zituen azpiak. Guzti horrek egiten zuen nahastea, satsa, gortatik atera eta etxearen atze aldean pilatzen zen, han egiten zen sats-piloa. Gaur egun ia egunero ateratzen dira ganaduen azpiak, baina gure lekukoek diote euren gazte denboran zortzi egunez uzten zela gortan, satsa ondo egin zedin. Eta *asteakabu* edo asteburuan ateratzen ziren. *Saspillo,* sats-piloa esaten zaio

horri, eta aldea-etxearen atzeko aldean egiten zen gehienetan, *sastegin*. Gero, unea heltzen zenean, soroan zabaltzen zen satsa.

Lurra buztintsua bazen, sats asko behar izaten zuen. Arto, gari eta indabatarako satsa derrigor-derrigorra zen, baina baita orturako ere. Etxeren bat sats faltan egoten zenean, *toto,* egiten zen, totoan egiten zen laguntza: auzoko ididunek gurdi bete sats eroaten zuten etxe horretara afari baten truke.

Baina sats larregi botatzea ere ez zen komeni izaten. Sats asko botatako lekuan, bertan ereindako jeneroari kalte eragiten zieten belar txar eta gaixoak erne zitezkeen. Horren adibide da gariaren prozesua aztertzerakoan aipatuko dugun belar txarra, *txilintxoia*.

Erositako ongarriari *abono* esaten diote. Geroz eta gehiago erabiltzen da, baina lekukoek diote satsa askoz hobea dela. Indabari, esaterako, *abonoaz* orri eta garau handiagoak ateratzen ei zaizkio. Baina satsarekin askoz zapore eta kalitate hobea ei du, ostera.

Behiaren satsa ez da Jatabeko soroetan erabili den bakarra. Ardi-satsa ere erabili izan da. Kontuan hartu behar da artegidun jende mordoa ere egon dela bertan. Eta, Gabonetatik San Jose ingurura arte, ardiak beste batzuen barrutietan edukitzeak abantaila izaten zuen, ardi-satsaz soroak ongarritzea. Lantzarrak uzten zituenak trukean ardi-satsa jasotzen zuen; hori izaten zen ordaintzeko modu bat.

Ardi-satsa guztiz ona ei da soroarentzat; belar gutxi ernetzen ei da. Asto-satsak ere belar gutxiago ekartzen ei du, eta hainbat gutxiago *kaballerin satsa* edo *zaldi-satsa* bada.

Oilo-satsa asko erabiltzen ei zen aldi batean, baina arin utzi zioten erabiltzeari. Lekukoen esanean, oilo-satsa sano indartsua da, eta neurria hartu ezik, luzera, lurra erre egiten ei du.

> «*Ardi-korotza ona da solorako?* Bai, sano ona, bedarra dakar gitxi. Asto-satzak ondiñokarren gitxiau, kaballerin satzak dakar gitxiau ondikarren. *Eta oiloena?* Ollona(k) geiau, indertzuau da. *Eta erabilten izan da?* Bai, baia arin larga zan. *Zegaitik?* Megide artzen estaulako yakin jentek. Se emen Mungitik ekarritte, batan batek soloran batera bota i un ollosatza, kosetxe itzela koiu'eren. Urrengo urten doble ekarri tte bota i un, ta baperes. Megide artzen yakin ber da, gogorra da-ta. Abono botaten bere yakin in ber da. Eta atza!»

Eukaliptoetarako ere ongarri berezia erosten dute gaur egun. Antza, horretara eukaliptoak urte beterako asko hazita egoten dira.

Lur berrietan batez ere, baina baita aurreko urteetan soro izandako lurretan ere, *kare zuri* botatzen zen ongarri modura. Mamarroak hil eta lurra aberasteko ona ei zen. *Edurre* eta karea sororako onak direla diote berriemaileek. Urak lurra trinkotzen du, baina elurrak eta kareak aroldu, zabaldu, beharrerako errazten dute. Larrua ontzeko, etxeko hormak zuritzeko eta beste hainbat gauzatarako ere erabili izan dute karea. Ez soilik lurra ongarritzeko. Jata eta inguruko mendietan kareharri ugari dago. Eta lekukoen esanetan, *karabi* edo karobiak ugariak ziren lehen. Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoan asko ei zeuden baso izkinetan, Goikomendiko bestaldean, Lemoizen zegoen *kare-kantare* handia barne, baina baita Ergoienen ere.

Jatako basoetan ezagutu izan dituzte lekukoek *karabi-zuloak*. Mungigorta etxearen bidean, Unpara etxearen kontra, Herriko Etxea baino apur bat gorago, egun Zaharren Etxea dagoen lekuaren ondoan... Gerra aurrera arteko lana izan ei zen Jataben bertan karea egitea. Harriak Lemoizetik ekartzen zituzten.

Unpara etxeko lekuko batek akorduan dauka, umetan ikusita, zelan izaten zen kare zuria sortzeko modua. Dozena erdi bat gizon egoten zen *karabi* bakoitzean. Harriak karobi zuloan erretzen ziren otea erabilita. Gau eta egun ibiltzen ei ziren, otea bota eta bota, akabuan harria kare-hauts bihurtzen zen arte. Soroa prestatu aurreko sasoian egiten zen karea.

Amaitzeko, hainbat lekukori batu dieguna gogora dezagun. Lehen *bedar usaintsu* gehiago aurkitzen ei zen landaminetan gaur egun baino. Horren arrazoia, basoetatik askoz abere gutxiago ibiltzea izan litekeela esan digute. Ganaduak berez ongarritzen ei du basoa, bertatik aske dabilenean. Orain ez dabil abererik, eta belar mota batzuk desagertzen ei doaz.

HAZIAK ETA ZIMINTERAK

Gure lekuko gehienek, inguruko herrietan legez, gazteleraz esaten dituzte hileen izenak. Baina, euretariko askok oraindino ondo gogoan ditu gurasoek hileak izendatzeko erabiltzen zituzten euskarazko izenak. Batzuek, hala ere, izen bakoitzari zein hile dagokion ez dute garbi jakiten.

Hamaikagarren hilari *zemendi* esaten izan diote lehenago Jataben. Izen horrek, *ziminttere* edo zimintera berbarekin lotura duena[1], antzinako hazia ereiteko aldiaren berri ematen digu. Esaterako, garia, zemendian, orbel sasoian ereiten zen.

Haziak urte batetik bestera gordetzen ziren. Artabururik onenak, indabarik onenak... hurrengo urterako gordetzen ziren, hazitzat erabiltzeko. Horrez gainera, *sindikato* edo nekazal kooperatiban ere eros zitezkeen haziak. Edozelan ere, kooperatiban ez ei zen hazi askorik saltzen. Ereiteko hazia edukitzeko modurik erabilienak, edo urte batetik bestera gordetzea edo batak bestearekin truke egitea ei ziren lehen.

Gure lekukoek zezeil eta martiaren bitartean ipini izan dituzte ziminterak. Lehenengo piper haziak Santa Agedako uretan, San Blas inguruan erein behar direla esaten zuten lehengo zaharrek. Eta sasoi horrexetan egiten izan dituzte ziminteretako beharrak gure lekukoek. Gero, ortuan edo soroan, maiatz inguruan sartzen dituzte landareak.

Ziminterak egiten hasi orduan, lehenago, *ota garratza* ipintzen zuten zimintera azpian lehenengo, *labar ote gogorra*; horretara *lurtxakur* izeneko mamarroak, ugariak ziren eta, lurpetik mintegira igo ez zitezen. Ote garratzaren gainean *sats handi* ipintzen zen, eta handiaren gainean *sats normala*. Akabuan, gain-gainean *sats xehea* botatzen zen; arteragoko urteko sats zaharra, xehatuta egoten zena. Ondoren hazia ereiten zen eta hazia sats xehearekin estaltzen zen. Gaur egun, loradenda eta

[1] MICHELENA, Luis. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao, 2005, 486. or.

Zimintera, 2008.

nekazal kooperatibetan ziminteretarako sats bereziak saltzen dituzte. Lekukoen esanetan, sano emaitza onak ematen dituzte oraingo sats bereziek ziminterak egiteko orduan.

> «*Ziminterak iminten ze sasoitan hasten zinien?* Simintterak imintten, segun, febrero-marti, or ingerun. *Eta ziminteretan ze jenero iminten zenduen?* Siminttere itteko, ba aspitti, lelengo sarrak, lurtxakurrek eta bere egote siren ta aik gora iyen esteien, ota garratza lelengo aspiñ imiñi. Olau labarote gogorra, eta ain ganean satza, satza andi, satza ordinario. Eta gero ganean ba satza normal antzeko, ta gero sea, arteko urteko sarra edo ingerue, seau ondiñokarren eraitteko ganen piperra. Bota aspire eta see antzeko eta bota ara asie, ta seaues gero tapa sera.»

Sats gogortuarekin lan egin behar izanez gero, *orpiko* izeneko burdinazko bost ortzeko erreminta bat, eskuz erabiltzekoa, erabiltzen zen.

TXORI-JAGOLEAK

Txorientzat jateko leku apartak izaten ziren *solo* eta ortuak. Fruituak, haziak, artagaraua... denetarik jaten dute txoriek. Artatxoria, mika eta bele beltza izan dira nekazariei burukominik gehien eman dieten txoriak.

Soro eta ortuak txorietatik babesteko modu ohikoa izan da *txorijabola* edo txori-jagolea ipintzea.

Txori-jagole asko ipintzen ziren lehen. Makila luze bi hartu eta gurutzea egiten zen eurekin; behetik gorakoa ezkerretik eskumarakoa baino luzeagoa izaten zen. Makilak alkandora eta fraka zaharrekin janzten ziren, pertsonen itxura hartuaz, horretara txoriak sorotik uxa zitezen.

Hala ere txoriek handik denbora batera amarrua igartzen zuten eta txori-jagoleak bere funtzioa egiteari uzten zion: *Artatxori pizti zuhurre da*, dio lekuko batek.

> «*Artatxoriekaz arazorik izan dozue?* Artatxorikas es orrenbeste. Emen began artatxorik nosonos igual... *Txori-jagolerik iminten izan dozue?* Bai iños, eta gu(k) baiño..., beste batzuk bere bai, baia a bere ni nauk pentzat'ot denporeas esetu itten deurela txorik ser dan. Orre(k) pistik surre(k) tosak! *Erropa zaharrakaz eginda?* Bai, olan palu bet gorantza, ta gero goien trabes imiñi beste palu bet, eta goien txapela edo sonbreru sar bat, eta alkondara sar bat eta fraka batzuk eta..., olan imintte.»

Txori-jagolea, 2008.

BELARRA GORDETZEKO ERAK

Kodaina txikerra, belarra eta otea ebakitzekoa, Jatabera lehenengoz gerraostean ekarri zuena Eusebio Olakurteko izan zen. Horren aurretik *zerre* edo igitaia erabiltzen zen garia ebakitzeko. Eta belarra *zerreaz,* igitaiaz ebakitzea ere ezaguna izan da gure lekukoentzat. Eta kasu batzuetan lekukoak eurak izan dira euren etxeetan belarra ebaki duten lehenengoak. Aurrekoek ez ei zekiten kodainaz belarra ebakitzen ere; ez ei zen behar hori egiten. Baina *kodañe* sartzeak asko arindu zuen belar-ebakitzea. Belarra goizeko freskuran ebakitzen da ondoen, eta lantzean behin kodaina zorroztu eta pikatu beharra dago. Gerri inguruan lotzen den adarraren barruan eroaten da *zorrotzarria.* Lekukoen esanean, adar barruan norberaren txiza botaz gero, zorroztarriak askoz hobeto zorrozten ei zuen kodaina. Pikatzeko, *pikemailu*, pikamailua, eta *jungude*, ingudea erabiltzen izan dira. Kodaina ingudearen gainean ipini, eskuekin ondo oratu, eta mailuarekin pikatzen da mailukada txikiekin.

Gerraostera arte ez ei zen etxeetan belar sikurik egiten. Galtzu sikua zen orduan salbuespen bakarra, *berdeaz batera* edo sikatu bako belarrarekin batera ganaduei jateko ematen zitzaiena.

Goizetan ganaduari, eta batez ere kortan geldian egoten ziren txahalei, etxetik hurrean igitaiarekin belar guria ebaki eta jaten ematen zitzaien; kortara, edo zaranean lepoz edo astoan eroaten zen belarra.

Lehenago ote eta ira metak baino ez ei ziren egiten. Otea behien azpiak egiteko, eta ira ardientzako. Metak estalduta edukitzen ziren. Beharrizana zegoenean, otea edo ira zegoen basora joan, ebaki eta etxera igarotzen zen. Belarra sikatzea gerraostetik honako kontua ei da, lekukoen esanetan.

Belarra sikatzen hasi zirenean lastategian sartzen zuten ahal zen guztia. Egur eta belar sikuz betetzen zen lastategia. Aldea-etxe handietan alogerean, *aloboren*, edo *jornaleru lez* behar eginda dirutxoa irabazten zuten jatabear gazteek, neska zein mutil izan. Belar sikuak sartzen hasi aurretik *galtzu txolak* sartzen ziren lastategira, neguan abereei jaten emateko. Tranpatik sartzen zuten galtzua, eta geroago belar sikua, lastategira. Ebaki ostean sikatzen uzten zen belarra, eguzkiak jo zezan zabaldu egiten zen lurrean eta, alde bata sikatuz gero, buelta ematen zitzaion. Kontserbatzeko ezinbestekoa zen ondo sikatzea, zeren, horrela egin ezik, kaltegarria izan zitekeen ganaduentzat, hurrengo atalean ikusiko dugunez. Abereentzako belar sikua lastategira sartzen hastea, garia desagertzen hasi zen une berean gertatu zen Jatabe aldean. Hogeita hamar urtez, gutxi gorabehera, bata eta bestea gordetzen ziren lastategietan.

Lastategiko tranparen azpian ipintzen zen gurdia. *Eskuberea* erabilita batzen zuten belarra. Biren artean igarotzen zituzten txolak barrura. Behekoak *zotzardeaz* igotzen zuen belarra eta goikoak *plega-plega intxe* uzten zuen lastategi barruan. Tranpa lastategiaren erdian edukitzea txarra zela esan digute hainbat lekukok, horretara belar gutxiago sartzen zelako.

Belar-meta gutxi egiten ei zen lehenago Jataben. Lekukoek diote giputzek egiten zituztela asko, baina eurek lastategian sartzen ez ziren belarrekin baino ez zituztela metak egiten. Beraz, etxeko lastategiaren tamainaren araberakoa izaten zen meta kopurua. Ataunetako San Martin Erdikoan, esaterako, 35-36 gurdikada belar sartzen ziren lastategi barruan.

Goieta auzoan aurkitu dugu belar-metak egiteko ohiturarik handiena. Lantzarretan egiten zituzten, behin lastategia goraino bete ostean. Neguan barrura sartzen zituzten, zuzenean abereei jaten emateko.

Meta egiteko azpian egur apur bat behar du, egurrezko oinarria, ezpabere hezetasuna sartzen zaio behetik gora. Gero behea zabaltzen zaio, eta gorantz egin ahala estutzen joan behar du. Horretara, metak zabalagoa izan behar du beheko aldetik goikotik baino.

Belarra egurrezko oinarriaren gainean zabaletik itxira estutzen hasi aurretik, egur makila bat ipintzen zitzaion goitik behera. Gogor jo behar izaten zen erdiko makila, eta bere inguruan ipintzen zen belarra. Amaitzeko makilaren gainean, metaren gailurrean zakuren bat edo plastikoren bat ipintzen zitzaion. Izan ere, bazterretatik jotzen zuen euriak ez ei zion kalte handirik egiten metari, ondo estututa egonez gero. Baina goitik euria sartzen bazen, akabua izaten ei zen.

> «Metak-eta gitxi, en jeneral lastegiñ. Sartu esiñi(k) badau, metaran bat edo bi edo seoser, batzuk igol aren giau. Baia en jeneral lastegiñ sartzen siren. *Metak zelan egiten ziran?* Metak itten sien, aspiñ meteak ber ixen dauna beti, egur apur bet bota, ta ain ganen asi mete, se ostantzen umedadea pasten dako beti(k) gora. Ta gero bea sabaldu, bea sabal bastante, ta apurke gorantza-gorantza-gorantza... istuten. Eta gero erdien goitti(k) bera, edo espabere arten, egur bet bastante fuerte yo. Sartute imiñi, eta an akaba. Ta an punten plastiku sati bet-edo, saku sati bet-edo... andi bertati ure sartu estakion barrure. Andi sartu esik, albokaldeti(k) yoten daunak estotzo kalte andirik itten mete ondo intte badau. Baia mete bere ondo intte oterik eta txarto otera, an bere diferentzi, jenero dustin modun.»

Meta gailurreko zakuak ez ei zuen belarra euritik ondo babesten. Zakua bustiz gero birritan bustitzen zen belarra, eta belarra usteltzeko edo *urdinduteko* arrisku handia zegoen. Horregatik, plastikoa agertu arte ez ei ziren jatabearrak meten zaleak izan.

GARIA ETA ARTOA

Indabarekin batera artoa eta garia izan dira soroetan garrantzi handiena izan duten gaiak. Garia ereiten zen alde batetik, eta bestetik artoa eta indaba, biak batera.

Garia

Gari asko erein izan da Jataben, orain hogeita hamabost-berrogei urte soroetatik guztiz aldendu zen arte. Garia aldentzearen arrazoia, lehenago aipatu dugun eran, gerraosteko *abastos* zergari eta artatxoriei botatzen diete lekukoek. Azken finean, nekazariek ez zioten errentagarri iritzi garia ereiteari. Jaiegun berezietan gari-irinaz egindako ogia jaten zen, eta sano elikagai estimatua izaten zen.

Garia negu inguruan ereiten zen eta udaberrian batu. Sats asko bota behar zitzaion lurrari gari asko hartzeko. Baina sats asko botaz gero, garia *itxundu eta bigun-bigundu itxen zan*. Beraz, behar handia batetik eta bestetik arriskua zeukan garia ereiteak, batez

ere arto edo indabaren moduko jenero errentagarriagoen aurrean. Orokorrean, Basordaportu edo Marutxeaga auzoko etxeetan ereiten zen garirik gehien.

Behin garia erein eta hazten zegoela *bedarrak eratzi* eta garia *yorratu* beharra zegoen. *Eratzi* esaten zaio landarearen inguruko belarrak kentzeari. *Yorratu*, ostera, landarearen enbor ingurura lurra aitzurrarekin batzea da.

Gerraostera arte *zerre* edo igitaiarekin ebakitzen zen garia. Lehengo zahar batek baino gehiago galdu ei zuen atzamarren bat igitaiarekin gariak ebakitzen. Gari asko ereiten zuten Goietako etxeetan laguntza behar izaten zuten. Eta *aloboren* edo *jornaleru* ibiltzen ziren gazteak hartzen zituzten garia ebakitzen laguntzeko.

Garia batu ostean *txurruk* edo txurruak egiten ziren. *Garburu* edo *gari buru* guztiak alde batera ipintzen ziren eta *txurrutu* egiten zen galtzua. Beraz, galburu guztiak alde batera lotzen ziren eta *trongoak* bestera. *Txurruek* sikatzen utzi behar izaten ziren egun batzuetan.

Gari-jotea, garia jotzea izaten zen hurrengo beharra. Egun beroa eta eguzkitsua izan behar zuen eta Santiago ingurua izaten ei zen beti garia jotzeko sasoirik onena.

Eguna hautatzen zenean gari txola guztiak etxeko portale inguruan uzten ziren. Inoiz auzokoaren idi-uztarriak ekartzen zituen gariak atari ondora. Gizonezkoen beharra izaten ei zen, batez ere, garia jotzea. Horretarako, etxeko eta auzoko gizonak batu ohi ziren. Eta baita *alobore* edo alogereko, soldatapean behar konkretu hori egiten zuen beste etxeren bateko edo erbesteko langileak ere.

Etxeko portalean banku luze bat, edo mukur luze bat ipintzen zen trabesean eta haren gainean egokitzen ziren garia jotzeko harlauzak. Lau harri ipintzen ziren atarien berri izan dugu, eta harri bakoitzean gizon bat egoten zen. Txurruak eguzkitan zabaltzen ziren berotzeko eta berotuta zeudenean jo egiten ziren. Zenbat eta bero handiagoa egin, hainbat eta errazago izaten ei zen garia jotzea. Izara handi bat ipintzen zen portalean, *galautsek* kanpo aldea zikindu ez zezan.

> «*Gizon asko behar zan gari-jotea egiteko?* Senbet giau obeto, baia lau bet ixete siren en jeneral arriñ oten sirenak. Bakotza(k) pere arri. Ixete(n) san trongo bat portalen imiñi trabes, ta an trongoan imintte(n) siren arri-txapak illedan, bakotza(k) beran arriek. Arri-losak trongon ganeti bera olan, trongon kontra ta gero arritten yo bakotzak.»

Andreen buruko paineluak zaman ipintzen zituzten gizonek, galautsak azkurarik eman ez ziezaien. Buruan txapela edo *galtzuzko txoto* edo kapela ipintzen zuten. Beste batzuek, ostera, burutsik jotzen zituzten gariak. Galautsak deserosotasun handia ekartzen zien garia jotzen zutenei, arnasa hartzean biriketaraino sartzen zitzaien eta azkura itzela ematen ei zuen begietan eta zaman. Izerdi eta beroarekin sano gaitza izaten ei zen galautsa garbitzea. Errekara joaten ei ziren arineketan gizonak gari jotzea amaitzen zenean.

> «*Garia joten zenduenean zapirik iminten zenduen galautsak ez piketako?* Gari yoteko, en jeneralen, onen enbran buruko paiñeluk ixete(n) siren, samati amarrata. Ta goien txapela edo sonbreru, beste batzuk bapere eseren imintten, burutzik ibiltten siren. Galtzuzko sonbreru, ordun esan oten besterik.»

Galautsa etxeko ganbararaino zabaltzen zela diote lekukoek. Eta eurak, orduan umeak oraindino, pozik ibiltzen ei ziren *galtzu txolak*, garaua jo eta askatu ostean geratzen zen gari lastoak *kamarara igeroten*. Zantzo eta jai giroan gertatzen ziren gari jotzeak.

Sangria prestatzen zen, gari jo bitartean gizonezkoek edan zezaten. Bakailaoa saltsan prestatzen zen bazkaritarako, eta taloak erretzen ziren. Gomuta pozgarriak dauzkate gure lekukoek gari jotzeen inguruan. Hala ere guztiak bat datoz, behar modu gogorra zela esatean.

Gariak gaitz bi izaten zituen gure lekukoen sasoian: *lodoi* eta *txilintxoi*. Lodoiak *gari-soloaren* zati batzuei eragiten zien. Eta garia belztu egiten zuen. Txilintxoia, ostera, gari landarean gora igotzen zen belar txarra zen. Sats asko botatzen zen lurretan agertzen ei zen.

Garia errotara eroaten zen ehotzeko, eta gero ogi gozoa egiteko. Galtzu txolak, ostera, ganaduei jaten emateko eta gauez zuzi modura erabiltzeko gordetzen ei ziren batez ere.

Gerraostean jatabear batek gariak garbitzeko makina erosi zuen. Auzo osoak erabiltzen zuen. Eta makina-jabea izaten zen makina etxerik etxe eroateko ardura zuena.

Afalostean makina martxan ipini eta garia garbitzen zuen.

Lehenago garia garbitzeko erabiltzen zen makina, 2008.

Artoa

Gure lekukoen sasoian artoa eta indaba batera ereiten izan dira. Soro arlorik gehien hartu izan du arto eta indabak, Ergoienen eta Erberako ibarreko lurretan batez ere.

Indaba arto landarearen inguruan gora igotzen da, eta gero handik askatzeak behar handia ematen ei du. Artoa ereiteari utzi zitzaionean (gaur egun sano *arto-solo* gutxi ikusten dira Jataben) hasi ziren indabak *bañepalu* edo eta *butroi kañubere* (indi kainabera) zutarri moduan erabilita ereiten.

Artoa eta indaba *sotora* ereiten ziren. Aitzurrarekin sotoak egin, haziak hara bota eta sotoak lurrez estaltzen ziren. Artoa azal erein izan da beti, ez sakon, patata egin den modura. Lurrak azaro ona bazuen ereitorduan —hau da, bero bazegoen—, seigarren egunerako ernetzen ei zen indaba, dena ondo doan seinale. Ezpabere, indaba hamabosgarren egunean ernetzen bazen eta bururik egiten ez bazuen, lurra ez zegoen ezer ereiteko moduan.

Artoa ernetzen hasten zenean *mehaztu* egin behar zen, *pare bateti bat atara*. Indartsu haz zitezen, eta leku berean landare gehiegi egoteagatik elkar indargabetu ez zezaten, batzuk atera egiten ziren, mehaztu egiten zen.

Artoa hazi ahala, *bedarrak eratzi,* landarearen inguruko belarrak kendu, eta artoak *jorratu*, landarearen sustrai ingurura lur apur bat bota, hori zen egin beharrekoa.

Arto mota bat baino gehiago erein izan da XX. gizaldian. *Txakinarto* mota maneiatzeko gustagarria da. Txola apurtzeko ere lasto txikerragoa izan du eta burua finagoa dauka arto arruntak baino. Baina arto arrunt edo normalak kopuru handiagoa ematen du eta hain zuzen horregatik erein da gehiago beste motak baino. Olea etxeetan asko ereiten zen *txakinartoa*. *Artomitxiñe* arto txikiari esaten zaio, eta ganaduari ematen zitzaion.

Artoaren garaua dagoen goiko aldeari *artaburu* esaten zaio. Artaburutik gora doan zatiari txola, *txole*, esaten zaio, eta nondik askatu jakiteko marka dauka. Enborrari *trongo*, eta artaburua kendu ostean ganaduari ematen zaionari *lasto*. Garaua kendu ostean, artaburuari *burutxe* esaten zaio. Artaburuaren gainean hasten diren bizar modukoei *artobizerrak* esaten zaie, eta gaztetxotan erre izan dituzte lekukoek zigarroan bilduta.

Artoa maiatz inguruan ereiten zen eta udagoienean batu. San Markotarako ereinda egon behar zuen lehenengo artasoroak.

Artaburuak batu eta gero, *zurittu* egiten zen. Etxeko karraju edo portalean zuritzen ziren. Sarritan auzo beharra izaten zen; auzokoek elkarri laguntzen zioten, arto kopuru handiak zuritu behar izaten ziren eta. *Tertuli moduko* izaten zen arto zuritzea. Herriko kontuen gainean berba egiteko une aproposa. Artaburuari *zape* kentzea da zuritzea. Bakoitzak zaran bat izaten zuen eta artaburuari zapak kendu ostean zaranera botatzen zen. Zapak ganaduari ematen zizkioten. *Garo* edo garau gutxiko artaburuak ere *zapartera* botatzen ziren.

Artoa zuritu ostean *labasu* egiten zen eta labara botatzen ziren artaburuak, garaua *ihertuteko*. Etxearen gaineko atalean deskribatu ditugu labeko tresna eta sugarriak.



Fernando Egia artoak zuritzen, 2008.

Zestotxu batekin jaurtitzen ziren artaburuak labera. Tontorrak ateratzen ziren hainbeste artaburu botata, eta *birikiaz* berdindu behar ziren labe barruan. Gero, pala modukoarekin buelta ematen zitzaien artaburuei. Hurrengo, labearen ahoa estaltzen zen, eta zuhur ibili behar izaten zen artaburuak *baltzittu* ez zitezen. Lehenengo orduan *bijilantzi handi* egin behar izaten zitzaion, hortik aurrera ez horrenbeste. Artaburuak beltzen ikusiz gero, arin mugitu eta buelta eman behar izaten zitzaien. Puntua hartu beharra zegoen. Labea denbora luzeegian estaliz gero, beltzeko arriskua zegoen. Baina gutxiegi estalita *garanduteko* edo garantzeko gaitz gelditzen ei ziren.

Artaburuak labean sartu eta hurrengo egunean joan behar izaten zen *nontzebarri*: artaburutik eskua igaro eta *esku bete garau* lortuz gero, ondo ihartuta zegoen.

Hurrengo pausoan *astora* ekartzen ziren artaburuak zaranarekin, eta mazo batekin jota garantzen ziren.

Azkenik, arto-irina egiteko, errotara eroaten zen ihartutako artagaraua zorroetan sartuta.

> «Gero sestotxu beteas-edo sartzen dire artaburuk, gixonak, se indderra ber ixeten da orretarako bere, eta sartzen dittus artaburuk, bardinduten'txus, garbitxute osten e, eta gero labe bere esin da tapa-tapa in, bitxarteas itxi ber da. Eta segun selan don kolore artzen, bijilantzi andi in ber

dako ordubete ingerun, gero andi(k) gora es ainbeste. Segun selan don kasureko ordu erdin, baia aditxu in ber dosu ia gorri edo baltz paraten dosen, eta baltzitxen bados artaburuk, ensegida mobimintxu. *Erre ez daiten?* Bai, egosten oten da alan, ixerdi okitxen deure. Emon bueltatxu, eta gero ostabere barrin, iru-lau bider in ber ixeten dako asikeran, se dana tapa eskeronen baltzitxu itten da. Eta tapaten espadosu bere osbiurtu itxen dire, lotzen dire garanduteko gatz. Eta gero egun bet edo bi segun selan dausen yon... Urrengo egunen yoten nas ni nontzebarri, selan dausen ikusteko. Eta gero olan intxe, eta eskubete garau itxitxen badotzu, ordun oten da karamelo, ordun. Eta gero asto esaten'tzu, olau aparato bat, or dau sar bat, ara ekarri saranaas ta masu beteas yo.»

BEHARRERAKO ABEREAK

Soroa goldatzeko idiak erabiltzen izan dira aldea-etxe indartsuetan. Herriko batzuek euren etxeko idi-uztarriarekin beste batzuen soroak goldatuz ere jornaltxoa ateratzen zuten sasoi baten.

Beste etxe askotan behiak erabili izan dira soroa makinatzeko. Behi suitzarrak izan dira gehienetan. Indartsuak ei ziren eta ez ei ziren garaitiko beste arraza batzuk bezain esnetsuak. Ondorioz, ez zuten esne askorik galtzen suitzarrak soro beharretan erabilita. Hala ere, normalean esnetarako erabiltzen ez ziren beste arraza batzuk ere ikusi izan dituzte gure lekukoek uztarturik, behi pintak, esaterako. Gauza jakina da eta gure lekukoen artean: *buzterrin imintxen dan behieri esne adarrera iyeten dako*; uztarrian ipintzen den behiari esnea adarrera igotzen zaio.

Basoko lanetarako ere, zuhaitzak gurdiz ateratzeko, behiak erabili izan dira. Harrobietako materialak garraiatzeko idiak erabiltzen ziren. Kamineruek baso behi gogorrak erabiltzen ei zituzten sasoi batean.

Bestetik, aldea-etxeko beharretan garrantzia berezia izan du astoak. Beharrerako, zamari legez, belarrak, ortuariak, irina eta beste hamaika jenero igaro edo garraiatzeko erabili izan da. Gainera, etxerako bidea ondo jakiten zuen, baita gainean joaten zena loak hartzen zuenean ere.

Azkenik, zaldia ere abere garrantzitsua izan da garraioari begira. Indar asko eskatzen zuten lanetarako baino gehiago, erbeste-herrietara ortuariak eroateko, medikuagana preminaz joateko eta antzeko zereginetarako erabiltzen zen zaldia. *Zaldi-karroan* eroaten ziren produktuak. Eta ondasunik garraiatu behar ez zenean, zaldi gainean bidaiatzen zen, beste barik.

ALDEA-ETXEKO JENEROEN SALMENTA

Bendeje esaten zaio plazara saltzeko eroaten diren aldea-etxeko produktu guztiei.

Mungia, Plentzia eta Gorliz izan dira Jatabeko baserrietako jeneroaren salmenta gune nagusiak. Lehenengoa eta bigarrena aspaldi-aspalditik izan dira eskualde mai-

Trinidad Lopategi eta Mª Angeles Larrazabal Plentzian, San Andolin bezperako plazan, 1950eko hamarkadan.

lako merkatal gune nagusiak. San Andolin bezperan, esaterako, Plentziako plazan salmenta handia egiten zuten Jatabeko *bendejerak*. Gorliz, ostera, Bilbo aldetik zetozen udatiarrek indarra hartzen joan ahala bihurtu zen inguruko baserritarrentzat merkatal gune oparo.

Lehenago, aukera zutenek zaldi-karroan eroaten zituzten euren soro eta ortuetako jeneroak plazetara. Garrantzi handikoa izan zen gomazko gurpildun lehen zaldi karroak heldu zirenekoa Jatabera, Errekaldeberrin erosiak. Baina gehienek astoz eroaten zituzten euren jeneroak.

Hala ere, gogoan dute lekukoek, ume txikiak zituzten andreek, plazara joateko otzara handi eta zabalak prestatzen zituztela. Gizonek laguntzen zieten eta gero otzarak buru gainean *sorki* izeneko paineluaz ipini eta plazara joaten ziren. Sasoi haietan, uda partean, Bilbora joaten ziren Jatabeko *bendejerak* ortuaria saltzera.

Piperrak, tomateak, azak, frutak, gazta... izaten ei ziren gehien saltzen zituzten produktuak; baina beti ere etxe bakoitzaren aukeren eta ekoizpenaren araberakoa izaten zen eskaintza.

Gaur egun Mungiako plaza barikuetan izaten da. Baina lekukoek oraindino gogoan dute, lehenago zapatuetan izaten zela. Plentziakoa domeketan izaten zen, eta ez ziren gutxi asteburuan herri bietara joaten zirenak euren jeneroak saltzera.

Mungian Foruen enparantzan egiten zen ortuarien salmenta, egun kioskoa dagoen plaza berean. Plazara martitzenetan eta barikuetan, astean birritan, joaten

Bendejerak Mungiako Foruen Plazan, mende hasieran.

ziren *bendejera* batzuk. Plazan zortzietan egon behar izaten zen lekua hartzeko. Lehenengo heltzen zenak trapua ipintzen zuen behearen gainean eta lekua hartzen zuen. Mungian asko saltzen zen, eta euria egiten zuenean *portiku* edo arkupeetan babesten ziren.

Plentziako plazan jatabear ugari batzen ziren. Elizako arkupe eta enparantzan paratzen ziren andre saltzaileak. Tirabira eta lehiak ere izaten ziren euren artean elizako atetik hurren zeuden lekuak hartzeko; mezatatik irteten ziren *señorak* izaten ei ziren bezerorik onenak eta. Hauek batzuetan, postuan eskaria egin eta *bendejerak* bezeroaren etxera eroaten zuten mandatua.

> «*Hemetik bendejeagaz nora joaten zinien?* Plentzire, plasara. Plentzin plase domeka gustitxan oten san. Plentzire asko yon nas, patate ta danatarikoas, astoas. Danatariko, ardure barik karga asto. Batzuten plasan barruraiño sartze(n) naun, leku on eskero, ta gero ikusten basittuse astoas deskargaten arin yoten da jente. An eskuten jentek ibilliko barik, aillega eta erako koisteko. Estere gure ixeten an jentek eskuten ibilliko jenero. *Eta zelan hartzen zenduen lekua? Lehenengo ailegetan danak gura dauena hartzen dau?* Yoten dana koisten dau, ta igual berantzako ta albokontzako, lar sabaltxu imiñi tte batan bat sartzeko. Oten siren orren ganerako peleatxu(k) paia bueno. *Leku batzuk hobeak ziran?* Elixati urtekeran koisten siren señorak, aik jenerori inportantzi emote'utzen, eta pagateko bere obak ixete(n) siren *en jeneral*. Se onek erosi-saldu dabiltzesenak, dana deke gusurre ta dana tranpe, ta kristok itten deude. Ta

gurau ixete(n) gendun atariko nausikes sartu, ta etzera eron jenero, baia etzera eroteko bere bi, alkar lagun oten giñen, eta etzera eroteko bere prest, se jenero partide artze baoskun biori, ai(k) danak artu ta ondo kargata beraas erote(n) san. Ta beste an saltzen aurrera. Ta saldu ta boltza baten ain diru, ta besten noperana. Nik laguneas eguno estot euki peseta baten diferentzirik!»

Produktu onak eroanez gero, arin saltzen zuten dena. Baina hain onak ez zirenak, *zaburrerik*, saldu ahal izateko eguerdira arte lotu behar izaten zen.

Andre saltzaileek ez ei zuten gura izaten, atzera etxera jenerorik eroatea. Horregatik, plazako salmenta amaitzen zenean, herriko dendei saltzen zieten saldu ez zuten jeneroa, arean merkeago.

Gerra aurre eta ostean sano diru gutxi egon zen aldea-etxeetan. Etxekoei jaten emateko artoa eta indaba izaten ziren oinarri. Saltzeko apur bat lotuz gero, zorte handitzat hartzen zen etxeetan, gerraostean batez ere, arto eta indabak urrea balio zuten eta: indaba kiloak 10 pezeta balio zuen; diru asko orduko sasoian.

Ortuariekin antzeko zer edo zer jazo zen. Dirua irabazteko modu bakarra ortuariak saltzea zen, arto eta indabarik soberan ez zuten etxeetan. Ortuariak prezio onean saltzen ziren, eta batez ere aberatsei saltzen zitzaizkien. Aldea-etxeetan, sasoi hartan, ez ei zen ortuaririk jaten; saltzeko izaten ziren.

Aldea-etxe batzuetan gosea igaro arren, arrautzarik txikerrenak jaten zituzten. Handienak saltzeko izaten ziren derrigorrean. Era horretara zuzendutako diruarekin bakarrik eros zitezkeen orduko jendeak guztiz beharrezkotzat zituen olioa eta tabakoa.

Gaur egun ere barikuetan Mungiako plazara joateko ohitura sendoa dute jatabearrek, euretariko asko erosle legez joan arren.

MAMARROAK, BOTIKAK, BELAR ETA LANDAREEN GAIXOAK

XX. mendearen bigarren erdira arte ez zaio *soloari* botikarik botatzen izan. Erreturak izan dira, berriemaileen esanetan, lehenagoko botika. Area lurretik igarotzean, arearen ortzetan lotzen diren belarrak piloetan batu eta gero sua ematen zitzaien. Horretara garbitzen izan da lurra gaitzetatik.

Bestetik *barakillek* hartzen ibiltzea etenbako beharra izaten zen. Satorrari guardia egiten zitzaion eta lurtxakurren aurkako neurriak hartzen ziren mintegiak egitean.

«Satorrakas uden lotu beres. Satorrantzako aparato dau, baia aparato paga in ber da ainbetxu, asko kostaten da, eta... Ori dinamite dekona. Txikitxu be(t) ta, andi esta, ta imintten da yo in daun lekuen, ta an imintten da aparato, ta iltten'ttus ainbet e! Se bedar lekuten ta, ebaitteko-ta kalte itzela itte(n) ixen'tze len. *Eta lehenago zer egiten zan satorrak hilteko?* Guardi, baia guardi... Satorra(k) pute(k) tire e! Ointxe ibilko datzu solo bastarren yoten, etorko sara etzera, yongo sara atxurreas, parako sara guardi itten, ta an sar ingo sara areas. Surrau(k) tire surrauk! (...) Satorra itzu

dala esaten deure, baia entzuteko kasuen, satorra baiño bitxo surraurik estau. Ak laster igerten dau esetariko seri(k) padau.»

Detano izenekoa zen gure lekukoek gogoan duten lehenengo botika. Patatari botatzen zitzaion kakarraldoa hiltzeko eta orain 50 urte inguru agertu zen. Goizeko freskuran botatzen zitzaion patatari.

Gerora heldu zen *sulfatadora* eta bere bidez botatzeko botikak. Tomateari goizetan bota behar izaten zitzaion orrira. Goizeko eguzkiak eta garoak tomateari gaitza ekartzen ei diote.

Hala ere, badago hainbat gaitz, udagoieneko *lehi-baltza* esaterako, botiken bidez ere saihestu ezin daitezkeenak.

Bele eta artatxoriei aurre egiteko pozoia erabiltzen hasi ziren orain hamarkada pare bat. Nekazal kooperatiban saltzen zen, eta orain askoz txori eta erle gutxiago egotearen arrazoietariko bat hori ei da, hainbat lekukoren ustean. Esaterako, sasoi batean eperrak aldendu izana, gariari belar txarrak kentzeko botatzen zen botika baten erruz dela diote. Izan ere, botika hori aldatu zenetik eper gehiago ikusten ei da.

Sasoi batean *har gorri* plaga egon ei zen, artoari gogor eraso ziona. Har gorria sano txikitxoa eta gorria da. Gaur egun ere agertzen da lantzean behin, baina ez ei dago lehengo beste.

Euli zuriaren plaga egon da ikerketa hau garatu dugun sasoian, eta tomateari gogor eraso dio.

Berriemaile guztiak bat datoz esatean, orain gauza guztiei bota behar zaiela botika, eta gero eta gehiago. Hala ere, mamarroak ugaritu egin direla pentsatzen dute lekukoek.

Azken hamarkadetan Jata mendiaren itxura guztiz aldatu da, eukaliptoa modu masiboan sartu denetik. Eta akabuko urteetan gaitza sartu zaio eukaliptoari ere. Lurrera botatzerakoan igartzen ei zaio gaitza daukana. Oraindino, behintzat, ez ei dago gaitza guztiz zabaldurik, baina bai baso esparru batzuetan.

Jatabera heldu zen lehenengo belar txar plaga *txominbedarra* izan zen. Ameriketatik ekarri ei zuen itsasgizonen batek lorea zelakoan. Aitzurrarekin sakon aitzurtuta, sustrai eta guzti kendu behar da txominbelarra. Baserritarrek beldur handia diote belar txar horren plagari. Txori eta traktoreak dira, adindunen esanetan, txominbelarraren plaga zabaltzen dutenak.

Beldur handia izan zaio beste belar txar bati ere, *propietario bedarra* esaten zaionari. Arin hazten da eta adarrak sasiz beteta ateratzen zaizkio. Txominbelarra txiki lotzen zen beste honen aurrean. Eta *propietario* izena ematen hasi ziren, belar txar hori ugari irten eta soro osoaren jabe egiten zelako.

Estimazio txarreko beste belar bi, suge-belarra eta sorgin-belarra dira.

SOROKO BEHARREI LOTUTAKO ESAERA ETA SINESTEAK

Herri egutegi, bizitza ohikunde eta mitologiaren gaineko ataletan banatuta ageri dira nekazaritzarekin lotura estua duten hainbat sineste. Kultura interkonektatuta

dagoen errealitatea da, geuk, ulergarri bihurtzeko zatitu egiten duguna. Beraz, atal honetan ereitearekin eta baserritarraren kezka etenbakoa den aroaren inguruko beste sineste batzuk adieraziko ditugu.

Lurrarekin lotutako lanetan garrantzia handia ematen diote gure lekuko gehienek iretargiari. *Urek behean* edo *ur beheran*, ilbeheran erein behar ei da. Tipularen kasuan, esaterako, hala egiten ez bada, *kinpullek gora iyeten dau*. Zuhaitzak eta parrak inaustea ere ilbeheran egin behar dira, zuhaitzak hilik daudenean egin behar da gainera, *Domi Santuruti* urteberrira bitartean. Ezpabere zuhaitz eta landareek ur larregi galtzen dute. Zuhaitzak ilbeheran bota behar dira. Guztiak haltza izan ezik, horixe da ilgoran bota litekeen bakarra.

Ur bizitten, iretargi betean ez ei da lanik egin behar aldea-etxean. Hiru egun dira, eta hirugarrenean daude urak bizien. Ez ei da sasoi ona ezetariko beharrik egiteko; eta bereziki txarra inauste eta ereite lanetarako. Edo horrela zen orain bizpahiru hamarkadara arte. Orduan hasi ziren eukaliptoak sartzen, ur bizietan egiten den behar bakarra.

Iretargi berritan, iretargiaren adarrak hartzen duen formaren araberakoa izango da urte horretako aroa. Adartsuago irteteak edo adar txikiagoarekin hasteak bere garrantzia dauka.

Neguan ilbehera zortzi egun inguru izaten dira. Lan egiteko aprobetxa litezkeenak. Ilgorako lehenengo eguna *baju* da, eta beharrerako aprobetxa liteke sano estu ibiliz gero, baina hortik aurrera ez.

> «Ni iretargies bai, asko ibil nas. (...) Oki dotena kostunbre, menguanten eta olan, kinpulek eta olan imintte, ilberen. (...) Ure(k) bera menguante da, ta menguanten esaten deure, sortzi egun ingeru, negun sortzi egunen in lei aprobetxa. Baia menguanterik urrengo, gero *creciente* datortzu. Ta *creciente* bere egun bet ixeten i da baju, egun beratan, ta gero gora dotzu. Gero betera. Eta bete esaten deure, irugarren egunen ondiño beteau oten dala, ondiño bixiau. Eta gero berantza asten da. (...) *Orduan iretargi betegaz behar gitxi egingo dozue?* Bueno, baia gausa batzu(k) taus, ostera, okalitu planta ber da iretargi beten. Nondi(k) nora! Iretargi beten eta barriñ, obeto dator. Batzuk uren goran erresultaten deude, ta beste batzuk beran. Baia ilberen gausa geienak, arbole botateko bere udagoieneko ilberen. Arbole botateko *muerto* daunen. Eta podak itteko, Domi Santuretatik, urte asi arten.»

Eguzkiari *Lorentzo* esaten zaio eta iretargiari *Katalina*. Sargori handia egiten duenean ere *Lorentzo* esaten da.

Haxe berde esaten zaio kalte egiten duen haizeari.

Udan uzta galtzeko beldur handia egoten da, maiatzaren 3tik irailaren 14ra batez ere, trumoia solte dabilen sasoian. Udako egun arriskutsuenak honakoak ei dira.

Sargori itzeleko eguna, *herriko haxe* beroa lagun duela. Lehengo zaharrek herriko haizeak jotzen zuenean *errekara!* esaten zuten, buru eta hezurretan eragiten duen bero larria dakarrela eta.

Bat-batean haizea aldatu eta mendebala sartzen da; mendebaldetik hauts antzeko *hedoi* edo hodei lodi bat, guztia estaltzen duena. Hodei horri *itxos-izortza* esa-

ten zaio, *izortza hedoi esate lez,* eta denbora aldaketa ekartzen ei du. Batzuetan zirimiri apur bat ekartzen du eta gero eguzki txangota irteten da, behea bustita dagoenean indar biziz ateratzen den eguzkia. Buruari eragiten ei dio eta eguzkitatik erretiratu beharra egoten ei da, ezpabere bat gaixotu egin liteke eta. Horren ostean *trugonade* etortzen da eta orduan jausten da *abazuze* edo babazuza, baserritarren uzten kaltegarri.

XIII
ABELTZAINTZA ETA ARTZAINTZA

ABELTZAINTZA

Lehenago, autarkiazko ekonomia nagusi zenean, aldea-etxeetan ia ganadu mota guztiak hazten ziren, etxeko elikadura-beharrizanei erantzuteko. Espezie bakoitzeko ez zuten abere asko izaten, baina garrantzitsua zen mota askotako abereak edukitzea.

Azken urteetako espezializazioaren eraginez, askoz arraza gutxiago hazten dira, eta aldi berean, arraza produktiboagoak sartu dira. Horren ondorioz, animalia txikien hazkuntza gutxitu edo bertan behera geratu da. Esate baterako ahuntz, koneju, ahate, uso eta beste hegazti batzuk ia aldendu egin dira gure aldea-etxeetatik. Nekazaritza mekanizatu ahala, era berean, beharrerako erabiltzen ziren animaliak edo gurdi-abereak baztertu egin dira. Horrexegatik ia guztiz aldendu dira idiak, mandoak, astoak eta zaldi arraza jakin batzuk.

Oraindino ere, edadeko jende askok, espezie bakoitzetik gutxi eduki arren, espezie diferenteetako abereak haztean oinarritutako eredu tradizionalari eusten dio, ohiturari eutsi guran, jakin arren ekoizpen aldetik bideragarritasun gutxiko eredua dela.

Behiak eta ardiak izan dira esne produktorerik garrantzitsuenak, eta batez ere behiarena aprobetxatu da etxeko kontsumorako. Biztanle-gune sakabanatuak izateak ganadua aldea-etxeko gortan hazteko aukera eman du, eta etxearen parte izan dira. Isurialde atlantikoko eguraldiaren eta landaretzaren ezaugarriak kontuan hartuta, ganaduek basoetan ez eze, mendi bizkar eta ibarreko larra ugarietan janaritu dira. Abeltzainak esne produkziorantz jo du, eta batez ere behia bultzatu da. Garrantzi handikoa izan da ardia ere, ardi-lana ematen duelako eta ardi-esnea gaztak egiteko erabili izan delako.

Hazten diren espezieak

Jatabeko etxe guztietan egon da ganadua. Gure lekukoek oinarrizko bereizketa egiten dute etxe-abereen artean: ardiak alde batetik eta ganadua esaten zaiona bestetik, hau da, idi, behi eta txahalak. Esan digutenez, Billelabaso auzoan, esaterako, baserri-etxe bakoitzean hamasei ganadu ei zeuden bataz beste.

Ardi eta ganadu tipoen arteko banaketa horrek erreflexu zuzena ei dauka Goieta eta ibarreko biztanleen espezializazioan. Izan ere, Erbera eta *begen* edo ibarrean jendeak idiak zeuzkan. Goieta, Basordaportu edo Marutxeagan, ostera, artegiak ziren nagusi.

Ganaduen artean behiak eta idiak izan dira garrantzitsuenak. Idiak soloko indar beharrak egiteko eta zamak garraiatzeko erabili izan dira. Indar beharrok behiekin egin izan dira idiak edukitzeko adina aberastasun edo ondasun izan ez duten aldea-etxeetan. *Behi suizek, baltzak* edo suitzarrak uztartu izan dira behar gogorretarako, *baso behi* eta nahasteko arraza zeukatenekin batera. Behi eta idiak orain berrogei urte inguru hasi ziren baztertzen indar beharretarako. Sasoi horren inguruan ekarri zuen lehenengo traktorea Jatabera Pedro Zubiriak, *Maxi Ferguson* markakoa.

Ostantzean, esnetarako behiak eduki izan dituzte, batez ere *pinta holandesa* arrazakoak. Azken urteotan, abeltzaintzaren inguruko politikek arraza batzuk bultzatu dituzte. Horri zor zaio, gaur egun jatabear batzuek *behi pirenaikoak* edo Pirinio arrazako behiak edukitzea. Behi horien esnearen kalitatea dela eta sariak irabazi izan dituzte. *Ganadu gorri* esaten diete behi eta txahalei.

Josefa Bilbao, Foru Aldundiak ganadu-txapelketan paradako zekorrari emandako sariarekin. Plentzia, 1954.

Ganadu gorria esnetarako edo okelatarako ustiatu izan da. Batez ere esnetarako jagon dituzte behiak gure lekukoek, baina badira, era berean, okelatarako txahalak hazten dituztenak ere. Akabuko urteotan hartu du indarra okelatarako abelazkuntzak.

Etxeren batzuetan, Zubiaurren esaterako, paradako zekorra eduki izan dute. Eta *zekor zaharra* ere erabili izan dutela esan digute berriemaileek.

Ganadu gorriak, jaten emateko, basoan solte uzten zituzten gure lekukoak gaztetxoak ziren sasoian.

Behorrak eta zaldiak ere basoan solte egoten ziren. Etxe guztietan ez zuten edukitzen behor eta zaldirik; esan liteke batez ere aldea-etxe aberatsenetan eta baso ingurukoetan egoten zirela. Zaldi-karroa ere etxe gutxitan egon zen. Izerdi deritzan etxean egoten ei ziren zaldiak ugari, *kaballeri*. Baina azkenean guztiak saldu ei zituzten, zaldiari jaten emateko asko behar zela eta. Behorrak ere etxe gutxi batzuetan baino ez ziren egoten; Portumetan, esate baterako. Sarakotxetan, ostera, zaldiak eta behorrak zeuzkaten. Zaldi-behorren artean arraza nahasketak egiteko Belategiko landara eroaten zituzten.

Txerriak ere solte eduki izan dituzte janaritu zitezen. Txerri-saltzaileari, *zerderuri*, erosten zizkioten. Euskara eta erdararen erdi-nahaste bat egiten zuen *Mungiko zakeru* zeritzana ei zen txerri-saltzaile ezagunenetakoa. Lekuko bati berari ere ez diogu entzun euren etxean *txarri arkele* edo makerarik, txerri emerik, edukitzen zutenik.

Teodoro Elorriaga, c. 1945.

Astoa etxerik gehienetan egoten zen. Zamari moduan erabiltzen zen, belarra edo plazarako jeneroa igarotzeko. Asko jaten duen aberea ei da, berriemaileen ustez.

Akerrak gortan edukitzen zituzten garaitiko abereak gaixoetatik babesteko. Ahariak basoan egoten ziren solte eta Marutxeagako etxerik gehienetan egon izan dira artegiak. Ardi *burugorrik* ziren gehienak, gerora *burubaltzakaz* nahastu baziren ere.

Ahuntzak ere basoan egoten ziren. Eta arrisku latza izaten zen zuhaitzentzat, hazten zeuden landareentzat batez ere. Kontuan hartu behar da ahuntzaren haginkadak zuhaitzak ihartu egiten dituela. Lekukoen esanean, ahuntzak ardirik ez zegoen aldea-etxeetan egoten ziren batez ere.

Konejuak edo untxiak *konejeretan*, 2008.

Koneju edo untxiak gorta barruan edukitzen ziren, *konejeratan*. Ondo saltzen ziren, baina bat hilez gero beste guztiak hiltzen ziren handik gutxira. Gaur egun, Katiluzubitik gora *koneju granje* dago eginda, untxi haztegia. Egunean 500 untxi saltzen ei dituzte.

Oiloak ere aldea-etxe guztietan egoten izan dira. *Soltun,* soltean ibiltzen ziren oiloak, *txitxek*, txitak etxe barruan hazten bazituzten ere.

Palome edo usoa ere hazi eta jan egiten zen, eta urteren batean mahastietan kalte handiak egin zituztela gomutan dute gure lekukoek. Iruña edo *batzoki* tabernan ei zeuzkaten usoak, bertan hazi eta jateko prestatzen zituzten.

Etxean izaten ziren beste bi abereak, txakur eta antzarrak, etxearen babesle ziren.

Goian izendatu ditugunak aipatu dizkigute gure lekukoek gobernatzen izan dituzten espezieez galdetu orduan.

Espezieak sexu, adin eta egoeraren arabera

Ganadu gorriarekin hasita, *behi*, *txahala*, *zekorra*, *begai* (bigantxa) eta *toro* batu ditugu. Zezen izena ezagun egiten zaie, baina *toro* esatea ohikoagotzat dute.

Oiloei dagokienez, *oillo-loke* (oilo loka) esaten zaio *txitxek,* txitak ateratzeko arrautzak berotzen dituen oiloari. Gure lekukoen esanetan, oilalokari ez zitzaion ezer ere egiten lokatu ez zedin. Arrari *oilar* esaten zaio. Txitak hazitxo egiten direnean *oillosko* eta *oillenda* izenez bereizten dira ar eta emeak. Arrak saldu egiten izan dira eta emeak *eurrerako,* aurrerako gorde izan dira.

> «Eta asten gendusen oilloskok. Etzen esarri oilloa txitxek atarateko. Imiñi olan esarritte ta amabost txitxe-edo olan atarate(n) sittusen, ta gero batzuk oilloskok urtete(n) seuden, ta beste batzuk oillendak, eta arek oilloskoak saldu itxen sittusen amak. Eta a sera, oillendak itxi aurrerako gero. *Arrautzetarako?* Bai arrutzek saltzeko edo.»

Ardi eta ahuntzen multzoetan, *akar, ahari, aharitxo* (aharito) —ahuntzaren arra eta ardiena zaharrenetik gazteenera— eta *ahuntz*, *ahume* —emeak, ama eta kumea— bereizi izan dira batetik. Eta bestetik, eta ardiekin lotuta: *arkume* (ardi jaio berria), *artxo* (esnea hartzen dagoen artean ematen zaion izena), *billotza*, bildotsa (urtebete duenean), *arkazte* (urte bi dituenean) eta azkenik *ardi*. Amak baztertu eta jaten eman gura ez dion arkumeari *gatxitzi* edo gaitziritzia esaten zaio.

Txakurren artean *ardi-txakur, kaza-txakur* eta *ratoneru* arrazak batu ditugu.

Txerrien alorrean, *txarri, txarrikume, txarri aharkele* edo aharkela —gaztea eta emea denean, kumeak emateko sasoian dagoenean—, *txarri arko* —txerri eme heldua—, *txarri ordotza* —txerrikume arra— eta *txarri apo* —txerri ar heldua—.

Kaballeri berba erabiltzen da zaldi eta behorrez era generikoan berba egiteko. Hala ere, *zaldi* eta *behorra* berbak erabiltzen dira. Zaldunari esateko *zaldi ganeko izan* esamoldea batu dugu.

Gorta

Lehenago abererik gehienak basora eroaten zituzten, jaten solte ibil zitezen. Basoan izaten zuten abereok ganadu-jatekoa. Baina aldea-etxeetan ez zen satsik egoten, abereak basoan ibiltzen zirelako. Esnea saltzen hasi zirenean, behi kopurua asko hazi zen, eta jatekoa gortan ematen hasi ziren. Horrek abereak loditzen laguntzeaz gainera, bide batez satsa egiten zen; nekazaritzari mesede handia ekarri zion horrek. Behiak, txerriak eta oiloak, batez ere, gortan edo berariaz sortutako leku itxietan edukitzen hasi ziren. Basoan soilik erdi antzuak ziren ganaduak edukitzen ziren. Ardiak ere gorta barruan edukitzen zituzten Goietako etxe batzuetan, garaitiko abereetatik aparte. Eta hori izan da gure lekukoek aurrera eroan duten abelazkuntza eredua.



Fernando Egia gortan ganaduari jaten ematen, 2008.

Egun, Jatabeko aldea-etxeetako gorta asko *txoko* edo astialdirako batzargune bihurtuta daude. Baina abereak jagoteko leku legez erabiltzen ziren sasoian, barruko egitura espezieen arabera banatuta zeukaten.

Gortetan askak egoten ziren *bueltan-bueltan*. Oholezko askak txahalentzat eta apur bat altuagoak behientzat. Piztiei jaten emateko edukiontzi mota bi bereizten dituzte gure berriemaileek: *aske* eta *estramiñe*. Etxe batzuetan aska esaten diete biei, baina lekuko askok bereizi egiten dituzte. Estramina esaten diote piztiei egune-roko janaria emateko erabiltzen denari. Aska, ostera, belar fina edo pentsua emateko erabiltzen den edukiontziari esaten diote. Biak oholezkoak izaten ziren. Eta berriemaile askok aska deitzen diete biei, estramina berba ere erabiltzen dela onartu arren.

Espezieak banatzeko gorten barruko egituraren adibide legez, etxeetako batzuen antolamendua azalduko dugu. Beti ere kontuan hartuta, etxe bakoitzaren neurriak, espezie kopuruak eta etxetik kanpora eraikitako txabola edo abereentzako tokiek gorta antolatzeko eredu ezberdinak sortu zituztela etxetik etxera. Antzekotasun sano handien barruan, baina aldea-etxe bakoitzean baliabideen eta beharrizanen arabera antolatzen ziren.

Gortako atean akerra zegoen etxe askotan, bere sundak garaitiko abereak gaixoetatik babesten zituela eta. Gorta barruan egoten ziren ardiak hainbat etxetan, behiengandik eta garaitiko abere espezieetatik banatuta, euren txokoan. Goietako

etxe askotan *ardi-borde* edo *ardi-txabole* edukitzen zuten etxe ondoan ardiak jagoteko. Gortako izkinetan egoten ziren behiak eta txahalak. Jatabeko etxe guztietan egon da ganadu gorria gorta barruan. Garaitiko espezieak ez bezala, ez dago aldea-etxe bakar bat ere gortatik kanpora eduki dituenik. Etxe batzuetan txerriak gorta barruan edukitzen zituzten, euren txokoan, beste abereengandik bereizita. Ergoienen aurkitu ditugu txerriak era horretan, gortan, hazten zituzten etxeak. Beste batzuetan, ordea, gortatik kanpoko txabola batean egoten ziren, *txarritokin*. Unparan, esaterako, horretara jagoten zituzten.

Untxiak gorta barruan jagoten zituzten. *Konejera* esaten diete konejuak jagoteko gorta barruan egiten zituzten oholezko txabolatxoei.

Oiloak gortatik kanpo edukitzen zituzten etxerik gehienetan. Harriak batu eta teila zaharrekin eraikitzen zituzten *oillotokiak*. Oiloek lo egiten zuten oilotoki barruko lekuari *ote* esaten zaio. Eta arrautzak ipintzeko oholekin egindako kutxatxoa zeukaten.

> «*Gorta zelakoa zan?* Askak oten siren alan gortan, bueltan-bueltan, olesko askak intxe, ba txalantzako, beientzako altutxuauk eta olan. Ta gero olau beste leku beten ardik. *Ardiak bere gorta barruan eukiten zenduezan?* Ardi(k) gorta barrun bai, gure aittek beti ekarten sittusen gortara. Eta gortan oten siren ardik emen, plasuelan, eta beste olan eskiñetati, txalak eta beiek. Ardik aparte auren seren. *Eta txarriarentzako lekua?* Kanpon okitxe gendun txarrintzako tokie, txabolatxu bet, txarritokie. Ta an asten gendun txarrie, an txarritokitxun. *Konejurik euki dozue?* Bai koneju(k) pere bai. *Horreek bere kanpoan?* Es barrun konejeratxu bet intxe, barrun okitxe(n) gendusen, se orre(k) salduteko diru balio ixete(n) seuden ordun. *Eta oilloak non eukiten zenduezan, gortan?* Es, oillok itxen soskuen kalte andi solotan, astraka eta soloko jenerotxuek ba sertu, eta gure aitte difuntuk in sotzen, alan baso euki gendun alan etzetik bertan, basoa, eta an goien txabolatxu bet in sotzean. Berak arrik-eta batute, taille sarrakas ta imiñitte, ta selau txabolatxu! Eurek lo itxeko lekutxu bere bai. Antxe okitxen gendusen oilloak, oillotokie. Egun gustitxan ara yon ber. Eta lo itxeko leku, ote ixete san. Eta gero arrutzek itxeko olan bueltan okitxe(n) sittusen olan kajatxu betzuk olaas intxe, oillok arrutzek imintteko, antxe txaboltxun. Ondo euki gendusen. Ta egunen birritten yaten eroten ara yon bear.»

Gortako behearen gainean lurra egon da aldea-etxerik gehienetan XX. gizaldiko bigarren erdira arte. Etxeko garaitiko geletan oholak ipintzen hasita, gorta izan zen lurra aldatu zioten etxearen akabuko zatia. Hormigoia bota zuten behearen gainean, eta txizak zein azpiak bideratzeko kanalizazio sistemak sortzeko aprobetxatu zuten gorta askotan.

Ganaduei azpiak edo *ohiak* egiteko otea eta ira botatzen zituzten behearen gainera. Aurreko ataletan azaldu dugu otea gehiago erabiltzen zela eta ira Basordaportu auzoan, ardidunek erabiltzen zutela batez ere. Horiek kanpora ateratzeko gortetan hormigoia bota izanak beharra sano erraztu zuen.

Bestalde, karea ere bota izan da gortan, desinfektatzaile modura. Gure lekukoen esanetan, kareak garbi usaina ematen dio gortari.

Gortatan argia egiteko *untze* edo iltzeak ipintzen zituzten posteetan, eta bertatik farolak eskegi.

Tranpe izeneko zuloak komunikatzen zituen gorta eta lastategia. Bertatik botatzen ziren galtzua, belarra... eta gortarako behar ziren belar sikuak.

Jatabeko gortatan, Garaigoiko etxean esaterako, San Antonioren irudiak ipini izan dituzte hormetan abereak gaixoetatik babes ditzan.

Abereen jatekoak

Aldea-etxe askotan esan digute lehenengo piztiei ematen zitzaiela jaten eta gero norberak jaten zuela. Abereen jatekoa sano garrantzitsua da. Salmentaren orduan, edo etxerako hiltzerakoan lortuko zen emaitza aurretik abereei eman zaien jatekoarekin lotzen dute gure berriemaileek.

Oiloei artagaraua eta garia eman izan zaie jateko. Artagarau ihartua janez gero arrautzaren gorringoa gorriagoa irteten da. Baina ihartu bakoa ere eman izan zaie sarri.

Txerriei *egosarik* ematen zitzaizkien jateko, hau da, ondo zatitu ostean egositako erremolatxa eta kalabaza. Irin eskukada bi botatzen zitzaizkion eta artagaraua izanez gero, baita hori ere. Artagarau hezea ere txerriei emateko janari legez erabili izan da. Artagaraua errotara eroaten zuten pentsua egiteko, eta errotariek ardura handiz itauntzen zuten ia artoa ihartutakoa zen ala hezea.



Agustin Barandiaran, c. 1973.

«Txarrik asteko kalabasak eta onek egosi. Txarriri bere ure eta kalabasak satitxu, erremolatxe bere bai eta ur beroa ta bota urune eskutada bat edo bi, ta nasta apur bet. Ta artagarau bakosu bota artagarau bere, egunen baten kasureko.»

Horrez gainera sekula-belarra ematen zitzaien txerriei jateko. Artegiak eduki eta gazta egiten zuten etxeetan gatzura ematen zieten jateko. Txakurrei, ostera, ez ei zaie gatzurik eman behar, makaldu egiten dira eta.

Ganadu gorriari, gerra aurretik, *enpajade* ematen zitzaion jateko. Galtzu txola txikituak artoarekin *unta* eta *tiñeku* edo tinakoan ematen zieten jateko. Ganaduari eman zaion artoari *arto basto* esaten zaio, eta xehatuta ematen zitzaien piztiei. Pentsua gerra ostean hasi zen ganaduaren ohiko janari bihurtzen. Gerra aurretik etxe gutxitan eta gutxi ematen zioten pentsua ganaduari.

Gerra aurretik erabiltzen zen erositako pentsu apurra Mungiako almazenetik ekartzen zuten astoarekin edo gurdian.

Gerraostetik, txahalei, galtzua gehitutako pentsu naturala eman izan diete jatabear batzuek. *Bitxurin* edo Gasteizen zegoen pentsu naturalaren depositua, *tolbe* esaten diotena. Janari hori emanda 450-600 kilo arteko txahalak hazi izan dituzte.

Sekula-belarra txahalei jaten emateko ere erabili izan da.

Neguan, behia txahala egin berri zegoenean *alfalfe* ematen zitzaion. Ailorbea behiei jaten emateko erabiltzen zuten sasoi batean. Baina ailorbea jaten zuen behiak *gustu larri* ematen ei zion esneari. Eta behiei ailorbea emateari utzi zioten.

Txahalei emanez gero okelari ematen ei dio gustu larria. Batzuek sikatu ohi zuten ganaduari jateko eman aurretik, horretara bere eragina gutxiago igartzen zela eta.

«Sekule-bedarra, txarriri eta txalari ta emoteko, ori bedarra gosoa san. Frantzesa bere bai, a bere ebaten gendun, orrek euron epokako seratan. Baia ostantzen bedarra ebai kodaiñeas, frantzesa es, frantzesa kasureko serreas ebai ber san beti, kodaiñeas esin seuken ebai, serreas ebaten san, okertute eperdittik. (...) *Alfalfea bere ereiten zenduen?* Bai, pistiri yaten emoteko. Solo bitten-edo oten san ta aik eraitten sittun aitte difuntuk alfafea. Negureko edo, beiek umeak in parrien edo emoteko gordeten san alfafea. *Ailorbea?* Eraitten gendun sailletxu bet nosonos baia gitxi. Se aillurbea yaten daun beiek, aillurbe-gustu emote'tzo esneari. Esenke yan, batzuri gusta ingo dake igual, baia olan usin larri-larri bet emote'tzo ta gustu bere bai esneari. Ostantzen bedar ona da, baia esin da, ganaduri... emon bai, baia esnera afetaten dau, ta esate(n) euren okelara bere itten daula. Ta gero aillurbe siketan asi siren, alan bere itten daula esate(n) euren, gitxitxuau itten daulako ta siketan asi siren... Guk gallufea giau aillurbe baiño, ori ganera gero satzatik-edo bera sabaldu san danen, ingeru gustin gallufe.»

Gallufe eta *malluko* belarrak ere ganadu gorriari emateko izaten ziren. *Mallukoak* ez ei zuen balio sikatzeko, baina *berdetan*, ebaki berritan emanez gero ona da behientzat. Sekula-belarra ere ebaki eta askara eroaten zuten artez, izan ere, atoan jaten ez bazen berotu egiten zen. Horren ondorioz ganadua puztu egiten zen eta osasun arazoak sortzen ziren.

Buru ona daukan *nabo* edo arbia ei da esnea mamitsu irten dadin behiei eman ahal zaien janaririk onena.

Ganadu gorriari jateko eman izan zaion beste jateko bat *ozale* da. Ura berotu egiten zen eta bertara bota artoa edo arto-irina, birzahia eta guztia ondo nahastu. Batzuek meheagoa egiten zuten eta besteek lodiagoa.

Arto eta gari garaua ehotu eta abereentzako pentsua egiten zen ganadu gorri, txerri eta baita ardientzat ere. Arto zapak ere ganaduari jaten emateko erabiltzen zituzten.

Sikate sasoietan *basa-porruak* eta *kuku-bedarrak* jaten zituen ganaduak Jatako bizkarretan. Belar leku gutxi zeuden gerraren aurretik, eta ganaduari *sikua* eman behar zitzaion, baina behar beste egon ez. Halakoetan, artearen adarrak inaustu egiten ziren eta aldea-etxeetara ekarri sua egiteko. Gauean karrajuan paratzen ziren, adarretako puntak apurtu, piloa egin eta zaranarekin ematen zitzaien abereei. Egurra eskasten joan ahala mukurrak edo zuhaitz ipurdiak ateratzen joan ziren. Baso izandako sailetan belarra ereiten hasi ziren eta horretara ugaritu ziren ganaduari jaten emateko belar lekuak.

Koneju edo untxiei pentsua edo belar sikua eman ohi zaie jateko, hezeak kalte egiten diela eta.

Arkume *gatxitxi* edo gaitziritziari, hurrengo atalean azalduko ditugun teknika batzuek huts eginez gero, biberoiarekin ematen zitzaion jaten. Ardi-esnea ematen zioten, baita talo hondakinak ere.

Astoa eta aparejuak

Gure lekuko guztien etxeetan eduki dute astoa garraiorako. *Pizti noblea* da astoa, gure berriemaileen iritzian. Belarrak igarotzeko, plazara ortuariak, errekara bogada, errotara garauak eta bueltan jabea eroateko erabili izan da astoa.

Baita artxoak hiltegira eroateko ere. *Asto-otzara* bakoitzean hiru artxo sartzen zituzten. Ondorioz, asto bakoitzak sei artxo garraiatzen zituen. Artxo gehiago eroan beharrik bazegoen auzoren bati eskatzen zioten astoa.

Astoari, ortuariak, artxoak eta garaua garraiatzeko, *baste* edo basta eta *asto-otzarek* ipintzen zitzaizkion. Basta astoaren gainean ipintzeko jesarlekua da, eta albo bietara, bastaren gainetik ipintzen ziren otzarak.

Belarra lantzarretik lastategira garraiatzeko *apareju* ipintzen zitzaion astoari. Apareju berba generiko moduan erabiltzen dute gure lekukoek. Belarrak igarotzeko astoari ipintzen zitzaionari *urke* esaten diote. Egurrezkoak izaten ziren. Goieta inguruko etxeetan arazoak izaten zituzten. Aldats handiak daude Jatako bizkarretan, eta belarra atzerantz jausten zitzaion astoari.

Astoaren gainean garraio beharretarako ipintzen ziren tresnak honakoak dira. Astoaren *aparejuan*, gainetik, basta ipintzen zen. Bastari *bastea* esaten diote lekuko batzuek eta *txalmea* beste batzuek. Txalmaren edo bastaren gainean ipintzen ziren otzarak. Buztanerantz *batikola* ipintzen zitzaion. Behean jartzen zioten *petrala,* hau da, topea astoari zama aurrerantz joan ez zekion. *Kabezerak* buruan ipintzen zizkioten astoari. Mungiako Butroi kalean zegoen ferreteria batean erosten zituzten *txalme* eta *kabezerak*.

Mari Carmen Billalabeitia, astoarekin belarra igarotzen, 2008.

> «Asto beti on da, asto barik esta on seiñik, kargak eroteko-eta... *Bastea iminten zeuntzen?* Bai baste, ta txalme bere esaten'tze beste batzuk. Txalme da lelengo imintten dakona, ta gero otzarak ganien. Gero aurrera imintten dako beste ser bat, ta gero atzera bustenera batikola, ta gero bekoa petrala, aurberan yoten sanen apareju gustin kargea ak lotu ber ixete(n) saun. Ta batikolak asko lagundute(n) eutzen, aurrera yon estakion txalme. Eta kabeserak-eta, danak ber ixete(n) ausen.»

Uztarria

Lurra goldatzeko, gurdia mugitzeko eta abereen indarra erabiltzen zen beste hainbat beharretarako, ezinbesteko erreminta zen *buzterri* edo uztarria. Jataben abere parea lotzen dituen uztarria izan da erabiliena. Are gehiago, beharrerako hori bakarrik batu dugu. Hala ere, hiru eta lauko uztarriak deigarriak ziren garai bateko jatabearrentzat. Horren adibide dira *bakaziñotan* Abadiñora, San Blasetara, hiru eta lauko uztarriak ikusteko gogotsu joan ziren lekukoak.

Uztarriak *buztergileek* egiten zituzten. Aldea-etxeetara joaten ziren behi edo idien neurriak hartzera. Euren etxean prestatzen zituzten uztarriak eta bezeroaren etxera bueltatuta, piztiei egokitzen zieten uztarria, behar zen lekuan estutuz edo lima-



Bernardo Orbegozo eta Jabi Zurbanobeaskoetxea (?), c. 1952.

tuta lasaituz. Piztiek eroso egon behar zuten uztarriarekin, ezpabere beharrerako kaltegarri izango zen eta.

Uztarriak egiteko egur preziatuena *fagoa* edo pagoa izaten zen. Material eskasia zegoenean uztarriak *txopo* edo makalez egiten zituzten. Eta akabuan, pinuz egindako uztarririk ere ezagutu izan dute gure lekukoek.

Gure berriemaileen artean *buztergilerik* ospetsuena Gatikako Urondo auzoko Valle izan zen. *Buztergile ona*, gure lekukoen iritzian. Bere sinadura ipintzen zuen berak egindako uztarrietan. Mungiako taxi gidaria ere uztargilea izan zen.

Beste alde batetik, morgar uztargileen berri eman digute lekukoek. Garai batean, Valleren aurretik, Morgako uztargile batek egin ei zituen jatabearrentzako hainbat uztarri. Morgako Ola auzoko Jose Orue *Jose Arotz* izan zen uztargile ospetsua.

Eibarko uztargileak ere aipatu izan dizkigute berriemaileek.

Uztarria abereei egokitzeko *frontere* eta *hedek* erabiltzen ziren. Fronterak abereen buruan ipintzen ziren eta hedeak uztarria ondo estutzeko erabiltzen ziren. Bata zein besteak ferietan erosten ei zituzten. Etxe batzuetan behi larruarekin egiten zituzten, ostera. Hedeei, biguntzeko, koipea ematen zitzaien. Sarritan, txerriaren *txispegia* erabiltzen zen hedeei koipea emateko. Gero, uztarriaren gainetik ardi larrua ipini ohi zen.

Abereen gaixotasunak eta osabideak

Abereak ugaritu ahala gaixotasunak sarriago agertzen direla esan digute lekukoek.

Txerri ugari hil izan ditu *odol-aldikede* izeneko gaixoak. Odol-aldikadaren sintomak honakoak ziren: garauak ateratzea, gorriuneak egitea, etzanda egotea, altxatu gura ez izatea eta ez jatea. Akabuko sintoma hori izaten zen lehenengoa.

Osatzeko asunekin jotzen zuten txerria eta *odol-atarateak* egiten zitzaizkion belarrian. Sarritan etxekoek hartzen zuten txerria osatzeko ardura. Baina, lekukoen esanetan, osabide berak erabiltzen zituen albaitariak. Gure lekuko gehienek *beterinario* esaten dute, baina ondo gomutan daukate aurrekoek *albaitxeri* berba erabiltzen zutela.

Txerriaren puxika puztu eta ganaduari *labatibek* edo aiutak egiteko erabiltzen zuten.

Albaitariaren beste behar bat idiei ahoa garbitzea izan da, pusa egiten zitzaien eta.

Nafarreria izan da ganadu gorrientzat gaixorik kaltegarrienetakoa. Apatxak jausten zitzaizkien abereei bronkioetako gaitz horren ondorioz. Errementariak apatxak garbitu eta osabidean ipintzen bazituen ere, gortako atean aker beltza ipintzea izan da osabiderik erabilienetakoa, akerraren sundak garaitiko piztiak babesten zituen eta.

Nafarreriaren sintomak dardakada eta adurra botatzea izaten ziren. Batzuek ardo beroa ematen zieten behiei gaitza osatzeko, eta baita txertoak ere. Horretara kentzen ei zitzaien nafarreria behiei. Lekukoen esanetan, behin gaitza igarota piztia saltzen ahalegintzen ziren.

> «Beiek il bere parra-parra, nafarreri bere pasa du, santantontxuk ixen siren, ordun yaiegune, erromeri Mungiñ. Ta yon Alabara ganaduen bille, ta or ekarri, auntzek-edo ta nafarreris beterik. Berak auntzek eta nik idik ekar gendusen. Ta selau kasualidadek pasten diren gero… Bator olan illundi beten gurera ta: "I, ator ona. Beie dekot an fatxada txarren ta ator ikusten…". Ta intzunte on san beste bat albon, ta yo ostikoas, ta altzau es, ta yo ostikoas ta altzau es. *Mekaguen la puta!* Nafarreri! Urten naun gortati karraderan, auri itte'un, erropa danak, aur potro utzen para, ta aur erropa danak bota karkabara, kontajiorik on estaitten. *Zelan igarten da nafarreria daukiela?* Otzikere, dardakade, adurretan ta baba dariola. Ardau da ona, ta ganaduri ardau emon. Baia nafarrerik ardau baiño giau ber ixen dau, indisiñok-eta… Nafarreri bigune ta gogorra daus. Ta gogorra koisten badere kasku(k) pere yausi itten dakes, ta ganaduk ill in ber dosus gero, okelara.»

Sekula-belarra berotuta janez gero puztu egiten ziren behiak. Halakoetan odolateratzeak egiten zizkieten osatzeko, zuloa egiten zieten.

Behiei, eta esne produkzioari, eragin dien beste gaitz bat *hotzikere* izan da. Errapeetako gaixotasuna da, eta behiei gortara sartu orduko igartzen zitzaien, handitu eta batzuetan jausi egiten zitzaien eta. Olio gordina igurzten zieten behiei errapean hotzikara osatzeko.

Beste batzuek Txinbo xaboiarekin igurzten zizkieten errapeak behiei hotzikara osatzeko.

Inoiz sugeak errapeetatik esnea edakeran gorriunea lotzen zitzaien abereei narrastiaren haginkadaren lekuan. Halakoetan, gorriunea zegoen lekuan labanarekin hiru lau ebaki egin eta ura berde uzten zuten hiru pastillen arteko nahastea ematen zieten. Sugearen pozoia baino indartsuagoa zen eta behin emanda nahikoa izaten zen osatzeko.

Ganaduaren erditzea

Aldea-etxeetan ganaduari erditzen laguntzen izan zaio askotan. Kume berriak etxearen etorkizuneko aberastasun dira. Guztia ondo bazihoan ez zegoen lagundu beharrik. Baina erditzeak txarrera eginez gero esku sartu beharra izaten zen. Ezpabere, kumeaz gainera ama galtzeko arriskua zegoen. Eta kumea galtzea ezinbestekoa izatea ulertzen zuten arren, ama salbatzeak garrantzia izugarria zuen. Ama, aurrerako uzten ziren abere eme guztiak legetxe, kume berrien eta etorkizuneko aberastasunaren berme zen. Erabaki beharra helduta, ama salbatzea lehenesten zen, kumea bizirik ateratzearen aurretik. Albaitariak parte hartu izan du erditzeetan, baina etxerik gehienetan albaitariaren laguntza barik kudeatu dituzte era horretako egoerak.

Txahala jaiotzerakoan berebiziko garrantzia dauka aurrez edo atzez datorren. Hanka bat trabesean daukala ere etorri liteke. Txahala ondo arteztu beharra zegoen atera aurretik. Txahala atera ezinik indarka hasiz gero behia apurtu liteke eta *umetoki* guztia kanpora irten. Antzina sokaz lotzen ziren txahalak, sokarekin *trentze* egin eta indarrez ateratzen zuten. Zaletasuna hartzen ei zuten batzuk umetokia barrura sartu eta berriro ateratzeko. Baina umetokia apur bat orbanduz gero infekzioa etortzen zen. Txahala hil egiten zen, kanpora irten barik, amaren barruan lotzen bazen. Halakoetan, ama galtzeko beldurrez, albaitariari deitu ohi zaio txahala kanpora atera dezan. Gure lekukoak ere sarri ibili dira behar horretan. Batzuetan hilda dator txahala. Gure berriemaile baten kasuan, esaterako, txahalak buelta arraroren bat eman eta *erdiko zille* apurtu zitzaion. Egun oso bat eman zuen amaren barruan hilik. Baina amari ez zitzaion igartzen.

Erditzearen ostean, umetokia sats pilora bota edo aitzurrarekin zulo bat eginda lurperatzen zen.

Feriak, tratanteak eta ganadu salerosketa

Hogeigarren gizaldiaren lehen erdian *Basortu* edo Basurtoko ganadu feriak garrantzia handia zeukan. Bertan saldu eta erosten zen ganadua. Santiago egunez feria nagusia egoten zen Basurton. Basurton idi parea eta zaldi arraza ezberdinak erosi eta Jatabera oinez ekartzea gomutan dutela batu dugu. Basurtoko ferian ganadu ugari egoten zen. Taketak ipintzen ziren ilaran eta bertara lotzen zituzten abere batzuk, beste batzuk solte egoten ziren.

Baina abereez gainera uztarriak, solorako erremintak, idientzako mantak... saltzen ziren Basurtoko ferian. *San Mames* futbol-zelaitik hur egiten zen feria zaharra. Gerora Basurtotik Zorrotzara igaro zen feria.

Juan Oleaga eta Boni Alzaga Mungiako ganadu-ferian, 2007.

Mungian ere antzinatik dago feria hamabostean behin, hilearen lehenengo eta hirugarren domekan. Sanantontxutan feria nagusia egoten zen eta ganadu gehiago ekartzen zuten garaitiko egunetan baino. Aste batean Basurtora joaten ziren eta hurrengoan Mungiara, Basurtoko feria Zorrotzara aldatu zen arte. Gero Zorrotzakoa kendu zuten eta Loiun hasi zen feria hamabostean-hamabostean.

Esne-behiak erostera Torrelavegara (Kantabria) joaten ziren jatabearrak. Feria handia zen eta ganadu asko zegoen. Espinosa de los Monteros (Burgos), Güeñes eta Gordexolan ere behiak salerosi egiten zituzten jatabearrek.

Beste multzo batean sartu behar ditugu *urte feri* izenez ezagunak zirenak. Egun bakarreko edo egun biko feria handiak izaten ziren, eta euren artean era berezian gomutatzen dute Begoñakoa. Martiaren 25ean, *Andra Mari Martiko* egunean ospatzen zen feria itzela. *Domi Santuru* egunez ere feria egiten zen Begoñan. Feria ospetsua zen ganadu asko eroaten zelako bertara.

Ferietan eta etxerik etxe ibiltzen ziren ganadu tratanteak. Gure lekukoek gurago dituzte harakinak eta beste erosle edo saltzaileak baino, finagoak ei dira. Jataben ospetsua zen Patxo izeneko Mungiako tratantea. Zorrotzako ferian Laudioko tratanteak egoten ziren. Eta Alegría Pedernales izeneko tratantea sano ezaguna izan ei da. Bermeo inguruan ibiltzen zen. Egun, Pirinioetako behiak saltzen dituen Juan Pedro

tratantea da gure lekukoen artean estimatuenetarikoa, Ercoreca supermerkatuetarako okela erosten duen Eduardorekin batera.

Ganadua ferian bertan ordaindu behar izaten zen tratantearekin konfiantzarik eduki ezik.

Antzinako jatabearrek, abere salerosketa egin eta erostunak saltzaileari eskua emateearekin batera *San Antonio!* esaten zuten. Horretara, tratua itxita lotzen zen.

Erosleak hurrengo ferian ordaintzen ahalegintzen ziren. Batez ere *trokolina* izeneko droga agertu zenetik. Abereei droga hori emanda erosi eta hainbat egunetara igartzen zitzaien gaixoa, erosterakoan, drogaren eraginez, osasuntsuak ematen bazuten ere.

Era horretako amarruak sortu aurretik ere albaitariak egoten ziren ferietan. Erositako aberearen osasun egoera ona dela ziurtatzeko neurriak geroz eta hobeak dira. Izan ere, aberea norberaren etxean hil edo makalduz gero istilu itzelak egoten ziren, alderdi bakoitzak besteari egozten ziolako ganaduaren egoera. Ikerketa egin dugun sasoian zazpi euro balio zuen erositako aberearen osasun agiriak.

Gaur egun ganadu feriak gainbeheran doaz. Buruan iltzatuta lotu zaio lekuko askori behi eta txahal bakarreko ganadu feria Mungian.

Esnearen salmenta

Esnea saltzeak aldea-etxeetan behi gehiago izatea ekarri zuen, basotik gortara egin zuen ganaduak eta etxe askotako diru-sarrera nagusi bihurtu zen. *Letxeruk* edo esne-saltzaileek garrantzia handia zeukaten. Izan ere, berriemaileen esanetan, Jataben beti saldu izan zaio esnea bati, eta horrek tren estaziora eroateko ardura hartzen zuen. Gerora enpresa handiak agertu ziren, esaterako Beyena. Enpresa horiek kalte handia egin zioten esne ekoizpenari. Horren adibide da gure lekukoei irribarrea ezpainetaratzen dien *leche Beyena, guzurre gehiena* esaera.

16-18 behi egoten ziren esnea diru-iturri nagusia zuten etxeetan. Behi pintak izaten ziren esnetarako ustiatzen zirenak. Hasiera batean eskuz eraisten zituzten behiak. Beluago makinak erosi zituzten. Asteintzako bidegurutzera ateratzen zituzten esneak kantinetan. Han batu eta Mungiako treneraino zaldi-karroan eroaten zuen *letxeru* edo esne-saltzaileak. Ez zuen esne askorik hartu gura izaten, bost azunbre onartzen zizkion etxe bakoitzari, ez gehiagorik. Kopuru horretatik gora saldu gura zuenak bere kontura konpondu behar zuten. Esaterako, Bilbon senitartekorik izanez gero, esnea erosiko zieten bezeroak lortzeko ahaleginak egiten zituzten. Etxerik etxe esnea partitzeko metalezko litroko tanketxoak erabiltzen zituzten. Salmentatik bueltan xaboi eta espartzuaz garbitzen zituzten tanketxoak eta hurrengo egunerako prest utzi. Norberak saltzeak emaitza ekonomiko hobeak ematen zituen.

Esnea erraz galtzen zen, horregatik hozkailuak erostea aurrerapauso handia izan zen. Hozkailua eduki aurretik karrajuan edo leku freskoren batean edukitzen zuten esnea.

Behiak goizez eta gauez *erasten* ziren. *Eratsi* edo *esnea batu* esaten diote gure lekukoek. Behia sano esnetsua bazen eguerdian ere eraisten zuten. Behi normalak hamabi azunbre inguru ematen ei ditu egunean. 15etik gora 18 azunbrera arte ematen zutenei esaten zitzaien esnetsuak.

Abereak hiltzea

Abereak hiltzeko gune nagusi bi egon dira: etxea eta hiltegia. Antzina hiltegiak zeuden herri guztietan. Gerora, apurka-apurka ixten joan ziren, eta herri edo hiri nagusienetan baino ez ziren lotu.

Jataben ere hiltegia egon zen, Herriko Etxearen atzeko aldean zegoen, isurbideak kanpora ematen zuen eta Jose izeneko harakin gipuzkoarrak egiten zituen bertako beharrak. Batez ere txahalak hiltzeko erabiltzen zen. Eta txahalen okela Jatabetik Bilbora eroateko, galarazita zegoenez, esnerako kantinploratan garraiatzen zuten, kontrabando modura. Legez San Lorentzo eta jai bezperatan baino ezin hil zitezkeen txahalak Jatabeko hiltegian. Txahalaren okela jaietarako okela legez saltzen zen.

> «Len dana oiñes, semet bider yon nasen, andi Ataunetik aitte difuntues, gaueko ordubietan urtenta, Sestaora mataderora oiñes. Ta udegoienen kendu ardik, ta ardik eroten... *Mataderora Sestaora joaten zinien?* Bai, se Plentzin ganadu gitxi iltte(n) san, sano gitxi, ordun orti yon ber ixete(n) san. Eta Mungin bere ill itxe(n) siren baia gitxi, asten iru edo lau txal Mungi gustireko. *Sasoi baten Jatabeko aiuntamentuan bere txahalak hilten ziren ezta?* Bai, neu(k) pere esetu dot. Or iltte(n) siren San Lontzotako ta yai bisperatarako iltte(n) siren, gero es.»

Gaixorik zegoen ganadu gorria etxean hiltzen zen, untxiak, txerriak eta beste abere batzuen modura. Erdi-gaixo zegoen ganadu gorria Gordexolara eroaten zen, txorizoak egiteko. Ostera, osasuntsu zegoen aberea hiltegira eroaten zen. Harakinak ibiltzen ziren etxerik etxe zaldiz. Kordelarekin abereak neurtu eta gura zituztenak erosi egiten zituzten.

Gerra aurretik Plentzia eta Gorlizeko hiltegietara eroaten zituzten ganaduak sarri. Gero, bueltan, beldur itzela izaten zuten Katiluzubi edo *lapurzubitxi* igaro behar zuten eta.

Hiltegi askotara eroan izan dituzte abereak jatabearrek. Algorta, Mungia, *Portalte* edo Portugalete, Sestao, Santurtzi, Bermeo, Durango, Berriz... ziren Jatabeko ganaduak hiltzera eroaten zituzten herrietako batzuk. Gaur egun Zorrotza eta Durangoko hiltegietara eroaten dituzte piztiak, eta hiltegitik harategira.

Etxean untxia, oiloa eta txerria hiltzen ziren batez ere. Ardien gainean hurrengo atalean egingo dugu berba. Gehienetan etxeko andreak zeukan piztiak hiltzeko ardura.

Oiloa hiltzeko saman ematen zitzaion golpea.

Txerria izan da etxean hil den abere garrantzitsuena. Txerrikumea erosten zen, hazi, loditu eta Kontzepzio egunez hiltzen zen, horretara, solomoa Gabonetan jateko moduan edukitzeko. Txerria ilbeheran hil behar da, urak behean daudenean, ezpabere txorizo eta buzkantzak galdu egiten dira. Txerria ilbeheran eta Kontzepzio inguruan hiltzea lagungarria da gordetzeko. Andrea hilekoarekin bazegoen ezin zuen txerririk ukitu, txerrikiak usteldu egiten ziren eta. Tomatea botetan sartzeko orduan ere debeku bera zegoen andrea hilekoaz egonez gero.

Txerria hiltzeari *txarribode* esaten zaio Jataben. Txerria goizez hiltzen zen. Gizon batek izan ohi zuen txerria hiltzeko ardura, *matarife* esaten zaionak. Haraki-

nak izaten ziren batzuetan, baina auzo guztietan izaten zen txerria hiltzeko ardura hartzen zuen gizonen bat.

Txerria hiltzen zen egunean auzoko jendea laguntzen etorri ohi zen. Txerriari eusten laguntzeko batez ere. Bi hiru lagun behar ziren, gutxienik, txerria hiltzeko. Txerriaren bila joan aurretik ardaoa zein *iberduero* esaten zioten *garrafoi* edo txanbileko koñak kopatxo bat hartzen zuten.

Txerria txerritokitik ateratzeko burdinazko *gantxo* bat erabili ohi zen. Txerriari samatik sartzen zitzaion eta piztiak atzerantz egikeran *gantxotik* oratuta lotzen zen.

Zaran bi ipintzen ziren etxeko portalean, eta *gurtolak* gainean, mahai moduko bat sortzeko.

Gantxoarekin narras eroaten zen txerria portaleko zaran eta *gurtolekin* egindako mahaira. Txerriari eustera etorritakoen laguntzaz, gurtola gainera igotzen zuten eta lau hanketatik eusten zioten.

Behin txerria ondo oratuta, labanarekin ebakia egiten zitzaion saman. Abereren samako ebakiaren azpian balde bat ipintzen zen, odola batzeko. Baldera isuri ahala eskuarekin eragin eta estutzen zuen odola etxeko andreren batek. Ezpabere, gogortu egiten zen eta.

Behin txerria hilda eta odola batuta, aldez aurretik etxeko portalera ekarritako ira sikuekin erretzen zioten azala. Orain butanoarekin egiten du hainbatek, txerria txorizoak egiteko baino ez da aprobetxatzen eta.

Txerriak erretzen, 2006.

Erre ondoren, urarekin eta teila edo laban handi batekin harraskatuta garbitzen zuten azala. Horren ostean txerriari tripak atera eta eskegi egiten zen osorik.

Gibela eta birikiak egun beratan jaten ziren etxe batzuetan. Etxekoei zein auzotik laguntzen etorritakoei bazkaltzen emateko izan ohi ziren.

ARTZAINTZA

Bekekerre egiten du Jatako ardiak. Ardia izan da, hogeigarren gizaldiko amaierara arte, Jatabeko ekonomia-jarduera tradizionaleko animaliarik garrantzitsuenetarikoa. Aldea-etxe askotan egon dira artegiak. Eta Goieta, Basordaportu edo Marutxeagan izan du artzaintzak indarrik handiena. Mendiondo etxeak eduki izan du artegirik handiena, hau da, ardirik gehien. Izan ere, artegia esaten zaio Jataben bai artaldeari bai artzainaren bordari. Behe aldeko etxeetan 50-80 ardiko artegiak egon izan dira. Goietan, ostera, 80-130 ardi ingurukoak. Añeka, Ixerdi, Ataune, Bastegi, Mungigorta... etxeak aspalditik egon dira artzaintzari lotuta. Eta horren lekuko mutuak dira sasoi batean Jatako bizkarrean eraikitako borden horma zatiak, egun sasiek estaltzen dituztenak.

Ardi-txabola

Aldea-etxetik hur, etxaurrean sarri, ardi-txabola esaten dioten aparteko eraikin txikerra egoten zen. Kasurako, Basordaportu auzoko Mungigorta eta Ataune etxeen ondoan ardi-txabolak zeuzkaten. Gauez, egunez janaritu ondoren batzen zituzten ardiak ardi-txabolara. Etxe batzuetan, ostera, abeltzaintzaren gainean berba egiterakoan esan dugun legez, gorta barruan edukitzen zituzten ardiak. Garaitiko abereekin batera, baina gortako aparteko txokoan.

Goietako etxe gehienetan, mendi bizkarretan, goiko larretatik hur bizi direnez, ez zuten bordarik erabiltzen.

Ardiek kanpoan egiten zuten lo aro oneko hiletan eta ardi-txabolan, edo martxan joandako barruti inguruko etxeren batean, eguraldi eskasa zenean. Ondorioz, Marutxeagako berriemaileek ardi-txabola deitzen diete guztiei. Ibarrekoek, Ergoien eta Erberako Goietatik beheragoko etxeetakoek, ostera, ardi-txabola eta *borde* edo *pastore-txabola* bereizten dituzte.

Ardi-txabolan, ardientzako azpiak inguruetako zuhaitzen orri, landare eta irak hartuta egiten zituzten. Konturako, Ataunerdikoan, inguruan haritz ugari zegoenez, haritzen orri eta gorosti punten bidez egindako nahastea erabiltzen zuten ardien azpietarako. Baina etxerik gehienetan otea erabiltzen zuten. Gaur egun, ostera, galtzua erabiltzen dute azpietarako.

Ardien izenak, akatsak eta arrazak

Jataben, artegia zeukaten etxaldeetan, etxeko guztiek zeukaten partea ardiak jagoten. Horretarako, garrantzitsua izaten zen ardiak bata bestearengandik bereizten jakitea. Lekukoen arabera, ardi bakoitzak burua ezberdin dauka. Ez ei daude ardi bi

burua berdina dutenik. Ondorioz, artzain onak ardi denak ezberdintzen ditu izenik ipini barik ere.

Baina etxekoen arteko elkarlana errazteko, izenak ipintzen zizkieten ardiei. Jaio zen lekuaren izena, topatu zuten bazterrekoa, fisikoki bereizgarria egiten zuen akatsen bat edo deskantsatu zein janaritzeko hartzen zuten lekuaren arabera ipintzen ziren izenik gehienak. Berbarako: Errekalde, Larranako, Larranalde... ardi izenak dira.

Ardiak lantzean behin baino ez ziren zenbatzen. Jatan solte zebilen artegia etxetik bertatik ikusteko modua zeukatenek lantzean behin baino ez zituzten zenbatzen ardiak. Kasurako, etxetik ikusten bazuten euren artegia beste batekin elkartu zela, atoan igotzen ziren ardiak banatu eta zenbatzera. Garaitikoek, etxetik artegia ikusten ez zutenek, ia egunero egiten zuten osteratxoa artegia zelan zegoen ikusi eta ardiak zenbatzeko.

Batzuen eta besteen ardiak bereizteko antzinako modu bat badago, belarrietan akatsak ipintzea. Etxe bakoitzak bere akatsa edo marka zeukan eta belaunaldiz belaunaldi mantendu egiten zen. Esaterako, belarriaren aurreko aldetik *kortadatxu* eta atzetik *miru-buztena* izan da belaunalditan gure berriemaile baten ardien akatsa. Izan ere, akatsak belarrietan egin izan dituzte beti. Baina edadekoen esanetan, artzain onak bere ardiak ezagutu egiten ditu akats barik ere.

Gure lekukoak gazte zirenean ardi arraza bakarra hazten zen Jatako bizkarretan. *Burugorri* edo *Jatako ardi* esaten diote bertakoek, ardi latxa izenarekin ezaguna da beste leku batzuetan. Gainerako arrazen artean gogorrena ei da, Jatako baldintza heze eta euritsuetara ondoen egokitzen dena. Ataunetan, ostera, burugorriarekin batera *buruzuri* izeneko beste arraza bat hazten zuten. Baliteke bertako artegia Gipuzkoako Ataun herriko ardiekin osatu izanak zerikusirik izatea garaitiko etxeetan aipatu ez diguten arraza hori haztearekin.

Gerora *burubaltza* esaten dioten arrazarekin nahastu zituzten burugorriak.

Ardi beltz bakarra izaten ei zen artegietan. Kontuan hartu behar dugu artile beltza ez zela batere estimatua salmentarako.

Solaiak, arranak eta dunbak

Inork ez digu zergatiaren argibiderik eman, baina badaude artegia gidatzen duten *solai* izeneko ardi batzuk. Eskutik ahora ogi zati batzuk emanda engainatzen zituzten artzainek solaiak, artegia mugimenduan ipintzeko. Izan ere, solaiak norabide batean hasiz gero, garaitiko ardiak euren atzetik joan ohi dira.

Ez da derrigorrezkoa ogi zatiak ematea solaiak martxan ipintzeko. Edadeko ardidunen esanetan, ardiak ugazabaren berba ezagutzen du. Ugazabak ondo egiten bazion berba solaiak jarraitu egiten zion. Eta solaiaren atzetik garaitiko ardiak joaten ziren.

Solaiak garaitiko ardiak baino merkeagoak izaten ziren. Izan ere, kontrolatzeko gaitzak izaten ziren. Soloetara salto egiten zuten eta etxe inguruan edukiz gero anega eta erdi burukomin ematen zizkioten ugazabari. Jataben ez zutenez ardiekin martxa luzerik egiten ez ziren beste leku batzuetan bezain garrantzitsuak. Eta etxe batzuetan oparitu ere egiten zituzten.

Solaiei arranak eta dunbak ipintzen zizkieten euren autoritatea indartzeko. Aurretik artzainak joan behar izaten zuen. Solaia gidari izan arren, sarritan okerreko bidetik joaten zen eta. Artegi txikietan solai bi nahikoak izaten ziren, handiagoetan ostera, gehiago behar izaten zituzten.

Neguan *arran txikerra* ipintzen zitzaien eta udan *dunbe*, arran handia. Udan Jatan ibiltzen zirenez, potentzia handiagoko dunba erabiltzen zuten. Txilina ipintzen zitzaien erdian eta kaskabelak bueltan. Gehienek Mungiako ferreterietan erosten zituzten kaskabel, txilin, arran eta dunbak. Beste batzuek, ordea, Gipuzkoatik ekartzen zituzten.

> «*Ardien artean, batzuk aurretik joaten dira ezta?* Bai batzuk diretorak ixeten dires. *Horreek izen berezirik badaukie?* Es, baia batzuk... Eureri bere obeto esate'aken, se eskun imintten basendun ogi satitxu bet, a ogitxu emon ta engañata oten siren, ta gero usaban berbe esetu ta ondo esaten batzesu, bera yoten da atzen, ta gero dana(k) bata besten atzen. *Arranik iminten deutsazuez?* Bai arranak, eta dunbak. Arrana txikitxuau da ta dunbe a nausie, tuntulun-tuntulun itxen dauna, ta sarata fiñau itxen dauna, tintilin-tintilin, a da arrana. *Noiz iminten deutsazue bakotxa?* Bueno inddertxuau daunari imiñi, ta beiñ imiñi eskeronen ak ibiltte'un jeneral. *Urte guztian zehar erabilten eben?* Bai, dunbea es igual, baia arrana urte gustin, se auro(k) pere arranati giaten dires, euro(k) pere esetu itxen dere euron arrana, ta arranaas batzen dire alkarreana.»

Arkara sasoia eta artxoen salmenta

Ardiak arreske egoteari *erkera* egotea esaten zaio Jataben. *Aharitxo soltateko sasoi* esaten zaio, era berean, hartu-emanaren beste aldetik ikusita. Gure lekukoen arabera urri ingurua izan da ardiak arkara egoteko sasoia.

Akabuko hamarkadetan, ostera, aharitoa gorde egiten da ardiek arkumea beluago egin dezaten. Salmenta interesak ei daude praktika berri horren atzean. Ardiak bost hilabete ematen ditu ernari lotzen denetik kumea erditzen duen arte. Urteko salmentak eta bezeroen ohiturek garrantzia handia daukate arkara aldia kudeatzeko orduan.

Gure berriemaileen iritzian, Jatabeko artxorik gehienak Algortara saltzen ziren. Algortako harakinei saltzen zizkieten artxoak eta salmenta ona egiten zuten.

Aldez aurretik zehazten zuten zenbat artxo eroango zituzten eta baita prezioa zein izango zen ere.

Algortako bezeroak *fabrikeko jente* ziren. Eta horrexegatik lortzen zuten, antza denez, garaitiko lekuetan salduta baino etekin handiagoa. Beste batzuek, gutxiagok, Mungiara saltzen zituzten arkumeak. Bertako harakinei saltzen zizkieten eta astootzaretan eroaten zituzten bertaraino.

Artxoak saltzeko Lemoizko *bezera* edo bezeroa etortzen zitzaien goizeko sei eta erdietan. Ordurako Andrakara atera behar izaten zituzten artxoak. Ondoren Plentziara jaisten ziren oinez bertan trena hartzeko. Treneko azkeneko bagoia izaten ei zen artxoak eroateko egokitu eta erabiltzen zutena. Bagoi berean joaten ziren esnesaltzaileak, *bendejerak*...

Aharitoa, 2007.

Artxoaren salmenta herri egutegiaren menpe zegoen. Elikaduraren gaineko atalean ikusi dugun eran, artxoa jateko ohitura zegoen hainbat jai egunetan.

Ibaizabaleko ezker ibarrean, *Sestao Santurtzi bueltan*, arin saltzen ziren ardi zaharrak. Ardi zaharra bospasei urtekoari esaten diote. Adin horretatik gorakoak hiltegira eroaten zituzten zuzenean. Umerik egiten ez zuten ardiak saldu egiten ziren. Eta Ortuellatik egunero joaten ei zen Jataraino ardiak erosten ibiltzen zen gizon bat. Aldea-etxeetan egiten zuen lo, eta udagoienean agertzen zen, ardiak lodituta artegiak kendu ohi ziren garaian. Bezeroak horrela eskatzen bazuen edo hurrekoa bazen, etxean hiltzen zuten ardia. Ardia hiltzeko goiko eta beheko zainak ebaki behar zaizkio. Eta gero labana sartu goitik behera.

San Lorentzo bezperan, ardi zaharra hil berri zutela jakinda, mungiar bat pasatzen zen Jatabeko aldea-etxeetatik ardi-larru bila. Ixerdi etxean, kasurako, ikoko adarretik eskegita edukitzen zituzten *ardi-narru* edo ardi-larruak. Hamar ogerlekotik hogeira bitartean saltzen zen. Eta larrua jakak, abarkak eta uztarri gainean ipintzeko estalkiak egiteko erabiltzen zen.

Ardi-ama hiltzea eta arkume gaitziritzia

Arkumeekin lotutako arazo bi azalduko ditugu atal honetan. Lehenengoa, ama hil eta arkumea zer jan barik lotzea da. Bigarrena, ostera, amak arkumea baztertzea, hau da, *gatxitzi* edo arkume gaitziritziaren kasua.

Arazo bi horien aurrean antzeko irtenbideak bilatu izan dituzte Jatabeko artzainek. Aukera bat izaten zen artzainek eurek haztea arkumea, biberoia emanda. Talo soberakinak ere eman ohi zizkioten eta akaburako abere itzela egiten zen.

Dena dela, artzainak arkumea hazteak arazoa zekarren atzetik. Horretara hazitako arkumeak ez diolako artegiari kasurik egiten. Artzainari jarraitzen dio atzetik saltoka txakurra balitz legez.

Ama hiltzen zitzaion ardiari zein arkume gaitziritziari jaten emateko modu gehiago zeuden. Konturako, kumea kenduta zeukan ardi esnetsuari *arrazon* ipintzen zitzaion. Berea ez zen arkumeari jaten eman ziezaion ahalegintzen ziren. Ahalegin arrakastatsua izaten zen batzuetan eta ardiak berea ez zen kumea onartzen zuen.

Beste aukera bat izaten zen erditu berria zen ardiari arkumea gehitzea. Horretarako, beste arkumea eduki berri zuen amaren umetokia igurzten zitzaion zer janik ez zeukanari. Ardi amak arkume berria miaztu eta bere umetokiaren zapore eta usaina ezagututa onartzen zuen. Baina saiakera arriskutsua zen, izan ere, arkume bakoitzak usain ezberdina izaten du. Arkume bien usainak nahastuz gero jazo zitekeen amak biak bertan behera utzi eta ospa egitea. Baina pasa zitekeen amak arkume biak onartu eta janaritzea. Halakoetan artzainak zama handia kentzen zuen gainetik.

> «*Zer da gatxiritzia?* Gatxitzie da ume iñ, ta kasurik iñ es giau amak. *Eta halakoetan zer egiten zenduen?* Segun selan igual dekosu ardi bat, umea kendute ta esnea dekona, ba berari arrason esate'akon, berari samati eutzi txe esne sertu, ta akabun igual berak artze'euen. Ta ostantzen biberoitxi asitxe, aur errebaiñu ikusitxe bere kasuri(k) pe estotzo itxen beran laguneri e. Saues solora ta saues leku gustitxera, txakurren modumodun dabill arkume noperan atzen saltuke e! Urtero bat ingeru egote(n) san, ta gero bera ixete(n) san estimaduena akabuen, alau lepoas... Talo satik, eta sobraten sirenak berari emon, ta akabun pisti itzela. *Eta arkumea beste ardiaren umetokiagaz igurditea ezagutu dozu?* Estot iños in, baia ardik beran arkumie, ta beste bat albokalden, biek alkarreas sertzen badire, ensegida nastaten dire, ta bertanbera itxitxe bere eskapa, bere estala ta. Bertanbera itxitxe giau kasuri(k) peres. Ori pasten da, usiñe nasta bata(k) besteri. Beste batzuk ostera bie(k) koiu berak.»

Artxoa bildots bihurtzen zenean, urtebete egiten zuenean, buztana ebakitzen zioten batzuek. Beste etxe batzuetan, ordea, jaio eta hilabete batera egiten zuten behar hori. Hezur bitartea bilatzen zioten eta eskuarekin estu-estu hartuta ebakitzen zuten *kutxillo* edo labana erabilita. Gero, zoldu ez zedin ebakia erretzen zuten. Egun batez etxe inguruan izaten zituzten bildotsak, odoletan egiten zuten ala ez, ea zauria ondo itxi zen ikusteko.

Buztana ebakitzeko arrazoia eraistea izaten zen batzuen esanetan. Gure berriemaileen arabera, buztana daukan ardiak, errapea ukitzen zaionean kaka egiten du.

Aharitoari, ostera, adarrak begian sartzeko arriskua zeukanean bakarrik kentzen zizkioten. Izan ere, adar barruko arbia ukitzea sano arriskutsua da. Odoletan hasi ohi da arbia ebakiz gero. Bizikletako frenoen kablearekin ebakitzen zituzten adarrak. Aldi berean ebaki eta erre egiten zutenez, zauria ez zen zoltzen.

Ardi-txakurra eta artzainaren erremintak

Pastore esaten diote ardiak jagoten dituenari.

Ez dira gutxi ardi-txakur barik ezin artzain izan litekeela esan diguten lekukoak. Beti ezagutu izan dituzte ardi-txakurrak, bai ardiak gobernatzen laguntzeko eta baita basoan solte ibiltzen ziren abereak jagoteko ere. *Pastore* bakarra ezagutu dute gure berriemaileek ardi-txakur bakoa.

Normalean ardi-txakur bi edukitzen zituzten artzainek. Ardi-txakurra heztea artzainaren beharra izaten zen. Eta ondo egin ezik txakurrak ez zuen beharrerako balio. Txakurraren arrazari ez diote aparteko garrantzirik ematen. Izan ere, arrazarik bakoa ere ardi-txakur fina izan litekeela pentsatzen dute.

Hasieran, antza denez, ez da batere erraza ardi-txakurrari irakastea. Artzainarekin egon ohi da beti. Eta gure berriemaileek ezagutu dute artzainak ardi-txakurra etxeko atean lotuta izatea ere.

Jatabeko ardi-txakurrik finenetakoa Ataunerdikoko *Pastor* izenekoa izan zen. Behin, Getxoko Fadura polikiroldegiko ardi-txakur txapelketan bigarren postua atera zuen.

Beste alde batetik, eta ardi-txakurrak hezteko trebetasuna azpimarratzeko asmoz, txakurra ardiak batzera agindu, bera tabernan lotu eta sekula ardirik galdu ez zuen artzainaren kasua dago.

Jose Egia *Listo* txakurrarekin Fadurako ardi-txakur txapelketan, 1955.

Ardi-txakurrari etortzeko *etorri hona* esaten zaio eta alde egin dezan *tomaki* berba erabiltzen dute.

Artzainaren erreminta nagusiak ardiak jotzeko mihimena eta *palu* edo makila dira.

Basorako makila erabiltzen zen eta solorako mihimena. Gure berriemaileen berbetan ardiari makilarekin jotzen diona ez da artzaina, ardia hil lezake eta.

Artzainek kanpoan eta euripean ematen zituzten ordu luzeetarako erabiltzen zuten janzkera jantzien gaineko atalean azalduta dago.

Ardi-lana moztu eta saltzea

Ardi-lana edo artilea San Juanetik San Pedro ingurura arte moztu izan da beti. Egun makina elektrikoak dauden arren, gure lekukoek behar hori artaziak erabilita egin izan dute.

Artilea ebakitzen ardiaren idunpetik hasten dira. Hurrengoa tripa gaina garbitzea eta *kaderak* edo hankak lotzea izaten zen. *Itzundu* edo etzan egiten zuten ardia, hanketatik oratu eta tripa ondoetatik jarraitzen zuten aurreko eta atzeko izterretara arte. Segituan iduna garbitzen zioten ardiari goiko aldetik, ipurdi gaina hartu eta burua izter artean sartzen zioten.

Ardi-lana moztea eskortan edo etxean egiten zen, basoan ebakiz gero etxera ekartzen zuten ardi-lana.

> «*Ardi-lanea ze sasoitan mozten da?* Ointxe, San Pedro ingeruen, San Juan, San Pedro... *Artaziakaz egiten zenduen?* Bai, ordun esan oten besterik. *Eta zelan egiten zenduen?* Ba lelengo idunpie, ortik asi txe tripe ganea garbittu, ta gero lau kaderak amarrau, ta gero imiñi bean ganien intzunte ta agarrau kaderatatik, ta asten siñen tripeondo garbitxute dekosun lekutik, atzeko isterra ta aurreko lelengo, ta atzeko kadere ta aurrekoa... Ta gero andi berantza-berantza-berantza... lepoko biskerrera arten. Ta gero idune aputxu bet goitxi garbittu, koiu eperdiganen ta sartu ister bittarten burue ta gero eperdiganen imiñi ardi ta an yausten da dana bera. *Behar hori non egiten zenduen?* Eskortan bere in'du ta etzen bere bai, akabuko urtetan etzen, se ya ote-ta baso loi egon san.»

Gaur egun ez bezala, gure lekukoak gazteak ziren sasoian sano estimatua zen ardi-lana.

Edozelan ere, ardiekin behar handia egiten zen etxeetan diru gehiago lortzen zuten artxoak eta gazta salduta artiletik baino.

Baina ardi-lana sano ondo eta prezio onean saldu izan zen sasoi batean. Ezkontza aurreetan enkarguak egiten zizkieten ardidunei. Arreorako koltxoia izaten zen eskatuenetako bat. Baina jertseak, galtzerdiak, abarketarako kordelak... eta beste hainbat jantzi ere egin ohi ziren.

Etxe batzuetan ardi-lanarekin egindako *firu* edo haria saltzen zuten eta *txabil* edo txaramelean bertan, egin berritan kobratzen zuten.

Ardi-lana beltza ez zen saltzeko estimatua izaten. Ondorioz, batez ere etxerako izaten zen. Etxeko andreek abarketetarako kordelak eta jertseak egin ohi zituzten.

Ardien esne-batzaldia eta salmenta

Hamarkada batzuetatik hona artzainak hasi dira, salmenta interesen arabera, aharitoak lehenago edo geroago askatzen. Baina gure lekukoen bizitzen zatirik handienean, eta baita lehenago ere, urtarril-zezeil inguruan edukitzen zituzten ardiek arkumeak.

Hiru edo laugarren astean kentzen zioten artxoa amari. Orduan batzaldiak hasten ziren, birritan eraisten zituzten egunero, goizez eta gauez, harik eta batzuek San Marko eta besteek San Juan inguruan, karta-denboren arabera, Jatako basoetara askatu eta eguneko batzaldi bakarra egiten zen arte. Sasoi horretan ardiak Jata-bizkarreko eskortetan eraisten zituzten, artzaina igotzen zen ardiak jaitsi beharrean. Berriemaileen iritzian, ibarrekoek gehiago erabiltzen zituzten eskortak Goietakoek baino. Azken horiek etxea hurrago izanda, batzuetan etxeraino jaisten zituzten eta. Handik gutxira, deskantsua har zezaten, ardiak *jatsiteari* edo jezteari uzten zioten. Ardiak *gariburutara arte* jezten zituzten, gariari burua ateratzearekin batera uzten zioten ardiek esnea emateari.

Ardien gainean ari direnean, eraitsi baino *jatzi* berba ibiltzen dute jatabearrek.

Ardi onak litro bat litro bat eta erdi ematen du batzaldi bakoitzeko. Lehenago, ordea, *kuartilluten eta azunbretan* neurtu izan dute ardi-esnea. San Marko edo San Juanetik aurrera, ardiak eskortetan jezten zituztenean, *hojalatatan* jaisten zuten esnea etxera.

Ardiaren esnea gazta egiteko erabili izan dute batez ere. Artzainek inoiz, martxan zebiltzanean eta edateko besterik ez zeukatenean, ardi-esnea edan izan dute. Baina, euren esanetan, egosita ere lodi-lodi lotzen da.

Gazta zelan egiten zen elikaduraren gaineko kapituluan dago.

Gazta nekazaritzaren gaineko atalean deskribatu ditugun jatabearren berezko salmenta herrietako plazetan saltzen zuten. Beste askotan, ostera, etxerik etxe ibiltzen ziren gazta saltzen edo eta dendetara eroaten zituzten dendariek sal zitzaten. Egunero hiru gazta egiten zituzten Goieta, Basordaportu edo Marutxeagako etxeetan. Gazta sikua eta gazta freskoa saltzen zen. Gazta freskoarekin diru gehiago ateratzen zutela esan digute lekukoek. Izan ere, pisura saltzen zuten, eta sikuak ura galtzerakoan pisua galtzen zuen. Gainera, gazta freskoa egiteak behar gutxiago ematen zien.

Artzainaren egutegia eta martxa

Artegien eta artzainen urteroko mugimendua garrantzia handiko jazoera da artzaintzaren barruan. Ikerlari askorentzat, Jose Miguel Barandiaran tarteko dela, artzaintza ibiltaria, eta trashumantzia bereziki, abeltzaintza bera bezain zaharrak dira. Euren jatorria historiaurrean dago, Neolitoan hasi eta artzain kultura tradizionalak megalito edo mairu-etxe eremuekin duen batasun geografikoaren bitartez aztertu litezke[1].

---

[1] BARANDIARAN, Jose Miguel. "Contribución al estudio de los establecimientos humanos y zonas pastoriles del País Vasco" in AEF, VII, 1927, 141. or.

Artzaintza ibiltariaren zergatia lantzarren premia da, ardiei jaten emateko. Eremu geografiko berean ez da egoten ardientzako urte guztirako janaririk. Ondorioz, beste inguru batera joan beharra izaten zuen artzainak bere artegiari jaten emateko.

Artzaintzaren ikerlariek trashumantzia mota ezberdinak bereizten dituzte[2]. Jataben ere mota bat baino gehiago egon izan da XX. gizaldian.

Trashumantzia handia

Lehenik trashumantzia handia aipatuko dugu. Distantzia handiko bidaiak egiten zituzten artzainek, eta hainbat egun behar izaten zituzten bidaia osoa egiteko. Urteko ibilbide bera egiten zuten, eta bideko etxeetan hartzen zuten atseden. Urtero etxe berberetan igarotzen zituzten gauak.

Jatabera trashumantzia handia egiten etortzen ziren artzainak gipuzkoarrak eta nafarrak ziren. Negu gordinean etortzen ziren, barrualdeko elurretatik ihesi, itsasertzeko belar goxoaren bila. Eta San Jose egunez barrualderantz abiatzen ziren berriro.

Marutxeaga auzoa, Goieta, artzain eta ikazkin gipuzkoarrek populatu zutela esan dugu lehenago. Ataunetik etorri ohi ziren artzainak. Hasiera batean Asteintza etxaldean igarotzen zuen negua Ataungo artzainetako batek. Añekatik gora eta Unibasoetara arte baso izkinetan egoten ziren. Azkenean Jatako bizkarrean egonkortu ziren eta han etxeak eraiki. Horren lekuko dira Ataune etxeak eta Marutxeaga auzoan horren zabalduta dagoen Barandiaran abizena. Jatan egonkortu arren, azken belaunaldietara arte ez dute jatorriarekiko loturarik galdu. Esaterako, gerraostean, Gipuzkoako Ataunera joan zen ardi-totoa eskatzera Ataune etxeetako artzain bat.

Artzainak ez ezik *zerreru* edo zerrariak ere baziren artzain ataundarrak.

Artzain nafarrak gipuzkoarrak baino beluago etorri ei ziren. Hala diote behintzat gure lekukoek. Elexpuru etxean ematen zuen negua artzain nafar gazte batek.

Azken hogei urteetan beste artzain nafar bat agertzen izan da Jataben. Ardiak kamioian ekartzen zituen, mendietako bideen egoera eskasak eta auto-trafiko handiak artzainei eragiten dizkieten arazoak saihesteko asmoz.

Gabon aurretxotik San Jose egunera arte barrutiak pagatzen zituzten artzainek. Tximinia bakarreko etxeak bilatzen zituzten aterpe modura. Tximinia bikoak txarrak ei ziren babazuza zegoenean ardientzako babesa aurkitzeko.

Trashumantzia txikia

Jatabeko artzainek, Marutxeagakoak batez ere, orain arte aipatu ditugun gipuzkoar eta nafarrek ez bezala, trashumantzia txikerra esaten zaiona egiten zuten. Gure berriemaileek *martxe* esaten diote. Urtarril-amaieran, hamazortzitik hogeira Andrakara (Lemoiz) joaten ziren eta bertan hile bi egiten zituzten. San Jose egunean etxera bueltatzen ziren. Sasoi horretatik aurrera jendeak ez zuen ardientzako barrutirik

---

[2] OAR-ARTETA, Segundo. "Pastoreo tradicional" in *Euskal Etnografiaren online ikastaroa*. 2009, 19. or.

eman gura izaten. Abeltzainak belar sikua batzen hasi ohi ziren sasoi horretan, ganadu gorriari emateko. Egun erdiko ibilaldia behar izaten zuten Andrakara joateko, izan ere, ondoko herrira joan besterik ez zuten egiten. Bertan, artzainentzako eta ardientzako lekua izango zen etxeren bat bilatzen zuten. Etxe hutsak izan ohi ziren egokienak.

> «Artegi guk Andrakara eroten gendun negun, ille bien Andrakan, eneron egunek emonta erote(n) gendusen, amasortzi-ogei, orretan egunetan eroan, eta ekarri San Jose egunen. Se ya gero jentek esaun gure ixetan barrutirik emon ardientzako. Barruti esaten da pastue edo sera... esaun gure ixetan emon se bedar sikue eurek koiuteko ganaduntzako, ta bedarra siketako. Ta ordun ya etzera etor bearra ote(n) san. Baia ya ote(n) san ordureko etzen bere.»

Barrutiak erosi behar izaten zituzten eta gehienetan baso egoki bat aurkitzea izaten zen helburua. Udan erre egiten zuten basoa eta urtarrilerako ardientzako belarra egoten zen bertan. Andrakara joaten ziren artzain jatabearrak, baina izan zitekeen barrutia Plentzian edo Urizarren (Lemoiz) egotea. Egunero eroaten zituzten ardiak Andrakatik barrutira.

Barrutiak topatzeko, etxean bakarrik zeuden itsasgizonen andreekin egiten zuten tratua gehienetan. Basoa aukeratzen zuten, uda inguruan erretzeko, eta trukean dirua ordaintzen zieten. Baina diru askorik ez zegoenean normala izaten zen ordainketa gazta eta artxoren batekin osatzea. Artxoa, batez ere, barrutia handia zenean ordaintzen zen.

Udan basoa zena urtarrilean belarlekua zen, eta bertan janaritzean ardiek uzten zuten satsa aprobetxatu egiten zuten nekazariek San Josetik aurrera lurrari etekina ateratzeko.

Bestalde, beste artzain jatabear batzuek ibarrera jaisten zituzten ardiak neguan. Bertan, soroak barruti modura hartzen ahalegintzen ziren.

Ardiak goiko larreetara igotzea

San Jose ezkeronen edozein egunetan antzuk dio gure lekukoen ardien gaineko esalegeak. San Jose egunetik aurrera lotuta dagoen ganadua askatu behar zela esaten ei zuten gure lekukoen arbasoek.

Artxoak edukitzeko sasoia amaitutzat ematen zuten neguko barrutietatik etxera bueltatu ahala. Eta orduan jezte lanak eta gaztagintzarekin lotutakoak hasten ziren.

Antzuak, umerik eduki ez eta esnerik ematen ez zuten ardiak, saldu ezik, San Jose egunean bertan botatzen ziren Jatako bizkarretara, Santakurtzera eta Goikomendira, Txiboko Landatik gora. Artxoa egin zutenak *jatzi* edo jetzi behar izaten ziren, eta beluago agintzen zituzten mendi-bizkarretara.

San Marko inguruan igotzen zituzten antzina ardiak borda inguruetara. Gerora, apurka-apurka igotzeko sasoia atzeratzen joan dira. Horretara, ardiak etxean jetzi egiten dituzte, Jatara igotzen ibili barik. Edo igo behar baldin bazuten ere, egun apur batzuk baino ez ziren izaten. San Juanetatik gutxira ardiak jezteari uzten zaio eta.

Orain hamarkada gutxi arte ez da zuhaitz askorik egon Jatan. Ardientzako belardiak izaten ziren. Eta bertan egoten ziren ardiak Gabon aurretxora arte.

Jataben borda, artegi edo *pastore-txabolak* egon badira ere, ez ei zegoen egun osoa bertan ematen zuen artzainik. Marutxeagako artzainek, etxea hur zeukatenez, ardiak jetzi eta jaitsi egiten ziren. Jezteari uzten ziotenetik etxetik begiratzen zieten ardiei, eta bizpahiru egunetik behin baino ez ziren igotzen. Arazorik egonez gero edo euren artegia beste batekin nahasten bazen, ostera, atoan igotzen ziren.

Ibarrekoek, eta baita Gatika eta Laukizetik Jatako bordetara joaten ziren artzainek ere, ardiengana egunez joan eta gauerako etxera jaisten ziren.

Baina baziren, Bastegiko artzainaren moduan, gauez joan, ardiak jetzi, bordan lo egin eta hurrengo goizean etxera baxatzen zenik ere. Galdara eta *errade* edo edarra izeneko edukiontzietan jaisten zuen esnea bere behorraren gainean.

Aro txarra hasten zenean, udagoienean edo beluenez neguan, ardiak goiko larretatik jaisten zituzten artzainek. Orduan, ardiak aldea-etxeko gortan edo etxe ondoko ardi-txabolan izaten zituzten garai batez. Horren ostean, urtarrilean, berriro hasiko zen zikloa. Gure lekukoen esanetan, euren gazte sasoian Jatan 3.000-4.000 ardi egoten ziren udan.

Ardien gaixoak eta osabideak

Atal honen barruan aztertuko ditugu ardien gaitz fisikoak, gure lekukoek erabili izan dituzten osabideak eta *marti kakatsu* izeneko madarikapena.

Ardien gaixorik gehienak berritzat dauzkate gure lekukoek. Lehenago ardien osasuna askoz hobea zen, antza denez.

Baskillea gaur eguneko gaitzat daukate gure lekukoek. Urte batean bizpahiru ardi hil zituen Txatximintan. Baskilea heldu zenean ia akabua izan zen berriemaileen arabera. Albaitariak probak egin zituen eta emaitzak Deriora agindu zituen. Albaitariak Txatximintako artzainari esan zion gaixoaren zergatia basoak zikin egotea eta ardiek belarra berdetan edo heze jatea zela. Horren aurrean, osabide legez, ardiek belar sikua jan zezatela gomendatu zien albaitariak. Txatximintako artzainak esaten ei zuen sekula ez zuela halako gaixorik ikusi. Ardiak egun batetik bestera hilda agertzen ziren.

> «Emen urte baten baskilleas-edo il yakusen ardi bi edo iru. *Baskilea zer da ba?* Amen ardik on sirenen akabu antzen ixen san, ta aitte difuntuk, ser ete dan ta betenariori abixau te ak esa'oskun basok dausela loittute, ta danak bedar berde-berde yaten derela ta andi formaten dala. Ta komeni dakola siku edo gause gogorrau yate. *Eta osatu lei hori?* Ill itten dire.»

Koxoa edo apatx arteko gaitza, martxan Andrakara etorritako artzain giputz batek ekarri ei zuen orain 55 urte pasatxo. Orduan kutsatu ei ziren Jata inguruetako ardiak betiko. Horren aurretik sekula ez zuten halako gaitzik ikusi. Inoiz ardiren bat herren agertzen bazen alanbreren batekin zaurituko zela pentsatzen zuten. Inola ere ez gaixo batek harrapatu zuenik.

Apatx arteko gaitza sartu zenetik ezin izaten zituzten ardiak begiratu barik bost egun baino gehiago utzi. Ezpabere arrautzak egiten zituen gaitzak, arrak irten eta

akabatu egiten zuten ardia. Gainera, sano gaitz kutsagarria zen. Horrexegatik ahalegintzen ziren ardi herrenak garaitikoekin ez nahasten. Lixibarekin garbitzen zizkieten apatxak, baina egun batzuetara berriro gaixotzen ziren.

Herren zegoen ardiari apatxa zuri-zuri lotzen zitzaion. Orduan, apatxa kendu eta *harri-berde* edo sulfatoa ematen zioten. Batzuetan, apatx erdian zeukaten zuloa itxi eta materia ateratzen zitzaien. Artzain batzuek apatxa estutzen zioten ardiari materia irten zedin. Gaur egun, ostera, albaitariak ekartzen duen botika urarekin nahastatu eta ardiaren apatxa igurzten dute.

> «Koxoa, nik esto(t) yakin koxoa ser dan arik eta amasei-amasortzi urte euki nusen arte. Esan emen egon ardi koxorik. (...) Antza ak ekarri i'un gaixo ori ona Gipuskuati lelengos. Ta ensegida nasta sakun errebaiñu. Eta nasta sakun, eta beti on dire koxoak, ta gero lejiaas kentze gendusen, ta iru-lau bider lejia intte bastante ondo garbitte eusen asikera antzen, ta gero asi siren kaskuk sertzen... Ta gero arri berdeas. *Zer da hori?* Sulfato ixengo da. Botilleas-edo apurtu-apurtu in, garan-garan bota botillera, ondo nastata imiñi eta kaskuek kanporaka asten badakos, ebai kutxilloas, ta artesa apur bet aik eskiñek. Baia kasku bittarte suri-suri intxe paraten dake. Ta gero emen kaskuen, goien, sillotxu bet, ta a sillotxue lantzemiñen sarratu itxen dake, ta ostantzen puse andi urteten dake, ta a estutu, supura dittesan, ta kura dittesan koxoak.»

Lekuko batek, ostera, *koxoa* euliek udan ardien apatxetan erruten dituzten arrautzei leporatzen die, ez gipuzkoar artzainari. Eta osabide moduan apatxak sarri eta ondo garbitu behar direla dio.

Ardietan ez dute hotzikararik ezagutu.

Sarne edo hazteria egon izan da Jatabeko ardien artean. Lixiba osabide moduan ona dela esan digute, baina sufrea gehiago erabiltzen zuten. Hala ere, sarritan eman arren, materia egiten zitzaien ardiei azalean. Txerriaren *behaztun* edo behazuna olioarekin nahastatuta desinfektatzaile moduko bat egiten zuten Añekan. Eta etxeko osabide horrek ematen ei zien emaitzarik onena.

Ardiak osatzeko, lekuak garrantzia duen praktika baten berri izan dugu gure ikerketan zehar. Izan ere, ardiei gaitzak sartzen zitzaizkienean, edozein zela ere, Belategiko landako harri ilara baten ondora eroaten zituzten. Bertan *kurak* edo osatzeko lanak egiten zizkieten ardiei. Baina beti ere, Belategiko landako harri ilararen ondora eroaten zituzten.

Artzaintzan adituek ardien gaixotasunen barruan sartzen duten madarikapen batekin amaituko dugu atala[3]. *Marti kakatsu, aprilen sartu natzatzu!* edo *Marti kakatsu, aprilean joango natzu!* dio esalegeak, aldaera biak batu ditugu eta. Artzain batzuen iritzian, bigarren aldaera apirilean aro txarra egingo duela esateko modu bat baino ez da. Baina badago lehenengo aldaeraren atzean ostentzen den pasartea gomutan izan duen lekukorik ere.

---

[3] OAR-ARTETA, Segundo. "El pastoreo en Bernagoitia y Garai (Bizkaia)" in *Etniker Bizkaia 11.* Derio, 1999, 104. or.

"Marti kakatsu, apirilean sartu natzaizu!" esan ei zion Zozoak martiari apirila heldu zenean, martiaren aro txarretik libre zegoela pentsatzen zuen eta. Baina apirileko babazuza garauak begia atera zion handik lasterrera.

Martian aro txarra egin izan du sarri, berriemaileen berbetan, baina baita apirilean ere. Horrexegatik San Markora arte tentuz ibili beharra ei dago, aro txarra egin lezakeela eta.

Borda edo artegia eta eskorta

Jatako bizkarretan borda edo artegiak egon izan dira orain gutxi arte. Artegiak –ez dezagun ahaztu artalde eta bordari esateko erabiltzen dutela jatabearrek artegi berba–, goiko larretara igotzerakoan funtzio garrantzitsua zuten bordek. Izan ere, gauez ardiak biltzeko balio zezaketen, artzainak lo egiteko erabiltzen zituen eta ardiak jezteko eskortak ere euren inguruan eraikitzen zituzten. Gaur egun, ostera, ezin izan dugu zutunik dagoen bat bera ere aurkitu. Orain hamabost urte sortutako sute batean erre ziren euretariko batzuk. Eukaliptoa erein zen garaian erauzi ei zituzten ordurako erre edo jausi ez zirenak. Eta eurekin batera joan da jatabearren kultur ondare aberatsaren zati bat.

Hara Jata bizkarretan eta Marutxeaga auzoan egon izan diren borden zerrenda, gure lekukoek gomutan gorde dituztenak behintzat: *Arteiko borde* (negurako), Etxebarri, Ikaza, Txatximintan bi egon ziren eta erdikoan Palentziatik etorritako artzain bat bizi izan zen, *Santakurtziko borde* edo *Iñebasoko borde, Bastegiko borde* eta *Markinarestiko borde*.

Lehenago esan dugun legez, Goietako biztanleek ardi-txabola deitzen diete denei, izena esaterakoan, sarri, txabola dagoen lekuari *borde* berba eransten dioten arren. Orokorrean, baina, ondoan etxerik ez duten txabolei borda, artegi edo *pastore-txabole* esaten diete gure lekuko gehienek.

Sarakotxe eta Txatximinta auzuneetako bordak egun izen bereko aldea-etxeak dauden lekuan ei zeuden. Berriemaile bakarrak izendatu ditu artegi moduan. Palentziako artzaina bertan bizi izanaren gomutak, ostera, indartu egiten du horren akordu isolatua. Bestalde, Mungigorta etxearen prozesua sano antzekoa izan zela jakin ahal izan dugu. Ataunetik etorritako artzainek borda egin zuten bertan lehenik eta beluago izen bereko etxea eraiki zuten.

Artei edo Artediko borda ei da negurako erabiltzen zen bakarra. Beste guztiak udan baino ez zituzten erabiltzen. Txabola bakoitzak bere jabea eduki izan du XX. gizaldian. Baina gure lekukoek entzun dute garai batean artzain ezberdinek erabiltzen zituztela. Sano antzeko egitura izan dute borda denek. Urtero erabili eta ondo jagonda zeuden bordak, *txabola nagosik* deitu izan die berriemaileren batek, teilazko teilatuarekin ezagutu dituzte gure lekukoek. Besteren batzuek, ostera, *junguz* edo ihiz egindako teilatuak zituzten. Akabuko horiek izan ziren desagertzen lehenak.

Harrizko hormak izaten zituzten. Kaperi modukoak izaten ei ziren, luzeak eta estuak ardiak barrura sartu behar baziren, aro txarra zela eta, artzainari eskapa ez zekizkien. Artzainak, lo egiteko, hormetan taketak sartzen zituen eta ardien gainean egiten zuen lo. Berriemaileek berba egin digute Jatako borda eta artzain bizimoduak dituen ezberdintasunez Gipuzkoa edo Nafarroan egiten denarekin. Horren arrazoia

artaldea eta artzainaren etxearen arteko distantzia dela aitortu digute. Jatako artzainak ez ziren bordetan bizi.

Borda edo artegiaren aurrean eskorta egoten zen. Ardiak batu eta jezteko borda kanpoan harriz egiten zen itxura biribil edo karratuko itxi gunea. *Erromare* esaten zaio eskorta ixteko erabiltzen zen egurrezko zarratuari.

> «*Ardi-txabolak zelakoak ziren barrutik?* Esees, orma batzuk, eta kaperi betzukes seraas intte, ta gero bertan borden aurren arrikes iñeko eskorte gaittute'akon borden kanpon jatzitteko, erromaratxu bet imintte, ate bat ixete les. Ori uderako. Ta gero negun ardi-bordak utzik oten siren.»

Borda dagoen lekuan eskorta egon ohi da beti. Baina badira Jatan bordarik bako eskortak ere. Bertan jezten zituzten ardiak, ardi-txakurren laguntzaz, gariari burua atera arte. Harrizkoak izan ziren eskorta guztiak, eta eukaliptoa landatu zuten sasoian apurtu zituzten indusketa makinek.

Askabittuko bizkarrean, Garaizar errotara jaisteko bidea hasten den pistako lekuaren gainean, esaterako, eskorta bat zegoen. Gauone baserritik Bakiorako bidean, *erreka bin erdi* esaten dioten lekuan bordarik bako eskorta bat dago.

San Juan, ardien patroia; belar berria etortzeko sua egitea eta artzainen batzarrak

San Juan da ardien patroia gure lekukoen esanetan. Ardiek San Juani eskatu ei zioten eguzkiko solztizioan eguna ordubete luzatzeko. Izan ere, ardiek iluntzean asko jaten dute, egun osoa baraurik eman izan balute legez.

Hiru urterik behin Jatako mendia erretzen zuten artzainek. Otei su ematen zieten belar berria etortzeko. Artzainek baimena eskatzen zuten sua egiteko, baina normalean ez zieten ematen. Gure lekukoen gomutan birritan baino ez zuten lortu artzainek sua egiteko baimena.

Artzainekiko mesfidantza zegoen Jatak su hartzen zuen bakoitzean. Behin bikote batek txuleta batzuk egin eta su hartu zuen mendiak. Amatatu zuten, baina sator zuloetan gordeta mantendu zen. Haizea altxatu zenean indar handiz irten zen sua eta solo zein etxe batzuk erre zituen. Artzainak, ostera, sua amatatzeko beharrean ibili ziren ia jan ere egin barik.

Belarra errez gero finagoa etortzen da hurrengoan. Eta horretara ardiek esne gehiago ematen dute eta arkume hobeak hazten dituzte. Gainera, basoa lohitzen joaten zen eta garbitu beharra zegoen. Herriko Etxeari eskatzen zioten artzainek mendia erretzeko baimena. Onartuz gero, Herriko Etxeak sua egiteko ordutegia zehazten zuen. Haizeei aditu beharra zegoen, eta su-bideak su bera erabilita egiten zituzten. Gurdibideetatik kontrolatzen zuten suaren norabidea eta, haize indartsua altxatuz gero, une larriak igarotzen zituzten.

Belategiko landan elkartzen ziren urtean behin Jatabe eta Bakioko artzainak. Jatabekoek ordaindu egiten zieten Bakiokoei euren ardiak beste aldera igarotzeagatik. Bakioztarrek ez ei zuten gura izaten, baina Aldundiak behartu egiten zituen. Izan ere, herriko haizeak jotzen zuenean Jatako gailurrera igotzen ziren ardiak eta iparrak joz gero, Belategiko landan agertzen ziren sarri. Hilario izeneko artzain batek batzen

zituen diruak eta Aldundiari ematen zizkion. Bagil-garagarril inguruan batzen ziren Belategiko landan, domeka arratsaldez, eta orduan egiten zituzten ordainketak eta arrazen arteko truke zein gurutzaketak. Batzarlekua zen Jatako artzainentzat.

Jatako gainean eta Belategiko landa inguruan pinua erein zenean ez zuen inork ere ordaindu artzainen zerga. Aldundikoek Jatabeko artzain baten ardiak Bakiora jaitsi eta izugarrizko isuna ordaindu arazi zioten. Orduan amaitu zen Jatako errenta pagatzea.

Artzainek elkarren arteko ezinikusiak izaten zituzten, gure lekukoek ez dute ezagutu artzainak batu eta elkarrekin jairik egiterik. Baina hainbat berriemailek gogoan dauka antzina Txiboko landako munarriaren inguruan batu eta parranda handiak egiten zituztela. Ardo zahagiari koñaka bota eta etxera heldu ezinik ibili ei ziren behin. Artzaina ez ei da parranda zalea. Baina behin irtenez gero, parranda luzeak egiten ei ditu.

XIV
HERRI LITERATURA

Atal honetan gure landa ikerketaren barruan batu ditugun kanta, errezitatu eta bertsoak agertuko dizkizuegu. Ez dira hemen ageriko guztiak. Izan ere, herri kultura, ulergarri izan dadin, bere ingurumari kulturalean opesteko ahalegina egin dugu. Beraz, liburuko hainbat ataletan zabaldurik lotu zaizkigu herri kanta eta errezitatuak. Herri medikuntzan, jaiotzatik heriotzara bitarteko ohikuneetan, herri egutegian... aurkituko dituzue gure lekukoen ahotik batu ditugun bitxilore gehiago.

Horrez gainera, badira batu baina lantxo honetara ekarri ez ditugun hainbat txiste, pasarte eta pasadizo. Erabaki horren zergatian larregi sakondu barik, aukera izango dugu, etorkizunean ere, gorderik lotu diren urrezko ale horiek argitara ekartzeko.

BERTSOLARIAK ETA TESTULARIAK

XIX. gizaldiko bertsolari ospetsuen oihartzuna bizirik dago gure lekukoen artean. Txirrita eta Pello Errota aipatu dizkigu batek baino gehiagok. XX. mendekoen artean ere bertsolari askoren izenak daude gure berriemaileen gomutan: Balendin Enbeita, Lopategi, Lazkao Txiki, Amuriza, Lizaso, Mañukorta... horietariko asko Mungiako jaietako bertso-saioetan ezagutu izan dituzte. Baina beste batzuk Jataben ere izan dira, urtero antolatzen duten bertso-afarian. Ez dira gutxi domekan-domekan telebistan bertsolariak ikusteko irrikan dauden jatabearrak.

Eskualdeko edo Jatabe inguruko herrietako bertsolari esanguratsuenak ere, ondo gogoan dituzte gure berriemaileek. Juan Ormaetxe, *Taket*, Meñakako bertsolaria estimu handian izan du elkarrizketatu dugun lekuko ugarik. Hanka bat egurrezkoa zeukan eta hortik zetorkion ezizena. Abertzale sutsua ei zen, plazan bere ideien alde kantatzen zuen eta sarritan amaitu zuen kartzelan. Jatabear askorentzat *Taket* izan da ezagutu duten bertsolaririk ospetsuena.

Jose Dobaran, *Unbe, Jose Baltza* edo *Txori* esaten ziotena ere, gizon on eta bertsolari estimatutzat daukate. Jatabeko txokoaren inaugurazioan abestu zuen. Bai-

na hori baino lehenago, ezaguna zen Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoan, ehizan eta egurgintzan ibilia zelako.

Lekuko batzuek gaur eguneko bertsolari gazteak ere zaletasun handiz jarraitzen dituzte. Mungiako San Antontxu eguneko saioa, Sukalki egunekoa eta urteroko Jatabeko txokoko bertso-afaria dira gure lekuko bertsozaleentzako zitarik garrantzitsuenak.

Herriko bertsolariak ere ezin ahaztu dira. Herriko tabernetan abesten zuten eta, antza denez, gerra aurretik Jatabeko etxe gehienetan egoten zen baten bat. San Antontxu egunean, Mungian, normala zen Jatabeko semeak ikustea, beste herri-bertsolari batzuekin deman.

Jatabeko herri-bertsolarien artean izen bat nabarmendu digute lekukoek: Jose Golzarri, *Elortegiko* esaten ziotena. Bertso ederrak botatzeaz gain testularia ere bazen, errimadun erantzun arinekoa alegia. *Jose amerikanu* esaten zioten auzoan Uruguaira joango zela jakin zutenetik, eta horrela erantzun ohi zuen: *Jose jon arten amerikanu izena hartute, etorri orduko egongo da galdute*. Uruguaira joatea baino Jataben lotzea gurago zuela esan zion gure lekuko bati betiko joan aurretxoan. Mahastiak eduki zituen eta Uruguain bertan hil zen.

Mungigortako andreak ere bertsolari onaren ospea zeukan. Baina ezagutu zuten adindunek esandakoari begira, bertsolaria baino testularia zela esan beharko genuke. Inork ez digu esan bertsorik abesten zuenik. Bai, ostera, erantzun errimatuak botatzeko erraztasun izugarria zeukala. Mungigorta etxearen izenaren inguruan genbiltzanean bere erantzun bat aipatu dugu. Hara bere beste pasadizo bat:

> «Ona elixara etorri i'san, ta emeko parrokok esa(n) i'aun, orreri gausa bat pregunta ber'tzu ia se kontestasiño emoten daun. Eta etorri i'san alan ta olan, ta: -Emen gaus gu diskusiñon ia nongo aixe dan onena- esan i'utzen enbre orreri ba. Ta enbre orrek esa'utzen: -Nik estaitx nongo ixengo dan onena, baia niri kontzuelorik andiña emoten daustena atzeko da. Ta abadek: -Estot esa(n) nik! Estot esa(n) nik!».

BERTSO BERRIAK FRANTZISKO ORBEGOZOKORI JARRIAK

Gure lekukoen gomutan ondo gorderik ageri da Jataben orain ehun urte inguru jazotako kasu bat. Eta kantatu egin dizkigute gertakari hark sortu zituen bertsoak.

Neska-mutil maitemindu bi egon ziren Jataben XX. gizaldi hasieran, Frantzisko Orbegozokoa eta Feliziana *Iñebaso* edo Unibasokoa. Mutila ez zen herriko aberatsenetakoa, *propietario* edo bizi zen etxeko jabea ere ez ei zen. Neskatoa, ostera, orduan herriko abadea zen don Juanen loba zen.

Herriko abadeak bikotea banatu zuen eta neska *propietario* edo lur-jabe batekin ezkondu zuen. Gure lekukoen esanetan, bizimodu txarra eman zion aberatsak neskatoari bizitza guztian. Frantzisko azkenean Felizianaren ahizpa batekin ezkondu zen. Baina ez lehenago bere kasua Eustakio *Eulea* Laukizko bertsolari ospetsuaren eskuetan utzi barik.

Eustakiok bertsoak jarri zituen, orduan Euskal Herri osoan ohitura zen moduan. Eta 1912ko apirilaren 25ean, San Markos egunean, zabaldu ziren Gatikan.

Bertsoetan herriko abadea aipatzen zen. Ondorioz, don Juanek bertso horiek bekatu zirela esan eta herritar askok bertso-paperak erre zituzten. Zorionez, ez ziren guztiak galdu. Eta gure lekukoen memoria eta Jesus Etxebarria abadeak gordetako bertso-paperari esker, hona horren entzutetsua izan zen bertso-sorta.

1

Bertso berriak kantaten noa
euskeraz eta eroso,
etorri hona inor badago
entzun eiteko ganoso.
Nor nazen bere esan behar dot
jakin daizuen hobeto,
Jataben jaio ta hazikoa naz
Frantzisko Orbegozoko.

2

Neure barrua beterik dago
banoa hutsitutera,
gerizpetako gauzak nahi neukez
atara eguzkitera.
Neure barruko enbarazu hau
dabil batetik bestera,
ez daukat onik enbarazu hau
kendu artean kanpora.

3

Enbarazu hau zer dan esaten
hasi behar dot gogorik,
egiak zuzen esango dodaz
ez dot esango guzurrik.
Denpora baten hartu ez baneun
ezkonduteko asmorik,
benturaz orain ez neban euko
barruko enbarazurik.

4

Denpora baten hartu nenduen
ezkonduteko asmue,
pentsau nenduen behar dodala
barriztau bizimodue.
Hemen igaro jatazan gauzak
betetu dauste barrue,
orain egiek azalduteko
berotuten jat burue.

5

Emaztegaitzat nor euki dodan
esan behar dot egie,
Feliziana Iñebasoko
izan da neure nobie.
Sarritan ondo jakinak gara
bata-bestearen barrie,
lehenengo bideak itxita orain
hartu daust bide barrie.

6

Felizianak esan daustena
izan da eguno beti,
beragaz gura banendun
jarraituteko gogoti.
Enbarazuok botako doguz
ez eizu bildurrik euki,
sartuko zara, Patxo, gurean
beste guztien ganeti.

7

Aita ta ama prest egon ziran
gu biok ezkonduteko,
eta nobiek agindu eustan
etxea arregletako.
Txarrie bere opatu eustan
gure banendun hilteko,
baita hil gindun txarrie bere
bion artean jateko.

8

Txarrien opa etor zanean
esan neutsean ederto,
ez neukela nik inor etxean
txarrie gobernatzeko.
Eta nobiek erantzun eustan
neurea entzun orduko:
neu nago hemen eta ez dozu
beste enbrarik beharko.

9

Koipeak urtu zituen eta
egin hainbeste txorizo,
baina lehenengo-lehenengo barriz
buzkentzak bere ederto.
Honek guztiok eginda dagoz
beretzako eta neutzako,
orain dinautse Felizianari
beste bide bat hartzeko.

10

Felizianak berak ez eban
hartuko beste biderik,
etxakolako inoz etorri
ni baino gurao dauenik.
Propietario bat agertu jako
baina ez dauko gogorik,
hagaz ezkondu behar dauela
eragin dautse bururik.

11

Aidetasuna daukagula ta
banandu gure gaitue,
gaur dabilena zelangoa dan
denporaz ikisikue.
Nigandik kendu behar dabela
berotu dautse burue,
Frantziskok orain azalduko dau
nortzuk daukean errue.

12

Errudunak bi jakinak dira
zein diren aita ta ama,
herriko parroko jauna barrez
ez da gitxien daukana.
Hau da lehengusu neurea eta
aita besoko dodana,
hauxe da beragana deitute
txaskoa emon daustana.

13

Hasi ginean berba egiten
aidetasunen ganean,
berba guztiek oso osorik
engainateko zirean.
Parroko jauna sendo egoan
berak hartuko idean,
egon dalako nire lekuan
beste bat sartu gurean.

14

Batean bata jazo ei dala
eta bestean bestea,
esan gurean hori ez dala
Jaungoikoaren legea.
Gura izan dau ni bildurtute
atzera gelditutea,
eta zabaldu propietario
nagosientzat atea.

15

Aide izan arren biek badire
interes bardinekoak,
Aita Santuen aurrean dire
askozaz argiagoak.
Ez dakit diren guzurrek ala
direan gauza justoak,
honeixek dira parroko jaunak
Patxori esanekoak.

16

Interesakaz euki ezgaitik
munduko bardintasune,
amodioa apurtutea
ez da tokaten jakune.
Non dago aita non dago ama
non parrokoan zentzune,
amodioak amodioa
dau beti bere lagune.

17

Hauxe da behintzat aita ta ama
ta parrokoan idea,
ni kendu handik eta han sartu
neure moduko aidea.
Neuk lehenengotik tratau ta gero
hau da Judasen burlea,
gero dinaude gorde daigula
Jaungoikoaren legea.

18

Hemen sartu da gure artean
Judas gaiztuan asmue,
amodiorik ezta gogoan
hemen gure da dirue.
Ni izan banintz propietario
hau da egie klarue,
propietario nagosiari
ez zan izango saldue.

19

Jaungoikoagaz ahaztute sarri
akordaten da dirue,
sarri askotan gauza ona da
pozgarri handie due.
Baina larrean sartu ezkero
pekatu egiten due,
Judasek bere diruegaitik
kondenau eban burue.

20

Gustu bagako ezkontzaren bat
inoz egingo bagendu,
mingostasunez beteten da ta
han elei ondo konpondu.
Gustu bagako tratua eiten
bihotzak nori lagundu?
Gero gustue hartutekotan
neu ez neiteke ezkondu.

21

Hasikeratik egiten bada
ezkontza gustu bakoa,
hau da gorputze ta arimea
betiko galdutekoa.
Poz handiegaz eginagaitik
ezkontza gozo-gozoa,
halantxe bere agertuten da
samintasunik nahikoa.

22

Entzun hau ondo zagozeanok
ezkontzearen begira,
amore bako ezkontzak gero
okerrak izaten dira.
Egun horretan krutze astun bat
dator lepoan erdira,
haxe behar da eroan gero
Kalbarioko mendira.

23

Kalbarioko mendi puntera
krutzea eroatea
errez ez dana erakutsiten
daukagu Jesus maitea.
Ez dakienak ez daki zer dan
ezkonduaren nekea,
hau ez da ume negarrik barik
txokolatea hartzea.

24

Agur ta agur Feliziana,
agur errudun guztiek,
gauzak ederto argitu dodaz
Jaungoikoari graziek.
Barruko minik ez daust emoten
berba egiten hasiek,
hau papeltxu hau bete dauenak
esango leukez egiek.

25

Neure barrua hutsitu da ba
berbaldi sendo bategaz,
esker handiak Jaungoikoari
orain emoten dautsedaz.
Enbarazuak kendute nago
hogei eta bost bertsogaz,
neure barrua geldituten da
poz handi bategaz.

Ezkontzak eta buzkentzak berotan behar deude. Eta *ezkondu armozaurre baten egiten da, baina gero segidutea da gatxa.* Hara gure lekukoek ezkontzaren gainean botatako esalege bi.

Jatabeko adindun andre batek esan zigun: "gizonak ezkontzerakoan *amarrata* lotzen dira, eta ordutik aurrera disgustatuta egoten dira". Argudio horretan sakontzeko, hona itsasoa ezagutu gura zuen mutil-gizon ezkonduaren kasua:

> «Mutil-gizon bat joan ei zan itsasora. Ez ei eban aurretik itsasoa ikusi inoiz. Itsasoa eta itsasoa entzuten eban, eta pentsau eban: *neuk bere ikusi behar dot horixe ba!* Joan ei zan eta jesarri egin zan, Sarakotxe inguruko itsasoren bat izango zan, haitzak daukazana. Itsasoa etorri, golpe bat emon harriei eta atzera bueltatzen ei zan ura. Barriro etorri, harriei golpea emon eta atzera bueltatzen zan ura. Mutil-gizonak pentsau eban: *Haiko, horrek dauka lotuezina!* –esan ei eban–. *Neu bere holaxe izan nok* –esan ei eutson itsasoari. –*Ezkondu hadi, lotzeko ez dago hobarik. Ezkondu nintzen eta nire abentura guztiak akaba jataz.*»

Hara ezkondu eta damutu zenaren kantua:

Zamudioko obispo jaunak
emon daustela kontseju,
estudiante tunante baino
hobe naukela ezkondu.
Ezkondu nitzen egin banitzen
baina bai niri damutu,
hari zuriek fraka baltzetan
ez jatez giau faltatu.

Fraka baltzetan hari zuriek esaerak, pobrezia handia esan gura du gure lekukoen esanetan.

Gizarte tradizionalean dotea sano gauza garrantzitsua zen ezkontzari begira. Hona hemen aita kapitainak doterik eman ez arren senarra topatu eta beharrean ibiltzen zen Joxepa Antoniren kantu ezaguna.

Joxepa Antoni kolore gorri
kapitan baten alaba
aitak doterik emon ez arren
bilatuko dau senarra.
Astelehenean ezkondu eta
martitzenean etxera,
eguaztenean orbelak batu
eguenean solora,
barikun bere bendeje batu
zapatun bere plazara,
domeka goizen apaindu eta
hamarratako mezara.

Baina sarritan sortzen zen maitemina, eta bikotekide batek bestea uztea ere. Hara horren gainean berba egin eta euskara erdararekin nahasten dituen kanta. Jatabeko neska gazteek erromerietan kantatu ohi zuten.

–Enei qué triste estás
¿qué te pasa Erramona?,
–Es que Juantxu me ha dejado
por un chica de Lejona.
–Ene y ¿qué vas a haser?
–Tener pasiensia.
–Casarás con director
de tu esistensia.
–Yo no quiero director
semejante nontzebarri
con su cara de ladrón
que parece un gran zaparri.

Honako kantan, berriz, alabak amari mutil-laguna eskatzen dio.

–Deseos tengo para casarme
amatxu neurea,
búscame nobio pronto
mutila gaztea.
–¿Para qué quieres si ahí lo tienes
auzoko mutila,
que tiene buen oficio
galdaragillea?
–Comprenda madre que yo no quiero
galdaragillerik,
siendo menos posible
potro bakardunik.
–Isilik zaude nanarri hori
tu eres muy joven ezkontzeko,
si me levanto te voy a dar
bi belarriondoko.

Hurrengoa, ostera, gure lekukoek Markaidetako mutilek kantatzen zutela esaten dute.

Zitilin-zatalan egin genduanean
egon ginen gu kontentu,
zintilin-zatalan eginagaitik
zuloa bere lekuan,
gorputzeari gustua emon ta
diruak egin nituan.

Zuk emon eta nik hartu
hori ez da bekatu,
zintilin-zatalan egin genduanean
egon ginen gu kontentu,
zintilin-zatalan eginagaitik
zuloa bere lekuan,
gorputzari gustoa emon ta
diruak egin nituan.

GERRA KANTAK

1936ko gerrak min izugarria zabaldu zuen Euskal Herriko etxeetan. Hara, gerra aurrean eta gerra sasoian gure lekuko batzuek entzundako kanta.

Laister ikusiko du Euskadi askatuta,
eta belarri motza azpin zapalduta,
laster ikusiko du Euskadi askatuta,
eta belarrimotza guztiz zapalduta.
Gora Euskadi, gora beti,
biba Sabino Arana Goiri,
Jaungoikoa, legezarra,
gora ta gora euskotarra,
eta tiro eta tiro eta tiro baltzari,
eta tiro eta tiro belarrimotzari.

KOPLA ZAHARRAK

Liburuan zehar, bakoitza bere ingurumari kulturalean txertatuta aurkituko dituzue kopla gehiago. Baina hona dakarzkizuegu garaitikoetatik bereizita agertzea merezi duten batzuk. Dakargun lehenengo kopla dirua ostentzearekin lotuta dago. Ez da aurretik inon batu bakoa. Hainbat kopla bilketatan agertu izan da eta Jabier Kalzakorta, euskal ahozko literaturaren ikerlari nekaezinak, Antonio Goitia *bibolinteruarekin* lotzen du[1]. Gainera, honako koplaren atzean legokeen ipuinaren berri ematen digu.

Goieta, Basordaportu edo Marutxeaga auzoko lekuko batek bota zigun. Bere etxe inguruan haritz ugari zeuden sasoi batean, eta Lauziriko landa, Jatako urrea eta antzeko gaien inguruan berba egin ostean, honako kopla bota zigun:

[1] KALZAKORTA, Jabier. *Dantza-kopla zaharrak*. Bilbao, 2007, 73. or.

Ehun duket dodaz
haritz arro[2] baten,
beste ehun edo berrehun gorde behar dodaz
bihar edo baten.

Bigarrena, berriz, Agustin Kilometro esaten zioten dendari baten gainekoa da:

Agustin Kilometro
denderu karue,
sonbreru zabalean
zintxe moradue.

Gasteizera joandako aitita-amamen gainekoa da hurrengoa:

Aitxitxe dala tutulunberde
amama dala masuste,
aitxitxe doa Bitxuriera
amama txikoan hartute.

Beste kopla hau Iurretako Dantzari-dantzari loturik ageri izan da hainbat kopla bilketatan[3]:

–Aitxe Juaniko, seme Periko,
zer dekok afaritxeko?
–Arrotzetxu bet eta makallo
talo beroaz jateko.

Hurrengo kopla biek aldea-etxeko bizimoduaren gainekoak dira:

Ama kamaran eta
aitxe sutepean,
neska-mutillek bere
eskilerapean.

Amoma koitxedea
gortati negarrez,
katuek darotsola
taloa dandarrez.

---

[2] Haritz arroa sekula inausi bakoa da.
[3] AMURIZA, Xabier. *Bizkaiko Bertsogintza Izengabeak. I.* Bilbao, 1995, 65. or

ERREZITATUAK

Hona dakargun lehenengo errezitatua seintxoei kantatzen zieten amek eta amamek. Errezitatu honen bidez eskuko atzamar bakoitzari funtzio bat ematen zioten. Atzamar txikerretik hasi eta erpururaino errezitatzen zen:

Honek arrotzetxu topau,
honek prestau,
honek probau,
honek jan,
ta honek lo.

Hona hemen jatabear gazteek elkarri adarra jotzeko erabiltzen zituzten pare bat errezitatu.

Jose Mose giterra
ahuntzelazeko bixerra,
janta bere gose,
edanta bere egarri,
Jose baragarri!

Pedro Pedrolin
toca el tambolín.
Enbrak elizara,
gizonak tabernara.
Pedro kakatara!

Honako hau Basordako haitzetara lapa bila joaten zirenean botatzen zuten:

Tanparranpatan
gozen lapatan,
handik etorritxe
egosi txe yan.

Hurrengoak, ostera, antzara eta txepetxaren arteko kontu bat dakarkigu:

Anbiola ta enbiola
epetxak antzarra jan biola,
epetxak antzarra jan daunen
tripe zitxela bete deu.

Errezitatu hau seintxoa belaun gainean paratu eta kantatzen zen, belaunei gora eta behera eraginez:

Anton txikitin Bilbora noa,
Anton txikitin zer eitxen,

Anton txikitin makallotxu bet,
Anton txikitin erositxen.

ARTOLAREN KANTA

Herri-literaturarekin lotutako garaitiko altxorrekin batera agertu zaigu Artola albokari ospetsua aipatzen duen kanta bat. Maurizia Aldeiturriaga eta Leon Bilbaok abesten zuten bertsioa famatu bazaigu ere, hona hemen Jataben batutakoa. Ez digu Pariseko kaleetan zehar egindako posturaren berririk ematen, Arratiako aldaerak legez. Baina, hangoan ez bezala, apustuaren amaieraren berri ematen digu. Artolari, Parisko kalerik luzeena osorik alboka joten igarotzeko postura irabaz ez zezan, alboka eskuarekin estali zion aurkariak. Irabazi guran aurrera egiten ahalegindu zen Artola, ito eta hil zen arte.

Artolak deko, Artolak deko
Artolak deko plantea
Berea dagola, berea dagola
mundu guztiko jentea.
Artola si, Artola no
Artola zeruen dago.

XV
MITOLOGIA

Mitologia esaten zaie kristautasunaren aurretik euskaldunok izandako erlijio zaharretik egungo sasoietaraino heldu diren oihartzunei. Erlijio zahar hori, Jose Miguel Barandiaranen iritzian[1], hiru kultur etapatan sortu zen. Indoeuropar artzain kulturak eta kultura erromatarrak eragin garrantzitsua izan zuten. Eta bere oihartzun batzuk orain arte ere liburuko beste atal batzuetan agertu dira: herri egutegian, jaiotzetik heriotzara arteko erituetan, kasurako. Atal honetan zantzu horietako beste hainbat elementu aipatuko ditugu, jatorri argirik gabeko beste sinesmen batzuekin batera.

SINESMENAK

Animalien gainekoak

Animalia batzuk begiko izan dituzte gizarte tradizionalean. Beste batzuk, ostera, begitan hartu izan dituzte, ezbehar sortzaileak zirela eta. Istorio batzuk batu ditugu, halako batzuen gainean, egozten zaizkien ezaugarrien zergatia azaltzeko. Beste batzuetan, ostera, lekukoek ez dakite azaltzen zergatik daukan animaliak ezartzen zaion ospea.

Gizarte tradizionalean erabat debekaturik zegoen animalia batzuei kalte egitea, eta are gehiago hiltzea. Horiei esango diegu *animalia sakratuak*. Gainera, lekukoek eurek, berba hori erabiltzen dute aipatuko ditugun animalia batzuei esateko.

---

[1] BARANDIARAN, Jose Miguel. "Sobre las antiguas religiones de los vascos" in *Obras Completas*. V. Bilbao, 1974, 435. or.

Elaia hiltzea debekatzen zieten gure lekukoen gurasoek seme-alabei. Erradura zaharra ipintzen zitzaien etxeko atarian elaiei, bertan habia egin zezaten. Izan ere, elaiak leku berean egiten ei du habia urtero. Habia handitu egiten dute urterik urtera, eta ohitura egon da elaiaren habia errespetatzeko elaiak alde egin eta gero ere. Azken urteetan, habia lohia dela eta, etxeak berritu dituztela eta, elaien habia asko apurtu ei dituzte. Antzina ere baziren elaiaren habia apurtzeko arrazoiak. Kultura askotan udaberriaren etorreraren sinboloa da elaia, eta gure lekukoek baieztatzen dute elaia goizetik etortzen dela udaberrian. Baina ez da denentzat gauza segurua udaberriko lehenengo txoria izatea, kukua lehenago agertzen ez ote den da batzuen zalantza. Beste lekuko batzuek argi diote elaia dela udaberrian datorren lehenengo txoria. Portalean habia egin, umeak hazi eta berriro ospa egiten du.

Elaiak mesede handia egiten die etxekoei eltxoak eta beste mamarro batzuk harrapatzen dituelako. Elaiaren faltak uda eulitsuak dakartza, lekukoen esanetan, eta egoera deserosoa izaten da aldea-etxeetan. Txori sakratua dela esan digu lekuko batek baino gehiagok, errespetu itzela edukitzen zitzaion. Horrexegatik, hain zuzen ere, ez zieten umeei ixten elaiei kalterik egiten. Elaia hiltzea bekatua izaten zen.

Txindorra ere txori estimatua da. Berri ona ei dakar beti txindorrak. Etxeko portalera, bentana ondora eta inoiz etxe barrura ere sartzen ei da txindorra. Inor soroan beharrean dabilenean hurreratu ohi da txindorra, eta ez ei da ikaratzen ez aitzurrarekin, ezta golpeekin ere. Txindorra hiltzea debekaturik egon da beti, lekukoen gomutan, eta ehiztari askoko etxeetan ere ez zen txindorrik hiltzen. Dena dela, *txori inuxente* dela esan digute lekuko batzuek. Umetan, txorientzako tranpak egiten zituztenean, txindorra tranpara artez joaten ei zen. Eta gura barik ere hiltzen zituzten batzuk, gurasoek bekatua zela esan arren.

Badago ipuin bat txindorraren, zozoaren eta *sorgin-epetxaren* edo *epetxaren* gainean. Ipuin horrek txori bakoitzak daukan sinbolismoaren zergatia azaltzen du, antza denez. Txepetxak kaka egin ei zion Jesukristori, zozoak garbitzeko ura eroan zuen eta txindorrak kaka garbitu zion.

Txindorra inguruan dabilkionari berri ona etorriko zaio laster. Ostera, eguraldi ona dagoenean, txindorra triste badago, berri txarra dakarrela uste dute.

> «Epetxak nobedade txarra dakarrela, orixe esate da. Ta ostera txindorra ingerun badabill esaten dere barri ona, seoser ona ekarko dau orrek. Eta txindorra olan denpora txarra daunen ta bere triste oten da, baia olan denpora ona ta, txindorra triste badau, igual andik egun batera edo bire, edo egun beratan igual, seoser nonon notisi txarra.»

Txepetxari *epetxa* eta *sorgin-epetxa* esaten diote Jataben. Eta aurretik ikusi dituguneken alderatuta, lekukoek estimuan ez daukaten txoria da. Jesusi kaka egin ziola dioen ipuina da txepetxa begitan hartzeko batu dugun arrazoirik sendoena. Txori txikerra da, eta bere kantuak urduritu egiten ditu lekukoak. Inguruan txepetxa badabilkizu jazoera txar bat helduko den seinalea ei da. Txepetxaren kantuak *zer txarra emoten dau*. Eta adibide moduan, bizarginareneraino atzetik *sorgin-epetxak* jarraitu zion gizonaren pasadizoa. Bizarginaren etxera heldu eta indar elektrikoa bat-batean joan ei zen. Jazoera txepetxari egotzi zioten.

Kukua da beste txori sakratuetariko bat. Apirilaren zortzirako ez badator, apirilaren bosterako beste lekuko batzuen iritzian, hileta prestatu behar ei zaio. Baina lekukoen arabera, San Joseetarako heltzen da beti. Gero, San Pedrotxu egunean Laukiztxikerren alkatearen alabarekin aurreskua dantzatu eta ospa egiten ei du. Bagiletik aurrera ez da kukurik entzuten. Heltzen denean suabe kantatzen du, denbora ona datorrenean gogor aritzen da, baina gero katarroa hartuta legez abesten ei du.

> «Kuku marti ingerun, San Jose ingerureko etorten da eta aprillen sortzireko espadator serak itxen asteko berari, onrak. Eta yon atzera San Pedrotxu egunen Laukistxikerren aurresku intxe yoten dala... Eta junioti gora kukurik estosu entzungo e!»

Kukua txori alperra ei da. Txepetxari jaten dizkio arrautzak eta bereak uzten ditu txepetxaren habian. Gero, txepetxa erotuta ibiltzen da bera baino handiagoak diren kumeei jaten emateko. Txepetxak hazten ditu kukuaren kumeak. Kukua lehenengo aldiz kantatzen entzuterakoan, *kuku egunen*, poltsan dirurik izanez gero, urte horretan ez zaizu dirurik faltako. Baina sineste horrek baldintza bat dauka, ezustean entzun behar da kukua, hau da, aurretik entzungo duzula jakin barik.

> «Kuku alperra da, kukuk itxen dotzola epetxari, epetxak itxen dotzosela beran arrotza(k) yan, eta beran abin, epetxan abien arrotza bat intxe imiñi, arrutze itxen dotzola, ta epetxak ataten daula an. Ta epetxa ibiltten dala bija ta bija ta bija, se klaro epetxak gitxi emon ta kuku andi ixekeran, ibiltten dala a mantenidu esiñik. Orreaittik da esatea kuku alperra dala se umek iñori asi erain'tzosela.»

Gaueko txorien artean, mozoloa pertsonei era negatiboan deitzeko esaten da, kokoloa esateko. Eta bestetik, *gauontzak* zorte ona dakarrela diote berriemaileek.

Mikaren gainean, ostera, loroen moduan berba egin lezakeen ustea zabalduta dago.

Antzarek eta itsastxoriek *atze txarra* dakarte. Hau da, itsastxoria lur barrurantz sartzen denean ekaitza ei dator itsasotik. Eta antzarak, iparretik datozenean atzetik negua dakartelako da.

Bele-baltza eta erroia txori bi dira. Bigarrena lehenengoa baino handiagoa. Batak zein besteak ospe txarra izan dute jatabearren artean. Ahal izanez gero hil egiten zituzten.

Martian, urteko hirugarren hilabetean, jaiotako animaliak bereziak dira. Marti-zozoaren kantuak, esate baterako, denbora ona iragartzen du. *Martin-zozo hasi da kantaten eta zeuzer ingo du* izaten zen udaberri hasierako esaera. Eguzkia irteterekin batera abesten zuen. Marti-zozoak umeak garaitikoek baino arinago egiten ei ditu.

Martiko *txitxak* edo txitak beste edozeinek baino lehenago egiten ditu arrautzak. Martian jaiotako oiloa handiagoa egiten da besteak baino, eta arrautza gehiago ipintzen ei ditu.

Baina guztien artean bereziena *martiko-oilarra* da. Lekukoen arabera, martiko oilarraren kantua beti izan da berezia. Eta horren harira batu dugun ipuin batek azaltzen du nolako zigorra hartu zuen mutil batek, parrandatik belu zetorrenean salatzen

zuen martiko oilarra hil zuelako. Martiko oilarrak mutila babesten zuen, eta mutilak oilarra hil zuenean, berari ere heldu zitzaion heriotza, odola galduta. Hau da, hartu zuen sustoak eraginda.

Baina txoriak bakarrik ez dira sakratuak eta hiltzeko debekuaren babespekoak. Marutxeaga auzoan batua da, gure lekukoen gurasoen sasoian erlea hiltzea debekatuta zegoela. Eta hil ezin ziren animalien arteko mailakatzearen berri ematen digu. Izan ere, Billelabasoetan, garai haretan gertatuko jazoera batek sakratutzat deskribatu dugun hegazti batekin sartu zuen gatazkan. Etxean erlea zeukan gizonaren etxeko atarian habia egin zuen elaiak. Eta bere kumak hazteko erleak jaten hasi zen. Elaiak erlea jatea haserre handietarako arrazoi izaten ei zen. Eta hori pasatu zen etxean, elaiaren habia kentzea erabaki zuten.

Hiltzeko debekutik kanpo, eta beste tonu batean batua da zapoaren eta satorraren istorioa. Lehenengoaren inguruan San Juan bezperako ohikundea aztertzean eman dugu zapoari egozten zaion izaeraren azalpentxoa. Eta hara zapoak satorrari buztana begien truke zelan aldatu zion kontatzen duen azalpena:

> «Esaten da satorrak begi(k) kanbia otzosela sapoari bustenaaitti, barrutik dabillela ta estittule ber esautzela ta. Eta bustena emo'utzen sapok satorrari.»

Sugearen inguruan aurrerago egingo dugu berba, *sorgin-lezak*, *laminek* eta Lamitzeta erreka aipatzen ditugunean. Eta San Juan bezperako ohikundeetan ere aipatu dugu. Bera eta zapoa akabatzeko erabiltzen zen modua aipatu dugu. Baina azpiatal honetan sineskera orokorragoak aipatuko ditugu. *Suben egune* esaten zaio ekaitza, justuriak, sargoria eta lurra bustita dagoen egunari. Orduan ateratzen ei dira sugeak euren habietatik.

Euskal Herri osoan zabaldutako sugearen gaineko beste kontakizun bat jaso dugu. Lekuko batzuek ipuin modura kontatzen dute. Beste batzuek, ostera, 1955. urte inguruan jazotako kasu bat kontatu digute, baita egoera deskribatu ere. Gertakaria eta ipuineko istorioa antzekoak dira, baina ez bera. Ipuinean, sugea hankatik gora igotzen zaio behiari, errapetik esnea edateko, eta istorioaren amaiera ez da argitzen. Gertakarian, ostera, sugea ardiei igotzen zaie hankatik gora esnea edateko, lekukoek behiei gauza bera gertatzea ikusi duten arren. Baita ardiak zauritu eta errape zatiak jan ere. Azkenean, artzainaren morroiak eskopetarekin hil zituen sugeak, metrotik gorako bi ziren eta. Sugeak ardiengana eta behiengana joateko arrazoitzat agertzen da esnearen usainak deitzen diela.

Azkenik, euskal kulturan, azken bi mila urteetan, sikiera, garrantzi berezia eduki duen animaliaren gainean batutakoak agertuko ditugu. *Akar baltza* gorta barruetan eduki izan dute Jataben, gainerako piztiak gaixoetatik babesteko. Nafarreriaren aurka erabili izana batu dugu. Biriketarako gaitzetarako, edo airearen bidez kutsatzen diren gaitzetatik babesteko sano ona da aker beltzaren *sunde* edo hatsa. Gortako atean aker beltza ipintzen zuten, gaitzik sartu ez zedin eta *albeitxari* legez dute etxe batzuetan. Batzuek albaitariari deitzen zioten, garaitikoek, aker beltza edukitzen zuten gortan.

Akerrari esateko *Txibo* berba ere erabili izan dute lekukoek, azaltzeko, hortik datorkiola izena Txiboko Landari. Pizti honen gainean batu dugun beste sinesmen

batek dio aker beltz zaharrak pertsonen antzera egiten duela berba. Baina zaharra izan behar du, gazteak ez ei du egiten.

> «Guk atxiñe, ser asko on san, nire denpore baiño lentxuau ixen san, gure aitxe ta gaste sirela, tuberkuloso on siren, ganadu(k) pere. Eta batan batek esa'utzen akarra imintxeko gortan. Eta akarra imi'aunik eta gora esaun giau koxi. Ta akarra ote(n) san alaseko adarrakas eta berba in: *bou-bou-bou*... ak itxe'ausen berbak! Billurre galanta eukitxe geuntzen guk, kate apurtu edo itxe'aunen, danori topeka iñ. Okerra! Aitxek domiña ber ixete'un se osten a..., aas aguantatekorik esan oten. Ateri bere topeka itxe eutzen... Eta berba, berbotzak itzelak itxe ausen, buenooo! Eta atza! Atza itzela, baia antza gortarako ona ixen san.»

Eguraldi iragarpenari buruzkoak

Sinesmen bat baino gehiago batu ditugu eguraldia iragartzeko. Batzuetan animaliak dira protagonista, beste batzuetan, ostera, gizakiak. Urteko egun berezi batzuetan egindako erituen bidez egiten zen iragarpena. Zeruak eta haizeak ere eguraldia iragartzen dute, horretarako trebetasuna daukaten jatabearren artean.

Esaldi sano erabilia da gure lekukoen artean ganaduak eguraldia iragartzen duela. Txorien sinbolismoaren inguruko azpiatalean deskribatu ditugu iragarpen mota batzuk.

Batzuek urtaroen hasiera eta amaiera iragartzeko erabiltzen zituzten: elaia, martizozoa, antzarak... Eta beste batzuek, itsastxorien moduan, denborala iragartzen dute. Eguraldiari esateko *denpore* eta *aro* berbak erabiltzen dira Jataben. *Denpora* ona oskarbia da, beste barik. *Denporale* eguraldi txarra, euria eta babazuza. Baina *ereiteko aro ona* esaerak, lurraren tenperatura, urtaroa, ilbehera, aurreko euria eta oraingo eguzkia hartzen ditu barruan. Hala ere, zeruko eguraldiari esateko ere erabiltzen da.

Denbora ona egiten duenean, ardiak Jatan gora igotzen dira, eta han egiten dute lo. Eguraldi txarra badator, menditik jaisten dira eta ez dute igo gura. Zaldi eta behorrek ere, jokabide bera erakusten dute. *Piztik denporale iragarten dau*.

Edozelan ere, ardiak *herriko haize* edo hego-haizea iragartzeko baino ez ei du balio artzain batzuen iritzian, beti horren bila doala eta. Zaldia zuhurragoa ei da. *Denporale* etorri baino bizpahiru egun lehenago ikusten ei zituzten saltoka, *girrintzeka* eta Jatako behe aldeko troketara batzen.

> «*Piztiak bere iragarten dabe denporea ezta?* Ardik erriko aixeri uniku, ostantzen ardi iñusente da. Kaballo da surrau. Kaballeri denporala badator, bier edo etzi edo: –An Yatako kaballok asi dire alkarreri saltuke ta girrintzeka ta beko trokatara batzen–. Ta denporala dator, ta *efectivamente*. Ardi serau da, apur bet itxen dau, baia gausa gitxi. Ardi erriko aixera, mendin badau aixetara, danak airen ibiltte gustaten dako ardiri.»

Jatako artzainek eguraldia igartzeko gauza askori begiratzen zieten. Haizea zelakoa den, nondik datorren, lainorik dagoen eta baita itsasoan errekak ikusten diren ala ez. Azken hori betetzen bada, euri askorik egingo ez duen seinalea ei da.

Hara zeruaren egoera eta kolorearekin lotutako sinesmenak. Iluntzea gorria denean, hurrengo egunean denbora ona egingo du. Goiza gorria denean, ostera, denbora aldaketa dator. Gauez, zerua *izerratute* badago, hurrengo egunean eguraldi ona egingo duelako da. Horri loturik, Jatako artzainek, gauez ikusten zituzten izarren gainean berba egin digute. Horien artean *hiruizerrak* (neurri berekoak eta artez distantzia berera bata bestearengandik), *seizerrak, estrella polarra, Venus* (argirik gehien ematen duen izarra), *norteko karrok* eta *zazpi ahumek*. Izar lokak *leku bateti urten ta beste baten sartu itxen diren izerrak* esaten diete, argi utzi ostean izar horiek ez direla jausten. Batzuentzat gurari bat eskatzeko arrazoi eta besteentzat desgrazi iturri ei ziren izar lokak.

Iretargiari aditzea izan ohi da eguraldia igartzeko beste era bat. Ilargia euritan jaio bada, ilargi betera arte euria egingo du. Iretargi betearen ostean herriko haizea badator, iretargi berrira arte haize hori ibiliko da. Iretargia denbora onarekin jaiotzen bada, sikatea etorriko delako da.

> «Gero iretargi(k) pere bai, iretargi euritxen yaio bada, ba en jeneralen arik eta iretargi beterarten eurie. Denpora onan bat edo bi in leikes, baia gero ostabere eurie. Ta gero iretargi beten ostabere bueltaten bada, erriko aixetara-edo, ba erriko aixe arik eta iretargi barrirarten. Iretargi gexo yaioten bada, gexo. Denpora onen yaioten bada, en jeneral sikete-edo, ba sikete aurrera bere. Iretargi(k) pere asko esan gure dau.»

Azkenik, *karta-denporak* izan dira eguraldia iragartzeko modurik ezagunena. Tenporak hiru egun dira, eta urtaro bakoitza hasi aurretxoan hurrengo hiru hilabeteetako eguraldiaren berri ematen dute. Lekukoen arabera, tenporak eguazten, eguen eta zapatuetan izaten dira, egundo ez barikuetan. *Karta-denporatan*, zapatu gaueko hamabietan haizeak nondik jotzen duen begiratzen da hurrengo hiru hilabeteetako haizearen berri izateko. Neurketa hori egiteko, gure lekukoen sasoian, ezkondu bako gizon bat igo ohi zen Santakurtze mendira. Hiru tenpora egunetan, goizez eta gauez, Santakurtzen, gari-txola altxatzen zuen eta horretara igartzen zuen nondik jotzen zuen haizeak, eta hiru egunetakoak leku beretik joz gero, baita hurrengo hilabeteetan nondik joko zuen ere. Beste gizon batzuek, etxeko portalean gaueko hamabietan kandela isiotuta igartzen zuten haizearen norabidea.

> «Selau denpore datorren igerteko, ba segun selau aixe, nondik, segun selau laiño..., itxoson ikusten basendusen errekak, itxosoko errekak, kasureko euri andik ingo badittu espadittu, errekak badekos estau euri andirik ingo, iñ in lei, baia euri andirik es. Gausa asko daus denpore igerteko, karta-denporak, tenporak, kasureko... (...) Ta emen dabillena(k) geienak iretargies, denporak ixeten dires egustena, eta eguena ta sapatue. Barikun esta ixen tenporarik iños. Ta gero orretan egunetan orrek iru illebeterako ixeten dires. Orretan iru egunetan an akabuko sapatuen gaueko amabietan nondik aixe dabillen, arek iru illebetetan aixe ibilko da, ordun aixe nondik dabillen... Ta naiko ondo asertaten deure e!»

Leku berezien gainekoak

Aurreko ataletan aipatu ditugu sinesmen eta erituekin lotuta ageri diren leku bereziak. Sarritan aipatu dugu hiru harri handik mugatzen zuten hariztia eta landamina: Marurizarra etxeko harri landu handiak, Sabinone etxekoak eta Markaidetatik datorren errepideak egiten duen bidegurutzean horma baten kontra dagoenak. Errogatibak, prozesioak, ganadua bedeinkatzea... izaera erlijioso handiko ekintzak egiten izan dira aipatu dugun eremuan.

Iribi edo Gaztañaederra etxearen inguruko hariztian ganaduak tasatzen zituzten.

Beraz, hariztia eta landamina batzen zituzten lekuak bereziak izan dira jatabearrentzat. Landamina azaltzeko hiru ideia transmititu dizkigute lekukoek: inork ukitu gabeko belarra zela; belar usaintsuak, mantzanila eta antzekoak berez ateratzen zirela; eta iturri edo urburuak izaten zituztela. Halakoen inguruan haritzak egon ohi dira.

Landaminak dira Txiboko Landa eta Belategikoa. Txibokoaren inguruan ere hariztia eta borda bat zeuden antzina. Belategikoak, gainera, ezaugarri bereziak ditu. Izan ere, abereen salmenta, artzainen arteko ordainketak, eta abereen arraza gurutzaketak bertan egiteaz gainera, ardiak gaixoetatik osatzera ere Belategiko landako harri ilera baten ondora eroaten zituzten. Zergatia, ostera, ez dakite lekukoek. Belategiko landatik Jatatxikerrera doan bidean *Kurtze Txikerre* zegoen. Lekukoek erdi jausita ezagutu zuten, harri batzuen ondoan. Jatanagusiko gailurraren iparmendebalderantza ere, gurutzeak egon ei ziren.

Kredoko landea esaten diote lekukoek Goieta auzotik Urizarrera (Lemoiz) joateko, galtzada zaharretik, Goikomendiko gainetik bestaldera dagoen landa bati. Elizaz lemoiztarrak ziren jatabearrek elizara joateko egiten zuten bidean zegoen. *Kredoko landea* zehar-zeharra zen eta erdi-erdian munarri handi bat zegoen. Gainera igotzen ziren gazteak, salto bat egin eta aurrera egiten zuten. Landa horretara helduta kredoa errezatzea izaten zen ohitura.

> «Yoten giñen Merdekako errekati, Momate ganeti, Erlati eta gero Kredoko lande oten san an goien. Ta kredo bat erresate san an, nik estaitx ser ixete san, ara aillegaten danen. Ta gero berantza Lemuixera. *Kredoko landa?* Bai Kredoko lande ote(n) san, ta kredo erresaten irekatzi euskuen guri ara aillegaten garenen. Ara aillegakeran asi kredo ta andi bera aillegaten dan lekuraiño erresaten gendun, ta gero Lemuisko elixara.»

Azkenik, Txiboko Landa eta bere ingurua deskribatuko dugu. Izan ere, sinesmenetan sano aberatsa da inguru hori.

Txiboko Landan bidegurutze bat eta hiru *munarri* daude, bata beste biak baino nabarmen handiagoa. Antzina Plentzia, Lemoiz, Mungia eta Jatabeko artzainak batzen ei ziren bertan, mugarriak herri horien lurrak eta urak mugatzen zituen eta. Bertan batzen ei ziren sorginak ere. Lehengo erromeriak bidegurutzeetan egiten ei ziren beti eta hemen ere domeketan erromeria egoten zen antzina, baina debekatu egin zuten. Lekuko baten aitari gonbitea egin ei zioten Txiboko Landara joateko. Baina bertan traizioren bat jazo zen, lekukoak ez daki esaten zer pasatu zen, baina argi dio traizioren bat pasatu zela han.

Txiboko Landan pasatutako istorio bakarra batu dugu. Bertan azaltzen da txerriak kanpora atera eta Txiboko Landara ihes egin ziotela, eta handik etxera bueltatu ezin zituen gizonaren pasadizoa. Txerriak Txibotik atera guran zebilela, bataren bat etorri zitzaion txerriak etxean zeudela esanez. Lehengoek esaten ei zuten Txiboko Landan gauza arraroak pasatzen zirela. Esaterako, etxera zaldiz zetorren goietar batek iluntasun handia sentitu eta berea baino handiagoa zen zaldia ikusi zuen alboan, sorginena izango zela esaten ei zuen.

> «Emen Goikomendiko bat, edade andiko, neure edadekok euki'txu, nietok euki'txu, atara selau kontuk. Ta Goikomenditxik, ba lelau txarri(k) kanpora botaten siren, ta txarri(k) pere korridu itxe'euren eta Txiboko Landara sertu saken, ta batan batek esa'utzela: –Pruden Txiboko Landan dekosus txarrik– esa'utzela. Ta etor sala txarrik bille Txiboko Landara, ta asi sala txarrik etzera eroten, ta eselan bere, esin eron... Ta gero desaparesidu'akosen ta, ta agertu'akosela, eta batan batek esa'utzela ia, zer itxen daun. Ta txarrik topaten. Ta etorteko etzera, txarrik etzen dausela. Ta yon sala etzera, ta txarrik etzen on sirela. (...) Ori Txiboko Landa, or lelaukok, seuser, olau gausak pasau sirela...»

Txiboko Landaren ondoan, Marutxeaga etxeari begira dagoen mendi bizkarrean, Armintzarantza doan bide zaharrak gurutzatzen duen *Zinbritxa* basoa dago. Eta baso horretan ba ei dago, zuhaitzek tiratzen diotelako, justuriak beti jotzen zuen lekua: *Zinbritxako hutsune* izenekoa. Justuriak jotzearen jotzeaz hutsunea eginda zegoelako esaten diote horrela lekuari.

Zinbritxa basomortu da lekukoen esanetan, inor ibiltzen ez den basoa.

Txiboko Landa eta Zinbritxako inguruak hartzen dituen Unpara etxetik, Marutxeagara, *leza* edo leize ugari dago. Bertan hil izan dira hamaika ganadu. Eta *lezatan* sugeak bizi dira. Egungo kaminoan, Ergoienetik etorrita, Txatximintza etxeetara sartzeko bidearen hurrengo bihurgunetik irteten den pistan eskumako bidea hartuta, *Artei* etxerantz, *Atxabaso* izeneko sakostara helduko gara. Munarri handiak eta haitz gutxiko basoa da *Atxabaso*, troka batean sartua, lur *argal-argalekoa*. Bideak sakosta inguratzen du eskumatik. Eta alde horretan, justu, errekatxo batek salatzen dituela, daude *sorgin-lezak*, urak egindako koba handiak. Bertan tunelak daudela diote ezagutzen dituztenek, baina tunelok ez direla gerra sasoian eginekoak. Eta sorgin-leizeetan *Sirpea* bizi ei da, sugetzar handi eta itzela. Orain dela laurogei urte inguru ikusi zuen akabuko aldiz Satur izeneko Marutxeaga etxeko morroi elgetar batek.

Amaitzeko, *Katiluzubi* aipatuko dugu, Jatabe eta Lemoiz arteko mugan dagoena. Geroago aipatuko ditugun pertsonaia mitologiko askoren agertokia zen. Bere ondoan koba bat ei dago.

MEGALITOAK ETA ALTXORRAK

Orain arte aipatu ditugun mugarri handi bereziez gain, badira Jataben antzinako gizakiek ipinitako harritzar handiak. Bakoitzari bere izenetik esaten zaio, eta lekuko-

ek ez dute erabiltzen guztiei esateko izen generikorik. Lekukoentzat misterioa da zelan ipini ote zituzten harritzarrak zutik eta egon izan diren lekuan. Argi daukaten bakarra zera da, beso askoren beharra izan zela. Gehienak hondatuta daude, lehengo ardi-txabolen eran, Jatan pinu eta eukaliptoa sartzeko apurtu zituzten. Beste batzuei berariaz eman zieten indusmakinekin buelta, azpian altxorra zeukatela eta. Baina inork ez du jakin esaten harriei buelta ematean ezer agertu zen ala ez. Aurreko ataletan aipatu ez ditugun megalitoen artean, multzo bi egiten dituzte lekukoek, *ardi oinetzaren marke* daukatenak, eta garaitikoak.

Euskaraz batzerik izan ez dugun lekukoen esaerak hala dio: *Jata oro y plata, y el ganado toca con la pata*. Jatan urre piloa ei dago lurperatuta, baina inork ez daki non. Lekukoen arabera, ardi oinatzaren marka daukan harriak urrea dauka azpian. Belaunaldietan bilatu dute urrea jatabearrek harrien azpian, baina inork ez du esaten ezer topatu duenik.

Jata barruan urrea eta ura ei daude. Eta Jatatxikerretik irten, Andraka Zabalak gurutzatu eta Butroiko Margaltza mendiraino doan lur azpiko erreka handi bat ei dago. Erreka horrek, ustez, zeharkatzen dituen hiru eremu horiek megalito, sorgin eta izaki mitologikoen agerpenarekin estu lotuta daude.

Urrearen esaundarekin lotuta agertzen da toponimo txikiren bat. Esaterako, *Lauziriko lande* izenekoa. Santakurtzeko landatik, ermita zegoen lekutik hirurehun metro gorago dago, gurutzetik Jatanagusiko antenara bidean. Eta antzinako txanpon baten izena dauka.

Arrizabale da lekukoek zutunik ezagutu eta indusketa makinekin buelta eman zioten megalitoetako bat. Ez ei ziren lagun biren artean ipintzeko moduko harriak. Jatatxikerraren azpian zegoen *Arrizabale,* gailurretik hur, gerrako trintxeren gainean. Hiru metroko altuera eta kotxe baten zabalera zeukala diote lekukoek. *Trugoi* eta *auri zaparrade* Arrizabaleren azpian igaro zitekeen, ezagutu zutenen esanetan.

Arriluze da erauzitako beste megalito bat. Lau metroko altuera eta auto baten zabalera zituen. Buelta eman zioten makinekin, azpian zer edo zer topatu guran. *Arrizabale* baino beheratxoago dago, gerrako trintxeren azpian, eta zertxobait Jatanagusirantzago. Txatximintxatatik begiratuta, eskumarago esango genuke. Elizaldetik Gauonerako pista Jatatxikerraren azpian dagoenean, Aspuru inguruan, hirurehun bat metro gorago zegoen *Arriluze*. Inguruko lursailak ere, Bastegiko txabola zeneraino doana, megalitoaren izena dauka.

Ardi oinatzaren markarik ez daukan, edo lekukoek ziurtatu ez diguten, beste megalito bat ere badago: *Zaldizuriko harrik* izenekoa. Zaldizuri Jatako troka bat da, bertan iturburua duena. Inguruko etxeetakoak bertara joaten ziren ur bila. Bastegiko txabola, Arriluze esaten zaion lur eremuarekin muga egiten duena, Zaldizurin dago. Beraz, orain arte aipatu ditugun hiru megalitoak nahiko hur dagoz elkarrengandik.

Zaldizurin, basoa ixten duten harri ilara zegoen, harresi modura. Lurrean inkatuta zeuden harriok, halako harresia osatzeko asko izan behar zutenak. Harri karratuak ziren, metro eta erdi-bi metro karratukoak. Lekukoen esanetan, harri guztiei forma bera eman, karkabak egin eta hor sartzeko lagun askok jardun behar izan zuten beharrean. Erdiko aldean zuloa ei zeukan harresiak, ate modura, eta ardiek handik egiten zuten bidea. Eskortak harriz egiteko antzinako teknika gogoratzen diete hainbat lekukori *Zaldizuriko harriek*, hala eta guzti ere harri asko eta handiak

zirela diote eskorta osatzeko. Elizaldeko pistatik, Artolako erreka baino lehentsuago beherantz 50 metrora ei zeuden harriak. *Terrenoan dibisinoa* markatzen dutela esan digu lekuko batek. Piztiarik ez zela gainetik pasatzen.

Honaino heltzen dira berriemaileek gizakiei ziurtasun osoz egozten dizkieten megalitoak. Baina hauekin batera, Jatako beste harri handi batzuk ere aipatu dizkigute. Ez dute uste gizakiak ipinikoak direnik, baina lekuko batek esan zigun eran: *mendittan gauza arrarok ikusten dozuz*.

Arrizuritxe edo Arrizurieta Jatanagusitik Markaidetarantz dago. Harri ugari egon zen han, orain oteak estaltzen baditu ere.

Arrimotza Markinarestiren gainean dago. Harri pilo bat da, ez soltea, baizik eta haitzez osatua.

Arrikirri edo *Arrikiri* toneladako harriak dira, baina lekukoen ustez ez dira inork ipinikoak. Markinarestitik Jatanagusiko aldetik dago *Arrimotza* eta beste aldetik *Arrikirri*, itsasoko haitzen modukoak.

ELIZETAKO ETA ERMITETAKO ERAIKUNTZA MATERIALAK LEKUZ ALDATZEA

Santa Kurtze ermita, San Lorentzo eliza eta San Juan Gaztelugatxekoarekin lotutako hiru esaunda batu ditugu. Hiruretan ipuinak eskema bera dauka, eta Euskal Herrian guztiz hedatua da. Guztietan, ermita edo eliza eraikitzerakoan, goizez egiten zen beharra gauez desagertu eta beste leku batean agertzen zen, edo ostu egiten zuten. Gauez harriak lekuz aldatzen zituztenak sorginak edo deabrua ziren, aldaeraren arabera.

> «*Ermitak egikeran egunez egiten zan beharra, gauez lekuz aldatutea entzun dozu?* Bai ori entzun dot, in gure estan lekun edo, estai ni(k) pa, demoniok kentze'usela arrik edo, edo faltaten direla edo. Olau esatek entzun doas. Gaues eron.»

San Juan Gaztelugatxeko ermitarekin lotutako esaundak dioenez, ermita egiteko goizean beharginek egiten zituzten beharrak galdu egiten ziren gauez. Beharra desegiten zutenak orraztoki baten sartuta ijitoek edo eskaleek saldu ohi zituzten izaki txiki batzuk ziren. Ezin izaten ziren oparitu, eta norberak erositakoa baino garestiago saldu behar ziren. Orraztokiaren jabeari beharra eskatzen zioten behin eta berriz, eta behar asko aginduta ere gehiago gura izaten zuten. *Parte txarretakok* edo *Erainek*, eraginak, urduriak, deitzen ei zieten. Lehenengo izenak gaueko izaki misteriotsu guztiei esateko generikoa da. Bigarrena, aipatzen gabiltzan izakiei zehazki zegokiena. Libre egoten zirenean handiak eta indartsuak egiten ei ziren. Azkenik, San Juan ermita altxatzeko egunez egindako beharrak bedeinkatzen hasi ziren. Eta horretara, *Erainek* ezin izan zuten eraikuntzan aurreratutakoa desegin.

FRAIDEAREN TXAKURRAK EDO ABADE KAZERUA

Lehengo jatabearrek esaten ei zuten, gauez fraidearen txakurren ahausiak entzuten zirela. Gauez, etxerako bidean, txakurren ahausiak entzun eta entzun egiten

ziren, baina inguruan txakurrik ez. Kaminoetako estoldetan ere entzuten ei ziren txakurren ahausiak, eta inguruan txakurrik ez. Halakoetan *fraiden txakurrek!* esaten zen, eta sano esaera erabilia ei zen.

> «*Ori fraillen txakurrena ta, ori entzun dosu iños?* Ori bere entzun dot sarri, sarrari. Ni yote(n) nintzen etxera gauen tabernati-edo, gauen belu eta txakur-ausik, eta korridu ta txakur-ausik, ta txakurrik es iñon. Eta txakur-ausik asma, fraille txakurrek. Dana txakur-ausi ta txakurrik es.»

Esate horrekin lotuta dago lekuko batek kontatu digun ipuina. Abade *kazerue* edo ehiztaria egon ei zen. Meza ematen zegoela, bere ehiza txakurren ahausiak igarri zituen eta erbi baten atzetik atera zen. Meza bertan behera utzi ei zuen, eta zigorra jaso zuen, beti erbiaren atzetik ibiltzea. Abadearen txakurrarenak dira, fraidearen txakurrak izenarekin ezagutu arren, gauetan txakur bako lekuetan entzuten diren ahausiak.

Lekukoek ez dute istorio bat bestearekin lotzen, baina biak bat dira[2], Euskal Herri osoan Mateo Txistu izenarekin ezaguna dena.

> «Entzun dot, abade bat, kaseru, ta mese itxitte erbiana yon sala. Kaseruk, txakur-ausik asmate'usela ta, itxi mese ta yon sala eskopeteas, ori bere entzute bakot.»

PERTSONAIA MITOLOGIKOAK

Iratxoak

Iritxok edo *iditxok* esaten zaie Jataben iratxoei. Txerrien edo txerrikumeen modukoak ei ziren eta gauez agertzen ziren beti. Katiluzubi eta Gasmuri etxearen ondoan antzina zegoen lastozko zubian, Andraka zabaletan, Andraka gainetan eta bidegurutzeetan agertu ohi ziren. Agian horregatik pentsatzen da zubien azpian bizi direla. Argi handi batekin agertzen ziren, jendea itsutu egiten zuten eta ihes egiten ei zuten gero. Jendeak buelta ematen zuen argiak itsututakoan eta orduan galtzen ziren. *Iritxok* kate hots eta txilinen zaratekin agertzen ziren, zarata horiek inguruan zebiltzan seinale ei ziren. Zubietatik, zein euren ondotik isilik eta eurei begiratu barik igaro behar da.

Iratxoek bide batetik joan behar zena hartu eta beste bide batetik eroaten zuten. *Iritxok, ba bide bateti yon ber danak, besteti eron itxen'txusela.* Iratxoek jendea noraezean uzteko gai zirela esan ohi da. Karraderan ihes egiten zuten herritarrek, etxetik hurbil zeudela eta, baina ez ziren sekula heltzen. Lekuko batzuek, ostera, iratxoei egozten zitzaien gaitasun hori iretargiari leporatzen diote. Iretargia da, horien ustez, jendeari norabidea galdu arazten diona. Iretargiak burua galdu arazi egiten ei

---

[2] KALZAKORTA, Jabier. "La mitología vasca a través de sus principales personajes" in *Curso de Etnografía vasca online*. 2009, 8. or.

du. *Iretargin kanbiora zeozek on ber dau*. Jatabe inguruan ere antzeko usteak batu ditugu, iretargitan egotea txarra dela, eta antzina umeei ez zitzaiela iretargitan, ilargiaren argipean, egoten uzten.

Iratxoen gainean batu ditugun kontakizunetan, euren eskuetan jausitako herritarrek ibilbide ezagunak egiten zituzten, ia egunerokoak. Hurrean bizi ziren senitartekoen etxeetatik bueltan, distantzia sano laburretan eroan dituzte iratxoek, batzuetan. Semearen etxetik edo auzoaren etxetik norberaren etxerako bidean eroan zituzten iratxoek andre bi. Gau osoa galduta eman zuten, euren etxea aurkitu ezinda, eta hurrengo goizean topatu zituzten. Iratxoek eroan ostean *argitu ezinik* lotu ziren, burua galduta moduan. Eta etxetik irten barik egon ziren, handik denbora gutxira hil ziren arte.

Gasmuri etxearen ondoan, Añeka erreka pasatzeko, antzina zegoen lastozko zubian aurkitu zituen iratxoak Erberako gizon batek. Baina halako kasuetan zer egin behar den jakitun zenez, ez zitzaion ezer txarrik gertatu.

> «Nire aittitteri urten i autzen, orrek pistik, txarriñ antzekok ixeten i siren, kanpanillekas ta yoten i siren, dana kanpanilla-otza. Iritxok... Bera etor san etzerantza, Gasmuriko atzen, edo ondon edo, an subi bet on san len. A subi esetu nun nik, lastokas ta intte, lastok ganen imintte'akosen... Eta bera etzerantza etorri i san, eta krusa iñ i akosen. Eta bera ya yakittun on i san len entzunte, aittu estakela in ber orreri. Aittu esakela in ber, se ordun sertute otzule. Baia bera beran biden yon i san, eta pasa sirenen buru okertu barik konta i usen, bedratzi yon i siren. Ta dardakadan aillega sala etzera bildurreas!»

Iratxoak bide lapurrak zirela uste dute lekuko batzuek. Katiluzubiren izen zaharretako bat *lapurzubi* da. Bakarlekua zenez, Uribe Kostako herriak eta Mungiako feria zein plazak elkartzen zituen puntu estrategikoan lapurreta ugari ei zegoen. Dirua gurdiko *irezpaten* gorde eta idi uztarriak bakarrik igarotzen ei zuen Katiluzubi askotan. Lapurrak bidera irtenda ere, gurdiak bakarrik zebiltzala ikusita, aurrera egiten uzten zieten. Jabeak, bitartean, goiko baso artetik egiten zuen bidea, pasatzen zebilenari adi. Azkenik, bakarlekua igarota elkartzen ziren uztarria eta jabea, eta diru eta guzti ailegatzen ziren etxera.

Kasu batean, ostera, argi batekin bidera atera zitzaion auzokoa ezagutu zuen andre batek *bendeje* salduta zetorrenean. Auzokoa ezagutu ei zuen, eta handik aurrera, erdi lelotuta eta beldur handiarekin bizi izan zen.

Beste lekuko batzuen esanetan, iratxoak, etxetik kanpo gauez eta parrandan ibiltzen ziren gizonek andrearen aurrean erabiltzen zuten aitzakia zen. Ez besterik.

Gau argi esaera lausoa erabiltzen dute lekuko batzuek iratxoei esateko, lehenago aipatutako ezaugarriak direla eta.

Laminak

Lamiñek esaten diete Jataben izaki misteriotsuoi. Mungierrota edo Mungigorta etxearen eta Ataune auzunearen artean, Lamitzeta erreka dago, sekula urik falta ez duena txikia izan arren. Bertako putzurik handienetan ez bainatzeko esaten zieten

umeei, bertan bizi ziren laminek itoko zituztela eta. Izan ere, Lamitzeta errekan berez eginekoak ez diren putzu itzelak ei daude. Katiluzubin, eta orokorrean, edozein erreka izkinatan agertzen ziren, bakarlekua bazen. Laminak gerritik gora andreak eta gerritik behera arrain izaten ziren. Erreka bazterretan, bakarlekuetan, urrezko orraziarekin ilea orrazten egoten ei ziren, apur bat mari-apainak ziren eta. Lamina baten ilea, sustrai eta guzti, errekara, uretara jausten bazen, suge bihurtzen ei zen. Beste lekuko batzuen arabera, edozein pertsonaren ilearekin gertatzen da hori.

> «Lamiñe, orixe bai, entzun dot. Aittu, selako gause dan, dala garris gorantza ixete les persone ta andi bera arraiñe dala. Eta seren egoten direla. Erreka sulotan sartute oten direla. (...) Estala yon ber errekara, se lamiñe(k) koxiko sittu te.»

Inoiz orrazia erreka bazterrean ahaztu zuen lamina batek, eta herriko andre batek hartu eta eroan ei zuen etxera. Lamina gauero agertzen ei zitzaion orraziaren eske. Atzenean, andreak orrazia topatu zuen lekura bueltatu eta ez ei zen berriro haren etxera laminarik joan.

Batzuen arabera gauez irteten ei ziren laminak. Eta elizari bulda ordainduz gero, ez ei ziren agertzen.

Ermitak eraiki zirenean desagertu ei ziren laminak.

Jentilak

Lekuko guztiek entzun dute *Jentil* berba, eta mendian edo basoan bizi ziren gizon handi eta indartsuak zirela esan digute. Bekoki erdian begia ei zeukaten eta hankak ahuntzenak. Kobazuloetan bizi ziren, arropa modura gona luzeak eroaten zituzten, eta hain ziren handiak, gure lekukoen guraso eta arteragokoek, inor handia zenean esan ohi zuten: *antzineko yentillek baiño handiagoa dok hori!* Metro bi ingurukoak ei ziren.

Jentilen gaineko ipuin bi batu ditugu. Batean Perutxu izeneko pertsonaiak postura jokatzen dio Jentilari, palanka nork azagoen bota. Perutxuren zuhurtziak irabazi zuen postura. Galtzaile, ostera, Salamancako familia zeukan Jentila izan zen.

> «Yentillek indertzuk ixen sirela, ta batak palanke bota eule estai nora Yentillek... *Zelan da hori?* Palanka bera yaurti Yentillek, gure aittittek kontate'un lenau. Perutxu ixen i san selebraduren bat, oingo kontun modun te, Perutxuk eta Yentillek desafio imi'eudela. Ta Yentillek bota'un palanke ori asau, ta Perutxu gero ba, ta Perutxuk: –*Ahí va la palanca hasta Salamanca*– esan i un. Ta bestek: –Es bota ararte se neu nas ango, ta geldi, geldi! Ta es bota!–. Ta an lotu'aule bota barik.»

Itxisi etxeko ondorengo batek bere izekoari entzundako beste ipuin bat batu dugu. Horretan, anaia biren istorioa kontatzen da. Bata onegia eta bestea txarra. Jentilen kobara joan ei ziren eta Jentilek gerriko bat eman zioten anaia txarragoari onegiari emateko. Onegia beharrean ibili zen oparia eman ziotenean, janzteko astirik ez, eta intxaur bati lotu zion gerrikoa. Handik sano gutxira, berez ebaki eta jausi zen zuhaitza.

Sorginak

Lekuko guztiek entzun dituzte sorginen gaineko kontuak. Euren aurrekoek zaletasun handiagoa zeukaten eurek baino halako gauzetan. Eta hainbatek sorginen gainean esaten zirenei erreparatzen ez bazieten ere, beste batzuek ondo akorduan daukate andre horien gainean esaten zena. Gauez pasatutako hainbat gauza arraroren atzean, sorginak zeudelako ustea ei zegoen lehen.

Lekukoen esanetan, sorginak barikuetan elkartzen ziren. Bariku eguerdiko hamabiak ei da unerik egokiena euren sorginkeriak egiteko. Ordu eta egun horretan batzen ei zirela entzun dute lekukoek. Eta horrekin lotzen dute barikuak izan duen izen txarra. *Bariku biko astea* esateraino zoritxarrez betetako asteari. Gehienen esanetan, batez ere gauez ibiltzen ei ziren sorginak, gaueko hamabietatik goizeko seietara. Sorginak *gauezkok* dira. Iretargia irteten zen gauetan irteten ei ziren sorginak ere, eta iretargi beteak jendeari eragin eta izaera aldatzen ei dio. *Orroztoki* edo orraztokia edukitzen zuten sorginek, eta euren orratza txikia eta fina zen. Orraztoki hori ijito edo eskaleek saltzen zuten, eta beti saldu behar ei zen erositakoa baino garestiago. Bertan *Erainek* edo Eraginak, urduriak, izeneko izakiak bizi ziren. Beti behar eske, libre zeudenean handi egiten ziren, San Juan Gaztelugatxeko ermita egin ez zedin ahalegindu ziren, eta beste inori saldu arte, ez zieten sorginei hiltzen uzten. Sorginek, aipatu ditugun pausoak eman eta hiltzeko, izara zuria ipintzen zuten etxe aurrean. Jata edo Sollube elurtuta daudenean, sorginen heriotzako izara zuriak aipatzen ziren antzina.

> «Sorgin bet *por ejemplo*, nik estakitx egongo badires espadires sorgiñe(k) pere, baia ixera bat edo seoser eskegi itxen deude, etzaurren edo sean, sera suri bet. Ta a itxen danen, iltten i da. Ta a ixere imintten deudenen, ya beste iltten da. *Orduan izerea iminkeran hilten da?* Bai se esin illik oten dires orre(k) sorgiñek. Ta baten emen abade batek, edurre amen Yataben ta or Goierrin, etze batera yon giñen gauen, ta an on giñen lagunek, ama ta neu ta sean ta... etor san abade, abisa san, ta i txusen beran erresuk eta gustik, eta olau baten diñost: –Erdu ona, aitxu, an ixera suri–. Ta nik entzute sorgiñe dala. Ta ixera suri ser ixen san? Nik bildurre yoteko portalera, an aurreko sean daule ixere pentzau, an aurreko alanbren daule ta. Ta Sollube ixen san suritxute on sana. Selau bildurre sartu i'austen basengis!»

Lekuko batzuen arabera, ostera, orraztokia sorginei aurre egiteko erabiltzen zen, sorginak etor ez zitezen. Etxeetan, zer edo zer galtzen zenean, sorginen bat ibili zela esan ohi zen.

Hainbat batzarleku eta dantzaleku eduki izan dituzte sorginek Jataben: Txiboko Landa, Ametzabarriko Landa, *Beditxeko* Landa, Treboleko Landa, Goikolanda, Landatxueta, Landatxikerre... Horiez gain *sorgin-lezak* daude, baina ez dugu batu han sorginik elkartzen zenik. Jatabetik kanpora, Erandioko Akarlandan batzen ziren sorginak. Leku entzutetsua ei zen sasoi batean.

Sorginek kalte egiten ei zieten gauez etxerako bidean ibili eta eurekin gurutzatzen zirenei. Esaterako, Andrakako erromeriatik etxera bueltan zetorrela, sorginek

bahitu eta bere burua Landatxuetan aurkitu zuen gizonaren kasua aitatu digute. Edo eta etxerako bidean abade bat segika zeukala, goizeko seietan bere burua Butroiko presan topatu zuen lagunaren kasua. Butroiko gazteluaren atzeko Margaltza mendian agertzen ei ziren sarri, Gatikatik Jatabera gauez joan eta inork zergatik ez dakiela bidean galtzen zirenak.

Treboletako Landan ere sorginek eurenak egiten zituzten. Lekukoen arabera, atsoak ibiltzen ei ziren bertan, gizonei ondo esaten zieten eta txikoan eroaten ei zituzten leku batetik bestera.

> «Atxiñe esakune ixete(n) san Treboletako landan sorgiñe(k) batzen direla. Ori esate'euren. *Zelan izaten zan hori?* Emen ausoko batek esate'un, emen Treboleko Landan oten direla atzok, a(k) pere seoser sorgiñena jakingo'aun. Eta ordun gixonari ondo esaten'tzela eta gixona(k) pere txikon eroten'txula alderri beteri bestera.»

Sorginek animalia bihurtzeko gaitasuna zeukaten. Baina animalia zirenean jasotzen zuten kaltea, gizaki itxurara bueltatzean igarri egiten zitzaien. Horren adibiderako, gauetan zaldi bihurtzen zen andrearen kontakizuna.

> «Pasa i san, gauen, arto arten saldi, ta kaguen ros! Lelango egunen ba usabak ikusi eta ikeratu i un saldi, ta saldik urte'iun, baia ostabere bigarren edo irugarren egunen saldi ostabere. Ta au saldi noñe ete da ba? Au saldi estos esetuten emetik eta... Ta arri koxi ta arries yo saldi, ta kadaran yo. Ta urrau egunen ori enbre koxarik.»

Ez ei zen jakiten nor zen sorgina eta nor ez. Horren erakusgarri, hona hemen, gauez etxera bueltan zetorrela, etxeko ahumea lepoan hartu eta pauso bakoitzean astunagoa begitantzen zitzaion gizonaren jazoera. Pisutsuegia zela eta ahumea muna batean utzi zuenean, bere etxeko morroia zela konturatu zen.

Eibarko arma fabrika sortu zenean desagertu ei ziren sorginak.

Anbotoko Señora eta Ama Birjinaren agerpenak

Lekuko guztiek entzun izan dute etxean *Anbotoko Señorea* aipatzen. Batzuek etxean, eta beste batzuek Urkiolara egindako autobus bidai edo oinezko erromesaldietan. Anboto mendi gainean zuriz jantzita ateratzen zela entzun izan dute batzuek. Urkiolara egindako osteratxoetan atera izan ei da gaia sarritan. Erdi broman oihuka esaten ei zen: *Han dau Anbotoko señore!*

Lekuko batzuek diote euren gurasoei entzun izan dizkietela Anbotoko Damaren inguruko esanak, baina ez ei zieten kasu handiegirik egiten.

Batzuek diote andre eleganteren bat izan behar izan zuela, izan ere, andreren bat elegante jantzita joaten zenean, *aitxu Anbotoko Señore* esaten ei zitzaion.

Mendian bizi zela entzun dute beste batzuek. Umetan, suete erdian zeudenean, eta nonbaiten erdi-erdian, inori traba egiten, esaten ei zen: *Hor zauz erdin, Anbotoko señoren modun, ez batera, ez bestera!*

Lekuko batek, izekoari entzun zion zelan Anboton sorgina zegoela, eta gizonei bidean irten eta larrutan egiten ei zutela.

Berri urri hauei gehitu behar genieke Urdulizen Anbotoko damaren gainean batutako datua. Izan ere, Anbotoko *señore* Urdulizen zerutik hegan igarotzen zen Armintza inguruko mendietan ei daukan etxera.

Anbotoko Damari *Nuestra señora de Anboto* esan izan dio lekuko batek ere, eta Ama Birjina dela esan. Izan ere, Anbotoko Dama zuririk Anboton agertzen zela esaten zen Jataben, eta lekuko askok ez du bereizketa argirik egiten. Gai batetik bestera erraz egiten dute salto, ia konturatu barik.

Zuriz jantzitako Ama Birjinaren agerpenak batu ditugu, Anbotoko Señoragatik itaunduta. Jatabeko *bendejere* asko Gorlizera plazara joaten zirenean, Fano mendian, Ama Birjina agertzen ei zen gauez, zuririk jantzita. Auzo batek beste bati kalte egin eta Ama Birjina agertu zitzaion errudunari, bestearen alde eginez. Izara zuriz jantzitako auzokoren bat izango zela uste dute batzuek.

Aingeruak eta arimen agerpenak

Heriotza errituen barnean aztertu ditugu hildakoen arimaren, promesen, heriotzaren iragarpenaren eta agerpenen inguruko hainbat gauza. Orain, heriotza ohikuneekin lotuta baino, kontakizun modura batu ditugun alor bereko beste istorio batzuk agertuko ditugu.

Esaterako, ospetsua izan zen, Gatikako elizaren ondoan, plazara ortuariak saltzera zihoazen andreei *Aingeru Guarde* ateratzen zitzaiela, zuririk jantzita. Hango gizon batek esan ei zuen, *arin jakingo du Aingeru Guarde bada edo ezpada*. Eta txakurrarekin ostendu zen Guardako Aingeruari itxaroten. Agertu zenean txakurra askatu zuen, eta sasi-aingeruaren izara zuria zati-zati egin zuen. Azpian ostentzen zen gizonak justu-justu egin ei zuen ospa.

Promesaren bat bete barik hiltzen zirenak, arima moduan agertzen zitzaien biziei. Edo uste hori egon izan da, sikiera, gure lekukoen eta euren aurrekoen artean. Senitartekoei irteten ei zitzaizkien arimak, euren aldeko mezak atera zitzaten.

Sinesmen horrekin lotuta Gorlizko mutil baten kasua batu dugu. Bere aitari agertzen ei zitzaion hil ostean. Edozein lekutan agertzen ei zen, estratatan, etxean... Aitari esaten ei zion beste munduan zegoela, baina txarto zegoela bertan. Beste mundura joateko ahaleginik ez egiteko eskatzen zion aitari, berez joango zela eta.

Gauean, etxeko suetera ei doaz aingeruak dantza egitera, etxearen gaineko atalean azaldu denez.

Arimen agerpenekin batera batu dugu *brujo* edo azti baten gaineko berria. Etxeren bateko ganbaran ei zeukan bere logela. Gauez arimak agertzen ei ziren aztiaren logelan.

Bestalde, heriotzaren zantzuen gainean jardun orduan aipatu dugu arimak agertzearena, hodei beltz modura arka batetik irtendakoak, zein Andra Mariaren itxurarekin logelako horman agertu izan direnak, zuririk jantzita. Beti ere, senitarteko hurbilen baten heriotzaren berri emateko.

Inoiz, agertutako arimek eskua emateko eskatu ei dute. Halako eskea onartu izan zutenei eskua erreta eta markatuta ixten zieten. Horrexegatik, ustea da, arimei, eskua emateko eskatuz gero, zapia eman behar zaiela, ezpabere, bizidunaren eskua erreko dute eta. Bada ezaugarri hori iratxoei egozten dienik ere.

Beste batzuk

Txotoporro eta deabrua

Lekukoen esanetan, *txotoporro* esaten zaio deabruari euskaraz. Umeei *Txotoporro baino okerragoa zara!* esaten zitzaien. Deabrua iretargian ikus litezkeen formetan ei dago eta zotz-sardearekin etorriko zela esaten zen, iretargian itxura horrekin ikusten zuten eta. Txotoporrok haginak handi, adar itzelak, begi itzelak eta buztan lumatsua zituela esan ohi zen, batez ere, umeak ikaratzeko. Armintzan, fraka eta tunika gorria jantzita, txotoporro mozorrotzen ei ziren. Elizak eraikitzerakoan harriak gauez mugitzea leporatzen zitzaion, beste batzuen artean, deabruari.

> «Olan esate(n) oskuen guri, Txotoporrok agiñek andik eta adarrak itzelak, eta begi(k) pere andik, eta gero gastek, geu(k) pere dekusen baiño andiaues aditxuten geuntzen, entzuteko bere ser diñoskun. Olan ixeten san bai. *Hori bildurra sartzeko esaten eutsuen?* Bai, bildurre itzela. (...) Euskeras demoniño esateko Txotoporro nik entzun dot beti. (...) Guk gastetako..., ikeratuteko fantasme Txotoporro ixen gendun sati bet. Txakur amorretu eta Txotoporro, orre(k) biek. *Ordun horrek begi eta adar handiak daukaz?* Bai ori esate(n) oskun, eta bustena bere estai selau lumetxu-lumetxu i deko ta...»

Papau

Umeak beldurtzeko esaten zitzaien Papau gauez etorri eta eroango zituela. Umeak etxera berandu ez bueltatzeko esaten ei zen.

Sacamantecas

Pertsonaia honi XIX. gizaldi amaieran eta XX. hasieran prentsak zabaldutako Araba eta Bartzelona inguruko gertakizun batzuek eman zioten izena. Eta Jatabeko umeak beldurtzeko erabiltzen zuten bere izena gurasoek.

Sacamantecasek umeak bahitzen ei zituen, gantzagiak eta giza gorputzeko organoak kendu eta aberatsei saltzeko. Gauez ibiltzen ei zen. Sacamantecas kotxez etortzen zela esaten zuten; hori zela eta, Jatabeko umeek beldur itzela hartu zieten autoei. Batu dugu kasuren bat, umeari beldurra eragin barik, Sacamantecas ezagutzeko gogo itzela sortu zitzaiona.

BILBLIOGRAFIA

AMURIZA, Xabier. *Bizkaiko Bertsogintza Izengabeak I.* Bilbao: Kulturgintza, 1995.

ARREGI, Gurutzi. *Ermitas de Bizkaia*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia; Instituto Labayru, 1987.

AZKUE, Resurrección Mª de. "Erostaak eta erostariak" in *Euskalzale.* Nº 46. Bilbao: Euskalzale, 1897.

— *Música popular vasca.* Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas, 1919.

BARANDIARAN, Jose Miguel. "Paletnografía vasca" in *Euskalerriaren alde*. X. San Sebastián: Martin Mena y Comp., 1920.

— "Contribución al estudio de los establecimientos humanos y zonas pastoriles del País Vasco" in *Anuario de Eusko Folklore*. VII. Vitoria: 1927.

— "Sobre las antiguas religiones de los vascos" in *Obras Completas*. V. Bilbao: Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

— "Le calendrier traditionnel de Sare: Renseignements généraux" in *Obras Completas*. V. Bilbao: Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

— *Diccionario de mitología vasca.* Donostia: Txertoa, 1984.

— *Curso monográfico de Etnología vasca.* Ataun: Fundación Jose Miguel de Barandiaran, 2000.

— *Eusko-folklore materiales y cuestionarios*. I. Alea. Ataun: Fundación Jose Miguel de Barandiaran, 2006.

CARO BAROJA, Julio. *La estación de amor: (fiestas populares de mayo a San Juan).* Madrid: Taurus, 1979.

— *Los pueblos del norte de la Península Ibérica.* Donostia: Txertoa, 1973.

CHEVALIER Jean; GHEERBRANT, Alain. *Diccionario de los Símbolos.* Barcelona: Herder, 1991.

ERKOREKA, Anton. "Herri-Medikuntza" in *Euskal Etnografiaren online ikastaroa*. Labayru Ikastegia; Eusko Ikaskuntza; Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2009.

ETNIKER EUSKALERRIA. Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia.* Bilbao: Etniker Euskalerria; Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Pamplona: Gobierno de Navarra, 1998.
— Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Ritos funerarios en Vasconia*. Bilbao: Etniker Euskalerria; Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Pamplona: Gobierno de Navarra, 1995.
— Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Medicina popular en Vasconia*. Bilbao: Etniker Euskalerria; Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Pamplona: Gobierno de Navarra, 2004.
FERNÁNDEZ, Margarita. "Medicina popular navarra" in *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía.* XIV. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997.
KALZAKORTA, Jabier. "Erronda-kantuak eta eske-bertsoak" in *Euskera*. 48. zenb. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003.
— *Dantza-kopla zaharrak.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 2007.
— "La mitología vasca a través de sus principales personajes" in *Euskal Etnografiaren online ikastaroa*. Labayru Ikastegia; Barandiaran Fundazioa; Eusko Ikaskuntza, 2009.
KEREXETA, Jaime de. *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1992.
— *Gure salbazino egintza.* Bilbao: Ascea, 1967.
MICHELENA, Koldo. *Fonética Histórica Vasca*. San Sebastián: Seminario Julio de Urkijo, 1976.
— *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao: Euskaltzaindia, 2005.
OAR-ARTETA, Jose Antonio. *Zaar-barri*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1991.
OAR-ARTETA, Segundo. "*El pastoreo en Bernagoitia y Garai (Bizkaia)"* in *Etniker Bizkaia 11.* Derio: Labayru Ikastegia, 1999.
— "Pastoreo tradicional" in *Euskal Etnografiaren online ikastaroa.* Labayru Ikastegia; Barandiaran Fundazioa; Eusko Ikaskuntza, 2009.
OTEIZA, Jurgi. *Quousque tandem...!* Iruña: Pamiela, 1993.
URZAINQUI, Tomás; OLAIZOLA, Juan Mª. *La Navarra marítima*. Pamplona: Pamiela, 1998.